Anejos del *Anuario del Seminario de Filología Vasca 'Julio de Urquijo'*, LXVII

LUIS MICHELENA

OBRAS COMPLETAS

al cuidado de
Joseba A. Lakarra e Iñigo Ruiz Arzalluz

XIV

Escritos autobiográficos y literarios. Traducciones
Actualidad política y cultural
Entrevistas
Crítica de cine
Cuestiones históricas y culturales

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Seminario de Filología Vasca 'Julio de Urquijo'
Diputación Foral de Gipuzkoa
Universidad del País Vasco
San Sebastián y Vitoria

'Julio Urkixo' Euskal Filologia Mintegia
Gipuzkoako Foru Aldundia
Euskal Herriko Unibertsitatea
Donostia eta Gasteiz

2011

LUIS MICHELENA

OBRAS COMPLETAS

Retrato de Koldo Mitxelena (Eduardo Chillida, 1970)

Anejos del *Anuario del Seminario de Filología Vasca 'Julio de Urquijo'*, LXVII

LUIS MICHELENA

OBRAS COMPLETAS

al cuidado de
Joseba A. Lakarra e Iñigo Ruiz Arzalluz

XIV

Escritos autobiográficos y literarios. Traducciones.
Actualidad política y cultural
Entrevistas
Crítica de cine
Cuestiones históricas y culturales

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Seminario de Filología Vasca 'Julio de Urquijo'
Diputación Foral de Guipúzcoa
Universidad del País Vasco
San Sebastián y Vitoria

'Julio Urkixo' Euskal Filologia Mintegia
Gipuzkoako Foru Aldundia
Euskal Herriko Unibertsitatea
Donostia eta Gasteiz

2011

CIP. Biblioteca Universitaria

Michelena, Luis

Obras completas. XIV, Escritos autobiográficos y literarios ; Traducciones ; Actualidad política y cultural ; Entrevistas ; Critica de cine ; Cuestiones históricas y culturales [Recurso electrónico] / Luis Michelena ; al cuidado de Joseba A. Lakarra e Íñigo Ruiz Arzalluz. – Datos. – [Leioa] : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea. Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2026]. – 1 recurso en línea: PDF (596 p.). – (Anejos del Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"; 67)

Ed. electrónica de la ed. Impresa (2011)

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN: 978-84-1319-725-8

1. Michelena, Luis, 1915-1987. 2. Literatura vasca. 3. Euskara (Lengua) I. Lakarra Andrinua, Joseba, coed. II. Ruiz Arzalluz, Iñigo, coed.

(0.034)809.169

En la corrección de este volumen décimocuarto de las *Obras completas* de Luis Michelena han participado Arantza Bilbao, Ariane Ensunza y Urtzi Reguero

Imagen reproducida en la página iv: Eduardo Chillida, «Retrato de Koldo Mitxelena».
© Zabalaga-Leku, VEGAP, Vitoria, 2010

© Joseba A. Lakarra e Iñigo Ruiz Arzalluz

© Seminario de Filología Vasca 'Julio de Urquijo'

© Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa

© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco /
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-1319-725-8

ESCRITOS AUTOBIOGRÁFICOS Y LITERARIOS. TRADUCCIONES. ACTUALIDAD POLÍTICA Y CULTURAL

ENTREVISTAS

CRÍTICA DE CINE

CUESTIONES HISTÓRICAS Y CULTURALES

ÍNDICE

I. Escritos autobiográficos y literarios. Traducciones. Actualidad política y cultural 1

1. Notas indiscretas (1962) 3
2. Azken ordukoak (1972) 7
3. Aspaldiko berriak (1973) 37
4. Gipuzkoarra naiz / Soy guipuzcoano (1987) 41
5. Bertso berriak, donostiarren garaipena dala-ta jarriak (1940) 47
6. Oscar Wilderen *Erraldoi berekoia* [Kontu kontari] (1954) 51
7. A. Txejoven *Guraso zintzoa* [Kontu kontari] (1956) 57
8. *Motivo español* (1977) 63
9. Euskal literaturaren etorkizuna (1951) 75
10. Asmo berri (1954) 81
11. *Euzko-gogoa* eta *Euskera* (1956) 83
12. Hizkuntzak Galesen (1957) 91
13. Asaba zaharren baratzea (1960) 97
14. Gajes del oficio (1964) 113
15. Más allá de toda polémica (1965) 119
16. *Pro domo* (1970) 121
17. De los vascos y de su carácter (1972) 139
18. «Triste bizi naiz eta hilko banintz hobe» (1973) 153
19. Allende dela eta (1973) 157
20. «Dama batek jartzia orrenbeste lege…» (1974) 161
21. «Gizona abilla da, badu pantasiya» (1974) 165
22. *Sei idazle plazara* (1975) 169
23. Desde Salamanca… (1975) 173
24. «Jaioko dira berriak» (1977) 179
25. Unibertsitatea eta irakaskuntza gure artean (1977) 185

26. Universidad y distrito universitario (1977) 197
27. Glosas emilianenses (1977) 201
28. De prosa y versos (1979) 203
29. Intolerancia y antiestatutismo (1979) 211
30. La universidad vasca (1980) 215
31. Nuestra irresistible ascensión de la poesía a la ciencia (1981) 225
32. Acuse de recibo (1982) 241
33. Una inquietud y algunas preguntas (1982) 249
34. *[Doctor honoris causa,* Bordeaux 1982] Réponse de M. Michelena Elissalt (1982) 257
35. [Ossian-Preis 1983] (1984) 263
36. Bigarrengo adabakiak (1984) 271
37. *[Doctor honoris causa,* Barcelona 1983] Reflexions retrospectives (1988) 279
38. [Eduardo Txillidaz] (1975) 289
39. Eduardo Txillidari / A Eduardo Chillida (1976) 293
40. P. Volboudt, *Txillida* (1967) 299

II. Elkarrizketak 325

1. Orixe gure artean (1954) 327
2. Escudero maisuak esan digu [Berriketan] (1955) 329
3. Pio Barojak esan digu [Berriketan] (1955) 333
4. Estellako Aita Hilario Olazaranek esan digu [Berriketan] (1955) 337
5. Migel Anjel Alvarezek esan digu [Berriketan] (1956) . . . 343
6. Migel Castellsek esan digu [Berriketan] (1956) 347
7. Santiago Carrerok esan digu [Berriketan] (1956) 353
8. Etxekoekin hizketan [Berriketan] (1957) 359
9. Aita Placido Mujikak esan digu [Berriketan] (1957) 365
10. Elgarresta jaunak esan digu [Berriketan] (1958) 373
11. Arnald Steiger irakasleak esan digu [Berriketan] (1959) . 377
12. Jurgi Oteitzak esan digu [Berriketan] (1959) 381
13. Iruñetik [Berriketan] (1960) 387

III. Zinema 393

1. Denbora bateko zinema paperak (1981) 395
2. *[Egan* 1954, 2-4] 399
3. *[Egan* 1955, 1-2] 403
4. *[Egan* 1955, 3-4] 409
5. *[Egan* 1955, 5-6] 413
6. *[Egan* 1956, 1] 419

7. *[Egan* 1956, 2] 423
8. *[Egan* 1956, 3-4] 425
9. *[Egan* 1956, 5-6] 429
10. *[Egan* 1957, 1-2] 433
11. *[Egan* 1957, 3-4] 437
12. *[Egan* 1957, 5-6] 441
13. *[Egan* 1958, 1-2] 443
14. *[Egan* 1958, 3-6] 447
15. *[Egan* 1959, 1-4] 451
16. *[Egan* 1960, 1-2] 455
17. *[Egan* 1961, 1-3] 459

IV. Cuestiones históricas y culturales 463

1. J. M. Barandiaran, *El hombre prehistórico en el País Vasco* (1953) 465
2. Guipúzcoa en la época romana (1956) 467
3. Romanización de Guipúzcoa (1972). 493
4. La ciudad perdida (1961) 497
5. J. Caro Baroja, *Vasconiana* (1957). 501
6. J. M. Lacarra, *Vasconia medieval* (1957) 503
7. V. Fairén, *Facerías internacionales pirenaicas* (1957). 507
8. I. Arocena, *Oñacinos y gamboínos* (1960) 509
9. M. Ciriquiain Gaiztarro, *Los vascos en la pesca de la ballena* (1961) 511
10. Horca y cuchillo (1960) 515
11. V. Amézaga, *Hombres de la Compañía Guipuzcoana* (1963) 519
12. A. Destrée, *La Basse Navarre et ses institutions de 1620 à la Révolution* (1959) 521
13. La oriundez vizcaína de José de Cadalso (1954) 523
14. Euskara eta iberikoa [Adabakiak] (1965) 525
15. Hitz bitan / En dos palabras: E. Bozas Urrutia, *Nere herriaren ibillaldiak eta gorabeherak / Andanzas y mudanzas de mi pueblo* (1976) 527
16. Los renterianos y la literatura en lengua vasca (1952) . . . 537
17. Otra vez… Cristóbal de Gamón (1964) 545
18. Iztueta y Rentería (1963) 549
19. Semana Santa en Rentería (1959). 553
20. L. P. Peña Santiago, *La 'argizaiola' vasca* (1964). 557

Índices. 559

ABREVIATURAS

ASJU	*Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo».*
BAP	*Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País.*
BIAEV	*Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos.*
BRAE	*Boletín de la Real Academia Española.*
BRAH	*Boletín de la Real Academia de la Historia.*
BSL	*Bulletin de la Société de Linguistique de Paris.*
DCELC	J. Corominas, *Diccionario crítico etimológico de la lengua castellana,* Madrid 1954-1957, I-IV.
DRA	*Diccionario Retana de autoridades de la lengua vasca…,* Bilbao 1976 ss.
ELH	*Enciclopedia lingüística hispánica,* Madrid 1960.
EN	*Koldo Mitxelena entre nosotros,* A. Lertxundi ed., San Sebastián 2001.
FHV	L. Michelena, *Fonética histórica vasca,* San Sebastián 1961 (2.ª ed. 1977).
FLV	*Fontes linguae Vasconum.*
GA	*Koldo Mitxelena gure artean,* A. Lertxundi ed., Donostia 2001.
LH	L. Michelena, *Lengua e historia,* Madrid 1985.
MEIG	K. Mitxelena, *Euskal idazlan guztiak,* Donostia 1988, I-IX.
MIH	*Mitxelenaren idazlan hautatuak,* P. Altuna ed., Bilbo 1972.
PT	L. Michelena, *Palabras y textos,* Vitoria 1987.
PV	*Príncipe de Viana.*
REL	*Revista de la Sociedad Española de Lingüística.*
RFE	*Revista de filología española.*
RIEV	*Revista internacional de los estudios vascos.*
RLPhC	*Revue de linguistique et de philologie comparée.*
SHLV	L. Michelena, *Sobre historia de la lengua vasca,* San Sebastián 1988, I-II.

TAV	L. Michelena, *Textos arcaicos vascos,* Madrid 1964.
ZP	K. Mitxelena, *Denbora bateko zinema paperak (1954-1961),* I. Mujika Iraola ed., Donostia 2006 [1. ed. Bilbo 1981].

I

ESCRITOS AUTOBIOGRÁFICOS Y LITERARIOS
TRADUCCIONES
ACTUALIDAD POLÍTICA Y CULTURAL

1

NOTAS INDISCRETAS

Siento dar la lata con el relato sin interés de mis pequeñas desgracias personales, pero me cabe alguna disculpa porque, puesto en el difícil trance anual de manufacturar unas líneas para nuestra revista, no se me ocurre otra salida. Y, como siempre hay precedentes clásicos para justificar cualquier barbaridad, me acogeré al patrocinio de nuestro Xenpelar que cultivó brillantemente (recuérdese «Mutil-zarraren bizitza» o «Andre txarraren bentajak») el género tradicional de los oficios o estados. Lo malo es que a mí me falta ingenio para componer versos, además de oído y voz para cantarlos, por lo que no me queda otro medio de expresión que la prosa cotidiana.

No intento echar el agua fría del desengaño sobre la cabeza de algunos de los posibles jóvenes renterianos que sientan una decidida vocación por la lingüística. Los lingüistas puros, a juzgar por lo que uno oye, pululan por los Estados Unidos y por la Unión Soviética, para citar dos países extremos, pero no parecen encontrar terreno propicio entre nosotros, tal vez por razones de infraestructura. Por eso, aun en los raros casos de clara inclinación, uno tiene que buscarse recursos suplementarios en campos más o menos afines, como la filología, la crítica literaria, etc., si no escribe novelas o comedias de sabia construcción, pero de escaso éxito. No hay, pues, mayor motivo para que esta confesión no sea sincera.

Un lingüista es, en primer lugar, una persona que suele decepcionar a sus conocidos cuando llega el momento de prueba. La gente piensa, no sin alguna razón, que un lingüista, por definición,

---

Oarso 1962, 12.

sabe lenguas: es decir, que sabe entenderlas y hablarlas en cantidad como el intérprete de un gran hotel. Ahora bien, no sé lo que pasa exactamente con los intérpretes, cuyos conocimientos acaso se exageran, pero todo el que ha asistido a un congreso de lingüistas ha podido comprobar que las dificultades con que tropiezan sus miembros para hacerse comprender mutuamente son, con toda seguridad, mayores que las que encuentran los asistentes a una reunión internacional de peluqueros de señoras. No hay, desde luego, inconveniente en que los iniciados sepan esto: lo malo es que a veces también llegan a enterarse los no iniciados.

Hace cosa de un año, unos amigos me arrastraron, a pesar de mis protestas —que atribuían sin duda, bien sin razón, a una modestia excesiva—, a acudir en socorro de un artista de circo, encallado en Rentería por falta de fondos. Pero el experto en cuestión —a pesar de sus habilidades como contorsionista, malabarista o danzarín en la cuerda floja, porque no llegamos a concretar ese detalle— sólo podía añadir tres cortas frases de italiano a su alemán nativo, con lo que el resultado de la entrevista fue aproximadamente el siguiente: la merma definitiva de mi prestigio, una considerable inversión de energía gastada en el lenguaje primitivo de la mímica, envuelta en sonrisas que trataban de ocultar la ferocidad de los sentimientos, y dos conferencias con Madrid puestas desde mi casa. Como compensación, obtuve la promesa —que posiblemente entendí mal porque fue hecha en alemán— de unas entradas para los niños cuando el circo viniera a San Sebastián. La factura de la Telefónica llegó con la puntualidad de siempre, y también llegó el circo, aunque bastante más tarde: las que no vinieron nunca fueron las entradas.

Lo cierto es que un lingüista puede saber, por mal informado que esté, bastantes cosas sobre bastantes lenguas —vivas, muertas y algunas putrefactas, como suele decir un amigo mío—, pero eso no significa que domine prácticamente ninguna, como no sea la que posee desde niño y habla con fluidez y soltura, si no es tartamudo, cosa que también sucede alguna vez. Incluso para traducir un escrito, su posición puede no ser muy distinta de la del clásico chico de bachillerato en posesión de un saber completo de las declinaciones y conjugaciones latinas que, enfrentado con un texto, pide ayuda al cielo, hojea febrilmente un grueso diccionario, se lía la manta a la cabeza y traduce (ejemplo casi literalmente auténtico) «Los cartagineses violaron en una fosa a veinte mil legiones

del planeta Marte». Siento un cordial agradecimiento por el profesor Chikobava de Tiflis, optimista incorregible, que me ha enviado importantes trabajos redactados en georgiano. Un día que andemos mejor de fondos habrá que comprar un atril donde colocarlos, a semejanza de aquel famoso en que el Petrarca adoraba su Homero griego, a falta de poder leerlo.

Con todo, pensará alguno, si los lingüistas no pueden asombrar a sus convecinos por su dominio práctico de varias lenguas modernas, podrán al menos inspirarles un cierto respeto a causa del misterio de sus conocimientos especializados. Esto, sin embargo, tampoco sucede, y por una razón sencilla. Las partículas elementales o las nebulosas espirales están envueltas para la mayoría de nosotros en un secreto inescrutable que preferimos acatar con reverencia antes que explorar imprudentemente. Aun bajando de la ciencia al arte —aunque noble— de la medicina, no somos pocos los que lo tratamos habitualmente con una ligereza volteriana. Pero, en cuanto las cosas empiezan a andar mal en nuestro interior, escuchamos al médico que hemos llamado con urgencia con el mismo temor religioso con que a orillas del Limpopo contemplan las piruetas del brujo exorcista de demonios. Claro es que somos legión, con la probable excepción de los carniceros, los que sólo tenemos nociones borrosas acerca de la situación del bazo, para no hablar del apéndice xifoides, suponiendo que tal ente pueda existir en parte alguna. Pero el lenguaje, caramba, todos sabemos lo que es, ya que venimos usándolo desde niños, y no vamos a consentir que ningún petulante maestrillo venga a darnos lecciones sobre él.

Y, si sabemos lo que son las lenguas, también creemos saber cómo cambian en el tiempo y en el espacio. De aquí que si un lingüista tiene la mala ocurrencia de mencionar ante personas cultas y bien informadas por lo general lo que le parecen hechos evidentes, todo el mundo se le queda mirando como si estuviera enunciando paradojas por el estilo de «La Naturaleza imita al Arte» o «No es lógica lo que les falta a los locos, sino lo que les sobra».

Habrá que dejar para otra ocasión el relato de por qué todo esto es todavía peor cuando la lengua en cuestión es la lengua vasca. Esperemos que entretanto, con todo un año de por medio, se me venga a la imaginación un tema más risueño y menos aburrido.

2

AZKEN ORDUKOAK

Liburuxka honetan agertzen dira, adiskideren eskuz bilduak, ur- 365
teen buruan argitara ditudan zenbait izkribu. Ez nolanahi ere, baizik eta, bat edo beste bederen, ohar ikasiz apainduak, Sibiliako Isidororenak, Idelpontxo Toledokoarenak edo *De rerum natura*-ko testuak argitara ohi diren bezala. Aretino gaizki-esaleaz oroitu naiz, idazlanak ez ezen, ia-ia neure burua bera ere horrela gantzuturik eta urrindurik ikusi dudanean. Oraindik, dakidanez, hilurren ez nagoelarik, gainera.

Idazlanak bestek hautatuak dira, neronek horrela nahiago nuelako, inoren begia zorrotzagoa izaten baita bereizketa horietan norberarena baino. Ez dut, haatik, deus ukatzen: hautatu dituenak hautatu ditu, baina, idatzi, nik idatzi nituen. Zeuden zeudenean datoz berriz, hutsik ere zuzendu gabe.[1]

MIH 365.-401. or.; *MEIG* VIII, 151.-185. or.; *EN* 347.-381. or.; *GA* 297.-325. or. [Ohar bedi lan hau dela egileak *MIH* liburuari jarri zion epilogo modukoa. Pasarte aukeratu batzuk honako aldizkari honetan ere argitaratu ziren, «Kontu kontari» izenburuarekin: *Muga* 24 (1982), 84-89; *ib.* 63 (1988), 60-65].

[1] Bi behintzat topatu ditut, aski nabarmenak. *Cours de linguistique générale* delakoa 1916an, ni jaio berri nintzela, argitara zuten; Cantor, bai, dirudienez, 1918an hil zen. Bada aldea, nik esaten dudana gorabehera, Oihenarten *Notitia*-ren lehen argitaralditik bigarrenera, eta euskarari dagozkion gaietan hain zuzen. «Pro domo»-n ⟦*Egan* 1970, 11-26⟧ zenbait lerro kendu ditut. Garate jauna eta ni mokoka ari gara aspaldian, baina *Lingua e stile*-n aurki agertuko den artikulu batean aitortzen dudanez ⟦«Guillaume de Humboldt et la langue basque», *Lingua e stile* 8 (1973), 107-145⟧, maiz erabili behar izan ditut haren lanak, batez ere Humboldt eta Humboldten garaikoen berri jakiteko.

366 Itxura, noski, aldaturik dakarte. Ortografia behialakoa baino moldakaitzagoa, jakina, dakizkizuen arrazoiengatik; mintzaera ere, zenbait axaleko puntutan bestelakotua. Guztiori bateratua balego, bederen! Bizpahiru aldiz ukitua izan den arren —edo, agian, ukitua izan delako—, ez dator beti bat bere buruarekin, ezta ere azken-azkeneko soinekoz jantzirik. Ez dut uste gehiegi ardura duenik. Ni ez naiz eredutarako jaioa, eta hoberik aurki dezake irakurleak bazterretan.

* * *

Zuen baimenarekin, eta ez dizuet ukatzeko egokierarik utzi, neure buruaz zerbait esan nahi nuke. Urtean bederatziren bat hilabete Euskal Herritik kanpora ematen ditudanez gero, beldur naiz zenbaiten gogoan, itzalik gabeko izena hor nik nahi baino maizago agertzen baita, ez ote dudan ez dagokidan itxurarik. Zaharrago eta hitz-jarioago izaten omen gara, gainera.

Etxetik hasiko naiz kontu kontari. Aita xextogintzan aritzen zen Goiko kale zaharrean. Ez dut nik horretan batere merezimendurik; bere eskuko zen, gainera, bere gain ari zen langilea. Ez dakit, beraz, ez ote dugun burges ttipitzat jo behar, zenbaiten iritzien arabera. Burges ttipitzat ez ezik, irabazten zuenaren neurrian, baita burges ñimiñotzat ere.

Maiz aski esaten zuenez, zatarzar-biltzaile bihurtzea izan zuen betiko ametsa. Horrelakorik gerta zekigukeela pentsatze soilak buruko ile guztiak lazten zizkidan. Gero ikusi dut, gerrate ondoan batik bat, ez zela hain asmo burugabea.

367 Ez naiz sekula garbitzeko gauza izan ea bere erdarazko *competence*-a *performance* kaxkarren kidea zen ala ez. Aspaldidanik dut ezezko susmoa.[2] Bai baitzuen halako bere gisako «unore» maltzurra eta arras atsegin zitzaion erdaldunen ezpainetan esaten zituen mordoilokeriek sorrarazten zuten irribarrea ikustea, gero, bakarka edo lagunekin, algara lasaia egiteko besteren barre murritzaren bizkarretik. Ama serioagoa nuen; zorrotzagoa ere bai. Bada oraindik haren ateraldi eta erantzunak gogoan dituenik Errenderian.

Gurasoak aipatu ditut, besteak beste, naizena haiei esker naizelako, izan ditzakedan alde on urrietan behinik behin. Hauxe esan

---

[2] Umetan entzunak dizkiot bi esaldi behintzat, euskarazkoa bata baina ez gure alderdikoa («Zelango musterrekoa emon deustana probintziano zantar batek!»), eta galizianoa bestea: «Maos demos te leven, condenadiño!». Urteen buruan baizik ez naiz konturatu itxuratxarreko hitz horiek ez zeudela batere gaizki josiak.

nahi dut: funtsez eta oinarriz, pentsaera eta gizalegea, *mutatis mutandis,* haiengandik ikasia dudala. *Mutanda*-k, badakit, aski eta gehiegi dira. Gauzak haiek orduan ikusten zituzten bezala nik gero ezin ikus nitzakeelako, batetik. Bestetik, eta batez ere, haiek bezain zuzenki munduan barrena ibiltzeko gai izan ez naizelako.

* * *

Zenbait herritarren kezkak eta goganbeharrak arindu nahi nituzke orain, arin albanitza. Badakit badela gure artean buru-langile eta Unibertsitateetan barrena ibiliei zeharka begiratzen dienik: ezagun baino ezagunago den izen bat aipa nezake, diodanaren lekuko. Badute, gainera, zergatik. Bistan da, eta eguneroko telebistan ere bai, ez dela direlako leku likits horietan arte zuzenik eta artezik ez ikasten ez irakasten.

Ni ez nauzue, ordea, otso larruz jantzirikako ardia baizik, eta etxe lizun horietan ikasle gisa hartu dudan hautsak ez dit kalterik egingo. Duela bizpahiru urte, lehenbiziko aldiz, Benvenisterekin hasi nintzen, behiala Zubiri aritu zen gisa, eta zorigaiztoko odolkolpeak jo zuen, oinazturak bezala, Eguberriak baino lehen. 368

Neure gaxtean, hiru urteko batxillerra egin ondoan, fabrikan hasi nintzen lanean, hamabost urte nituela. Gorbatadun horietakoa nintzen, egia, baina garai hartako gorbatadunek ere langiletzat zeukaten bere burua, soldatakotzat. Batez ere, beti bezala, ni bezalako behe baino beheragoko gorbatadunek.

Hor iraun nuen, adinez (eta zuhurtziaz?) hazitzen ari nintzen bitartean, sei urte luzez. Beste lanbide batzuk egokitu zitzaizkidan urte horien buruan: gerran, gerrakoak; gero, gerokoak. Zenbait urtez, behin eta birritan, ez nuen etxe-teilapearen ardurarik izan, eskatu baino oparoago eskaini baitzidaten. Jan-edanaz gehixeago, iturriari etengabe zerion uraz kanpora.

Egunen batean, zorioneko lanarte horiek ere bukatu ziren, eta lanari ekin behar, berriz ere. Ofizio nabar xamarrak izan ditut («hanbatez beude erranak agerriz ditudanak»), bulego lanak gehienik eta maizenik. Gero eta goragoko mailan, halaz guztiz ere, gerra aurreko «zigiluak» itsastea[3] eta azaleko zuzenbideak makinaz idaztea (zenbat eskutitz aurkitu ote dira Cadizen, Calahorran behar zutela-

[3] Baziren Gumersindo Azcárate, Pablo Iglesias eta Salmerón ogi-puskaren irudiak buruz behera ipintzen zituztenak. Nik zegokien moduan itsasten nituen.

rik?) urruti baino urrutiago bainituen. Aldi horretan, kontu larriak garbitzen niharduen, eta garbitu ondoan etxeko ez ziren arrotzentzat behar bezala antolatzen. Bestek dioenez, hainbestean moldatzen omen nintzen eginbide zail horretan.

Istudioak bukatu nituenean, 36 urte nituen, eta alaba; tesis delakoa zortzi urtez geroago —semea ere, alabaz gainera, etxean genuelarik— aurkeztu nuen. Halaz guztiz, ez dut plegu bihurririk hartzeko biderik izan Unibertsitatean, ez bainintzen hor sartzen etsa-
369 minatzeko baizik: beharriz eta entzutez, Benveniste baztertuz gero, ez naiz inoren ikasle izan. Ez nuke, ordea, egia osoa esango —eta, egia esatekotan, egia osoa zor dugu— hemen aitortuko ez banu zenbateraino lagundu ninduten arrotz zirelako irakasleek batez ere —Julio Caro Baroja, gure-gurea dugulakoan, ez dut aipatzen— elkarren hagitz adiskide ez ziren José Vallejok eta Antonio Tovarrek. Eta arrotz horiek beti jakin dute zenbait «euskaldunek» oraindik ez dakiena: ni, zerbait baldin banintzen, Euskal Herriko seme nintzela eta Euskal Herriko seme gisa, ahal nezakeen neurrian, jokatuko nuela aurrerantzean ere. Ez dira, haatik, arrotzak bakarrik izan. Hor daude, euskaldunen artean, izenda ez ditzakedan zenbait, ene ibilera okerren berri ongi zekien Urkixo zena eta, azkenak aurren direla, hainbeste bider esku laguntzailea gorde duen Fausto Arozena.

Horrela izan da eta horrela bego esana. Nahiago nuke, egia esan, bestela izan balitz. Biziak ez ote du, haatik, Unibertsitateak baino gehiagorik eta hoberik irakasten?

Gero, urteen buruan, bestetan lehen, Unibertsitatean eta Unibertsitatearen inguruan gero, irakatsi dudanaz, ez naiz nor mintzatzeko. Ikasleek dute hor hitza, hango eta hemengo ikasleek. Ikasleak mintza bitez, bada, gogoak ematen badie, ez ikasleen «ordezko» eta «jabe» direlako jauntxoak.

* * *

Izan, euskaldun garbia izan naiz beti, gure artean gero eta ugariago agertzen diren iratxo horietakoren batek besterik uste duen arren. Hots, mordoilo xamarra naizenez izatez, edozein hizkuntzatan izan naitekeen bezain hiztun garbia. Halaz guztiz, bost urtetarik edo gora, erdara ari zitzaion nagusitzen euskarari. Eskerrak etxean behintzat ez zela besterik egiten eta, luzaroan eri egon nintzelako edo, euskal irakurgaiak irakurtzen nituela. *Zeruko argia* batez ere, baina ordukoa, egiazki zerutarra.

1929an euskaltzaletu nintzen, nolabait esan, inork eragin gabe 370
eta neuk ere nola ez dakidala: hazia, dudarik gabe, aspaldidanik ereina nuen. Askok bezala, ber-euskalduntzea ere ezagutu nuen, fabrikan hasi nintzenean, hizkuntza hori berez baitzetorren ahora batarekin eta bestearekin mintzatzeko.[4]

Idazten ez nintzen *Egan*-en hasi, beste nonbait baizik. San Martinek aipatzen duen *Espetxian* hori ez da leku baten izena, aldizkari batena baino. Hor agertu ziren lehen aldiz, moldezko letretan, euskal artikulutxo batzuk, beste zenbait erdarazkorekin.

Are lehenago, bada oraindik beste obra bat etxeko sukaldeko suak, amaren eskuz, bi urte zituelarik irentsi zuena, munduaren kaltetan: 1934an «ondu» nuen *Memorias de un jelkide* zeritzana. Nahiz ez zen idazlan bikaina, baluke orain baliorik, oker ez banago, urte haietako kondaira, jende xumearen aldetik, egin nahi lukeenarentzat.

Suak desegina, dena den, ez dago orain egiterik. Erdaraz, zergatik?, galda dezake norbaitek. Ba, besteak beste, euskaraz egiteko gai ez nintzelako, itzulpen huts bati ekin nionean laster aski konturatu nintzenez. Gaitasun bidean bi lagunek ipini ninduten, batez ere.[5] Han, Errenderian bertan, Martin Lekuona zenak (G. b.), don Manuelen anaiak; gero, Burgosen, Ander Artzelus «Luzear»-ek: hau ere aspaldi eraman zigun herioak. *Egan*-en argitara zen Oscar Wilderen itzulpentxo bat Anderrek ikusia eta ukitua nuen.

* * *

Ez da eginbide atsegina hogeiren bat urteren buruan argitara di- 371
ren txaldankeriak burutik burura irakurtzea; premiazkoa, bai, kasu honetan. Noizean behin, pozbideren bat edo beste aurkitu dut, hala nola Nixoni (eta Nixonen bidetik dabilen euskaldun mordo ixilzale zaratatsuari) aldez aurretik erantzun niola ikusi dudanean: «Ez da aitzakia txarra izaten edozertarako ezin mintza daitekeen herri ixil hori».

Irakurle zuhurrak, irakurlerik baldin bada, gogoan eduki beza, arren, presaka eta muturka, itobeharrez, jaioak direla hemen ager-

---

[4] Ez dut urteen buruan baizik jakin Donostiako Institutuan zenbait ikaskide (eta irakasleren bat) euskaldun zirenik. Ezta haiek ere, noski, ez zekiten ni euskalduna nintzenik.

[5] Santoñan, aditz malkarretan barrena abiatu nintzenean (eta ez nekien ongi, gaxo honek, non sartzen nintzen), Felipe Lizaso adiskidea izan nuen gidari.

tzen diren zenbait izkribu. Zein bere garaikoak direla ere bai. Esate baterako, «Txirrita patroia» eta «Jauregi patroia» Lizardirenak dira, ezagunagoak orduan orain baino; Barojari Benaventez egin genion galdera, hil berria genuelako izan zen. Eta abar, eta abar.

Irakurle argiak ikusiko ere du eskularru leunez tratatu ditudala maiz aski, suturik ez nengoenean, zenbait pertsona eta zenbait pentsabide. Orain, urteak joan eta urteak etorri, besterekin erabili beharko lirateke eskularruok. Dakienak daki —eta ez dakienak ez dakike azterketa nekagarrien buruan baizik —nolako giro negargarria genuen nagusi zenbait «Euskaltzaleen biltzar» zirelakotan.

Oro har, ez da ene ustez, besterena hobetsiz, bihurgune eta itzulinguru gehiegirik honako paper zar hauetan. Izatekotan ere, lelo gogaikarri batzuk aurkitu ditut, behin eta berriro. Barojaren kutsua zerbaitetan, alderik okerrenean bada ere, itsasia dut, nonbait.

Purrustada latzak ere ez dira falta. Neurriz gainekoak ote? Ez dut uste eta, besterik uste banu, kentzeko esango nion argitaratzaileari. Bada bat, haatik, *Euzko-gogoa*-rekikoa, bide zuzenez edo zeharbidez Zaitegiren kontra doana. Zaitegi eta ni, leunkiro adieraz dezadan, ez gentozen beti bat. Hori gorabehera eta hitzak hizpidea ekarri duenez gero, zor zaiona aitortu beharrean aurkitzen naiz, are
372 ozenkiago erbestean dugulako. Ez da euskaldunik asko hizkuntzari eta herriari Zaitegiren neurrian lana, ondasunak, osasuna bera eskaini dizkionik.

* * *

Laruatus incedo, esaten omen zuen Descartesek («pour ne pas donner prise à la suspicion», noski). Baita ni ere, nahiz ez haren pareko izan. Eta nor ez, gibelaldean utzixe ditugun urte ilun hauetan? Ez naiz, gainera, Unamunok hain gogoko zituen *strip-tease* saio haien aldeko izan sekula bizian. Bihotz-erraiak bestek ikertzen dizkigu guk baino zorrozkiago. Geurok, besterik badirudi ere, geure burua edertzen saiatzen gara geure aitorkizunetan.

Neronek dakit zenbat bider egin dudan huts hartu nuen bidean. Beude hor barkakizun ez direnak, ez baitute barkatzerik. Bidea hautatzea ere ez da beti erraz izaten. Duda-mudak eta zalantzak ezinbestekoak dira ene gisako argi eta karisma berezirik hartu ez duen batentzat. Guztira, ordea, eta idazle eta irakasle (lanbidez irakasle) izan naizen aldetik, ez dirudi, moldezko letretan jasoak daudenen arabera, gehiegizko zabu eta zealdorik egin dudanik funtsezko di-

tudan maitasun (eta maitasunaren errainu den gorroto), uste eta sinesteetan.

Ez diot, dakidanez, ukorik egin neure herriari, ez hor eta ez hortik kanpora: Jondone Betirirenak bezain nabarmenik behintzat, ez. Ez dut uste beste asmorik gabe neure burua «aitzinatzen» saiatu naizenik. Aitzinatze hori, gehienez ere, gure herriarekin batean aitzinatzeko asmotan izan da. Eskubiderik banu horrenbestetarako, harako Martíren hura esango nuke:

Con los pobres de la tierra quiero yo mi suerte echar,

eta behartsurik behartsuenak, ene begietan, neure herrikoak dira eta neure herria bera. Bestetarikakoak ez zaizkit ahazten, gizon bainaiz euskaldun baino lehen, baina neureak datoz aurrenik. Besteak ere bere buruari begira daude, ez guri.

* * *

Bestetan ere, nola pentsatzen dudan aski garbiro dagoela uste 373
dut hemen bildurik ikus ditzakezuen lerro nabarmen batzuetan. Ustez, zerbaiten alde jokatu dut beti eta arrisku berriak ikusten ditut orain, zaharrak aski ez balira, maite ditudan zer horientzat.

Sarri aski ahotan darabiltzagun «gu» eta «gutarrak» gutitan dira gogoeta garbi eta zehatzak: *nik* «gu» asko ditut, zein zabalago zein meharrago, eta orobat gertatzen zaie inguruko *ni* guztiei. Guztiarekin ere, badabil halako susmur bat gure artean: ni, alegia, poliki-poliki, haizeak daraman horbelaren gisa, gero eta urrunago omen nago «gutarrengandik».

Gure gizaldiko gizonei, gutarrei eta bestetarrei, gertakari penagarria gertatu zaie. Gazteek ez dituzte ikusi nahi izan genitzakeen alde onak, bertuteak eta balentriak; eta gutarik onenek, gehienek ez bada ere, bazituzten alde on baino hobeak. Hutsik nabarmenak ere, egingo nuke, ez dituzte behar den lekuan bilatzen. Kaxkartzat jo gaituzte, beste auzirik gabe, eta kito. Gora jotzeko bideak ere moztu dizkigute, eta geroaren zain gelditu beharko. Harako Hegel-en tribunal haren erabaki berankorrari begira edo.

Guri geuroi, berriz, ez dakit zer sorginkeria dela medio, geure egiazko irudia atzendu edo zaigu eta amets-irudipenezko argitan ikusten ditugu behialako geure buruak. Kontu kontari hasten bagara, ez dugu kontatuko oraingoek begi onez ikusiko luketen egi-

nik; gaitzi izan dakiekeenik esan eta egin badugu, horixe datorkigu ahora. Nekez hartuko dugu elkar, elkarri gibela emanik gabiltzaino.

Dudan irudia zuzenagoa ote den, nola jakin? Besterekin mintzatu naiz, ez oihu eta zalaparta dabiltzan horiekin; bai, ordea, non izan diren eta zer egin duten segur dakidanekin. Eta gure oroitzapenetan bateratsu gatozela ikusteak bakarrik sendotu dit nuen irudi eta ustea.

* * *

374 Gure gazteak bestetan baino haziago, jantziago eta ikasiago agertzen zaizkigu. Barau luzeegiak teoria-egarria ernatu die eta badute non ase: iturriak, haatik, berri baino berriagoa beharko du izan, ez aspaldidanik dariona. Baditugu, gainera, gazteak berrogei urteen gaindegitik behera amiltzen hasiak direnak.

Gehienek ez dituzte gogoko forma hutsezko diren askatasun eta eskubideak, inoiz ezagutu ez dituztenak, jakina. Bat datoz horretan, hain bat ere, zenbait zaharragorekin; zaharrago hauek forma ilaun horiek —hain ilaun eta hutsalak ez direlako, jakina— beti gorroto izan dituztelako edota, bestela, Ejitoko ilunbeak baino ilunagoen erdian, Damaskora gabe, argiaren distirak begiak liluratu dizkielako. Batzuek eta besteek, nik uste, ez bide dakite, gerokoak geroko, Frantziako kondairaren 1789 urteari 1868 dagokiola Espainian, alde huts batekin, halaz guztiz: Espainiakoek kolpe huts egin zutela Frantziako kideek burutik burura erdietsi zutena eskura nahi izan zutenean.

Karismadunen artean bizi direlarik beti, karisma apurren bat lortu nahi lukete, nondik edo handik. Ebanjelioa irakurri ez badute ere, badakite, zeruetakoari ez ezen, lurreko erresumari ere «bortxa egiten zaiola, eta keixuek harrapatzen dutela hura».

Alderdiek, taldeek eta taldetxoek, mordoek eta mordoxkek —hobeki esan, alderdi, talde, taldetxo, mordo eta mordoxken buruzagi nahiko eta ustekoek— bide erraza aurkitu dute gure artean. Sinai berrian ikasi duten agindu bakarra, hau da xelebrekeria, ez da donostiar alaiek jaietan kantatzen zuten harako hura baizik (eta txantxetan ari zirelakoan kantatzen zuten axolakabe haiek!):

Ni naiz kapitan pilotu (bis)
Niri behar zait obeditu
Obeditu.

Ni, behinik behin, zenbait gauzaren alde eta zenbait gauzaren kontra agertu nintzen gaztetan, eta berorien alde eta kontra naiz 375
orain, gero eta gogorkiago, ikusi ditudanak ikusi ditudalako. Forma soilak ez ditut arbuiatzen. Zer da gizalegea bera, funtsez, axaleko itxuraz gainera? Halaz guztiz, ez gara gizartean bizi gizalegeari eskerrak baizik. Bortxa itsua, gainera, hutsala eta ilauna iruditzen zait. Ez, jakina, gizaki bakoitzaren bizitze neurriz neurtzen badugu; bai, herrien bizia astiro aldatzen duen erlojuari bagagozkio. Eta nik ez dut ezeren eta inoren buruzagi izateko gogorik. Izan banu ere, gogaiturik nengoke jadanik.

Argi ez badago, hauxe da gogoko ez dudana: Martín Santosen *Tiempo de silencio* hura eta berrogeizaro hark (ez naiz garizumaz ari) utzi digun ondare ikaragarria. Gure arteko zenbaiti hezur-muinetaraino itsatsi zaion hori diot.

Ez nuke guretarrik ikusi ere nahi, 1972an edo geroxeago, Heideggerek 1933an egin zuena egiten: *erreur tragique* zelakoaz ari naiz. Filosofo sonatua izan ez balitz, zerrikeria galanta egin zuela esango lukete eta gu ez gara, gehienbat, filosofo sonatuak. Bero-bero ibili zen luzaroan gerra hotza; hotzildu zen poliki-poliki, epeldu gero eta are azkenik, hoztu ez ezik, baita izoztu ere. Gertakari horrek, nik uste, nabari behar luke izan, baita baztertuxe dagoen Euskal Herrian ere. Eta oroit bitez, mesedez, gure artean agertu zaizkigun sorgin-ehiztari bipilak McCarthy zenaren gorputza (B. b.) aspaldi usteldu zela.

Ni, Orixe ez bezala, Galileo ondokoa naiz, eta beste gizaki eta gertakari askoren ondokoa gainera, eta ondokoari dagokionez nahi nuke jokatu. Beharrak beharra eraginik, paraboletara narama premia gorriak, inguruko beste anitz bezala. Diodan, beraz, arboletan den ederrena ez dela berbera guztientzat. Bazen inoiz hemen haritza («zar, sendo, zindo») maite zuenik franko. Gero, nola ez dakigula, pinu-zale bihurtu zaizkigu orduko haritz-zale batzuk. Haritza gogoko dut nik, eta haritza gogoko bezanbat pinua higuin eta gorroto. Ordenuan agindurik utziko nuke: ez kaobarik, ezta ere inongo pinurik. Zuberoako leherrak, Erronkari-Zaraitzuetako ler eta llerko 376
lerdenak, ederki. Euskal Herrian gero eta usuago ikusten ditugun pinu beltzak, Barojaren Ilunbe ilunbezaleak berak ere nahiko ez lituzkeenak, inola ere ez.

* * *

Euskararen batasunaz edo batasunik ezaz mintzatu beharko dut azkenik, gogo gaiztoz bada ere. Behin eta berriz esana dut ez nintzela neure gogoz sartu saltsa horretan, besteren eskez eta bestek bortxaturik baizik. Ongi baino hobekiago bainekien, batere atsegin ez zitzaidan erantzunbeharra bizkarreratzeaz gainera, nolako lokatzetan sartzen nuen neure burua.

Besterik ere gehitu behar dut, ordea. Azken buruan, ez ninduten bulkatu, nerau sartu nintzen neure baitarik. Nahi ez nuelarik ere, sartu behar nuelako ustetan abiatu nintzen. Eguzkiaren argia baino argiago agertzen baitzen norbaitek abiatu behar zuela eta, inor sartzekotan, nola egingo nion neronek uko deiari? Hauxe da gerra aurretik, gerratean eta gerraondoan ikasi dudana: agintzen duena egiteko prest ez dagoen gauzarik ezin dakiokeela besteri agin. Gogorik gabe eta gogo gaiztoz hasi nintzen, beraz; ez, ordea, kontzientziak eskatzen eta are agintzen zidanaren aurka.

Besteren mandatuz, Arantzazuko batzar aurretik, harako lanak prestatu genituenok aski moduz eta neurriz mintzatu ginen, batasun bidean jar gintzazketen zenbait errepide nagusi erakusteko ustetan edo: hori ikusi nahi duenak Aita Villasantek iaz argitara zuen liburuxkan ikus dezake.

Orainago, jendea han zenbaitek nahi genuen baino presakago hasi da ibiltzen, *brûler les étapes* nahi dutelako, ez hango eta bestetango erabakietan gelditu bertan goxo. Beharra ere bazegoen, egia esan. Aski da inguruetara gainbegiratu bat edo beste zabaltzea. Ordutik hona, zenbat eta zer-nolako liburuak agertu dira euskaraz! Nik
377 ere amets dut duela berrogeiren bat urtetako Paradisua, baina, Paradisu hura ezagutu dudalarik, ez dit inork *niri* esango alderatzekorik ere orduan ikusi genuenik. Gezurra badirudi ere, euskal liburu berrien oraingo emanak tristatu egiten du zenbait, poztu beharrean.

Berehala ikusi nuen, ez baitzen argitasun bereziren beharrik hori ikusteko, aditz kontuan izango genuela behaztopabiderik zailena. Nahiago nuen, egokiago zirudielako, aditzarekiko auziak gerorako utzi, geroak geldiro garbi zitzan. «Axeak bestera garoaz», ordea.

Herabe nuen nabari zelako aditzarena, berez eta eragilerik gabe, desarrazoizko bideetan barrena amilduko zela. Arrazoizko ez direnak diot, nork berea atera gogo duelako nagusi horrelakoetan, kosta ala kosta, eta ez dut neure burua besterena baino garbiago ikusten bekatu horri dagokionez. Alderdikeria, seta, Saussureren *esprit de clocher* delakoa izaten dira gidari bakar. Ez ote dugu ikusten zer gertatzen den hiri arteko elkarte edo batasun berriren bat izen-

datu behar den bakoitzean? Amorerik ezin eman eta azkenik, ezinbestean, antzinako oinarririk ez duen asmakari hutsalen bat hartzen dute ontzat batzuek eta besteek.

Beldur nintzena gertatzen hasia da. Aditza dela eta ez dela, hasi gara, alde batetik eta bestetik, ahapaldi mingarriak esaten eta entzuten. Okerrago dena, eta Jainkoari nahi ez dakiola, behin bide horretan herresta abiatuz gero, ez da berehalakoan gelditzerik izango. Gero eta mingarriagoak esango dira eta gero eta mingarriagoak entzungo.

Ez da inondik ere aditza euskalkien arteko bereizkuntzarik larriena. Bere eskualdekoa dakien euskaldunak aurki idoroko du besteren aditzaren giltza, bestela esan, bata beste bihurtzeko erabili behar diren itxuraldatze erregela errazak. Beste zerbaitetan egingo du behaztopa usuenik: hotsetan, hitzetan, joskeran. Aditz bereizkuntzek ez dute, haatik, antolamendurik ez konponbiderik: bata hartu behar, noraezean, eta bestea baztertu.

Gal-gal dirakien euskalkien arteko gerra ez da inondik ere euskalkiena, euskalkiak hartzen badira ere ahotan, ditare batean aise 378
kabitzen den huskeria baizik. Adizki sail batena dugu, hondarrik hondarrenean: *deust, dit* ala *deraut; eustan, zidan* ala *zerautan (zautan?)*, eta abar. Zitalkeriak ez gaitu inora eramango, galbidera ez bada; hobeko dugu buruaz eta zentzuaz baliatu.

* * *

Maiz irakur daitezke auzi hori bat-batean eta behin betiko, *de façon cavalière*, erabaki uste dutenen iritziak. Mazedoniar handiak behialako korapiloa askatu zuen bezalaxe, hark zeraman ezpata ez daramatelarik, erabaki uste dute, gainera. Hor gabiltza, batetik eta bestetik, nork geure opilari ikatza nola hurbilduko, irri eta iseka darigula, egiak erdizka azalduaz, komeni zaigun heinean, eta erdizka estaliaz. Horrela jardun ohi dute letraduek eta legegizonek, eginbidea hori baitute, juezaren aurrean. Darabilgun auzia, ordea, ez da juezetakoa. «Itxi daiguzan», beraz, letraduentzat legezko diren kontuak.

Xabier Kintanaren artikulu baten zatia hartuko dut adibidez «Aditzaren batasunaz gauzak argiro», III, *Anaitasuna*-n agertua (1972-II-15). Ez da hogendun bakarra (hobe, bakarra balitz!), baina Kintanarena da, harako zenbaitek dakigun batzorde hartako Kintanarena, eta Kintanak hoberik egin dezake. Esku artean dut, gainera, eta aski eta sobera da bere laburrean hemen agertu nahi nukeena (eta neronen iritziak, bidenabar) agertzeko.

Gaia «gipuzkera idatzia» da, dirudienez, ez «gipuzkera teorikoa», zer nahi ere den azkeneko hau. Gipuzkera «idatzi» horren «gurasoak Kardaberatz eta Mendiburu izan ziren, inondikan ere Larramendiren kategoriakoak ez zirenak». Halabiz, eta ez naiz «kategoria»-z eztabaidan hasiko. Hauxe gehituko nuke, haatik: gaztelaniaz txukun antzean idatzi nahi dutenek ez dute sekula *categoría* hitza adiera horretan erabiltzen, eta ez dut ikusten zergatik hartu behar duen euskarak erdal gaiztoaren kutsurik. Aristotelen, Kanten eta besteren kategorien beharrean gara; hor aipatzen direnen premian, ez erdaraz
379 eta ez euskaraz, ni, behintzat, ez. Ez nintzateke hemen hitz kontuan sartuko, Kintanak «soziologia», dagoen bezala inguraturik eta biribildurik, erabili izan ez balu.[6]

Leherrenak egiten ditu egileak frogantza beharrik ez duten puntuak frogatzeko. Frogatuak izateaz gain, aho betean aitorturik baitaude: «En cuanto al guipuzcoano, parece haber estado en una clara situación de inferioridad con respecto al vizcaíno —no hablemos ya del labortano—, en cuanto a su uso como lengua escrita, durante los siglos XVI y XVII. Sólo en el siguiente, por obra sobre todo del padre Manuel de Larramendi, alcanzó un cultivo literario que ya después no se ha interrumpido».[7] Gipuzkoaz ari nintzenez gero, hor gelditu nintzen, legegizona ez naizelako agian, eta ez nintzen zenbaitek hain gogoko duen norgehiagokan sartu.

«Bestalde —dio beheraxeago—, ez Larramendik, ez Kardaberatzek, ez Mendiburuk ez zuten lortu *gipuzkera* alde honetako literatur euskara bakartzat jartzea». «Eta, egia esan —darraio—, ez zuten horretarako batere ahaleginik egin». Egia esan behar bada, beraz, aski genuen gorago idatzirik dagoen *lortu* hori tintontzian gelditu balitz: saiatu egin behar baita, zernahi lortzeko edo ez lortzeko.

---

[6] Badirudi, bada, soziologia istilu honetan aipatu dutenek, ni artean naizela, ez dakitela zertaz ari diren. E. S. Dodgson euskaltzale eta haurzalearen anaiak dotoreago adierazi zuen: «Alice had not the slightest idea what Latitude was, or Longitude either, but she thought they were nice grand words to say». Nik bederen, zorigaiztoan, neskatxa horren adina urruti baino urrutiago utzia dut, eta orduko usadioak ere baztertu behar izan ditut.

[7] ⟦«La lengua vasca⟧, *Guipúzcoa, obra editada por la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa,* Donostian argitara emana, 1968an, dirudienez, ez baitio ez non eta ez noiz atera zuten; norentzat argitara zuten ere ez dakigu ongi. Dena den, 219. or. dator pasarte hori ⟦= K. Mitxelena, *La lengua vasca,* Durango 1977, 54.-55. or.⟧.

«Ubillos, gainera, giputza izan arren, lapurtar literaturaganako joera nabariaz ari zaiku». «Gainera»? Jainkoari eskerrak, esan genezake. Eta Ubillos ez ezik, baita Larramendi bera ere, baita Lardizabal eta Agirre Asteasukoa ere. Eta, besteak beste, ez zaigu atzendu 380
behar Bizkaikoak ere hain ederki ikasi zituen Iztueta. Hor Kintanak dioenak, deus frogatzekotan, honako puntu hauexek frogatzen ditu: 1) giputz horiek, aldi joaneko beste edozein euskaldunen arabera, ez zirela «inperialistak» izan; 2) landuagoetarik ikasteko ez zutela gupidarik; 3) errazago zitzaiela gipuzkoarrei, orain ere errazago zaien gisan, Lapurdi aldera makurtzea bizkaitarrei baino.

Kondairan barrena abiatu garenez gero —dokumentuen gain eraikia den hartan, diot, ez irudimen kolpeka asmatuan—, badira zenbait puntu gogoan eduki beharrekoak. Lapurdik, lehenik, XVII. mendean zuen indar ekonomikoa 1700 inguruan galdu zuela.[8] Ekonomiarekiko aldakuntzek berehalako ondoriorik izaten ez dutelako beste zenbait mailatan, gero, hango mintzairaren gehientasunak, ahultzen zihoalarik, iraun zuela oraindik. Han bertan, bestaldean, hirugarren, deuseztaturik ikusten dugula gure egunotan gehientasun hori. Izenak izen, baduela zer ikusirik, laugarren, indargabetze horrek Baxenabarrek edo Nafarroa behereak Lapurdiren aldean, jendez eta eremuz, orain duen nagusitasunarekin. Euskal Herriaren bihotza, bosgarren, hegoaldean zegoela 1800 inguruan, Humboldt guregana zenean.

Diruz eta kemenez Bizkaia bada ere bihotz horren bihotz, ez zaio beste hainbeste gertatzen hizkuntza aldetik. Osorik euskaldun ez delako (Bilbo euskaldun baino erdaldunago delako duela berrehunen bat urte), bazter euskalkia delako bertakoa eta Bilbok kultura gaietan, euskaldun guztion ezerezaren neurrian ere, ez duelako berez zegokion lekurik hartu. Zergatik, beste batean aztertu beharko, Pelay Orozkok inoiz egin duen galdera hutsaletan ez baitut gelditu nahi.

Ez dut uste, inondik ere, Astarloa Larramendiren «jarraitzaile» 381
izan zenik: ondorengoa, bai, aitzindariaren onak hobetu zituena gramatika aldetik. Garatek argitara dituen Humboldtenak ez ote ditugu irakurri? «Beronek ere —Astarloak, alegia—, maisuaren antzera, bere obra guztiak erdaraz egin zituen». Tira, nik esango nuke, eta Kintanak berak horixe dio goraxeago, gero gogotik itzuri bazaio

---

[8] Zergatik etorri ote zitzaigun hona Etxeberri, lapurtar klasikoak inoiz izan duen aldekorik suharrena? Ez da meditazio gai alferra.

ere, gehixeago eta hobekixeago egin zuela Larramendik durangarrak baino.

Azken mende mugako arazoak ere ez daude aski zuzen kontatuak, ezjakinaren podorioz, noski: «Arana Goirirekin bizkaitar literaturaren garaipena dator, hark fundaturiko alderdi politikoaren eta aldizkarien bitartez Euskal Herri osotik zabaldu zena. Sasoi hartako jelkide guztiak, *nahiz eta gipuzkoarrak izan,* bizkaieraren tankeraz idazten saiatzen ziren, hitz asko eta ortografia bera toki guztietatik hedatuz. Non zegoen sasoi hartan gipuzkeraren *nagusitasun* hori? Inon ere ez».

Arana Goiriren eragina, hizkuntzari buruz ere bai, ez dut nik batere gutietsiko. Damurik, «sasoi hartako jelkideek» nola idazten zuten ongi ez badakit ere, Kintanak baino hobeki dakit, hala beharrez eta merezimendurik gabe. Lehen burutik hasten bagara, «jelkide» horiek ez ziren «jelkideak», «jeltzaileak» baino, eta nork bere buruarentzat begiz jo duen izena zor diogu gainerakoek. Gero, izengoitirik ipini nahi badiogu, edota bestek asmatu badio, diogun argi eta garbi ez dela izena, izengoitia baizik.[9]

Zinetan uste ote du Kintanak *Gipuzkoarra*-n, *Napartarra*-n, geroko *Amayur*-en —delako alderdi horren aldizkariak ziren hauek—, euskaraz ager zitezkeenak bizkaieraz agertu zirela? Irakurri ote du inoiz Eleizalde bergararrak —ez «Kizkitza» ezkiogarrak edo A. Barriola donostiarrak—, eta bergarar bezain sabindarrak, idatzi zue-
382 nik? Begiak bazka ditzan, eta aurrera ere idazteko behar duen astia ikusmiran eta pentsaketan alferrik eman gabe bazka, honatx hark Bilbon, zuzendari zen aldizkarian, agerturikako lerro batzu: «Oldozkun txarr ta loikorrak arr-erazo nai *dizkitzunean,* berari bigurrtu *zazkiyozu,* auxe esanaz: nere belarriyetara alakoak *dakarrzkiken* ezkero, loi-loya *aiz,* noski».[10] Darien urrina ez da, bistan da, Bizkaikoa. Gerokoetara bagoaz, ba ote daki Kintanak zein euskalkitan dagoen idatzia 1936-1937etan Bilbon, ia Bizkairako bakarrik, argitara zen *Diario oficial del País Vasco?* Ixilik egotea hobe izaten da ez dakigunaz, are gehiago ikasi nahi ez dugunaz, mintzatzea baino.

Ur bila nator berriz ere iturri emankorrera: «Egia esan, dena (!!) esan behar baita, Txomin Agirrek bere lehen nobela bizkaieraz egin arren *(Kresala),* bigarrena gipuzkeraz egin zuen *(Garoa);* baina nolabait Agirre, karlista izanez, ez dut uste eredu egokiena denik, or-

---

[9] Nik, jakina, aipatu dudan hartan, banuen esku neure buruari nahi nuen izengoitia ezartzeko.

[10] *Euskadi,* III. arua, X. urtia (1913), 19. zenb., 54. or.

duko "soziologia" nolakoxea zen antzemateko». Hona orduko eta noiznahiko soziologia —eta bidenabar kondaira— aztertzeko bide berria eta herri landuetan behintzat «oraino ez entzuna»: «X, hain zuzen, Y-tarra genuen; bazen Y-tar gehiagorik ere, baina nik, gogoak ematen didalako, ez ditut aintzakotzat hartuko».

Ancien Régime-koak garenon artean, beti huskeria zaleak izan gara eta, horrelako huskeriak zorrozkiago bereizten genituen eta egungo egunean ere zorrozkiago bereizten ditugu. Karlista izateko, nork bere burua karlistatzat eduki behar zuen sasoi hartan, eta karlistatzat eduki behar zuten aldamenekoek eta urrutikoek. Bestela, eta bidezko dirudi, karlistengandik urruti ez zebilena izango zenuen, karlistak gorroto ez zituena, sozialistak baino gogokoago zituena (hau bistan da, Agirreren kasuan): nahi duzuna, baina karlista, ez. Aukeran, integrista airea hartzen diot nik Agirreri, orduan integrista zeritzan alderdikoa. Oker nabil, ordea, agian eta prest nago okerrak zuzentzeko erakusten dizkidaten bezain laster. 383

Demagun, halaz ere, karlista zela. Eta zer? Karlista zelako idatzi ote zuen *Garoa* gipuzkeraz edota, alderantziz, *Garoa* gipuzkeraz idatzi zuelako ote zen karlista? Karlista zelako egin bazuen ere, beste muturren bat gelditzen zaigu egiaztatu beharrekorik: makur jokatu zuela, alegia, horrela, karlista gisa, jokatu zuenean. Horrek, ordea, eta hona Kintanaren ezkutu nabaria, ez du frogantzaren premiarik. Aldez aurretik, abiatu gabe, dogma gotortzat finkaturik baitauka, eta bidenabar esaten dituenak ez baitira oinarri duen seta inguratzeko hodei aitzakia baizik.

Ez karismarik eta ez ikazkinaren federik ez dugun Kanten ondoko batzuek besterik jakin nahi genuke. *Kresala* jaioterriko hizkeran (aski aldatuan, esan beharrik ez) idazteak berezko dirudi. Ez hain berezko, Aita Villasantek behin baino gehiagotan erakutsi duen legez, *Garoa*-n gipuzkera erabiltzeak, Oñati eta Oñati inguruko arazoak baititu kontagai. *Kresala* eta *Garoa*-ren bitartean bihurtu ote zitzaigun karlista?

Horrela ez goaz inora. Errekara goaz, hobeki esan, zuzen baino zuzenago. Hark eta honek, geure buruaren jabe garen aldetik, lur jo nahi badu, hor konpon. Baina gehiegikeria deritzat batek eta bestek, Sansonen modura, pilistindar guztiak geurekin batean zapaltzeko agertzen dugun grina bizia.

Gaitzak gerade umiltzen eta ustez *à la page* gaude. Ustez. Egia da, dirudienez, badela iraultza ezagun bat XVII-XVIII. mendeetan Europan barrena —eta berehalakoan behintzat besteren kalterako—

nagusitu zena. Euskal Herria ere irauli du, baina, iraulia izan arren, ez du Euskal Herriak, herri den aldetik, artean beregana. Zertaz ari gerokoez? Bizpahiru eskuliburu irakurtzeak, berri baino berriagoak badira ere, ez du hutsarte hori beteko.

Bada gure artean, gero eta ugariago, alderdi politiko oso eta bizi
384 bat ezagutu ez duenik. Amesgaitzetan edo ikusiko zuen horrelako zerbait, ilargitarren herrian beharbada. Landuagoa bada, irakurriko zuen egunkariren batean badela alderdirik besteren esanera dauden zenbait erresuma ahuletan: USA-n esaterako. Eta horrek, hain zuzen, erakutsi behar dio alderdi horiek —xuri, beltx eta gorri— bere begiz ikusi dituen dohakabeari zer diren eta zer ez diren. Zaharrago eta ikasiago.

Lehen uste genuen bagenekiela euskalkiak zein ziren, Bonaparteri, Azkueri eta besteri eskerrak. Euskal Herriak zein ziren, bai, behinik behin, eskolako haurrek ere bazekitelakoan geunden. Eta ez genekien, alazankoa!

Ohartu ez bazarete ere, Nafarroa galdu dugu: Nafarroa beherea aipatzen da noiz edo behin zenbait lekutan, behar bezain maiz ez bada ere; Nafarroa garaia sekula ere ez. Eta Nafarroa, garaia batik bat, zerbait izan da eta zerbait baino gehiago da egungo egunean ere Euskal Herrian. Hor gabiltza elkarren lehian Iparraldeko haurrideei lagundu beharrean. Ederki deritzat, hedatu zaien eskua hartzeko oraindaino gehiegi mugitu ez badira ere. Eta Nafarroako euskaldunek, ez ote dute laguntza beharrik? Aurki agertuko da Granadako gazte batek, Sánchez Carriónek, hango hizkuntzaren egoeraz egin duen liburua. Orduan beharbada, Granadan barrena, oroituko gara nafar euskaldunez.

Mundu guztiak daki, Kintanak ez ezen (ala Kintanak ere bai?), Mendiburuk ez zuela gipuzkeraz idatzi: ez zuen hori uste behintzat gipuzkerara itzuli zuen Arruek. Jaiotzez nafarra zelako hizkuntzaz —honako idazle hau bezalaxe— eta Nafarroan eta Nafarroarako batik bat argitara zituelako liburuak. Ezin aitor, ordea, horrelakorik Mendibururi, jakina denez, *didazun, digu, diguten, zizkidan* eta horien gisako trakeskeriak itzurtzen zaizkiolako. Beste horrenbeste gertatzen zaio Nafarroan sortu den liburu eta idazlan askori, nahiz zaharrak diren *(Fedeac cer eracustendigu?,* Elizalde, ⟦Iruñea⟧ 1735, 26. or.), nahiz berriak. Bi aipatuko ditut azkenekoetarik: «Larreko» zena eta euskara gutik bezala darabilen Iraizoz Aita. Eta ez dute sekula idaztekoan bere nafartasuna estali.

385 Has gaitezen, bada, zenbaitek nahasi baino nahasiago nahi lukeen mataza askatzen eta biltzen. Ene iritziz, gipuzkera da Bona-

partek, Azkuek, Lafonek eta gainerakoek —ez nik— gipuzkera deitu izan dutena. Besterik da Kintanak eta nahi luketen gipuzkera. Lehenbizikoa, egiazkoa, ez da Gipuzkoa osoan egiten, bi bazterretako mintzairak bestelakoak direlako; gainezka egiten du, haatik, Gipuzkoako eremuetarik kanpora Sakana eta Ergoien aldera. Bestea, Kintanaren *dizkigute*-gipuzkera, gipuzkoarra bezanbatean nafarra den aditza besterik ez da. Eta Gipuzkoaz, gipuzkeraz eta giputzez aho betean ari garelarik, nori berea eman behar diogu eta zertaz ari garen aldez aurretik garbitu. Aski nahasiak daude gure arazoak nahasteka berrien premia sumatzeko.

Are gehiago. Zein euskalkitan idazten du Kintanak? Tradizioz jaso ditugun euskalkien artean kokatu behar bagenitu bere izkribuak, nik behintzat, dudarik gabe, giputzat joko nuke, bestetzat baino lehenago. Ez baita aski zenbait axaleko forma aldatzea —bat nator honetan Aita Mokoroarekin— euskalkia aldatzeko. Ahora eta lumara datorkiona «espainola» da, dudarik gabe: ez dugu hitzei eta esaerei begiratu besterik. Hegoaldekoa, beraz, eta bizkaierazkoa ez. Eta nafarrak —beranduxe, ene ustez— aienatu ditugunez gero, giputza behar, derrigorrean.

* * *

Gipuzkoa-Nafarroetako aditza (ez Nafarroa osokoa, ezta ere Gipuzkoa osokoa), ordea, oraindik orain neurtua eta pisatua izan da —nola neurtua eta pisatua ere!— eta huts aurkitu dute, behiala Baltaxar erregea huts aurkitu zuten bezalaxe. Aditz hori, izan ere, errena eta exkaxa omen da, inon horrelakorik baldin bada. Hutsak bete, gaitzak senda eta urratuak konpon daitezkeela usteko du agian norbaitek, Azkuek egin asmo zuenaren arabera, baina zentzua galdu du: ezinkizun da hori, ez eginkizun. Makurrak, diotenez, ezin zuzen daitezkeen horietakoak baitira.

Larresororekin edo ari banintz, bestelako arrazoibideak atera 386
beharko nituzke, baina bat gatozela uste dut orain dihardugunok zenbait oinarriri buruz. Hizkuntzak —hizkuntza bakoitzak, alegia, ez gizontzen gaituen mintzatzeko gaitasunak— ez gaitu behin betiko eta betiereko «markatzen», ez digu ezin hautsizko pentsaerarik eta ikusmolderik egozten.[11] Gure irudimena tindatzen du gehienez,

[11] Beste alde batetik, ordea, hizkuntzak markatzen gaitu (nola markatu ere!): gizartean bizi garen aldetik, diot. Hizkuntza bat edo bestea jakiteak, ongi ala

gure ipuin-mitoak, gure poesia, maiz aski poesiaren lagun hurko den gure metafisika.[12]

Hortik darion ondorioa hauxe litzateke, dirudienez: ez dela hizkuntzarik berez eta izatez beste edozein hizkuntza baino hobe eta egokiago denik. Landuagorik, bai, jakina, zenbait mementotan honelako edo halako premiatarako trebeagorik. Ez ote zaizue, bada, miresgarri iruditzen, goi eta behe mailako hizkuntzarik ez baldin bada, euskalkiren bat (aski landua bera) besteak baino behartsuago eta errumesago gertatzea, adimenduaren trabagarri, ez laguntzaile?

Delako aditz narras horren kontra bi arrazoi entzun eta irakurri ditudalakoan nago. Hauexek dira:

387 a) Ez da euskalki horretan, hiru pertsonarekiko adizkiei bagagozkie, hirutarik bat baizik gelditzen. Beste hirutarik biak, galduak izateaz gainera, ez du osatzeko biderik.

b) Hitanokoan, anbiguitatez josia dago. Zernahi diogula, bi gauza esaten ditugu, adierazi nahi genukeen bakarraren ordez. *Egin diat* 'hiri zerbait egin diat' da batetik, baina, bestetik eta ezinbestean, baita 'egin dut (hirekin ari nauk)' ere.

Lehenbizikoaren indarra eta muina ez dut, egia esan, inoiz ere ulertu: gogorkiegi aitortu badut, adiskidetasunari zor diot aitormenaren gogorra. Bestela esan, buruz ederki ulertzen dut, baina lehen bezain hotz eta motz gelditzen naiz, «hiru eta lau zazpi dira» («zazpi mila duro zor dizkidazu, beraz» gaineratu gabe) esaten didatenean bezalatsu. Bai, horrela da, ikusten dut. Eta niri, zer?

---

gaizki, hala nahiz honela mintzatzeak *(Pygmalion* ez da gure artean ezaguna?), larruazaleko koloreak baino gehiago batzen eta bereizten gaitu. Miresteko ere bada etxean gertatzen zaiguna: gizarteaz gehien arduratzen direnak izatea, hain zuzen, gizartekotzen gaituen hizkuntzaz ari garenean, gizarteaz ahazten direnak. Gizartean lotzen eta askatzen gaitu hizkuntzak, hizkuntza honek nahiz horrek, bakarkako amets gogoetetan baino areago. Hauxe ere gehituko dut. Hemen aldekoek eta etsaiek orobat aipatzen duten linguistika marxista delakorik nik ez dudala ezagutzen neure ezjakinean. Dakidanez (eta URSS-en agertzen diren liburuak ere irakurtzen ditut gehienek baino gehiago), ez da oraindik marxista dei daitekeen linguistikarik. Ez dira Marrez ari, noski.

[12] Hor sartzen dira harako *izan, izaera, izate, den dena dena da* haiek eta horien gisakoak. Poesian euskarak berak ez ezik, erdarak ere izan dezakeen eskuaz bestetan mintzatua naiz, «Gabriel Arestiri» izena zeramaten lerro batzuetan: *Egan* 1964, 157-160. Lizardiren poemak eta gero aipatuko dudan Axularren pasarte bat (Lc. 12, 19) hartu nituen gai.

Euskalki horretan, adibidez, honako Leizarragaren honek ez du itzulpen zuzenik: *eta egin baikrauzkió Rege eta Sakrifikadore Iainko bere Aitari* («gu»-ren ordez, beste batzuk izan balira, *errege egin dizkio* esan genezakeen legez). Zeharbidezkorik, bai; zuzenik, ez, Bizkaian (eta Beraskoitzen?) sor daitekeen modukorik.

Huts larri horretaz, ibili banenbilen eta euskara erabili banerabilen ere, ez nintzen sekula ohartu Lafonen liburua 30en bat urte nituelarik irakurri nuen arte. Egingo nuke, gainera, euskaldunik gehienak, lehengoak eta oraingoak, ez direla behin ere kontura. Ez dut uste, bada, nabari ez dugun hutsa huts dei daitekeenik, ez larri eta ez apur.

Bestela adierazten saiatuko naiz, adarrak *(con perdón de clérigos,* esan ohi zuen Góngorak) aipatu behar baditut ere. Zezena adarduna da, maizenik (Mazantini elgoibartarraren denboran bederen), baina adarmotz ere izan daiteke. Badaiteke agian gizona adardun izatea, zorigaiztoak jo badu,[13] baina inola ere ez adarmotz. Berez, jaiotzez 388
eta naturaz, adargabea delako. Erabili dudan eta darabildan hizkuntza, honenbestez, ez da *grauzkio*-motza, *grauzkio*-gabea baino. Ez dut *grauzkio*-ren premiarik sekula izan eta ez dut uste, euskaldunik gehienen antzera, sekula sumatuko dudanik: premiarik banu, *hari* edo *harentzat egin gaitu* esango nuke.

Hemen ere egiak erdizka dabiltza eta badugu biribiltzen hasteko ordu. Aingeru Irigarairi aitortu behar zaio behin batean argitara zuen iritziak (euskal aditza hedatu beharrean murriztearen aldekoak) baduela oinarri sendorik gure artean. Eta hain zuzen eredutzat (bai ote?) hartu nahi genituzkeen euskalkietan. Leizarragarena baino zaharragoa den Etxepareren liburuan, honelakoak aurki daitezke, sobera nekatu gabe, lehen plametan:

Arratsian etzitian gomendadi (!) Jeinkoari,

edota

Sainduier ere egin ezak (!) heure ezagutzia.

Bestela esan, guretzat bortxazko diren legeak beste zenbait euskaldunen eskuko gertatzen dira. Etxeparegan, beharbada, neurriak

---

[13] Noizpait esan da ikusten ez diren *adarrak* atzerritik sartu zitzaizkigula. Badaiteke. Inolaz ere, horiek dira euskararen kondairan lehenbiziko aldiz agertzen direnak, ez zezenek kopetaren bi aldeetara urguiluski daramatzatenak.

agindu du, baina neurriak ez zukeen jaun eta jabetasun hori erregela haustea bekatu larria izan balitz. Neurria gramatikaren eremuan izan zitekeen bere buruaren jabe, ez gramatikaren eremutik kanpora eta gramatika legeen kontra.

Gatozen bigarren puntura: *egin diat* eta gainerakoak bitara har daitezke. Nik ez dut esango horrelako anbiguitateak hizkuntzaren onerako direnik; ezta ere, ordea, kaltegarri eta are galgarri direnik. Non bizi gara? Ez ote zen Chomsky aspaldi jaio? Ez ote dakite kaleko zakur-katuek ere (edo hobeki esan, ez ote lukete jakin behar) hizkuntzak, edozein hizkuntzak, anbiguitatea berezko duela.

Hona zenbait. Euskaldunek eta bestek erabiltzen duten gaztelaniazko *le trajo* bitarikoa da beti ezinbestean («ekarri zuen» eta «ekarri zion», euskaraz), eta ez da inor, dakidanez, bikoiztasun horretaz artegatzen: ezta ni ere, *egin diat* edo *eman diat* esaten didatenetan.
389 Eta *le trajo* bezalakoxeak dira *le vio, te llevé* eta horien gisako beste ezin konta ahala. Berdin esango dizu *me compró un libro* liburu saltzaileak eta liburua erosleagandik hartu duenak. Zertaz luza?

Maiz gertatzen ere da, gaztelaniaz, aditzak lehen eta hirugarren pertsonak ez bereiztea. Eta horrelaxe uzten dute, adizkiaren aldamenean jar dezaketen izenordaina gehitu gabe. Zenbatek entzun ote du honako kanta hau:

> Mejor quisiera estar muerto
> que preso toda la vida?

Eta, halaz guztiz, ez du segur aski inork pentsatu ere «nahiago lukeen» hori Urlia edo Sandia, mintzatzen ari denaz beste, izan daitekeenik.

Bécquer honela abiatu zen «Rima» ezagun batean:

> No dormía, vagaba en ese limbo
> en que cambian de forma los objetos

eta ez da seigarren neurtitza baino lehen («en torno a *mi* cerebro») bikoiztasuna deusezta dezakeen hitzik. Inor ez da, haatik, kexu hori eta horren gisako beste milaka eta milaka bertso eta esaldi ilun daudekeelako.[14]

---

[14] Italianoz, eta ez italianoz bakarrik, latinezko *dicebam, dicebat,* etc., nahasiak edo nahasteko arriskuan gelditu zirenean, aitzitik, lehenbizikoa aldatu zuten:

Auzi honetan, gainera, nola ez dakigula, erabateko aditza, mintzaidea ahotan hartzen ez duena, orain arte eta beti euskal aditzaren giltzarri izan dena, besteren mirabe bihurtu da: *duk, dun* eta *duzu*-k (eta *etxe polita duk* beti da bikoitza!) kendu dute boterea eta agintea *da*-ren eskuetarik; *diat, dinat* eta *dizut*-ek, *dut*-enetarik. Ez ote da hau aspaldiko «orga idien aitzinean» hura berbera?

Mintzatzeko, eta are gehiago idazteko, *naiz* eta *dut* ditugu premiazkoen; *naiz, dut,* eta horien kidekoen mende beharko du egon, beraz, gainerako guztiak. Nekez topatuko dugu Axularrengan harako 560.-561. orrialdeetako pasarte haren parekorik.[15] Ez nuke inolaz ere hitanozkoa galtzerik nahi; are gutiago, halaz guztiz, hitanozko ez dena. Nonbait idazi zuen Garatek (eta buruz aldatzen dut mamia, hitzak oker daudelarik, alegia) barreiari agertzen dela euskal aditza: honek eskaintzen zion aditz pilo mardula ez zuela bizi osoan pertsona batekin bakarrarekin baizik (arrebarekin, noski) erabili. Nik ez dut arrebarik izan, eta adizki horiek erabiltzeko paradarik ere ez. Aldatuko dira gauzak, eta aldatzen badira hobe, baina, aldatzen ez diren bitartean, lehengo lepotik izango dut burua. 390

* * *

Bada, gainera, hirugarren arrazoia, ez agerikoa, baina azpijanean, satorraren gisa, ari dena gure «*dizkigute*-gipuzkera» gaixoaren aurka. Gezurra badirudi ere, Matteo Bartoli-ren *norma delle aree laterali* delakoa duzue. Hori da hitz kontuan gehienok Arantzazun ontzat hartu genuena eta horixe da orain aditzaren auzia, zenbaiten ustez, errotik ebaki behar lukeena.

Norma hori, egia esan, Schuchardtek erabilia da Bartolik baino lehenago, bataiatu gabe, ordea. Euskal gaia zuenez gero, egoki datorkigu hemen adibide gisa. Euskaraz baditugu *inurri* eta *inurri*-ren ereduko hitzak, batetik, dakigun xomorroa izendatzeko; baita *txindurri, txingurri, xin(h)aurri* eta horien gisakoak ere, bestetik.

Zaharrenak eta jatorrenak, zein? Bigarrenak, *tx-* eta *x-* dutenak, erdialdera agertzen dira; eranskin hori gabeak, berriz, Euskal He-

---

dicevo eta *diceva*. Ez dauka, haatik, inork italianoa hobetzat bereizkuntza hori dela kausa. Anbiguitateaz, bestalde, maiz baliatu dira lanabes gisa, ez poetak bakarrik, baita filosofo zuhurrak ere. Nik oroitarazi behar ote diet gure dialektikazale purrukatuei harako Hegelen *Aufhebung* hura?

[15] Ik. 12. oharra. Erdarari lotuago azaldu zen hor Axular Leizarraga baino.

391 rriaren bi bazterretan. Bistan da, beraz (eta ez naiz hemen hasiko zergatikoak astintzen), erdi aldekoa dela berrikuntza; bi bazterretakoa, berriz, antzinakoa. Honelakoetan, bada, badirudi, batasunera bagoaz eta horretarako erabateko bideak behar ditugunez gero, bazterretakoei eman behar geniekeela erdikoei kentzen diegun hitza. Horrelatsu gertatzen da *urtarril*-ekin, *iratzarri*-rekin eta abar, *ilbeltz* eta *esnatu*-ren kaltetan.

Eta orain, *tour de passe-passe* trebe baten bitartez sinestarazi nahi digute, nolabait eta nonbaitetik ere, Bizkaiko aditza eta «lapurtarra» elkarren ahaide hurbilagoak direla Gipuzkoa-Nafarroetakoa beste edozeinen baino. Hau borta bide da, sasikoa, eta ez du behar zukeen amaren nahiz aitaren eiterik.

Hori irents dezakeenak apoak eta suge biziak ere irentsiko lituzke. Eguneroko azturak besterik erakusten digu. Baztandar edo aetz ez diren nafarrek, giputzek eta manexek (baita xuberotarrek ere) errazago aditzen dute elkar, bizkaitarrek eta azkeneko hauek baino. Eta errazago nahiz zailago elkar aditze horren muina, hain zuzen, aditzean datza, hitz kontuan hegoaldekook, gaztelania dela medio, elkarrenganago baikabiltza. Bospalau adibide hona aldatzea aski eta gehiegi da hori zergatik gertatzen den ikus dezagun:

deuskuz	dizkigu	d(er)auzkigu
deuskuez	dizkigute	d(er)auzkigute
eustan	zidan	z(er)autan
eustazan	zizkidan	z(er)auzkidan

Hizkuntzalariek, orobat, beti esan dute Bizkai aldekoa dela euskalkien artean bereizkuntzarik nabarmenenak berezko dituena eta bereizkuntza horiek, bestetan baino areago, aditzean dira nabari. Hain nabari non bi hizkuntzalarik bederen (Uhlenbeckek eta Gorostiagak) ez baitute bi euskalki baizik bereizten: Bizkaikoa, batetik,
392 eta gainerako guztiak, bestetik. Ez dut uste iritzi hori zuzena denik, baina, dena den, badu dudarik gabe erro sendorik.

* * *

Beste norbaitek, eta damu dut iritzi paregabe horren jabearen izenaz ez oroitzea, idatzi du nonbait bost axola zaigula non dagokeen orain eta egun euskaldungoaren haberik sendoena. Beajondeiola! Inora nahi badugu, horrelako buru argiak eta zentzudunak behar ditugu gure artean.

Orain hemen dagokeen habe hori, kondairak erakusten digunez, bestetan egon daiteke bihar edo etzi. Baina nik, karismarik —beregainezkorik, abantailazkorik ez emendailuzkorik— hartu ez dudan honek, lehen-orainak ditut begien aurrean soil-soilik biharetzitakoei nolabait ere antzemango badiet.

Hizkuntza ez da hor goien bi hegalez airean dabilen izpiritu mehea (hots, gorputzik ez duen sistema baten eskema soila), baizik eta hemen behean, gizatalde batean, oinak landaturik dituen zer bizi eta sendo bat: gizartean bizi da, hiztunengan; hiztunak ditu jasaile, hiztunek bizi dute. Eta norengana nator betzain eta ilagin eskolagabeenak ere inork irakatsi gabe dakien Berri On hau zabaltzera? Gizartea, gizarte mailak, gizarte klaseak eta Treveriskoa beti ahotan duen jendeagana. Jaits gaitezen, azken buruan bada ere, honek arras gogoko ez zuen Izpirituaren erresumatik eta bazka ditzagun begiak, ez liburuetan, inguruan dugun mundu urrikigabe honetan baizik. Hemen indartsuak, zentzuz dihardutenak, gertatuko dira garaitzaile, ez amesgileak eta pentsalari «sakonak».

Arantzazun, zorioneko egun haietan, gipuzkoarrak izan ziren bereziki mintzatu zirenak, Aita Villasante izan ezik eta Villasante mintzatuko da bere ahoz, nahi badu, egoki iruditzen zaionean. Aski egin zuten gipuzkoar horiek (gehiegi, zenbait gipuzkoar zintzoren ustetan) besteri amore emateko: eta egitez egin zuten, ez hitzez, eta inork eragin gabe. Hori gorabehera, ezin ahantz dezake inork guztiok —hango haiek, haien bizkarretik berea 393
nagusi atera nahi luketenek, etxekoek eta arrotzek— ederki dakiguna: gure hizkuntza ahulak izan dezakeen indarraren egoitza nagusia hegoaldean dugula, eta, hain zuzen, hegoaldearen erditsuan. Inorena ez den euskara baturik ez nuke nahi; guztiona dena behar genuke eta, ezinean, zenbaitena bederen, ahalik eta gehienena.

Batere zalantzarik gabe, beraz *«dizkizute*-euskara» horren aldeko naiz. Argi al dago? Argi ez dagoena non eta noiznahi saiatuko naiz garbitzen. Ez naiz karismaduna, eta oker egon naiteke. Deus agintzeko, ez dut ez eskurik, ez gogorik ere. Neure iritzia agertzen dut, den bezalaxe. Eta barka, agertzekoan, zakarkeriarik izan bada:

> Hanc praeterissem fabulam silentio,
> si pactam mures non recusassent fidem.

Euskal izaerak badu ezaugarri nabarmena: zinetan eta benetan nahi badugu, nahimen hutsez zernahi erdiets dezakegulako ustea hezur-muinetaraino sartua dugu.[16] Zenbait aldiz onerako, zenbaitetan kalterako. Eneko Loiolakoa, Zumalakarregi, Arana Goiri, esaterako, ez ziren esku hutsik joan, bi azkenak herio goiztarrak eraman bazituen ere; Santa Krutzek ez zuen gehiegi atera, are gutiago Agirre oñatiarrak. Badirudi, guztiarekin ere, hobe genukeela indarrak neurtzen saiatu, borrokan hasi baino lehen. Horrelako usteek eta sinesteek zenbait lekutan bestetan baino fruitu naroagoa dakarte. Bilbon, hori ere paperetan datza, argitara ohi zuten *Euzkerea*.

Ez dirudi euskal indarren ardatza datozen urteetan bestetara makurtuko denik: dakigun eta inork nahi ez dugun aldera, bederen, ez dadila makur! Oraintsu arteko euskal idazle eta euskalariak erdialdera hurbildu dira beregainki, eta joera horrek ez zuen zer ikusirik ez politikarekin ez hizkuntzaz kanpoko beste deusekin. Ez
394 dezagun pentsa, gazteago garelako (zahartuko baitira gazteagoak ere), zaharragoak okerbidetik zebiltzanik beti. Zentzuz eta buruz joka zezaketen haiek ere, bakanka bederen. Batez ere, ez gaitezen ari menderen mende, Peneloperen gisa, egin eta desegin, beti abian bagina bezala, arbaso eta gurasoengandik datorkigun ondasun urria xahutzen eta xehatzen.

* * *

Prediku hauek antolatuxe nituenean, ikusi dut Aita Mokoroaren *Lengua vasca de hoy y de mañana* (Donostia, Auñamendi, 1971), eta gaingiroki ikusi, bestetarako astirik ez dudalako. Egilearen iritziak —ez, ordea, liburuak dakartzan zenbait eranskin— ezagunak nituen aldez aurretik. Laburzki mintzatuko naiz eta barka bekit okerrik itzurtzen baldin bazait presakaegi irakurri dudalako.

Bere iritzien sostengutzat eta irakurleen argibidetzat dakartzan habeak, behar bezain sendoak eta oraingoak ez izateaz gainera, badirudi saiheska hautatu eta erabili dituela.[17] Zenbait euskaltzale su-

---

[16] Ederki ageri da hori Lezama Limaren *Paradiso* delakoan, eta bazekien, noski, deiturak berak adierazten du, zertaz ari zen. Ni, damurik, ez nauzue euskaldun horietakoa, Barojaren harako «mistifikatu» xamar haietakoa baizik.

[17] Pompidou, politiko trebe eta hala-holako letra-gizonaren testu polita ere eskaini digu (25. or.). Dioena gezurtatzeko ez da urrutira joan beharrik. Hona nola agertzen duen Samuel Beckett aski ezaguna *The Penguin companion to literature*-k, II, 93. or. ⟦*II. European,* ed. A. Thorlby, London 1969⟧: «Irish novelist,

tsuren iritziak bildu ditu, baina Eleizalderenik ez, oker ez banabil, bestek asko den adina eta gehiago barreiatu dituelakoan edo. Eredu bila, errazago jotzen du Alemaniara, Italiara, Juan de Valdés eta Menéndez Pidalen Gaztelara, Kataluniara baino. Behin, bai, aldatu ditu Coromines jaunaren hitzak,[18] baina ez da hor agertzen Coro- 395
minesek aipatzen duen katalana Pompeu Fabraz gerozkoa denik. Ez ote zukeen Fabrak, hain gogorki hartua izan zen Fabrak, aipamen bereziagorik merezi? Galiziaz oroit zitekeen. Baita ere (zergatik ez?) URSS-en (SSSR-n, nahiago baduzue) eta beste zenbait erresuma sozialistatan segitu duten hizkuntz politikaz. Daviesenak baino berri berriagoak, Galesko hizkuntzaz, aurki daitezke hemen bertan. Eta abar, eta abar.

Ez dut uste ezertarako balioko lukeenik Aita Mokoroarekin eztabaidan hasteak: oinarri komunak behar horretarako, eta horrelakorik guti ageri da gure artean. Gauza batean bakarrik (gorago aipatu dudanaz kanpo) natorkio bat. Batasunerako, nik ez nuen bortxarik ez indarkeriarik nahi hasi berri hartan, ez dut nahi orain eta ez nuke nahi gerorako. Hobeki esan, bortxa eta indarkeria gizarteko harremanetan sendo baino sendoago erroturik ditugunez gero, ahalik eta gutien nahi nuke. Bestek bestelako usterik eta asmorik badu, har beza bere bizkar datorkiokeen erantzunbeharra. Besteak, nolanahi ere, ez dira alderdi batekoak bakarrik.

Jainkoak daki, eta liburu honetakoak irakur ditzakeenak ere badakike, ez dudala sekula uste izan inguruko eta ez hain inguruko hizkuntzak bazter ditzakegunik luzaroan anitz sailetan.[19] Albalitz

---

dramatist, poet, resident in Paris. Equally at home in English and French...». Honek esan nahi du, norbait ingelesez ez dakielakoan hasten baldin bazait, delako Beckett hori batean bezain trebe eta abil dela bestean, ingelesez eta frantsesez. Conraden izena entzun ote du Aita Mokoroak?

[18] Coromines maisu eta adiskidearen liburua ez dut esku artean: badakit, nolanahi ere, komeni zitzaiona hautatuko zuela Mokoroak eta komeni ez zitzaiona baztertu. Nolanahi ere, valentziar askok (liburu honetan agertzen da bat) ez dute uste —oker, ene iritziz— beren mintzaira eta katalana, Fabraz gerozko katalana, hain elkarren ahaide direnik.

[19] Mokoroaren «terapéutica bipolar» eta gainerakoak (57. or.) ez dira ongi begiz joak izan. Esaldi ergel horiek (eta horien antzekoak nekerik gabe antolatuko nituzke neronek «euskaraz») ez dute deus esan nahi. Ez laurogei milioitik gora diren horientzat: ez dute deus esan nahi *inorentzat*. Igarri, bai, neronek ere igarriko nioke, guti gorabehera, nola adieraz daitezkeen gaztelaniaz diru-goseak ahuntz-erdaraz, zoroen enganagarri, jarri dituenak.

ere, ez deritzat, gainera, komeni litzakeenik. Irakaskintzan Aita Mokoroak euskarari ipintzen dizkion zedarriak, ordea (ik. 57. or. eta hurrengoak), murritzegiak iruditzen zaizkit. Bestela esan, Aita Mokoroak uste du orain ere (eta ez 1936an) muga horietarik irten gabe
396 bizirik iraungo duela. Nik, ez. Muga horien barrutian dagoeino, segur naiz, heriotzera doa, bihar eguzkiak egungo ordutsuan beste agerraldiren bat egingo digula bezain segur. Eta nahiago nuke, mila bider nahiago, uste hori ustel agertuko balitz.

Bada, gainera, beste arazo bat, aski axolazkoa, lehengoak baino gehiago elkarrengandik urrutiratzen gaituena. Hitzez hitz aldatuko dut 39. orrialdean dioena: «Nuestra lengua, con su histórica diversidad de dialectos hablados y literarios, *es un bien común;* y, fuera de algún que otro aspecto accidental e intrascendente, nadie puede creerse autorizado a meter mano en ella con propósitos de reforma, sin consentimiento del legítimo dueño».

Hizkuntza, beraz, guztiona da, batena bezain bestearena, eta, zerbait aldatzekotan, jabearen baimena behar dugu. Eta guztiok garenez gero jabe, guztion baimena behar,[20] guztion aho batezko baimena. Eta bizi garen mundu narras honetan aho batezko iritzien batasunik ikusiko ez dugunez gero, ez du inork menderen mendetan deus aldatzeko baimenik izango. Bestela esan, guztiok bagara hizkuntzaren jabe, ez da inortxo ere hizkuntzaren jabe. Hizkuntza bera da, soil-soilik, bere eskuko eta bere buruaren jabe; damurik, hizkuntzak ez du ahorik mintzatzeko, ez eskurik deus aldatzeko. Guk gorputzaren alde batera eta bestera dugun bezalako eskurik, diot.

Pentsabide hori agertzen da, dakigunez (edo jakin behar genukeenez, Europan eta 1971n ari baikinen) Saussuregan, Meilletengan, Vendryesengan, eta pentsabide horrek etorki ezaguna du: Durkheimen soziologiako *fait social* delakoa. Aita Mokoroak badakien ala ez, nik ez dakit; ezta ere Durkheimen soziologia gogoko ote duen. Badut, haatik, susmoa ez lukeela gogoko izan behar, halako masoi usaina edo dariolako. Gauzak, ordea, hizkuntza kontuan, alderantziz dira, Durkheim gorabehera. Guztiok, jabe ga-
397 renez, aldatzen dugu hizkuntza, nork gehiago, nork gutiago: Aita Mokoroak, nik, eta aldameneko Peilok. Hizkuntza guztiak alda-

---

[20] Ez ditzagun bazter, jabeen artean, «vascos de apellido» eta «vascos de deseo» direlakoak (29. or.). Gogoa, nik baino hobeki daki Aita Mokoroak, obretan erakutsi behar da.

tzen dira eta ez dira berez aldatzen; hiztunek (eta izkribuzkoaz ari bagara, idazleek) aldatzen dituzte.[21] Guztiok dugu, bada, hizkuntza geure kabuz aldatzeko eskua ez ezik, aldatzeko kemena ere bai. Muga kontua da, funtsez: ea nola eta noraino aldatzeko dugun esku eta indar.

* * *

Guztiok jabe, bada; guztiok, eta inor ez. Inor ez, ote? Bai, alajaina, Aita Mokoroak ez arian eta bestela bezala liburuaren azken buruan (114. or.), berezko eta legezko balitz bezala, esaten digunaren arabera. Liturgiaz ari da:

orain baiño len, bear zan tokian, eta nere itzak beren argibide guztiakin paperean ezarrita, asko ta asko zezakean jaun aundi bati Erroman esanik utzi niona...

Eta honela darrai, aditzera eman zuen iritzia aldatu ondoan:

Agintzen duenak ordea eztizu erregutzen... Eta ixil-ixilik entzun bear izan nizun gizajo onek jaun aundiaren erantzuna, orain emen argitara ekartzekoa eztana. Gure eliz-artzai zintzoak, berak asmatu bearko dute, geroztik, nolatan lagundu beren artalde gaixoari, Jainkoaren itza *adierazten*...

Guk, euskaldunok, eskurik ez, orduan, eta Erromako edozein *Monsignore*-k bai? Hark esaten duena —eta euskaldunok jakin behar ez duguna— lege ote, hark esan duelako, euskaldunontzat? Argi geldi bedi, ene uste apalez, buruz eta zentzuz jokatu zuela Erromak auzi horretan, Aita Mokoroaz beste gidaririk izan zuelako beharbada. Ez zakar eta desegoki, inoiz Arantzazu zela eta 398
jokatu zuen bezala. Eta ez naiz ari, zaude trankil, Arantzazuko batzarreaz, hainbestek hain gogoko duen Arantzazuko elizaz baizik.

Bestetan Onaindia jaunari eta besteri egin diodan galderatxo bat egin nahi nioke Mokoroari: Erromak deitu zituen kontseilari euskaldunen artean, ba ote zen, kristau euskaldunei edo euskal-

---

[21] Gai hori ederki jorratu zuen E. Coseriuk, *Sincronía*, *diacronía e historia*, Montevideo 1958, 19 eta hurrengoak. Ongi letorkioke, gainera, liburu hori Aita Mokoroari, «Pompon»-ek dioena egia den ala ez erabakitzeko.

dun kristauei hainbeste dihoakien arazo horretan —*gure* hizkuntza hori ere artean baitabil, nahi eta ez—, kontseilari laikorik? Ez naiz kontentagaitza, eta ez ditut berrogeita hamar eskatzen, Sodomako hartan bezala, ez berrogeita bost, ez berrogei, ez hogeita hamar, ez hogei, ez hamar. Bat bakarraren izena eskatzen dut. Lehengoaren ondoan, beste bi datoz. Elizgizonak bakarrik ote dira Eliza ala elizgizonak eta beste zenbait? Vaticano II.aren ondoan bizi gara ala Vaticano II.a baino lehenago?

Nik, berriz ere esango dut, ez dut sekula ezer agindu («eta agintzen duenak eztizu erregutzen»). Behartu nindutelako, bide bat eskaini nuen: nahi duenak har dezala; nahi ez duenak, arbuia. Nor da, gu bion artean, etxean otso eta kanpoan uso?

* * *

Aita Mokoroaren liburuaz solas atsegin hau izan dugunez gero, ez nuke gaitzerupean estali nahi, erdaraz dagoen arren, daraman argitaratzailearen hitzaurre bikainak esku-zabalki eskaintzen digun argia. Ez du erregerik hautatu nahi ez kendu; badu, halaz guztiz, bere iritzia, zimendu sendoen gainean eraikia:

Entretanto el editor... va a limitarse a señalar algo sobre la idea que el
399 P. Mokoroa[22] tiene de la naturaleza de la lengua... La idea es realmente cierta, y el enfoque coincide con el que actualmente dan al tema no solamente los lingüistas más destacados *[sic]*, sino incluso biólogos tan eminentes como Monod, Premio Nobel de Medicina y Biología.[23]

Solamente quiere el editor apuntar y reforzar las ideas expresadas por el P. Mokoroa sobre la naturaleza íntima de la lengua, no como un juego de palabras de los órganos de la misma *[sic]* ni tampoco como una mera construcción del espíritu *[resic]*. El euskera es propiedad innata del grupo entero, puesto que se ha formado a una con él. El descubrimiento más asombroso es el de la independencia entre pensamiento y lengua, verificada en las más recientes operaciones cerebrales con motivo de afasias. El otro descubrimiento es el de que el aprendizaje de la lengua por el niño se verifica en una simbiosis con el crecimiento y desarrollo del cerebro ór-

---

[22] Oraintsuko usario baldresa bide da, baina, egungo irakurlearentzat, ez dira erdal testuak euskal testu bilakatzen *k* bat gorabehera. Nahiago du, aukeran, erdarazkoak erdal itxuran irakurri.

[23] Monod zor diodan begiramenez tratatzen dut. Nobel saria irabazi dutenen prezioa, haatik, behera doa gure artean Severo Ochoak Espainian egin eta Espainiaz esan zituen tentelkeriak dakizkigunez gero.

bito-frontal después de nacido el niño y durante la adquisición de la lengua. Por este motivo las lenguas adquiridas con posterioridad son adherencias sin intimidad intrínseca.

Nik uste nuen —ez nuen nahi, baina bai uste— hizkuntzarekiko jakitea, jakintza, jakiundea eta jakinduria ez zeudela hain aurreratuak Euskal Herrian, aitzina bide ederra egin badugu ere. Oker nengoen, oker baino okerrago, eta biziro poztu naiz: badut orain, etxeratzen naizenetan, nora jo neure egarria berdintzeko. Hemen bainabil, linguistikan agertzen diren bide berriez, urrutitik eta berandu bederen, jabetu nahian eta ez dut sekula horrelako argirik ikusi. Jakitekoa litzake zer pentsatzen duen hitzaurrekoez Aita Mokoroak, beti uste izan baita badela, eta behar duela izan, halako gogaidetasun bat autore biziaren eta lehen argitaratzaile eta hitzaurregilearen artean.

Are gehiago. Garunak behar bezala hazi ez zitzaizkidalako (kopetaldean nahiz garondoan ez dakit), adimendu urriaren jabe naiz, segur aski. Horrexegatik nonbait, argirik eza dela medio, ez diot antzematen zer ikuskizun duten oraindik oraingo aurkikunde miresgarri horiek hemen darabilgun auziarekin. Nobel saria urrutitik ere ikusi gabe, ordea, zerbait ikusi dut, beste gehiegik ere betaurrekorik gabe ikusi dutena: haur batek, alegia, zeharo eta erabat gal dezakeela bere lehen hizkuntza, bestetan hazi dutelako gero. Zorigaiztoz, euskara da, hainbestek, aztarrenik ere gabe, galdu duen lehen hizkuntza. Ez ote duzue zeurok ere horrelako inoiz euskaldun izanikako erdaldun hutsik topatu?

* * *

Hitz bi Larresororen *Hizkuntza eta pentsakera*-z. Ez naiz hasiko berriz aztertzen zein den zaharren eta jatorren, gure bost bokaleko sistema ala zuberotarren seikoa. Agertu dudan iritzia ez da neurea, auzi horretaz ni baino lehenago arduratu diren hizkuntzalari guztiena baizik. Besterena nuen neuregana. Gainera *erderak*, berrikuntza baten bidez diodan bidenabar, zuberotarren sei bokalak ditu. Hots, gaztelania ez den erdarak: Zuberoaren mugaide diren bearnesenak, bearnesa barruan duen gaskoiarenak, gaskoia barruan duen okzitanoarenak eta, labur beharrez, Frantzia osoko eta ez Frantzia bakarreko erromantzeek. Guztiek dute *ü* berri bat. Ez dugu, noski, esango gaztelauena bakarrik dela erdara.

Gainerakoei buruz, neurerik eta erdarazkorik inork irakurri nahi baldin badu, hor daude *I Semana internacional de antropología vasca*-n agertzen den lantxoa[a] eta «Luz y sonido en el lenguaje», aurki *Revista española de lingüística*-n argitarako dena.[b] Azkeneko hau, joan den udan Madrilen izan zen elkarrekiko edate batean, edari gabeko edatea damurik (hots, *symposion),* irakurria izan zen. Baina lasaiago mintza gaitezke, nahi izanez gero, honetaz eta hartaz.

* * *

401 Barka eske nator, azkenik, Barojaz bi bider bederik mintzatu naizelako gure Barojalari ofizialen baimenik gabe. Eta «barojalariak» ahora orduko, Santiago Aizarna idazle bipil beldurgabea dator gogora. Arlote-pobrea naiz, baina bertso pare bat eskaini nahi nioke egunen batean (urte luze-emankorren buruan baizik ez ahal zaio etorriko!) izango duen hilarrian ipintzeko. Franklinenak daramatzanen antzekoak dira:[24]

Otso agertu nitzan
argalen artean,
zakur leial bezala
nausien oinpean.

Bertsook, gainera, hilarrian ez ezik, egunen batean Oiartzungo herriak, zuzenbiderik gelditzen baldin bada, jasoko dion monumentuan ere ederki leudeke. Besterik ezean, eta lurra garestitxo baldin bada, ez legoke gaizki orain alferrik Mendibururen irudiak daukan lekuan.

Salamancan has eta
Gipuzkoako Errenderian buka,
Bazko bezperan.

---

[a] «Lengua y cultura», Bilbo 1971, 305.-340. or. [b] «Color y sonido en la lengua», *REL* 2 (1972), 83-102.

[24] Franklinenean hau irakur daiteke, oker ez banabil: *Eripuit caelo fulmen sceptrumque tyrannis.*

3

ASPALDIKO BERRIAK

Hemen naukazue nondik hasiko, etxera baino lehen herrira zer- 13
bait bidali behar dudala eta. Behingoz behintzat, gai «sakonak» eta geure artean darabiltzagun mokoka gogaikarriak baztertu nahi nituzke. Eta, besteri ekitekotan, urteek ematen didaten eskubideaz baliatuko naiz, zenbait oroitzapen hona ekartzeko.

Aspergarri xamarrak omen gara geure belaunaldikoak kontu kontari hasten garenean: beti batekin, dakizuen zerarekin, ari omen gara. Horrexegatik agian bestelako gertakariak, gerra aurrekoak, berritzeko asmotan agertu natzaizue. Bizibide franko, irabazpide nahiz galbide, izan dugu; jostaketarako gogoa ere bai, arteka-marteka. Oraingoan, beraz, geure herriko kirolak eta kiroltzaleak (horrela zuten izena) aipatu nahi nituzke, laburzki bederik.

Uso arrazoizkora heldu nintzenean, edo horretarako adina etorri zitzaidanean, baziren bi elkarte: «Lagun-artea» Olibet-eneko aldamenean eta «Euskalduna» Lartzabalen. Bataren korrikalariak ezagutu nituen, Migel Peña nagusi zutela, eta bestearen futbolistak. Badut, haatik, halako susmo bat bazutela elkarren artean, ezker-eskuin, bestelako bereizkuntzarik ere. Ez dago gogoratu besterik non zuten bizilekua batzuek eta besteek: «Zirkuloan» haiek eta artean berria zen Batzokian hauek. Ze alde zegoen ez da orain erraz ikusten, batzuk eta besteak (gehienak behintzat) elizara joaten baitziren. Nekez bereiz zitzakeen euskaltzaletasunak, Illarramendi, Elizetxea eta Joan Inazio Uranga Zirkuloan ibiliak zirenez gero.

Oarso 1973, 13-14; *GA* 25.-28. or.

14 Geroago agertu ziren, nik uste, «Touring» eta «Rapid», Etxeberrietako «Rapid»: tokitan gelditu dira Errenteriako «rive gauche»-an bizi ginenentzat orduan Etxeberriak zirenak! Ez nioke inori deus kendu nahi, baina ez dut uste lehengoak eta gerokoak erdi maila batetik gora igo zirenik. Nola igo, izan ere? Gure herriak izan zitzakeen gaitasunak janak zeuzkan Donostiak XVI. mendean, Pasaiko portuarekin batera, eta handik hona irensten ari da gelditzen zitzaizkigun pixarrak. Astelegunez Donostiara behar genuenok irundarrak genituen kontsolagarri, etxekoak aski ez zirenean. Gaur egun, «Real Unión»-en izena eta omena ere galduxe ditugu. Ez dakit, bada, zer egin dezakeen errenteriar jatorrak, donostiarren alde agertzen ez baldin bada.

Ni umea nintzelarik, don Migelek bakea eta futbola, berak asmatuak ez baziren ere, ekarri omen zizkigun. Urteen buruan alde egin zuenean, futbola gelditu zitzaigun; ez, ordea, jaun eta jabe, artean bezala. Haize berriak jo zuen eta haizearen ondotik abiatu ginen gu ere, zapiaren gisa. Batzuek gogoko zuten haize aldatze hori; zenbaitek, berriz, ez. Egingo nuke, halaz guztiz, ongi baino hobeki hartu genuela gazterik gehienek, hangoek eta hemengoek.

Haize berriak lege berriak ekarri zituen: ohitura, hizkera, jolas eta kirol berriak. Liburuak ere ugaritu ziren. Nik zinetan eta benetan ezagutu nuen «Lagun-artea», esate baterako, besterik izan zen, Susperregi adiskideak ederki dakienez: herriko liburutegi aski aberatsa zegoen etxea.

Lartzabal utzi eta mendira abiatu ginen, «haize osasuntsuaz bizitza indartzera», bospasei urtez lehenago hasiak ziren haziagoen atzean. Inguruan lehenbizi (Jaizkibilen, harri arteko pinuetan; Sutolan, pago-haritzen itzalpean), urrutiago gero, Euskal Herrian eta are Euskal Herritik kanpo.

Mendia nonbait ez genuen aski eta, zeren bila genbiltzan ez genekielarik, atletismoarekin egin genuen topo. Atletismorako bidea, egia esan, ez genuen guk aurkitu. Bestek erakutsi zigun, artean geneukan fede berriaren apostoluak, eskola-lagun izana nuen Eusebio Zubillagak. Euxebio, gure garaikoren bat edo beste oroituko da, lasterkaria genuen ordurako: osaba korrikalariaren iloba lasterkaria. Ez nolanahikoa, gainera. Nolanahiko lasterkariak, badaezpadakoak, erdialdera ibili ohi dira beti, ez aurreneko sekulan, ez azkeneko.

Ba, ez dakit non ikasia zuen ebanjelioa ederki irakatsi zigun zenbaiti, arraioak ez badu. Hasi ginen jende bila, mordoxka polita bildu arte, izenak eta markak buruz ikasten eta geure saiotxoak ahal

genezakeen lekuan (Zumardi handiko indigaztainen azpian eta) egiten. Orduan ezagutu nuen, berak argitara berria duen bezala, Hernandorena adiskidea, laguntza eske agertu gintzaizkionean; orduan Iguaran,Tolosako maisua, Mendizabal eta Gabino Lizartza plazan agertu zirenez gero aski sonatura.

Horrela sortu zen Eusko Gaztedi Kiroltzalea. Dirua ez dakit nondik atera genuen (behar ere, ez zen orain adina behar izaten), baina, hala-holako tresnak erosi ondoan, «Euskalduna»-koei —beheraka zebilen ordurako— errentan hartu genien Lartzabalgo kanpoaz zenbait orduz eta egunez baliatzeko eskubidea. Lurrak ezin utzi, ordea, zeuden zeudenean, saltalekua eta gainerakoak behar genituelako. Luzaroan aritu ginen zulogintzan, porlan eta hondar garraio, Euxebio genuela —akuilu zorrotza eskuan— gidari, katapaz eta buruzagi.

Kirol-kontuan, aski aldatua zen giroa ordurako Gipuzkoan eta ez ginen kontrakorik gabe gelditu, geure errainuarekin borroka. Garaitsu hartan bertan, «Touring» zaharrari kimu berria sortu zitzaion, atletismo sailean, Antonio Quiroga buru zuela; diodan ahopean ni izendatu nindutela beste taldearen buru. Bazegoen aldea bion artean, biok «Lanera»-n ari baginen ere. Quiroga, buru izateaz gainera, mutila zen pixua botatzen: Agustin Mitxelena, genuen pixularirik azkarrena, menderatzen zuen behintzat. Ni, berriz, ez naiz sekula trebea izan ez lasterka, ez saltoka, ez jaurtiketan. Teknokrata gisa edo, *avant le mot,* hartu bide ninduten, paperak astintzeko, ez pisua edo mailua. Horrela, nik ateratzen nituen kontuak paperean, karez markatu behar genituen kaleak behar bezalako neurriak eta atze-aurreak izan zitzaten. Gero, egia aitortu behar badut, paperean neurtuak ez ziren berdin gertatzen Lartzabalgo belarretan, zenbaiten onerako eta beste zenbaiten kalterako.

Behin eta bitan izan genuen norgehiagoka elkarrekin Errenderian bertan, eta bi aldietan galduan atera ginen gu eta irabazian haiek. Orduko gauzen berri dakienak igarriko zion beharbada bazela batzuen eta besteen artean, mailloten koloreaz gainera, beste bereizgarririk. Halaz guztiz, susmo eta goganbeharrak gorabehera, ederki moldatzen ginen, Erdi Aroko zaldunen edo Versaillesko gorte-jendearen antzera, gizalegean eta kortesi paregabean. Eta onenak eraman zezala.

Ez uste, horrenbestez, beti galtzaile ginenik. Aspaldidanik zetorren herriko jaietan (Madalen egunean bertan, oker ez banabil) «cross-country» luzea egiteko ohitura: hor ikusi ditugu, besteak

beste, «Lairon» eta «Zorrotz» lasterka, zein lehenago eta zein beranduago. Ba «cross» hori guk irabazi genuen azkeneko bi urteetan. Azkeneko bi urteak, jakina, 1934-1935 dira.

1936ko jaiak prest zeuden, Berlingoak bezala, baita bateko eta besteko lasterkariak ere. Badakizue noski, ordea, Madalen bezperako etxafuegoa baino lehentxeago programa zertxobait aldatu behar izan zela. Gure korrikalarietarik franko, beraz (onenak, Manero gizagaixoak, ez zuen luzaroko bizirik), eta sekula korrikalari izateko usterik izan ez zuten zenbait Artikutza aldera abiatu ziren ehiztari gisa, eskopeta bizkarrean. Nafarroa aldetik zetozen erbiek, ordea, bazuten eskopetak baino arma hoberik. Orduantxe hasi omen zen gure lasterkarien lasterra; handik Oiartzunaino motelenak, arnasarik hartu gabe, eta bizkorrenak etxeraino. Eta, diotenez, Azken Juizioko egunean gertatuko den bezalaxe, azkenak izan omen ziren aurren eta aurrenak azken. Non eta noiznahi egin diren marka guztiak ere hautsi omen zituzten. Zorigaitzean, ez zuten «homologatzailerik» aurkitu. Ezta ere, ongi merezia zuten arren, ez kanta zaharrik ez bertso berririk aterako zienik.

Quiroga Touringdarrak eta nik urtebeteren buruan edo egin genuen topo elkarrekin. Ez, alajaina, Lartzabalen, *Seven Sea's Spray* zelakoaren bodegan baizik. Eta Jones ezaguna (Potato Jones ala bere anaia?) bagenuen ere kapitain-pilotu, ez gintuen urrutira eraman, halabeharrez. Onerako edo gaitzerako, nork daki?

Badirudi zahartu ahala aberatsago behar genukeela izan, jakitez eta oroitzapenez bederen. Gu ere, ez inguruan dugun mundua bakarrik, aldatuz goaz: atertu gabe darion urak garamatza. Nik, sakelak arakatu ondoan, ez dut gehiegizko ondasunik aurkitu. Hemen dituzue, urri eta murri, esku artean irauli zaizkidan sosak: txanponak, txakur txikiak eta bixentimokoak.

4

GIPUZKOARRA NAIZ / SOY GUIPUZCOANO

Gipuzkoarra naiz

«Gipuzkoarra zara?» galdatuko balidate aspaldi bateko dotrinen gisan, ez nuke noski zalantza estuegirik izango baiezkoan, gaiari dagokionez, erantzuteko. Ez litzaidake halere beste horrenbeste gertatuko galdera alderantzizkoa balitz. 239

Lotsatuxe gelditu nintzen behinik behin, duela hogei urtetsu, Cabezón de la Salen, han mundu honetarako eta besterako gidari zirenekin batean bazkaltzen ari ginenean. Aski bizirik zebiltzan politika nahastetara jo genuen azkenean, ez nere gogoz, eta horra non jakin nahi duten nongoa edo nongotarra naizen ni; nik, berriz, ixilune labur bezain nabari baten ondoan, «gipuzkoarra» erantzutea aukeratzen, hoberik ezean edo. Eta oraindik ere aski dut orduan gertatuaz oroitzea orduko lotsa berritzeko. Ez egia esan ez nuelako, baizik eta, nolaerebait, ez nuelako egia osorik aitortu. Alde eta aldi hari zegokiona, alegia.

Okerrena zen, geroxeago ikusi nuenez, ez nuela inolazko kezkabiderik. Erraz ager daiteke zer jakin nahi zuten galdatzaileek, eta zergatik. Mendiz harunzkoa ote nintzen ziren beldur, Burgos-Palencia aldekoa, *maqueto* bat beraz, bertako mintzaerarik jatorrenean esan ohi duten moduan. Maizegi gertatzen omen dira hauek —besteren ahoz ari naiz hizketan— egoskogor setoso itsu horietakoak. Ez ordea gu, «gipuzkoarrok», artean bederik.

Eladio Jimeno, *Gipuzkoar zantzuak. Trazos de Guipúzcoa,* Donostia - San Sebastián, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala - Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, 1986, 239-242; *MEIG* IX, 149.-152. or.; *EN* 475.-477. or.; *GA* 411.-413. or.

Han beharrik gabe erabili nuen izena erabiltzeko ez dut eragozpenik, ez baitut uste deitura hori zenbaitek pentsatu duen bezain berria denik. Bistan da, dena den, *castellano* esateko *gaztelau* erabiltzen zuen euskal jendeak ez zukeela *gipuzkoano* bere horretan utziko, Xenpelarrek eta usa zezaten. Aski dugu paper mordoskaren bat ikuskatzea Nafarroan *iputza* nagusi zebilela konturatzeko. Baina ez *iputz* hori, ezta geroago Mendebal aldetik agertzen zaigun *giputza* ere, ez dira usuegi agertzen gipuzkoarren ahoan nahiz luman beren burua eta beren kideena izendatzeko.

Bestek darabil gehienbat, *probintziano* bezalaxe, eta gipuzkeraz mintzatzen delako, seinalagarri, ez Gipuzkoan jaio eta bizi dela bereizteko. Dakigunez, Andra Milia Lasturkoren ahizpak deitoratu omen zuenez, *Mondragoec*

Gipuç andraoc artu ditu gastoto.

Larramendi bera ere ez dago baztertu beharrik. *Guiputzean icusi ditugu* o *Guiputzean hizcunde horiec?* dioenean, euskara mota bat egiten den eskualdea du gogoan, dirudienez, besterik baino areago. *Gipuzkoar* hitza, nolanahi ere, ez bide zen ohikoa beretzat, ezta Iztuetarentzat ere. Haren *gipuztar* eta honen *gipuzkoatarrak* hoberik ezean sortuak baitirudite.

Izenez nahikoa dugunez gero, goazen orain izenetik izanera. Iritzi-irudipenetara, bederen. Neretzat, baita segur aski beste edozeinentzat ere, ez da Gipuzkoa egonean egon dagoen zerbait, ibili dabilena baizik, noiz edertzen eta noiz eskasten, noiz argaltzen eta noiz mardultzen.

Ezin uka zaharra naizela. Badira halaz guztiz esanak eta eginak, egoerak eta jarrerak ezagutu ez ditudanak. Eta horien artean aipagarri dira batez ere paper bidez heldu ez zaizkidanak, bizirik zirautelako oroitzapenak artean, lehenaren aztarna suntsitu ez zelako oraindik.

Oroit-lainoetan barrena, esan-kontatuen oihartzun, honelako zerbaiti igertzen diodala iruditzen zait maiz aski, susmo dudan egoera sekula mamitu ez bada ere erabat: zenbat ere aspaldiago, orduan ere egiazkoago gerta zitekeen beharbada gure munduan. Gipuzkoar batek, diogun errenderiar batek, bazituen, nekez aurki baitaiteke jaioterri bakarreko gizakirik, bi sorterri guttienez: sorterri nagusia eta sorterri ttikia, orduko ohituraren arabera. Nagusiaz ez naiz mintzatuko, garbi baitago zein izan zitekeen Bilintxentzat, Manterolarentzat eta

Santa Kruz apaiz borrokalariarentzat. Ttikia, berriz, ez zen zenbaitentzat, askotxorentzat nik uste, gure Gipuzkoa kuttuna besterik.

«Uso arrazoizkora» heltzea (bizitzaren gailur zen orduan une hori, nahiz zehazkiro mugatua ez egon) Primo de Riveraren nagusitasunarekin bateratsu gertatu zitzaidan, eta ez dago beste argiren beharrik gauzak zer-nolatan zebiltzan jakiteko. Sorterri nagusiaren maitasuna fraideak —erdi frantses erdi arabar— saiatu ziren gureganatzen, nahiz haien ahaleginak behar bezain ekarkor ez izan beti. Ttikiagoren premiarik ez zuten haiek, baina eskura zitzaizkidan, halaz guztiz, lehenago eskoletarako prestatu ziren liburuak, Gipuzkoaz eta Gipuzkoaren kondairaz.

Etxeko giroa bestelakoa zen, haatik. Aitak Karlos VII.a ikusia zuen ttikitan, baina, horrexegatik eta horren ingurukoengatik, beste bidea hartu zuen: alderdi berri baten lehenbizikoetakoa izan zen Errenderian. Ama, Lapurdi-minaren mende etengabe, berdintsua zen usteetan, zorrotzago agian mintzatzeko orduan. Gipuzkoa ere ez zuten guztizko, lehenagoek bezala. Esan baitut nondik hartua zuten grina: bizkaitar garai Bizkaiaren bila zebilela ez nondik eta ez nora Euskadi aurkitu zuen harengandik.

Geroagokoak erraz uler daitezke. Gipuzkoar sonatuen ospea ahultzen hasia zen sarritan: Urbieta, Joanes, «kale-jabearen» Paviakoa gero eta ilunago ageri zen: Gamon, Kristobal, «errenderiarra», errenderiarra ez ezik, ez zen gipuzkoarra ere; Okendo gaztearen aldamenean mutila zen itsasoko arazoetan Tromp holandesa, eta abar, eta abar. Egia da gailentzen ari zitzaizkidala urteen buruan Larramendi eta Institutuko patroi izan genuen Munibe, beste banaka batzuen artean, baina nekez irabaziak ez ziren galerak kitatzeko duin.

Beranduago oraindik, etorri behar zuena etorri zenean, luzaro gabe ikasi nuen lehenago irakatsi behar zidatena. Labur-meharrak direla 242
gure Gipuzkoako lurrak eta nahitaezkoa dela bestetan aritzea defendituko baditugu: Araba-Bizkaikoetan saiatu ziren lan hori egiten, eta are urrutiago. Ederra da Gipuzkoa, nolazpait esan, baina ez dugu aski.

Arana Goirik berak atera zituen ondorioak atera nituen, beraz, nik ere, Gipuzkoatik abiaturik: ez ote zitzaion bada hari ere bizkaitar asmatu zuen ikurrina euskotar bihurtu?

Bi eratako jendea aurki daiteke gure artean, auzi honi bagagozkio. Iztueta, esaterako, «gipuzkoarra» dugu: kondaira Gipuzkoakoa da, Gipuzkoakoak dantzak ere. Bazekien pausoro darabiltzan euskara eta euskaldunak ez zirela gipuzkoar soilak. Baina ez du berez datorren ondoriorik ateratzen.

Bereztaileen artean izan dira halere zenbait batasun zale. Oihenart, adibidez, eta Peñaflorida. Eta buruen buruenik Larramendi, betiko «gipuzkoar eta gainerako euskaldunak» ahotan dituena. «Non da ordea —dio— elcarte hori?». «Guerras tendremos que sustentar. Sea así. Pero serán guerras cantábricas cuyo nombre debe infundirnos aliento». Halabiz, eta odol ixurtzerik gabeak izan bitez.

Soy guipuzcoano

239 Si me preguntaran «¿Sois guipuzcoano?» a la manera de las viejas doctrinas, no sentiría mayor vacilación en contestar afirmativamente, sin apartarme de los hechos. Con todo, no me ocurriría lo mismo si la pregunta se me hiciera en sentido contrario.

Por lo menos sentí cierta vergüenza en Cabezón de la Sal hace como veinte años, mientras comíamos con guías de este mundo y del otro. Terminamos, y no precisamente por mi gusto, con dar en los pleitos políticos bastante enconados del momento. Y van y se les ocurre preguntarme por mi origen. Y yo, después de un silencio tan breve como manifiesto, contesto, a falta de mejor respuesta: «Soy guipuzcoano».

Me basta con recordar aquello para que vuelva a avergonzarme. No, claro está, porque faltara a la verdad, sino porque no dije en cierto sentido toda la verdad. Es decir, la que correspondía a aquel lugar y momento.

Lo peor es que, como vi enseguida, no había razón de vacilar, ya que no es difícil explicar qué querían saber los que preguntaban y por qué lo querían saber. Lo que temían es que yo fuera de allende los puertos, de Burgos o Palencia: en otras palabras, *maqueto,* como dicen del modo más castizo. Porque parece suceder con demasiada frecuencia —lo cuento como me lo contaron— que éstos sean de la casta de los fanáticos obstinados. No, por el contrario, nosotros, «los guipuzcoanos», al menos por aquellos tiempos.

No es que sienta el menor embarazo en emplear el nombre que
240 allí empleé, puesto que no creo que esa denominación sea tan reciente como algunos creen. Es evidente, a fin de cuentas, que la gente de lengua vasca que llamaba *gaztelau* al castellano no habría dejado tal cual el término *guipuzcoano* para que lo emplearan Xenpelar y otros. Basta con examinar unos cuantos papeles para percatarse de que era *Iputza* lo que dominaba en Navarra. Pero ni ese *iputz* ni el *giputz* que luego se nos aparece por poniente parecen

atestiguarse demasiado a menudo en la boca o en la pluma de guipuzcoanos para designarse a sí mismos y a sus paisanos.

Son otros los que lo suelen usar, al igual que *provinciano,* para indicar a quien habla guipuzcoano, no para distinguir a los que han nacido o viven en Guipúzcoa. Es sabido que *Mondragón,* en las endechas de la hermana de doña Milia de Lastur,

Gipuç andraoc artu ditu gastoto.

No hay tampoco motivo para hacer una distinción con Larramendi. Cuando escribe *Guiputzean icusi ditugu* o *Guiputzean hizcunde horiec?,* piensa, por lo que se ve, en una clase de euskara y en el lugar en que ésta se emplea, antes que en otra cosa. No parece, con todo, que la palabra *gipuzkoar* le fuera familiar, como tampoco se lo era a Iztueta. Porque se diría que el *gipuztar* de aquél y los *gipuzkoatarrak* de éste fueron creados *faute de mieux.*

Baste ya de nombres, y pasemos a las realidades. O, por lo menos, a fantasías y opiniones. Para mí, como a buen seguro para cualquier otro, no es Guipúzcoa algo que permanece en su ser, sino algo que cambia en su correr: embellece o se aja, enflaquece o gana cuerpo.

No puedo negar mi condición de viejo. No lo soy tanto, sin embargo, que no haya hechos y dichos, situaciones y posturas que no he conocido por mí mismo. Y entre éstos me parecen memorables los que no me han llegado a través de la letra escrita, porque eran recuerdos vivos, restos del pasado que no se habían destruido.

Entre las nieblas de la memoria, como eco de lo dicho y oído, me 241
parece entrever con frecuencia algo, aunque ese algo nunca haya alcanzado completa realidad: quizá le estuviera más próxima cuanto más lejano el tiempo. Un guipuzcoano, digamos un renteriano, tenía, puesto que es difícil encontrar gente con sólo una patria, por lo menos dos: la grande y la chica, como se decía. No voy a hablar de la grande, ya que no hay duda de cuál era para Bilintx, para Manterola o para el belicoso cura Santa Cruz. La chica, por su parte, no era para algunos —para muchos diría yo— sino nuestra amada Guipúzcoa.

La llegada al «uso de razón», cumbre vital para los de entonces, coincidió para mí con la subida de Primo de Rivera, lo cual basta para señalar cómo andaban las cosas. Los frailes —medio franceses, medio alaveses— se esforzaron en infundirnos el amor a la patria grande, aunque acaso sus empeños no tuvieran siempre la retribución merecida. La chica la consideraban innecesaria, pero, a pesar

de eso, llegaron a mis manos libros que antes se habían preparado para las escuelas, sobre Guipúzcoa y su historia.

Era distinto, con todo, el clima de casa. Mi padre, de crío, había llegado a ver a Carlos VII, pero, por eso y por lo que se le asociaba, tomó otros caminos: fue de los primeros miembros en Rentería de un nuevo partido. La madre, dominada por la nostalgia de Labort, pensaba de modo parecido, aunque quizá fuera más hiriente en sus palabras. Tampoco Guipúzcoa llenaba su corazón como ocurría con gentes anteriores. Ya he apuntado, creo, de dónde les venía la inclinación: de aquel gran vizcaíno que a vueltas con Vizcaya fue a dar no se sabe cómo con Euskadi.

Lo que sigue se deja entender. Había empezado a empañarse la gloria de bastantes guipuzcoanos famosos: cada vez era más oscuro lo que el callejero Juan de Urbieta hizo en Pavía; el «renteriano» Cristóbal de Gamon no era ni siquiera guipuzcoano; en el mar Oquendo el joven no daba la talla, con perdón, del holandés Tromp, etc. Es cierto, por otra parte, que con los años aumentaba la
242 estatura de Larramendi y la de Munibe, patrón de nuestro Instituto, y la de algunos otros, pero estas penosas ganancias no bastaban para compensar las pérdidas sufridas.

Más tarde todavía, cuando vino lo que tenía que venir, pronto aprendí lo que antes debían haberme enseñado: que las tierras de Guipúzcoa son exiguas y que es preciso salir de ellas si hay que defenderlas. Trataron de hacerlo en Álava y en Vizcaya, y aun más lejos. Por decirlo de algún modo, Guipúzcoa es hermosa, pero no nos basta.

Así que llegué a las mismas consecuencias a que llegó Arana Goiri, a partir yo de Guipúzcoa: ¿no se le volvió también a él vasca la bandera que ideó vizcaína?

Hay dos clases de personas entre nosotros bajo este punto de vista. Iztueta, por ejemplo, es «guipuzcoano»: su historia es la de Guipúzcoa, igualmente sus danzas. Sabía bien que euskara y euskaldun, palabras que repite a cada momento, no correspondían a Guipúzcoa en exclusiva. Pero no saca las consecuencias que se presentan espontáneamente. Entre los separadores se hallan con todo algunos defensores de la unión. Por ejemplo, Oihenart y Peñaflorida. Y a la cabeza de todos, Larramendi con su continuo «los guipuzcoanos y demás vascongados». «Pero, ¿dónde se encuentra —se pregunta— esa unión? Guerras tendremos que sustentar. Sea así. Pero serán guerras cantábricas cuyo nombre debe infundirnos aliento». Así sea y sean sin derramamiento de sangre.

5

BERTSO BERRIAK, DONOSTIARREN GARAIPENA DALA-TA JARRIAK

1

Zenbait bertsotan azal bear det,
azaldu al baldin ba'da,
gure gañera erori zaigun
eraso gogor, zakaŕa.
Atzo jokatu estropadak-ta
garaile donostiaŕa...
Gure oraingo entzun-beaŕa
ezta izango makala!...
Goiko Jaun onak emango al digu
eramateko indaŕa...

Espetxean [1940-IX-18]; *MEIG* I, 39.-44. or. [«Mikelazulo'ko belea»-k sinatua dago eta honako eskaintza hau darama: «Artzelus, Mendizabal, Iradi ta gañerako donostiar jaun agurgarriei, biotzez». Testu honen egiletasunari buruz ikus Patxi Altuna, *MEIG* I, 16.-19. eta 43.-44. or.

2

Ori da gauza aŕigaŕia...
Donostiaŕak lenbizi!
Patxi Santuak mirariren bat
egin duela dirudi.
Santu beŕiak lagundu aŕen
atik eztute irabazi.
Ta... aspaldi ontan nola eztuten
olakorikan ikusi,
esponja baño aŕogo daude...
Oien ondoan zein bizi!

3

Irten zulotik, donostiaŕa,
mingaña ongi dantzatu;
ainbeste urtez ixil-beaŕak
ia ia lertu zaitu.
Bota aŕunkak, zuk oi bezela,
aŕo-panpaŕoi agertu;
au jakin gabe gipuzkoaŕik
ez bedi beintzat gelditu;
oraingoa, ba, zurea da-ta
bazter guziak nazkatu.

4

«Aufa! Etzegok mundu guzian
gu bezelako mutilik!
Gora Amaikak! Gora Donosti!
Gora Kiriko ta Kaŕil!
Lagundu digun Santu beŕia
Jaunak dezala berekin!
Gora Pamao! Betor onera
iñon ba'da galtzadunik!
Eztator iñor... Ez baitek jaio
donostiaŕen berdiñik.

5

Gaurko gurenda ospatu bedi
Kiriko'rena bezela;
piztu argiak, jantzi leioak,
Patxi'ri jaŕi kandela...
«Marca Pamao» karameloak
laister egin ditzatela...
Amaika urtez egon ba'gera
gure txokoan eŕeta...,
ara aurtengoa guk irabazi...
Danak izoŕaitezela».

6

Urte bat laister dijoa-eta
egin orain lasai paŕa.
Datoŕenean... ongi dakizu:
zokoan gorde-beaŕa.
Asterakoan: Aupa Amaikak!
Auŕera, Donostiaŕa!
Gero, itzuleran, beti bezela,
laŕi begian negaŕa...
Beste olakorik ikusterako
luza bear zaizu bizaŕa!

6

OSCAR WILDEREN *ERRALDOI BEREKOIA*

Ingelesez fiction *deitzen dioten literatur motari —nobela, ipuin,* 11
nolanahiko asma-lanei hitz batean— xoko bat prestatu nahi genioke hemen, ahalik zabalena. Ez da hau agian, gaurko egunotan ere, literaturan izan daitekeen mailarik garaiena, baina bai noski zabalduena eta oraingoena. Gureena ere bai, esango genuke, gu ere gaurkoak garen aldetik, euskal literatura hain urri eta eskas ez balitz sail honetan. Zergatik ote? Besteak baino zailago delako, edo euskaldunok horretarako dohain berezirik ez dugulako?... Ez dakigu, baina ez dugu hori uste. Lurralde zabal horietan gidaririk izan ez dugulako areago. Eta, izatekotan ere, neska-mutil gazteen lana ez delako —txiki-txikitandik agertu ohi den bertsoetarako etorria bezala—, gizon hazi-helduena baizik. Eta gu, gorputz-adinari gagozkiolarik sarri asko ohi dugun bezala, Europako herrietan zaharrenak izanik, gaztaro gordinean gaude oraindik gauza askotan, eta pixoihaletatik atera gabe ere bai zenbaitetan.

Gerongandik sortutako haurrik ezin ager genezakeen artean —eta horientzat antolatu dugu bereziki aterpe hau—, besterenak hartu behar semetzat, etxea hutsik eduki nahi ez baldin badugu. Kanpotarrengana jo dugu beraz bide-galde, lotsa gaiztorik gabe. Eta, lekuak hala agintzen duelako, ipuin laburrak hautatu ditugu honako, ez kontaketa luzeak.

Aurrean daukazun hau ez dugu onena izango eskuarki bere sailean, ezta apika onenetakoa ere. Esku artean geneukan horratik, eta hona. Oscar Wilderen bizitza aipatu beharrik ez dago hemen, ezagunegia

---

«Kontu kontari», *Egan* 1954, 11-15; *MEIG* IX, 100.-106. or. [Bukaeran honako hau irakur daiteke: «Eleizalde'z itzulia»; *MEIG*-en honela zuzendu da: «Eleizalde'k itzulia»].

baita gertakari beltz batek nabarmendu zuenez gero. Argitasunik nahi duenak badu nora jo, gainera. Aurten bertan agertu da bere semearen liburua (Vyvyan Holland, Son of Oscar Wilde*, London, Hart-Davis), eta ez da bakarra. Hauxe esan nahi genuke horratik. Artea, antze-lana, Wildek behin eta berriro dioenez, ez omen da inoren mirabe, bere eskuko da, bera da bere helburu, ez du beste zertarakorik, ezer era-*
12 *kutsi eta irakatsi beharrik ere ez, beraz. Baina —harritzekoa, holako kontra-jokoak gizonak berezko dituela ez baldin bageneki behintzat— ahoa ireki ahala sermoia sortzen zen haren ezpainetatik, hemengo honetan bezalaxe. Sermoizaleegia ez baldin bazara ere, ordea, gogoko izango zaizu noski ustegabeko fraide dotore honen predikua: ahaleginean gogortu nahi genukeen bihotz honen ixuri xamurrak baduela bere saria, alegia.*

Bere Ipuinak, *ederki itzuliak gainera, Altunatar J. jaunak euskaraz eman zizkigun (Bilbon, 1927).*

Arratsaldero, haurrak, eskolatik irtetean, Erraldoiaren lorategira joaten ziren jostatzera.

Handia eta ederra zen lorategi hura, belar heze eta biguinez jantzia. Han-hemenka, belar artean, loreak ageri ziren, izarrak bezain dizditsu. Baziren han udaberrian urre-bitxizko lorez loratu eta udazkenean fruitu gozoz betetzen ziren hamabi mertxikaondo ere. Txoriak arboletan kokatzen ziren eta haurrei maiz aski utziarazten zizkieten beren jostaketak: hain xamurra zen haien xinta.

— Bai ederki bizi garela hemen!—, egiten zion oihu batak besteari.

Halako batean, Erraldoia itzuli zen. Cornwallgo Handia, bere adiskidea, ikustera joan eta zazpi urtez egon zen harekin. Zazpi urteen buruan, hitz-aspertu bat egindakoan —haren etorria ez baitzen azkengabea—, bere gaztelura itzultzea erabaki zuen. Bertarakoan, haurrak ikusi zituen lorategian jostatzen.

— Zer ari zarete hemen?—, izan zen haren oihu zakarra. Eta haurrek ihes egin zuten lasterka.

— Nere lorategia nere lorategia duk —esan zuen Erraldoiak—, guziok jakin behar litekek hori, eta ez zioat inortxori hemen jostatzen utziko.

Eta horretarako harresi handi-handi bat jaso zuen, eta ohar hau jarri hartan:

Sarrera debekaturik dago: kontu gero! 13

Oso berekoia zen Erraldoi hura.

Haur gaixoek non jostaturik ez zeukaten. Bidean hasi ziren, baina hautsez eta harri-kozkorrez beterik zegoen bide hura eta ez zitzaien atsegin izan. Askotan ibiltzen ziren pareta inguruan, eskolatik irtetean, eta beste aldeko lorategi ederraz mintzatzen.

—Bai ederki bizi ginela orduan! —esaten zioten elkarri—.

Udaberria etorri zenean bazterralde hura guzia txoriz eta lorez josi zen; Erraldoi berekoiaren lorategian, ordea, Negua oraindik nagusi. Txoriek ez zuten kanta-gogorik, haurrik ez baitzen, eta zuhaitzei loreak ematea ahaztu egin zitzaien. Halako batean, lore eder batek altxa zuen burua belar tartetik, baina ohar hura ikusi orduko, haurrak zirela-eta, triste-triste gelditu zen eta, lurpean ezkutaturik, loak hartu zuen berriro.

Elurra eta Izotza bakarrik zeuden pozez.

— Udaberriari ahaztu egin zaiok nonbait lorategi hau —zioten— eta hemen biziko gaituk urte osoan.

Elurrak bere soingaineko zuripean estali zuen belarra, eta Izotzak arbolak zilarrez jantzi zituen. Ipar-haizeari deitu zioten gero, haiekin egonalditxo bat egin zezan. Bai Ipar-haizea etorri ere. Larruz bilduta zebilen eta egun osoan orroka jardun zuen lorategian barrena, tximiniak boteaz.

— Giro zegok hementxe! —esan zuen— Kazkabarrari esan behar geniokek gu ikustera etortzeko.

Bai Kazkabarra etorri ere. Hiru orduz jotzen zuen danbolina egunero gazteluko teilatu gainetan, teilak apurtuxe zituen arte, eta gero inguruan biraka hasten zen, tximistak harturik. Soineko arrea zuen eta arnasa izotza bezalakoa.

— Ez zekiat zer dela-eta luzatzen duen horrenbeste Udaberriak —zioen Erraldoiak leihora atera eta lorategi zuri hotza ikustean—. Luzaro gabe aldatuko ahal duk eguraldia.

Baina Udaberririk ez zen behin ere etorri, ezta Udarik ere. Udazkenak urrezko fruituak eman zizkien lorategi guziei; Erraldoiarenari, ordea, ezta bat bakarrik ere.

— Berekoiegia duk, zioen.

Beraz, Negua zen beti han; eta Ipar-haizea, eta Kazkabarra, eta Izotza, eta Elurra dantzan ari ziren aspertu gabe arbol artean.

Goiz batez, Erraldoiak, oraindik ohean zegoelarik, musika zoragarri bat entzun zuen. Hain eztia zen, alegia, haren belarrientzako,

soinu-jotzaileen erregea pasatzen zela uste izan baitzuen. Izan, ez zen karnaba bat besterik, leiho aurrean kantari; baina daitekeen soinurik ederrena iduritu zitzaion, ez baitzuen aspaldi hartan txori-
14 xintarik aditu bere lorategian. Orduan kazkabarrak eten zuen bere dantza, Ipar-haizeak atertu zituen orroak, eta urrin atsegina sartu zen leiho zabalean barrena.

— Etorria duk Udaberria, inolaz ere —esan zuen Erraldoiak, eta ohetik jauzi eginda leihora jo zuen arin.

Zer ikusi ote zuen?

Ikuskizun harrigarria. Haurrak hormaren urratu batetik sartu eta zuhaitzetara igoak ziren. Zuhaitz bakoitzean haur bat zegoen, eta goxo-goxo eragiten zieten bere besoei haurren buru gainean. Txoriak, alai, hegan zebiltzan txioka haien inguruan, eta loreak barrez ari ziren buruak belar tartetik agertuz.

Ikuskizun ederra, ederrik bazen. Xoko batean, ordea, Negua zen oraindik nagusi. Lorategiko bazterrik bazterrenean zegoen eta haur bat ageri zen han. Arbolara ezin igo nonbait, txikia baitzen, eta inguruan zebilkion negar samina zeriola. Izotz eta elurrez zeharo estalia zegoen orandik zuhaitz gaixoa, eta haren gainean Ipar-haizea ari zen haizemaka eta marruka.

— Igo hadi, ttiki!, zioen arbolak, eta adarrak makurtu ahala makurtzen zituen; haurra ordea ttikiegia izaki.

Eta Erraldoiak, begira zegokiola, bihotza urtu beharrean zuen.

— Zein nerekoia izan naizen! —esan zuen—. Orain ikusten diat, orain, zergatik ez zuen Udaberriak honera etorri nahi. Neuk jasoko diat haurtxo hori zuhaitzera eta gero pareta botako, eta nere lorategia haurren jolastoki izango duk beti-betiko.

Izan ere, egindakoaz arras damuturik zegoen.

Jaitsi zen, bada, eskaileretan behera, eta aurreko atea ixilka irekirik lorategira sartu zen. Haurrek, ordea, sumatu zuteneko, beldurrak harturik, lasterrari ekin zioten eta lorategia Neguan sartu zen atzera. Harako txiki hura bakarrik gelditu zen ihesi joan gabe, ez baitzuen Erraldoia etortzen ikusi begiak malkoz lausoturik zeuzkalako. Eta Erraldoiak, harenganatuz, eskuetan hartu zuen poliki-poliki, eta zuhaitza bat-batean loratu zen, eta txoriak hartara jo zuten kantatzera, eta umetxoak, Erraldoiaren lepoa bere besoez inguraturik, musu eman zion. Eta gainerako haurrak ere, Erraldoia on bihurtu zela ikusi orduko, lasterka itzuli ziren, eta Udaberria haiekin.

— Zerona duzue gaurgero lorategia, enetxoak —esan zuen Erraldoiak, eta aizkoratzar bat harturik horma behera bota zuen.

Eta eguerdian, jendeak merkaturakoan haurrekin jostatzen aurkitu zuen Erraldoia, egundaino ikusi den lorategirik ederrenean.

Egun guzian jostatzen ari ondoan, Erraldoiari agur egitera etorri zitzaizkion ilunabarrean.

— Baina non duzue laguntxoa —galdegin zien honek—, arbolara igo nuen haurtxo hura?

Erraldoiak besteak baino maiteago zuen, musu eman ziolako.

— Ez dakigu —erantzun zioten haurrek— joan egin da.

— Datorrela bihar —esan zuen Erraldoiak.

Haurrek, ordea, non bizi zen ez zekitela esan zioten, ez omen zuten lehenago ikusi; eta Erraldoia goibel gelditu zen.

Arratsaldero, eskolatik irtetean, Erraldoiarekin jostatzera zetozen haurrak. Txikia, ordea, Erraldoiaren kuttuna alegia, ez zuten harrezkero ikusi. Haur guziak ongi hartzen zituen Erraldoiak; baina huts handia zuen halere bere lehenbiziko adixkidetxoa gabe, eta maiz aitatzen zuen.

— A zer poza berriz ikusiko baldin banu! —zioen, behin eta berriro.

Urteak joan eta urteak etorri, Erraldoiari indarrak ahitu zitzaizkion. Jostatzeko ez gauza izaki-eta, haurren jolasei begira egoten zen, bere lorategiari ederretsiz.

— Lore ederrik asko badiat —esan ohi zuen—, baina haurrak dituk lorerik ederrenak.

Negu-goiz batez, jantzi ahala leihotik begiratu zuen. Ez zuen orain Negua gorroto, lotan dagoen Udaberria baizik ez dela eta loreak atseden hartzen ari zirela jakinik.

Bat-batean, begiak igortzi zituen harriturik, eta begira-begira gelditu zen.

Bai, harrigarria zen, benetan, ikusten zuena. Lorategiko zokorik bazterrenean arbola bat zegoen lore zuriz josia. Urre koloreko adarrak zituen, eta haietatik zintzilik zilarrezko fruituak eta azpian, zutik, harako hainbeste maite zuen umetxo hura.

Lasterka jaitsi zen Erraldoia eskaileretan behera, pozez zoratzen, eta lorategian sartu. Eta, haurraren ondora zenean, aurpegia suminez gorritu zitzaion, eta esan zuen:

— Nor ausartu duk hi zauritzera?

Haurraren eskuetan bi iltze-zulo ageri baitziren, eta bi iltze-zulo haren ointxoetan.

— Nor ausartu duk hi zauritzera? —oihu egin zuen Erraldoiak— Esaidak, esan, ezpata hartu eta hil dezadan.

— Ez! —erantzun zuen haurrak—. Maitasunaren zauriak dira hauek.

— Nor zaitut? —esan zuen Erraldoiak, eta halako ikara ezezagun batek harturik, haurtxoaren aurrean jarri zen belauniko.

Eta, haurtxoak, barre-antxean, esan zion:

— Zure lorategian jostatzen utzi zenidan behin; gaur nere lorategian, Paradisuan, jostatuko zara nerekin.

Eta haurrek, arratsalde hartan etorri zirenean, hilotzik aurkitu zuten Erraldoia, lore zuriz jositako arbolaren azpian.

7

A. TXEJOVEN *GURASO ZINTZOA*

Leku txit berezia, bere gisakoa, du Anton P. Txejovek bere herriko 29
eta munduko literaturan. Bere aldiko idazlan gaitzik ez zigun utzi, zahartxeagoak zituen Dostoievsky eta Tolstoyk bezala. Hil ere, 44 urtetan hil zen, 1904an. Ipuinak eta nobela laburrak egin zituen («Nere bizitza», «Seigarren sala»), baita antzerkiak ere, ekitaldi bakarrekoak franko («Artza», «Tabakoaren kalteak») eta besteak luzeagoak («Ivanov», «Kaioa», «Osaba Vania», «Hiru ahizpak», «Baratzeko gerezion-doak»). Halaz ere, beste edozeinen gainetik maite izan dute geroztik irakurle askok, eta ez dira gutxi gidari eta eredutzat hartu duten idazleak, nahiz ipuinetan nahiz teatroan. Haren entzutea, gainera, ixildu beharrean, gero eta zabalago hedatu izan da gaur arte.

Egia maiteago zuen Txejovek ametsak baino. Begi zorrotza zuen —mediku-begia— gizon-emakumeen hutsak, makurrak eta ahuleriak aurkitzeko, inork izan badu, eta esku ausarta beroiek azaltzeko. Beste zerbait ere badu horratik, erraz asko ikus daitekeenez beste ipuingile handi batekin, Maupassantekin berdintzen badugu. Maupassantena, zerurik gabeko lurra da; Txejovenak, berriz, zerurik ez badu ere, bizi-bizirik dauka zeru-ametsa. Giza bizitza narrasa, zitala, lohia da maiz, baina ez berez hala behar duelako. Honela dio bere hiru ahizpetatik batek: «Denbora badoa, gu ere bai. Ahaztuko gaituzte, ahaztuko dituzte gure aurpegiak, gure mintzoa, nolakoak ginen. Baina gure penak poz bihurtuko dira gure ondorengoentzat, zoriona eta bakea izango dira nagusi lurrean, eta esker onez oroituko dira gaur bizi gare-

---

«Kontu kontari», *Egan* 1956, 29-32; *MEIG* IX, 106.-111. or. [Bukaeran honako hau irakur daiteke: «Eleizalde'k itzulia»].

noz. Ez, ahizpa maiteak, gure bizia ez da oraindik bukatu!». Besteak beste, ez ote dio askori hobe-behar horrek, zeru-min horrek Txejovganako bidea zabaldu?

30 Esatera noana zerbaiten ondoren gertatu ohi da gehienetan: jokoan galdu ondoren, mozkortu ondoren edo urdaileko mina izan ondoren. Stepan Stepanovitx Gilinek oso aldarte txarra du esnatzean. Marmarrean, bekaina zimur, ilea latz, aurpegia beltz, badirudi norbaitek iraindua dela edo zerbait higuin duela. Astiro jantzi, Vichyko ura edan, eta abiatzen da batetik bestera.

— Nahi nikek jakin nor ote dugun ateak ixten dituen astoa. Ken hortik paper hori! Hogei mirabe izan eta ardandegian baino okerrago gabiltza. Nor ari da ate-joka? Deabruak eramango ahal dik datorrena!

— Gure Fediari kontzen zion inudea duzu —adierazten dio emazteak.

— Zertara etorri da? Inoren bizkarretik jatera?

— Stepan, gizona, zerorrek deitu zenuen eta orain haserretu egiten al zara?

— Ni ez naiz haserretzen, gauzak nola diren esatea besterik ez dut egiten. Eta, zuk, ez al duzu zereginik? Hor zaude exerita, besoak gurutzaturik, mokoka. Emakume hauek! Eguna joan eta eguna etorri, beti egonean. Gizona leher gaizto egiten lanean, eta emakumea, bere bizilaguna, exeri eta egon, anddere baten gisa. Ez dizu pikorik joko: aski du zelatan egotea, senarrari sesioa nondik sortuko. Neskatxa gazte-itxurak uzteko ordua baduzu. Zu ez zara neskatxa gaztea: emaztea zara, ama. A, buruari eragiten al diozu? Egia garratzak min ematen?

— Hau ere badugu! Egia garratz horiek gibeleko mina duzunean bakarrik esaten dituzu.

— Okasio bila al zabiltza?

— Non zinen bart? Jokoan, adiskideren baten etxean?

— Hala balitz ere, ez du inork jakin beharrik. Ez diot inori konturik eman behar. Galtzen badut, nere dirua galtzen dut. Etxean gastatzen dena eta neronek gastatzen dudana nerea da, ba al dakizu?, nerea.

Eta horrelaxe, atertu gabe. Baina Stepan Stepanovitx-en zorroztasuna, zuzentasuna eta birtuteak ez dira inoiz otorduan, etxekoak inguruan dituenean, bezain ederki agertzen. Zopa ekarri orduko

hasten da. Lehenbiziko kutxarekada hartu, aurpegia zimurtu eta planto egiten du.

— Hau lana! —dio ahopean—; ostatu batera joan beharko diat jatera.

— Zer?—galdetzen dio emazteak—. Zopa ez al dago behar bezala?

— Ez. Zakur batek ere ez luke irentsiko. Gazia dago. Zatarusaina dario. Tipula-puxka txeatuak igeri dabiltza, zomorroak bezala... Ez da sinesteko. Amfisa Ivanova —inudeari—, dirua parrastaka ematen dut egunero jan dezagun. Ez dizut deus neretzat gordetzen eta begira nola ematen didaten jaten. Nere lanbidea uztea 31
nahi dute nonbait, eta neroni maneatzen hastea.

— Oso goxoa dago gaurko zopa —ematen dio aditzera inudeak.

— Bai? Zuk hala uste? —erantzuten dio Gilinek, bekoz beko begira—. Nork bere gustua du, izan ere, eta zurea eta nerea ez izaki nonbait berdinak. Zuri, esate baterako, atsegin al zaizkizu honako mutiko honen lainezak?

Gilinek, besoa zabaldurik, semeagana zuzendu du behatza.

— Zu —gaineratzen du— txoraturik zaude zeure horrekin; ni, berriz, suturik.

Fediak, zazpi urteko mutil-koxkor zurbil, mintsuak, uzten du bazkaria eta begiak beheratzen ditu. Zuri-zuri jarri zaio aurpegia.

—Zu —aurrera doa Stepan Stepanovitx— txoraturik zaude; ni, berriz, bene-benetan suturik. Etxe hau nork gobernatzen duen ez dakit. Esango nuke, horratik, hobeto ezagutzen dudala nere semea, aita naizenez, zuk baino. Begira, begira, nola dagoen mahaian. Hori al duk behar den bezala hazitako haur bat exertzeko modua? Jar hadi ongi!

Fediak jaso du burua eta lepoa luzatu, tenteago jarri delakoan. Malkoz bete zaizkio begiak.

— Jan ezak! Har ezak kutxarea erakutsi ditean bezala! Hago pixka bat! Nik erakutsiko diat, nik, gaizto alena! Ez al haiz begiratzera ausartzen? Begira iezadak, begira, begiz begi!

Fediak nahi lioke begiratu, baina, aurpegia dardar, negarra du begian lehen baino ugariago.

— Egin ezak negar! Errua hirea delarik, oraindik negar. Hoa zoko batera, alproja!

— Utz iezaiozu behintzat jaten —aurrea hartzen dio emazteak.

—Dagoela jan gabe! Horrelako petral batek ez du jateko eskubiderik.

Fedia, beldur eta ikara, altxatzen da exerlekutik eta badoa zoko batera.

— Are gehiago zigortuko haut. Inork ez bahau hezi nahi, neronek heziko haut. Nerekin ez ditek balio ez bihurrikeriak ez otorduko negarrak, txatxu ez bestena. Lan egin beharko duk. Aitak lan egiten dik: hi ez haiz aita baino gehiago. Lan egiten ez duenak ez dik jatea merezi. Gizonak gizon behar dik izan.

— Jaungoiko santua, aski da! eskatzen dio emazteak, frantsesez—. Ez gaitzazula lotsaraz kanpotarren aurrean. Atsoa kontu-hartzen ari da eta auzoan dena zabalduko du.

— Bost axola neri auzokoak —erantzuten dio Gilinek rusoz—. Ongi dakin, Amfisa Ivanova, hizpidean nagoela. Pozbide asko dudala uste al dun alfer horrengandik? Adi ezak, pardel
32 arraioa, ba al dakik zenbat kostatzen zaidan hi mantentzea? Dirua egiten dudala iruditzen al zaik, edota doarik ematen didatela? Negarrik ez! Ixo! Entzuten al duk, ala ez? Makilka ematea nahi al duk? Alprojazarra...!

Fedia garraxi baten ondoren zotinka hasten da.

— Hau ez du inork burutuko —oihu egiten du amak, zapia utzi eta mahaitik jaikiaz—. Ezin daiteke jan. Jatekoa ere kontrako eztarritik sartzen da.

Begia muxu-zapiz estali eta badoa kanpora.

— A! Gure andrea mindu zaigu —dio Gilinek irribarre gaiztoz—. Minbera izaki, minberaegia. Noski, ba, Amfisa Ivanova! Jendeak ez egia entzun nahi. Errua neronena izango da azkenean!

Zenbait minutuz ez du inork txintik ateratzen. Sumatzen du Gilinek ez dela inor jaten hasi. Hasperen egiten du eta, inudearen aurpegi gorritu eta nahigabetuari begira, galdetzen dio:

— Zergatik ez duzu jaten, Amfisa Ivanova? Zu ere minduko zintudan, noski. Ez duzu egia maite? Barka iezadazu, arren. Naizena naiz: ezin gezurrik esan, ezin itxurakerietan ibili. Egia esan behar beti, argi eta garbi. Baina, ikusten dudanez, ez nau inork behar hemen. Aurrean naizenean, ez da inor ezertara ausartzen: ez jatera, ez mintzatzera. Zergatik ez didate esaten? Aurki alde egingo dut...; banoa...

Gilin, zutiturik, ateruntz abiatzen da, handi-ustean. Oraindik negarrez ari den Fediari gelditzen zaio ondoan eta, burua harro-harro atzeratuaz, honela mintzatzen da:

— Gertatua gertatu denez gero, egizu nahi duzuna. Ez dut aurrera zure hazibidearen arreta nere gain hartuko. Barka iezadazu on beharrez samindu bazaitut eta hazten zaituztenak nahigabetu baditut. Ez dut aurrerantzean zure etorkizunarekiko erantzun-beharrik izan nahi.

Fedia zotinka ari da, lehen baino biziroago. Gilinek, inoiz baino harroago itzulirik, bere gelara aldegiten du. Bazkalondoko loa egin ondoan, hasi zaio lanean barrengo harra. Lotsa da aritu den bezala aritu delako bere emazte eta semearen aurrean, Amfisa Ivanovaren aurrean: ez luke oroitu ere nahi arestian gertatuaz. Ez aitortu nahi, ordea, harroa baita. Marmar pixka bat besterik ez du egiten.

Umore onez esnatzen da biharamonean eta garbitu bitartean txistuka ari da alaikiro. Jangelan sartzen denean, gosaltzekoan, Fedia altxa egin da eta begira dagokio susmo txarrez.

— Zer dugu, gazte? —galdetzen du Gilinek exertzekoan—. Ze berri, gazte? Dena ongi? ator, ttiki, emaiok musu bat aitari.

Fedia, zurbil, itzal, hurbiltzen zaio eta ukitzen du ezpainez aitaren masaila. Gero, ixil-ixilik, bere lekura doa atzera.

8

MOTIVO ESPAÑOL

Kontaketa hau, dena den, Alcalá de Henaresen idatzi nuen lehen 107
aldiz, 1947an, ni ere juizioaren begira, beste asko bezala, nengoen bitartean. Bizkunde aroko Unibertsitate sonatutik ez urruti, bi presondegi ziren han orduan. Bitarteko paretak baizik bereizten ez bazituen ere, biziki ezberdinak ziren, elkarrekin harremanik ez zuten monada bakoitzak. Lantegi gisakoa zen bata, aspaldi ez duela, eta zenbait preso barrenean giltzatuak gelditu zirela, erre zena. Hor aipatzen dena bestea da, inoiz galera izana, hots, emakumeen presondegia eta gero, zenbait urtez, Eimar koronelaren erreinu beltza, gartzela hustu eta gartzelakook erabat Ocañara eraman gintuzten arte.

Lerro hauek zenbait ukitu pairatu behar izan dute. Argitaratzekotan nintzen beti, Espainiarik aipatu gabe edo, eta beti gerorako uzten nuen, azken orrazketa eman gabe. Izan ditzakeen aldaketak, nolanahi ere, hizkerari bakarrik dagozkio, zegoen zegoenean gelditzen delarik gainerakoa. Alde horretarik ere, ez dut gehiegi aldatu. Zahar kutsu horri, nik uste, errazki antzemango diote gure idazle gazte beldurgabeek.

Aitzakia bila banenbil, esango nuke, gezurretan hasi gabe, ez dudala euskaraz honetaz kanpora deus kontatu, zerbait idatzi badut ere, eta erdaraz deus gutxi. Barkakizun izan bekit, beraz, behar nuen bidea hartu ez badut.

Hemen agertzen diren dramatis personae *bakanez hitz bi esan*
nahi nituzke. Hizlaria eta idazlea ez dira berbera, hark nora ezean ho- 108
nen kutsua hartu badu ere. Mintzatzen dena ez da, euskalduna ez ezik, ezta euskotarra ere. Dakidanez, Madrilen bizi zen, bestetan jaioa —Gaztelako herri larri xamarren batean— izanik ere. Bestea, eria, ez

---

Egan 1977, 107-117; *MEIG* IX, 89.-100. or. [«Eleizalde»-k sinatua].

da asmatua inondik ere. Eta honek, Madrilen bizi bazen ere, bazuen loturaren bat Euskal Herriarekin, hemen inoiz bizi izan zelako bederen eta, oker ez banago, hemengo batekin ezkondua zegoelako. Zorigaiztoz, eta negargarria ere bada, ez naiz bere izenaz oroitzen.

Aberats gara historialaritzan (magnum prouentum historicorum saeculum hoc attulit, *esan dezakegu, Plinio Gaztearen hitzak pixka bat aldaturik), beltzak eta zuriak, zeruak eta lurrak ditugula arteko, eta ez nuke inor mindu nahi aski eta gehiegi dakizkien gauzak esplikatzen hasten banatzaio. Badakizue, beraz, zer zen «Unión Nacional» eta zeren bila zebilen; badakizue ere nor zen Monzon (Jesus) nafarra eta iruinsemea eta zenbatetaraino izan zen elkarte horren sortzaile eta eragile, eta zenbatetaraino ez zen izan. Orduko zenbait izen, Simón Sánchez Monterorena, esate baterako, hagitz ezagunak baitira egungo egunean. Beste zenbait, berriz (hala nola Ocañan afusilatu zuten Zoroarena), ez hainbeste. Inoiz pentsa daiteke* damnatio memoriae *baten zigorpean gelditu direla hau, hori eta bestea.*

Lerro hauek guztien, hilen eta bizien, goretsien eta gaitzetsien, oroitzapenetan doaz argitara. Borrokalekua elkarren aldamenean izan genuenok, hango nahiz hemengook, ez gara elkarren adiskide agertu beti. Adiskide ez, beharbada, baina bai, nahi eta ez, elkarren lagun, ahaide eta are senide. Senide haserre eta sumindu, nahi baduzue.

Idazleak gorrotozko uzta joriaz orduan pentsatzen zuena ez zegoen agian orain axaletik begiraturik dirudien bezain oker. Lekuari dagokionez egin zuen kolpe huts. Hark inorengan ikusten zuen sua etxean biztu zaio, orduko amesgilea bera ere irentsiko lukeen neurrian. Barka bekio, arren, idazlea baitzen bere kaxkarrean eta ez profeta. Nola asma zezakeen sekula tirorik entzun ez duten olerkaririk bakezaleenak ere gudari bipil bihurturik aurkitu behar zituela gurean?

109 Egunaren hurren eguna berriz ere. Eta badirudi, halaz guztiz, arestian ohera naizela. Denboraren lasterra!

Egunerokoari ekin beharko orain. Errejimeneko bulegoan nago eta ez dut lanari buruz kexakizunik: ez da ez neketsua ez aspergarriegia. Gaur, nola sarrera nahiz irteera berririk ez omen dugun, ez dut agertzeko presarik ere. Ez da egiteko astunik izango. Gero, beti bezala, hor etorriko zaigu gure don Pedro. Bizkor horietakoa ez da, beharbada, baina bai aski prestua. Hori, eta ez da hutsaren hurrena, ez dago ukatzerik. Ezta gaztetango beroaldiak, neronen gisan, epelduxe dituenarentzat ere.

Benetako adiskidetasunik ez da, egia esan, gure artean. Nekez izango ere, gainera, daramatzagun uniformeek, grisa bata eta berdexka bestea, bereizten gaituzteino. Kalean bageunde, oraindik, ez dakit. Nolanahi ere, nere gauzen berri jakin nahi izaten du, lehia gogaikarririk gabe. Horren truk, eta hona non dagoen ajea, bereak ematen dizkit aditzera. Kezkatzen duten buruhausteak kontatzeaz gainera, burubide bila ere jo du neregana behin baino gehiagotan.

Urrikarri dudanik ez nuke esango. Gehiegixko ere balitzateke horrelakorik niri, neure buruarenganako gupida azkenik hastandu dudan honi, eskatzea. Daitekeena da, ordea, nik esanak horrexegatik beragatik probetxuzkoago izatea, inoiz edo behin bederen.

Barregarri ere bada, harrigarri ez ezik, hura ibiltzea nere ondotik bere ezbehar eta larrialdietan. Arrazoizko da, haatik, ongi begiratuz gero. Burua urdinduxe duenean lau seme-alaba eta emazte erixka baten jabe gertatzen den gizon helduarentzat bizia ez da maiz aski ihespiderik gabeko zoko galdua baizik. Nik, berriz, ez dut kezkarik. Zorioneko ere banaizela —gizakumeari dagokion neurri murritzean, jakina— esango nuke, antzinatik datorren goganbehar beltz hura somatzen ez banu neure baitan: horrelako hitz harroak direla medio norbaiten, ez dakit noren, ezinikusia neureganatzeko ikara, alegia.

Ez da beti horrela gertatu, ezta alderatzeko ere. DGS-eko kalabozoetan, poliziaren kontrako borrokak artegatzen ninduen batik bat, eramanaren podorioz eta maltzurkeria bitarteko, beti zapaldua neunkatelarik, ari nuen borrokak. Galdaketaz galdaketa nerabiltenean, eta are gehiago gelazuloan ahazturik bezala nengoen bitarte luzeetan, neureari eusten nion, ernai eta gogor. Hormak eta errajak gorabehera, besteri lotua nengoen, kaleko lagunei, eta odol nahiz amoriozkoak ez bezalako lokarriz lotua, gainera. Gau batez, azkeneko saioa bukaturik, alai nenkarten neure zulora, gailen ikusten bainuen neure burua aitortuak izenpetu ondoan. Garaipen honek, jakina, ez zuen inolazko zer ikusirik espero nezakeen etorkizunarekin, ez bainintzen artean etorkizun horretaz arduratu. Preso hartu nindutenetako bat nuen aldamenean: gazte, ile-horixka, itxurazkoa, gorbata urdina zeraman, ongi gogoan dut, gorriz barratua, ezarian begiak lotzen zizkidana. Hizketan zetorkidan, irrimurritza ezpainetan, kontent hura ere bukatu genuelako. Ez zen, noski, lagun arteko berriketarik, niganako agertzen zuen halako urriki hotza baizik. Eta berriz giltzapean uzteko puntuan, honelako zerbait esan zidan:

— Beno, beste bat arte. Ez zekiat ze arraiogatik sartzen zareten horrelako istiluetan. Ea jasoko duan urte mordoxka hori ez den gehiegizkoa gertatzen. A, lehengoa ahaztu zaidak, jakina, eta haren kondizionala...

Eta hitz biluzi hauek gelditu zitzaizkidan, egun haietako irain eta zakarkeria guztien ondoren, gogoan josiak. Loak alde egin zuen. Hitzok belarrietan nituen behin eta berriro, gau eta egun, gupida aire harexekin berarekin. Eta haien oihartzunak ikuskari bat, ustez atzendua, zekarkidan gogora, begien aurrean balego bezain argi. Bost urteren buruan, izan ere, izan zuen asti begi-muinetan ongi itsatsirik geratzeko. Aldatu arren, beti bateko irudia: patio zabala, lau aldeetarik adeilu gorrizko etxez inguratua. Kolore miragarriz jazten du eguzki berriak, distira haserrea dario eguerdian eta bake osinean murgiltzen da ilunabarreko ordu arrean. Bakartasun-ugartea, pareta altuz hesia, jendetza izengabearen golkoan. Ixiltasunezko ur geldi hartan denbora badoa eta, halaz guztiz, egonean dago. Urtaroak ez dabiltza, ibili, elkarren segidan: betiko leloa dute berritzen, aspertu gabe, negua neguaren pare, uda udaren....

Bi urte eta joan dira geroztik. Baldin aipatu dudan sosegu horretaz hasiera-hasieratik jabetu nintzela banio, gezurra nioke. Hasi berri hartan, baita geroago ere, neure erorikoaren ingurumari guztiak aztertzen nituen etengabe. Ezinbestean niharduen horrela, ezin bentzutuzko indar baten morroi, gogoetaren gogoetaz gertatua desgerrarazteko modurik balego bezala. Egin dezagun kontu egun hartan, bezperan nahiz hamabost egun lehenago agitu zen zerbait apur bat —pittin-pittin bat— aldatzen dugula. Eta hona non, aldaketa huts hori dela bide, beste gertakari andana sortzen den, bata besteari lotura estuz lotua... eta, halere, preso hartzen ez nautelarik. Eta bestelakatze hori, nola edo hala, hogei, ehun, mila bider lortu nuen. Joko horrek, gauez batik bat, etsai gaiztoa bailitzan menderatzen ninduen eta ez zen eskapatzerik.

111

Gero, urteen joana dago beti gogoan nahiz gogapean. Bai, badakit esana dudala, behin baino gehiagotan, denbora ez dela mugitzen leku hauetan, eta ez diot neronen esanari ukorik egingo. Ez du oinik higitzen, baina oinatza uzten du ondotik. Guztia erretzen eta suntsitzen duen erregaia da: ilea, hortz-haginak, azala... Eta hori guztiori, sentikoitasun zorrotzago baten bitartez, nabari duzu zerorrek, den ttikiena dela. Erretzen ari den kandela zara, erretzen ari zarela dakizuna. Garrak ez dizu minik ematen, baina, zeure burua

deuseztatzen ari dela dakizularik, sudurretan duzu beti urtzen ari den argizagiaren kiratsa.

Gero, poliki-poliki, bakeak egin nituen neure buruarekin. Berez nagusitu zitzaidan aldarte hori, ez saiatu nintzelako, segur aski, eginahalak egin arren baizik. Arian-arian ulertu nuen, argi baino argiago, ez nuela nik nengoen egoeraren kulparik: ez nik, ez don Pedrok, ez beste edozein goardiakok, ezta azkenik juzgatu ninduten militarrek ere. Ez zegoen inoren bizkar egotz zitekeen erantzukizunik. Are gehiago, eta hau da gehien zihoakidana, behar bezalakoa zen nere egoera. Ez zen, zeru garbitik behera amiltzen den oinaztarriaren pare, ustekabean jo ninduen erauntsi miresgarria. Ez. Neronen zoria zen, neure herriarena, neure belaunaldiarena. Saihestu nuen, bada, anartean suminez bezainbat saminez oinazetzen ninduen neure buruarenganako gupida. Bestelakoa zen, egia, zenbait kidekoren zoria eta, hagitz bestelakoa izateaz gainera, baita hobea ere, itxuraz behintzat. Besterena zen, ordea, ez neurea eta azkenik heldu nintzen, egiaz ari naiz, hori bekaitzik gabe aitortzera.

* * *

Aldi joana ixila dut eta ez nau ustekabean asaldatzen. Haurtzaro eta gaztarokoa suntsitu zen: beste mundu batekoa da eta ez dut aspaldian mundu horrekin lot nazakeen elkarbiderik. Bestea, arestikoa, hain izan zen laburra... Urtebete iraun zuen, doi-doi. Orain gogora dezaket larritu gabe, baina ez naiz hartaz gehiegi arduratzen. Gibelaldean, urruti, dagoen oihala da, erdi argi erdi ilun, eta lehenak zauri ez nazan, kristala dut bitarteko.

Lanean ari nintzen, gau eta egun. Hala behar ere, gogorra bai- 112
tzen bizitza, batez ere urte hilen pisua arrastaka generamanentzat. Berandu agertu nintzen, gainera, leku hutsik gelditzen ez zen mundura. Lehian atertu gabe, berriz eta berriz. Eta han nonbait, zoko ezkutuan, ehiztarien ihesi dabilen pixtiaren sena, zelatan dauzkan arriskuen begira.

Orduan ezagutu nuen. Ez naiz ongi oroitzen noiz eta nola egin genuen topo lehenbizikoz. Bestela bezala gertatu zen, ez bainion nik antzeman berekin zekarren ezkutua. Hurbiltzen gindoazkion elkarri konturatu gabe eta bat-batean eguna zabaldu zen ene baitan, eta aspaldidanik ametsetan ere ahazturik neukan soinuaren lehen hotsak entzun nituen berriro.

Udaberri hatsarrean, gogoan daukat, elkarrekin gindoazen igande goiz batez, aldirietan barrena. Lanbroak, eguzkiak artean uxatu ez zuen lanbroak, bere ganduz estaltzen zituen bazterrak. Haren besoan nuen eskua eta ukitze arin horretan bizi nintzen ni oso-osorik. Hotzak zurbildua zuen aurpegia. Noizean behin, haize mehearen hotzikarak inarrosten zuen eta, batak besteari begiratzen genionean, den-dena —hura, ni, inguru lanbrotuak— gatzaturik gelditzen zen, sosegu betezko geldiune soil batetik dilindan.

Neure burua berriz ere presondegian ikusi nuenean, haren irudiari lotu nahi nintzaion eriosuar. Haren beroak inguratzen ninduen ametsetan eta eguargiz. Elkarri idazten genion. Gero, ez dakit ongi zer gertatu zen. Bitarteko genituen kartek eskaintzen ziguten gaia idorregia zen, agian, eta alferrik egiten genituen leherrenek asperturik eta gogaiturik utzi gintuzten azkenean. Dena den, gero eta bakanago agertzen ziren eskutitzak; azkenik, mututu ziren. Ez diot sekula txartzat hartu. Horrelaxe garabiltza bizitzak. Hura urrundu zuen eta azken batean nerau naiz, segur asko, urrutien saihestu nauena.

* * *

Neurean naiz berriro. Beharrik (hola aitortu behar orain), ez nintzen luzaroan libre egon, gero mira egiteko adina ez, bederen. Aspaldiko bazterrak ezagutzen ditut eta haien neurriei egokitzen saiatzen naiz, debeku larririk gabe. Kondenatu berri hartan, mingarri zitzaidan penatuen uniformea jantzi beharra. Orain ikusten dut zein oker nengoen. Hori zen, izan ere, niri zegokidan janzkera, beste
113 edozein jantzi-erantzikoa bailitzateke neretzat. Grisa da kolorez, apala, eta soinean dudanean naiz naizena: itzal-herriko itzal ilauna.

Ezinbizirik ez dudala esana dago. Edozein aldetarik begiratuta, pasamodu moldatzen naiz. Gainean dudan zigorra, zortzi urte, ez da gehiegizkoa. Horretaz gainera, bai, bestea dago, gerratekoa. Lintzura lintzuraren hurren, eta zenbatenaz ere lehiatzen zaren oinak lehorrean landatu beharrez, hainbatenaz murgiltzenago zara lokazpean. Zorionez, ordea, hemen pasa beharko dudan epea luzeegia da, onenean ere, hainbeste lagun atzipetu dituen kontaketa likits horretan neure burua iraultzeko, falta diren egun, aste eta hilabeteen kontaketa, gehigarriak eta ken-beharrak barne. Eguneroko kontaketa aspergarriaz ari naiz, azken ekoizpena aldez aurretik dakiguna izango ez delako irudipen zoroz behin eta berriro hasten dugunaz.

Bizitzeko adina badu gorputzak. Badut anaia, anaiak laguntzen dit eta laguntza hori, hemengo lanbideak ematen didanaz gain, aski eta sobera dut. Haren laguntza ez da beste mundukoa, egia, baina nola eska gehiagorik? Gehiegi ere egiten duela iruditzen zait, zenbaitetan.

Haren bisitek, lehenbiziko hartan, nahigabetzen ninduten. Ezin konpreni hark, etxea oinarri sendoen gainean eraiki uste zuen guraso hark, nere jokabidea: erokeria, bere iritzi zentzudunen arabera. Ni, berriz, zaurietan zirika somatzen nueneko, hitza ezpainetarik jaulki baino lehen sumintzen nintzaion. Izan ere, neuri zegokidan, ez besteri, neure bizkar eroria nuen zorigaiztoaren erantzun-beharra eta, hori zela bide, maiz azkendu genituen geure ikustaldiak haserre bizitan. Orain, besterik da. Ez dut uste ene jokaera ulertu duenik, baina badirudi behintzat nitaz eta neure zoriaz etsi duela. Nik, aldiz, bere buruagan eta zimendutzat hartu duen lurrean hain dut aurkitzen fidatua, non inoiz edo behin beldur bainaiz ez ote dion lur horrek huts emango egun edo bihar, haurtxo bat bezain ahul eta zurtz gelditzen delarik. Ez dakit, gainera, beldur naizen ala gogo dudan.

Orain ez dut deusetan larregi sinesten. Denbora batean, ordea... Orduan neure buruarenganako adina neure oinaze-lagunenganako sentitzen nuen urrikiak zapaldua nendukan. Zuri eta beltz ikusten nuen zuzentasun eta bidegabekeria hitzen erabateko balioa. Munduak ezin zezakeen eraman eta ontzat har hemen barrena ikusten genuenik eta, goiz edo berandu, saiatu beharko zuen makurrak zuzentzen, zauri gaizkoatuak gorputz osoa ustel ez zezan. Ez jakin nik 114
artean gorrotoa eta indarkeria munduaren errai-erraietan kokatuak ditugula. Ene xinplekerian, borroka, nolabait esan, on eta gaizkiaren artekoa zelakoan nengoen. Geroago ikasi dut gizonen hitz sutsuek, gora-goraka garraren irudiko dabiltzanek, ez dutela zer ikusi askorik gertakizunekin. Doinu ederra darie, baina ez dator bat gauzen marmar traketsarekin.

Kaleko lagunak joan zaizkit gogotik. Halako batean, hemen topatu dut bat edo beste, gure artean. Aldatu egin gara, ordea, bai haiek eta bai ni. Etena da antzinako lokarria eta oroitzapena bera ere ezabatuz doa.

Ez dut adiskiderik. Ezta premiarik ere, neure buruarekin ongi konpontzen naiz eta. Patioratzen naizenean, gogoz egoten naiz lur-koloreko nekazari talde bati edo besteri begira. Ez dakite beharbada zer-nolatan jo duten hona, baina ez dute haatik ez auhenik ez arren-

kurarik ixurtzen. Ez diete, gainera, kasu gehiegirik egiten esplikatu nahiz etengabe ari zaizkienei.

* * *

Adiskide bat izan dut, egia esan; ez, haatik, bila ibili nintzelako. Herritarra nuen, eritegian zeukaten gizon heldua. Halako handitsu gisakoak sortzen zitzaizkion iztarte-galtzarbeetan, hemen desagertu ahala han agertzen zitzaizkionak. Hauek ziren, behinik behin, gogoan ditudan gaitzaren ezaugarriak. Gaitza zein izan zitekeen ez dakit nik, ez zekien berak eta ikusi zuten medikuek ere ez bide zuten ezagutzen. Guztiok genekiena, eta berak ere bai apika, axalean besterik sinetsi nahi bazuen ere, hauxe zen: ez zuela sendabiderik. Ez dakit zerk neuregana zuen hain bortizki. Aldi joanak, noski: ezinarekin borroka berriz, bederik behin, ikusi behar zuen aldiak. Nigan jaioterria somatzen zuen nonbait, igande arratsaldeetako bake eguzkitsuan emazte-alabekin egiten zituen ibilaldiak, plazan gaztejendea dantzan ari zen bitartean. Erregaliaz betetzen ninduen eta emazteak, Jainkoak daki nola, sortzen zizkion huskeriak niri harrarazi beharrean zebilen beti. Eta kontu gero, nik inoiz neure aldetik zerbait eskaini nahi banion! Aldamenean behar ninduen, eritegia zabalik zegoeino. Lozorroan aurkitzen nuen zenbait aldiz, sukarraren mende; ernai, berriz, beste zenbaitetan, hobeki zegoelako po-
115 zez. Honelakoetan, patxara ederrean mintzatzen zitzaidan familiaz, denda-mutil gisa pasa zituen urte luzeez, gero, lanaren podorioz, denda-jabe bihurtu arte.

Noizean behin, bere hondamendia eta etxekoen eramankizunak gogora zetozkionean, haserre kiskalgarriak hartzen zuen batbatean. Izan ere, bazuen haserrabiderik, gauzak harako zenbaiten ahotan oraindik «normaltasun» deritzan haren neurriz neurtzen badira, behinik behin. «Unión Nacional» zela eta, juez-agiriak zioenez, diru pixkaren bat eman zuela, zenbait paper irakurri eta zabaldu, eta kito: hamabi urte eta eguna lepora zizkioten. Bera, ordea, nahiz holakorik franko gertatu bazterretan, etsi-etsia zegoen berari egin zioten bidegabekeriak mundu osoaren izaera eta egoera nolaerebait bere onetarik atera zuela eta destokitze horrek ekarri beharko zuela, nahi eta ez eta luzarora gabe, zegokien eraso ikaragarria bere borreroen gainera. Nik, jakina, ezin nezakeen horrelakorik sinets. Pertsona gehiegi ikusi baititut heriotzera zeramatzatenean, egungo egunean nik eta bestek ahazturik dauzkagunak, eta haien hitzak en-

tzun, esperantza horrek, zuzen-egarri horrek berberak sutan zeuzkanak. Ez nion, ordea, ezer esaten. Irudipen hori zuen, segur aski, gorputz ustelduxeari osorik eusten zion lokarri bakarra.

Ahulago zegoenetan, kartak idaztarazten zizkidan, eta ez zen atsegin izaten ahotik zerion nahaste urrikalgarri hura entzutea. Emazte-alabak, berak urrea bezala bizitzea nahi, merezi zuten gisan, eta mixerian ikusteak kupitzen zuen. Neskametzan zebilen emaztea, alaba berriz haurtzain edo zeukan nonbait eta ezin eraman zezakeen haiek horrela ikustea, premiazkoenari ere uko eginaz, berari hain janari garestiak bidal ziezazkioten. Eta halako batean, besterik gabe, sumintzen zitzaien eskatua zeukan hau edo hori pardelean etorri ez zelako. Eta hori noiz gertatuko eta orain gertatzen, hain zuzen, medikuak hitzeman zionean ez zeukala gaitzik egonak eta ongi janak sendatuko ez zionik. Nahigabe oihuaz bukatzeko: «Ez dakizu, ezin jakin dezakezu, kuttun horrek, zenbatetaraino mintzen nauten nere erruz, nere erruz bakar-bakarrik, ikusi behar dituzunak. Inoiz edo behin, behinik behin, paga albanitza nik nolazpait ere ni naizela medio sofritu dituzuen nekeak!». Horixe zeukan gogoan josia, eta behin eta berriro, aterraldirik gabe, agertzen zen lelo hori jasotzen zuen, haren ahotik jaulki ahala, nere luma hotzegiak, ikararik gabe.

Emaztearenak ere erakusten zizkidan. Ez zuen letra batere itsu- 116
sia, astiro eta nekez idazten duen pertsona batena izan arren: «Nola pentsa dezakezu, Antonio bihotzekoa, zutaz ahaztu naizenik? Joan den astean ez nuen eskatzen zenidana bidaltzeko modurik izan. Ez berandets, ezinbestekoa izan baita atzerapena: hurrengo aldian hartuko duzu. Diozun botika hori ere sortuko dizut, luzatu gabe. Eta, batez ere, zaude trankil, larritzeak beste edozerk baino kalte gehiago egiten dizu eta. Ez duzu gutaz arduratu beharrik. Ongi konpontzen gara». Eta azken aldera nexkaren eskutikako lerro pare bat, zuzen baino okerrago amaren esanera eginak. Iluntze oro, han uzten nuen eritegiko ohean, karta eta oroitzapen. Iratxoak ere, gau ixilean lapur antzera barrentzen diren aurpegi nahigabetuak, ez zebilzkion urruti.

Kemenak ahitzen ari zitzaizkion, nolanahi ere, eta ezin gorde bere buruari gaitza gaizkitzen zihoakionik. Halaz guztiz, medikuen zabarkeriak eta sendagairik ezak zuen errua, ez bestek. Ai, behar bezala zainduko balute!... Eginahalak eginak ziren eri-presondegi batera eraman zezaten, baina horretarako behar zen agindua, hila joan eta hila etorri, ez zen oraindik ageri. Horrek erretzen zuen gizona,

ikusten baitzuen, ikusi, egunak igaro ahala, esperantza ere urritzen zihoala.

Agindua etorri zen azkenik eta eramaileak ere bai, aginduarekin batera. Berri honek, ordea, hainbeste hilabetez gogoan eta ahoan itsatsia zeukan berriak, poztu beharrean, beztiduraren irudiko ixiltasun beltz batez estali zuen. Igarri zion, nonbait, tokialdatze hori ez zela itxaropidearen hasiera, azkena baizik. Mutu eta uzkur, arretaz bildu zituen bere puskak, eta ez zion inori laguntzen utzi. Nere besoaren arrimuan ibili zen azkeneraino. Aldendu beharra ailegatu zenean, estu eta larri lotu zitzaidan besarka, niri eta bizitzari batean agur egiten bailigukeen. Kezkatan nengoen ez ote zitzaidan erantzunaren motelaz ohartuko, baina ez zen konturatu, gainezka zeraman oinazean igeri baitzebilen.

Egun gutxi barru jaso nuen agindu zidan eskutitza. Bizpahiru karta joan eta etorri ziren, presondegitik presondegira ibili ohi diren kontrabandokoak, hutsaren hurrengo huskeriak itzulingururik nahasienen bidez adierazten dituzten horietakoak, alegia. Gero, hilabete batzuen buruan, hilberria etorri zitzaidan, soil-soilik. Ez ninduen ustekabeko saminez jo. Ez zen ordurako errainu hits bat besterik. Ondotik pasatzen zaizkigu horrelakoak, hurbilxeago nahiz
117 urrutixeago, biziak edo eraginik, eta ezerezean murgiltzen dira gero, gartzelaren lau paretak inguratzen dituen ezerezean, harria itsas hondargabean hondora doan moduan.

* * *

Bada beti hemen juizio-zain dagoen jende berririk. Iturria ez da agortzen, eta hala behar ere. Eskarmenturik gabeak dira batzuk, ezina egin nahian penagarrizko estiran luzaro urratzen direnak, hemen bizi behar baitute gorputzez gogoa kanpokoei lotua dagoen bitartean. Beste batzuek, berriz, ia Espainiako presondegi guztiak ezagunak dituzte. Maiz jotzen dute neregana bere arazoekin, dudan karguak bai baitu nahikoa zer ikusi hemengo bizimoduarekin. Hori dela bide jakin ohi dut besteren iritzi, asmo eta ametsen berri. Eta, nahiz hauek aski ergelak izan frankotan, zuzen ateratzea ere gertatzen da, eta ihes egiten didate orduan neure eremuetarik. Nolanahi ere, etsirik ez diot inori ematen. Ez nabil horien gezur-ametsen premian, baina ederki ikasia dut, neure bizkar, ikastaldi neketsu batek bakarrik eraman gaitzakeela geure buruaren jabe, ez irudipenen eskuko, izatera.

Gau batzuetan, ohi baino alaiago etzaten naiz. Halako ezinegon beroa nabari dut gogo barrunbean. Ongi ikasia naiz egiaz mantentzen eta izen kontsolagarriak zokoratuz izanari atxikitzen. Badakit, ordea, gorrotoa ez dela izen soila, gaur ezer baldin bada. Eta pozik nago, bai baitakit ongi baino hobeki, burukipean gogor eta biribil baneuka bezain ongi, ereindako hazi ugaria hazten eta mardultzen ari dela ni lo nagoeino. Eta amets bat egiten dut, berbera beti: garrak, zentzuz beterikako gar ederrak, dantza eta jauzi dabiltza gauzerua gorrituz, eta haizeak sakabanatzen ditu lurraren gainean milioika txinparta bihurturik.

Holaxe dihoakit bizia, soseguz, ixilik. Badut, haatik, goganbehar bat, ezin menderatuzkoa. Badakit, somatzen dut, hor nonbait gelditzen zaidala zain-mutur minberaren bat. Haren pilpira sorra nabari dut aldizka. Eta beldur naiz beti edozein huskeriak —zuhaitz, bazter ezagun nahiz gorroto ditugun begi maiteen oroitzapenak— ez ote didan, egun edo bihar, agerian utziko, taupaka, ikaragarri...

9

EUSKAL LITERATURAREN ETORKIZUNA

> A thing of beauty is a joy for ever:
> its loveliness increases; it will never
> pass into nothingness, but still will keep
> a bower quiet for us, and a sleep
> full of sweet dreams, and health, and quiet breathing.
>
> John Keats

Gizona gizon denez gero, zer den galdezka ari da. Etengabeko galdegite hau ez da oraindik bukatu, ezta bukatuko ere gizona gizon deino. Erantzunak asko dira; gogo betekorik, ordea, ez. 17

Galdera askoren artean, batek kezkatu izan nau behin baino gehiagotan. Geure izatearen zatirik barrenena, geureena, zein ote dugu? Gaurko askoren erantzuna aldez aurretik jakina daukagu: gure zinetako izatea, gure nortasuna, ez da gugan besteekin batera duguna, besteengandik banatu eta bereizten gaituen izaera berezia baizik.

Ez luke inork erantzun honetaz harritu behar. Oraingo zenbait gizoni guziok beregan gauzkan Jainkoaren eskua ageri ez zaionez gero —gure Orixek agian inork ez bezala kantatu duen «esku legun begiduna»—, nahitaezkoa da nor bere barrenean ezin hautsizko hesiz inguratua egotea. Gizonak bere burua munduan aurkitzen du, hemen gertatzen da —hemen suertatzen, gure artean esaten den bezala— nola eta zergatik ez dakiela. Jaiotzean piztutako argi harrigarria, mundu guzia beregana lezakeen argia, ez da halaz guziz ere,

---

Egan 1951, 17-21; *MIH* 15.-42. or.; *MEIG* IV, 21.-27. or.; *EN* 45.-50. or.; *GA* 31.-35. or.

kanpotik eta barrendik inguratzen duen ezerezean, edozein haizetxok itzal dezakeen su ahul bat besterik, ezerezak luzaro gabe deuseztatu eta irentsi beharrekoa. Giltzape horretatik ezin irten ez ezaguera bidez, ez lurreko maitasun bidez: eginahalak egin arren, ezin inork bere burua bestetan bihurtu ez eta besterik zeharo bereganatu.

Oraingo zenbaiten ustez, beraz, ni ni naiz eta besteak beste, eta nere-nerezko dudana ikara eta nahigabe hutsa den bakartasun tristea. Besterik aurkitu zuen horratik gure Lizardik bere arimaren lezean, «nork gere muñean dugun itzalera» jaitsi zenean. Bere baitan
18 eta beretzat adina besterengan eta besterentzat bizi behar du gizonak eta besteengandik, hurkoenengandik ere, bereizten duen osin zabal hondogabea begien aurrean ez daukanean, bere baitan somatzen du garbiro besteren bizia eta izatea. Hezur, mami, odol, ohitura, ixuri, joera, sinismen, izaera, pentsabide, besteri zor dizkiot eta bestetan txertatzeko ahalmena badut. Ongi aztertuz gero, ez naiz bitartekoa besterik. Eta nere nortasun hutsa jazten duten «zer» hauek ez dira nere buruari erantsi dizkiodan gauzak, nolanahi erantzi ditzakedan jazkiak. Geurekoikeriak maitasun hori maiz lainotzen badu ere, maiteago ditut —nereago alegia— nere nortasun berezia baino eta, hala behar bada, geure bizi bakar ezin berrituzkoa galbidean jarri ez ezik, galdu ere egingo dugu ezinbestean zorigaiztoa onarturik, aurrekoengandik ondorengoengana doan «lokarri zaharra» eten ez dadin.

Eta gainerakoen gain, gorago eta barrenago, gure izaera osoa biltzen eta barrentzen duen hizkuntza, barrengo mintzabeharrari hitziturri luzea ematen diona. Hizkuntzaren guretzako balioa, berriz, zein gurea, zein ezin utzizkoa dugun ezin jakin, gure artean bezala hildako ala bizitako ote dugun zalantzan gaudenean baizik.

Bada euskal literaturan aspaldidanik negar-hari bat gero eta ugariago dariona. Negar-hari honen aleak ezin konta ahala dira eta bat edo beste aukeratzea nahikoa izango dugu. Beste euskal libururik gehienak bezala behar adina irakurtzen ez den Domingo Agirreren *Garoa*-n, Joanes artzainaren begiak Urkiolan zaharreriak goibelduak dauzka. Inguruko mendiak ez zaizkio gaztetan bezain eder: «Ezta irudipena: azpietatik zulatu dituzte alderdi batetik besteraño; beren egaletatik tontorretara bide zabalak egin dituzte; beren arrizko ta burnizko erraiak eguzkitara ateratzen aidira, ta gure umeak mendi zuloetatik zear dijoazkigu, eztakit nora, bide zabaletatik datorzkigu eztakit nongoak geure gallurretaraño». Euskal mendietako zuhaitzbelarrak azpijanean ihartzen ari den satorraren beldurra ez da Joanes

bakarrarena. Gernikako arbola iharraren sustraiak ere, aitari entzuna dut, sator batek jan omen zituen. Dena dela, satorraren lana atertu gabe aurrera joango zela Joanes agure zaharrak ere orduz gero antzeman zezakeen eta jakina: euskalduntasuna eta burdinbidea, hark uste bezala, betikoz elkarren etsai izanik, burdinbideak euskalduntasuna egunen batean, urrutira gabe, baztertu eta ezereztu behar.

Errenderiar baten ametsa ere gogoratzen zait, ameskaitz erdiragarria bera. Bere maitearen bila dabil zelai-baso-mendietan barrena eta ez du haren aztarnarik inon ere aurkitzen. Eliz-ezkilak ere, haren hileta-hotsa bederen eman behar zutenak, ixilik daude. Eta holako ametsen batek gainerako euskal poeten gogoak, begien aurrean zuten edertasuna itsustuaz, noiz edo noiz nahigabetu ez dituenik nola esan?

Horiek baino lehenago, Arrese Beitiak, burdin hotsa darion Bizkaiko hizkeraz, adierazi zuen aldez aurretik euskararen heriotza. Heriotza hori inor ohartu gabe gertatzerik ez nahi eta, igarle gisa, berorren hilkizunetara eraso, ekaitz, uholde, tximist-trumoiak deitu zituen. Bertsolariaren deadarrak gorabehera, ordea, lur, itsaso eta haizeak lehengoan daude eta lehengoan egongo aurrera ere: Euskal Herriko erreken marmar axolagabea gure belarri minduentzat bakarrik mindu da. 19

Negartien ondoan bihotz alaiagoak ere izan ditugu. Hizkuntza gutxik egin dute literaturan euskarak bezain sarrera pozgarria, Detxepare erretoreak dantzarako deia egin zionean. Honek, itzulinguru eta zehar esanik gabe bere egiazko antz-irudia bertsoetan emateaz gainera —lurkoi eta fededun, atseginetan txoro eta ezbeharretan gizontasunez betea—, handiagorik egin zuen eta jakinaren gainean zegoen handiagorik egiten ari zela: berak zuela, alegia, euskara munduko plaza zabalera lehenbiziko aldiz agertzen. Eta bertsoei azken umil hura, «debile principium melior fortuna sequatur», ezarri zienean, lehenengo mugarria jartzen zuela uste zuen noski, menderen mende luzatuz joango zen errenka baten lehenengo mugarria.

Hasiera horrek izan ditu ondoreak; bera baino hobeak beharbada, ez halare behar adinakoak. Detxepareren deiak laurehun urteren buruan bakarrik izan du erantzun betea: Lizardiren «Eusko-bidaztiarena». Honengan agertzen zaigu poetaren dohai harrigarria: ikasi gabe daki eta begiratu gabe begi argiz ikusten du; pentsatu gabe hitz sarkor betikoak ahora etorri zaizkio. Euskal literaturaren eginkizuna, behar-beharrezkoa eta berbertatik ekitekoa, ezin hobeki

agindua daukagu: larreko hizkuntza noranahiko egin, jakite-hegoz jaso, soin zaharrari gogo berria eman eta gogo horretan izar urdinetarainoko asmoak sorrarazi.

Lizardik neurtitz hauek ondu zituenetik ez dira urte asko joan: hogei besterik ez. Baina urteok gutxi izanagatik, urte larriak izan dira, gizaldiz gizaldi bere hartan iraun duten gauza asko aldatzeko eta deuseztatzeko indarra beregan zekartenak. Nahitaezkoa dugu, beraz, euskal literaturari geure esku-lanez edo geure gogo onez bederen lagundu nahi geniokeenok geure burua aztertzea, ea zertan garen, itxaropidean ala etsibidean; ea zein den gure eginkizuna eta, batez ere, gure lagundu nahia zenbaterainokoa den.

Paulo apostoluaren hitzak datoz gogora: «Haur nintzenean, haurrari dagokionez hitz egin, haurrari dagokionez uste, haurrari dagokionez asmatzen nuen. Gizondu orduko, berriz, haurkeriak utzi ditut». Haur ginelarik, geuron bizitza bestek zuzentzen zuen; etxea jasotzeko kezkakizunik ez genuen. Zama astun hori gurasoek zeramaten bizkarrean. Gero, berriz, gure gain hartu behar izan dugu. Euskal literaturari eta euskararen biziari buruz horixe ikas dezagun eta, ikastea nahikoa ez delarik, buru-bihotzetan josi: lan nekagarri hori, ia ezin jaso ahalako zama astun hori gure gain dagoela, ez duela bestek egingo, ez digula inork eramango. Eta aski murriztua eta erdi agorturik gureganaino heldu den hizkuntza aurrera ere biziko bada, gure eskuan dagoela ahalegintzea, orain arte inoiz ez bezala. Eta horretarako nahi hutsa, ondore gabeko nahia, eragin indarrik gabekoa, ez dela aski izango.

Euskal literaturak azkeneko urte hauetan miragarrizko lana burutu du, Orixeren bitartez. Ezin sinestuzkoa da gozogabeko urteotan eman digun euskal bizitzaren irudi garbia. Gure aldiko haize erauntsiek erruki gabe astindu badute ere, geroak lur gainetik osoro urra badeza ere, hor daukagu ez atzoko, ez gaurko, ez biharko, bai ordea betiko, «sub quadam aeternitatis specie», Jainkoaren begi maitakorretan betidanik egon daitekeen bezalaxe. Eta hor daukagu betiko, batez ere, eusko anima jatorra, sinismen sendoa, Jaunaren sabel beroan zalantzarik gabe etzana.

Egiteko hori egina dago beraz. Lehengoan badirau edo haizeak badarama, ezin urratuzko aztarna utzi du betiko. Eta oraindik ere, Jauna lagun, agiriagorik utziko du, Orixek bere-bere duen beste poema hori argitara eman dezanean. Denborari gogor egitea, etxeak hartu dituen kalteak nolabait konpontzea, hizkuntzak aurrerantzean ere bizitzeko behar duen kemenez indarberritzea, gure arloa

da. Larre-hizkuntza dena kale-hizkuntza bihur dadin, hain maite dugun garo-usaina —norbaitek gorotz-usaina esango luke— zertxobait galtzea nahitaezkoa izango du. Kaletarrak ere euskaldun gara, batzuk behintzat, eta zorigaiztoz edo zorionez, kaletarrok gero eta gehiago gailentzen ari. Eta kaletarron buru-bihotzak ez izaki beti lehengo euskaldunenak bezain garbi. Barrenean bi gizonen borroka latza somatzen dugu —berriz ere Pauloren hitzak aipatu behar—, bihotz euskalduna eta buru erdaldunaren arteko borroka amaigabea: ohitura burdinazko katea baino lokarri etengaitzagoa baita. Eta euskara biziko baldin bada —eta gure aurrekoena ez baina geure izaera benetan azalduko baldin badugu—, gure herrietako biziera nahasia euskaraz jarri behar nahitaez: gaurko ezinegona, bizi beharra eta ezinbizia, handinahia, diru-gosea, maitasun-gorrotoak; gaurko gizonen ametsak, zuhur edo zoro; ezerezaren gau beltzean —hiltzeko sortua—, nondik datorren eta zertarako den ez dakienak daraman huskeriazko ibilera galdua eta bera baino goragoko zerbaiten alde gizona bere buruari uko egitera behartzen duen indar ezkutua. Eta goazen lehenbailehen Lizardik bere maitearekin amets-bideetan barrena egin zuen bidaldi luzea berritzera. Bizitz lege zorrotza hauxe baita: besteren ederra bereganatzen ez duena bestek besterenganatzen duela.

Behar hau ate-joka dagokigu, baina ez da noski guzien belarrietara iritsiko. Gazteak behar horretarako batez ere, gure kidekoek maite izan duten gazte batek bezala «besteek somatzen ez dituzten 21
ezkutuko deiei bihotza irekitzen dietenak». Zernahitarako joera, zernahiren maitasuna nekagarria da beti, kezkaz eta atsekabez betea. Barrenak hala agintzen duenean, ordea, ez da haren deiei muzin egiterik, haren eskabideetatik ihespiderik inondik ez.

Gure hizkuntzaren egoera estuak ezartzen digun eginbeharra zaila da beraz eta gerorako ez uztekoa. Eginbehar hori betetzeko era askotako laguntzen beharrean gaude. Olerkariek eginbeharra erakutsi digute eta bai aurrera ere —gure lurrak emango ahal ditu— erakutsiko. Amesgileak nahiko ez direla —zorioneko amesgileak!—, eguneroko zeregina noiz eta nola egin behar den erakutsiko diguten gizon burutsuak behar ditugu. Eta beste guzion gain eta edozer baino gehiago, entzule eta irakurleen lana dugu beharrezko. Sortzaileen esanak hauek beren bihotzetan maitekiro gorde eta ernatzeko lurrik ematen ez badiete, haien mintzoa «tupiki ozen eta txilin burrunbaria bezela», iraupen laburrekoa izango da. Eta entzule-irakurleak gaitzeko gai direnak lanari lehenbailehen ekin beharko, gizonaren gaitasunak gutxitan baizik ez baitira berez sortzen.

Jakin dezagun, bada, egiteko hau hartzen badugu, geure bizirako lana hartzen dugula. Aurrekoen ondarea, oinordeko garenez, dagoen dagoenean, gogo onez eta inork behartu gabe, geurez hartu behar. Negar alferrik eta arrangurarik gabe lanean jarduteko, urteek zarpaildu itzalia —egia hau da, ahotan ez badarabilgu ere, euskal bihotz askoren ergarria— lehengora ekarriko ez bagenu ere, halabehar gogorrak menderatuko bagintu ere. Antzinakoen *amor fati* hura —kristauentzat Jaunaren borondatearen onartze umila— aldez aurretik ongi ikas dezagun.

10

ASMO BERRI

Egan-ek, *Boletín*-aren eranskin honek, aurki izango ditu zortzi urte. Ia zortzi urte hauetan, euskaraz eta erdaraz aurrenik, euskara hutsez gero, hamaika lan agertu dira bere orrialdeetan, zenbait —lasai esan dezakegu— ez nolanahikoak. 1

Eraberritu nahian dabil, diogunez. Gipuzkoako Diputazioak hain asmo txalogarriz Donostian sorturik daukan «Julio de Urkixo» Euskal Filologi Mintegiak hartu du bere gain orain aldizkari hau antolatzea, gure mintzabide biziaren alde lan egiteko, agindua daukan bezala.

Eginbide hau, zuzen edo oker, gu hiruron bizkar gelditu da eta azaldu nahi genizuke, irakurle, zer ustetan garen. Maizago argitara eman nahi genuke *Egan:* maizago, ugariago eta hornituago. Eta biziekin ari garenez gero eta darabilgun hizkuntza ere hizkuntza bizia denez gero, gaiak ere biziak, gaurkoak, nahi genituzke. Sarriegi gertatzen baita azkenaldi honetan euskarak, holakoak erabiliaz bere trebetasuna erakutsi beharrean, bere eritasun eta makurrak dituela beti ahotan, guziok ezagutzen ditugun zenbait pertsona mintsuk bezala. Eta beldur gara ez ote den hori biderik egokiena izango maiteen dutenak ere asperrarazteko.

Kalera begira ari nahi dugu, baserrira begira baino gehiago. Eta, kalean, gure gisako ikasi edo erdi ikasientzat. Zenbaitek uste izango du, beharbada, hori baino eginkizun beharragorik badagoela. Baliteke hala izatea, ez dugu ukatzen. Ez dagokigu, ordea, guri erabakitzea zein den beharren. Geure sailean ari nahi dugu, horretarako

---

Egan 1954, 1-2; *MEIG* VIII, 91.-92. or. [Testua honako hauek sinatua agertu zen: «A. Arrue, A. Irigarai, L. Mitxelena»].

egokiera eskura zaigunez gero, bestetan ari duenari, eragozpenik jarri gabe ez ezik, ahal dugun pixkarekin lagunduaz. Oinarriak lehenago dira teilatua baino, egia, baina teilaturik gabe etxe barrena eta zimenduak berak ere usteldu egiten dira azkenean.

Askoren beharrean garela badakigu. Indarrez kaxkar gara, ez dugu inork esan beharrik, eta etorriz urri. Eskerrik beroenaz hartuko ditugu beraz inork bidali nahi dizkigun idazlanak. Argitaratzeko muga, aldizkariaren neurriaz kanpora, gaiak bakarrik ipiniko du. Gainerakoan berdin zaigu hizkera hemengoa edo hangoa izatea, euskara —izenez eta izanez euskara— baldin bada. Eta batez ere irakurleen beharrean gaudela, euskaldun guzien beharrean alegia, esan beharrik ba al dago?

Har itzazu, irakurle, *Egan*-en bigarren aldi honen hasieran, gure eskerrak eta gure bihotzeko agurra. Eta agur berezi bat zuei, hemen eta han lanean ari zareten euskal aldizkari eta idazleei.

11

EUZKO-GOGOA ETA *EUSKERA*

«Euskal-aldizkari bakarra» ez ezik «euskal-aldizkarien erregea» 157
—itsuen herrian okerra errege—, hots, *Euzko-gogoa* irakurtzen duenak aurki dezake azken zenbakiaren 115. orrialdean honako izen hau daraman lantxo bat: «Euskera. Euskaltzaindiaren lan eta agiriak. 1956». *Western* batean bezala, baina 20-30 lerrotan, U. jaunak, lantxo horren egileak, zuzentzen ditu oker franko: gaiztoak ihesi doaz, gezurrezko euskaltzaleak —ardi-larruz jantzitako otso maltzurrak— lotsagarri gelditzen dira, garai berriz U. jaunaren adorea, kemena, buru jantzia eta bihotz gartsua. Astinaldi ederra eraman dute batzuren batzuek, neroni ere, esateak lotsatzen nau, urruti ez naizelarik.

Ez nioke nik inolaz ere kendu nahi U. jaunari garaita eder horrek utzi dion poza: bere saria merezi du langile zintzoak. Beldur naiz horratik, etsai izugarriak eta erraldoi itzalak apurtzen dituelakoan, ez ote den ardi otxan eta haize-errotekin borroka ibili.

Manchako zaldun ibiltariaren ibilera berriak —luma darabil 158
oraingoan armen ordez— honelaxe hasten dira: «Azkenik eskuetara zait Euskaltzaindiaren aldizkaria: ao bete aginekin utzi nau, damurik. Zortzi idazlanetatik bi soilik euskeraz, Altube ta Lekuona euskaltzain iakintsuenak, alegia. Dirudinez, zenbaiten iritzian, euskera zaitzeko biderik ederrena erderaz idaztea bide da. Nik, beintzat, eztut haien begietatik argia ikusten, ala bearrik».

Burrundara bizian etorri da erasoa, baina zaparrada atertu ondoan lehen bezain lasai ari dira ardiak belarretan. Zergatikoaren

---

Egan 1956, 157-163; *MIH* 201.-209. or.; *MEIG* VIII, 125.-132. or.; *EN* 429.-436. or.; *GA* 367.-373. or.

galde dabilenari arrazoi franko eman dakizkioke. «Euskera zaitzeko biderik ederrena erderaz idaztea dela» uste duten «zenbait» horiek, hona bat, euskaraz ere idazten baitute: «zenbait» horietatik hiruren idazlanak orrialde hauexetan irakur ditzake U. jaunak eta horietatik baten lan luze bat *Euzko-gogoa*-n bertan, bere purrustalditik ez oso urruti. Horretaz gainera, ahaztu egin zaio nonbait U. jaunari esatea hainbeste mindu duten erdal artikulu horietatik bi hiztegi tankerakoak direla: Lafon jaunarena bata, Azkue zenarena bestea. Horiek zeharo txarrestekotan, txarretsi ere beharko ditu, bere buruari uko egin nahi ez badio, munduan diren euskal hiztegi guztiak edo ia guztiak. Azkuerenean, Lhanderenean, López Mendizabalenean, esate baterako, euskal hitzen adiera erdaraz azaltzen baita. Bestela esan, erdal liburuak baitira U. jaunarentzat eta horrenbestez euskaldun jator batek, agidanean, ukitu behar ez lituzkeenak.

Esanak axalari dagozkio. Mamiari begira diezaiogun. *Euskera,* Euskaltzaindiaren aldizkaria, ez da inoiz euskara hutsez agertu. Hor azaldu dira, gogoangarrienetatik bat edo beste aipatzeko, Azkueren *Morfología vasca* osoa —ez da laburra— eta Altuberen *Erderismos* eta *El acento vasco,* euskararen kaltean beharbada U. jaunaren ustez. Eta ez du inork aditzera eman, nik dakidanez, *Euskera*-k, bigarren agerraldi honetan, bere ohiturak aldatuko zituenik. Ez zuen, bada, U. jaunak besterik itxaroteko eskubide handirik; ahoa bete haginekin gelditu bada, ez dizkio inork hagin horiek ahoan sartu.

Esatera noan erdaldun batek ere —euskalaria bera, eta Euskaltzaindiaren urgazlea— idazten duela hor, baina hobe dut ez esan. U. jaunak ez baititu gogoko euskalariak: «Euskalariak baino areago euskaldun eta euskaltzaleak bear ditugu, noski baino noskiago, beste nonbait idatzi nunez».

Adimen aberatsa behar gizonak horren antzeko burutapen bat izateko! Horrelakorik behin bederen izan duena lasai hil daiteke, esan baitezake harako hark baino eskubide hobez: «Non omnis moriar». Eta hutsa balitz bezala esaten digu U. jaunak «nonbait» idatzi zuela! Ez ote du gehiagorik merezi? Burutapen garai guztiak bezala, bakuna da, xinplea, zoroak ere igerriko liokeena. Bi gizon mota baizik ez da, gauza nabariagorik: euskalariak batetik, euskaldun euskaltzaleak bestetik. Nortzu dira euskararen etsai? Euskalariak. Nortzu laguntzaile? Euskaldun euskaltzaleak. Akaba ditzagun, beraz, lehen baino lehen euskalariak eta bake ederrean biziko gara aurrerantzean euskaldun euskaltzaleok.

159

Baina, eskarmentua duenak daki, burutapenik harrigarrienak ez dira beti zuzenenak: hauts bihurtzen zaizkigu maiz astiroago aztertuz gero. Norbaitek galda lezake: zergatik ez esan «apaizak baino areago euskaldun eta euskaltzaleak behar ditugu»? Edo: «medikuak baino areago», edo «zapatariak baino areago»? Berdintsu litzateke esatea: «emakume beltxeranak behar ditugu ezkongaiak baino gehiago».

Gauza ageri xamarra da zapatariak euskaltzaleak direla batzuetan, eta besteetan ez. Orobat apaizak, medikuak eta euskalariak. U. jaunak hori ikusten ez badu, badu, ezagun da, makurren bat begietan. Ez lioke batere kalterik egingo mediku euskaltzale edo ez euskaltzale batengana luzatu gabe joateak.

Nik, egia esan, kale-garbitzaile edo zatar-biltzaile izatea nahiago nuke, baina ez naiz damurik ez kale-garbitzaile ez zatar-biltzaile: euskalaria naiz, edo hobeto esan euskara batez ere gogoan duen linguista. Hori da nere lanbidea eta hori nere irabazpidea. Dakidanez, ez diote inori soldatarik ematen ez euskaldun delako ez euskaltzale. Hobe bai, neretzat behintzat, euskaldun naizenik ez bailidakete ukatuko. Ez du gure lanbidea, aditzea dudanez, inongo elizak eskumikatu ez inongo legek debekatu. Beraz, nerean ariko naiz horrelakorik ez den bitartean edo U. jaunak hileroko euskaldun-soldata ordaintzen ez didan bitartean: ugari xamarra beharko du izan gainera, familia mantentzea gero eta zailago baita. Badakit gauzak zeharo aldatuko direla U. jauna gobernari edo —zein bidetatik dabilen ez dakit— Aita Santu egiten duten egunean, baina beharbada ez dugu hori bihar goizean ikusiko.

Euskarari lau orrialde ostu dizkiot *Euskera*-n. Zergatik? Burutapen bat izan nuen. Ez zen, noski, U. jaunari gogoratzen zaizkionen parekoa. Huskeria bat zen, egia esan, eta inorena gehiago nerea baino. Erdaraz adierazi nuen. Euskaldunek, nik uste —horrelako gauzak irakurtzeko gogoa duten euskaldunek—, erdaraz badakite; irakurtzea nahi nukeen zenbait erdaldunek, berriz, ez dakite euskaraz.

Oker nengoen beharbada eta artikulutxo horren berria, gutxi axola badu ere, gehiago barreiatuko zen euskaraz egin baldin banu. Zorioneko zenbaki horretan, adibidez, bada Tovar jaunaren erantzun bat; Corominas jaunari zuzendua dago. Hark ez du ontzat hartzen honek *abarka* euskal hitzari ematen dion jatorria. Gauzak behar bezala balira, euskaraz egingo zukeen agian bere lantxoa. Errazago zitzaiolako eta, batez ere, euskarazkoa izanez gero Coro- 160

minas jaunak bere arrazoiak aiseago eta argiroago adituko zituelako. Jokabide horren gainerako alde onak ere berehala nabarmenduko ziratekeen. Hura poza harako *abarka*-ren jatorriaz kezkatan dauden hamar-hogeiren bat linguistena, artikulu horren *separata* edo *tirages à part* direlakoak euskaraz ikustean!

Zergatik ez diogu ONU-ri eskatzen euskara behar-beharrezko hizkuntzen artean edukitzea? Nik ez dut uste euskaltzaletasuna eta zentzua elkarren etsai direnik. Horrela uste banu, lehenago egingo nioke uko euskaltzaletasunari zentzuari baino.

Egin dezagun euskaldunen batek asmatzen edo aurkitzen duela egun edo bihar Einsteinek fisikan edo Flemingek medikuntzan asmatu edo aurkitu dutenen pareko zerbait. Ez dugu berehalakoan ikusiko, izpiritu-gaietan saiatzen diren euskaldunek maiz aldegiten baitute guregandik —ez ote ditugu behin baino gehiagotan gerok uxatu?—, baina ez dugu irudimena estuegi lotu beharrik. Zein hizkuntzatan emango luke berria? Euskaraz ematea, ez ote litzateke mutua hartzea oihulari?

Euskaraz mintzatuko balitz, kaltea besterik ez luke egingo: bere buruari aurrenik, jakintzari gero, munduko eri guztiei sendagairen bat asmatu badu, eta abar. Onik ez lioke inori egingo, ezta euskarari ere. Ez bailuke inork euskaraz ikasiko bere lanak irakurtzearren. Zer erakutsiko luke, gainera, euskaraz idatziaz? Gauza dela euskara, alegia, horrelako gaiak aiderazteko? Ez al dira itzuli orain berriro San Agustinen *Aitorkizunak?* Ez ote lituzke norbaitek, behar izanez gero, Einsteinen idazlanak ere itzuliko? Ez da, bada, gaitasun hori egiaztatu beharrik: ageri-agerian dago. Horrelako idazlanak irakurtzeko gogoa eta behar bizia sumatzen duen jendea behar genuke.

Ez du horrek esan nahi horiek euskaraz erabili behar ez direnik. Baina bi gauza dira, eta arras bereziak, jakintza irakastea eta jakintza aurreraztea, edo aurrerazi nahian ibiltzea, gizon ikasi asko-jakina eta bilatzailea zeharo ezberdinak diren antzera. Munduan barrena dabiltzan eskuliburuak, euskaldunen ikasbiderako, itzultzeari eta haien gisakoak antolatzeari ezin hobeki deritzot. Baina jakintza
161 arloan bila ari denak ezer berririk euskaraz adierazi? Zertako? Kontatzen dakienak ez du horrelakorik egingo.

Suediako *Studia linguistica* aldizkariaren azalean irakur daitezkeen hitz hauek eskaintzen dizkiot U. jaunari: «Alemanez, ingelesez, espainolez eta frantsesezko idazlanak bakarrik jasoko dira». Beren hizkuntzak ez du, beraz, lekurik hor. Eta Suedia ez da Euskal

Herria eta horrelako oharrak ez dira han bakarrik agertzen. Arrotz guztiak ero sortu ote ditu Jainkoak, eta gu bakarrik zuhur?

Goazen aurrera. U. jaunaren artikulutxoa, orrialde batekoa izanik, mamitsua da eta ez da oraindik agortu. Hauek dira bere hitzak: «Gatozen arira. Ele-eder-euskeraren ioskera dala-ta, idazten digu Altube buru-zuriak, berak oi dun sakon eta argi. Euskal-itz iatorren ordez mordoiloenak erabilten asiak ditugu bazterretan. Orain, berriz, *zenbait euskaltzainek* (letra larria nerea da) euskal-ioskera bera gainazpikatu ta itzulipurdikatu nai lukete, ageri danez. Burubide oker orren aurka ari da gure Altube».

Hemen ez dago ukatzerik: neroni nauzue euskaltzain horietatik bat. Ez nioke nik inori kenduko, eta U. jaunari inori baino gutxiago, kritikarako eskubidea, nere kaltean bada ere. Baina kritikak baditu bere legeak, eta lege horiek ez dira beti gaizki esatea izan daitekeen bezain atseginak. Jorratzen diren obrak irakurri ere egin behar dira, kritikatuak dioenaz jabetu behar da eta irakurleari, kritikoaren iritziaz gainera, eman behar zaio zehazkiro besteak dioenaren berri.

Esate baterako, ez dakit non ikasi duen U. jaunak zer *nahi dugun* euskaltzain garelakook. Ez dut uste gure barrena, Jainkoak bezala, irakurtzen duenik eta ez du esaten zein dokumentutan azaldu dugun «euskal-ioskera bera gainazpikatu ta itzulipurdikatzeko» borondate hori. Gure bidetik ibiliaz hori baino okerragoak gertatuko liratekeela uste izateko eskubide osoa du, baina ez guk horrelakorik *nahi dugula* esateko. Horretarako «ageri danez» bat baino lekuko hobeak behar dira.

Nor dira, edo nor gara, *zenbait euskaltzain* horiek? U. jaunak dotore baino dotoreagotzat edukiko ditu zehar-esan eta aipamen ezkutu horiek, baina munduan barrena egiten den kritikak aspaldi utzi zion «ikusi-makusika» ibiltzeari. Haurtzaroa joan zitzaigun. Igerketaz bada ere, pentsa dezakegu «zenbait» eta «lukete» horiek ez direla *figura rhetorica* hutsa. Bat baino gehiagoz ari da, beraz: bitaz gutxienez. Euskaltzainak hainbeste ez direnez gero, Aita Villasante izango dugu noski bigarrena?

Bada, nere ustez, irakurleak, gehiago ez badaki, ez du hortik argibide zuzenik aterako. Zer ikusirik duten puntuak hauexek 162
dira, deritzadanez: 1) hitzalditxo bat egin nuen behin, gero argitara emana, Oihenarten olerkiei buruz; 2) hitzalditxo horretan, bizpahiru hitz sartu nituen bidenabar «axulartar» zirelakoen kontra, Aita Villasanteren kontra batik bat; 3) hori zela eta aipatzen nuen

Altube jaunaren *Erderismos* ez berak finkatutako legeak mugatzen saiatzeko, baizik nere ustez gutxi edo gehiago mugatu beharrak zirela adierazteko. *Euskera*-n, nik esanari erantzun dio Altube jaunak, axulartarrak eta Aita Villasante, oso oker ez banago, zeharo alde bat utzirik.

Aita Villasanterekin nuen auzia labur azalduko dut. Axular eta bere jarraitzaileak honek nahi zuen bezala eredutzat hartuz gero, ez nuen uste nik sintaxis aldetik erabat alda zitezkeenik. Zuzen nengoen ala ez, bestek esan beza. Argi eta garbi dago nolanahi ere ez ginela Aita Villasante eta ni iritzi batekoak. Bekatu asko genituen apika, baina nork bereak. Eta *Euskera*-n Altube jaunak inor astindu badu, ni astindu nau, ez ditu *zenbait euskaltzain* astindu.

U. jaunaren azken hitzak ipiniko ditut orain: «Lekuonak, berriz, deikia edo bokatibua nola erabili bear dugun aditzera ematen digu, oso ta gozo. Bi idazlanok pozarren irakurri ditugu. Erderazkoen iritzia emateko nor ezkera, euskera irauneraztekо, edertzeko ta zabaltzeko bidea erdera danik ezpaiteritzagu, bestalde».

Erderazkoen iritzia emateko nor ezkera. Zer esan nahi du ateraldi horrek? U. jaunak erdaraz ez dakiela? Ez dut uste. Horrelako gauzak arrotzen bati edo esan dakizkioke, baina hemen elkarren berri badakigu. Erdarazkoen gaiak bestelakoak, esoteriko horietakoak, direlako? Ezta ere. Esaterako, Altube jaunak euskaraz darabilen gai berbera darabil erdaraz Aita Villasantek, iritziak bat ez etorri arren. Bati buruz iritzia emateko gauza bada, beraz, gauza ere da besteari buruz mintzatzeko.

Nik —neronen burua hobeki ezagutzen dut besterena baino— zenbait gai ukitzen dituzten idazlanak, ezer balio baldin badute, irakurri egiten ditut, nahiz euskaraz egon nahiz irispidean dudan edozein erdaratan; beste zenbait sailetakoak, berriz, ez ditut irakurtzen ez erdaraz ez euskaraz, ezin utzizko eginkizunen batek behartzen ez banau. Jende zentzudunak horixe berbera egiten zuelakoan nengoen; oker, dirudienez. Eroetxeetako maizterren egitekoa da hori beharbada. Jende zuhurrak mamiari baino gehiago begiratzen bide dio hizkuntz axalari.

Nere gogo eta nahia ahotan hartu dutenez gero, zilegi izan bekit neronen mingainez adieraztea. Euskal kultura nahi nuke, kultura
163 horrek euskara mintzabide duela. Horretarako, nik uste, kulturarako gogo bizia duen jendea behar genuke aurrenik, eta gainera euskaltzalea. Gogorik ez duena ez dut nik gutxietsiko: esku osoa du nahi duena aukeratzeko. Horretan ere, «berez behar Villabonakoa»: eus-

kaldun eta euskaltzale izatea ez da aski. Baina gogodunek gauza bat bederen eska diezaiokete «euskera lantzen» ari diren gogogabeei: bakea.

Bestela, zorioneko euskara landu behar horrekin, hiru motatako idazlanak sortuko zaizkigu soil-soilik: a) lan «sakonak» *pour épater l'étranger,* b) «A, gure Euskara ederra!», c) «O, gure Euskara gaixoa!». Ez dute euskaltzale guztiek idazten jardun beharrik. Denek bat-batean filosofiaz mintzatzen hasi beharrik ere ez. Badago lanik aski euskaltzaleentzat horretaz kanpora euskara gordetzeko eta zabaltzeko. Gogo gaiztozko lanak ez dio inori onik egingo, eta euskarari inori baino gutxiago.

«Zenbait euskaltzain» horiengana nator berriz ere. Esan dudanez, nere hitzalditxoa egin nuen garaian alde batetik zebilen Aita Villasante eta bestetik, oso bestetik, nenbilen ni. Zer dela eta elkar harrarazi digu U. jaunak? Gure iritzien ezberdintasuna gutxitu egin du denborak, egia esan. Baina, dakidanez, behin bakarrik adierazi du hori Aita Villasantek, hainbeste aldiz aipatu dugun *Euskera*ren zenbaki honetan, hain zuzen ere. Damurik, gutxiagok uler dezaten edo, erdaraz eman du bere iritzi berria. Nondik daki, bada, U. jaunak —*hispanica non leguntur*— «zenbait euskaltzainen burubide okerraren aurka» ari dela Altube, erdarazko lan hori irakurri ez badu? Eta nondik daki burubide hori, Aita Villasanteri dagokionez, okerra denik «erdarazkoen iritzia emateko nor ezpada»?

Utzi ditzagun itxurakeriak lagunartean behintzat: ez dakit kanpotarrei ziririk sartuko diegun —kanpoetan ere jendea ernatzen hasia omen da—; etxekoei ez, behinik behin. Utzi ditzagun quijotekeriak, zentzatzeko ordua badugu eta. Utzi diezaiogun, geure buruak edertzeko edo, akuilu beharrik ez dutenak akuilatzeari. Ken dezagun, arren, burutik euskara. Mintza gaitezen honetaz edo hartaz —euskaraz, bai, orduak eta gaiak eskatzen duten guztietan—, baina gaiari begira eta ez hizkerari bakarrik.

Ez lau orrialdek, ez laurogeik, ez laurehunek ez diote euskarari gora edo behera handirik egingo, beharra beharrak eragin ez badu. Hizkuntza bat —eta euskara ez da besteak ez bezalakoa— ez da mintzabide bat besterik. Zerbaitetarako da, zerbait adierazteko, ez bere txilborrari begira egoteko. Zenbat eta gehiago idaztea, hobe. Eta besterik ez? Egia esan, etxeko liburutegirako liburuak metroka erosten dituzten aberastu berrien neurriko burubidea iruditzen zait hori.

12

HIZKUNTZAK GALESEN

Aurten agertu da Estructuralismo e historia *deritzan A. Martineti eskainitako gorazarrearen lehen liburua.*[a] *Hor aurkitzen da honako idazlan hau, beste zenbaiten artean: Herbert Pilch, «Le bilinguisme au Pays de Galles».* 267

Espezialistentzat egina izanik, hemen gutxirentzat liratekeen zatiak baditu. Beste batzuk, ordea, gogoz irakurriko dituzte euskararen etorkizunaz kezketan dabiltzan euskaldunek. Galesezko hitz eta esaldiak, egileak berak itzuliak ez daudenean, Jon Mirande adiskideari eskerrak euskaratu dira, neronek ez baitakit tutik ere galesez.

Herbert Pilchek du, beraz, hitza hemendik aurrera. Oin aldeko oharrak ere bereak dira parentesis artean ez badaude: honelakoak nere baitarik ipini ditut.

* * *

Gaur den egunean, elebitzarik, bilinguismorik, ez da Gales-herri osoan. *Cymry Cymraeg* (galesez dakiten galestar) direlakoen artean bakarrik ageri da. Hauek, 1951ko estatistikak dioenez, 673.531 hiru urtetatik gorako lagun dira: Gales-herri osoa kontuan hartzen badugu, ehuneko 27,2 baino gehixeago. Bada, horrezaz gainera, galesez dakienik franko Ingalaterrako zenbait hiri larritan. Galestarrik

---

Egan 1957, 267-271; *MIH* 183.-189. or.; *MEIG* IX, 34.-39. or. [«Adiskide berri»-k sinatua].

[a] *Estructuralismo e historia. Miscelánea homenaje a André Martinet,* La Laguna 1957, I.

gehienak ez dira galesez mintzatzen: 1.757.743 lagun, hau da, ehuneko 61,1, *Cymry di-Cymraeg* (gales erdaldunak) dira batzuk, *Cymry*
268 *wedi eu seisnigeiddio* (gales ingelestuak); besteak berriz Galesen bizi diren ingeles eta bestetariko arrotzak. Gales hutsak *(Cymry uniaith)* ez dira ia aipatzeko adina ere, ez baitira 41.155 lagun baizik, ehuneko 1,7. Hauetatik gainera ehuneko 40,1 hamalau urtetatik beherakoak dira, ingelesez gero ikasiko dutenak alegia. Ez da erraz aurkitzen, egia esan, mendi bakardadean ere, erdaraz nekez mintzatzen den artzainen bat edo beste.

Cymry Cymraeg direlakoak sartaldean bizi dira batez ere. Anglesey, Caernarvon, Merioneth, Cardigan, Carmarthen herrialdeetan, Pembrokeshire-ko iparraldean eta Dembighs eta Montgomeryshire-ko sartaldean, ehuneko hirurogeita hamarrek baino gehiagok badakite galesez. Flints, Radnors, Brecknocks, Monmouthshire herrialdeak eta Glamorganshireko herri larriak, aitzitik, ia zeharo erdaldunduak daude. Industri lekuak eta arrotzak udaldean erakartzen dituztenak erdaldunagoak dira, jakina, inguruko baserriak baino. Hauek ongi eusten diote galesari sarri aski.

Gizarteko harremanei begiratzen badiegu, hauxe ikusiko dugu berehala: goragoko mailan dagoela ingelesa, ezin esan ahala goragokoan ordea. Galestarrak, batez beste, harro mintzatzen dira ingelesez, beren hizkuntzaz maiz lotsatzen direlako edo. Ingelesez mintzatuko zaizkio ezezagun bati. Nahiz trenean nahiz estazioetan nahiz beste edozein jendarteko lekutan, horrelako baten aurrean galesez mintzatzeko, nork bere burua zuritu behar izaten du aurrenik, barka eske. Galesez ari badira bi lagun, nahikoa izaten da hirugarren batek «hizkuntza aspergarri hori» uzteko eskatzea lehenbiziko biek amore emateko. Ingelesera jotzen dute berehala auzo-batzarretan batzarkide bat bakarra erdalduna bada. Ez litzateke ezinezko gauza izango, nere ustez, arrotz bat Galesen luzaroan bizitzea ingelesaz beste hizkuntzarik badela sumatu baino lehen.

Hona beste bat. Askotan galesek ez diote galesez hitz egin nahi arrotz bati. Hamaika aldiz gertatu zait honelako barregarrikeriaren bat: galesez mintzatu natzaio dendari nahiz baserritar bati, edota galesez aurkeztu naute galestar bati «badaki galesez» esanaz, eta ingelesez erantzun didate. «Hizkuntzarik dotoreenean» agurtu nahi kanpotarra, alegia, igandeetako arropekin agertu nahi duten bezala haren aurrean. Ez daude bi bide besterik galesez mintzarazteko: «ez dirudi galesez dakizunik» esatea edo ingelesez ez dakigulakoa egitea. Errukiz eta erdeinuz egoten zitzaizkidan begira, azkeneko bide honetatik

abiatzen nintzenean. Hamaika ahalegin egin dituzte galesez nioena ingelesez nola esaten den erakutsi beharrean gizarajo honi.

Ertzain edo polizi mutil britanikoek badute gizalegea, inork badu, eta egiten diezun hizkuntzan erantzungo dizute beti. Badira ere zenbait buru-langile galesez mintzatu behar dutenak egokitzen zaien aldiro. Gales-elkartasun bat *(Urdd Siarad Cymraeg)* etengabe ari zaie beren herritarrei galesez mintza daitezen. Elkartasunean sar- 269
tzeko, zin egin behar dute «galesez mintzatuko direla nonahi, lotsarik gabe, beren artean». Horrelako zinak eskatu beharrak berberak ez ote du azaltzen ezerk baino argiroago gales hizkuntzak gizartean duen egoera narrasa?

Egoera honi eskerrak, Gales-herri osoan barrena ibil daiteke ingeles bat merkataritzan, erostunen hizkuntzaz arduratu gabe. Maiz ikusten da herri koxkor gales huts batean ingeles huts bat tabernari.[1] Ez du, ez, eskatu beharrik izaten bezeroei ingelesez mintza dakizkion, harro mintzatzen baitzaizkio hauek beren «hizkuntza apainean». Tabernariak, zer esanik ez, ez du horrelako sasi-hizkuntza bat ikasteko ez gogorik ez asmorik. Nork idukiko dio begiramenik, izan ere, bere buruari begiramenik ez dion herri bati? Arrazoi du noski Melville Richardsek galesaz ari dela: «Lotsa hobea diote Whitehallen[2] Galesen baino». Historiari bagagozkio, gutxietsia izan da luzaroan gales hizkuntza, eskoletatik eta gizartetik baztertua, ingelesa geldi zedin jaun eta jabe. Londresko gobernuak utzia du politika hori, baina politika horren ondoreak ez dira horregatik ahitu.

Ingelesa da oraindik hizkuntza ofiziala merkataritzan, albistarietan, ikastetxeetan eta Unibertsitatean: galesak ez du sarrerarik atzeko atetik baizik.[3] Badira zenbait gales astekari. Egunerokoetan ere maiz agertzen dira zerrenda bat edo bi galesez. Bizpahiru orduko irratsaioak egiten ditu BBC-k egunero. 1939an hasi ziren haur-eskolak. Lizeoetan irakasten dute galesez, baina frantsesez edo alemanez bezala, hizkuntza arrotz baten gisa. Galesko Unibertsitatean galesa erabiltzen dute zelta-sailean. Leku batean ageri da nagusi gales hizkuntza: ez-konformisten elizan. Ongi ezaguna da galesezko Bibliak literatur hizkuntzan izan duen eragina. 1920 au-

---

[1] Galesko ez-konformistek ez dituzte ontzat hartzen edari hordigarriak eta bekatuzko lanbidetzat daukate tabernaritza, hori dela bide. (Zorionean ez da horrelakorik gertatzen gure artean).

[2] (Londresko gobernuak, alegia).

[3] (Ez, ordea, inork debekaturik daukalako).

rretik, ez zuten haurrek galesez irakurtzen eta idazten ikasten Biblia irakasten den igande-eskoletan *(Ysgol Sul)* baizik. Ez da horratik galesez batere eskolarik ez duenik. Erdaldunak ere galesezko elizara joaten baitira: ez iruditzen nonbait erlijioa ingelesez erlijio denik. Galesa da gainera honako elkartasun hauen hizkuntza ofiziala: *Eisteddfod Genedlaethol* (Idazle eta musikarien herri-bilera), *Plaid Cymru* (Galesko alderdi abertzalea) eta *Urdd Gobaith Cymru* (Gales-gazteri elkartasuna).

Hitz beharrean aurkitzen da galesa ia behin ere erabiltzen ez den barrutietan. Ingelesetik hartzen dira orduan hitz zahar ahaztuen ordekoak. Ingelesetik hartzen ere dira atzerriko izenak eta teknika-hitz
270 internazionalak eta, jatorrizko hizkuntzatik hartu eta mintzaera galeseratu beharrean, ingeles antzera esaten dira. Hiru sail hauetan gertatzen da hori batik bat.

a) Leku-izenetan. Alferrik zen askorekin *Almaenwr* (alemana) nintzela esatea: *German* gaineratu behar. Horixe gertatzen da, esate baterako, honako izen hauekin ere: *yr Eidal* (Italia), *Ynys yr Iâ* (Islandia), *yr Alban* (Eskozia); *Llydaw* (Bretainia), *Caergystennin* (Konstantinopla), *Efrog Newydd* (New York), etc. Galesko izenak berak ere ingelesez esaten dira batzuetan.[4]
b) Herri-gobernu gaietan. Honelako hitzak erabiltzen dira: *Parliament* (Senedd), *Chancellor of the Exchequer* (Canghellor y Gronfa), *Police* (Heddlu), *Director of Education,* etc.[5]
c) Merkataritzan. Ingelesa erabili ohi da tratuan eta merkatari askok ez dakite galesez. Hemen ere, bada, ingelesera jo behar. *Oranges* (naranjak), *tomatoes* (tomateak), *cotton* (algodoia), *suits* (trajeak), *trowsus* (galtzak) erosten dira. *Bed and breakfast* (ohea eta gosaria) esaten da, *tip* (propina), *bank manager* (bankuko direktorea), *bus stop* (autobusaren pa-

[4] (Galestarrek, ikusten denez, badituzte guk ez bezala beren izenak urrutiko herri eta hirienak ere: izen jatorrak esan nahi dut, ez inork asmatuak edo antolatuak. Gure artean maiz entzuten dira izenak erdal itxuran euskaraz ari garela: Llodio, Aramayona, Oñate, Pasajes, Salazar, Roncal, Toulouse, Burdeos, Dax, Anglet, esate baterako, Laudio, Aramaio, Oñati, Pasaia, Zaraitzu, Erronkari edo Errongari, Tolosa edo nahi baldin bada Frantziako Tolosa, Bordele, Akize eta Angelu esan beharrean. Okerragoak Donostia eta inguruetako neska-mutilek behintzat maiz esaten dituzten «joan da *a París»,* «etorri da *de Italia»* eta antzekoak).

[5] (Argi dago noski letra larritan ageri diren hitzak ingelesak direla; parentesis artean daudenak, berriz, hitz jatorrak: erabili behar liratekeenak, alegia, eta erabiltzen ez direnak).

rada), *shop* (denda), *engineer* (injineroa), *suitcase* (maleta) eta abar.[6] Dendetan, ingelesez esaten dira prezioak, eta ingelesez kontatzen dirua. Are gehiago: ingelesera jotzen da ia beti kontuetan: *y mae hi'n half past ten,* «hamar eta erdiak dira», *y mae ef yn sixty oed* «hirurogei urte ditu».[7]

Egunero aipatzen ez diren gauzak, liburu eta albistarien bidez ezagutzen direnak, erdal hitzez izendatzen dira: *morgi* (marrajua), *macrell* (berdela), *crwban* (apo armatua), *gwalch* (aztorea), Eliza katolikoari dagozkion hitzak *(mynach* «fraidea», *lleian* «moja», *offeren* «meza»). Galesak dira, aitzitik, bertako animalien izenak *(dafad* «ardia», *llygoden* «sagua», *gwybed* «euliak») eta ez-konformisten erlijioarekiko hitz guztiak.

Horrezaz gainera, milaka eta milaka agertzen dira erdal hitzak 271
gutxien uste denean eguneroko hizketan. Honelakoak entzuna naiz: «Yr wyf fi'n licio eich leather trowsus. A ydynt hwy'n expensive?... y mae'r temperature yn y nineties... on the fifth of mis Medi... all the best i chwi».[8] Jende arruntak dira, jakina, honelako esaerak esaten dituztenak, eta badakite honela mintzatzean ez direla jator mintzatzen. Buru-langile, nazionalista, predikari, hizlari eta idazleen artean, albistarietan eta BBC-n, eginahalak egiten dituzte honelako erdal hitzak baztertzeko.

Gales hitzez moldatutako esaera asko ingelesetik itzuliak dira hitzez hitz.[9] Eta kalkoaz baliatzen dira batez ere teknika-hitz berriak sortzeko: *di-wifr,* «wireless», *di-lais* «voiceless», *deurodyn* «bicycle», *is-goch* «infra-red», *marchnad ddu* «black market».[10] Honelako franko sortu dute *awdurdodau am yr iaith Cymraeg* direlakoek (gales hizkuntza-gaietan agintariak), baina ezer gutxi erabiltzen dira

---

[6] (Ez naiz euskal hitz jatorren bila ibili: maizenik entzuten ditudanak ipini ditut).

[7] ('Euskaraz' honela mintzatuko ginateke gisa horretara: *«las diez y media* dira», *«sesenta* urte ditu». Azkenekoaren antzekorik ez du inork esaten gure artean; lehenbizikoaren antzekorik, ez naiz fio).

[8] (Ingelesez, honela lirateke: «I like your leather trousers. Are they expensive? The temperature is in the nineties. On the fifth of september. All the best to you»).

[9] (Gure *ilea hartu, hitzaldi bat eman, eskuan musu eman, harengatik esan, siesta bota;* beste aldean, K. Bouda jaunak seinalatzen zidan *guganik hurbildu* «s'approcher de nous»).

[10] (Euskaraz, gutxi gorabehera, *hari-gabe, boz-gabe* edo *abots-gabe, bigurpileko* edo *gurpilbiko, gorri-peko, merkatu beltz).*

hizketan. Berek erabiltzen dituztenak baino jatorragoak direlakoan, buru-belarri ibiliko zaizkizu gales zintzoak hitz horiek arrotzari erakustearren. Gero, arrotz gaxoa hitz horiezaz baliatuko balitz, ez luke inork ulertuko.

Gales-herrian gertatzen dena bera edo beratsua gertatzen da beste zenbait bi hizkuntza dituzten herritan: Ipar Alemanian, Flandrian eta baita Ipar Ameriketan ere jatorrizko hizkuntzari eusten diotenen artean.

* * *

Han ere, agi denean, txakurrak oinutsik dabiltza. Ez naiz hemen hasiko gure eta galestarren egoera erkatzen eta berdintzen hizkuntzari buruz: irakurle bakoitzari gauza bat baino gehiago gogoratuko zaizkio. Nolanahi ere, erbesteko berri jakitea kaltegarria izango ez zaigulakoan egin dut hala-holako itzulpen hau.

13

ASABA ZAHARREN BARATZEA

Euskaldun gehienok, guziok ezpada, badugu geure barrendegian txoko urri eta apaindura gabeko bezain maite bat: gure euskal baratzea. Ez da hori, ezin ere izan, gure lantegi eta atsedentoki bakarra, baina nekez geldituko gara luzaroan txoko horri, sarri edo bakanka, ikustalditxo bat egin gabe. Haize askatuagoak behar izaten ditugu, txoko zaharrari —bizibeharrak nahiz ahultasunak eraginda— uko eta iruzur egitea ere gerta daiteke, baina ez dugu heriotzaraino etengo nahi dugularik ere haurtzaroak eiho zuen liluraren sare argala. 121

Ez naiz hemen abiatuko baratze horren luze-laburra neurtzen. Lehenago ere aritua naiz lan horretan, hala beharrik, eta ez neure burua besterik baino neurtzaile hobetzat neukalako. Aski dugu orain hor ere zenbait lore eder aurki daitezkeela jakitearekin. Baita ere, gainera, besterentzat ximel xamar agertu arren guretzat atsegin, begiko eta kuttun direnak ugari.

Ez, oraingo euskal literaturari begiratu nahi nioke soil-soilik, erabat eta gaingiroki, nor eta zerekikoetan gehiegi sartu gabe. Eta euskal literaturari begiratu nahi nioke batez ere gaurko gure arteko gogo-giroaren ezaugarri eta salatari den aldetik.

Gure literaturak ere ezagutu ditu, bere txikian, aroak, gorabeherak eta eraberritzeak. Hor dauzkagu Detxepareren agerketa bakartia, ondorerik izan ez zuen Leizarragaren eragina, Materrez gero Lapurdin sortu zen mugimendu bizi eta aberatsa, Larramendiren astinaldi

---

Egan 1960, 121-134; *MIH* 55.-90. or.; *MEIG* IV, 29.-47. or.; *EN* 51.-67. or.; *GA* 37.-51. or.

gaitzak zabaldu zuen lurrikara, Bonaparteren itzalean lanari ekin zioten langile apalak.

Bide zaharrak eta berriak

122 Bide-aldatzerik larriena, halere, azken mende-mugak ekarri ziguna dugu noski, bai hizkuntzaren axalean eta bai gaiaren mamian. Luzaroan oinkatu ditugu, atzera behin ere begiratu gabe, orduan ireki ziren galtzada zabalak eta ez zitzaigun iruditzen ere beste biderik hauta zitekeenik.

Bi edo hiru lagunen boz ozen bezain bakarra gorabehera, beti (gizonaren «beti» gaixoa, ezinari ostikoka!) hor barrena ibiliko ginelakoan geunden, ezin hobeki genbiltzanez gero. Ez zen inor ausartu esaten, dakidanez, inoiz baino ugariago mintzatzen ginenik euskaraz ezta aho-hizkuntza aberastu zenik ere. Gehienok esaten genuen, ordea, eta ez da oraindik ospe hori ixildu, ez dela behin ere, mundua mundu denez gero, azken urteotan bezain ongi idatzi gure hizkuntza.

Gero, gerraondoan, izan dira gerokoak. Lehen alai eta harro bezain kopetilun eta ukakor agertzen hasi zaizkigu zenbait, eta zenbait horiek, gutxitu eta ixildu beharrean, ugaritzea besterik ez dute egiten gure artean. Jende berria gailendu da, gazteagoa, zaharragoen usteak maiz txorakeriatzat dauzkaten horietakoa. Zaharragoak, ni ere tartean naizela, inoiz baino hobeto ari beharrean ezin okerrago jokatuak gara horien ustez alde askotatik. F. Krutwig izan zen noski, besteak beste, bide horretatik lehenbizi abiatu zena eta merezi du aitormen hau aspaldi honetan ahaztuxea dagoenez gero.

Goizegi da dudarik gabe igaro berria dugun mende erdia aztertzeko eta epaitzeko gerok ere, etsai nahiz aldeko, haren ume eta iloba baikara, orduko haizeak sortu zituen olatuetan baikabiltza igeri, nahiz eginahalean haiekin borroka ari. Ezin jakin guk, segurki behintzat, zer esango duten aldi hori urrutiagotik, haserre eta maitasunik gabe, ikusiko dutenek. Onik eta txarrik aurkituko dutela horrengan, hori bai, edozein alditan bezala. Halaz ere, alde txarrak aski nabarmen agertuko diren arren, ez nintzateke gehiegi harrituko besteak, alde onak, garaitzaile irtengo balira haien begietan.

Ez litzateke harritzeko ere oraingo ukamenak aurreraegi joanak izatea. Hori gertatu ohi baita, zealdoka eta zabu-zabuka baizik ez dakigunez gero ibiltzen, giza mugimenduetan. Eta zenbat ere ausarkiago aurreratzen garen, hainbat gogorragoa izango da hurrengoen

oldarra atzeraka. Gaurko gehiegikeriek zaharragoren bat izutzen badute, bada, har beza gogoan gehiegikeria horiek, harri biziaren antzera, ez dutela lehengo gehiegikerien oihartzuna eta neurria besterik itzultzen.

Ez ditut nik gogoko erabat gaurko berrikeriak eta ezin ditzaket izan. Gehiegizkoak direlako batzuetan, beharbada, eta gehienetan gure garaikoek maiteen genituen (txoro-txoroan ala jakinaren gainean eta merezi onez, bestek esan beza) uste eta balioen kontra doa- 123
zelako batez ere. Ikus bestela hemen bertan, *Egan*-en azken zenbakian, Txillardegiren *Peru Leartzako*-z idatzi nuena.[a] Egia esan, dena aitortu behar bada, urdaila berriz asaldatzen hasia nuen ordurako agian.

Nahigabetzen nauenak, ordea, ezin eraman dezakedanak berak, poztu egiten nau biziro beste alde batetik. Gizaldien arteko borrokari legezkoa deritzat, bizitzak berekin dakarren legearen semea. Bizirik dagoen herri batean ez ditu gizaldi gazteak aurrekoen sinesteak, esanak eta eginak itsu-itsuan ontzat hartuko eta zenbat ere biziago herria, orduan eta biziago gizaldien arteko etsaitasuna. Beraz, lehenaren adorazio harrituan ez badaude auzpezturik gure gazteak, bizi garelako seinale da hori, besterik baino gehiago.

Kritika

Jaioterri-maitasuna, gainera, bi eratakoa izan daiteke: hobeto esan, bi eratan ager daiteke. Batzuek ez dute loria eta handitasuna baizik ikusten; beren buruari ederretsiz, harrotasunean igeri dabiltza txerriak lokatzetan bezala. Beste batzuek, berriz, nahiago izaten dituzte betaurrekoak begi-estalkiak baino, hots, beren herriaren izaera eta egoera hobetu nahi lituzkete eta behar-beharrezkoa iruditzen zaie horretarako huts eta beltzuneak ahalik argi eta garbien ikustea eta salatzea. Eta jokabide hau lehenbiziko haientzat, esan beharrik ez, izan daitekeen bekaturik larriena ez bada ere, ez dabilkio hagitz urruti.

Gazteak kritikazaleak agertu zaizkigu eta ni ere bat natorkie horretan. Kritika horrek, amorratua baino amorratuagoa izanik ere, ez du jaioterri-maitasuna desegingo, ez baita hau geure buruari diogun maitasun hilezkor eta etenezinaren ondorea eta eranskina baizik. Harritzekorik aski ez badut aurkitzen neuregan, neure

[a] *Egan* 1960, 101-106.

herrian aurki dezaket: etxean edo etxe aldamenean bizi izan naiz beti, baina mundua Elkanok inguratu zuen; ez dut ordena berririk sortu, baina herritar batek sortu zuen Jesusen Konpainia. Ze arraio! Mériméeren Don José bera, lapurretan andaluziarrei irakatsi ziena, ez ote zen, bada, Elizondokoa?

Ez gaitu, ez, kritika pixka batek, edo puxka batek, geure burua ukatzera erakarriko. Egin dezakeen gaitza ere ez da gehiegizkoa izango. Batez ere, gertatu den bezala, zoramen gorrian geure buruari begira luzaroan biziak baldin bagara.

Kritika horrek bi xede ditu: hizkuntza eta ideak. Lotsagarri da, sarri esan dugun legez, beti hizkuntzaz mintzatzen aritzea hizkuntza horren bitartez beste sakonagoko zerbait adierazi beharrean. Lotsagarri eta penagarri eta halaz guztiz nahitaezko. Hizkuntzarekiko au-
124 ziak ez baitaude oraindik egon behar luketen egoeran, nahaspilarik larrienean baizik.

Nabarmenegiak dira, izan ere, sail honetan hobe beharrez egin diren hutsak. Garbitasuna behar genuen, garbitasuna baino balio garaiagorik ez balego bezala. Menderen mende ahotan erabiliak gozoz eta zaporez bete zituen hitzak baztertu eta arbuiatu genituen, horien lekuan —zerbait ipintzen genuenean— ez kolorerik ez usainik ez zuten berrikeriak ipintzen genituela. Beste edozeinek egiten zuena bere hizkuntzan egingo genuen guk ere gurean, baina ez besteek bezala: guk hori berbera egin genezakeen hankak mozturik, besoak loturik, baita burua txapelarekin batean zoko batean utzirik ere. Mirestekoa da, benetan, nola zenbait idazlan eder —Lizardiren poesia, esaterako— sortu ziren garai horretan, hiztegia horrela murriztu eta soildu ondoren.

Badirudi gainera iratxo madarikaturen batek okertzen zituela —ezin zuzentzen esan— gure pausoak hitz eta esaera jatorren ordezko bila genbiltzanean. *Gerraren* edo *gerlaren* bila ez, baina ihesi genbiltzala, *gudu* jatorra hautatu beharrean, besterik esan nahi badu ere, *guda* sasikoa aukeratu genuen; *santu (saindu)* eta *fruitu*-ren ihesi genbiltzala, *deun* eta *arnari* gurasorik gabekoak hartu genituen; *abuztua* atsegin ez zitzaigulako, antzinako hitz galdu bat «edertu-rik» —zegoen zegoenean ezin utzi— *dagonila* sortu genuen; *eztakit hau zer dukan* eta antzeko barrabaskeriak idazten hasiak gara (ez ote digu oraintsu gramatikari ezagun batek erakutsi *izan bedi, izan bitez* hitanoz nola esan behar diren?), «Logika»-k horrela eskatzen duelako; horrexegatik beragatik, *dautso, daust* erabili behar omen dira Bizkaian, *deutso, deust* zokoratuaz, «orain-aldiak *a* bear duelako».

Batasunera bidean, gutxietsi dituzte Bizkaian Euskal Herri osoko *ditu(z)* eta bere kideak, «giputzak direlako». Euskaldun guzion aholumetan aspaldidanik dabilen *osasunaren gainean*-en ordez, ezin barkatuzko erdalkeria zelakoan *(hamar egunen buruan, hilabete barru* eta horien gisako beste zenbait esaera ere ez bagenerabiltza bezala), barregarrizko edo negargarrizko *-tzaz* agertu da, atzizki jator bat dagokion lekutik atereaz. Eta horrelaxe ordu luzeetan etengabe aipa daitezkeen beste hamaika eta hamaika.

Hitzen bizitza

Orain, gaurko kritikari zitalen batek esaten badu *«arnari* ez da ezer», erantzun jakina hartuko du: «Egia da, bai, dirudienez, atzizki bat gaizki ebakiaz eta adituaz sortu zela hitz hori. Guztiaz ere, bada zerbait, Azkuek, Aita Iraizozek eta beste zenbaitek erabili dutenez gero eta horiek direla bide literatur euskaran sartuxea dagoenez gero».

Erantzun honek, egia esan, badu bere pisua eta bertatik bertara 125
begiratzea merezi du. Zer da, izan ere, hitzen bizia? Bistan dago hitzok ez direla gure gisara bizi, ezta lanperna baten nahiz landare baten gisara ere. Hiztegi batean jasoak egoteak, idazle batek behin edo bestetan erabiliak izateak, ez die hitz guztiei eskubide berdinik ematen. Badira batzuk non eta noiznahi sarri erabiltzen direnak; beste zenbait berriz gehienok ezagutu arren, bakanka baizik esaten ez ditugunak; beste batzuk oraindik lurralde eta lanbide berezi batekoak dira, handik kanpora ozta inork dakizkienak; hor egoten dira azkenik inoren onginahiak, apetak eta ezjakinak asmatu dituen bitxikeriak, odolik ez duten hutsaren hurrengo iratxoak, hain zuzen ere ingelesez *ghost-words* deitzen dituztenak.

Gatozen goragoko galderara: «Ez ote dira, bada, ezer *arnari, margo* edo *itun?»*. Bai, zerbait badira, baina galdera horrek beste bat zor du: horiek zerbait badira, ez ote dira ezer euskaldun guziok menderik mende darabiltzagun (liburuetan adina herri-kantetan) *fruitu, kolore* eta *triste?* Izakiak dira, noski, izandunak edo izatedunak edo nolanahi ere dela, eta izakiak ez ezik beste maila eta neurri bateko izakiak lehen aipatu ditugunen aldean. Eta euskaldunagoak, jakina, ezin konta ahala euskaldunek euskaldundu dituztenez gero.

Hitzen auzi hau ez da, nere ustez, ez auzia ez ezer: ez luke behinik behin izan behar, pixkaren bat zentzatuko bagina. Zer

nahi dugu? Euskara bizi dadin, euskarak luzaroan iraun dezan? Plazara, mundura (horrelaxe esan zuen Detxeparek) irten dadin? Horrela bada, hitz ugariak, aberatsak, adiera bereziz josiak behar ditugu. Garbiak badira gainera hobe, baina ez badira ez gara gehiegi kezkatuko. Ez zaizkigu erdaratikoak atsegin, badakit, baina zein da gure helburua? Geure buruaren atsegina ala euskararen ona eta bizia?

Lurreko lohiez gatzatuak eta mamituak daude lurreko gauzak oro. Euskarak bere garbitasun hartan iraun zezakeen Paradisuko hizkuntza zeino, baina Lur-paradisua utzi genuenez gero —han nonbait, Phison, Gehon, Tigris eta Euphrates ibaien inguruan—, maiztu, zarpaildu eta lohitu beharrean aurkitu da, dirua eta jazkiak bezalaxe. Horrela izango da aurrera ere, biziko baldin bada. Hauta dezagun, bada, behin eta betiko zer nahi dugun: euskara garbia ala bizia. Ez dago beste aukerarik.

Horregatik maite ditut gaurko gazte asko: tentaldiaren ihesi ez dabiltzalako, lohiaren beldur ez direlako. Bagenekien lehen euskara sail askotan lantze-zain zegoela eta halaz ere uko egiten genion maiz eginbeharrari, behar bezain garbiro egiteko gauza ez ginelako. Orain, berriz, hor ikusten ditugu *Yakin*-ekoak, esate baterako —eta ez dira horiek bakarrik—, gatazka bizian zenbait gai zail eta gaitz euskaraz adierazi nahian. Hor agertzen diren idazlan askok ez dutela euskal lorategi batean sarrerarik izango? Egileek ere badakite
126 hori, noski. Badakite, ordea, hori baino gehiago dena: norbaitek oker edo zuzen, trakets edo dotore, garbi edo mordoilo lantzen ez badu, lantzeke geldituko dela alorra. Egungo trakeskeriatik bakarrik jaioko da biharko edo etziko apaintasuna.

Hitzak utzirik, berdin ez dira axala besterik, goazen larriagoetara. Hirurogeiren bat urte daramatzagu batasunera bidean eta badirudi, fruituei bagagozkie, batasun hori uxatzen aritu garela eginahalean, bai Gipuzkoan, bai Bizkaian, bai orain Lapurdin, Baxenabarren eta Zuberoan. Euskalkiak nahasi, bai, egin ditugu, Pasaiako ardogileek kolore bateko eta besteko ixurkariak nahasten omen dituzten eran, baina nahastea ez da batzea eta ez da behin ere izango. Ondorea: «euskararen» legeak dakizkigulakoan, inor gutxik dakizki gaur bere euskalkiaren legeak; are gehiago, ez dakigu gehienek zein euskalkitan ari garen ere. Oraingo pintatzaile askoren kontua da hori: bere lanbidearen abezea ikasi baino lehen, aspergarri xamarra izaten baita egiteko hori, bide berriak zabaltzen hasi beharra.

Aditza dela eta

Egia esan, badute gaurko askatasun atseginean zer ikusirik aditz sailean lokarriak hausten hasi ziren gorengo idazle eta hizkuntzalari jakintsu batek edo bestek: nori berea emateko, Azkue gogoangarriak eta Orixe euskal letren aitagoiak.

Ormaetxea jaunaren esana alda dezadan hitzez hitz *(Yakin* 9, 89. or.): «Gaurko au bezalako artikuluetan ez duzu aurrera arkituko *nuan, nuban, nuen, nuben, nuin, niin, noon, non, nuun, nun*. Batasunaren billa omen zoazte. Anarki aundi ortan zein aukeratu bada? — Orien guzien ama dana: NENDUN».[b]

Ba omen ziren behinola bi Aita Santu, baten ordez, bata Erroman eta bestea Avignonen. Batzarre bat bildu zuten, beraz, irtenbide bila egoera atsekabetsu horretatik eta Aita Santu berria hautatu, hirugarrena, beste biak bazterturik. Zer gertatu zen? Berriak hartu zuela kargua eta lehengo biek ez zutela azaldu gogorik zeukaten aulkia uzteko. Horrela Kristau-herria, bi Aita Santurekin gaizki bazegoen, okerrago aurkitu zen hirurekin.

Eliz kondairan —ba ote dut esan beharrik?— ez nago oso trebe: badaiteke, bada, esan ditudanak esan ditudan bezalaxe ez gertatuak izatea. Halaz ere, badu bere balioa ixtorio horrek, alegia edo parabola antzera bederen.

Bide horretatik ez da anarkia gutxitzen, areagotzen baizik. Ez baitu inork arrazoi larririk gabe bere ohitura utziko iritzi berri bati gur egiteko.

Aurren aurrenik, ez da egia horrelako anarkiarik zegoenik Gi- 127
puzkoako literaturan: literaturan diot, euskara idatziaz ari garenez gero. Berrizaleak ezeri begiratu gabe aldaketan hasi arte, ez zen hemen bi forma baizik irakurtzen: *nuan* eta *nuen*. Hura, Goierrikoa, Bizkaiko *neban*-en ahaide hurbila; hau Beterrikoa (Donostia-Hernani aldekoa, hobeto), Nafarroa-Lapurdietakoa berbera, Lardizabal goierriarrak ere, hobe ustez, erabili zuena. Gero, *nun* izkribuz agertzen hasi zenean, Orixe ez zen azkena izan.[1] Besteek, *nuin* eta horren kideek, gerra gutxi eman dute hemen, nik dakidanez behintzat. Beraz, elkarren lehian gaur dabilzkigun lau formetatik bi —bi berrikeriak, alegia— Orixeren eragitez edo Orixeren laguntzaz irten

---

[b] *«Mea culpa* eta *Quos ego!», Jakin* 9 (1959), 89-93.

[1] Orixeren *Mireio nun*-duna 1930ean irten zen argitara Verdes-Atxirikarenean; Olabideren *Itun berria,* 1931n.

dira plazara. Ehuneko berrogeita hamar guztira: ez da gutxi. Laster menderatuko dugu anarkia bide horretatik.

Zergatik eman behar dugu ontzat *nendun,* beste guztiak txarretsiz? Beste guztien ama delako, entzun dugu. Honezaz gero mintzatuko naizenez gero, begira diezaiogun beste arrazoiari:

> Nere *nendun* kuttun au ematen asi nindeken 1923'garrenean ere, erri askotan esaten baitzan ordu artan. Bai, Adiskide Berri, erri askotan. Orozko erri aundiskoa da bere baillerakin, eta asi Lezamatik eta Getxora bitartean, eta Laukiniz aldera, Txori-erri zaion lurralde ori ba-da zerbait. Ez ote zan Gipuzkoaren erdi bat aiña 1923'garrenean *nendun* esaten zaneko lurraldea? *(Ibid.,* 90. or.).

Adiskide Berriren tokian nagoenez gero (makal xamar dabil gizarajoa bolara honetan), haren ordez mintzatu beharrean aurkitzen naiz. Adiskide Berrik ez dakizkien gauzak elkarren gainka metatuko baldin balira, mendirik altuenak ere zazpi kana eta erdiz estaliko lituzkete, uholde handiko urek bezala; bazuen horratik horrelako zerbaiten zantzua. Irakurria baitzeukan Mikoletaren 1653ko *Modo breue de aprender la lengua vizcayna* delakoan bilbotar hura honela mintzatzen zela: «Yo hazia —*nic eguiten nendua*. Tu hazias —*suc eguiten sendua*... Nosotros haziamos —*guc eguiten guenduâ*...».

Adizki horiek askok erabiltzen dituzte, eta ez gaur goizetik, dirudienez. Bai, eta zer? Ez da hori jakin nahi genukeena, beste hau baizik: literatur euskaran agertzen al dira? Esateko moduan, ez; ezta orozkoarren eta txorierriarren luman ere. Guretzat, beraz, idazteko eta zenbait lekutan mintzatzeko, ez dira inoiz jaio ez balira baino gehiago. Badugu buruhausterik aski orain ametsezko buruhausteekin kezkatan sartzen hasteko.

Gainerakoen ama eta iturburu omen dira. Ez du arrazoi honek
128 ere, ikusiko dugunez, inolazko zer ikusirik darabilgun auziarekin, baina azter dezagun bidenabar, halaz guztiz ere.

Esaldi horrek zerbait esan nahi baldin badu, hauxe esan nahi du: *nenduan (nendun* baino hobeto) dela formarik zaharrena eta horretatik sortu direla *neban, nuan, nuen* eta gainerakoak, hotsak legez aldaturik ala analogia bidez ez dakigu, ez baitzaigu ezer esaten. Nolanahi ere, horrelako lege fonetikorik ezagutzen ez dugunez gero, analogia izan bide da aldaketa horren eragilea.

René Lafon, euskalari jakintsuak, berriz, *genduan* eta *zenduan* berriagotzat dauzka Bizkai hizkerazko txokoren batean aditzen diren *geban* eta *zeban*-en aldean. Hona hemen elkarren ondoan hiru

paradigmak: Gipuzkoar klasikoa, Orixeren Txorierrikoa eta Lafonen Leintz aldekoa:

nuen	nenduan	neban
genduen	genduan	geban
zenduen	zenduan	zeban

Erakus diezazkiogun orain hiru paradigmok ofizioko gizon bati (ofiziokoa da hizkuntza franko, ahalik gehienak, nola aldatu diren dakiena: latina, luzaroan usteldu ondoren, aspaldi hil zela uste duena ez da ofiziokoa) eta galda diezaiogun zeini deritzan zaharrena: lehenbizikoa *(nuen, genduen, zenduen)* aukeratuko du zalantzarik gabe eta irregularrena delako, hizkuntzaren joera erregelarik eza erregelara erakartzean baitatza gehienbat. Ez da hori noski jakite ziurra eta egiazkoa, egiantzekoa baizik. Bere mugen jakile den oraingo jakintza ez baita silogismo ziurrez gehiegi arduratzen, probabilista bihurtu denez geroztik. Baina inork ezagutzen ez duen egiak ez dio inori eskubiderik ematen nabari den egiantzaren kontra oldar dadin.

Demagun, ordea, Orixe hizpidean dagoela. Berriro ere lehengo galdera egin behar: eta zer? Gaztelaniazko *vi* berria *vide* zen lehenago, ziur dakigunez; lehenago oraindik, latinezko *uidi,* bi *i* luzerekin; dirudienez, **woidai* izana da are antzinago. Eta zer?, diot berriz. Inor hasi al da horrenbestez *vide, uidi, woidai* esaten eta idazten? Zer esango lukete gaztelarrek holakorik ikusiko eta entzungo balute? Neronek uste dut *naiz* eta *aiz* lehenago **naiza* eta **aiza* izanak direla; gaurko *izan,* berriz, **eizan*. Eta zer axola du honek hemen darabilgun auzian? Ahuntzaren gauerdiko eztulak baino gutxiago. Egun edo bihar —ez dakiola Jainkoari nahi!— *naiza, aiza, eizan* idazten hasi banadi, aldez aurretik ematen diot edozeini esku eroetxe batean ongi estekaturik sar nazan.

Hizkuntzaren legeak eta ereduak, bide zuzenetik ibiliko bagara, ez du egon beharko gure baitan, nahierara alda dezagun, gugandik kanpo eta gure gainetik baizik. Izkribu-euskararen, euskara idatziaren ohiturak eta usadioak ongi finkatuak eta mugatuak zeuden pun- 129
turik gehienetan, euskalki bakoitzaren barrenean behintzat, eta aski jokabide argia dugu haiei amore ematea, haiei lotzea eta obeditzea. Aho-hizkuntzan ez dugu batasunerako biderik idoroko, bereizkuntzarako baino, bestearen aldean askozaz ere aldakorragoa eta desberdinagoa dugunez gero.

Biziro maite dugu euskara, beste behin esan nuenez. Biziro maite, baina nork geure gisara moldatua eta aldatua, horrela «politago» delako, ez den denean. Eta hori, nere iritziz, ez da euskara maitatzea, nork bere burua, bere usteak eta setak, baizik. Gu gara hizkuntzari makurtu behar gatzaizkionak, ez hizkuntza guri, gogoak ematen digunean eta gogoak ematen digun bezala. Hobe genuke, hitz batean, euskarak maitasun gutxixeago eta begiramen gehixeago jasoko balu gugandik.

Itzulketan

Itzulpen ugari izan dugu gure artean euskal literatura hasi zenez geroztik. Itzulpen horiek, ordea, biziro zabaldu eta ugaritu dira azken urteotan. Zorretan gaude lan horretan aritu eta ari direnekin, premiazkoak baitziren itzulpenok eta hizkuntza lantzeko bide egokia.

Ez dakit ordea horien balioa goregi jasoa ez ote daukagun. Erruz agertzen dira itzulpenak hizkuntza landuetan, baina ez diote itzulpenek ematen literatura bati bere maila, berezko obrek baizik. Literatura baten loraldietan itzulpenak berez datoz, gorputzaren ondoren isatsa datorren bezala. Isatsa horratik ez da gorputza: ez da gorputzarentzat kalte gehiegirik gabe moz daitekeen eranskin luzea edo laburra besterik. Gehiago txundituko ditugu arrotzak gure obra bat haien erdarara itzularaziaz haien erdaratik hamar gureganatuaz baino.

Herri oso bat itzultzaile bihurtzeak baditu bere arriskuak, ongi agerikoak gainera. Ez da hizkuntza bere buruaren jabe, besteren mirabe baizik: besteren hitzak, esaerak eta legeak dauzka beti gogoan haiei nola egokituko zaien asma beharrez. Hona adibide bat. Euskaltzaindia bere hiztegi handia prestatzen ari zelarik, ez zuen inork txintik atera hiztegi hori erdal-euskal hiztegi bat zelako, hots, ez euskaraz mintzatzeko bidea, baizik eta erdaraz esanak euskaraz berresatekoa. Erdalkeriaren ihesi ote genbiltzan ala erdalkeriaren bila?

Hona oraindik beste bat. Badirudi gure gramatikariek, euskara bere-berean aztertu beharrean —eta zenbat eta erdalkeriaren etsaiago, orduan eta areago— ez dutela beste kezkarik erdal kategoriak euskaraz nola adieraz daitezkeen azaltzea baizik. Oraindik orain idazten zuen, esate baterako, Umandik, Aita Omaetxebarriaren iritziak zuzenduaz: *«Sar(tu) ziteken:* "podía o hubiera podido entrar". Gure ustez, erderazko "podía entrar" eta "hubiera podido entrar" ez

dira berdin. Beren artekoa aundia dala deritzaigu». Gure ustez ere, 130
horrelaxe da. Baina nekerik gabe egiazta daiteke —nekerik gabe, gramatika jakite enpiriko bat denez gero, testuetatik atera behar dena, ez inoren burutik— euskarazko *sar zitekeen (ziteken* hori berbera duzu, laburtua izatea) erdaraz «podía, pudo, había podido, hubiera podido entrar» itzul daitekeela, batere bereizkuntzarik gabe. Aldi horiek gaztelaniaz bereizten direla, eta guri zer? Zertan ari gara? Erdal ala euskal gramatikaren legeak ematen?

Honela darraio Umandi: «Noizko egingo da argia? Egitan, ausaz, gai au, beste ainbeste bezela, bear danez uler ta adierazteko, yakitunek euskeraz beren burua egingo dutenean ikusi ahal izango dute. Beren kultura laterazkoa edo beste edozein erderazkoa izan dedin bitartean, zalla edo izango zaie: nai ta nai ez, beste kultura oiek, aien gogoan, beren lana egiña izango baitute».

Iritzi hau, nere ustez, gure aurrerazaleen iritzien eredutzat har dezakegu: geroak ekarriko du argia. Bitartean, nola etorkizunaren jakite ziurrik ez zaion inori eman, beste edozeinenak adina balio du nere usteak. Hemen, horratik, ez gara biharko hizkuntzaz mintzatzen, gaurkoaz baino, eta gaurko hizkuntzaren legeak eta oinarriak ez daude geroan, aldi igaroan baizik. Lot gakizkion, bada, den hizkuntzari, izango dena aztiei eta sorginei utzirik.

Beharbada uste du Umandik erdalkeriak bera gutxiago kutsatu duela Axular, Mogeldarrak edo Agirre Asteasukoa baino. Beajondeiola! Gure ondorengoak agian gu baino garbiago aurkituko dira oraindik kutsu horretatik. Beajondeiola, berriz ere! Begien argia galdu ez duenak ez dezake horrelako usterik izan, aski baita gogoratzea gure gurasoak zer ziren gu eta gure ondorengoen aldean, aski baita berdintzea idazle zahar bat berri batekin. Azkeneko lan hau Aita Mokoroak aspaldi egin zuen nik egin dezakedan baino hobekiago.

Garbizaleen garbizaletasuna ez da «eza» besterik —Barandiaranengan ikus daiteke «ez» hori zer den— eta «ezetik» bizi da, hutshutsik. Hitz honek erdaratik hartua zirudik: bazter dezadan. Esaera honen antzekoak erdaraz aurkitzen dituk: arbuia ditzagun horrelako erdalkeria zantarrak. Erdararen zerbitzari izatea nork bere hizkuntza aberasteko eta hornitzeko izango baldin bada, ez deritzat gaizki. Baina erdararen mendean ibili, haren agindupeko izan, gure hizkuntza bakantzeko eta murrizteko...?

Euskal kulturaren mugak

Nik ez dakit gogoan ongi hartzen ote ditugun etorkizuneko euskal kultura horrek izan ditzakeen muga hertsiak. Hitz horrek, izan ere, azalari, mintzabideari, begiratzen dio gehiago mamiari baino.

131 Egin dezagun kontu begien aurrean daukagula ametsik xuri-gorriena egia bihurturik. Gerta daitekeen amets horretan euskara ikusten dugu ikasbide eta irakasbide nagusi eginik, behengo mailatik hasi eta gorengoraino. Entzun ere gure doinuak maiz entzuten dira noizpaiteko arrotzen tokian.

Besterik ere ikusten eta entzuten da, halaz guztiz. Gure herrikantek flamenkoa bazter dezakete: ez hainbeste Bach eta Beethoven. *Abarrak* irakur daitezke *Alivio de caminantes*-ko ipuinen ordez: Txejovek idatzi zituenen ordez ez horrenbeste. Peredak adina balio du beharbada Txomin Agirrek: ez da ordea orduan ere izango Cervantesen neurrikoa. Are gehiago antze-sailetik jakintza-sailera gatozenean: ez dugu gure ametsean erdararen oihartzuna baizik entzuten euskal hitzetan. Jakintza liburuak egin dituztenek erdarazkoak itzuliaz eta antolatuaz egin dituzte, erdara erabili baitute gehienbat haiek ere gure antzera beren ikastaldietan eta erdaraz mintzatzen baitira hitzez nahiz izkribuz beren baitarik zerbait sortu edo aurkitu dutenean beren lankideei jakinarazteko.

Bestela esan, zordun gara zenbait kultura sailetan, duguntxo pixkaren zordun, nahiz euskaraz nahiz erdaraz mintza, eta zorrak aitortzea eta ezagutzea dagokio zordun onari, pagatuko ez baditu ere. Horrelako eginkizunetarako ez dugu gure artean ez gogorik ez girorik izan. Erruduna nor den jakiteak ez du axola handirik, baina hori ondo jakinaren gainean dugula abiatu behar dugu bide horietatik.

Mirestekoa litzateke, beraz, egokiagoa eta aberatsagoa izatea euskal hiztegia filosofia eta jakintza-gaiak adierazteko, entzun ohi dugun legez, inguruko erdara harroena baino. Berez gai denik euskara horretarako eta gehiagotarako, beste edozein hizkuntza den bezalaxe, ezin uka, baina egungo egunean landugabea luzaro landuak baino gaiago eta zehatzago izan? Gaitz dirudi.

Euskararen gehiagotasuna honetan omen datza: euskarazko hitz elkartuak eta erakarriak «ziodunak» izatean *(motivés),* alemanez gertatu ohi den bezalatsu. Horrelako hitz bakoitzaren elementuek eta elementu horien antolabideek euskaran bertan dute oinarri eta gaurko euskaldun batek uler ditzake horrexegatik, nahiz sortu berriak izan. Inguruko erdarek, berriz, bestetandik harturikako gaiez

—antzinako hizkuntza batetik edo bestetik— osatzen dituzte beren hitz eskolatuak. Horrelaxe, artzain edo ikazkin euskaldun bati azaltzen badizkiogu teologiaren edo fisikaren ezkutu sakonak, jabetuko da gure hitzen mamiaz; ez, ordea, erdaldun ezjakin bat, erdaraz sail horietan erabili ohi diren hitzak badarabiltzagu.

Ederki dago hori: ez, ordea, uste dugun bezain ederki. Gauzatxo bat ahaztu zaigu, beti bezala: teologiako eta fisikako hizkuntza bereziaren eginbidea ez dela alegia artzain-ikazkinentzat adierraz 132
eta adierazkor gertatzea, ikasiak beren artean zehazkiro mintzatzeko izan direla sortuak hizkuntza horiek. Eta artzain-ikazkinak utzirik nere antzeko erdi ikasietara baldin bagatoz, nabari da zer gertatzen zaigun, behin eta berriro: hitz eskasean aurkitzen garela sail askotan eta, okerrago dena, hitzak ditugunean hitz horiek ez daudela erdarazkoak bezain zehazkiro mugatuak. Eta, nere ustez, zehaztasunak balio du argitasunak eta garbitasunak adina gai horietan.

Ez dugula eta ez dakigula ez dakigun bitartean ez gara izateko eta jakiteko bidean sartuko. Eusko Ikaskuntzak, jakinaren gainean, laburtu zuen esaerak dioenez:

> Bekoak goikoa eskondu leidi
> Ta txikiak andia benzi leidi
> Asmuz ta jakitez.

Nekez, ordea, asmo-jakiterik gabe. Eta ez dakigula jakitea omen da jakinduriaren hasiera eta iturburua.

Europa eta gu

Europako haizeak onak ala kaltegarriak ditugun: hona orain piztu eta berritu zaigun auzia. Berandu xamar gabiltza, gehienetan bezala, auzi hori 98koena berbera denez gero. Gogora dezadan, beraz, aurre askoan ibili zela behin Euskal Herria gai horretan, Azkoitiko zalduntxoekin.

Ni behintzat ezin naiteke zalantzan hasi Europari buruz, nere sustrai guztiak Europan baititut. Europaren kultura —berak sortutako nahiz besterengandik hartutako gaiez oratua— gu guztiona da, nerea ez ezik, nahi badugu eta nahi ez badugu. Gure bereztasuna ez da europartasunaren hezur-mamiei usain eta kolore berexi antzekoa ematen dien larmintz mehea baizik.

Literatura, pintura, musika, eskubidezkoak uka eta arbuia ditzake Euskal Herriko semeren batek. Bada ordea beste zerbait horiek baino indartsuagoa, nahiz baliotsuagoa ez izan, inongo herrik ukatuko ez arbuiatuko ez duena: Europan sortu zen jakintza. Dirua ez da zoriona, baina haren atzetik gabiltza gehienok, baita euskaldunok ere. Jakintza ez da salbabidea, baina eskaintzen dizkigun dohainak tentagarriegiak dira haien ihesi ibiltzeko. Dohain horiek dira jakitea eta, jakitea aski ez dela, indarra edo, berriz esaten hasi den bezala, boterea. Teknika soilaren jabe egin garen euskaldunok itxuragaiztoko fabrikaz bete ditugu behinolako soro eta basoak. Saia gaitezen, beraz, kultura baten alde onez lehenbailehen jabetzen, alde txar askoren jabe aspaldi egin ginenez gero.

133 Arrisku bat ikusten dut gure gazteriarentzat: Europan barrena asearen asez sortu diren kezkek eta arrangurek ez ote duten saihestuko hartu behar lukeen bidetik. Guk gosea berdintzeko daukagu; ez dugu oraingoz asearen beldurrik.

Filosofia eta jakintza

Badabil azken aldi honetan polemika bizi bat gure artean —izanaz, izateaz eta izakiaz— Orixe eta Aita Intxaustiren artean, eta atseginaren atseginez irakurri ditut biok argitara dituzten artikulu ederrak.

Orixe Orixe berbera da beti, baina eztabaidaren haize haserreak berotzen duenean inoiz baino ibilera arinagoa agertzen du. Bestea, berriz, harritzekoa da nola moldatzen den adierazkizunik zailenak hizkera argi, zehatz eta —nere ustez— garbi batean adierazten.

Batak, eta biak bat datoz honetan, ez omen ditu beti bestearen esanak ongi aditzen. Neri behintzat, hizkuntzaren aldetik, ez zait horrelakorik gertatzen. Beste alde batetik, berriz, gaiaren aldetik, esango nuke, horrenbestetaraino ausartuko banintz, ez dudala ia tutik ere ulertzen horien auzia.

Hori ere ez da gehiegi, milaka baitira edo milioika nik ulertzen ez ditudan gauzak. Nere oraingo dudak, ordea, barrenago bota ditu erroak. Nerekiko ari naiz galdezka ea auzi horrek —gaia eta tratatzeko modua direla-eta eta ez idazleen erruz— ba ote duen behar bezalako funtsik. Esaldi horiek badute noski zentzurik, baina ez dakit musika eder edo poema bikain baten zentzua oso bestelakoa ote den.

Bertrand Russellek, Tarskik edo Carnapek (lagunarte ederrean irten naiz plazara) berehala ebakiko lukete noski eztabaida: horien eta beste askoren aburuz, ezin egiazta ez gezurta daitekeen esaldi

batek ez du ezer adierazten, ez du ezer esan nahi. Horrenbestetara heldu gabe, pentsa daiteke gaurko egunez, mende joanek hala erakutsi digutelako, ezin dezakegula bestetan adinako sinesterik izan arrazoi hutsaren eta arrazoibide soilen indarrean. Giza ezagueraren mugak hobeto ezagutzen dira gaur eta, nahiz batzuek aurrerago eta besteek atzerago muga horiek ipini, galdu da alde guztietan haurtzaroko uste oso hura.

Guztiok dakigu zerk eraman duen hondamendira zorioneko sineste hura. Senide gazteago bat jaio zitzaion filosofiari eta etsai bat, senidea zuen aldetik. Gazte hau, filosofia jira-jiraka zebilen bitartean hegan —gero eta jira zabalagoetan, beharbada—, poliki-poliki, gorputza lurretik jaso gabe, aurrera joan baita, gero eta aurrerago. Jakintzak erreka jo zuela aldarrikatu zuen Brunetièrek eta geroztik ere horrelako zerbait ematen dute aditzera zenbait albistarik. Gezurretan noski, zoroak berak igarriko baitio jakintza aurrera doala, 134
onerako edo txarrerako.

Nekez izango da gaur filosofiarik, filosofiaren izena merezi duenik, jakintza-oinarri sendorik gabe. Ba ote dugu hemen horrelako oinarririk? Bestek erantzun beza. Ez liguke batere kalterik egingo, nere ustez, lehen filosofiaren gailur agorrak pixka batez utziko bagenitu beheraxeagoko lurrak, haritzak eta pagoak eta nolanahiko landareak ekar ditzaketenak, zertxobait lantzeko. Gure ezagueraren kemenak eta mugarriak hobeto ezagutuko genituzke behintzat.

Hizkuntza bizia

Hobe litzateke, esango du norbaitek, hizkuntza biziak gure artean duen egoeraz mintzatzea, literaturaz eta filosofiaz baino. Errazago izaki ordea honelako gai sakonez mintzatzea.

Bai, errazago da literaturaz mintzatzea eta errazago ere da literaturaren bidez zerbait egitea. Badakigu behinik behin literaturak —eta edozein kultura-lanek orobat— ez diola hizkuntza biziari, xuxpertuko ez badu ere, mesede besterik egingo. Probetxuzko denez gero, beraz, ez dago egiteko hori besterentzat uzterik, bestek ez baitu landuko gerok lantzen ez dugunik.

Asko esan nahi du kultura-lanetan, beste edozeinetan bezala, aldez aurretik begiz jota edukitzeak helburuak, mugarriak, pausoak eta bideak. Guztion onerako izango den eran gai horiezaz elkarrekin mintzatzeko adina etorri zaigu. Ea hurbil dugun Urte berriak aurrerapidean aurreratuak ikusten gaituen.

14

GAJES DEL OFICIO

En el último número del *Boletín* (20, 1964, 182),[a] don Ángel 326
Irigaray ha recogido, no sin alguna acrimonia, el contenido de una nota que va en la p. 95 de mis *Textos arcaicos vascos* (Madrid 1964) y hace referencia al texto y a la interpretación del cantar de Sandailia.

Soy el primero en lamentar que se haya producido este incidente de un género siempre molesto. Pero tengo que volver sobre el tema, bien a mi pesar, porque considero que quien se guíe tan sólo por lo que dice el señor Irigaray tiene que formarse una idea 327
inexacta del tenor y alcance de mi nota.

En ella me abstuve de atribuir intenciones torcidas al señor Irigaray: en realidad, falta allí toda alusión a sus intenciones o a mis creencias. Me limité a señalar que, entre la lectura e interpretación de ese cantar propuestas en mis *Textos* y las que pueden leerse en la p. 60 del tomo primero de *Poesías populares de los vascos* (San Sebastián 1962), se observaban coincidencias que un lector atento difícilmente podría atribuir al azar. Y, para cerrar la nota, aduje el principio general de que «la fecha de publicación no siempre es decisiva en cuestiones de prioridad», aunque constituye naturalmente un indicio importante. Y, por más que miro, no veo que pueda hallar allí nada de incorrecto quien se limite a leer en mis líneas y no ande buscando lo que él mismo supla entre ellas.

Pero, aparte de la corrección de mi nota, que no necesita defensa, quiero defender ahora su conveniencia. Lo que yo reprocho

---

BAP 20 (1964), 326-331.

[a] «Para alusiones».

—si puedo decirlo así— al señor Irigaray, es que no acabe de comprender la naturaleza del impulso inicial que nos ha llevado, de una manera casi mecánica, a esta desagradable situación.

A juzgar por sus palabras, él sigue creyendo que se trata de una pequeñez a la que se ha dado una importancia que en sí estaba lejos de tener. Estoy dispuesto a concederle, naturalmente, que todo esto no va a influir en la historia europea tanto, por ejemplo, como la derrota de Valente el año 378. Pero, como todo es relativo, considero muy importante, en estas cuestiones de erudición más o menos menuda, lo que siempre se ha tenido por tal: el atenerse a las prácticas usuales en materia de citas. Y eso que no tengo el menor inconveniente en reconocer que, como sugiere el señor Irigaray a manera de flecha de parto, mi aportación a la inteligencia de ese difícil texto (que, en parte, es el resultado de una lectura directa) está muy lejos de haberlo aclarado por completo.

Lo que el señor Irigaray no ve, al parecer, es que no he sido yo quien le ha colocado en una postura incómoda, sino que ha sido él quien me ha impuesto la penosa tarea de iniciar un embarazoso pleito de prioridad. En efecto, por más que lo examino, no veo que yo pudiera seguir más que uno de tres caminos:

1.º Citar yo como fuente el tomo I de *Poesías populares de los vascos,* para la cual, tengo que confesarlo, me faltó espíritu evangélico.

328 2.º Dar mi propia versión del cantar sin aclaración de ninguna clase. Así, el lector que un día llegara a comparar ese pasaje con el correspondiente de *Poesías populares,* podría sacar sus propias consecuencias. Éstas, en vista de las fechas respectivas, sólo podían ser, como no se le escapará al señor Irigaray, que el autor de los *Textos* había aprovechado la versión española de las *Poesías,* sin reconocer su deuda.

3.º Poner de alguna manera sobre aviso a ese posible lector de la independencia de mi lectura e interpretación, en aquellos puntos en que difieren de las tradicionales y recibidas.

La segunda alternativa habría sido sin duda más cómoda para mi actual contradictor, pero mucho más incómoda para mí. Y, puesto que no era yo, según toda evidencia, el responsable de la inadvertencia, no veía por qué tenía que cargar con sus desagradables consecuencias.

La moraleja de todo esto es, a mi entender, que hay pequeñeces que dejan de serlo, dentro de un campo de actividad determinado, y se convierten en cosas importantes. Importantes, porque de su descuido se siguen incidentes tan penosos como éste en que nos vemos metidos. Y ésta es la razón de que las comunicaciones orales sean tratadas, dentro de nuestro mundillo, con un respeto preferente.

Señalo, para terminar, que mis puntos de vista sobre este cantar los expuse en una reunión de la Academia de la Lengua Vasca (como ya recogió don Manuel Lecuona en *Egan* 1960, [107-110], p. 110)[b] en la creencia de que un trabajo mío, donde trataba de fundamentarlos, no tardaría en aparecer en un volumen colectivo. No ha sido así, porque el Homenaje a don José Miguel de Barandiarán que se preparaba en Bilbao no ha llegado a publicarse por extrañas razones que, por más que he hecho, han escapado hasta ahora a mi penetración.

* * *

Pero el señor Irigaray, pasando a la ofensiva, termina con una acusación que me atañe directamente. Para usar sus propias palabras, «se debe, con más razón, respetar el texto de un artículo de una revista literaria al corregir las erratas de las pruebas de imprenta, si ese artículo es correcto y tiene autor responsable».

Como su sentido no quedará sin más claro para el lector, me permitiré puntualizar que se refieren a la revista *Egan* y más precisamente a la sección «Naas-maas», comprendida en las pp. 220-226 329
del año pasado [1963].

Llevo ya bastantes años corrigiendo, con pocas excepciones, la totalidad de las pruebas de este *Boletín*. Al hacerlo, me veo obligado bastantes veces, bien a disgusto, a modificar en detalles —generalmente pequeños, pero a veces de mayor entidad— el texto de los originales que publica la revista (incluidos los míos propios y también el de la nota del señor Irigaray que ahora nos ocupa).[1] Mis decisiones, encaminadas en su intención a conseguir cierta unidad ortográfica y una corrección de los descuidos e inadvertencias, no

---

[b] Reseña de I. Zumalde, *Historia de Oñate,* San Sebastián 1957.

[1] Puedo apoyar lo que digo con el original de «Para alusiones».

habrán sido sin duda siempre acertadas, pero no recuerdo haber recibido por ellas queja alguna, aunque sí por erratas que quedaron sin enmienda, sobre todo en textos en francés y en alemán.

Pero este quehacer, en cuanto tal, no necesita apología. Añadiré, pues, que otro tanto he tenido y tengo que hacer, aunque no hay tarea que menos me agrade, en *Egan.* En euskera, las cosas no son, ni mucho menos, tan claras como en castellano y por eso mismo me he visto en la precisión de hacer más retoques, aun a riesgo (como me ocurrió, para citar un caso, con la traducción de un fragmento del *Diario de Ana Frank* por María del Carmen Garmendia y Rudolf de Rijk) de introducir en el texto algún disparate notorio. Me atrevo a pensar, con todo, tal vez por vanidad incorregible, que mi intervención, en conjunto, ha contribuido a dar a los trabajos publicados en la revista alguna uniformidad —siempre deseable por escasa que sea—, al igual que una cierta «corrección» ortográfica y gramatical.

Para que el lector se forme su propia opinión, copio aquí (a mano derecha) las correcciones que propuse al original (publicado) del señor Irigaray:

herrietako elizkizuneeri	h. elizkizuneri,
barka bezagutela bestelakoek	b. dezagutela b.,
lauzpabost orrietako papera	l. orritako p.,
artikulo	artikulu,
aztun	astun,
aurtengo Ilbeltzan	a. ilbeltzean.

Y creo que son todas, porque no recuerdo si corregí *akatzik* (en vez de *akatsik),* que se lee en la p. 225, línea 7, conforme al original: en todo caso, de advertirlo, habría sustituido *z* por *s.*

330 Pretender que yo no he respetado el texto es, por lo menos, hiperbólico, porque sugiere que quise hacer decir al autor algo distinto de lo que él decía, cuando los cambios propuestos son del tipo más ordinario en cualquier escrito que va a la imprenta. De acuerdo con las normas usuales en el vasco escrito, yo tenía derecho a pensar que *elizkizuneeri* no era más que una ditografía banal, de las que a todos se nos escapan al mecanografiar los artículos; del mismo modo, podía creer que la inicial de *bezagutela* era una errata, de acuerdo también con la práctica general; en cuanto a *Ilbeltzan,* ¿por qué no había de pensar yo que era un simple descuido cuando el autor mismo (véase ahora p. 223, línea 9) escribe *azken otsaillean?* Por lo que se refiere a *astun* (y a *akats),* sólo puedo decir que se es-

criben con *s* (o *ts)* por la misma razón que *salda* y *atso* se escriben así y no, por el contrario, *zopa* y *atzo:* porque allí donde son o han sido populares, si se distinguen los dos órdenes de sibilantes, siempre se han pronunciado y escrito así.

En resumen, lo que se puede llamar correcciones quedan reducidas a dos: *artikulu,* que es la que viene apareciendo normalmente en *Egan* desde hace años (y la uniformidad, y más aún la consecuencia, tienen también su valor) y *orritako.* Como el señor Irigaray habla de un «papel (publicación) de cuatro a cinco hojas», según entiendo, bastará recordar que la distinción, en la declinación, de indefinido y plural sólo es doctrina de los gramáticos en cuanto está fundada en la práctica general de escritores y hablantes. Y, si en alguna zona del país no se conoce (hoy) esa distinción o se ha debilitado, no hay por qué menospreciar un uso que tiene tan antiguas, profundas y extensas raíces en el idioma.

El señor Irigaray considera que los originales deben ser respetados literalmente, pero con una importante restricción: que sean correctos y tengan autor responsable. Pero salta a la vista que ambas condiciones están lejos de ser equivalentes. Todos los artículos que aparecen en *Egan* tienen autor responsable en el sentido de que tienen autor conocido (al menos para la redacción), pero no sólo el autor responde de los aspectos formales (únicos que ahora nos interesan) del trabajo, sino también la revista que lo publica. Y ésta, como todos sus semejantes, próximos o remotos, tiene, como no puede menos de tener, alguna norma a la que en todo momento ha de tratar de ajustarse. ¿O es que el Sr. Irigaray sostiene que hay autores responsables —garantía, como tal, de su propia corrección— y otros irresponsables, que no pueden aspirar a la intangibilidad?

Como lingüista, siento una fuerte desconfianza por todo exceso 331
normativista. No puedo negar, sin embargo, que unas prácticas son, en un momento dado, claramente preferibles a otras en el uso literario. Tengo mis propios criterios, razonablemente objetivos —que me permito considerar bastante extendidos por el mundo—, para establecer escalas de valor entre alternativas distintas. Los he expuesto en otras ocasiones y no tengo inconveniente en volver sobre el tema. Lo que no puedo aceptar es que del subjetivismo y de la arbitrariedad pueda seguirse ningún bien, y menos en una lengua de tradición tan mal fijada en bastantes puntos como es la nuestra.

15

MÁS ALLÁ DE TODA POLÉMICA

Los lectores atentos de este *Boletín* han sido testigos de una breve discusión —breve, pero un tanto viva en algunos momentos— que han llevado a sus páginas don Ángel Irigaray y el autor de estas líneas.

Es cierto que ambos podríamos aducir autorizados precedentes, de tono mucho más subido, en las polémicas de las mejores épocas de los estudios vascos, sostenidas entre los más grandes de sus cultivadores. Es cierto también que la división de opiniones, más que en las corridas, tiene su morada solariega en los distintos campos de la erudición. La discusión es, pues, saludable en principio, como señal de vida y de actividad.

Pero, con todo, las polémicas dejan un regusto amargo a los autores, si no a los espectadores: uno no está seguro de no haber dejado escapar, en el calor del momento, alguna especie inconveniente.

Por eso, tengo el mayor interés en subrayar que nunca he puesto en duda las intenciones del señor Irigaray: nuestra discusión tenía raíces técnicas, en detalles que, por razón del oficio, suelen parecer por un momento de la más trascendental importancia.

Todavía menos he pensado en menospreciar los grandes merecimientos, como investigador y cultivador de la lengua vasca, de don Ángel Irigaray, a quien —tras este corto nublado— me atrevo a llamar mi buen amigo.

BAP 21 (1965), 109. [N. de los eds.: véase el artículo precedente, «Gajes del oficio»].

16

PRO DOMO

Lehen, hain aspaldi ez delarik, elizgizonak genituen, mundu guztiak dakienez, latinez mintzatzeko gai zirenak, latinez zekitelako, noski. Orain, elizgizonen latina mututu dagoen memento honetan, laikoek hasi beharko latinez mintzatzen, lege zaharreko usadioei lotuak eta atxikiak garen laikoek behinik behin. Egia da ez naizela sekula izan latinzale amorratu horietakoa, egia ere da ez dudala inoiz esan latinaren alde Aita Errandoneak esanarazi zidan gauzarik. Baina, halaz guztiz ere... 11

Goialdean doan izenburu dotore horrekin gerta ez dadin maiz, baita Donostian bertan ere, *Alma mater* sonatuarekin gertatu ohi dena, diodan, bestetara jo gabe, ez naizela hona agertu neure etxerako edo neure etxearen alde mintzatzeko asmoetan. Geure etxearen alde, guztion etxearen alde, mintzatu nahi nuke.

Paris aldetik etxera naizenean, hemen aurkitu ditut pilaturik, besteak beste, hiruren bat hilabetetako *Zeruko argia*-k. Banan-banan irakurri ditut eta edozeinek asma dezake, irudimen aberatsegiaren jabe ez bada ere, nolako sentimendu gazi-gozoz irakurri ditudan.

«Tentazioan» erortzeko bidean ikusten haut, esango du honezkero adiskideren batek (bat edo bestetxo oraindik gelditzen zaidalakoan bainago, benturaz oker). Bide horretan barrena abiatu naizenez gero, esan dezadan, luzamendutan ibili gabe, neure izena hain sarritan gora eta behera (ala behera eta gora) erabilia izan denez

---

Egan 1970, 11-26; *MIH* 211.-231. or.; *MEIG* VIII, 133.-151. or.; *EN* 327.-345. or.; *GA* 281.-296. or.

gero, nik ere ez ditudala hemen izenak tintontzian utziko, makina honek tintontzirik ez duelako beharbada. Tira, ba..., nik aski aldiz somatu dut, gizakia naizenez (eta latinarekiko zorra kitatua baitugu, ez naiz *Homo sum* eta darraionarekin hasiko), tentazio bizi bat: maizegi pentsatu dut euskalduntasunari edo delako arbasoengandik datorkidan grina horri hain loturik ez banengo, lasaiago biziko nintzatekeela eta are agian nagoen baino diruz hornituago nengokeela.
12 Baina, tentazioa bizia baino biziagoa izanik, ez dio amorerik eman, *bien malgré moi* (Parisen hartu dudan jakite-usain urria hemen agertzea lizentzi baldin bazait), maizegiko hotzaldiak eta ilun-arteak gorabehera, estekatzen nauten lokarriak eteteko kemenik izan ez dudalako.

Beste hori, ordea, Artetxeren «tentazioa» alegia, ez dut konprenitzen.[a] Ez dut konprenitzen horrelakorik inori gogoak ematea eta are gutxiago, besterik gerta baledi ere, jendartean horrelakorik esatea. Neure herriak (eta neurea dela diot, ez haren jabe eta nagusi naizelako, baizik eta ni naizelako herri horretakoa, herri horrek sortua, hazia eta hezia) hutsik eta tatxarik badu ugari: ugariago apika neronek lehengoez gainera aski eta gehiegi erantsi diodalako. Nik (eta barka behin eta berriz harri horretan behaztopa egiten baldin badut, baina *Le moi est haïssable* esan zuena ez zen Artetxeren gogokoa, bere *Saint-Cyran* irakurri duenak dakienez) ez ditut gauzak horrela ikusten. Herriaren alde egin behar nituenak eta egin ez ditudanak ikusten ditut, lotsaz nahiz beldurrez, eta, horiek nahikoa ez balira, egin behar ez nituenak eta beldurrez nahiz lotsaz egin ditudanak. Nor naiz, beraz, herri oso bati kontuak eskatzeko?

Bide txarretik sartu gara eta ezin orain bestetara itzul, azken bururaino hel gaitezen arte: bigarren estazioa Artetxe beraren «Arrixku bat» izango da.[b] Belaunaldi batetik bestera, gurasoengandik semealabengana, jaitsi gabe ere ikusi da horrelako aldakuntzarik: hor dugu lekuko, beste milaren artean, Doriot. Baina bideak bestetara narama: Pero Grullo eta La Palisse jaunaren gisako egiak behin eta berriro azaltzera behartzen gaituen alde horretara. Hona zenbait andanan, lerro-lerro ipiniak.

Hizkuntza bat, gurea nahiz inorena, ez da gizarteko mintzabide eta adierazpidea besterik. Ona da, beraz, elkarrekin mintzatzeko eta elkarri gogoetak adierazteko delarik, mintzatzeko eta adieraz-

---

[a] J. Artetxe, «Tentazioa», *Zeruko argia* 1970-II-15, 12. or. [b] *Zeruko argia* 1970-II-1, 12. or.

teko balio duelako; horrexegatik beragatik da ona aizkora zorrotza, ebakitzeko sortua delarik, eta aizkora kamutsa, berriz, txarra. Gehi dezagun ez dela berez hizkuntza kamutsik; horrelako hutsik ageri baldin badu, zorrotz zezaketen adina zorroztu ez dutenena dela soil-soilik errua, behiala Axularrek zioenez.

Bitartekoa da hizkuntza, ez ontzia: ez du deus barrenen eta zernahi izan dezake. Adieraz ditzake, bada, asmakizun argiak eta kirtenkeria «itzelak», gogoeta zoragarriak eta totel-esaldi baldanak, garbiak eta lizunak, lirinak eta gordinak. Ez batzuk ez besteak ez ditu «hizkuntzak» esaten ez baitu, beste norbaitek edo zerbaitek bezala, horretarako «nortasunik»: mutu da, ez baitu ez ahorik ez eztarririk, are gutxiago bururik. Hizketan dakitenak beste norbaitzu dira: eztarridunak, ahodunak eta (hala-holako) burudunak, haren bitartez, hura dela medio, mintzatzen direnak. Garbitasuna eta 13
zikinkeria ere hauen aho-buru-eztarrietan datza, ez hizkuntzak ez dituenetan.

Ez dela egia diozu «gauza bat euskeraz egiña baldin badago..., ondo dagola oso-osoan, dan-danean». Ez, arraioa! Nor da horrelakorik uste duena? Erakuts iezadazu, mesedez, horrelakoren bat, bere izena eta itxura hemendik aurrera gogoan ongi gorde ditzadan.

Bada, ordea, diozun beste zerbait: «Ez dezagula gaurko gure jokaerarekin euskerarenganako gorrotorik sortu erazi. Arrixku gogorrean gaude. Au esan bearra zegoan, eta ala bear eta nik esan».

Ez dakit zure arrazoibideaz ongi jabetu naizen eta, hartu dudan bezala eta hartu dudan neurrian, hemen zabaltzera noa. Inoiz «gure izkuntza... izan zitekean garbiena» zelako puntuan ez duzu, oker ez banabil, zerorren iritzia azaltzen, besterena baizik. Garbitasun horrezaz mintza gintezke luzaroan, hemen mintza naitekeen baino luzazkiago: garbitasunaz beraz eta garbitasunaren iturburuez. Baina ez da orain dihoakigun auzia.

Arrazoibidea honela ikusten dut: a) zenbait (gazte edo) ari dira gure artean inon sor daitezkeen barrabaskeriak idazten; b) zenbait horiek euskaraz idazten dituzte barrabaskeriak; c) munduaren azken-fina hurbil ez badago, izango dira gazteagoren batzuk oraingoen ondorengo; d) gazteago horiek, beharbada eta Jaunak nahi badu, hobeak izango dira, hots, ez gurasoak bezain aldrebeskerietara emanak; e) gazteago horiek euskaraz jakingo dute, gurasoenak irakurtzeko lain, behintzat. *Ergo,* f), gazteago horiek gorroto izango dituzte gurasoak (hori gaitz erdi litzateke) eta, bidenabar, gorroto izango dute gurasoek erabili duten hizkuntza.

Kate-maila ahul xamar bat bederen aurkitzen diot arrazoibide horri, eta esplikatu dudana besteren gogoeten ispilu zuzen izan ledin nahi nuke. Hona. Gazte horiek euskaldun hutsak izango dira ala (ez edo!) beste hizkuntzaren bat, ingurukorik edo ez hain ingurukorik, dakitenak, bereaz gainera. Bestela, oraingoek ez bezala, pentsatuko dutela segur da, ez hain segur zer-nolakoa izango den «bestelakotasun» hori. Nolanahi den, hor nonbait pilatuak dauden bonbak airean barrena bidaltzen hasten ez badira, inolazko dudarik gabe esan dezakegu besterik ere jakin beharko dutela, euskaraz gainera. Eta azken esaldi honek dudazkorik baldin badu azken partea bakarrik izan dezake duda-mudakoa.

Zer aurkituko dute, batekoak eta bestekoak irakurtzeko gaitasuna eta gogoa dutelarik? Garbiak oro erdaraz, inongo erdaraz, idatziak eta lizunak oro euskaraz? Gogoeta zuzenak besteren hizkuntzan beti eta okerkeriak, berriz, gurean? Are gehiago. Likits eta
14 gordinkeria ugariago aurkituko dute, ehuneko horrenbestean, euskaraz edozein erdaraz baino? Erantzunik gabe utziko dut galdera: zuk dakizulako zein den, nik dakidalako eta mundu zabal osoak dakielako, begien bistan baitago. Ez dute, beraz, gure hizkuntza hutsa higuinduko, hizkuntza guztiak izango dituzte higuin eta, beste biderik ez dutelarik, gogozko mutu bihurtuko dira, hain galgarri den mintzatzeko gaitasuna erdeinuz baztertuaz.

Aski dena aski da, eta noan bidez bide Sagarzazutar Josebaren kezka larriak zertxobait arintzera. Ez, zaude trankil, ni ez naiz euskara. Are gehiago, ez dugu zientifikoek (gizatalde zantar horretan ni ere sartzen banauzu) hizkuntza hori, euskalki eta guzti, asmatu. Ez da gehiegizko harrokeria, sinista iezadazu, baina, inoren obra zuzentzeko eta hobetzeko gogorik gabe, guk asmatu bagenu, egungo eguneko premietarako prest sortu bagenu, euskalkirik gabe sortuko genuen. Batasun hori zer den jakin nahi zenuke. Horrenbeste jende, hain aspaldidanik —eta alferrik, dirudienez— horrezaz mintzatu ondoren, nola nahi duzu nik ezkutu sakon hori azaltzea? Behin batean, Pikabea zenak, bestetaz ari zelarik, esan zuena datorkit gogora: «Batasuna zer dan galdatzen didazu, Pello Errota?». Badira, Jainkoari nahi dakiola, oraindik erantzunaz oroitzen direnak.

Hortxe bertan jakinduriaz eta sakontasunaz diozunak ez du (barkazio eske natorkizu, berriz ere) ez bururik ez zentzurik. Ez da hori pilota-partida, ez ajedrez-jokoa, ez Urtainen borrokaldia, eta ez nabil inor gutxietsi beharrez. Norgehiagoka hauetan, irabazlerik ez duten edo hala-holako erabakien ondoren eramanak izan diren

zenbait jokaldi baztertuz gero, bat gertatuko da irabazian eta bestea galduan, bataren eta bestearen aldekoen aitzakiak gorabehera. Ahotan hartzen dituzun gaiak, berriz, ez dira ez metroz ez kanaz neurtzen, ez kiloz ez libra laurdenez pisatzen. Bestela esan, ez dira txapelketak; ezin daitezke zehazki neur ez konta.

Gure hizkuntza erabiltze aldetik (eta mila esker zuk uste duzun baino merezimendu gutxiagorekin, hobeak bazterturik, aitortzen didazun izenagatik), bada, zaude lasai, handiagorik: hitz neurtuz, lanbide horretan jardun duten guztiak eta prosaz, beste ezin konta ahalen artean, bestetan esan nuenez, Aita Villasante eta aski jorratua izan den liburu agertu berri aski baten egilea. Nork uka —nik behintzat ez—, gainera, izan dela euskalari sakonagorik eta jakintsuagorik?

Zure arrazoibide horrek, ordea, eta begira nolako makurkeriak asma litzakeen zenbait lanbidetan luzaroan aritzeak (teknikoak eta zientifikoak, bidenabar, ez dira gauza bera, zuk besterik uste izan arren: horixe bakarrik behar genuke!), aspaldiko hura dakarkit gogora: «Baditu Eliza Ama Santak...». Ez, adiskide, *zu* zaude ene kontra, eta *zuk* duzu auzia enekin, ez direlako sakonagoek, jakintsuagoek eta gure hizkuntza hobeki erabiltzen dutenek. *Zuk* erakutsi behar duzu zertan eta zergatik dauden kontra eta, oraingoak ez balira, zertan eta zergatik egongo liratekeen orain, egungo egunean, kontra. Inork baino hobeki ezagutzen ditut agertu ditudan iritziek dituzten alde txarrak eta okerrak. Argitara diren paperetan, eta dirudienez inork gutxi irakurri dituenetan, ikus ditzakezu ene dudak eta zalantzak. Hobe dagokit besterengandik argia hartzea, besteri eskaintzea baino. *Zure* argien eske natorkizu, ez beste sakonago eta jakintsuago horienen eske. Ez ditut behar adina ezagutzen, baina uste al duzu zinetan alde handia ateratzen didazunik gai horretan?

Ez nuke, baina inondik ere ez, bidez bide nabilen bitartean, hain ozenki eta buruzki mintzatu zaigun Zaloña jauna hitz bi esan gabe utzi nahi. Atariko gisa, gainera, ohar desegokiren bat edo badut beretzat. Gerla aurretik, artikuluen behealdean izengoitia edo izenordea ipintzeko ohitura arras hedaturik zegoen: etxekoen artean genbiltzan, xuriak eta garbiak ginen guztiok, eta bakoitzak bazekien nor zen nor. Orain, berriz, gazte maltzurrak direla medio edo, itsuski xamar dirudi horrela jarduteak. Zuk badakizu nor naizen, baina nik ez dakit nor zaitudan, edota, baldin badakit, zeharbidez dakit. Horren iritzi zorrotzak, horrenbesteko oihu eta deiadarrak,

zorrotzagoak eta ozenagoak lirateke, azpian zure izen propioa baleramate.

Baina, gatozen harira, eta haria ez da hemen listaria, baizik soka lodia. Harrimena izanik filosofiaren lehen iturburua, Platonek zioenez, gure herrian izan den filosoforik gogorrena izateko bideetan dugu delako Zaloña. Begira zerk harritzen duen. Duela zenbait urte, Donostiako *El diario vasco*-k galdera batzuk egin zizkion zenbait pertsonari, ni ere horien artean nintzelarik, euskararen etorkizunaz. Funtsez, ederki jaso du hitz bitan nik erantzun nuenaren muina, baina, ordukoak eta oraingoak elkarrekin erkatuaz, bere buruari, eta bere buruaren bitartez Euskal Herri osoari, zerbait galdatu nahi lioke Zaloñak: «Eta or dago guztiz arritzen nauen koxka! Orain bost-sei urte, ogei bat jaun ospetsu [sic] artetik, *bat* bakarrik ere kontuan ez erortzea, *il-edo-biziko* estualdi ontan, alegia, euskera bateratzea zala gaitzaren kontrako erremerio santua!... Iritziak, noiznolakoak izaten dira-ta, litekena da, gaur euskera bateratua aldezkatzen duen jaun jakintsuak [sic] arrazoi izatea. Baiñan baserrian jaio, azi eta ezitako ez-jakin bat naizen aldetik, ori beia baiño leenago uztarria ekartzea dala uste det... Nola nai dala ere, jaun oietako batzuen muiñean zer darabillen jakitea guztiz onurakorra izango litzakela deritzat, bai euskera eta Euskalerri osoarentzat. Misterio batzuek larru gorrian jartzea ere komeniko litzakeala uste det».

16 Goazen, bada, Zaloñaren gogara, misterio beltz hori biluztera edo, nahiago badu, larru gorritan ipintzera. Halaz ere, bihoa aurretik nik, edozein Internazionalekin harremanik baldin badut, sortzeko den Bosgarrenarekin dela: egunen batean gobernatu guztiek gobernatzaile guztien kontra sortuko dutenarekin, alegia. Hori esanik, diodan gainera, uste zuzenez nahiz okerrez, etxeko arropa zikina nahiago dudala etxean garbitu, etxetik kanpokoen aurrean baino. Hots, gure hizkuntzaz, erdaldunen aurrean mintzatzen naizenean (euskaldunek ere irakur dezaketelarik, noski), ez ditudala aipatzen ere izan ditzakeen ahuleriak eta gaitzak. Batasunik eza, edozeinen begietan (Zaloñarenetan izan ezik, beharbada), ahuleria eta makurra denez gero, ez nuen ahotan hartu ere, harako *nec nominetur in uobis* hartaz baliatuaz. Gainera, eta hemen datza delako «koxka», ene eta edozeinen iritziz, nahi nuen irakasbide den euskara, ikastoletan eta ikastoletarik gora erabiltzen den euskara, ez daiteke izan, *eta ez da,* inoren «amaren hizkuntza». Hizkuntza nolarebait batua da, nahiz batasun hori herri batekoa izan, eskualde batekoa edo Euskal Herri osokoa. Bai, Zaloña. Ez diete ez zure hau-

rrei ez besterenei ikastolan «amaren hizkuntza» irakasten, baizik eta mintzaera horretarik hurbilagoa edo urrutiagoa, baina bestelakoa, halaz guztiz. Zuk, esate baterako, *semiana* esango duzu eta zure haurrei *semearena* irakasten diote.

Gauza bat da aho-hizkuntza eta bestea, arras bestea, hizkuntza idatzia, ez hau edo hori, baizik edozein hizkuntza idatzi, gehiagoko edo gutxiagoko neurrian. Frantsesez, ikasi berria dut, esan dezakezu, ahoz esan, *tandis que s*-rekin edo *s*-rik gabe, *peut-être t*-rekin edo *t* gabe. Baina zorigaiztokoa *s*-rik gabe bata eta *t*-rik gabe bestea idazten dituen haurra eta pertsona hazia!

Ez du inork esan —nik behinik behin, ez— gure hizkuntzaren batasuna dela soinean daramatzan gaitz guztien erremedioa: besterik dioena, ez da egiazki mintzatzen. Baldintzak, jakina denez, bi eratakoak dira: beharrezkoak eta nahikoak edo, giputz zaharrek ziotenez, aski diren adinakoak. Bigarrenak, esan beharrik ez, zorrotzagoak dira lehenbizikoak baino. Ez da aski gure hizkuntzaren batasuna euskarak iraun dezan, ez hurrik eman ere; ez da aski, baina premiazkoa da, batasunik gabe ez baitu iraungo, bizi garen oraingo eta biharko mundu honetan. Batasuna eginik ere, gal daiteke; batasunik gabe galdua dago aldez aurretik. Eta hau ez da ene uste ustela, euskaldun anitzena baizik. Galda iezaiozu edozein hizkuntzalariri eta ikusiko duzu zer erantzungo dizun.

Batasun-asmoa sortzetik bertatik zekarren Euskaltzaindiak. Are gehiago, sortu baino lehenagotik. Eleizalde zenaren izen maiteak baditu zenbait kutsu, berak ez baitzituen bere usteak, iritziak eta joerak ezkutuan gorde sekula. Nolanahi ere den, badakizu zuk nik 17
bezain ongi ez zebilela haren muinetan zuk susmatzen dituzun jokabide makur horien aztarrenik.

Eleizaldek bazekien, eta bat nator zalantzarik gabe, bi alde berezi dituela gure hizkuntza jasotzeko lanak: gizarte aldekoa eta hizkuntzarekikoa berarekikoa. Berak 1918an Oñatin egin zuen hitzaldi ezagunean «aspecto social» eta «aspecto literario» izendatzen dituenak. Bigarrenaz dioena (eta bigarrenaz bakarrik ari gara mintzatzen azkenaldi honetan) aldatuko dizut hona, eta zegoen gisa erdaraz eman, bai baitut halako susmo gaizto bat horrelakoak, gure hizkuntzara aldatzen direnean (eta hauek oraindik orain aldatu nituen) ez direla inoren belarrietara iristen:

Se sigue de ahí [de la falta de tradición literaria] que todas las diversificaciones populares en cuanto a dialectos, fonética, etc., se reflejan inmedia-

tamente en el Euzkera escrito [hori duzu «amaren hizkuntza»]. Resulta, por ejemplo, que una misma palabra, de las que pertenezcan al acervo común de todos los dialectos como caso más favorable, recibe diez, doce o más transcripciones gráficas distintas, según las variaciones fonéticas, más o menos legítimas, que al escritor se le ocurran emplear. *Esta situación me parece sencillamente insostenible, porque creo que es un postulado ineludible de toda literatura* [eta aritmetika, gramatika, edo erlijiozko eskola-liburuak «literatura» dira, idatziak daudenez, «letrak» dituztenez] *que la transcripción gráfica de cada palabra sea en lo posible estable. En las lenguas muy cultivadas literariamente, las palabras escritas tienden cada vez más a ser signos ideológicos y a apartarse de su primitivo carácter de meras transcripciones fonéticas. Para la vista del lector ejercitado, la transcripción gráfica de cada palabra tiene su relieve especial, su perfil, digamos su «fisonomía», que se percibe de un simple golpe de vista, que evoca al instante la idea correspondiente, según la sencilla experiencia que cada uno puede hacer en sí mismo. La verdadera facilidad en la lectura está ahí, y esa facilidad no puede existir en la lectura euzkérica mientras subsista la fantástica variabilidad en la transcripción de las voces vascas.*[c]

Hor duzu zer den beti ahotan duzuen haurrarentzako «erraztasun» hori. Irakurle trebetuarentzat *(el lector ejercitado)* erraza denak, nekagarria izan behar, nahi eta ez, haur trebe-gaiarentzat, hots, irakurtzen ikasi behar duenarentzat. Ikastoletako haurrek irakurtzen eta idazten ikasi behar baitute euskaraz, ez mintzatzen, bai baitakite mintzatzen gehienetan gurasoei eskerrak. Eta «la letra con sangre entra» delako hura —ez dut euskal ordainik ezagutzen— ez zen
18 alferren bati, denbora eman beharrez, burura zitzaion aterakari hutsala.

Baina Eleizalde urrutiago doa: «...la cuestión batallona ha de ser, seguramente, la relativa a *la necesaria unificación dialectal*. Esa unificación, como la unificación fonética, no se pretende para el uso vulgar, sino tan sólo para el uso literario, y principalmente para el escrito [bestela esan, Zaloña, ikastoletarako hain zuzen, han irakasten baitute idazten]. Tenemos hoy, para una población de medio millón de euzkeldunes, tres principales dialectos literarios. *Es evidente que esto no puede subsistir,* es evidente que llegará un momento, y deseo que sea muy pronto, en que la fuerza de las cosas nos obligue a elegir un solo dialecto como literario... La mayor parte de los vascos,

---

[c] «Metodología para la restauración del Euzkera», *Primer congreso de estudios vascos,* Bilbo 1919, 428.-439. or., 434.-435. or.

por lo menos los que han pensado algo en estas cuestiones [eta argi dago euskaldunen multzoa eta gai horrezaz inoiz pentsatu duten euskaldunena ez direla bat Eleizalderentzat, bigarrena lehenaren zati-multzoa dela], ven *ya* [1918an] la necesidad de llegar a esa unificación; pero las divergencias de apreciación consisten en el modo de alcanzar la unificación deseada. Creen unos que la unificación deberá consistir en la preponderancia que uno de los dialectos adquiera sobre los demás, por evolución natural si se nos permite decirlo así, por motivo del número y de la excelsitud de las obras literarias [begira nondik nora *h* "nazkagarri" horrek baduen zenbait indar, Axularrek eta bestek *h*-dun euskalkia erabili zutelako, besteak beste] que ese dialecto privilegiado produzca, y que lo hagan imponerse sin violencia a los demás... En cambio otros... opinan que el caso del Euzkera se sale de esa normalidad, que es un caso verdadera y angustiosamente urgente [bazen orduan ere «beia baiño uztarria leenago» ekarri nahi zuen bat behintzat], que necesitamos tener muy pronto una literatura completa, *muy pronto las escuelas,* y que como estas dos magnas obras —producción literaria y *sistema escolar— están condicionadas por la unificación dialectal, la primera* [bai, horixe dio Treverisko Karlosen kutsu gutxi zuen Eleizaldek] *labor que se impone, y con mayor urgencia, es esta misma unificación. Personalmente me adhiero a la opinión de estos últimos».*[d]

Honaino Eleizalde, eta gehiago nahi baduzu hor daukazu Oñatiko Batzar ondoan argitara zuten liburu lodia, 428.-439. orrialdeetan. Nik ez dut esan, ezta esango ere, neronek proposatu (badakizu orain honelako mintza-moldea sartzen ari zaigula, gazte jendea edo) eta aldeztu berria dudan batasunerako izan daitekeen bidea Eleizaldek orduan gogoan izan zezakeena denik. Segur naiz ezetz: orain zer esango lukeen, horixe da ez dakidana eta jakin gogo nukeena. Segur dakidana besterik da: ez Eleizalderen, ez neronen, ez hark dioen 19
bezala, horretaz, beste hizkuntzei begiralditxo bat emanaz, noizean behin bederen pentsatu duenaren ustez, ezin dezakeela iraun gure hizkuntzak oraingo heinean, bakoitzaren «amaren hizkuntza» delarik, ama horiek gehiegi direlako, eta desberdinegiak dituzten mintzaerak.

Batasun-bidez abiatzekotan, nahitaezkoa da, aldez aurretik, zer batu nahi dugun jakitea; zein diren euskalkien arteko bereizkuntzak ezagutzea. Euskara *norberaren* «amaren hizkuntza» dela uste du-

---

[d] *Ib.,* 436.-437. or.

guino, eta ez auzokoaren amarena, batasun-bidean gara beti. Bidean ez ezik, batasunean bertan: aski da, eta hori da uste duguna nahiz aitor ez dezagun, beste guztiak *guregana* makurtzea, gainerakoek *guri* amore ematea. Gauza errazagorik!

Izenak gora eta izenak behera hasi garenez gero, eta ez naiz ni lehenik hasi, liburu bat aipatuko dut, azaldu nahi dudana grafikoki adierazteko ez baitut bitarteko erosoagorik aurkitzen: joan den urtean, Donostian, Oñatibiatar Jonek argitara duen *Iztegi berria*. Horren zatietarik «irugarrena, BIZKAI'ko gure anayak maiz erabilli ta guretzat arrotz diranen iztegia da».

Ni baino miresle zintzoagorik ez du Oñatibiak gure hizkuntzaren alde egin duen eta atertu gabe egiten ari den lanagatik. Baina, nola esango dit oiartzuar horrek errenderiar honi batarentzat eta bestearentzat «arrotz» direnik, esate baterako, *beta* «asti», *ede* «uhal» *(ere* esaten duzue zeuok!), *erein* eta *iñozo* «ergel»? Nondik atera daiteke *idor,* Oiartzungo mugetan bertan hasirik ipar-sortalderantz hedatzen den hitza, Bizkaikoa denik? Bereiziak bagaude zorigaiztoz hizkuntzaren aldetik, ez ditzagun bederen bereizkuntza horiek geurok gehi eta nahasteka. Besterena zer den behar dugu jakin, ez baita «besterena», geure-geurea baizik.

Biderik onena, berez, besterik litzateke: gure hizkuntza dagoen dagoenean gordetzea, euskalki eta euskalkitxo, hiri eta hirixka guztietako ñabardurak bizirik dauzkala. Bide horrek ere badu, haatik, bere «koxka». Mundurik onena hautatu omen zuen Jainkoak, Leibnizek zioenez, gure hau sortzekoan; ez, ordea, erabat onena, baizik eta *inter possibilia* onena, izan zitekeen mundurik onen hori mundu zelarik eta ez hutsik gabeko, Jainkoaren beraren pare. Hutsez eta makurrez betea sortu zuen, bada, baina ahal zitekeen neurrian hutsik eta makurrik gutxien zituena, halaz ere.

Batasunik ez horrek, hain ederra izanik, geure bizkarrek inolaz ezin eraman dezaketen karga ezartzen digu gainean. Batasunik ezak behartzen gaitu, nor bagara, euskalki guztien —handi eta txikien— berri jakitera, euskaldun bakoitzaren «amaren hizkuntza» ezagutzera. Inork jakitekotan, hizkuntzalari trebe eta euskarari bakarrari emana dagoen batek jakin dezake, gehienez ere, horrelako zerbait. Bestela esan, pertsona hazi, hezi eta arras trebatua denak. Nola eska horrelakorik gure haurrei?

Hori ezinezkoa izanik, batasun-bidea gelditzen zaigu soil-soilik. Batasunak, edozein batasunek gero, galera berekin dakar: ez da, hasi berrian behintzat, inoren «amaren hizkuntza» izango, esperan-

to-usaina itsatsiko zaio nora ezean, ñabardura aberatsik gabe agertu beharko du jendartean. Zer dugu, halaz ere, hobe? Horrelako euskara eskasa ala inolazko ez dena, hilik datzalako?

Hona, ni ere harritzen hasia bainauzue, zerk harritzen nauen gehien eztabaida honetan guztian. Arantzazurako lanak prestatzeko hautatu zuten batzordea (eta ni bestek hautatu ninduen, ez nuen neure burua hautatu eta, egia esan behar baldin badut, nahiago nuen hautatu izan ez baninduten), betelan gisa, batasunerako balio zezakeen eredu baten zenbait ezaugarri nagusi markatzen hasi zen, besteak —gehienak— beste baterako utziaz. Eskubide osoa du nornahik eredu horren akatsak eta aldrebeskeriak (bai baititu, dudarik gabe) erakusteko, eredua erabat baztertzeko eta arbuiatzeko ere bai. Baina («Baña... O *baña* madarikatuba! Baña infernukua!», Astarloa frantziskotarrak zioen modura) eskubide osoa du eredu eskas horren kontra beste eredu hobe bat aurkezten baldin badigu. Beste eredurik ez baldin badakar, ez du, ene ustez, mintzatzeko eskubiderik. Bestela esan, ez dut nik ixilaraziko, bere kontzientzian eraman behar duen harrak ixilaraziko du. Batasun bide *horren* kontrako agertzen zaren horrek, *beste* batasun bide hobeagoa zor diguzu. Ez baduzu hoberik eskaintzeko, bazoazke bakean zeure bidetik. Eta hau, hain zuzen, Euskaltzaindiaren beraren izenean esan daiteke, Euskaltzaindia, gainerako helburuak gainerako, batasun beharrez sortua izan baitzen.

Euskaltzaindia aipatu dudanez, hitzak hizpidea ekarririk, diodan zerbait Euskaltzaindiari berari buruz. Arantzazuko batzarren gaia *h* sartzea ala *h* kentzea izan zela dioena ez da egiaz ari. Diodan garbiago, eta ez dakit zergatik hain indar bortitza egozten zaion biribiltasunari: gezur biribila dio eta, gezurretan mintzatzeaz gainera, ezin sendatuzko ezjakintzat dauka bere burua, ez baititu irakurri nahi izan batzarre horrezaz argitara diren paperak. Erabakiak, egia, horrezaz bakarrik hartu ziren, besterik gero hartuko zelakoan, baina ez ginen horrezaz bakarrik mintzatu, ezta gutxiagorik ere.

Erabaki horiek, eta geldi bedi hau argi eta garbi, *hartu* egin baitziren, eta *Euskaltzaindiaren erabaki gisa hartu,* gainera. Aita Akesolok ere orain «franko-tiratzaile» antzera ibili beharrean orduan behar zukeen lekuan mintzatu izan balitz, balekike zergatik ez zen izan «Azaroan Oiñatiko Unibersidadean Euskaltzaindiaren urre-eztaiak ospatzeko izango diran» jaialdirik. Nik behintzat gogoan daukat nola izan ginen han Oñatiko alkatearekin, zer esan zigun eta zer- 21
tan gelditu ginen. Horrelako formalismo hutsak orain ateratzea ere!

«Entzuteko belarridunak bentzu», Aita Olabidek itzuli zuenez, eta ahoduna mintza bedi behar den lekuan eta garaian, ez desorduan eta deslekuan. Ez du lotsaizunik, beste eginkizunik gabe, Salamancatik etorri zenak. Lotsaizuna lotsaizunik inork baldin badu, Euskal Herrian zegoelarik agertu ez edo mintzatu ez zenak du, soil-soilik. Hori, nik uste, behar bezain argiro esana dago Satrustegiren ahoz.

Hizkuntzalarien egitekoaz hitz bi erantsi nahi nituzke. Ni ez naiz teknokraten aldekoa: deus baldin banaiz, etsai amorratua nauzue. Erabakiak, nik uste, ez dituzte inolaz ere teknikoek hartu behar, politikoek (hitz honek izan dezakeen adierarik zabalenean) baizik: herriak horretarako hautatu dituen politikoek, noski. Teknikoen lana erabaki horiek ahalik errazen, lasterren eta ekonomikoen, nolarebait esan, eragitea da. Hizkuntzalaria ere, hizkuntza-gaietan, ez da tekniko bat besterik. Euskal jendeak, gero eta ugariago, zerbait nahi zuela iruditu zitzaidan. Jomuga horretara jotzeko erosoen uste nuen bidea hartu nuen, besteren mandatari bezala, ez neure kabuz. Ez nintzen, beraz, teknokrata izan, baizik tekniko soil. Gaitasuna, tekniko izateko beharrezko dena, edonork uka dezake: edonork, nik neure aldetik (eta bestek beretik, ez bainintzen, ez hurrik eman ere, ni bakarrik mintzatu han) aurkeztu nuenaren aldamenean, nik aurkeztu nuenaren kontra, nahiago baduzue, beste zerbait aurkezten baldin badu. Hona ene «desapioa»: kontu hauek jendaurrean astindu nahi dituenak, prest gauzka, uda aldean edo, jendaurrean ahoz aho eta aurpegiz aurpegi aztertzeko. Donostian, bestetan ez bada, idoroko dugu leku egokia horretarako. Baina, hau bego garbi, bere aldetik zerbait ekarri beharko du eskaintzeko, okerragoaren truk. Ez dadila esku hutsik ager, aski esku hutsik baikaude euskaldun guztiok.

Medikurik ez nuke hemen aipatu ere nahi. Medikuak, sasi medikuak, enplasteroak eta petrikiloak maizegi hartu dira ahotan azkenaldi honetan, batetik, eta gora begira nago beti, bestetik, ea noiz mugituko den buruaren gainean Garate jaunak, Damoklesen harako hura baino zorrotzago, ipini didan ezpata. Badakizue, noski, nor dugun Garate hori: bere lanbidean mediku on baino besterenean enplastero izan nahiago duen bergaratar (inoiz) ezagun hura. Berbera da, hain zuzen ere, euskaldun bati bere hizkuntzaz mintzatzeko (hemen ez dihoazkigun auzietan) arrotzen baimena, alemanena baldin bada hobe, eskatzen diena.[e]

---

[e] *Badakizue... diena* falta da, 1972koaz geroztik, artikulu honek izan dituen edizio guztietan; ikus, hemen bertan, 121. orrialdeko oharra.

Ezin ditzaket, ordea, gogorik ez badut ere, medikuak bakean utzi, Hipokratesen zina gogorazi digun Arenaza jauna dela medio: «lenengo eta bein, ez [eriari] kalte aundiagorik egin». Garbi dago 22
hori xehetasunetan sartzen ez garen bitartean, baina ilun, arras ilun, horrelako erabateko oinarriekin gertatu ohi den bezala, aurrean daukagun eri hau edo hori gogoan dugunean. Ez ote da egia zuek, medikuok, sarritan gainera, zirt edo zart, hil edo biziko erabakiak hartu beharrean aurkitzen zaretela? Maiz aski ez dakizuela zer izan litekeen onen: eria dagoen dagoenean uztea, ea bere kabuz (zuen laguntzarekin, noski) gaitza garaitzen ote duen, ala, arriskurik baldin bada ere, senda dezakeen bide gogorragoren bat (operazioa, adibidez) hartzea? Nik behintzat horrela uste dut: ez dakizuela, asmorik onenarekin, zenbait aldiz, zein bide hauta. Pentsatzekoa dirudi beraz ez ote daitekeen beste horrenbeste hizkuntza baten egoerarekin gerta. Batez ere, orain arte, luzaroan gainera, erabili diren sendabideek ondore onik izan ez dutenez gero.

* * *

Bistan da, bada, darabilgun auzia ez dela erraza, ezta ere aise erabaki daitezkeen horietakoa. Gure hizkuntzarentzat kaltegarria gainera, esango du agian norbaitek. Hori, egia esan, ez dut uste. Probetxuzkoa deritzat, aitzitik. Deus kaltegarririk, are hilgarririk, baldin bada hizkuntzarentzat, antsikabekeria da, arduragabekeria, ezaxola. Kezkatzen garen bitartean, amorru bizian elkarrekin sesioan ari garen bitartean, hizkuntza bizi da eta gu ere, euskaldun garen aldetik, bizi gara. Borrokarako gogoa eta kemena barrenen sutan dugun biziak ematen digu.

Komeni ere da, hizkuntzaren aldetik, harako «barrabaskeriak» euskaraz argitaratzea, bizi delako seinale nabarmen baitira. Inguruan somatzen ditugun ideia eta iritzien arteko gerla garratz-suminak gure herrian eta gure hizkuntzan somatuko ez bagenitu, hilik ginateke edo gure hizkuntza bederen hilik legoke. Hori, esango du norbaitek, gaitzaren ordez gaitzagoa sartzea da. Bai, nahi baduzu, baina ni hizkuntzaren biziaz ari naiz, besterik gabe. Ez besterik ez delako munduan, baizik eta munduko zer bakoitzari zor zaiona aitortu behar zaiolako, besteak beste.

Duela zenbait urte, 1957an, «Sarrera-hitz batzu» ipini nizkion, lehen aldiz ene bizian, *Leturia-ren egunkari ezkutua*-ri: adiskide dudan egilearen izenik ez dut emango, iskribau jaun ezagun bat eta bere aldizkaria are gehiago haserra ez ditezen. Ez dut uste garai har-

tan igerle miresgarri nintzenik; urrutirako betaurrekorik gabe nork nahi ikus zezakeena baizik ez nuen esan, hain zen nabari. Baina oraindik ere ikusi nahi ez dutenik aski denez gero gure artean, hona
23 aldatzera noa zenbait pasarte ortografia, hori bai, zertxobait aldatuaz, gezurra badirudi ere ez bainaiz sekula, oraintsu arte, *h*-zalea izan:

Ez da zalantzarik Lizardigan. Pozik dago biziak eskaintzen dionaz eta fedeak agintzen dionaz. Alferrik bilatuko duzue beragan Europa eta mundu guztia dardarazten hasia zen lurrikararen berririk. Dardarak ez gintuen artean ukitu edo, ukitu bagintuen ere, begi-belarri erneak eta arima urduria behar ziren zirrara sumatzeko. Bizileku sendoan bizi zen. Zimenduetan ez ezik, ez zen paretetan artesiturik ageri. Axalean zertxobait aldaturik ere, bizimodua, uste, iritzi eta sinesteak ohiturazkoak ziren, gurasoengandik zetozenak, eta gizaldi berriek aztertu gabe bereganatzen zituzten, beste edozein ondasun bezala. Inguruan, Euskal Herria zeukan, euskal lurraldea, zuhaitz ugariz jantzia. Ez zuen inongo amets-herritara ihes egin beharrik. Aski zuen aurrean zeukana kantatzearekin.

Engainatua zebilen. Gaur badakigu astindu gaituzten lurrikarak sortuak zirela ordurako, eta ez direla berehalakoan baketuko. Zorioneko gorreria ordukoa, alde batetik, hari zor baitiogu ihartuko ez den Lizardiren poesia, gure eta ondorengoen atsedentoki baketsu izateko sortua. Baina ez Leturiak ez X-ek ez gaurko nornahik ez dezake entzungor egin. Bizibeharra eta ezinbizia aurrean ditugu, ezin ditzakegu besterik gabe guregana usteak, sinesteak, bizibideak, ohiturazkoak direlako bakarrik, zehatz eta astiro etsaminatu gabe.

Trankilago bizi gaitezke uholdeek eta haize-erauntsiek ere iharrosten ez duten etxean, oinarriak berak koloka dauzkanean baino. Egia. Atseginagoa zen Lizardiren mundu geldia gaurko gozogabe hau baino. Egia hori ere. Ez du ordea inork bere mundua, giroa eta sorteguna hautatzen. Nor geure aldian eta tokian gertatzen gara, nola ez dakigula. Eta gurekin jaiotzen da, gure aldiko seme jatorrak bagara, harako antzinakoen *amor fati* hura, gure denbora —gure sorterria bezalaxe— beste edozein baino maiteago bihurtzen diguna. Gurea delako nonbait, guretarrekin itsatsirik gaudelako.

* * *

Deus gutxi ikusten dut miresgarririk egungo egunean gure herrian. Zenbait euskaldun hainbesteraino asaldatzen dituzten esanak mila aldiz entzunak eta irakurriak ditut bestetan. Miresgarria besterik da: Lizardi bat sortu zen garaian sortzea, Orixe bat bizi zen aldietan bizitzea. Hura da harrigarri, ez hau. Hor aipatzen nuen lurrikara etxean dugu orain eta nola ez genuke izango horrelakorik? Ez

gaitezen gehiago mundu honetako, garai honetako munduko, ez diren Paradisu galduen bila ibil.

Ez genukeen sekula, ardurarik izan bagenu, utzi behar gizaldien 24
eta belaunaldien arteko borroka heldu den punturaino hel zedin. Elkarrekin bizi behar dugu, zenbait urtetan behintzat, herri berean bizi behar dugu, guztiok —nork batera, nork bestera— maite dugun herrian. Eta irekirik egon behar du elkarren arteko mintzabideak, nahiz mokoka ari, nahiz errietan ekin.

Gazteek ez omen dituzte gure alde onak ikusten, ez omen dute ezagutzen egin dugun lanaren balioa. Badaiteke; are gehiago, horrela da. Guk, zaharragoek ez omen dugu haien berri jakin ere nahi. Ezin uka, hori ere.

Zaharragoetarik zenbait ez ote gaude beti prest gazteek egin dezaketen edozein gauza ez aintzat hartzeko, gutxiesteko edo arbuiatzeko? Ez ote gabiltza guztiok elkar ezin ikusirik, lekua kenduko diguten beldurrez batzuek, lekurik uzten ez diegulako amorruz besteak?

Gure artean sutan dauden ezin konta ahala istilu horiek (aldizkarietan dela, liburuetan dela, bazkunetan dela, ikastoletan dela, erlijio-gaietan dela, politikan dela) funtsezko belaunaldi-borrokaren ageriko ezaugarriak besterik ez dira, ene ustez. Gure artean ditugunak bezainbeste non nahi, edozein herrialdetan, ikusten direnak. Adin-kontua ez balitz, nola igertzen diogu lehen ikusten dugun norbaiti, eta % 90etarik gora zuzen igerri, zer pentsa dezakeen honetaz eta hartaz?

Har ezazue linguistika, berez politika edo erlijioarekin zer ikusi gutxi duen gai elkorra. Halarik ere, gauza jakina da. Nonbait, Parisen edo hizkuntzalari edo hizkuntzalari-kumeren batekin mintzatzen bagara, ez dugu luzaroan zain egon beharrik zein bidetarik dabilen antzemateko. Gaztea bada, Chomsky, McCawley, Fillmore edo are berriagoren baten deabrukeriak aterako dizkigu hasi orduko; zaharra delarik, berriz, horrelako izenik aipa baledi, berehalaxe zimurtuko dizkigu ezpainak erdeinuzko nahi lukeen irribarrez. Egia da, bai, Chomskyk eta, oraingo ezker aldera jotzen dutela gehienbat politika-gaietan; egia ere da, zaharrago horietarik, franko eskuindar direla (PCF-koak eta). Bi joera horiek ez dira, ordea, bata bestearen seme, lokarririk aski ez dutenez gero elkarrekin, erro bakar batetik sortuak baizik.

* * *

Dagoeneko pentsatua izango du norbaitek demagogiarik errazenari amore emanaz jarri naizela (dirudienez) gazteen alde. Ez dut hala uste. Zenbaitek, lanbidez edo nahiago baduzue ofizioz, etengabeko harremanak ditugu gazteekin: halabeharrez gertatzen zaigu
25 hori, ezinbestean, ez inor baino irekiagoak eta gogozabalagoak garelako. Halabeharrez, bai, baina horrela gertatzen zaigu. Gogoan zer darabilten jakin beharrean aurkitzen gara, erremediorik gabe, haien artean bizi behar dugunez gero.

Nolanahi ere den, hori demagogia baldin bada, bada beste demagogia mota bat ere, gure artean aski hedatua, oker ez banabil: «herria» eta «baserria» jende ikasiaren kontra asaldatu nahi luketenena, batez ere jende ikasi hau *euskaraz* mintzatzen baldin bada.

Leturia-ren «sarrera-hitz» haietarik pasarte bat aldatuko dut hona, han egileari eskaintzen niona:

> Pozik gaude, berriro ere esango dut, «X» euskal soro meharrean ari zaigulako. Eta orain, inor ez banaiz ere, ongi etorria egin nahi nioke buru-langile edo direlakoen sail nardatu honetara, nahiz ongi etorria baino gaizki etorria zuzenago esana legokeen. Mintzatu berriak dira Donostiako egunerokoetan horrelakoek gure artean maiz jasotzen dituzten zehar-begiratu eta susmo txarrez. Baina, nahi ez baditugu ere behar ditugu eta gaur, gainerontzekoei ezer kendu gabe, inoiz baino gehiago. Ur lasterraren erdian goaz, ez gaude ia ertzetik begira. Mendi-tontorretara igotzearekin ere, Domingo Agirrek nahi zuenez, ez dugu deus askorik aurreratuko. Gauza asko eta asko ikasi, onartu eta gureganatu beharrean gara. Damurik, ez da dena irabazi hutsa izango: kendu beharko da, soildu, idoki, ebaki, ezinbestean baita maiteen duguna ere.

Entzuna dugu «baserrian jaio, azi ta ezitako ez-jakin bat naizen aldetik» dioen gure Zaloña. Zein baserritan ikasi ote du, horixe nahi nuke jakin, *kontuan erortzen* esaten? Eta, aho betean —hantustez, dirudienez— dioenez, ezjakin arrunta baldin bada, nondik du eskubidea irakasleei *zer* irakatsi behar duten agintzeko nahiz debekatzeko?

Harrigarri badirudi ere, bat nator berarekin puntu batean: nik agerian diodana ixilpean gorde nahi luke berak, soil-soilik, ikusten baitu adin-auzia dugula oinarriz gurea. Zergatik gurasoak, alde batetik, eta irakasleak, bestetik? Har dezagun, eta hau ez da nik asmatua, apezpikuen multzoa eta pipa-hartzaileena. Ez daude, nabari da, Txinakoaren antzeko harresiz elkarrengandik bereziak, bai baitira, urri edo ugari, pipa hartzen duten apezpikuak ere.

Badira ere guraso diren irakasleak edo irakasle diren gurasoak: nerau nauzu bat, seme-alaba aski haziak ditudana. Baina Zaloñak darabilen saltsa horretan ez dira irakasleak gehienbat gure adinekoak; zaharragoak dira, batez beste, gurasoak irakasleak baino. Eta hortik, hain zuzen, zaharrago nahiz gazteago izatetik, ez baita jaio oraindik aldi berean zaharrago eta gazteago izan daitekeen mutilik, dator agertzen duen ezin-eramana, ez irakasle nahiz guraso izatetik.

Beste norbaitek ere ekarri du bere harri-koxkorra guztion ar- 26
tean eraikitzen ari garen jauregi ederra hornituago ager dadin, Euskal Herrian ezjakinak dituen alde onak goraipatuaz. Erdara izan ohi dugunez jakite-bide, zenbat ere ezikasiago, hainbat ere euskaldun jatorrago. Hori ez da adarra jotzeko gogoa baizik. Hizkuntzak ez du iraungo euskaldun eta ezjakin gauza berdinak baldin badira. Eta ikasiagoren bat gure artean, ez dakit zernolako mirariz, euskaraz mintzatzen hasten bada, ez dezagula, Jainkoarren, guregandik hastan eta gaitzets.

* * *

Lehengo batean, Arantzazun izana naiz. Ez nintzen hara agertu 1968ko (zorioneko, zorigaiztoko?) batzarre haren ondoan. Han zeuden, bada, eliz-atarian zutik Oteizaren apostoluak; gorago, Oteizaren Ama Birjina. Bazen jenderik aski, ezkontza batera joanak baikinen, bai Gipuzkoatik, bai Bizkai aldetik, bai bestetarik bilduak.

Eta jende horrek, aho batez, atseginak, ederrak, eliza baten sarrerako egokiak aurkitzen zituen Oteizaren irudiak. Irudi horiek berberak dira, oroitzen bazarete, hain traketsak, baldanak eta desegokiak, duela zenbait urte, iruditzen zitzaizkigunak askotxori. Zer aldatu da geroztik hona? Irudiak berak ala gure begiak?

Saia gaitezen, eske hori egiten diot ene buruari eta besteri, oraingo gauzak oraingo begiz ikusten, oraingo auziak oraingo buruz xuritzen. Ez gaitezen gal amets-bideetan barrena; utzi ditzagun ametsak lo gaudenerako. Bereizten gaituzten auziei deus ere kendu gabe, ez ditzagun behintzat, setaz eta elkarri ezin amore emanez, gehi eta zabal. Bizi garelako gabiltza borroka. Eta oihu nabarmenen azpitik, ez ote dugu somatzen elkarrengana garamatzan barren-barrengo dei ixil bat? Hala uste dut nik, behinik behin, eta gaizki esanak barka.

17

DE LOS VASCOS Y DE SU CARÁCTER

Cuando a uno se le pide que hable de un grupo humano del or- 67
den que sea, como a mí se me ha pedido que hable de los vascos, no se acaba de saber si es mejor ser de dentro o de fuera. El extraño goza de una mejor perspectiva, gracias a la distancia, pero le suele faltar, salvo por excepción, el conocimiento directo de muchas intimidades. El de casa tiene a su favor la familiaridad, pero le perjudica, aun sin contar la parcialidad, la proximidad, que no le deja ver sus propias narices (por no hablar del cogote) más que en el espejo, que también suele ser deformador, de las opiniones ajenas.

En mi caso, a estos inconvenientes generales se añade uno de naturaleza más personal. Un incrédulo empedernido no es la persona más apropiada para disertar con agudeza y profundidad de las virtudes del agua bendita, y yo no creo gran cosa en eso que podemos llamar el carácter colectivo, y elijo deliberadamente el adjetivo más neutro. Pienso, mejor dicho, que algo de que todos, incluidos los escépticos, estamos continuamente hablando tiene que tener algún fundamento, lo cual no quiere decir que éste haya de ser el que comúnmente se da por supuesto.

Me refiero a esa inmensa colección de lugares comunes —imágenes o representaciones en lenguaje más solemne—, debidas a propios y extraños, sobre toda clase de grupos, cuya abundancia y riqueza es tanto mayor cuanto más importantes son estos últimos. Es sabido que las imágenes son muy distintas, según su procedencia: la zona de coincidencia —la intersección, si se quiere— suele estar en

---

Triunfo 9-XII-1972, 67-73; *EN* pp. 29-41.

la parte elogiosa, parcamente reconocida por los extraños y generosamente aceptada por los propios. También puede haber acuerdo, aunque más reducido, en los defectos, cuando la comunidad misma los considera pecadillos de poca monta y hasta un tanto distinguidos. Así, un cosaco poco amigo de las ligas de templanza no hará demasiados aspavientos si oye decir que alguien «bebe como un cosaco».

Ese montón de opiniones varias puede ser muy interesante, muy divertido —en la medida, casi siempre, en que es muy molesto para otros— y hasta muy revelador, si es debidamente tratado, pero no parece ser la mejor materia prima para graves disquisiciones sobre el carácter de una comunidad para sacar después de ellas, según es costumbre, importantes conclusiones de psicología colectiva comparada. Para comprobar lo que da de sí una profunda reflexión sobre un centón de tópicos manidos, basta con leer, si se encuentran fuerzas para ello, *Franceses, ingleses y españoles,* de don Salvador de Madariaga. Ya sé, porque me lo enseñaron en la infancia, que señalar con el dedo es una fea costumbre, pero don Salvador, que tantas veces ha levantado un dedo acusador —«la grandeza del Libertador procedía de la noble y abundante sangre gallega que le tocó en herencia; sus debilidades, pocas pero manifiestas, de las escasas gotas de sangre vasca que tuvo la desgracia de recibir», etcétera, etcétera—, tendrá que aceptar, con su bien probada ecuanimidad, que «señalar con el dedo» no es una relación necesariamente asimétrica.

Si la noción corriente de carácter colectivo no pareciera deleznable de por sí, se podría señalar alguna de las contradicciones que implica. Parece ser que, de Porfirio para abajo, una clasificación, aunque sea de «almas» colectivas, debe cumplir ciertos requisitos: la nota específica, según los manuales de Bachillerato (hasta la reforma, por lo menos), debe añadirse a las genéricas y no desplazarlas o sustituirlas. Ahora bien, la meditación sobre el carácter colectivo no se mantiene siempre en el alto nivel nacional o supranacional, reservado a los pensadores y ensayistas de profesión. Y, al bajar de las cimas donde sólo el ave teorética puede respirar, tratándose de caracteres regionales, comarcales o locales, el tono se hace más familiar, más desenfadado y, por decirlo de alguna manera, más folklórico. Si uno es lo bastante irreverente para comparar entre sí los resultados de unas y otras especulaciones, no puede menos de sentirse sorprendido por los contrastes que observa. La sobria gravedad, el «sosiego» proverbial de los españoles, por ejemplo,

su magnificencia extremosa —recordemos al de Osuna en San Pe- 68
tersburgo—, su cortesía, su ágil inteligencia ávida de sutiles «conceptos», su caballerosidad a toda prueba, empiezan a trasmutarse en la ligereza de unos, en la tacañería o rudeza de otros, en la ingenua simplicidad de éstos y en las precauciones que hay que tomar antes de entrar en tratos con aquéllos. No sostengo que estas meditaciones, las de arriba y las de abajo, carezcan de toda base: lo que creo es que su base es una y la misma. Creo, en otras palabras, que unas son tan filosóficas —en el buen sentido de la palabra, si es que la palabra en España conserva algún buen sentido— como las otras, y las otras, tan folklóricas como las unas. Todo se reduce, en el fondo, a que unos poseen mejor sintaxis y más baterías de artillería erudita que los otros.

Se diría, pues, que todo esto no es más que una manera agradable de pasar el tiempo, aunque siempre con cierto daño de tercero; una manera, eso sí, culta y distinguida, como jugar al golf o, en un tiempo, llevar bajo el brazo *Revista de Occidente* o los libros publicados por esa editorial. A mayor abundamiento, siempre se puede demostrar que esos caracteres colectivos, supuestamente indelebles, son tan mudables y sujetos a depreciación como las monedas. La caracterización corriente por 1898 en cierta prensa española del ciudadano medio de los Estados Unidos de América, pongo por caso, tiene tan poca semejanza con la que hoy nos presentan los órganos de la misma cuerda que cualquier parecido, evidentemente, no puede deberse más que a pura casualidad.

He dicho «ciudadano medio», pero me he apresurado demasiado. En efecto, todavía no he conseguido saber si tales «imágenes» se atienen a las medias o si más bien no propenden, como una caricatura, a acentuar ciertos rasgos presentes, salientes y llamativos, pero claramente minoritarios, en la población considerada. No se trataría, dicho de otra manera, de algo por el estilo de los conceptos que, conforme a ciertas tendencias, se obtenían por mera superposición de imágenes hasta llegar a aquel borroso retrato que era de todos y de nadie. Pero una caricatura, como un retrato, de acuerdo con el tradicional criterio del «parecido», es logrado o no lo es: se reconoce o no se reconoce al retratado o al caricaturizado, y tiene que haber un término real de comparación en el supuesto original. Claro que aquí, como en materia de discernimiento de espíritus, la capacidad individual es muy variable. He tenido un amigo que se preciaba de distinguir a primera vista un guipuzcoano de Zumaya

de uno de Cestona; otro, en las mismas condiciones, adivina la filiación política del observado (por lo menos la que debiera tener, si es que cálculo y realidad no coinciden). Personalmente, por desgracia, no estoy tan bien dotado.

Vamos, por lo tanto, a admitir, aunque no sea más que porque nos pasamos la vida hablando de ello, que hay algo en el mundo de los fenómenos, como decía don Pío, por vago e inasible que sea, que corresponde al espíritu de los pueblos. Esto, sin embargo, no es innato, sino adquirido: ni se hereda con la sangre ni se mama con la leche materna. Un grupo, sea del orden que sea, se encuentra en cualquier momento de su existencia —por herencia cultural, no biológica, y como consecuencia de condicionamientos muy diversos— en posesión de una red de creencias, saberes, estilos y modas, escalas de valor y pautas de comportamiento. El consenso mayoritario, no sin ayuda de la inercia y de la pereza mental, los acepta, sobre todo en períodos de estabilidad, pero siempre, a pesar de esa aceptación global, los va modificando, lenta o bruscamente, a medida que varían las condiciones de equilibrio interior y exterior. En épocas de crisis, el descontento aflora en críticas abiertas que, de no ser sofocadas por el conformismo, obligan a cambiar las plantillas. El carácter de los pueblos lo hace y lo deshace la Historia —pero la Historia que hacemos o padecemos, no la que escribimos—, como la Historia ha hecho y ha deshecho el espíritu del Barroco o el del Romanticismo.

Hay vascos barojianos y vascos unamunianos, además de muchas otras castas. En cualquier colectividad, entre los españoles por ejemplo, siempre ha habido y siempre habrá gentes altaneras y humildes, violentas y mansas, codiciosas y desinteresadas, taimadas y cándidas, procaces y reprimidas, y así hasta el infinito. Lo que importa, porque es lo único que imprime cierto sello, es que no se es altivo o modesto, etcétera, de la misma manera siempre y en todas partes. El cero, por decirlo de alguna manera, que separa cualidades opuestas está fijado a diferente altura, según los tiempos y los lugares. Es como los Pirineos de Pascal, unos Pirineos en el espacio y en el tiempo, que contraponen lo colectivamente admitido a lo colectivamente reprobable. Lo que aquí y ahora es sano amor a la Naturaleza puede ser allí y entonces —aunque tal vez conviniera invertir lugares y tiempos— pornografía inmunda.

Hasta el sempiterno rebelde, el que aquí y allá, entonces y ahora se niega a doblegarse bajo el peso del consenso comunitario, no se

rebela contra las mismas cosas ni de la misma manera. Por más que le pese, también el rebelde, como el hueco del molde, tiene que dar testimonio del relieve de la sociedad. Puede servirle de consuelo el pensar que el concepto de tradición, y el de tradicionalismo por lo tanto, es uno de los menos unívocos que hallarse puedan. Cualquier pueblo, y también esto debería ser un lugar común, tiene diversas tradiciones. El que en España —hay alguno— invoca a Juan de Valdés, al Brocense o a Olavide sigue una tradición, no menos que el admirador del otro Valdés, y no estoy hablando del hermano de Juan, de Melchor Cano o del marqués de Valdegamas. En el mismo caso vasco, del cual ya es hora de hablar, hay bastante donde elegir entre Jaun de Alzate y el buen pastor Joanes de Domingo Aguirre.

Me gustaría dejar claramente sentado que cuando diga algo del buen o mal carácter de los vascos (o de otros), no voy a referirme a una esencia intemporal que, pese al correr del tiempo, permanece idéntica a sí misma. Siempre se hablará de algo que es hoy de cierta forma, antes lo fue de otra, y antes aún había sido muy distinta. Esto es, por lo menos, una proposición que podría ser demostrada. Ahí va una muestra.

Ya se ha mencionado lo que hay de vario y mudable en la esti- 69
mación colectiva de vicios y virtudes. El vasco que uno ha conocido ha sido por lo general muy recatado (Félix Urabayen decía que hipócritamente reservado) en cuanto se refiere a carne no comestible, pero un tanto exhibicionista, en cambio, en materia de comida y hasta de bebida: a esto apunta el florecimiento de bares y sociedades gastronómicas en nuestro país. Esto parece significar que, aun aceptando al pie de la letra la tabla de los pecados capitales, un vicio era más virtuoso, o menos vicioso si se prefiere, que el otro, a los ojos de la comunidad.

Pero Dechepare, el autor del primer libro vasco impreso (1545), habla de sus devaneos, si vale la expresión, con una alegre naturalidad que nada tiene que envidiar a la de Juan Ruiz. Tanto da que escribiera los versos antes o después de una presunta «conversión»: lo que importa es que cuando los publicó, no sin orgullo, era párroco de Saint-Michel-le-Vieux. De ello no se siguió ningún escándalo, que se sepa, ni le sobrevino el menor contratiempo: éstos los sufrió, como incontables otros, a causa de su imprudente celo por la cosa pública. Los placeres de la mesa, por el contrario, no se mencionan en sus poemas. No sé que nadie se creyera obligado a advertir de los peligros de la gula hasta los sermones del padre Isla, que reprochaba

a los donostiarras, como pecado más bien local, su desmedida afición al chocolate, «amargo fruto de los navíos de la Ilustración», que decía Basterra, aquel atlántico renegado que llamó «orbe comedor de borona» al que cuenta entre sus hijos a Leibniz, a Kant y a Gauss. Una muerte prematura le impidió conocer, por desgracia, la carrera fulgurante de Adolfo Hitler, cuyos admiradores en las orillas de la Ría son difíciles de distinguir en la práctica, precisamente por el principio de Leibniz, de los admiradores de Basterra.

Y, siguiendo con los vascos, ya que hemos empezado con ellos, sería divertido y hasta instructivo recoger las opiniones que sobre ellos han emitido, a lo largo de siglos y de milenios, autores ilustres u oscuros, entre detractores, amigos e indiferentes. Pero esto exigiría un libro entero, además de una erudición que a mí me falta. En todo caso, ese repaso crítico valdría para probar que los juicios ajenos no han sido menos variables que los propios. También ha sido variada la motivación. Aimery Picaud, cuyo texto —la perla de la colección— sigue publicándose sin traducción, al echar airadamente en cara a nuestros antepasados su falta de interés en la promoción del turismo compostelano, pudo dejarse en el tintero vejaciones muy directas y personales. La simpatía que manifiestan el padre Coloma o Mañé y Flaquer, la del mismo Tirso de Molina, posiblemente, se basa en razones políticas, análogas, aunque de sentido contrario, a las que llevaron a Blasco Ibáñez a dejar en *El intruso* una pintura de Bilbao y de la zona minera tan reveladora del retratista como del retratado. En esa pintura, rara vez comentada, hay además una buena medida de incomprensión (para todo *x,* por ejemplo, si *x* es una mujer vasca, *x* es incapaz de elevarse al sublime sentimiento del amor, etcétera) que tiene buen paralelo en los desabridos comentarios que alguna vez ha dejado caer Valle Inclán sobre los paisanos de don Vicente.

Todo esto parece chismorreo, aunque alguna vez sea chismorreo de vecinas ilustres. Una clasificación más provechosa (aunque su principio recuerde peligrosamente aquello de *oderint, dum metuant)* podría ser la que reuniera, de una parte, los testimonios que presentan un rostro amable y risueño y, de la otra, los que reflejan una faz torva y amenazadora: la que se manifiesta, dentro de los límites de tiempo que impone la discreción, en la época de Suintila y de Recesvinto, en Islandia a principios del siglo XVII, en la Venezuela del XVIII o durante las campañas de Zumalacárregui. La primera lista podría ir encabezada por Silio Itálico que, en busca de pintorescos

rellenos decorativos, habla del vascón (no podía mencionar a los *Vascones,* que daban un crético imposible) como de gente guerrera, sí, pero airosa y saltarina, que desprecia el casco para mayor facilidad, no se sabe si suya o ajena. Paulino de Nola, el primero de la segunda, ya nos da una imagen diferente, aunque la distancia que le separa de Silio, medida en páginas de manual, no sea muy grande.

En efecto, durante ese intervalo, ciertas gentes próximas al Pirineo, que sin duda ya venían pensando desde antiguo que la elocuente concisión del latín y la elegancia de la indumentaria romana no eran compensación suficiente de la servidumbre económica y política, se dieron cuenta de que no sólo querían, sino que, además, podían, gracias a la debilidad del Imperio, vivir a su propio modo y manera. El empeño, sin duda con muchos altibajos, tuvo un relativo éxito. Lo bastante, al menos, para que los visigodos, y también los francos, se encontraran con un obstáculo continuamente debelado y continuamente opuesto. Luego, como han señalado Vigil y Barbero, los musulmanes iban a heredar de los visigodos una frontera, no por fluida menos real, y sus problemas. Es sabido que ahí había de nacer, junto a entidades menores y más oscuras, el reino de Navarra.

No voy a tratar de definir ni de delimitar a los vascos, que han recibido también bastantes otros nombres. Salta a la vista que existe hoy una realidad, que parece frágil y deleznable unas veces, demasiado dura otras, que corresponde a ese nombre. También es evidente que esa realidad, sea la que fuere, tiene sus raíces en el pasado.

Como no soy un ensayista omnisciente, versión moderna del arbitrista, me contentaré con dar una opinión personal, nada original por lo demás. A mi entender, si en territorio que ha sido siempre zona de paso, de contacto y de activo comercio hay hoy gentes que se consideran pertenecientes a ese grupo, si los demás hablan de él como de algo existente, esto es debido, antes que nada, al hecho de que se haya conservado hasta nuestros días, en el corazón de ese país, una lengua, pequeña por el número de sus hablantes, pero distinta y hasta muy distinta. El ser tan diferente de las vecinas tuvo sus inconvenientes (no podía ser lengua de relación con otros, su cultivo escrito ha sido penoso, etcétera), pero es también la mayor ventaja que una señal puede tener como señal. La monarquía de Toledo no pudo dominar su solar, y no hay que olvidar que, como señaló hace años Caro Baroja con una paradoja sólo aparente, los visigodos fueron en nuestra Península los agentes decisivos de la ro- 70

manización. Aunque esto puede ser un espejismo histórico, los vascos de hoy se nos presentan como los continuadores del reino de Pamplona, nueva creación que se basó en un fondo mucho más antiguo. El de Cangas y Oviedo prefirió inscribirse, en cambio, por las razones que sean, en otra continuidad cuyo centro había estado mucho más al Sur.

No voy a insistir en la notoria falta de unidad política del grupo de que venimos hablando. Es curioso, sin embargo, que la división más antiguamente marcada dentro del país no sea la que determina una frontera hoy tan visible en el mapa y tan tangible en la aduana, esa frontera a la que Felipe II trató de ajustar con tanto esfuerzo y no sin éxito la división eclesiástica. Ni esa frontera, que dividió Navarra en dos partes desiguales (el País Vasco francés, incluida la ciudad natal de Huarte de San Juan, es geográficamente navarro en su mayor parte), ni las guerras casi privadas entre guipuzcoanos y labortanos en el siglo XVI, a las que no fueron extrañas rivalidades comerciales, generales desde el asedio de Fuenterrabía, impedían que el navarro Moret escribiera en 1667 al suletino Oihenart: «Todavía no me había enterado de que los vascos fueran considerados extraños en la ciudad de Pamplona». Sobran testimonios más recientes.

No, la división más antigua, y probablemente la de efectos más duraderos, destinada a resucitar inesperadamente muchos siglos después, es la que separó de Navarra a vizcaínos, alaveses y guipuzcoanos, a éstos más que a ninguno, por razón de vecindad. Una conquista pura y simple no explica la profunda y duradera adhesión de los últimos a los Reyes de Castilla, ni su suspicacia y hostilidad hacia los navarros, manifiesta en tantos hechos y palabras. Si hubo motivos de desconfianza y rivalidad, acaso tribales, que venían de antiguo, ya son inaccesibles para nosotros. Pero las enemistades cuya razón se ha olvidado no son por ello menos enconadas.

Además de la lengua, que evidentemente no se ha conservado a sí misma, no se puede olvidar la circunstancia de que en ese país hayan estado en vigor, hasta fechas recientes, instituciones propias que todavía subsisten residualmente. Es sabido que esas instituciones eran privativas de cada una de las regiones y muy diversas entre sí: están unidas, sin embargo, por sus raíces probablemente comunes y por los azares padecidos, en buena parte en común, en el curso de la Historia.

Sobre estos fueros, por respetar la denominación tradicional, se han dicho cosas no siempre justas: quienes buscaban ante todo defenderlos o combatirlos no se han cuidado lo bastante de tratar de comprenderlos. El punto de vista, en este caso oficial u oficioso, de los defensores, entre el siglo XVI y principios del XIX, está muy bien recogido en los libros de Francisco Elías de Tejada sobre el Señorío de Vizcaya y la provincia de Guipúzcoa. Los otros, a partir de Llorente por lo menos, no aceptaron los argumentos de los apologistas, y contraargumentaron con otros de varia índole. Vale la pena recoger alguno, puesto que por lo general están más divulgados.

Se ha dicho, en primer lugar, que se trata de simples fueros o privilegios locales, de los que se encuentran en Béjar como en Miranda de Ebro, no de derechos que no datan. Aun dado esto por bueno, que no es poco dar, queda un detalle inexplicado: cómo es que unos llegaron a crecer y madurar, resistiendo a muy fuertes vientos contrarios, y sean todavía hoy un recuerdo eficaz, cuando de los otros sólo nos quedan, en el mejor de los casos, ediciones críticas del mayor valor para quienes se interesan por particularidades jurídicas y lingüísticas de la Edad Media. Su eficacia la padeció en su propia carne don Fermín de Lasala, que medió, sin duda con la mejor intención y hasta con gran sentido político, a fin de reducir el «castigo» por la participación en la guerra que acabó en el puente de Valcarlos en 1876: es de señalar que las gentes de que hablamos perdieron en 1833 la intuición que hasta entonces les había guiado para apoyar con pleno acierto al bando que había de resultar vencedor en las contiendas civiles españolas. También Carmelo de Echegaray —albacea de don Marcelino y, por ello mismo, persona poco sospechosa— sentía, como me contaba su hermano, don Bonifacio, reparos invencibles para entrevistarse con Cánovas que, además de ser el autor de *«El Solitario» y su tiempo,* título que le revolvía la bilis a Baroja, era el primer responsable del «castigo».

Hay otra acusación contra los Fueros, muy distinta y también mucho más insidiosa, puesta en circulación, por cuanto sé, por don Gregorio de Balparda: la cito porque parece destinada a reflorecer en plumas que escriben, en apariencia, con tinta de muy distinto color. Forzado a explicar los resultados de la guerra contra la Convención francesa, que recuerdan Cavite y Santiago de Cuba, los explica, digámoslo así, por la «organización social eminentemente jerárquica y oligárquica como la que dominaba en Vizcaya

en 1794», afirmación sorprendente en un autor que, para ojos actuales, no parece antijerárquico y mucho menos antioligárquico. Pero, proceda de quien proceda, no puede uno excusar la respuesta basándose en el texto evangélico de que sólo quien esté libre de pecado puede arrojar la primera piedra.

Yo, por lo menos, con toda mi ignorancia en materia de instituciones, me cuidaría mucho de negar el fundamento de la acusación. Es más, acepto, en contra de lo que han sostenido los nostálgicos del paraíso foral, que esa organización social fuera un tanto jerárquica y un tanto oligárquica: en todo caso, el respeto a la propiedad privada, a la que las Juntas no hacían más que poner trabas y cortapisas, era muy inferior al que podía exigir un jacobino, aunque fuese un jacobino a la española como Balparda. El problema, como en ese misterioso «tanto de culpa» que Tribunales y Juzgados se pasan de mano en mano, está en saber hasta dónde llegaba el «tanto» de jerarquismo y el «tanto» de oligarquía. Más crudamente, se trata de saber, puesto que no hay medidas absolutas, si era superior o inferior al normal y corriente, por las mismas épocas, en Ávila o en Salamanca. Yo lo creo (y estoy dispuesto a discutir esta afirmación) incomparablemente inferior. Si en el año de gracia de 1971 hay todavía entre nosotros una tradición de representación local (y
72 me atengo a Livermore, para quien nuestra supervivencia en época romana se debió a una organización social diferente a la que no se quiso renunciar), esto viene de siglos de autogobierno, bastante representativo, desconocido en no pocas zonas españolas.

No faltan citas que abonen esta opinión. El mismo Balparda, en un momento de descuido, nos ha transcrito las palabras de Tallien, que en este punto no eran interesadas: «La provincia de Guipúzcoa... y de Vizcaya... son dignas de un gran interés... En medio de la servidumbre general han conservado grandes restos de libertad: tienen leyes constitucionales, muchas de las cuales tienen con las nuestras una analogía sorprendente... El carácter de sus habitantes es enérgico como sus leyes». Pero, como años después había de escribir Victor Hugo, a propósito de los mismos, «la libertad es enemiga de las libertades». Y añadía por lo bajo: *C'est la vie, mon vieux.*

Dejemos al convencional. Guillermo de Humboldt cruza rápidamente el país en 1799, pero vuelve en 1801 para conocer directamente las cosas. No voy a hablar de sus opiniones en materia de lingüística general, sima sin fondo, porque no me cuento entre sus intérpretes oficiales u oficiosos. Los partidos en discordia están por

lo menos de acuerdo en un punto: que Humboldt es una estrella de primera magnitud en la historia de la lingüística. Lo cual, me apresuro a añadir, no debe hacernos olvidar que Humboldt, además de eso y de otras cosas, fue un hombre de estado nada crédulo por lo que a cuestiones económicas y políticas se refiere.

Pues bien, lo que Humboldt dejó escrito —junto a censuras abiertas de aspectos de la vida vasca que no encontraron, seguramente con razón, gracia ante sus ojos— es de tal naturaleza que sólo con sonrojo y haciéndose violencia puede copiar un vasco, aun en el más conciso resumen. Al contrario que Balparda, como conservador ilustrado o progresista no revolucionario que era, pensaba que las instituciones de «Vizcaya», término que para él no se reduce al señorío de aquel entonces, constituyen «una Constitución tan alejada del despotismo como de la anarquía». «Me parece indudable —escribía en 1801— que, sea cual fuere la suerte que hayan corrido los privilegios de las Provincias Vascas, todos los felices efectos que produce el sentimiento de una libertad bien ordenada y de una igualdad perfecta de derechos, se encuentran evidentemente expresos en el carácter del pueblo (aquí me permito un eufemismo) vizcaíno. Vizcaya es el único país que yo haya visto jamás donde la cultura intelectual y moral es realmente popular, donde las primeras y las últimas clases de la sociedad no están separadas por una distancia, por decirlo así, inmensa, donde la instrucción y las luces de las primeras han penetrado, al menos en cierta medida, hasta las últimas, y donde la hombría de bien, la franqueza, el inocente candor de éstas no se ha vuelto extraña a aquéllas. Ése es el principal atractivo que ese país ha tenido para mí. Ahí se ve realmente un pueblo (vuelvo al eufemismo): la fuerza, el movimiento, la misma forma general del carácter viene de la masa, y sólo está cultivado y refinado por los individuos que su situación personal ha puesto en disposición de hacer progresos más rápidos. En casi todos los demás países, el pueblo no es más que una masa inerte». El dilema parece claro: o el alemán perdió muy reiteradamente la sagacidad que todos le reconocen o algo de lo que pudo observar daba pie a una simpatía, por lo demás enteramente gratuita.

No es éste el caso de Wordsworth, cuyos versos al árbol de Guernica («¡Roble de Guernica! Árbol de más santo poder que aquel que en Dodona...») se han citado más de una vez, sin entrar en su contexto. La verdad, un poco triste, es que este soneto —forma por la que Wordsworth sentía una debilidad muy de

nuestros días— va engarzado en un rosario propagandístico escrito en un momento de flaqueza, cuando el buen britano, ante la amenaza inminente de Napoleón (Hitler, en traducción más moderna), se da cuenta de que su libertad o libertades tiene algo que ver con la de los demás. Su interés está en que, entre los aliados potenciales o reales, sólo se acuerda de los que le parecen fuertes: guerrillas españolas, suecos, suizos, tiroleses, alemanes... También tendría cierto valor de recordatorio, si la gente de mi generación lo necesitara, otro soneto, escrito como el anterior en 1810: «Vamos, vizcaínos: hay que hacer frente a nuestro enemigo..., pero hay también que afanarse por recobrar nuestra antigua libertad». ¿Hay que añadir que este generoso interés por la libertad común murió o desapareció en Waterloo?

Más que ningún otro, es el siglo XVIII el que ha dado a Vasconia una cierta fisonomía: de ella habla Humboldt y también, desde su lejano observatorio insular protegido por una marina triunfante, Wordsworth. Entonces se afirma, aunque ya venía siendo preparada desde el siglo anterior, una religiosidad poco dada al misticismo y a las sutilezas teológicas, inseparable de las prácticas rituales, pero también de las normas éticas. En el continuo forcejeo por defender la autonomía en peligro se van precisando las bases ideológicas de su defensa, que luego tendrán que ir ajustándose a las necesidades de nuevos tiempos. Ya señaló Caro Baroja el papel que le cupo en esto al padre Larramendi, figura de grandeza indiscutible, aunque mal reconocida.

Acaso no peque de suspicacia quien piense que ha habido (¿o hay?) cierta propensión a considerar Vasconia como un país atrasado, hasta reaccionario, poblado por gentes de mente simplicísima (me remito a la autoridad inapelable de don Salvador) a pesar de un adelanto técnico que, sea dicho de pasada, viene de bastantes siglos atrás. Me resisto a creerlo, aunque sólo sea porque he visto a más de un vasco valerse de su ingenua sencillez para conseguir tratos tan ventajosos para él como costosos para los demás. Los financieros navarros tuvieron notable intervención en la economía de la España ilustrada. La Compañía Guipuzcoana de Caracas es, por lo que se me alcanza, la primera manifestación de colonialismo moderno, racionalmente implacable, en la América española. La Sociedad Bascongada de Amigos del País no nació, por ejemplo, en Cataluña: si se busca lo bastante, se dará sin duda con la razón suficiente de que apareciera precisamente entre nosotros. También

se produjo ahí la Machinada, que es, como dice Ildefonso Gurruchaga, la otra cara de la Bascongada. Y ésta no fue, como a me- 73
nudo se sugiere por omisión, una sociedad económica más, sino el modelo, apenas igualado, de todas las económicas españolas. Si no consiguió más fue en buena parte porque a la Ilustración española, cuya pusilanimidad crónica debería ser proverbial, le bastó la primera señal de alarma (la que Moratín oyó, con oídos cerrados por el pánico, en París) para aliarse con sus supuestos enemigos, en quienes descubría de pronto una real —demasiado real— comunidad de intereses, ideas y propósitos.

Finalmente, ya que hay lindes que no es prudente cruzar, entre lo que Tuñón de Lara ha llamado con tanto acierto «la otra burguesía» no faltan importantes nombres vascos. Sólo repetiré, por ser acaso el menos conocido fuera del país y porque contribuyó en una medida que no se le reconoce a la evolución de su clima espiritual, el de Rafael Picabea.

Más de una vez se nos ha echado en cara, airada o compasivamente, nuestro bajo nivel cultural, unido, sin embargo, a un nivel (relativamente) muy alto de instrucción general. Esta situación de apariencia paradójica se deberá, entre otras causas, a la falta de una Universidad: hemos tenido algo de ese nombre, pero de nombre sólo no se puede vivir. Sería ocioso discutir la parte de responsabilidad que en ello cabe a propios, nada libres de culpa, y a extraños. Con todo, uno no puede negarse a ver la influencia que en ello ha tenido, al menos en los cien últimos años, la ciega obstinación con que se han mantenido ciertos monopolios históricos, a pesar de la evolución económica y demográfica. Parece curioso, pero los supuestos discriminadores hemos estado claramente discriminados en materia de enseñanza superior.

Pero en la estrecha cárcel del País Vasco, se ha dicho más de una vez, no hay espacio para ciertas mentes geniales: así, se marchó, por ejemplo, Unamuno. Pero Unamuno, como el modesto firmante de estas líneas, se marchó primero y ante todo por un móvil tan urgente como poco sublime: porque tenía que mantenerse a sí mismo y a su familia, y quería vivir de un trabajo que le gustaba y para el que estaba preparado, no del que podía encontrar en su país. Luego eligió y tomó por suya a Salamanca, aunque sin olvidarse de su hoy ex invicta villa natal, pero esto vino después. Si se me permite una comparación, no creo que las aspiraciones del Banco de Bilbao (me atengo al orden alfabético y también al de antigüedad) fueran o

sean menos reducidas que las del más ambicioso de los intelectuales vascos. Sin embargo, cuando alzó su potente vuelo de águila, se guardó mucho de cerrar su nido natal, cuyas puertas, ahora más amplias, siguen estando generosamente abiertas para todos.

En resumen, porque ya es hora de acabar estas consideraciones demasiado prolijas, es de esperar que los vascos sigamos ofreciendo, dentro y fuera, una faz cambiante, tanto porque cambiamos nosotros como porque cambia el estado de ánimo de los observadores. Valdría la pena subrayar, con todo, que ahora, a pesar de los muchos siglos que pesan sobre nuestras espaldas, tenemos un poco la impresión de estar llegando, por fin, desde una prolongada adolescencia a las responsabilidades de una juventud madura. No extrañará, pues, con las quejas que se oyen sobre el paternalismo, que sintamos una cierta rebeldía ante las tutelas, por muy bien intencionadas que sean. Creo expresar la opinión, formulada o informulada, de mucha gente si digo que quisiéramos seguir nuestro camino, bueno o malo, a nuestra propia manera, sin que se nos esté enseñando a cada momento dónde debemos poner los pies. Doy por supuesto que debemos respetar lo que los demás quieran seguir, dentro de las limitaciones muy estrictas que pesan sobre todos.

18

«TRISTE BIZI NAIZ ETA HILKO BANINTZ HOBE»

Bai, baditugu bihotzean mila atsekabe euskaldun mitozaleok. Banus jaunaren eraso bortitz eta jarraikien ondoan zutik gelditzen zitzaizkigun mito apurrak ere deseginik ikusi behar orain, Haranburu-Altuna jaunaren eskuz.

Larresoro errebelatuaren tesi galgarrien kaltetan agertu den *Syllabus* berria bestetarako utziaz, Lur Editorialak oraintsu argitara duen *Euskal literatura 72* delakoaz mintzatu nahi nuke eta ez, egia esan, gogoz irakurri dudan liburu osoaz.[a] Hautatua (eta hautatzailea?) izan den euskal idazle batez mintzatu nahi nuke eta horrek hautatuei atarian landatu dien hitzaurre mardulaz. Ez baita arina gainerako hautatuek lepagainean eraman beharko duten uztarria.

Eskarmentu ederra izan dugu, hitzaurre hori dela bide, irakurle amesgile eta ezjakinok: horixe da, noski, garai bateko gaztelaniaz hainbeste bider agertzen den harako *desengaño* hura. «Harroak gara euskaldunok eta ametsari oso emanak. Uste dugu berebiziko indarra duela geure literaturak. Uste dugu gailendua dugula geure eskasia eta pobrezia. Baina errealitatea besterik da...». «Esan daiteke oso apala dela gure literaturaren irakurlegoa...». «Pobreak eta harroak gara, eta ez dugu geure egoeraren bilutsa onartu nahi». Eta horrelatsu, bestetan ere.

Zoroak gu, besterik uste genuenok. Seinalagarri, egia esan, ez dakar Haranburu-Altunak inoren izenik: aipatu, ez du bere burua baizik aipatzen («lehen esan dut», «lehen esana dugu», «nik bada-

---

Zeruko argia 1973-I-14, 3; *MEIG* VIII, 27.-30. or.

[a] Donostia 1972.

kit», etc.), aintzindaririk gabeko gidariari eta itsu arteko okerrari dagokionez. Ez, ez naiz zuzen ari. Bere burua eta Barthes aipatzen ditu. Barthes irakurria du Haranburu-Altunak, eta frantsesez irakurria, alazankoa.

Zenbait kritiko baldanek esan izan dugu —Alegi aldetik sortu zaigun Argia ikusi baino lehenago, jakina— *Peru Abarka,* tira, ez dela berealdiko liburua; bai, haatik, aski polita, erraz eta atseginez irakur daitekeena. Hona, berriz, zer dioen Argiak Argiaren ahoz: «Nik egun hauetan irakurri dut hirugarren aldiz, eta irakurtzen ari nintzen tenorean jabetzen nintzen zein urrigalgarria den gure literatura. Munstrokeria handi bat iruditzen zitzaidan Peruren hitz-jario jator eta didaktikoa...». Hitz-jario didaktikoa, jaun-andreak! Ez bide du Haranburu-Altunak Haranburu-Altuna irakurri, nik irakurri dudan bezala. Bazekikeen orduan orain dakien baino hobeki, jatortasuna gorabehera, zertaz ari den.

Goazen aurrera, Izarraren ondotik: «Nirekiko anti-literario bezala jotzen dut horrelako obra. Zeren eta literaturak aske izan behar du ezen ez ideologia baten mende. Benetako literaturak sortu egin behar du ideologia eta ez gauza jakinak errepikatu (horretarako badira manualak). *Peru Abarka* enziklopedia bat da (enziklopedia ona) jakintza ofizial bat errepikatzen eta aldarrikatzen duena. Kaso honetan jakintza hori XVIII.go euskal burgesia-oligarkiaren ideologia klerikal-txaubinista da».

Asto baten gainean, bestea alajaina! Uste ez genuenik badugu: ona bederen, entziklopedia bat, nolabait ere bestearen (harako bihurri haren) parekoa. Entzun ongi, eta aurrera. Hitz bati bakarrik lotuko natzaio oraingoz, besteak beste. Eta balegoke besterik.

Burgesa jendeak burges izendatzen duena zelakoan nengoen: maiz aski erabili dut hitz hori, erdaraz bada ere, historialarien aurrean eta ez hagitz gaizki itxuraz, ez baitut oker usatzen nuelakorik entzun. Mugarri bat har dezagun, diodan Sombartek aurten Espainian salgai dagoen 1913ko liburu ezagun batean erabili zuen moduan saiatzen naizela erabiltzen. Horrela badarabilgu, ordea, beste Entziklopedia da, Diderot eta D'Alemberten bihurri hura hain zuzen, burges izpirituaren aitzindari gertatzen dena, ez Mogelena. Nik honi ez diot burges kiratsik inondik ere sumatzen, Haranburu-Altunaren hitzei darien *Quanta cura*-rena bezain nabarmenik ez, behinik behin. Nahi nuke, bada, jakin ea zer den burgesa, denbora bateko Deabruaren itxuraldatzea izatez gainera, gure hitzaurregilearentzat. Galdatuko ere nioke, hitzak hizpidea ekarri duenez gero,

ea zergatik egon den inprentara gabe laurogeiren bat urtez handikijauntxoek hain gogoko zuten ispilu garbi hori.

Hitz kontuan abiatu naiz eta hitz kontuan segituko dut. Zertaz mintza daiteke, izan ere, «hizkuntzalogo» bat, hitzez ez baldin bada? Iñoxente egunez ari naiz, gainera, egokiagorik ez baitut aurkituko, lerro hauek lardaskatzen.

«Antzerkiak ere konta hala» [sic] agertzen omen dira gure artean, urtearen buruan. Eta zenbat da, misterio ezkutua ez baldin bada, «konta ahal» direnen kontua? Cantorez geroz, behintzat, Mogelentzat eta beste zenbaitentzat «ezin konta ahal» zitezkeenak «konta ahal» bihurtu dira. «Mendebaleko zibilizazio honetan» (honetakotzat dauka bere burua Haranburu-Altunak: bestek bio arrazoizkoa den ala ez iritzi hori) Cantorekiko dugun zorra askozaz ere larriagoa da Barthesekikoa baino.

Hona beste bat, eta ez naiz ni lehenbizi harriturik gelditu den irakurlea. Hemen duzue gure gizonak 17. plaman dioena: «Literatur hizkuntzak, meta-hizkuntza *(meta-langage)* bat osatzen du, hots, hizkera bat. Berezia da literaturaren hizkera... Eguneroko hizkuntza zerbait bizia da, eguneroko beharrei oso hertsiki eta funtzionalki atxikia. Literatur hizkera maila formalago batean hedatzen da». Nahi nuke ere jakin ea zergatik hitz hori frantsesez (frantsesez?) ageri den, logika berriaren zerbitzari alfer izan baitira oraintsu arte frantsesak, euskaldunak ez ezik.

Metahizkuntzaren mamiari buruzko iritzi hau ez dabil hain urruti, gezurra badirudi ere, behin batean Antonio Maria Labayen jaunak azaldu zigun hartatik. Ikus *Egan,* 1968,[b] 103.a: «Diteken gauza da, baiñan jakintsuek ba-dakite izkuntza "teknikoa", intelektual itz berriz eta esaera otzez betetako izkuntza hori, ez dala benetako izkuntza bat. Erderaz, ez "lengua" baizik "metalengua" izena ematen zaio. Euskeraz, berriz, "izkuntza-izuna" deritzakeguna. Baiñan tresna hori ez dezakegu mintza eta erabilli gure izkuntzaren ordez. Arrazoizko izkera *otza* bait da».

Beraz, bataren eta bestearen ustez, metahizkuntza hizkera berezia da: batarentzat «otza» eta bestearentzat, behar bada, «beroa», baina hizkera berezia, egunero ahotan darabilguna ez bezalakoa. Gure ezjakinean, berriz, bazterretan dauden eta dabiltzan milaka liburutan fidaturik, besterik uste genuen: metahizkuntza ez dela ez

---

[b] «Ideolojiari buruzko aurre-iritzia», 103-105.

hizkuntza ez hizkera berezia, baizik eta paradoxetarik itzurpide izan dadin asmatua izan den mintzatzeko modu motz eta soila.

Teoria bateko teoremen egituraz ari den esaldi bat, adibidez, ez da teorema, metateorema baizik. «Literatura izan daiteke kreatzaile edo reproduzitzaile» esaten baldin badut, hizkuntzaz ari naiz, Haranburu-Altunaren hizkuntzaz. Baina frase biribil honi zerbait eranstera ausartuko baldin banintz, behar diren komatxoak behar bezala ipini ondoren, esate baterako, «Literatura izan daiteke kreatzaile eta reproduzitzaile, egia da, bai, baina Perogrullok berak ere ez zukeen lotsarren horrelako egiarik esango», metahizkuntzaz hasia naiz mintzatzen. Orobat, «Eguneroko hizkuntza zerbait bizia da» hizkuntza da, Haranburu-Altunaren euskara. Honako hau, ordea, «Eguneroko hizkuntza zerbait bizia da, alde batetik, eta euskal gramatika, bestetik, mutur joka ari dira elkarrekin» ez da euskara, metaeuskara baizik.

Horixe uste genuen, behintzat, Apaizgaitegietan (eta Papeleretan) sarbide urria izan dugun batzuek. Duda-mudatan gabiltza orain. Mintza bitez irakasleak; prest gauzkate entzuteko ikasleak.

Azkenekoa, oraingoz azkenekoa, azkenik: 196.ean ageri den *Dilectissimus Dominus* hori, ze kasutan dago? *Ce diable n'est point congru!* esan omen zuen ezinbestean, Huxleyk kontatzen duenez, Leudungo mirakuluen lekuko batek. Ez, arranoa, gure Akerraren seme den Apeza ere, bere aitari horrela mintzatzen baldin bazaio!

Askotarako izan ohi dira hitzak. Nahi duguna besteri adierazteko; nahi ez duguna besteri ezkutatzeko. Are, zenbaitetan, gogomuinetan daramagun hutsaren hutsa trumoi zalaparta darion hodei beltzez inguratzeko. Nolanahi ere den eta darabiltzagun moduan darabiltzagula, begiramen pixka bat merezi lukete beti. Begiramen horren eske lotsagabean nator Iñoxente egunez, mutu baitira berez hitzak hiztunen bat ez badute mutu-mutil hartzen.

19

ALLENDE DELA ETA

Azkenik irakurri dudan *Zeruko argia*-k, irailaren 23koak, leku ugari opa die, bide zen bezala, Txileko gertakari negargarriei. Gertakari horiek, izan ere, hurkoak ditugu, hurbilekoak, zenbait mila kilometro gorabehera: ez ote zuen, bada, Allendek berak, besteak beste, bere euskal etorkia aitortu? Eta «test» moduan erabil ditzakegu, hurbileko ditugulako hain zuzen, geure artean ere. Ea egunen batean, ordu ere badugu eta, nor nor den eta non dagoen ikusten dugun agerian.

Gogoko izan ditut zenbait gauza irakurri ditudanetarik; beste zenbait, berriz, ez hain gogoko. Irakurle naizen aldetik dudan eskubideaz baliatuz, beraz, neure iritzia azaldu nahi nuke zenbait punturi buruz, zuzendaritzaren baimenarekin. Hona zertaz:

1. Azpeitia jaunak, Txile dela eta, Txekoslovakiako gertakariak oroitarazten dizkigu, elkarren pareko direlakoan edo. Badute, haatik, ezberdintasun nabarmenik, eta ez dut bat baizik aipatuko: Txile sutu duten tankeak ez ziren ez arrotzak ez atzerrikoak, ez dira inondik sartu Txilen. Badugu gogoan zaharrago garenok —hots, «klasikook»— hangoekin antz eta eite gehiago duen gertakaririk. Giza kondaira ez baita hasi 1970ean, ez 1960an, ezta 1950ean ere.

2. Plama horretan bertan hau irakur daiteke: «Azken boladako huelgak kalte ikaragarria egin diote Txileko ekonomiari». Baina, mundu zabalean aski hedaturik dabilen ustearen arabera, ez da Txilen, esateko moduan, huelgarik, grebarik edo lanuzterik izan: han

---

Zeruko argia 1973-X-7, 5; *MEIG* VIII, 36.-38. or.; *EN* 299.-301. or.; *GA* 257.-258. or.

batik bat gertatu denari «lock-out» deritza, han eta hemen. Bakuninek beti amets izan zuena, eta langileak lortzeko gauza izan ez direna, erdietsi dute nagusi-ugazabek: komunikabideak oro moztuz, bizi iturriak agortu Talcatik hasi eta Punta Arenaseraino.

3. Ez du inork, ene ustez, «nahasmendu hori (saltsa hemen, huelga han) aitzakitzat hartu», Iraola jaunak idazten duenez. Aitzitik, nahasmendu hori, eta aitzakia nahasmenduarekin batean, zuzen-okertzaileek berek sortu dute, guztiok dakigun bidez, gero okerzuzentzaile ager daitezen. Bestela esan, ordenazaleek sortu dute, eta ia esku hutsik sortu gainera, desordenua Txilen.

4. Izenik (eta marrazkirik) ez daraman 5. plamako berri batean irakur daiteke nola 1970-1972 bitartean lur jotzeraino jatsia zen kobrearen prezioa, «azken boladako huelgak» zirela medio, dirudienez. Ekonomiaz deus ez dakidan arren, arrazoizko iruditzen zait pentsatzea prezioek, kobre gutiago ateratzen baldin bazen, goraka abiatu behar zutela, beheraka hasi beharrean. Hor ageri da dudarik gabe, bestetan baino gehiago, merkatu eragile diren Ipar-amerikanoen eskua.

5. Zalantza bizitan utzi nau Mandiola jaunak dioenak: «Kristau demokratak, berriz, azkenera arte ez dira bere lekuan jarri». Ez baitiot igartzen zein izan daitekeen leku hori, astokalea ala urdandegia. Beste norbaiten laguntza behar izaten baita bakunindarrei beti falta izan zitzaien azken bultzada emateko. Eta astoarena egitea da, zerriarena egin ondoan, uste izatea azken bultzadako horiek prest daudela beregana dutena besteri, Frei eta bere adiskideei esate baterako, eskualdatzeko.

Badakit ez dutela, Jainkoari eskerrak, kristau demokrata guztiek horrela jokatu Txilen: onenek eta argienek ez, beharbada; bai, ordea, gehienek eta eragikorrenek. Eta horiek izan dira, ez inongo CIA-ren eraginak, han demokrazia desegin eta Allende —beste asko lagun dituela— heriotzera eraman dutenak. Eta hori Allende eraberritzaile bezala agertzen zelarik, ez iraultzaile gisa. Duda egingo nuke, gainera, bihotzaren zokorik ezkutuenean ere zinetan nahi ote zuen zenbait erresumatan nagusitu den irudiko iraultzarik.

Ez dut uste pentsakizun alferra izan daitekeenik guretzat Txilekoa. Kristau ugari omen dugu geure artean; demokrata ugari ere bai, diotenez. Ez da premiazko, baina kristau dena eta demokrata dena, kristau-demokrata izan daiteke, gutienez. Eta galdera hauxe da, han eta hemen: kristautasuna eta demokrazia, bandera eder ho-

riek, ez ote darabiltzagu klase interesen estalki eta zerbitzuko? Treveristarrak ez baitzituen klase interesak asmatu eta irudimenetik atera: bere —eta gure— inguruan aurkitu zituen.

Zenbaitek, inoiz, klase interes horiek mendera ditzake eta beste xede batzuen —ene ustez, goragoko izan daitezkeen xede batzuen— mirabe bihur: diodanaren frogak irispidean ditugu, gehiegizko bilaketetan hasi gabe. Guk ere —zuk eta nik, alegia— egingo ote genuke beste horrenbeste? Zeurorrek nahi duzuna hauta dezakezu. Nik, banderarik behar banu, nahiago nuke Allende hilarena eskuetan Frei biziarena baino.

20

«DAMA BATEK JARTZIA ORRENBESTE LEGE...»

Badirudi, irudikorregia ez banaiz, kargu hartzen datorkidala Amale, non eta *Agur*-en, bere aitaz esan nituen zenbait gauza direla medio. Egia da, bai, erdaraz eta Ugalderen bitartez, eta ez naiz Mikel Ugalde baketsu eta bakegileaz ari, mintzatua naizela oraingoan. Lehenago, ez hain aspaldi, horrelatsuko zerbait idatzia nuen euskaraz. *H*-dun euskaraz, ordea, eta Amalek ez bide ditu *h*-dun euskarazkoak irakurtzen, *h*-dun erdarazkoak nahiago dituelarik.

Ezinbestean esan nituen orduan, eta ezinbestean esaten ditut berriz. Ebanjelioan agindua dagoen legez jokatu zuen Luzearrek: «hark ilkhi eraziten du bere iguzkia gaixtoén eta onén gainera, eta igorten du uria iustoén eta iniustoén gainera», Leizarragak itzuli zuenaren arabera. Inoiz edo behin, gaiztoak ere esker oneko izan gaitezke, eta nik ez nuen gaitzerupean gorde nahi, bekatu larrien barkagarri, Amaleren aitagana dudan zorra.

Bestek ez dakit beste horrenbeste egin duen. Ikus, adibidez, Auñamendiren *Enciclopedia general*..., B, III, 295 eta hurrengoetan, Luzearri buruz datorren berria.[a] Begien bistan da zerbait, eta zerbait baino gehiago ere bai, falta dela hor. Esate baterako, *El Día*-ko «euskal orriaren» zuzendari izan zela urtea joan eta urtea etorri, egunkari horretan argitara zuela Dickensen *Christmas Carol* euskaraz, eta gainerakoak. Ez da aipatzen *Eusko-deya*-n bestetan idatzi zuenik. Ez da ere agertzen nik 1960an esaten nuenez frankok ezagutzen duen

---

Zeruko argia, 1974-X-6, 3; *MEIG* VIII, 31.-33. or.; *EN* 437.-439. or.; *GA* 375.-377. or.

[a] *Literatura,* Donostia 1968.

argitara gabe dagoen argitara gaberik. Ez da inolaz ere harritzeko Auñamendikoak horrelakoez ez oroitzea; harritzekoago da familiak ez oroitaraztea. Onek eta etxekoek egin ez dutena, beraz, gaiztoek eta arrotzek egin beharko.

Integrismo delakoa gorabehera, eta horrelako gaietan nork bere iritziak ditu, ezin erantzun dezaket, gertakizun zitezkeenen ezagueraarik ez dudanez gero, Amalek egiten didan galdera. Ez dakit, egia esan, zer pentsatuko lukeen Luzearrek ene geroko jokabideaz. Ezta ere, gogoan dudana osorik aitortu behar badut, zer irudituko litzaiokeen bere alabarena.

Ditudan bideak eta adiskideak egozten dizkit honek, lotsatuko naizelakoan. Hemen ere, oker ez banabil, ez darabil euskara behar lukeen bezain zehazki, ene erdarazko zenbait itzultzean bezalaxe. Lagunak, euskaraz, ez dira nahi eta ez adiskide, eta adiskideak, batez ere politika arloan, ez dira lagun nahi eta ez. Eta hor ez da Amale adiskideez ari, nork bere adiskideak hautatzen baititu, lagunez baizik.

Ba, orduko eta geroxeagoko lagunez —Burgoskoez, Burgos baino lehenagokoez eta are Luzear hil zen garaikoez— zerbait jakin nahi baldin badu, mundu osoak dakiena, edo jakin behar lukeena bederen, esango diot. Hark eta nik genituen lagunak ñabar xamarrak ziren: Astigarrabia eta Paulino Gómez, besteak beste. Eta nik lagun banituen, Amaleren aita eta honen kideen erabakiz eta aginduz nituen lagun.

«Pintar como querer» esan ohi dute erdaraz. Eta badirudi, oroitezaren podorioz, geure arestiko kondaira aldatu beharrean gabiltzala. Horrek, ordea, ez du aldatzerik, gertatu dena desgertaraziko duen mutilik nahiz neskarik ez baita jaio. Kondaira hori, alde batetik, guk egin genuen, onerako edo gaitzerako; ez bestetik ibili ziren Artetxek eta Artetxeren lagunek. Luzearrek eta Luzearren aldamenekoek egin zuten, nik ere hartan parte nuela, beste askoren artean. Eta ez dut sekula esan ez esango erakutsi zidaten bidea gogo gaiztoz hartu nuenik.

Honi datxekiola, hitz bi eskaini nahi nizkioke, guztizko begiramenez, Aita Yurreri «guda galdu ta gero» gertatuei buruz. Gerra galdu zutenak, baldin hitzek indarrik badute, galduan gerra egin zutenak dira. Bestela esan, galduan gerra egin genuenok eta ez, esate baterako,

> bailiak eta soñu ederrak
> engañaturik,

bestetara jo zutenak, Bizkaira beharrean. Erantzunbehar hori, oso-osorik, gure bizkar dago, eta geure bizkarrean nahi dugu eduki, ez beste inorenean. Nahi dutena diotela zenbaitek aspaldidanik ezagun dugun Ramos Oliveirak, geroko Talón eta Paynek, eta ahoa oraindik aski zabaldu ez duen Elortzak. Orobat begien aurrean daukatena ukatzeko prest ditugun geure arteko nahastekariek. Ahalkeizun nahiz ohoragarri, egin zirenak egin ziren, eta egin zirenen ondorioa ez dute geroko urteek deuseztatu.

21

«GIZONA ABILLA DA, BADU PANTASIYA»

Lehengo batean (1974-X-6) hemen bertan ikusi dudanez, Xabier Lete argiak irakurri du Paynek argitara berri duen liburua. Eta, betaurrekorik gabe irakurri duelako beharbada, somatu du zerbait: Payne, nolabait esan, ez dagoela aipatzen duen jende eta uste askoren alde. Beste zenbait jende eta usteren alde dagoela, beraz, nahi badu eta ez badu. Igarri egin dio agian, somatu beharrean, Minervaren kuttunek berezko duten goi-arnasa eta sentikoitasuna dela medio. Ez du behintzat beste horrenbeste ikusi gai horretan dugun (baldin mintzatzeko modu honetaz balia banaiteke) espezialistarik trebeenak, *Triunfo*-n atera duen kritika hartzen badugu lekuko. Ez du ikusi nahi izan, alegia, hitzaurregilea, autorea ez ezik, hodei aski beldurgarriz inguratua agertzen baita. Behialako frantsesen hura, «Gerra gazteluei, bakea etxolei», gehiegik hartzen du orain alderantziz.

Hegaldaka mugitzen ez dakigun kultur burokratek (eta oroituko da Lete palankaren hoskide den Salamancan izan genuen berriketaldiaz) pilaturik dauzkagun txarteletara jo ohi dugu horrelakoetan. Zulatu gabeak dira, damurik, ez baitugu artean eskulanaren mailatik gora geure burua altxatzeko modurik aurkitu.

Letek Ameriketako Estatu Batuetako unibertsitarien eredutzat hartu bide du Payne, edota horien eklektizismo dotorearen eredutzat. Nik, hango zenbait ezagutzen dudalarik, ez dut hori uste. Payne bera ere ezagutu dut (berak egin zidan bixita, ez nintzaion ni agertu), eta ez zitzaidan sakona iruditu. Are gutiago eklektikoa. Berak ongi daki non dagoen, eta bestek ere behar luke hori jakin.

Zeruko argia 1974-XI-3, 3; *MEIG* VIII, 33.-36. or.

Gizarte klaseak aipatzen ditu han-hemenka, hala nola «clase media baja»-ko errepublikano gizagaixoak, baina edergarri gisa sartu ditu horrelakoak, daraman kontaketa narras-gogaikarria piskaren bat jantzi eta arintzekotan. Baztertu izan balitu, Letek ederki dioenez, ez zukeen horrenbeste lan «azaltzeko» zergatik eta nola,

zortzi konpitero ta
sei botikariyo

noizpait bildu zirelako (eta zenbait pastelero ere bai, dirudienez), oraindik itzali ez diren sugarrak biztu ziren inguru hauetan.

Darabilen auziaren muina ez da, azken buruan, Espainiako gerratea besterik: gerratea eta gerratearen aitzin-gibelekoak. Eta ez dira gehiegi auzi horretan batera ala bestera («objektiboki» diot, don Karlosen arabera) makurtzen ez direnak. Payne, berriz, alde batera zerraldo eroria ageri zaigu, makurtua ez ezik. Ez dabiltza urruti elkarri laztan eta apaka, paixanoak besterik ez izendatzeko, Talón (ikus, adibidez, «Gernikaren mitoari» buruz behe aldean dakarren ohar polita), Carlos Seco eta, noski baino noskiago, Ricardo de la Cierva. Ez da nabari, «Orbegozo Fittings, SA»-ren irudiko izena merezi lukeen samalda horretan, nor den noren zerbitzari. Elkarren lehian ari dira, behar bada, nork nori lagunduko. Calvo Serer sonatua izan zuten aitzindari lan horretan, Marrero zuela lagun. Bai, entzuten direnak sinetsi behar badira, infernurako bidean behera gero amildu zaigun Errapel.

Historialari ezagunen aldamenean Paynez jaso ditudanak ez dira orain arte goresmenak izan. Bi letra daramatza deituraren aurretik eta beste hiru, konpainia on batean omen dabilelako, agertu behar lituzke ondotik, baten batek aho betean dioenez. Nolanahi ere den, argi eta garbi salatzen du, zaharretan eta berrietan, bere Wisconsingo *Alma mater* horrekin baino lotuago dagoela State Department delakoarekin. Lotuago nahi lukeela egon, bederen.

Herri ttikien ezinegona ez du gogoko, eta nekerik gabe ikusten da zergatik. Horiek ez dira huskeriak baizik; are gehiago, amerikanoen *Weltpolitik* ongarriarentzat (hitzari hel biezaio irakurleak nahi duen giderretik) traba eta estakuru diren huskeriak. Hondarreraino bagatoz, gainera, hona zer esplikatu behar duen, ezarian bezala. Zer-nolatan amerikanoek, Gettysburgeko hitzaldiaz ahazturik (hitzak ederrak, bihotza faltso), etsai zituztelakoen alde jokatu duten etengabe, ahal bezainbat lagundu zietenak zapaldurik. Hor ari da, bada, eta hori ez da itsasora urketan ibiltzea, belea baino beltzagoak

nondik zurituko dituen, bere nagusiak bidenabar zurituko dituelakoan. Eta, hori eskuineko eskuaz egiten duen bitartean, ezkerra ere badarabil, gehienez ere arroxa koloreko direnak gorriz tindatzen.

Ez dirudi, haatik, egiteko larri horietan erabat bere gogoz leporaino murgildu denik, bere eta besteren dirugoseak bortxaturik baizik. Batere zalantzarik gabe esan zidanez, behintzat, 1939an bukatzen zuen kondaira. Ingelesez Nevadan nola agertzen den ikusi beharko orain.

Gezurretan ari bazen ere, ez da harritzeko. Liburuari bagagozkio, nabari da, hain nabari ere,

> txoruak engañatzen
> ordukoz asiya

genuela. Hor dugu, lekukorik behar balitz, argitara gabe dauden oroitzapenak (bereak ala besterenak?) eskaini dizkiona, esate baterako, inoren bitartekotasuna dela bide, eta izenak aitortzen ez da Payne zeken agertu. Zozokeriek, diodan bidenabar, maiz dituzte hain zozoak ez diren arrazoiak. «Interesatuak», Markesaren alaba bezala.

Dena den, bere kabuz eta besteren laguntzaz, gure historialari bizkor bezain zintzoak, «puntadatxoak» han-hemen sartzeaz gainera, lohia eskua bete zabaltzeko modua izan du, eta lohia baino kiratsagorik ere bai. Dagokidan aldetik, esker oneko agertu nahi nuke nik ere, orain eta gero. Eta ez dut uste Avignongo Aita Sanduaren mandoa baino ahazkorrago naizenik.

Beste aldetik, beste muturretik alegia, eskerrak eman nahi nizkioke Leteri, aitaren seme delako edo —ni bezala, ez konpitero, ez botikario, ez pastelero ez zen aitaren seme—, zaharreriari agertu dion begiramenagatik.

Eta, azkenik, Armendaritz adiskideari eskaini nahi nioke, krabelin sorta bailitzan, liburu honen 248. plaman aurki dezakeen pasarte egoki bat, harako bere ipuin ospetsu hura biribil dezan. Zilegi dela dirudi, gezur biribilik bota gabe nor bere opilari ikatza arrimatzen saiatzea. Ageri denez, ordea, horrek ematen dizkigu lanak. Ikatza, nahiz Asturiaskoa izan, beti da ikatz. Opilak, berriz, ezin konta ahala izaki eta, ezin konta ahal daitezkeenen artean, nola hauta geurea? Hauxe behintzat bistan dagoela deritzat: gurea ez dela besterena eta besterena ez dela gurea. Kontuzago pentsatu behar genuke, bada, opila non dagoen eta ikatza nora daramagun. Eta garaiz, gainera, geure buruari harrika hasi baino lehen.

22

«BEGIARMEN», *SEI IDAZLE PLAZARA,* ARANTZAZU 1974

Torrealday adiskideak, *Anaitasuna*-ren izenean, egin didan eska- 8
bideari erantzun nahi nioke hutsarte batez baliaturik, gerorako utzi gabe, gero horrek ez bailuke epe jakinik izango. Ikusi berria dut, gaingiroki bederen, «Begiarmen delakoaren» liburua, eta liburu horretaz, dagokidan aldetik, mintzatu behar omen nuke. Lehen hitzak, beraz, eskerrak emateko izan bitez, bai X horri (herensugeak

---

Anaitasuna 1975-I-15, 8-9; *MEIG* VIII, 39.-42. or.; *EN* 441.-444. or.; *GA* 379.-382. or. [Argitaratzaileen oharra. Artikulu hau honako liburu honi egindako erantzuna da: «Begiarmen», *Sei idazle plazara. 1. Mitxelena, Aresti, Larresoro,* Oñati, Jakin, 1974. Erantzuna *Anaitasuna* aldizkariak eskatua zen; izan ere, aipatu aleko 8. orrialdean lerro hauek irakur daitezke: «Mitxelena, Aresti eta Larresoro lankideok! / 'Begiarmen' delakoak egina eta "Jakin" argitaldariak aterea, oraintxe ari da jendea *Sei idazle plazara* liburua hartzen. Dakikezuenez, lehen liburuki hau zuoi hiruroi buruzkoa da. / Kulturgintzan gizarte eragipena izan duzuelako batipat izan zarete aztertuak, oker ez banago. Eta, zuek gaitzat eta aitzakitzat harturik, zuen inguruan Euskal Herrian bizi bizirik dagoen ideia eta joera asko da aztertua edo ukitua liburu horretan. / *Anaitasuna* aldizkariak jakin nahi lukeena da ea zuetako bakoitzak berari buruzko lanaz zer pentsatzen duen. Halegia, zuen zeuon eritziz egokiro aztertuak izan zareten ala ez, zuei buruzko azterketa hori zertan den zuzen eta zertan oker, ongi interpretatuak eta epaituak izan zareten ala ez. Hitz batez, egin zaizuen azterketa kritiko horretaz zer eritzi duzuen. / Ez dizuet inkesta bat egiten, ez dizuet entrebista bat egiten. / Artikulutxo bana egin dezazuela eskatzen dizuet. Bakoitzari horrialde bana eskaintzen diot horretarako (hau da, idazmakinaz 90 lerro, ez gehiago!). / Liburugileari ere, zuen ondoren, beste ale batetan, lekua eskainiko diogu, azken esplikapenak eman ditzan. Eta horrekin bukatuko litzateke gurea. / Lehen bai lehen erantzutea eskertuko nizueke. Zuenaren zain, ez adiorik, / Joan Mari Torrealday»].

baino buru gehiago ditu apika) eta bai *Anaitasuna*-koei, horren konpainia ederrean atera nahi nautelako plazara.

Zenbait puntu nagusiri dagozkien ohar batzuk agertuko ditut hemen. Eta ea, «nitanoz» mintzatu behar badut ere, neure burua edertzeko grinari amore larregirik ematen ez diodan.

Ez dut uste, lehendabizikoz, hizkuntza eta hizkuntzalaritza kontuan, Larresoro eta bion iritzien arteko desberdintasuna behar bezain nabarmen azaltzen denik. Funtsean bat gatoz: hura eta ni, alegia, etsirik gaude euskara ez dugula bertan behera gupidarik gabe utz dezakegun huskeria. Nik, ordea, ez dut sinesten hizkuntza eta pentsamoldea elkarri hark uste duen neurrian loturik dabiltzanik, behin eta berriro aditzera eman dudanez. Nolabait ere, gure K-engandik hurbilago ikusten dut neure burua gai horretan, erdaraz esan berria dudanez.

Ez naiz sekula, bigarrengoz, estrukturalistegia izan. Kutsu hori ezinbestean hartu nuenean, gainera, Trubetzkoi, Jakobson eta Martinetengandik hartu nuen, ez Barthes, Lacan, Foucault eta horien gisakoengandik. Lévi-Strauss, bai, erabili izan dut noizbehinka, besterik zelakoan. Dena den, Larresorok baino gogokoago dut eta izan dut Chomsky. Ni naiz agian honen ideiak Espainian (liburua, badaezpada ere diot, Salamancan agertu zen) lehen aldiz aipatu dituena. Geroztik ez naiz isildu.

Chomskygana dudan isuria bezain garbi dago (zozpalak dirudi bere egurra, eta egurrak bere ezkurra) harako «neo» horienganakoa. Ez dut, haatik, hautapen zorrotzik egin, neure lanbiderako izan ezik, «filosofiaren eta zientziaren arteko muga ilunetan», eta ez dut inondik ere pentsatzen estrukturalismoa izan daitekeenik sugerik gabeko «zientziazko paradisua». Ez dut sekula izan (eta nola arraio izan nezakeen?) «soziologia matematika hutsarekin saltsatzeko» gogorik ez asmorik. Are gehiago, ezin onar dezaket hemen, besteren ahotan, ageri den harako iritzi hura: «giza-zientzien metodua ezin izan daiteke zientzia positibuen egitura berekoa». Ze arraio izan daiteke, bada? Ezaren bizkar, lamien gisa, bizi den zera?

Niri, egia esan, Popper atseginago zait Adorno baino. Hori ez da iritzi bat baizik, baina, bataren eta bestearen iritzien gainetik, badirudi badela gure artean, Mendebaleko mundu honek XVI-XVII. mendeetan biribildu zuen lehen iraultzari buruz, halako nahas-mahas orapilaturen bat: Galileo aurrekoa, ez da Orixe bakarra izan gurean. Baina hobe genuke, hemen ez dugun soseguz eta patxadaz, elkarrizketa lu-

zeren bat egiteko bidea aurkituko bagenu beste aldi batean, honetaz eta hartaz.

Barojarenak, esan zituen bezala jaso genituen *Egan*-en, ezezkorik ez baiezkorik erantsi gabe. Bistan da, gainera, agertu izan dudan Barojazaletasuna ez dagoela iritzi horietan finkatua. Eta Baroja aipatuz geroz, berez dator euskarak gure artean behar lukeen lekuaren auzia. Bizirik irauteko adinbat den leku opa diogu, gutienez, baina hori aitortzea ez da aski, X-ek, Aita Mokoroak eta nik ipiniko genituzkeen mugak ez baitira berdinak zabal-meharrean.

Gure hizkuntza opa diogunaz osorik jabetuko balitz ere, ez lituzke erdarak erabat baztertuko: erdarez ari naiz (hona, aldamenean, frogatxo bat), eta ez erdaraz. Ez dituzte behinik behin baztertu gu baino larriago, aberatsago eta ikasiago diren inguruko eta urrutikoek. Soziologoek bederen aise uler dezakete zergatik idazten dugun erdaraz maiz aski, zenbait egokieratan erdaraz mintzatzen garen bezalaxe. Hona sarri aski ahotan erabilia izan den kasu bat. Zorioneko *Zenbait hitzaldi* horiek ez nituen nik erdaraz idatzi. Egin, erdaraz egin nituen, hala eskatu zidatelako, nahiz ondoko elkarrizketak erdaraz eta euskaraz izan ziren. Neure kabuz, ez nituen sekula argitarako, ez erdaraz ez euskaraz. Ez nien, ordea, eskatu zidaten baimenik ukatu. Letamendiari esker agertu ziren. Neronek ere, halaz guztiz, hartu nuen lanik aski, ez inoren itzulpena orrazten, baizik eta trakeski esanak zertxobait osatzen eta zuzentzen.

Don Karlosek, diodan bidenabar, bere libururik mardulena, lodiena ere ez bada, euskaraz argitara izan balu, ez zukeen mundua 9
iharrosiko. Bestela esan, geroxeago iharrosiko zukeen, hizkuntza hedatuagoren batera irauli ondoan, alegia. Horrela ez balitz, H. Klossen bosgarren eta gorengo mailan geundeke, oker ez banabil. Maila horretara, eta hemen zuzen nabil zorigaiztoz, ez gara oraindik heldu.

Badirudi, belaunaldiak direla eta ez direla, X-ek nonbait (ez dut orain pasartea aurkitzen) Ortegaren segiziokotzat hartu nauela, eta ez naiz larriki poztu, horren kulturalismoa gogaikarri (ez dut gogorragorik esan nahi) izan baitzait beti. Besterik da hor eta bestetan esan dudana edo esan nahi nuena: badugula, aspaldidanik, gure artean harako Nafarroan genuen «osin hondargabe» haren antzeko zerbait, eta osin hori komunikabiderik ezak zabaldu eta sakondu duela. Gazteagoek, eta ez dira hain gazte, ez dakite gure berri (ez ote dut, bada, oraindik orain irakurri Pikabea Donostiatik *ihesi* joan zela?), eta zaharragoek ez dugu gazteagoen berririk ere jakin nahi, esaten eta egiten dutena okerreko aldetik hartzeko ez baldin bada.

Badakigu, noski, nondik datorren elkar ezin aditu hori. Batzuengandik besteenganako bideak eta zubiak zabaltzen saiatu behar genuke. «Ori desio nuke nik», behintzat.

«Eztabaidan, haserre» agertzen omen naiz, azkenik, eta ez noa ukatzera: «agure haserreen» belaunaldikoa naiz eta badugu haserrebiderik gainezka. Gaizki esanak barka, mesedez. Diodan, halaz guztiz, nik ez nuela deus, orain ere ez dudan bezala, Haranburu Altunaren kontra: «burges» hitza eta gogoeta noraino heda zitezkeen zen auziaren muina, oker ez banabil, eta ez dakit egoki ala desegoki hartu nuen. Aresti ere mintzatu zen gero horretaz, eta ez ene iritzien alde. Halaz ere, uste dut zuzenkiago nenbilela ni *ad mentem diui Caroli,* auzi horri dagokionez.

Hori dela bide, zenbait kontseilu on ematen dizkit gure X-ek: ez omen nuke, batik bat, auzirik horrela «pertsonalizatu» behar. Edota, «jeniyo txar oyek utzi, bestela ezurrak autsi».

Hartu nuen, bada, asmo sendoa, lege zaharrekoek agintzen zigutenez, gerorako gizalegea nola behar den, berandu bederen, ikasteko. Eta asmoak iraun du liburuaren azken burukoa irakurri dudan arte. Hor sortu zaizkit duda-mudak. Nik, dakidalarik behintzat, ez dut inoiz inork inoren mirabeari ordaintzen dion soldatarik aipatu. Eta beldur naiz, ni ere horrela abiatzen baldin banaiz, ez ote dudan fin gaizto egingo.

«Egiazko arazoak», zinetakoak eta benetakoak, ez omen ditut aztertu. Horrela bada, eta horrela da beharbada, lanbideak bestetara ninderamalako gertatu da, segur aski. Ez dut uste, ordea, galderen itzuri gehiegi ibili naizenik. Hemen bertan emango nituzke zenbait erantzun, lekurik ezak bortxaturik ez banenbil. Beude, beraz, hurrengo hizketaldirako.

23

DESDE SALAMANCA...

Me parece un claro acierto de la dirección colectiva de *Oarso* el haber tomado como tema central para este año el problema de la Universidad entre nosotros. Y no porque yo tenga algo que ver con esa institución. Más bien soy profesor universitario porque comprendí hace ya tiempo lo que nos iba en ello. El momento actual, por razones demasiado conocidas, puede no ser (¿o sí?) el más adecuado para discutirlo, pero siempre es tiempo de tratar de lo que es apremiante. 59

Cuando hablo aquí de Universidad, lo advierto de antemano, hablo siempre de la Universidad oficial. No tengo deseo ni intención de menospreciar la actividad de otros centros: tengo en ese punto la conciencia tranquila, ya que conozco directamente su labor a la que he prestado mi pequeña ayuda, siempre que me ha sido pedida. A mi entender, sin embargo, no bastan, aunque crezcan y se multipliquen, para colmar nuestro vacío. En otras palabras, aunque la Universidad estatal no sea un ideal en el reino de la pura posibilidad, sí es lo mejor a que podemos y debemos aspirar en el mundo real de hoy y del mañana inmediato. 60

Distintas circunstancias hacen que ese deseo no alcance aquí más que a unos cuantos. Demasiados lo toman, por una especie de desgana, como una cuestión bizantina que sólo puede interesar a unos pocos *letradus* o *sasi-letradus,* de acuerdo con la idea, fomentada por muchos, de que lo cultural es una especie de lujo, sin raíces en la vida diaria, superfluo siempre y acaso pernicioso. Y, por si al-

---

Oarso 1975, 59-61.

guien se deja llevar más lejos por la suspicacia, añadiré que quienes vivimos de cantidades presupuestadas venimos a ganar lo mismo en Salamanca que en San Sebastián. Dejados aparte nosotros y otros cuantos, es a la gente en general a la que la falta de Universidad le cuesta y va a costarle buenas sumas de dinero propio.

Creo que en el desinterés interviene una cierta conciencia de superioridad: el orgullo por esto o por aquello no es, desde luego, exclusiva nuestra. Basándonos en que nuestro nivel general de instrucción es más alto que el de algunas otras partes (no hay más que pensar en la proporción de obreros especializados, de técnicos, de administrativos y directivos), concluimos que nuestro nivel cultural a secas es más elevado. Pero esta inferencia es ilegítima, porque en el mundo del saber y de la cultura es el escalón más alto el que condiciona y configura los demás, y ese escalón es el que en las sociedades actuales, sean del color que sean, va inseparablemente unido a la Universidad. Y ahí es donde andamos cojos, mucho más que otros. Y lo malo no está en que cojeemos, sino en que no lleguemos a darnos cuenta de nuestra cojera.

Cuando se trata de la Universidad, además, siempre nos empeñamos en pedir gollerías. Ya la de Oñate *tenía* que ser algo distinto y, como no entraba así en la nueva ordenación, desapareció; esto siguió sucediendo en tiempos de la Sociedad de Estudios Vascos, y se repite hoy, día tras día. No queremos una Facultad de Ciencias corriente y moliente, sino una de Petroquímica, altamente especializada. Siento disentir de la muy competente opinión de buenos amigos, pero me parece que salta a la vista que necesitamos exactamente lo contrario: sólo una base general, por modesta que parezca, hace posible la especialización. Tampoco creo en la incidencia inmediata de la formación universitaria sobre la economía del país. De ser eso cierto, Salamanca tendría que ser un emporio de la industria química, y es manifiesto que no lo es.

Lo que nos hace falta, insisto, es una Universidad a secas, con Facultades que tengan la titulación más amplia posible. Lo que salga después es, en parte, cosa nuestra. Las Universidades de Barcelona no son como las de Madrid, ni éstas como la de Salamanca. El ambiente en que viven las ha hecho, en buena medida, lo que son.

La enseñanza en un país tiene que ser un mecanismo autorreproductor, ya que necesita nuevo material para suplir el que con el tiempo se desgasta. Por eso mismo quizá, tiene una organización estratificada y jerarquizada: la gente que trabaja en niveles más bajos

—que son, sin embargo, los más importantes— recibe más arriba su formación. Y los de arriba intervienen además en la designación de las personas que van a prestar sus servicios en escalones inferiores, sin que nunca se dé el caso inverso.

Esto viene a cuento, creo, en lo que toca a nuestros universitarios y similares. Los de mi edad hemos conocido una larga época en que sólo los hijos de personas pudientes —que estaban lejos de ser, por lo general, muy pudientes— podían seguir una carrera. Por otra parte, y esto es lo que importa, la carrera universitaria se cursaba, con escasas excepciones, en una Escuela técnica (ingenieros y arquitectos), en Medicina o en Derecho.

Ahora bien, cuando yo visitaba Salamanca como las golondrinas o las cigüeñas, Fernando Lázaro, decano entonces de nuestra Facultad, me explicó algo que, tal vez porque salte a la vista, me habría costado descubrir: que Derecho va con Medicina, mientras que Letras —extraño maridaje— va con Ciencias. Y es así porque, salvo raras excepciones, los primeros tienen como salida principal el ejercicio privado de su profesión, con un puesto universitario («catedrático de...», etc.) como trampolín publicitario, al revés de los segundos que viven normalmente de la enseñanza y tienen que publicar por añadidura para mantener o mejorar su imagen pública. Dicho de otra manera, son «intelectuales» porque no les queda más remedio.

Esto ha cambiado hoy, y basta mirar alrededor, puesto que son legión los que entre nosotros siguen o han terminado carreras de Ciencias o de Letras. Hay que contar, pues, con la presencia de un proletariado de la enseñanza, abundante ya y que va a crecer en los años próximos. Y, ¿dónde van a colocarse? Bastantes, sin duda, en la enseñanza privada, tarea que no voy a depreciar puesto que en ella he trabajado mucho tiempo. Ahora bien, el porvenir que les espera no es demasiado tentador (no mucho más tentador, en todo caso, que el que se ofrece a un obrero no calificado), a no ser que, aparte de ser unos profesores tolerables, posean cualidades de empresario y les acompañe la fortuna para montar un tinglado por su cuenta, con lo que quedarán condenados como patronos a explotar a sus colegas menos avisados.

Pueden, sin duda, opositar. Pero es que a nosotros, se dice y se repite, no nos gusta hacer oposiciones. A nadie, añado yo que las he hecho dos veces, le agrada pasar por una oposición, como a nadie le agrada demasiado descargar vagones, cosa que yo he hecho tam-

bién. Eso se hace no porque a uno le guste hacerlo, sino porque uno tiene que hacerlo.

Entonces, si hay que opositar, la situación del aspirante está dada ya de antemano: o se está en el circuito o no se está. Me explicaré. Por la estratificación ya comentada, los de arriba pueden y suelen estar en los tribunales que van a proponer a los de abajo. Quien haya seguido los cursos de una Universidad oficial tiene la esperanza razonable de que, en ese tribunal o en el siguiente, esté presente alguno de sus maestros. Y éste, cosa natural, no va a juzgarle sólo por una actuación ocasional, sujeta a tantas variables. Alegará en su favor, por ejemplo, que tiene un buen expediente académico. El opositor sin padrino conocido (así el que ha estudiado en ciertas Universidades no oficiales), por el contrario, no llegará a sacar un puesto, hacia la cola, más que si cuenta con una inteligencia próxima al genio o si es un empollón que se lo ha tragado todo. De no ser así, pienso, seguirá como estaba.

Cuando se habla de que la falta de Universidad cuesta dinero a la familia porque los hijos tienen que pasar años lejos de casa, etc., no creo que se saquen bien todas las cuentas. En una Universidad oficial, un estudiante digamos aceptable tiene a menudo la oportunidad, retribuida sin un trabajo abrumador, de quedarse en ella después de acabar la licenciatura, en los años decisivos de su formación. Como becario, ayudante, etc., tiene a mano abundantes elementos materiales y dirección calificada para hacer el doctorado o para preparar, si lo prefiere, unas oposiciones a puestos no universitarios. Siendo ya doctor, puede naturalmente pensar en opositar para la Universidad, no sin apoyo al otro lado de la barrera.

61 Siendo esto así, y es así, uno se pregunta por la razón de la desgana que nos domina. Una de las causas, y acaso la primera, está en que lo referente a este problema parece ser, de hecho, materia reservada en los medios de difusión que llegan al gran público: hablo de los diarios, ya que no contamos, si no me equivoco, con semanarios, salvo en lengua vasca, de que valga la pena hablar. Como es natural, ese tabú nace de intereses privados bien conocidos que, por eso mismo, no cabe designar por su nombre. Diré, por limitarme a aludir, que somos pocos los que conocemos la labor desinteresada e infatigable de unos pocos cuya gestión, cuando llegó a ser molesta, fue anegada desde dentro, por una infiltración inevitable de «natos». Esos pocos iniciados saben, y lo advierto para que nadie se deje llevar por la primera sospecha, que el señor Valencia Remón

se distinguió por sus esfuerzos para conseguir que San Sebastián tuviera su primera Facultad, que no es precisamente la que luego ha sido la primera.

Además de los intereses particulares y de grupos, tan eficazmente apoyados por la voz silenciosa de la prensa guipuzcoana, habría que mencionar el hecho de que la Universidad de Valladolid, tomando como fundamento un reparto feudal del territorio que se hizo hace años, no parece dispuesta a aceptar la inevitable prescripción de sus privilegios, como de hecho la ha aceptado Salamanca, por ejemplo. Así, por no quererlo los «nuestros» o porque otros se oponían, apenas nos ha tocado nada en la pedrea de centros universitarios, necesaria aunque realizada de forma un tanto alocada, a que hemos asistido y seguimos asistiendo. Todos sabemos lo de San Sebastián. Bilbao tiene su Universidad, sobre el papel, pero carece de distrito, si no me equivoco, así como también de un par de Facultades, por lo menos.

Se ha hablado y se habla de nuestra situación privilegiada; no se habla, en cambio, de las contrapartidas evidentes. Así, se silencia la clara dependencia que padecemos, por culpas propias o ajenas, en el terreno cultural. No se trata de cerrar la puerta a nadie; se aspira, simplemente, a que los de casa puedan al menos encontrar en ella un modesto rincón. Y, sin Universidad, no tendremos voz propia ni en la EGB, con inclusión de las ikastolas, ni en el BUP, ni en parte alguna donde se determine la orientación de la enseñanza o la adjudicación de puestos de trabajo para graduados.

Se habrá echado de ver, por último, que he venido hablando de «nosotros» en vez de hablar de «guipuzcoanos». La más mínima franqueza exige, en efecto, que se señale que Guipúzcoa, con su personalidad propia, ha sido y es parte, porque así lo quieren los guipuzcoanos, de una entidad más amplia, no sólo geográfica (como ese pintoresco «Norte» a que algunos recurren a título de eufemismo), sino también cultural e histórico, por lo menos. País Vasco es uno de los nombres de esa entidad. Por ello, si no queremos caer en el pecado de insolidaridad de que nos ha acusado Azaola, a la vez que se incluía entre los acusados, debemos hablar de Universidad para el País Vasco, algo que todavía está en mantillas aunque esto sea increíble, y no asépticamente de Universidad para Guipúzcoa. Habrá, pues, que coordinar las iniciativas y no perdernos, para hacer como que se hace, en proyectos aislados que lindan con la megalomanía. De esto sobran ejemplos antiguos, recientes y aun recentísimos.

24

«JAIOKO DIRA BERRIAK»

Esker onez eta beldur gaiztoz beterik agertzen naiz hemen gure hizkuntzaren egoeraz, oraingoaz eta azken berrogei urteotakoaz, mintzatzeko asmoz. Arreta apurren bat merezi luke gaiak, oraina etorkizun dugun geroaren agergarri izan daitekeen aldetik batik bat. Egoki da eta zuzen, bada, horren ingurukoak *Deia*-n tratatzea, oraindik jaioberria delarik: makur bakarra, hutsaren hurrengoa, hiztuna ni izatetik letorke. Gaia berez hain limuria izateaz gainera, bai baitut halako susmo bat badela bazterretan, ugarixko agian, begi zorrotzez eta bekosko ilunez begira daukadanik, noiz laprast egingo ote dudan. Azterketa librearen izarrak bildu omen gaitu, ordea, bertatik eta urrutitik, *Deia*-ren inguruan, eta horrexek lasatzen dit barrena. Argi hori bekit, beraz, balia.

Kontaketan abiatuko banintz, konta nezake zein izan den euskararen zoria gure Euskal Herrian, 1936-1937 ondoan, non lehentxeago non beranduxeago hasirik. Baina hori alferlana litzateke, eta zauriaren gainean pikoa: nork ez du gure artean ezagutzen, arestian jaioa ez baldin bada, fazismoaren mutur beltza? Horrelatsu ari zaizkigu Espainiako presondegiak barrendik nolakoak diren erakuts beharrean dabiltzanak, hala nola, atzerrian, Alcázar de Velasco, «primerako» preso ezaguna eta, azken baina ez hutsen, Sánchez Covisa. Barka, Sánchez-Covisa, handikiei omen dagokien marratxoarekin.

Gerrateak, hots, gerra galtzeak (inork galdu bazuen, izan ere, gure hizkuntzak galdu baitzuen), ez zituen euskararen hots eta soi-

---

Deia 1977-VI-8, 2; *MEIG* VIII, 42.-47. or.; *EN* 461.-466. or.; *GA* 397.-401. or.

nua erabat mututu. Nolanahi ere, belarriek, erne zebiltzalarik, oraindik entzun bazezaketen, zeharo galdu zen begien bistatik. Galtzeko zelarik eta galtzera kondenatua, ez zuen jendaurrean moldezko ez bestelako letraz jantzirik agertzeko eskubiderik. Ezta hilerrietan ere, eta goizegi ahazturik gelditu den Genaro Riestra hartzen dut lekuko.

Eroriko hori gogorragoa izan zen, beharbada —edo, hobeki esan, gogorragoa iruditu zitzaigun—, gerraurreko urteetan, 1929-1930az geroz, euskal gaietan gorengo mailara, egundainoko erpinik erpinenera, helduak ginelako: horrela uste genuen, behintzat, orduko abertzale euskaltzaleok. Bai baitira, eta hau oso gogoan eduki behar genukeen puntua da, bai, alde batetik, abertzale ez diren euskaltzaleak, eta bestetik, eta batez ere, euskaltzale ez diren abertzaleak.

Gerra aurrekoan, egia da, galduan zebilen oraindik euskara: oraindik, artean bezala, jendea, euskaldun izan behar zuen jendea, galtzen zuen, belaunaldi berrietako jendea, eta jendearekin lurra, Nafarroan nik uste inon baino gehiago. Bestela esan, euskarari gertatzen zitzaiona ez zen orain gure artean edozein aldizkariri, astekari nahiz egunkariri, gerta dakiokeena baizik: galerak, egunetik egunera eta astetik astera, gailen agertzen zirela irabazien aldean, zorrak gehitu ahala dirutza urritzen zihoakigula. Ez ginen, ordea, larregi kezkatzen ez artegatzen, hutsaldi hori laster betetzekoa genuelakotan. Laster betetzekoa, esan beharrik ez, politika bideetan barrena. *Politique d'abord* izan zitekeen gure ikurritza (horrela esaten zen, nik uste, erdarazko «lema»), baita frantsesez ez genekienena ere. Barkakizun zela deritzat, halaz guztiz, gure gehiegizko seta, irudipen edo lilura baten fruitu zenez gero. Barkakizun zen, okerrenean ere, gaur egun barkakizun izango ez litzatekeen neurrian.

Ordurako, gainera, atzerakorik ez duen pausoa emana zegoen: asmoz emana, egitez ez bada ere, lasterrago baitabil beti gogoa begia baino. Urrats hori «Euskaltzaleak» bazkunak egin zuen, Aitzolen eskutik, bai, baina Lizardi zuela tronpetari. Aldakuntza hau da, noski, egungo ezker-eskuineko dialektikoek «nolakotasunean jauzia» dei lezaketena, eta barka biezadate bai Osak eta bai Iralaren segiziokoek nik hitzak, ezjakinaren poderioz, behar bezala erabiltzen ez baditut: ni, lege zaharrekoa izanik, harako San Tomas nahiz Quineren «ez (P eta ez P)» hari natxeko. Salto horrek, nolazpait esan, otxandiarraren «Ama Euskerearen azken agurrak»-etik honat harik eta tolosarraren «Eusko bidaztiarena»-raino garamatza edo gakartza.

Bide berrien bila agertu zitzaigun Lauaxeta («Euskaltzaleak»-en joerarekin zituen harremanez zerbait gehi dezaket neronek ere) eta giro berrien aitzindari bezala Lizardi: ez ziren lekuko izan, igarle baino urte luzeen buruan baizik mamituko ez ziren bide eta giro berrien igarle. Ernamuina han zegoen, ordea, gero inork asma zezakeen lehorte gogorrenaren erdian hozituko zen ernamuina.

Pentsa dezakegunez, igaroxe omen dugun berrogeizaro higuingarri honetan, mehartu egin dira euskararen mugak; bestetan, hilzeinua, arimezkila, joa dago, ez baita gelditzen 40-50 urtez beherakorik euskaraz behar adina dakienik. Erdarak, gainera, euskal barrutiaren mugaldeak marraskatu ez ezik, barrendik jaten ditu euskararen erraiak, eremu barruan bertan ere, hiri larrienetarik behera, erdara ageri baitzaigu gero eta nagusiago. Babesleku genituen baserria eta kostaldea ez dira aspaldidanik lehen ezagutu genituenak: izan ere, gu, hiritar edo kaletarrok, eta kaletar gara saltsa hauetan ibili garen gehienok, haien alde deus egiteko gauza izan ez garenez gero, ezin itxaron dezakegu haiek, bere ezerezean, gure interesen murru izatea.

Are gehiago. Azken aldiko uholdeak inoiz ikusi ez den adina erdaldun ekarri du gure artera, eta ez dira lehen bezala zenbait hiri eta eskualdetan gelditu: mendi muturrik ezkutueneraino sartu zaizkigu. Eta erdaldun diot, ez arrotz, jakinaren gainean. Hizkuntzaren aldetik, berdintsu baita, ez berdin, etxeko erdalduna eta erdaldun etorkia. Beste kontua da zer bide har dezaketen politikan bigarren gizaldiko etorkinek. Euskal Herriko hizkuntzaz jabetzen ez diren bitartean, objektiboki don Karlosek ziokeenez, ez da bereizkuntzarik, euskarari dagokionez, han-hemen jaiorikako erdaldun hutsen artean.

Badirudi, haatik, euskarazkoak, burua jasotzeko imintzioa egin zutenetik bertatik, lehengo mailatik gora abiatzekotan hasi zirela. Gerrateko urte larri haietan ikasi genuen, beharbada, beti edo maizenik erretiran dabilenak ez duela etsaia menderatzen. Luzaro gabe, Guatemalan ageri da gorago-behar hori, Zaitegik artean inoiz ikusi ez den bezalako euskara hutsezko aldizkaria sortu zuenean: sortu eta horrenbeste urtez iraunarazi. Orobat irakaskintzan, Donosti inguruan esaterako, Zipitria andereñoaren eraginez. Eta atzapar zapaltzailea pixkaren bat jaso orduko, hor agertu ziren, gero eta ugariago, euskal liburuak, aldizkariak eta, hauen artean, hamaboskari eta astekariak. Are gehiago eta gorago. Zenbait lagun saiatu zen, Rikardo Arregiren ondotik, irakurgaiak argitara ahala, irakurleak ere prestatzen, hots, alfabetatzen, oraingo hizkeran. Hauxe izan baita aspaldi-

daniko auhen eta deitore gehiegiren erroa. Irakurle ohitu eta trebatuarentzat, izan ere, dena da irakurterraz, baita Hegelen *Logika* ere. Irakurtzen (euskaraz irakurtzen) ikasi ez duenarentzat, berriz, dena da zail, nahiz Pernando Amezketarraren ateraldiak izan.

Euskaldunak ere ez datoz beti orain, lehen bezala, amaren sabeletik ondo ikasiak: maiz aski, eta ezinbestean, biberoiez haziak ditugu, Lizardik esango zukeen legez. Zorionean, gainera, oraingo idazle eta hizlaririk ezagunenen artean ez baitira eskas euskaldun berriak. Egia da, agian, ez direla euskaldun zahar eta betikoak bezain jatorki mintzatuko. Okerrenean ere, ordea, ukitu dituzte, eta ederki ukitu ere, euskaldun zaharrok, erabili ez ezik, aipatu ere ez genituen hamaika premiazko gai.

Badirudi, beraz, euskarak odol ixuraldatze bati eskerrak iraungo duela bizirik. Eta hori da, hain juxtu, behar duguna: bizi dadin, nahiz odol zaharrez, nahiz berriz, nahiz (hizkuntzaren haria beti baita zahar eta berri, aspaldietarik datorrelako) zahar-berriz.

Halaz guztiz, bada esaten duenik, oker ez banabil, kanpoko debekuak eta barrengo ajeak aski ez bailituen, etxekoek —euskaltzaleek eta are Euskaltzaindikoek— kalte berriak ekarri dizkiotela euskarari, ez dakit zer kasketaldi egoskogor dela medio. Nik, berriz —eta ez nuke «nitanoz» edo «nika» sobera ari nahi—, besterik uste dut: hazi-beharrak ekarri dizkion hazi-minak dituela gure hizkuntzak, haurren hazizurri eta gurentxoen gisakoak. Gainean dituen eta datozkiokeen ekaitz eta erasoei gogor egingo badio, hori baita harako gai dagoenaren indarra. Eguzki argia bezain argi ikus daiteke batasunik gabe ez dugula bihar edo etzi euskararik izango: batasuna ez da aski den baldintza, baina bai premiazkoa eta ezinbestekoa, hizkuntza biziko baldin bada. Batua, noski, ez dugu non eta noiznahi erabiltzeko behar, zenbait izkribu mota edo erabil-mailarako baizik. Baita ere, bidenabar, han-hemengo euskaldunok elkarrekin hizketan hasten garenean ez dezagun berehala jo, maizegi gertatu ohi denez, erdara batura.

Gauza jakina da, edo behar luke izan, Euskaltzaindia batasun bideetan barrena abiatu zenean, jendearen (euskal idazle eta irakasleen, ez euskaltzale platonikoen) orruak bultzaturik abiatu zela. Mende erdi batez sortu zuen eskariari uko eginaz bizi ondoren, euskararen batasunerako izan baitzen sortua, bestetarako baino areago Oñatiko batzarrean.

Hori arrazoizko bada ere, dioke norbaitek, zergatik bereizi gaitu, elkartu beharrean, batasunerako gogo honek? Gure artean

bakarrik, eta zenbaiten jokabide zentzugabea dela medio, sortu da bitasuna, batasunaren truk. Horrelakorik nola gerta daitekeen ez nuke nik azaldu behar, are gutxiago galdera gure dialektikoen ahotik datorrenean, horixe baita, inon aurki badaiteke, dialektika jokoaren adibiderik garbienetakoa. Kondairaren aldetik, ahaztu egiten da hemen, gainera, oharkabez ala ohartuki, zertzelada huts bat: batasun saio guztiek, beti eta edonon (baita Katalunian edo *domini catalá* delakoan ere), bitasuna eta are aniztasuna sortu izan dutela. Hots, erabat ontzat hartuak izan direino, eta, batez ere, legezko «nor zenak» bihurtu zitueino, hortik aurrera, Katalunian 1931tik aurrera bezala, batu eta batzaile bihurtu baitira.

Gure arteko batu edo baturako hori, bide batez esango dut, ez du inork asmatu: hautatu egin dute euskalkien artean, begiz jo, begi zuzenez nahiz makurrez. Idatzia izanik eta are zenbait gai eta sailetan idatzirik erabiltzekoa (irakaskuntzan, esate baterako, maila batetik gora; zabalkunde politikoan bertan, nahi eta ez, etc.), ez dabil lerro hauetan bertan agertzen den hizkeratik urrutiegi. Azkueren «gipuzkera osotu» haren antzekoa ere dela esango nuke. Besteak beste, alde honekin, haatik: hura, maiz goraipatua bezain erabilia dela orain. Orain poparean datorren haizea, onerako nahiz gaitzerako, ez da ordukoa.

Aukerak eskainiak daude eta, hori aski ez dela, hautespenak ere eginak daudela esango nuke, bai banaka, bai taldeka, gehienetan behintzat. Aukera, ordea, zahar setatsuoi ez ezik (eta hor sartzen ditut sekula euskalduntzeko gogorik agertu ez duten erdaldunak), belaunaldi berrietako euskaldunei ere aurkeztu zaie. Eta horiek ari dira, hasiak baititugu, auzia gaur-biharkoz erabakitzen. Beste baten gehiago, astirik, eta batez ere lekurik, baldin bada.

25

UNIBERTSITATEA ETA IRAKASKUNTZA GURE ARTEAN

Bi hitz

Aspaldi eskatua nuen (eta neronek hitzemana ere bai) artikuluren bat *Jakin*-erako, gai honetaz. Azkenik, hemen nator bestetan irakurri berria dudan gauzatxo batekin. Hitzaldi delako hori Bergaran egin dut, azaroaren 4an. Beheraxeago ikus dezake irakurleak nondik sortu zen ni han mintzatzea, egun haietako jaialdiak zirela medio beste zenbait ere mintzatu ziren bezalaxe.* 56

Gure Unibertsitateaz mintzatzea, nik uste, gure Irakaskuntzaz mintzatzea adina da, honek dituen eta izan ditzakeen gaitz eta makurrak, maiz aski, haren faltaz sortzen baitira. Zorionean, hasiak gara, gero eta usuago, asmoak eta iritziak agertzen. Nor geure zokotik, noski, baina komeni da hangoak eta hemengoak entzutea eta biltzea, goragoko ikuspuntu batetik arazoen ingurumariak zabalkiago eta zehazkiago aztertzeko gauza izan gaitezen.

Gaiak —korapiloak eta korapiloen askabideak— ongi hautatu behar genituzke, aldian aldikoak ditugularik beti begien aurrean: oraingoak orain, eta gerokoak gero. Nik behintzat ez nituzke, arrazoi larririk gabe, orain eskura ditzakegun hala-holakoak bertan 57

Jakin 1977, 56-66; *MEIG* IX, 23.-34. or.; *EN* 449.-459. or.; *GA* 387.-396. or. [Argitaratzaileen oharra: artikulu honen bukaeran *abstract* bat dago, gaztelaniaz eta frantsesez; lehenengoa eman dugu testuaren ondoren, egilearena berarena izan daitekeelakoan].

* Bi gertakari ospatuz, alegia, *Bascongada*-k jaso zuen Mintegiaren bigarren ehunurteurrena eta *Universidad a Distancia* delakoaren ordezkaritzaren sortzea dela eta, Bergaran egindako hitzaldia.

behera utziko, geroko on eta hobeen truk. Esperimentu bideak liluragarri dira gehienetan, baina ez gaude beharbada hor barrena abiatzeko garairik egokienean.

Irakaskuntzan, erabat harturik goitik beheraino, istilu larriak ikusi beharrean gara, lehengoez gainera, oker ez banabil, erdian harrapatuko gaituzten indarrak prest baitaude dagoeneko, zizpaz armaturik. Alde batetik Espainiako ezkertiarrak, bai baitute kexakizunik aski berrogeizaro aspergarri honetan ikusi eta nozitu izan behar dituzten bidegabeekin: irakurria bide duzue «Una alternativa para la enseñanza» deritzan dokumentua. Bestetik, berriz, FERE-koak, Elizaren izena daramatenak: zein eskubidez daramaten, bestek esan beza. Hauek ez dute fitsik ere galdu nahi indarkeriaren indarkeriaz sakeleratu dutenetik. Eta badaezpada ere, galduko duten beldurrez, eskean dabiltza, inoiz baino gehiagoren eske. Baita gure artean ere, bestetan bezanbat. Nik bederen horien ordezkariekin topo egin dut bi aldiz, gutien uste nuen lekuan.

Hor, dirudienez, delako sukursalismoa ez da bekatu, harro-harro eta lotsagabeki azaltzen baitute. Euskal Herria, hor konpon: badaude goragoko interesak, dudarik gabe. Badugu ordu, beraz, gure Herria gogoan dugunok nondik eta nola jo behar dugun pentsatzen hasteko. Bestela, maiz gertatu zaigunez, ardi galduak izango gara berriz ere, otso harraparien artean.

Oñatiko Unibertsitatea eta Bergarako Mintegia

Ezinbesteko dirudi, gure artean aspaldidanik datorren ohiturari amore emanaz, Bergarako Mintegia eta Oñatiko Unibertsitatea, maila horretan izan dugun irakastegirik beteena, bata bestearen segidan aipatzea. Horrela egingo dut, bada, nik ere. Ez, ordea, bata bestearekin berdintzeko, maiz egin ohi denez, bata besteari kontrajartzeko baizik, legezkoago den bezala. 1750 inguruan, izan ere, eta lehendanik zetorren gaitza, Erdi Aroan sortu ziren Unibertsitateak aski zaharkituak agertzen zaizkigu gehienbat. Erdi Aroan eta Erdi Arokoen eredura sortuak, gehi dezadan, gure Oñatiko hau ere, nahiz XVI. mendean jaio, ez baitzen istudioak eraberritzeko asmotan etorri, garai beretsuan Alcalákoa edo Collége de France, esate baterako, etorri ziren bezala. Eta, jatorrizko bekatu honetaz dena den, gurea ez zen sekula sortzaileak gogoan zuen mailara heldu: hori, gainera, egia baldin bada bere lehen abiadan, are egia garbiago
58 da hirurehun urtez geroago, pipiak joa aurkitzen dugunean. Hemen

ez ezik, orobat gertatzen zen bestetan ere, izen gehiago zuen Salamancakoan, esate baterako.[1]

Bergarakoa, berriz, bide berriak urratzeko eta zabaltzeko izan zen eraikia. Bascongadakoak, eta jokabide horri zuzen deritzat, ez ziren sekula Oñatiren kontra saiatu. Aitzitik, norbaitek egia hori ixilpean gorde nahi izan badu ere, haren alde jokatu zuten ahaleginean, Madrilen eta. Ez zuten uste, ordea, Unibertsitate zaharrak orduko beharrak eta premiak asebete zitzakeenik, arrazoi osoz, noski. Haren aldamenean, haren aldamenean eta ez haren aurka, jaso zuten, beraz, irakastegi berria, jakite «berriaren» (berria baitzen oraindik gurean) bizileku izan zedin eta teknikaren bitartez Probintzia hauen ekonomiak falta zuen gidaritza har zezan.

Hemen esango du agian norbaitek «klase» jakin batek sortu zuela bai Bascongada eta baita Bergarako Mintegia ere: bestela esan, XVI. mendeko apezpikuak egin zuen gisa egin zuten XVIII.eko zalduntxoek. Hori egia da, dudarik gabe, eta, egia izateaz gainera, I. Gurrutxaga zenak aspaldi esana, oraingoen zain egon gabe. Beste kontua da, ordea, hemen dihoakiguna: ea orduko klase gidari eta nagusi horrek, klase interesen alde jokatzen zuelarik, ez ote zuen gainera herri interesen —ordukoen eta gerokoen— alde jokatu, kontra baino areago.

Gerokoek, behintzat, ez dute beste horrenbeste egin, gauza ez zirelako edo gogoak eman ez zielako, berdin da. Frantziako Iraultzak, hainbeste gauza egin eta desegin zituenak, Bergarako Mintegia ahuldu zuen eta azkenean irentsi. Eta Iraultza horren ume, jatorra bezain borta, zen Napoleonen eskutik etorri bide zen Europak ezagutu duen Unibertsitate klasikoa: haren deitura darama behinik behin izengoitiz. Eta Unibertsitate horrek ekarri behar zuen azken buruan Oñatikoaren hondamendia. Historialarien eginbidea da, izatekotan ere, hori zergatik gertatu zen erabakitzea. Bitarteko izan ziren, nolanahi ere, askoren axolagabekeria eta gehiagoren seta. Lege zaharreko egiturek ezin zezaketen lehengo egituretan iraun Lege berriaren mendean, hots, ezin iraun zezaketen aldakuntza eta antola-

---

[1] Ik. Norberto Cuesta Dutari, *El maestro Juan Justo García (1752-1830), segundo catedrático de álgebra de la Universidad de Salamanca y creador de su Colegio de Filosofía,* ⟦Salamanca⟧, Universidad de Salamanca, 1974. Autorea ez da historialaria, matematikoa baizik. Horrexegatik beragatik, beharbada, besteek ixilpean uzten dituzten gauza franko salatzen ditu.

mendu larririk gabe.[2] Eta guztia osorik gorde nahi zutenek deus ere gabe, edo horrelatsu, gelditu behar izan zuten, maizenez gertatu ohi denez.

Lege berrien markoan bide berri bila abiatu garenean, duela ehunen bat urtez geroz, ez dugu gehiegi atera. Halabeharrez, asmoz eta jakitez jokatu ez genuelako, ez dakit. Nolanahi ere den, beranduxko ibili ohi gara: Nafarroako Diputazioak egin zuen pro-
59 posamendua 1868ko Iraultzaren bezperan agertu zen, eta Bilboko Medikuntza Fakultatea tiroka ari ginenean sortu. Bat bakarrak aurkitu zuen kokalekua lege berrien barruan. Mende honekin bateratsu jaio zen Deustukoa, gero argi eta garbi ikus dezakegun neurrian hazi eta zabalduko zena.[3]

Estatua eta irakaskuntza pribatua

Unibertsitate gaia luzaz ukitu dut mundu guztiak beti pentsatu duelako hor dagoela, nolazpait ere, gure irakaskuntza osoaren giltzarria. Gaitza, irakaskuntza sailean, aspaldidanik datorkigu. Gure agintariak, eta foruen garaiko agintariez ari naiz, ez ziren inoiz gehiegi arduratu ez euskaraz, ez euskal kulturaz, ezta, batez ere, kulturaren zimentarri den irakaskuntzaz. Eskola euskararen eta euskal gauzen etsai izan zen garai hartan bertan ere, batek baino gehiagok dioenez, eta etsai segitu du izaten, gero eta etsaiago, oraintsu arte.

Estatuaren eskuetan —hau da, Madrilgoen eskuetan— gelditu zitzaigun gehienbat irakaskuntza, haur-eskoletarik hasi eta gorengo mailaraino. Monopolio kaltegarri horrek, ordea, laster aurkitu zuen sendabidea, handik eta hemendik, lehengoez gainera sartu zitzaizkigun erlijio ordenekin, fraide eta mojekin. Izatez ziren, dakigunez, moja eta fraide; lanbidez, berriz, irakasle, tituluak gorabehera. Eta horren ondotik nabarmendu zen gure arteko irakaskuntzaren erdibitzea, hirugarren biderik ez baitzuen inork asmatzen.

---

[2] Karlistek, Karlos VII.aren izenean, azkenik Oñatikoari eskaini zioten laguntza, istimatzekoa delarik, kaltegarri gertatu zitzaion gero, Bilboko Euskal Unibertsitateari jaio zen eskutik jaiotzea gertatu zitzaion bezala. Ik. Evarist Olcina, *El carlismo y las autonomías regionales,* Madrid, Seminarios y Ediciones SA, 1974, 43 ss.

[3] Lehendanik, begiz joa zuten jesuitek Bilbo. Lekuko, han 1600 inguruan ireki zuten ikastetxea.

Erdibanatze horrek bazuen, bistan da, klase erroa. Hiri larri xamar batean, behartsu kontukoak joaten ziren «publiketara»;[4] zerbait zezaketenek, nahiz izandunegiak ez izan, fraide-mojen ikastetxeetara bidali ohi zituzten haurrak. Leku egokiagoak zituztelako, irakasleak saiatuagoak zirelako, eta abar. Izana zuten hobea ala izena, ez dakit, baina horrelatsu gertatu ohi zen.

Kristautasunaren aldetik —eta hemen dago, segur aski, auziaren muina—, batzuk bero omen ziren eta besteak hotz, gehienez ere epel. Hala zen, beharbada, baina ez da hau niri hemen dihoakidan gaia: gure arteko ondorioei bagagozkie, gainera, ez da hori hain garbi agertzen. Beste zerbait ere nahasten zen, ordea, horretaz landa, eta beste zerbait horrek erdiz erdi hartzen du darabilgun arloa.

Estatua, eta Estatuarengandik zetorkigun irakaskuntza, etsai omen genuen, hizkuntzaren eta euskal kulturaren etsai. Baina egia horrek hain egiazko ez den beste puntua zeraman ondotik: etsai 60
dugu Estatua, besteak ditugu, beraz, lagun eta laguntzaile. Hori, salbuespen guztiak salbu, gezurra zela, ordea, guztiok dakigu, bai haurrek, bai gurasoek: geure buruak zuritzeko asmatu genuen gezurra. Pribatukoak maizegi saiatu ohi ziren, bere «abertzaletasuna» erakusteko,[5] nazionalekoei gainak ematen. Eta gu ez ginen gauza izan —indarrik ez genuelako, nola joka erakutsiko ziguten gidariak falta zitzaizkigulako, begiramen itsu batek mututzen gintuelako— zor zitzaiguna eskatzeko eta eskuratzeko. Dena zor zigutelarik, gainera: lurrak eta etxeak berak, nolanahiko laguntzak, eguneroko dirubidea. Gai horretan inor esker gaiztoko azaldu bada, ez gara gu izan. Ez, arraioa!

Gero, azken aldi honetan, gertatu zaizkigunak ez dago luzaz kontatu beharrik, gogoan eta are gogoanegi ditugulako. Arazo honetan, laburtzea da zaila, ez luzatzea. Neure laburpena eskainiko dizuet, bada, besterenik eman ezinean, irakaskuntzari nagokiola eta ez beste ezeri. Gerratea igaro genuen, gure arteko hirugarrena, oker ez banabil. Galtzaile nor izan zen garbi dagoela uste dut: ni neroni, adibidez. Horrek, ordea, axola guti du. Axolazkoa beste zerbait da, guztiok bihotzean daramagun arantza: Euskal Herria,

---

[4] Lehen, oker ez banabil, baziren «publiketan» hiri eskolak, alde batetik, eta «nazionalak», bestetik. Maixu-maistrak, behintzat, bitarikoak ziren.

[5] Ibili nintzen ikastetxekoak, bederen, frantses etorkikoak ziren eta artean, oraindik, frantsesak zeuzkaten buru. Chauvinen eskolakoak izateaz gainera, jo eta ke aritu ohi ziren, espainolak baino espainolago zirela erakutsi nahiz.

oro har, galtzaile izan zela. Eta galtzaile izan zen, esate baterako, Katalunia galtzaile izan ez zen neurrian. Noren erruz gertatu zen horrela, ez zait ardura: geure erruz gertatu zela, eta ez bestegatik, aitortuko dizuet, nahi baduzue. Errudunak salatzeak, hor dago koska, ez baititu makurrak zuzenduko.

Irabazleen korapiloa askatzeari nekezago deritzat. Ugari izan ziren, baina, beste guztien gain, irabazle bakar bat gelditu zen, jaun eta buruzagi. Bazekien horrek, buruzagitza gordeko bazuen, besteren interesen zerbitzari bihurtu beharko zuela: zerbitzari, baina neurri jakin batean. Sarraskirik aski bazegoen gerra ondoan pizti-hegazti harrapariek bere gose aseezina pixkaren bat berdin zezaten. Eta buruzagitza bakarraren mendeko ziren bitartean, haren esaneko mirabe ixil, borroka bidez eskura zituen irabazkinak bake moduz parti zitzakeen, nagusi bezain morroi-neskame zituenak elkarren lehian, elkarri mokoka, Goikoa salbu, zebiltzaino.

Bere zentroei buruz, maltusianismo gisako zerbaitetara jo zuen Estatuak luzaroan, pribatuak errazkiago zabal eta heda zitezen: ez dago gogoratzea besterik nola bat-batean giltzatu zituen Irunen, Oñatin eta bestetan Errepublikak ireki zituen Institutu edo Institutu-kideak. Gero, zorioneko autarkia —gaitz guztien erremedio behar zukeena— baztertu zen bezalatsu, berriz lehengoak eta
61 gehiago han-hemenka barreiatzeko. Noraezekoa izan zen haize-aldaketa hori, noraezeko bultzadek eragina. Gurean, ordea, ez dira berez hazi, normaltasun batean behar zuketenez, Euskal Herri osoari begira, jendeak —jende arruntak eta ez hain arruntak— ez baitu hitzik atera, mintzatzea ukatu zaiolako, bai zuzenean eta bai zeharbidez ere. Madril aldekoen gogo gaiztoa aski ez genuelarik, etxekoek sortu digute nahikoa traba, eragozpen eta nahaspila. Orain, ez edukitzeaz gainera, ez dakigu hagitz ongi zeren beharrean garen berehalako batean eta zeren premian geroxeagoko. Hobeki esan, badakiela uste badu ere zenbaitek, jakitunen iritziak ez datoz beti bat, are punturik nagusienetan.

Ilunbe beltzen artean, haatik, agertu zitzaigun argia, eta inork espero ezin izan zezakeen adinakoa. Galzorian zegoen hizkuntzari eutsi nahiak sortu zituen gure arteko ikastolak,[6] ezkutuan lehenbizikoz, erdi agirian gero (ez ikusia egiten zieten hartan), legez azke-

---

[6] Eta hemen aipatu behar nuke Zipitria andereñoa. Baina bere pertsonaz eta eginez *ongi* mintzatzea aspaldi debekatu zidanez gero, ixilik gelditu beharko dut, gaizki esaka hasteko arrazoirik ez baitut ikusten.

nik. Ikastolak heldu ziren lizeo mailara eta horien inguruan ernatu eta hazi dira hainbeste mota bateko eta besteko lantegi. Euskara eta euskal irakaskuntza egunean eguneango premiei aurre emateko gai izan zitezen egin direnez ari naiz, testugintzan eta irakasle prestaeran, adibidez.

Azkenean, deiaren larriak eta ozenak ernarazia, Rip van Winkleren antzera aspaldidanikako lozorroan zetzan Euskaltzaindia bera ere iratzarri zen eta, iratzarririk, batasunerako bideetan pentsatzen hasi. Ez zen hori, zenbait erdal-euskaldunek uste duenez, saltsero batzuen egitekoa izan, ez alderatzeko ere. *Compulsa feci,* esan dezake Euskaltzaindiak egiari kalterik egin gabe, harako Aita Saindu sonatu hark heriotzeko orduan esan omen zuenaren arabera. Eta ez noa aditzera ematera zein ordenatakoa zen eta zein ordena zeukan gogoan.

Euskal Herriko Unibertsitatea eta Euskal Unibertsitatea

Gorago ere jo da, gorengo mailaraino. «Badugu Euskal Unibertsitatea!» oihu egin du oraintsu *Anaitasuna* aldizkariak, 323-324.goan,[a] Uztarizko azken udaldiko irakastaldiaren ondoan. Beheraxeago, egia esan, aitortzen ere du, nahiz oraindik ez izan, izateko bidean gaudela bederen: «Berriro ere... ez dugun, nahi dugun eta behar dugun *benetako eta urte osoko* Euskal Unibertsitate demokratiko eta herritar baten oinarria eta sustraia izan nahi duela adierazi du».

Hitz bi esan nahi nituzke honetaz, Unibertsitateari buruz behin eta berriro eragile gisa agertu naizenez gero. Ez beza inork, mesedez, 62
harrokeriatzat har erabili dudan hitza. Euskaraz dakienak ongi daki zerbaiti eragiten ari dena zerbait nahasten ari dela. Eragilek, beraz, bazter-nahastaile edo esan nahi du hemen. Nahasketan ibili bainaiz ni, buru-belarri, ea eraginaren eraginez eta nahasiaren nahasiaz zerbait bereizten ote dugun, pisuagoak behera eta arinagoak gora doazelako, besterik ez bada ere.

Bistan da, Unibertsitate eskea gurean nabarmendu zenez gero (eta ni jaio orduko entzuten zen oihu hori), ez gabiltzala guztiok gauza bat-beraren bila: are gehiago, bat-bederak ere ez duela beti gauza berbera eskatzen. Bitara har daiteke hori, gutienez, oraindik orain Karlos Santamaria jaunak (ik. *Zeruko ar-*

---

[a] 1976ko irailekoan, 5. or.

gia, 708. zenbakia)[b] erakutsi digunez. Ederki berezi eta egoki izendatu dituen Unibertsitate horiek hauexek dira: Euskal Unibertsitatea, alde batetik, eta Euskal Herriko Unibertsitatea, bestetik. Hura, dirudienez, zailago date eta urrutiago legoke, azken helburu bezala agertzen zaigunez gero; hau, itxuraz, errazago eta lehenago erdiets dezakegu. Ez dira gauza bera, ezta alderatzeko ere, baina ez daude elkarren kontra. Eta, horrexegatik, ez genuke inolaz ere deus egin behar elkarren osagarri liratekeenak elkarren etsai tankeran ager daitezen.

Ezberdintasun franko badago bataren eta bestearen artean, baina ezberdintasun guztien funtsa eta erroa hitz bakar batean bil daiteke: hizkuntzaz lirateke orain ezberdinak. Gainerakoak gorabehera, eta gainerakoak ez dira hutsaren hurrengoak, ez dut uste, ez dugu uste, euskararik gabe deus denik euskal kulturaren izena eskubide osoz har dezakeenik. Eta Euskal Herriko Unibertsitatean, geure eskuan bagenu ere, ikas- eta irakas-gai izan daiteke euskara: hala behar luke izan aurren-aurrenetik, hobeki esan. Ezin izan daiteke, ordea, oraingoz, ikas- eta irakas-bide nagusi. Nahitaezko genuke horretarako ikasle-irakaslerik gehienak euskaldun euskaldunduak izan litezen, ez onenean ere euskalduntzen ari direnak.

Euskara ez da (ba ote dago esan beharrik?) beste edozein hizkuntza baino zailago nahiz errazago. Zailago da, ordea, inguruko erdaldunentzat beste edozein inguruko erdara baino. Ezin genezake, bada, egin Errepublika garaian Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan egin ohi zutena: gogoko zuten hizkuntzaz mintzatzen zirela irakasleak, ikaslea, katalana ez izan arren, esaten zenaz beti jabetuko zelakoan.

Euskal Herriko Unibertsitatea berehala behar dugu, gerora
63 gabe, eta Euskal Herriko Unibertsitate ofiziala. Unibertsitate ofizial osoa, bere barruti eta guzti: barruti legeak alda daitezke Espainian *(distrito universitario,* izenez eta izanez, Frantziako *ressort académique*-tik mailebatua da),[7] baina, lehengoan dirauteino, hor aurkitu beharko du gureak ere bere bizilekua. Behar bezala jokatzen badugu, ez da Unibertsitate ofizial hau orain dugun bezain etsai

---

[b] «Euskal Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea ez dira bat», *Zeruko argia,* 708, 1976ko urria, 12. or.

[7] Ik. Aurelio Guaita, *División territorial y descentralización,* Madril 1975, 297 hh. («El distrito universitario»).

izango, makurrenean ere. Gure ikasle-gaiak, gure ikasleak eta are gure irakasleak horren premia gorrian daude. Hizkuntzak ere sarbidea aurki lezake, neurri apalean aurrenik, ikas- eta irakas-gai bezala, noski, eta agian, zenbait gaitan, ikas- eta irakas-bide gisa.

Ezin dezakegu hor planto egin, Santamaria jaunak ederki erakutsi duenez, gure hizkuntza «diglosiaren purgatoriotik libratu nahi badugu». Berak bi Unibertsitateak lerro paralelo gisa ikusten ditu, hots, behar den geometria hautatzen badugu, nonbait elkar joko duten lerroak. Eta hor datza ene kezka: non, noiz eta nola? Ez ote daiteke gerta, elkarganatuz joan beharrean, bata bestearengandik gero eta saihestuago aurkitzea? Orduan, *absit,* euskara, diglosiaren purgatorioan egon beharrean, ghettoaren infernuan sartuko genuke.

Gure herriak, bortxaz eta ezinbestean, ikastolak sortu ditu, eskoletarik aparte. Orobat hasi ginen, beharturik, Lizeoak sortzen, Institutuen aldamenean, baina Institutuetarik kanpora. Bide beretik abiatzen da Euskal Unibertsitatea, Uztarizkoaren eredura, Euskal Herriko izan dezakegunetik alboratua. Ez du horrela jokatu, esate baterako, Valentziako *Secretariat per l'Ensenyament de la Llengua* delakoak: eskoletan ari dira sartzen eginahalean katalana, ez ikastola berezietan.

Kondizioak, segur aski, ez dira berdinak eta ez dut horrenbestez esan nahi oker ibili garenik gu, besteak zuzen zebiltzan bitartean. Pausoak ongi neurtu eta zuzendu beharrean aurkitzen garela diot, soil-soilik. Pentsa dezagun egunen batean, eta hobe dugu laster eta lasterka abiatu, *Euskal Herriarena* behar duela izan orain *Euskal Herriko* bakarrik den irakaskuntza osoak.

Duela aste guti, Manuel Iruxo jaunari idatzi nion kezkaturik neunkan eta berak *Garaia*-n aipatu zuen gai batez galdezka: 1936ko Estatutuak, alegia, lehenagokoetan agertzen ez den baldintza gogorra ipintzen diola eta gure autonomiari, irakaskuntza arloan. Hona, itzulirik, erantzunaren bukaera: «Miresgarria eta bihotz-ukigarria da, politika aldetik, ikastolekin gertatu dena. Halaz guztiz ere, nik uste, *eskola* behar dugu geure esku izan Euzkadi euskaldunduko badugu».

Ez da frogaketan ari beharrik, eskola ofizialaz jabetuko bagara (eta eskola ofizialaren bitartez adierazi nahi nuke kontrol ofizialaren azpian dagokeen edozein irakastegi), irakasle euskaldun eta euskaltzaleen beharrean gaudela erakusteko. Eta badirudi, eta izan ere horrela da, aski urri gabiltzala sail horretan: duela zenbait urte bezain urri, ez; baina aski eta gehiegi oraindik. Hona zer dioen horretaz 64

Santamaria jaunak: «Baina, Unibertsitatearen geuretzakotze hori erdiesteko, beharrezkoa izango da gure irakasle gazte askoren Estatuaren zerbitzurako gogo txarra eta eznahia lehen bizi gainditzea».

Gogo txar hori, egia esan behar badut, aldakor xamarra iruditzen zait, alde batetik: garai batean, neronek ezagutu ditut maisu-maistra euskaldun franko gure artean, eta gehienak Estatuaren zerbitzari bihurtzeko asmotan zebiltzan, behinik behin. Debekuak gainditzeko, gainera, bada bide jakina: sarbide errazago eta erosoagoa, eta irabazpide hobea. Eskas eta ahul bagara ere, garen apurrok indar eta jakiteen *pool* gisako zerbait sor dezakegu, Gregorio Monrealek aspaldi asmatu zuen bezala. Gazteek, bestalde, hau pentsatu behar lukete: guztiok, haiek eta gu, beste Estatu baten zerbitzari izateko ustean gabiltzala. Estatu hori autonomoa baizik ez bada ere.

Plangintza zehatz eta zorrotz baten beharrean gaudela uste dut: premiak, kemenak, ondasunak, debekuak eta gainerakoak neurtzeko daude, oraingo eta etorkizunerako. Bultzada, eragina, erasoa behetik etorri da, behetik dator eta behetik etorriko da, gero ere. Plangintzak ez du inor mugituko. Barrenak agintzen diolako mugitzen denari, ordea, erakuts diezaioke nola eta norantz mugi.

Gure Herria, horra gure xedea, berreuskaldundu nahi genuke osorik —gero eta gehiagok, dirudienez—, izenezko eta alegiazko Euskal Herria egiazko Euskal Herri bilaka dadin. Bat gatoz horretan Uztarizkoak, Santamaria, ni eta aipatuko ez ditudan hainbeste eta hainbeste. Lana gaitza da eta ez genituzke eragozpenak gutietsi behar. Bata, politikaren tentazioa da, oso gogoko ez dudan balmasedar baten esanari banagokio, politika ez baita ahalguztiduna, alde batetik, eta irakaskuntza ere politika baita, bestetik. Bestea, euskaraz adieraz daitekeena (baina erdaraz ez hain errazki), erdal-euskaldunena da edo, nahiago bada, erdaldun euskaltzaleena.

Eragozpenak eragozpen, plazara ginen (enparantzara, dio besteak) Etxeparez geroz, eta plazan iraungo dugu, gerta ala gerta, baldin asmoz eta jakitez (ausarki, eta halere neurriz) jokatzen badakigu.

65 P.S. Galdera pare bat ere egingo nuke orain, gerorako utzi gabe. Sindikatu lanean berriz abiatuak omen gara, eta ez naiz noski Leioakoez ari. Ez dakit, halaz guztiz, ez zertan gauden ezta noraino heldu garen ere. Ba ote dugu, hau da jakin nahi nukeena, gure arteko Irakaskuntzako Langileak bil ditzakeenik? Gabe bagaude, badugu ordu

horrelako zerbait sortzeko, bestek gure ordez sor dezan baino lehen. Izan ere, arras aurpegi berezia dute gurean bai iraskaskuntzaren eta bai irakasleen istiluek.

Eusko-Ikaskuntzak, hona bestea, goian aipatu ditudan hitzak zituen armarrian. Herri elkarte izan zen hura ez zuen inork, oraindik orain besterik idatzi bada ere, debekatu, izendatuki bederen. Lazaroren gisa lurpean egona dugu, soil-soilik, horrenbeste urtez. Gero, paperetan irakurri nuenez, berriz agertzekoa omen zen bizien artean. Nork bereganatu du, bada, ixil-gordean, biztu berria genuelarik?

Abstract (Jakin 1977, 66)

El problema de la enseñanza y de la Universidad vasca en particular va a constituir en el próximo futuro un campo de dura lucha entre diversas fuerzas políticas y eclesiásticas.

Dos realizaciones principales de Universidad Vasca han sido la de Oñate y el Seminario de Vergara: no pueden identificarse ambas, porque la primera respondía a una concepción tradicional y medieval de Universidad, mientras la segunda venía a abrir nuevos caminos. Pero tampoco pueden oponerse las dos realizaciones.

Frente a la despreocupación de los entes oficiales del País Vasco respecto de la enseñanza, han sido el Estado y las Órdenes religiosas las que se han apoderado de la misma. El predominio eclesiástico de la enseñanza en el País Vasco ha sido realmente notorio en los últimos cuarenta años. Contra ese doble predominio han surgido las ikastolas, como acción del mismo pueblo.

Creo haber hecho algo, ojalá no me engañe, por introducir un cierto concierto en los estudios de lingüística y filología vascas, muy en particular por lo que atañe a la historia de la lengua. Durante decenios me he esforzado por que este país se convierta de modo permanente en uno de los centros de esos estudios: mejor dicho, en su foco principal, aunque en modo alguno exclusivo. Se precisaba para

ello que estas y otras disciplinas quedaran institucionalizadas, y esto sólo podía hacerse en la Universidad pública tan largamente debida que, si las demoras devengaran intereses o pudiéramos resarcirnos de daños y perjuicios, habríamos asegurado por largos años la abundancia en el país. Esta Universidad pública —completa, incluidos los estudios que llamábamos de Letras— no es por cierto la mejor Universidad que acertaríamos a imaginar en alguno de los mundos posibles; no es, desde luego, la «Universidad Vasca» que algún día (pero no este jueves del mes de marzo) podrá traducirse correcta y exactamente por «Euskal Unibertsitatea». Los que hemos corrido durante medio siglo detrás de quimeras, por mejor nombre utopías, hasta perder el aliento hemos aprendido a conformarnos con poco, siempre que haga falta.

Era poco menos que inevitable que yo apreciara y considerara como mía la lengua que tengo por primera, tras haberla tenido por única. Es, pues, natural que la haya utilizado y la utilice, con más o menos gracia y propiedad, de palabra y por escrito; es, por lo tanto, motivo de alta satisfacción que ahora pueda utilizarla como vehículo en mis cursos universitarios. No lo es menos el que, siendo el último en llegar, con una lista inacabable de precursores, mi contribución a la unificación de una forma escrita de la lengua, que centraré en 1968, no haya sido despreciable. Y, para el caso de que quede alguien por convencer de que la empresa en sí era necesaria y urgente, recogeré lo que decía el profesor C. Th. Gossen en el acto de entrega de este premio en Udine, en 1980, a propósito de la «norma grafica»: «Tutti sappiamo
22 dell'importanza di una grafia unitaria per la tutela e il consolidamento di una minoranza linguistica, e nel contempo delle difficoltà di diffondere delle norme quando le varietà linguistiche sono parecchie ed esiste una... tradizione letteraria...». Con todo, habrá que tener también en cuenta, y digo esto de paso, que no hay norma que valga cuando, de la mano de los vecinos, olvidamos la fidelidad debida a la naturaleza y a la historia de la lengua que llamamos nuestra.

Pienso, al igual que muchos, que una lengua, y desde luego una Universidad, son para algo: no son fines en sí mismas. En principio, son para todo y no aceptaríamos ni para una ni para otra más limitaciones que las que impongan constitución y circunstancia. De modo más preciso, también es nuestro lo común, lo general y, aunque tenemos en estima la erudición local y localista o las tradiciones

populares, no nos apetece la limitación a folklóricos *revivals* evocadores y emotivos.

No me hallo en la flor de la edad, como salta a la vista, pero espero que lo que en adelante pueda hacer irá encaminado a favorecer entre nosotros la comprensión y la concordia en el campo cultural, ante todo en lo lingüístico. Los problemas de esta suerte suelen tener solución, y hasta solución no trabajosa, con tal de que la falta de buena voluntad no los encone. No pretendo hallarme en el justo medio, pero a uno y otro lado hallo gentes, nada silenciosas, que están a distancias enormes de los parajes que piso. Y esto, a título de indicio, no me parece nada desesperanzador.

Lo que pudiera realizar, casi siempre se ha hecho o dejado de hacer dentro de marcos bien definidos: la Real Academia de la Lengua Vasca, el Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo» de la Diputación Foral de Guipúzcoa y, aquí, nuestra Facultad alavesa de Vitoria dentro de la Universidad del País Vasco. Y, bien que tarde, tengo que recordar a Salamanca y a la Universidad en que durante muchos años he sido más estudiante que maestro, aunque no acertara a facilitarme lo que según el viejo proverbio no puede dar.

Termino por donde he empezado, agradeciendo a todos —autoridades, amigos, colegas, alumnos y cuantos han tenido la atención de honrarme con su presencia o recuerdo— su participación en este acto. Y termino reiterando muy especialmente a la Fundación FVS, y a su generoso fundador el Dr. h. c. Alfred Toepfer, un agradecimiento que creo tanto colectivo como individual: en efecto, desde los viajes y escritos de Wilhelm von Humboldt la lengua vasca no había recibido desde el corazón de Europa una distinción semejante.

Bien podemos además aceptar sin reparos el nombre de Ossian, a pesar del aura de mistificación que lo envuelve: no todo es genuino en los poemas osiánicos, pero, genuinos o apócrifos, penetraron y 23
animaron largos años la literatura europea en general. Recuerdo, por otra parte, que el tono crepuscular en que van envueltos es ambivalente, como lo es el crepúsculo mismo, al igual que el lucero de la tarde de Frege que, con cambiar de sentido, se convierte sin alterar la referencia en el lucero del alba. Mis votos son, pues, para que el premio nos traiga presagios de aurora, no de anochecer.

36

BIGARRENGO ADABAKIAK

Aspaldi ez duela agertua da Txillardegiren *Euskal kulturaren za-* 197
palketa: aurtengotzat jo dezakegu behintzat, «1984» ageri denez gero legezkoen artean. Betiko hizkera-modua darabil: sendoa, zolia, argia eta garbia. Horrexegatik beragatik agian, horren argia delako alegia, nabarmenegi gertatzen zaizkit, behin eta berriro, aditzera ematen dituen gogoetak.

Maiz pentsatu dut, eta esan ere bai inoiz, gogaideago dituela Txillardegik kontu kontari asmatuak gertatuak baino. Baduela, bestela esan, halako debekuren bat alegiazko ez diren egiazkoei hurbiltzeko, horrelakoen berri ematen abiatu bezain sarri larrugorrian azaltzen zaion eragozpena. Gertatuok, batik bat, Txillardegiren «ni»-aren inguruko izatea suertatzen denean. Eta maiz egingo dugu topo horrelakoekin, «ni» hori ez baita ez laburra ez meharra.

Nere ustea da hori, eta barka bekit ustea uste bezala, beste irozgarririk gabe, hemen azaltzea; bestelakorik, gainera, erraz aurki daiteke sostengu bila hasiz geroz. Dena den, gogo duenak ikus dezake nola agertzen diren gertatuak era gertatu ustekoak «kondaira» honetan, eta hitz hau Txillardegik berak «Orangutanen ugartea»-n usatu zuen eran hartu dut. Aldizkari honetan ikusi zuen argia *[[Egan]],* 1957, 1-2, 289-295.

Aldizkari hau eta aldizkari honenak baitira, hain juxtu, orain dihoazkidanak. Hori dela eta, hona aldatu beharrean naiz delako li-

---

Egan 1984, 197-203; *MEIG* I, 255.-262. or.; *EN* 467.-474. or.; *GA* 403.-409. or.

buruxkan, 31. orrialdean, datorrena. Hona, bada, hor datorren zerbait:

> Mitxelenaren inguruan [dioena diot] gero ateratzen hasiko zen *Egan* aldizkaria (1954) [atzizkirik eza Txillardegirena da], nahiz berrizaleago izan, bazuen, «jakinlariek» xuxen esaten duten bezalaxe, halako «kolaboratzaile produktuaren» fama: frankista Diputazio batetan argitaratua, Arrueren bedeinkazioarekin... Euskaltzaindia bera, garai hartan karlistaz
> 198 josia (Arrue, Oleaga, Seminario Rojas, etab.), zaku berean sartzen zuten batzuk...

Norbaitek badaki segur aski biderik artezena beti hautatzen; nik, ez. Gehiago oraindik, norbait horrek badu kemen eta ausardia bide zuzen horretarik sekula ez saihesteko eta nik, berriz, ez dut deus parekorik. Hitz bi esango nituzke, halaz guztiz, barkakizunago gerta daitezen bekatu larriak.

Egia da *Egan,* Urkixo Mintegiak idazlana bere gain hartu zuen puntutik, Gipuzkoako Diputazioarena izan dela, berea den Mintegiaren bitartez: ba ote zen, ordea, orduan eta puska bat beranduago, frankista ez zen Diputaziorik? Arrueren bedeinkazioarekin jaio zen eta bizi: egia hori ere, baina ez egia osoa, ezta alderatzeko ere. Nori berea zor zaionez gero, besterik ere eman zion Arruek *Egan*-i, bedeinkazioaz gainera. Ez zen ausaz langilerik langileena izan; bai, ordea, eragileena, besteak mugiarazten zituena eta besterentzat bideak zabaltzen saiatzen zena. Ezin uka mugak landatzen zituenik, bestetan esan dudan gisan. Ez, haatik, norbaitek *Garaia*-n landatzen zituenak baino estuagoak eta zorrotzagoak.

Ni urgazle izan baino lehen Euskaltzaindian zegoen Seminario de Rojas (ni hor nengoelarik ez zen inoiz, behin baizik, inori ziririk sartzen saiatu) frankista zen, noski, baina karlista? Don Nazario karlista zen beharbada, baina frankista? Frankista, bisitari-gelako hormak Gernika deseginaren airetikako argazkiz blei zeuzkana? Hilei (eta bidenabar biziei) errespetu gehixeago zor zaie. «Nere Aitaren etxean egoitza asko dira», Aita Iraizozek itzuliaren arabera. Guk ere, geure izan behar lukeen euskal etxe honetan ez ote diegu karlistei txokoren bat opa behar, goiko ganbaran bederen?

Denbora batean jendeak uste zuen (Sh. Holmesek izan ezik) ez zuela jakiteak kokalekurik behar. Orain, aldiz, badirudi ez dakigunetik ez dakigukeela inolazko kalterik etorri. Halaz guztiz, eta inoren gaitzetan izango bada ere, nahi nuke *Egan*-en historiaz zerbait esan labur baino laburkiago.

Aurrera baino lehen, aldizkari hau ez zen 1954an sortu, arestian irakurri dugunez, aho beteko deiadarrez horrela oihukatzen badute ere. Sortu, 1948an sortu zen; *Euzko-gogoa* baino lehenago, beraz. Ez, ordea, euskaraz soilki, ezta haatik erdara hutsez ere. Lehenbiziko zenbakiak, urtarril-martxo bitartekoak, «Propósito» delako zerbait dakar atarian: erdaraz lehenbizi, gero, eta laburrago, euskaraz. Eus- 199
karazkoa ez da, halaz ere, erdaratik iraulia, oraingo ohituraren arabera. Euskaraz ondu zuen norbaitek (Irigaraik, Artetxek?).

Ondoan datozenak ere bitarikoak dira, lehen buruan bi idazle bikain ageri direlarik: Blas de Otero («Poemas para el hombre») eta Manuel Lekuona («Iesu aurraren bizitza»). Gainerakoak ez ditut aipatuko; bai, ordea, hurrengoetako zenbait.

1954, 2-4, baino lehenago zenbait euskal idazle goiztar mintzatu zen hor. Besteak beste, Erkiaga, Labaien, Gaztelu, Jauregi, «Urrundik» idatzi zuen «Prantzizkotarra» eta Jon Mirande. Honen lehenbizikoa, nik uste, «Nil igitur mors est» izan zen eta horrekin batean zihoan *«Nil igitur mors est* poemaren giltza» (1952, 1, 13-14 eta 15-16), gero *Orhoituz* bilduman, paperetan zuhur, isildu zutena. Giltza, lagungarri izango zitzaigulakoan eskaini zigun segur asko Mirandek. Baina oraingo jendeak, horrela behar ere, hobeki daki ateak zabaltzen ordukoak baino.

Dena den, ez zen aldizkaria «Mitxelena-ren inguruan» atera, Mitxelena horrek artean doi-doi jakin baitzuen Diputazioko liburutegiaren atea non zegoen. Sartu zen azkenik, baita *Egan*-en ere, ea zenbait lerro (1951, 3)[a] argitarako ote zizkioten eske. Orduan eta geroxeago ikusi nuenez, Artetxek zuen euskal lanen ardura eta, beste aldetik eta beste mailan, Aingeru Irigaraik.

Euskara (berez, hain guttitan bezala!!!) nagusitzen hasia zen, gero eta nabariago, eta zenbaki bat badela esango nuke (1953, 1-4) zeharo euskaraz argitara zena: Irigarairen hitzaldia Axularrez, don Nemesioren poemak (beherago berriz agertuko), Lizardiren «Ezkondu ezin ziteken mutilla», eta abar. *Egan* euskalduntze bidean genuen, beraz, gu «Asmo berri» atalaurrean zuen zenbakiarekin (1954, 2-4) plazara baino lehen. Eta bigarren *Egan* honetaz mintzatu beharko dut orain, harako «kolaboratzaile produktuaren fama» bazuenaz. Bazuen, baina ez dakit geroenean iraun duen.

Horrelako desegokikeriek ez naute, lotsagarri bada ere, gehiegi nahigabetzen: pizgarri eta pozgarri gertatzen zaizkit aukeran, gisa

---

[a] «Euskal literaturaren etorkizuna», 17-21.

horretako purrustadetan nondik datozen jakiteak baitu axola, ez zer dioten. Inori aurpegira botatzea, nolanahi ere, erraza da: esanak frogatzea zailago litzateke. Saia dadila, halarik ere, gogo duena.

200 Gogoaz gainera baluke, haatik, salatariak beste betebeharrezko baldintza bat, guttieneko kontuan: salatzen duen bekatuaren kutsutik garbi egotea edota, izatekotan ere, honi dagokion penitentzia, aldez aurretik egina ez badu, egiteko prest aurkitzea. Nekez sala dezake kulpa salatzen duenaren krakaz orakaturik heldu denak, kaskarretik hasi eta orpoetaraino. Harako *omnia munda mundis* hartaz baliatzeko, xahutasuna aldez aurretik frogatu behar, besterenak lardaskatzen hasi baino lehen.

Badirudi, Jon Bilbaoren *Eusko bibliographia*-ri bagagozkio adibidez, *Egan*-en hasi zirela kaleratzen Txillardegiren idazlanak, hasi eta segi, 1956-1958 bitartean. *Item más:* «Urkijo-Mintegiko solas-aldia» deritza (1957, 3-4) «Unamuno eragille»-ri eta hitzaldi horiek, hain zuzen ere, Probintzi-jauregiko (hots, Diputazioko) areto batean egin ohi ziren, frankismo kiratsa uxatu gabe. Eta ez da oroitarazi beharrik, plazan salgai dagoelako, noren sarrera hitzak daramatzan *Leturiaren egunkari ezkutuak.*

«Jakinzaleak» aipatu dituenez gero Txillardegik, *Egan*-en teilapean esan daiteke zenbait sartuak direla, hala nola, *inner circle*-koetan gelditzeko, Joseba Intxausti eta Jose Azurmendi; eta behin azaltzen den Torre-Alday, bihurri antxeko *y* dotorez apaindua, ez ote dugu Joan Mari Torrealday? Mesedegarri izan zitzaizkigun eta bihotzez eskertzen diet eman ziguten laguntza, baina ez da hau hemen dihoakigun auzia, urrin oneko jendea baizik. Are hobea du, beharbada, Paulo Iztuetak: ikus «Baten pasadizuak», 1965, 28-39. Gogoan daukat oraindik nola hartu nituen bertso horiek eta inprentara bidali, egilea egungo egunean bezain ezaguna ez zelarik. Berandu oroitu naiz, baina ez dut kanpoan utzi nahi zertzelada hori, «Yakinlariak» ez zirela ordurako «Jakinlari» bihurtu, oker ez banabil.

Txillardegik badu seta nagusi bat, besteen artean: euskal gauzak, hala ez badirudi ere, gero eta okerrago dabiltzalakoa. «Euskal kulturaren loraldia» 1968an hasten da eta 1975ean bukatzen: Frankoren hil-ezkilek eta loraldi horrenak batera jo bide zuten, gu negarrezko herri honetan utzirik. Goizago nabaritu zen beheraldia ahulen artean: «Eta *Egan* gero eta bakanago argitaratzen zelarik (urtean behin gehienez 1966az geroztik, motelketa hau zapalketarekin lotua)» (33. or.).

Ez nuke inoren ametsik birrindu nahi (badakit, haatik, ezin birrinduzkoak direla Txillardegirenak), baina *Egan*-en ahuleriak badu zapalkuntzarekin zer ikusirik ez duen arrazoirik: buruz eta 201
zentzuz ari bagara, gainera, zapalduago ote zegoen gure hizkuntza 1966an 1956an baino? Esan beharra dut, artobero usaina dariodala agertzen banaiz ere, nik 1965ean, udazken aldera, Torrelavegara alde egin nuela; gero, hurrengo urtean, Salamancara, hor gelditzeko. Ez nituen lehengo eginkizunak bertan behera utzi erabat (probak ikusi ditut bederen etengabe), baina *Egan*-ek iraun badu, erosoago zituen gidari eta laguntzaileei esker izan da. Iraun du, halere, eta ez euskaldun guztien atseginerako.

Hara errua aitortu: funtzionario bihurtu nintzen, eta erraz jakin dezakegu zer pentsatzen duen Txillardegik bilakatze horretaz (23. eta hurrengo or.): «Azkeneko 25 urteetan, oro har, *ezker abertzaleak* eutsi dio (eta eusten ere, hein handi batez) euskal kulturaren pizkundeari. Gaur egun, diruaren poderioz, eta instituzio autonomikoek karrerismoari ireki dizkioten aukerak pitin bat aldaturik, funtzionario edo "lanari" mordo handi bat agertu da... Euskal politika PNV-ren (eta akolitoen) inguruan mogitzen hasi denez geroztik, hozitu berriak ziren adar berri batzu ihartu dira, eta euskal kultura funtzionariatu eta hoztu egin da... Aldakuntza politikoak direla eta, euskal *kultur-gizonari* buruz ere, aldakuntza sakona izan da gutartean, "Vascongadetan" bereziki: 1956/76 urteetako euskaltzale *militanteari,* euskaltzale suharrari, gaur euskaltzale funtzionario eta txepela nagusitu zaio *askotan.* (Era berean, jakina, isilpeko buruzagi edo gudari ausartari [guztiok dakigu buruzagi mailakoa dela Txillardegi aspaldiko urteetan], agiriko oportunista ustela eta frankismoaren ondoko sasi-abertzalea nagusitu zaizkio)».

Bada gehiago ere, baina hemen egingo dut planto, aski luzea baita aldatu dudana. Niri dagokidanez, bekatari nauzue dudarik gabe, nahiz jakina denez ez naizen ezkerra (omen) den abertzaletasunaren mutil izan; are gehiago, jakina da ez naizela sekula izan ez ausarta, ez suharra, ezta ere ordea inoren buruzagia. Funtzionarioa, berriz, bai, 1965-1984 bitartean. Ez Eusko Jaurlaritzarena, ezta ere hemengo beste edozein instituziorena. Madrileko Hezkuntza Ministerioaren morroi naiz, baina ez dut uste Txillardegik hango nagusiak maiteago dituenik. Ala bai?

Baiezkoa beharko du izan erantzunak, ez baitigu ez niri ez beste askori aurpegiz aurpegi esango Txillardegik berak ez duela funtzio- 202
nario izan nahi; are gehiago, ez dela bera funtzionariotzaren atze-

tik ibili, irekirik ez zegoen bidetik gainera. Badaki, noski, nik eta bestek ikusi ditugula Madrilera bidali zituen paper-metak. Zertarako, eta lekutxo baten eske jende ustel horren artean. Egingo nuke gainera lortuko duela luzaro gabe ahaleginetan lortu nahi duena. Puntu honetan ere, ordea, *omnia munda mundis.*

Beste auziren bat ukituko dut orain, ea aipatuak baino atseginago gertatzen zaigun. Aritmetikarik narrasenari dagokio, Txillardegik funtsez ezagutzen duen gaiari.

Liburuxkaren izena ez dut gorago osorik aldatu, bai baitu eranskin edo isatsen bat: 1956-1981. Nornahiri datorkio gogora, indarka ari gabe, zapalduago zegoela euskara 1946an 1956an baino. Are zapalduago zenbait jenderen mende gelditu ziren tokietan 1936an bertan.

Hautatu den lehenbiziko urteak badu horratik oinarri sendoa, 5. orrialdean ikus daitekeenez: «Euskal Kulturak azkeneko 25 urteotan jasan duen zapalkuntza» aztertu behar omen du liburuak orotariko sarrera, kulturaren izaerarekikoa, aurrean daramala.

Ezin uka mende laurdena doala, ez gehiago eta ez guttiago, 1956tik 1981era. Halaz guztiz, *doubting Thomas*-en batek (nik neronek, esaterako) gogoeta bidegabekoren bat egin dezake: zergatik 1981ean buka liburua, liburuak berak aitortzen duenez, 1984[an] argitara aterea izanik?

«Galdera latza; ez, halaz guztiz, erantzunik gabe gelditu beharrekoa noraezean», Sir Thomas Brownek esan eta E. A. Poek errepikatu zuenez. Beharbada, gainera, aise erantzun daitekeena. 1956 gehi 25 1981 dira eta ez zait gogoratzen deus berezirik gertatu zenik burueneko urte honetan euskal kulturaren zapalketari buruz: aurten baino gehiagorik eta larriagorik ez behintzat, nik dakidanez. 1956an bilatu behar, orduan.

Lehen urte horretan, bai? Gauden pixka bat, ea zerbait datorkigun burura... Noski, ba... Urte horretan abiatu zen Txillardegi, goien ikusi dugunez, bere ibilaldi latz eta luzean euskal letretan barrena. Orduantxe ezagutu zuen zapalkuntza edota, berak ezagutzearekin, zapalkuntza sortu egin zen.

Avertxenkoren izkirimirietako batean honako gertaera hau kon-
203 tatzen da. Badabil norbait pasealeku batean eta ibiltzez aspertu delako eseri egiten da hango banku batean, dagoeneko eseririk dagoen beste norbaiten aldamenean. Hasten dira azkenik hizketan eta, hitzak hizpidea dakarrela, horra non lehenbizikoak jakiten duen poliki-poliki bigarrenaren iritzien berri. Jakin ahala, harritu ere egi-

ten da. «Orain banaizela uste duzu, beraz?». «Jakina. Aldamenean zauzkat, ikusten zaitut, zuk esanak entzuten ditut. Arestian nahi gabe ukitu zaitut». «Baina, lehen, ni hona etorri baino lehen?». «Ez noski». «Eta gero, aldegiten dudanean?». «Ba, ixkina horretatik pasa arte, bai. Hortik aurrera, ikusten ez zaitudanez gero, ez zara (ez duzu?) "esistitzen"».

Horrelaxe ba. Halako batean don Nemesiok paperean josirik utzi zuen bezala (ikus, berriro, *Egan* 1953, 1-4, 17):

Ni,
neri,
nerekin,
neretzat,
neregatik.
Ta mundu guzia
atzetik.

Titulua baztertu dut. Esana dago, ordea, non eta zein orrialdetan irakur daitekeen.

Behe aldeko azken oharrak. Krutwigen deiturak, berari sinetsi behar badiogu, *t* bakarra aski du. *Ilias* (ik. 44. orrialdea) Homerok ondu zuen, gehienez ere; ez Zaitegik. Itzuli, berriz, *Ilias'ena* izena zuela itzulpenak, Gaizka Barandiaranek itzuli zuen eta Barandiaran hori, nik uste, ez da gerra aurrekoa euskal idazleen artean. Ez da erraz, orrialde horretako zerrendaren arabera, Txomin Agirreren *Garoa* gerra aurrekoa izatea, eta zaharragoa den Txomin Agirreren *Kresala,* berriz, gerrate ondokoa. Orobat, dirudienez, *Gero* eta *Peru Abarka.* Gidari den buruzagiak kontuzago isuri behar lituzke bere irakaskizunak.

37

[DOCTOR HONORIS CAUSA, BARCELONA 1983] REFLEXIONS RETROSPECTIVES

Em caldrà començar pel principi, preceptiu en ocasions com aquesta pel fet que és obligat des de qualsevol punt de vista. Així, doncs, al principi hi ha el meu agraïment a la Universitat Autònoma de Barcelona que, per raons segurament amistoses que escapen a la meva penetració, m'honora en incloure'm a la llista, fins ara brillant, dels seus doctorats *honoris causa.* I a la glòria immarcescible, com deia, segons crec, en les seves traduccions, el doctor Segalà i Estalella, s'uneix el record una mica nostàlgic d'algunes exposicions que he presentat aquí, precisament a la Facultat de Filologia, de les quals, sens dubte, vaig quedar més content jo que no tots o la majoria dels qui les varen escoltar. 7

Si hagués de descriure amb més puntualitat els meus sentiments, i en particular els que varen acompanyar el primer rumor de la notícia, gosaria definir-los potser com d'esbalaïment agraït més que no pas d'agraïment esbalaït. A estirar i arronsar els mots m'ha ensenyat darrerament, no sé pas amb quina fortuna, el magisteri llunyà en la seva proximitat de don José Bergamín, pelegrí a la seva pàtria i encara en d'altres.

La meva gratitud s'acreix de pensar que vinc de les ribes d'un Atlàntic de vives marees a les costes d'una Mediterrània, avui menys

---

Límits. Revista d'assaig i d'informació sobre les ciències del llenguatge 4 (maig 1988), 7-18. [N. de los eds.: Según informa Joan A. Argente en la presentación de este texto («Un parlament inèdit de Koldo Mitxelena», pp. 5-6), se trata de una traducción del discurso pronunciado por Michelena el 3 de octubre de 1983 con motivo de la concesión del doctorado honoris causa por la Universidad Autónoma de Barcelona].

blava que ahir, però enlluernadora encara per les moltes coses que reté i que suggereix. A ningú no se li amaga, crec, que sovint sol manifestar-se alguna fredor, recel o coïssor, que pot anar fins i tot en contra d'interessos molt clars, entre veïns de l'una i l'altra con-
8 gregació d'aigües: un representant il·lustre, oceànic i àdhuc bascònic, d'aquest desmenjament, ho ha estat sempre el meu admirat Pío Baroja. I no dic «el nostre» a fi de no suscitar vots disconformes.

Personalment, no participo d'aquesta actitud, i aquesta fórmula no és flor ni fruit de la circumstància, perquè, al capdavall, a qui pot importar-li el que penso o deixo de pensar? De les terres que trepitjo ens va arribar en temps ja llunyans l'escriptura i tot allò que aquesta suposa, i no crec pas que després l'aportació mediterrània s'hagi reduït a un interès comú per les desventures del príncep de Viana o a la participació en empreses predadores i depredadores a Grècia o a Albània.

Crec, senzillament i honradament, que nosaltres, una part dels atlàntics, podem aprendre-hi molt d'una llarga i valuosa tradició, d'una acumulació de coneixements i d'experiències, i, sobretot, d'un *savoir faire* més atent a les expectatives racionals que a les consideracions de prestigi. Tot això sense oblidar el que hi ha de mudable, de mer episodi, en els tarannàs i en el comportament dels pobles, que tan sovint se suposen invariables. Avui hi ha quietud on ahir hi havia turbulència, i al contrari.

De moment, tanmateix, i baixant de la generalitat, ensopego amb una incòmoda dificultat personal. El generós do que se'm fa exigeix de forma inexcusable una resposta. El costum l'ha fixada en un seguit (en llenguatge més distingit *string)* de línies o de frases, amb el ben entès que han d'ésser, nogensmenys, l'expressió d'un contingut digne. Aquesta és, doncs, la pregunta no gens retòrica que em faig: Què encertaré a portar amb mi en aquest solemne viatge al *mare uestrum?* No res que sorprengui per la novetat, òbviament, ja que la vella deu, mai gaire cabalosa, ha anat exhaurint-se amb els anys.

Sempre queda el recurs a la vella memòria, però la meva no conté gran cosa d'interès, sobretot per a un moment com aquest, ultra haver donat lloc a narracions on la realitat i la fantasia es barregen o se superposen. Passaré, per tant, de la persona a l'ofici per a dir-ne alguna cosa sobre l'estat a situació, la qual cosa em força a acotar d'alguna manera el punt de vista en què em situo i els límits a què em contrec.

Encara que em vegi forçat a operar dins de fronteres molt res- 9
tringides, no em puc pas tancar en la lingüística basca, camp massa estret fins i tot per a mi, a més d'inoportú en aquesta ocasió, si se'n salva potser un punt al qual hauré de referir-me de passada. Amb tot, no puc pas passar sense més ni més dels recintes tancats als oberts o dels lligats als solts, on no hi ha manera de salvar els impediments. La meva universalitat *de conatu* no ha passat de ser universalitat d'alcova: països i gents només se m'han fet accessibles tard i en no gaire gran mesura, de manera que, com el príncep de l'any de la picor, he hagut de sustentar-me de paper que, en part, encara no ha arribat a les meves mans.

Em caldrà continuar una mica més sense sortir de molestes consideracions entorn de la meva persona i la meva vida, si és que he de centrar les meves consideracions menys subjectives. Mai no vaig tenir interès per la lingüística, que coneixia sobretot en una de les seves formes menys apetitoses: la lingüística basca en la seva versió popular, amb additaments escrits que no desmereixien de la forma oral. Sí que el vaig tenir, en canvi, per les llengües, en dos sentits distints que potser podran reduir-se a un de sol, talment com els deu manaments de la nostra tradició es reduïen també a dos. Sobretot, per bé que no exclusivament, m'interessava com a mitjà d'expressió una llengua —puc anomenar-la meva?— que coneixia molt bé, i passeu-me la jactància, en certs sentits, però molt malament en d'altres. D'altra banda, volia poder entendre en la seva pròpia lletra, sense doblatges, allò que moderns, mitjans i antics havien escrit. He mencionat els antics perquè curiosament era el llatí la llengua que més m'atreia, la qual cosa és una mostra que també països mal romanitzats, sobretot quan tenen catequistes com els vàrem tenir nosaltres (procedents sobretot de la Companyia de Jesús) en els anys 20-30 i següents, poden sentir atracció per Ciceró o per Horaci, per no parlar *però húpsous,* i també per l'«Edat Mitjana llatina».

La meva vocació jovenívola, vocació resignada que se sabia condemnada a escriure sobres i arxivar correspondència comercial fins a arribar, passant per fer factures, etc., als cims de la comptabilitat per partida doble (noble invent florentí o, en tot cas, italià), os- 10
cil·lava entre la literatura i la matemàtica o, si us abelleix, entre la matemàtica i la literatura: en aquell temps jo, que, com Unamuno en els seus millors moments, no havia sabut esbrinar el que separa *inventar* de *descobrir,* pensava en els enginyers com els promotors de la matemàtica o de la física. Coneixia millor la literatura, que a més

es deixa treballar a estones lliures, però no per això sembla que hagi reeixit a cultivar-la.

La cruel Guerra Civil del 1936-1939 va portar una interminable postguerra que a mi sempre m'ha semblat més cruel, per la seva brutalitat despietada, que la guerra mateix. Tot amb tot, no va deixar de tenir alguna conseqüència favorable per a les arts i les ciències, i no parlo només de la nostra emigració. Cap al 1940-1941 un grup d'amics i companys vàrem constituir un centre obert d'ensenyament, espai obert contingut en un espai tancat i ben tancat, on els més ben informats instruïen els qui, com jo, n'estaven menys. Bé, el que en vaig treure en net, ultra una boira de reminiscències miscel·lànies que no varen deixar-me d'ajudar a llicenciar-me en Lletres, fou el coneixement, molt més pregon en la seva primera part que no pas en la segona, de la *Gramática histórica española* de don Ramón Menéndez Pidal, fet al qual ja m'he referit amb excessiva freqüència, i el record d'un paràgraf del tom I de la *Historia de España* d'Aguado Bleye, obra llavors proscrita sense cap altra raó, fins on arribo a entendre, que la malvolença que alguns devien tenir al seu autor. Sento no recordar-lo al peu de la lletra i tampoc no el puc cupiar: deia, comptat i debatut, que l'enigma ibèric estava a l'espera de nous operaris que comptaven amb bones possibilitats d'èxit.

Que les esperances que aquestes paraules varen poder desvetllar en mi no han donat fruit granat és una cosa que no em cal explicar: la comprensió dels textos pròpiament ibèrics continua més o menys tal com estava, sense que, d'altra banda, a la llengua se li hagi trobat cap parent pròxim. El que després he fet, d'altra banda, sigui bo o dolent, poques vegades s'ha apartat de la mena de temes que allí tractava don Ramón.

Amb això em declaro historiador confés en matèria de llengües, a
11 més de comparatista —de desig només, sí en els meus darrers anys no se m'ofereix alguna troballa improbable—, la qual cosa em col·loca, segons que demostraria fins i tot una enquesta feta a corre-cuita, en el graó més baix de l'escalafó del prestigi en el ramat lingüístic. Crec que això és així, ara i aquí, però no crec que hagués d'ésser-ho de forma necessària.

Com que la cerimònia apressa, se'm disculparà, espero, que en la meva consideració de les idees lingüístiques passi d'un bot des dels segles VI-V a.C. fins a l'última part del XVIII de la nostra era, sense al·ludir a Donat, als *modistae,* a l'amat i desamat Brocense o

als de Port Royal. Els que vénen després, a si més no alguns d'ells, aporten coses de valor indiscutible. Una més precisa caracterització de ço lingüístic, per exemple, fet de què dóna fe la disputa que havia de produir-se després entre filòlegs *stricto sensu* i lingüistes començant per Alemanya; la penetració en la intel·ligència de l'evolució —sempre molt breu— de les llengües; una àmplia informació sobre la diferenciació de les llengües en el temps i en l'espai, en què no hi manca la referència als nivells. I aquest corrent historicista, com ja va assenyalar Bloomfield, va imposar gairebé sense cercar-ho una convicció cada vegada més ferma en l'existència de regularitats en l'evolució, regularitats que, pel fet d'ésser-ho, no necessiten explicació.

La història i la pre-història reben d'aquesta consideració ajuts dels quals cap lingüista mai no ha fet escarafalls. Apel·lo a Hegel, que no se sol citar per a aquests quefers: «El descobriment, fa vint-i-tants anys, del sànscrit i de les seves relacions amb les llengües europees ha estat una gran troballa històrica semblant a la d'un món nou. Ens ha suggerit, en particular, la idea d'un llaç històric entre els pobles germànics i els de l'Índia [i amb els de Grècia i Itàlia, afegeixo, circumstància no gens menyspreable per a un compatriota de Windelband i de Wolf], tesi que comporta tota la certitud que hom pot exigir en aquestes matèries». I la posterioritat ha demostrat que el filòsof de Stuttgart l'encertava més en això que no pas en les afirmacions que en algun moment solemne va deixar anar sobre els elements del sistema solar.

Algun dia, tard i per lliure, vaig passar els meus exàmens a la Universitat, les portes de la qual ja llavors vaig trobar més obertes 12
que no hauria gosat esperançar. Per allí vaig començar a assabentar-me com anava, o semblava que anava, la cosa lingüística a Espanya. Hi havia en quantitat i qualitat romanistes que encara s'anomenaven així i que, presidits per don Ramón, continuaven dins dels nous camins, en la mesura que era possible, l'activitat passada. La filologia clàssica, que ja abans de 1936 tenia la seva recent *Emerita* amb Hernando Balmori i Giuliano Bonfante, es va veure més aviat afavorida qui sap si per allò que els mals espirituals d'Espanya venien, d'ençà de la partició de l'arbre inconsútil, de l'excessiva dedicació a les Ciències en detriment de les Humanitats. D'aquí —del grec, del llatí, de la lingüística indoeuropea— procedeix Tovar, que va estudiar a més a més les llengües hispàniques antigues, sense oblidar-se de la basca, que sol associar-s'hi. Crec, i em limito

a creure, perquè això és una cosa que mai no m'ha atret, que continuava vigent com a llei fonamental l'encarnació lingüística de l'idealisme, l'última instància de la qual era Vossler, amb Croce no sé si més enllà omés ençà: també Bonfante era «neolingüista» i tal vegada ho sigui encara. Pot servir de document, per posar un exemple, el pròleg, tan intel·ligent com dur, que Amado Alonso avantposà a la versió bonaerense del *Cours* de Saussure.

El que acabo de mencionar, autor i obra, ja indica que el clima començava a variar. La primera edició de la *Fonología española* d'Alarcos és de 1950 i de 1951, any en què vaig acabar la llicenciatura, la de la seva *Gramática estructural.* Amb tot, foren els de Clàssiques, més els hel·lenistes que els llatinistes, els qui varen mostrar més fervor per les noves tendències: el llibre de Ruipérez sobre el sistema de temps i els aspectes del verb grec antic és de 1954 i el seu «Esquisse d'une histoire du vocalisme grec», seguit a Espanya de polèmica, apareix a *Word* el 1956. Aquí, a més, i com es veu, hom s'ha saltat les fites de la sincronia, que durant un temps semblaven sagrades.

Ara bé, i ens apropem al final de la història, 1956 és seguit immediatament, sense que calgui alterar amb finalitats escèniques l'ordre dels anys, per 1957. Per dir-ho clarament, l'estructuralisme encara no s'havia acostat aquí a la seva culminació (gent coneguda
13 dissimulava el somriure si a un, sense sortir-se de Trubeckoj, se li acudia d'esmentar la neutralització o les variants combinatòries) quan ja veia la llum aquell llibret de Chomsky que, estel del vespre per a uns, anava a convertir-se per a tants altres en estel del matí. No he de posar-me a calcular a bell ull el nombre i la posició dels batallons que aquí s'enfronten. Fa uns anys, quan encara no m'havia lliurat enterament a la meditació i m'interessava per les coses que passaven al carrer del costat, estructuralistes i generativo-transformacionalistes compartien una mateixa convicció, tan ferma com unànime: cadascú d'ells creia trobar-se ja en el bàndol victoriós, sense concessions a l'enemic.

Pel que em sembla, també coincideixen en una ignorància, comuna i culpable. El generativo-transformacionalista que ens parla dels errors, deixats ja molt enrera, de l'estructuralisme sovint no s'adona que els chomskians de primera hora i mà parlen de la varietat —que, d'altra banda, sembla ser alguna cosa més que una varietat— americana, mentre que entre nosaltres, fins i tot entre gent molt més jove que jo, per estructuralisme hom sol entendre

l'europeu, l'únic de què tenen un coneixement directe. D'aquí que, amb els primers, conceptes com el de «neutralització» no hagin sortit de la desestima que varen tenir entre els pre-estructuralistes no fa pas tant de temps. És una llàstima que tan poca gent, entre mitja dotzena i dotzena entera de persones, s'hagin pres la molèstia aquí d'assabentar-se del que ara anomenem l'estructuralisme americà. Si el coneguessin, sabrien alguna cosa dels aspectes en què l'un i l'altre estructuralismes estaven frontalment oposats («langue» en oposició a «corpus», per exemple) i també d'altres trets, bastants, en què els nous corrents americans són continuadors, no innovadors.

No duré la meva temeritat, basada fins i tot en la ignorància de les dades actuals, a l'extrem de fer pronòstics sobre la sort futura, aquí i fora d'aquí, del que encara és un nou corrent. Hi trobem una fragmentació, que sembla anar creixent i que, alhora que augmenta les dificultats dels nous neòfits, disminuirà també les bases de llur confiança, que sempre tenen en el fons un element no del tot racional de fe, de creure allò que no hem vist. El no iniciat sospita que la teoria estàndard estesa està lluny ja d'ésser estàndard. Hi ha hagut 14
alguna retracció sonada o que mereixeria haver-ho estat, com la de Maurice Gross a *Language.* I així successivament.

Hom pot contraposar, d'altra banda, que més d'una vegada sectes menudes i que només lliuraven de l'anatema si de cas els propis membres s'han convertit en el transcurs dels anys en esglésies àmplies i sòlides. És també natural que el que de bon començament semblava senzill i quedava resolt amb una breu fórmula es reveli després com una font d'obstacles incomptables. Caldrà pensar, en tot cas, que altres tendències, i molt en particular la que l'ha precedida entre nosaltres, tampoc no estan lliures d'aquests inconvenients ni d'altres.

Si em posava a enumerar el que veig d'inconvenient en l'estructuralisme que ha circulat entre nosaltres —del qual, tot sigui dit, m'he nodrit en bona mesura— m'allargaria massa, no hi ha dubte. M'acontentaré, doncs, assenyalant-ne algun aspecte o altre. L'estructuralisme americà tenia unes bases generals —el conductisme, per exemple—, que, malgrat que a mi no em fessin gaire gràcia, tanmateix existien. No podria dir, en canvi, malgrat que hi he parat força esment, quins foren els fonaments de l'estructuralisme europeu, si no és que fos una mena de panlingüisme, creença recolzada per un article una mica imprudent de Lévy-Strauss on la lingüística *(sc.* estructural) era aclamada com el paradigma de totes les ciències

humanes i socials. Atès que la llengua ho abraça tot, la lingüística, sense deure res a ningú, podia estendre la seva mà generosa a tots els camps del coneixement. Aquesta actitud omnicomprensiva contrasta, si se'm permet un apart, amb el desinterès total que altres disciplines, amb l'excepció d'algun grup de filòsofs que rara vegada varen entrar en comunicació amb nosaltres, han demostrat, amb raó o sense, envers la lingüística.

Em permeto d'assenyalar aquí, atès que és un fet al qual no s'ha parat gaire atenció, que entre lingüistes s'han donat els primers mutants que, pel que veig, no entren en l'esquema de C. P. Snow. Em refereixo al lingüista que, procedent de les Facultats de Lletres, Arts o Humanitats i no de l'Arqueologia cultural i dels seus treballs de camp entre gents més o menys primitives —més aviat més que menys—, es gira d'esquena a la literatura de la llengua cultivada fins a l'excés a què deu la seva atenció, fins i tot per titulació professional.

El desinterès d'altri s'ha trencat entre nosaltres amb l'aparició recent (1983 és recent, fins i tot per al criteri més exigent) d'un llibre breu, però dens i contundent, que ve, a més d'un estrany, si hom pot anomenar així ningú en matèria de coneixement: Mario Bunge, *Lingüística y filosofía,* Ariel Quincenal, Barcelona. Aquí no faig sinó assenyalar que Bunge, que ara és llegit entre nosaltres en olor de saviesa i no sense raó, s'hi mostra inclement amb Chomsky i la seva fecunda escola, negant tot caràcter científic a les seves idees en més d'un punt, talment com ho fa amb la psicoanàlisi.

Sento respecte i admiració —provats— per Bunge, però em permetré d'assenyalar que la seva apreciació de les idees de Chomsky, que en diversos aspectes serien anticientífiques per retrògrades, no és sempre «localment» vàlida, judici que es pot defensar en el terreny més familiar. Al meu parer, la seva aportació als medis lingüístics espanyols ha estat molt més positiva que negativa.

D'ençà que va començar la divulgació de les seves idees s'ha generalitzat la concepció que hi ha una cosa que es pot anomenar ciència, amb majúscula o amb minúscula, les manifestacions de la qual no s'han de dividir necessàriament entre *Natur-* i *Geisteswissenschaften:* la gent, o més ben dit els lingüistes, ha arribat a sentir parlar del Cercle de Viena i dels seus contradictors, dada essencial si hom recorda que, ja fa anys, Bloomfield va participar en l'*Encyclopaedia of Unified Science* i que de Bloomfield i Zellig S. Harris (± Quine i altres) procedeix Chomsky. S'han assabentat també que hi ha una lò-

gica que no es resumeix i xifra en *Barbara, Celarent, Darii, Ferio, Baralipton,* etcètera, de què ja abominava Lluís Vives: avui, de lògica, com d'Espanya, només n'hi ha una, per molt que es presenti en diversos *avatara.* Ha crescut molt el nombre dels qui creuen que la matemàtica no és la ciència de la quantitat, sinó que troba en les estructures el seu camp predilecte. Podríem continuar d'aquesta manera no sé pas fins a on. Així, en semàntica, hem recordat finalment 16
Frege, alhora que ens anàvem oblidant d'Ogden i Richards.

«Segons els lingüistes clàssics —ens diu Bunge—, la gramàtica coincideix amb la sintaxi». Això és veritat per al Brocense, com podria provar-se sense esforç text en mà, però no sé fins a quin punt pensaven així els lingüistes clàssics, en el supòsit que sabéssim a qui al·ludeix l'expressió, o si aquesta manera de pensar era acceptada dins el gremi per la generalitat o mal que fos per la majoria. Si fos així, no s'hi comptaven els estructuralistes europeus, l'aportació dels quals a la sintaxi ha estat inferior, al meu parer, a la de qualsevol altra escola: cal no deixar-nos enganyar per la *syntaxe structurale* de Tesnière, títol possiblement pòstum, autor que només en data més recent ha començat a ésser apreciat en el seu just valor. I el pitjor de tot no és pas això. El pitjor de tot és que els estructuralistes s'han dedicat a difamar en aquest domini els seus predecessors («tradicionals», «filòlegs», neogramàtics, etcètera) amb acusacions que no tenien altre fonament sinó la ignorància pura i simple: ¿qui, llevat de qui no els hagi llegits, pot negar valor a Delbrück, a Wackernagel, a Behaghel, a H. Paul, a Löfstedt, a Jespersen? Ara els nous surten finalment en defensa de la sintaxi (ajudats, sens dubte, pel fet que en anglès la morfologia és quasi menyspreable), i això només els faria ja creditors del nostre reconeixement.

La lingüística pura, la que fou anomenada immanent, la de les estructures incorpòries que es desentén de l'espai i temps i àdhuc dels parlants mateixos, pot ser, i és probablement, una necessitat que no té res de dolent mentre no sigui presa com a exclusiva. I, en aquest terreny, s'ha de dir que Bunge no ha conegut els immanentistes en el seu estat pur, a la Hjelmslev, els quals han dut fins a l'extrem que creien obligat les manifestacions de Saussure en uns cursos ocasionals, en els quals creia cobrir l'absència irremeiable d'un col·lega i no pas dictar des del seu Sinaí ginebrí els manaments d'un nou decàleg d'ús obligat per a lingüistes.

En tot cas, no és pas la puresa avui com avui el nostre perill més greu. Disciplines mixtes i aplicades són cada vegada més cultivades,

17 per vocació i per necessitat. I és just de reconèixer que, fora de Dinamarca, estructuralistes i funcionalistes com Martinet han fet tot el que han pogut per afavorirne el conreu.

El mateix caldria dir pel que fa al contacte de llengües, que mena inevitablement a l'estudi de l'aparició de varietats lingüístiques noves, per bé que no creades *ex nihilo.* Això, d'altra banda, no pot deixar d'influir en la nostra concepció del parentiu lingüístic.

Discutir amb gent com Bunge és cosa que només es produeix molt rara vegada, quan el tema ha estat triat del nostre camp, i encara llavors la discussió corre un greu risc d'ésser unilateral. Portant-la a un altre terreny, m'inclinaria a pensar —sense modèstia, de segur— que els espais de temps a què s'estén la història lingüística que ens és dat de conèixer, moments brevíssims en suma, ben poc ens han d'ensenyar sobre l'origen del llenguatge i de la seva evolució abans que aquest fos l'única cosa que coneixem: llenguatge llis i ras, llenguatge autèntic per als alts i per als baixos, per als antics i els moderns.

Si més no, consola de veure que alguna vegada el lingüista, fins i tot l'humil comparatista, arriba a conclusions més fermes que cultivadors de disciplines molt més capaces de predicció i retrodicció. «La reconstrucció hipotètica d'una protollengua, com el protoindoeuropeu, és tan arriscada com la reconstrucció hipotètica de la fase inicial de l'expansió de l'univers» —afirma Bunge, sense gaire fonament—. Una protollengua, en efecte, no és l'origen de res, sinó una cosa que, en absència d'una altra cosa millor, es pren com a origen arbitrari. D'altra banda, és un constructe que hom té el dret de construir quan se sap, perquè s'ha demostrat més d'una vegada, que pot descobrir trets de sistemes lingüístics passats i, més que res, perquè arriba a explicar algunes relacions d'analogia que es troben en estats coneguts de llengua. I, sigui dit entre parèntesis, l'indoeuropeu ras i curt, el correlat suposat del nostre indoeuropeu amb asterisc, és una cosa que hom pot situar a uns pocs milers d'anys, mil·lenni de més, mil·lenni de menys. No es troba, com el *big bang*
18 o el que fos, a aquestes distàncies de temps que la gent, no sense raó, anomena astronòmiques.

I, sense altra cerimònia, acabo aquests mots. Ara tinc dos motius d'agraïment: de primer, el que m'ha dut fins aquí, i, segonament, el que dec a tothom qui ha tingut la paciència d'escoltar-me.

38

[EDUARDO TXILLIDAZ]

Guztiok dakigu zerk bildu gaituen Donostian, Eduardo Txillidaren jaioterrian eta are bere lantegian bertan, eta ez da gure artean egunero ospatzen den bezalako gertakaria. Erabakitzaileen buru den Alfred Hentzen irakasleak arestian aditzera eman duenez, Txillidak jaso du aurten laugarren aldiz eskainia izan den Rembrandt Saria. Sari hori, molda-arteak aitzinatzeko pentsatua, Goethe-Stiftung deritzan erakundearen eskutik dator. Eta erakunde hori, beste zenbaiten artean, Toepfer familiari eskerrak sortua dugu.

Ohi ez bezalako jaialdi batez mintzatu baldin banaiz, ez da, jakina, Txillidaz ari naizelako izan. Egungo egunekoa den apurrenik gutietsi gabe, ez da hau eraman duen lehen saria eta ez da, Jauna lagun, azkena izango. Guretzat harrigarri gerta daitekeena beste zerbait da: sari hau sortzekoan, Toepfertarrek, Alfred Toepfer jauna buruzagi dutela, erakutsi duten eskuzabaltasuna. Gure arteko aberatsok —holakoak ere ba omen ditugu eta— ondasunak ugaritzeko baitaude gehienbat; bakanka baizik ez, onenean ere, barreiatzeko.

Guztiori badakigu eta badakit. Ez dakidana harako beste hura da: zer dela eta etorri naizen hona, edo zergatik ekarri nauten. Eztarri baxua dut, izan ere, behialako bertsolariaren antzera, direlako κλέα ἀνδρῶν horiek behar liratekeen moduan goraipatzeko. Laburbeharrez diodan, beraz, Txillidaganako adiskidetasuna eta Txillida eta biok lotzen eta elkartzen gaituzten zenbait atxikimendu sendo izan direla mintzaldi motel honen eragile.

Zeruko argia 1975-IV-13, 7; *MEIG* VIII, 57.-60. or. [Argitaratzaileen oharra: artikulua honako izenburu honekin argitaratu zen: «Koldo Mitxelenaren hitzaldia»].

Ez naiz gauza Txillidaz artista den aldetik mintzatzeko: arlo horretan, ez naiz miresle ixil bat baizik. Lehen eta orain izan dituen juezak mintza daitezke, gainera, eta mintzatu dira. Gizona ere hor dugu, ordea, eta gizonaren gizalegea aipatu nahi nuke. Artelana ez da sekula izan Txillidarentzat bere burua hurkoagandik, lege guztien gainetik eta eginbide guztien azpitik, bereizteko eta saihesteko bidea: izartegi garbia gau ilunean bezain distiatsu ageri den lege bakar hartaz ari naiz, jakina, eta ez hemen behereko hala-holako legeez. Beretzat eta besterentzat ari da lanean, argi bila eta argi eskainka. Emateak baitu aberastu, ez zikoizki irabazkinak gordetzeak.

Burulana izan da Txillidarena, holakorik baldin bada, baina burulana adinbat eskulana. 1951 inguruko hotzaldian, Hernaniko sutegian aurkitu zuen bidea, aspaldiko sugin eta olagizonen antzera burdinaren gogortasuna menderatzen ikasi ahala. Lanaren podorioz hezi behar da gai moldakaitza, eskulana dela medio landu, mintzabide eskurakoi bihurtuko baldin bada. Hortik hasi zitzaigun Txillida, diren eta izan diren artista gailen guztiak bezala. Artelana, izan ere, lana da lehenbizikoz, langile eta ofiziale trebearen lana. Gero, inoiz edo behin bederen, erantsi zaie bizibeharrak eragin dituen obrei, ezarian bezala, eder-lore gisako emendailu hori. Are geroago, premiaren lokarriak lasatu ondoan astia eta beta aurkitu duenean, abiatu da gizona osotasun eta betegintzarre horren bila, beste egitekorik gabe.

Hitzak dira, hitz kontuan sar banaiteke, umil itxurako etorki goitar horren lekuko. Aski genuke, urrutirago jo gabe, latinezko *texere,* eta hor dituzue direlako testuak, eta *fingere*-ren kondaira gaingiroki azaltzea. *Fingere* litzateke hain zuzen *(imagines uel signa)* Txillidaren egitekoa. Orobat, ordea, eta areago, *figulus* zelako eltzegile apalarena.

Txillida, langileen artean langile, ez dabil, zenbaiten gisan, inondik etor dakiokeen omen eta ospe hutsalaren ondotik. Barrenak eskatzen duena mamitzen denean, behar bezala egin den lanak berekin dakar saria. Eta adieraz-min horrek, gora-goraka hegaldatzen bada ere, erroak ongi landatuak ditu lurrean, gizon den orok, gogoz eta gogotik bere egitekoetan diharduenean, utzi nahi lukeen kristau seinalearen pare baita. Guztiok nahi genioke geure nortasunaren ezaugarria josi landu dugun gaiari. Gutik baizik, ordea, ez du eskumarka iraunkorrik utziko.

Txillida mundu zabaleko seme dugu. Darabilen hizkuntzak ez du hitzen premiarik, aditzera eman nahi lukeena ez baitu inongo

hitzek emango aditzera. Eta hitzak ezinbestean bereizgarri gertatzen direnez gero, bada, edozeinentzat, judu nahiz jentilentzat, mintza daiteke eta hala mintzatu da, mintzatu ere. Halaz guztiz, bere obrek, ixilik ari direlarik hizketan, badute, haatik, izena. Eta izen hori maiz izan da euskal izena.

Izen horiek aitortzen dute, goraki eta ozenki, Euskal Herria dela Txillidaren herria. Sorterri zabalagorik hauta zezakeen, baina, deusi ere uko egin gabe, bazter hauetan gelditu zaigu: hemengo delako halabeharrez eta, batez ere, hemengotar izan nahi duelako, jakinaren gainean. Euskal artisten lerroan ipini du bere burua, tradizio baten barrutian beraz, ez hemen ikasi dituelako dakizkienak, ez hemengo lurraren lurrina darien gaiak erabili dituelako, ezta ere atzerriari (non dugu Txillida atzerritar eta arrotz?) entzungor egin nahi diolako. Gure artean ikasi duena besterik da: gizaldiz gizaldi, inoiz nabarmendu ez diren arbasoengandik datorkion jakinduria eta zuhurtzia, haiek irakatsi dizkioten buruzpideak eta portaerak. Euskaldun izatea ez da gizon izateko era bat besterik, gizon oso eta betea izatekoa horretarako kemenik dugunean, Txillida izatea gizon izateko bidea eta modua den bezalaxe. Ezin dezake Txillidak bere nortasuna uka, eta ezin uka dezake, dioena dioela eta dagiena dagiela, bere euskaltasuna. Bere nortasuna ukatzea eta murriztea bezanbat bailitzateke.

Ezin uka zezakeen, batik bat, herri xume horrek artean ezagutu duen ordurik larrienean jaio delako. Indartsuen alde jaiki zitekeen, noski, indartsuen eskaintzak tentagarriago baitira beti; inoiz baino areago egungo egunean, eta inorentzat baino gehiago plazagizonarentzat. Dagoen lekuan dago, ordea, hor aldamenean somatzen dituelako lerro-lerro lehen eta orain herri hau, dena den, gatzatu dutenen andana luze mutuak. Eta, horiez gainera, *List der Vernunft* delakoak engainaturik kondairan barrena gailendu diren ikasiago, landuago eta ausartago bakanak. Orobat salgai ez dagoelako, eta laguntza eske daukagun hainbesteren deiak ukitu duelako.

Euskaldunok, eta Txillida dakart lekuko, ez gara arrotz Europa honetan, Europan bizi baikara eta Europan ari, europarren berri jakin dezakegunez gero. Eta Europa ez da, guretzat behintzat, eskualde zabal nahiz mehar, bortitz nahiz ahul, aberats nahiz behartsu baten deitura soila. Hori ederki ikusi zuen Wilhelm von Humboldtek 1800 inguruan eta are nabarmenkiago ageri da gure egunotan. Europa dioenak zerbait gehiago dio, nahitaez. Europak, bere buruaz oharturik abiatu zenez geroztik eta zenbait bidegal-

tze gorabehera, bihotz-erraietan iltzatua daraman grinaz eta ixuriaz ari naiz. Gizonari —gizon delako, eta kito— dagokion bizimoduaren bila lehiatu da, jakite egarriz, giza eskubideen eta kunpliaraziko diren lege zuzenen alde. Laburzki esan dezadan, askatasuna erdietsi nahi du, edota askatasunera daraman bide zabala gutienez. Hori izan da, behinik behin, Europaren izpiritua, noiz edo noiz bide horretarik baztertu bada ere, europarrik argienek eta onenek adierazi dutenez mendez mende.

Ez dut esango artea ezin lora daitekeenik askatasunik gabe, aski baikenuke Txillida aipatzea hori egia ez dela erakusteko. Baina ezin eraman du gogorkeriak nagusi ikustea, askatasunaren gose-egarria bere baitan baitarama, beretzat eta besterentzat. Arteak ez luke etikari loturik egon behar, batez ere etika-lege horiek maizegi indarzaleek asmatuak direlako, nahasketa beste biderik ez baitute aurkitzen bere buruen alde jokatuko badute. Artista, halaz guztiz, ez dago edozein legeren gainetik. Bere eskuko den etikaren sortzaileak esan zuenez, eta ondorengo zuzen izan du Txillida, ez da deus mundu honetan eskubide osoz on dei dezakegun gauzarik, borondate ona izan ezik.

39

EDUARDO TXILLIDARI / A EDUARDO CHILLIDA

Hona tokialdatzen ditut, direnak diren, Eduardo Txillidaren omenez beste aldi baterako prest neuzkan lerro batzuk. Ongi dakit ez naizela honelako egokiera batez baliatzeko jaioa. Barkakizun izan bekit, halaz guztiz, hemen aski destenorez plazaratzea. Hark eta nik, izan ere, adiskidetasuna dugu bitarteko; nik harengana, esker oneko agertu beharra. Beste zenbait atxikimendu sendoren artean, batik bat, darabildan hizkuntzaganakoak ere biltzen gaitu elkargana, ezinbestean. 33

Ez naiz gauza, lehen burutik hasteko, ez sorreraz eta ez joeraz, direlako κλέα ἀνδρῶν horiek behar liratekeen moduan goraipatzeko. Ez naiz nor, gainera, Txillidaz artista den aldetik mintzatzeko, ez bainuke neurekiko gozamenaren lekukotasuna baizik eskainiko. Sail horretan ez naiz miresle ixil bat besterik, eta besteren, hangoen eta hemengoen, esanera nago. Gizona ere hor dugu, ordea, eta gizonaren gizalegea aipatu nahi nuke.

Artelana ez da sekula izan Txillidarentzat bere burua hurkoagandik, lege guztien gainetik eta eginbide guztien azpitik, bereizteko eta saihesteko bidea: izartegi izarratua gau ilunean bezain distiratsu ageri den lege bakar hartaz ari naiz, jakina, eta ez hemen behereko hala-holako legeez. Beretzat eta besterentzat ari da lanean,

---

Revista de Occidente 3 (enero 1976), 33-35; *EN* 303.-306. or.; *GA* 259.-262. or. [Argitaratzaileen oharra. Idazlan honen euskarazko zatia eta *Zeruko argia* aldizkarian argitaratu zena —hemen 38 zenbakia daramana: «Eduardo Txillidaz»— funtsean testu bera badira ere, elkarren arteko aldaerak ez dira falta, batez ere hasierako lerroetan: testuaren itxura gehiegi ez aldatzeko eta, orobat, bi argitalpenen osotasuna gordetzeko bereizita eman ditugu].

argi bila eta argi eskainka. Emateak baitu aberasten, ez zikoizki irabazkinak gordetzeak.

Burulana izan da Txillidarena, holakorik baldin bada, baina burulana adinbat eskulana. 1951 inguruko hotzaldian, Hernaniko sutegian aurkitu zuen bidea, aspaldiko sugin eta olagizonen antzera burdinaren gogortasuna menderatzen ikasi ahala. Lanaren podorioz hezi behar da gai moldakaitza, eskulana dela medio landu, mintzabide eskurakoi bihurtuko baldin bada. Hortik hasi zitzaigun Txillida, diren eta izan diren artista gailen guztiak bezala. Artelana, izan ere, lana da lehenbizikoz, langile eta ofiziale trebearen lana. Gero, inoiz edo behin bederen, erantsi zaie bizibeharrak eragin dituen obrei, ezarian bezala, eder-lore gisako emendailu hori. Are geroago, premiaren lokarriak lasaturik astia eta beta aurkitu duenean, abiatu da gizona osotasun eta betegintzarre horren bila, beste egitekorik gabe.

Hitzak dira, hitz kontuan sar banaiteke, umil itxurako etorki goitar horren lekuko. Aski genuke, urrutiago jo gabe, latinezko *texere,* eta hor dituzue direlako testuak, eta *fingere*-ren kondaira gaingiroki azaltzea. *Fingere (imagines uel signa)* litzateke, hain zuzen, Txillidaren egitekoa. Orobat, ordea, eta areago, *figulus* zelako eltzegile apalarena.

Txillida, langileen artean langile, ez dabil, zenbaiten gisan, inondik etor dakiokeen omen eta ospe hutsalaren ondotik. Barrenak eskatzen duena mamitzen denean, behar bezala egin den lanak berekin dakar saria. Eta adieraz-min horrek, gora-goraka hegaldatzen bada ere, erroak ongi landatuak ditu lurrean, gizon den orok, gogoz eta gogotik bere egitekoetan diharduenean, utzi nahi lukeen kristau seinalearen pare baita. Guztiok nahi genioke geure nortasunaren ezaugarria josi landu dugun gaiari. Gutik baizik, ordea, ez du eskumarka iraunkorrik utziko.

Txillida mundu zabaleko seme dugu. Darabilen hizkuntzak ez du hitzen premiarik, aditzera eman nahi lukeena ez baitu inongo hitzek emango aditzera. Eta hitzak ezinbestean bereizgarri gertatzen direnez gero, bada, edozeinentzat, judu nahiz jentilentzat, mintza daiteke eta hala mintzatu da, mintzatu ere. Halaz guztiz, bere obrek, ixilik ari direlarik hizketan, badute, haatik, izena. Eta izen hori maiz izan da euskal izena.

Izen horiek aitortzen dute, goraki eta ozenki, Euskal Herria dela Txillidaren herria. Sorterri zabalagorik hauta zezakeen, baina, deusi ere uko egin gabe, bazter hauetan gelditu zaigu: hemengo delako halabeharrez eta, batez ere, hemengotar izan nahi duelako, jakinaren gainean. Euskal artisten lerroan ipini du bere burua, tradizio

baten barrutian beraz, ez hemen ikasi dituelako dakizkienak, ez hemengo lurraren lurrina darien gaiak erabili dituelako, ezta ere atzerriari (non dugu Txillida atzerritar eta arrotz?) entzungor egin nahi diolako. Gure artean ikasi duena besterik da: gizaldiz gizaldi, inoiz nabarmendu ez diren arbasoengandik datorkion jakinduria eta zuhurtzia, haiek irakatsi dizkioten buruzpideak eta portaerak. Euskaldun izatea ez da gizon izateko era bat besterik, gizon oso eta be- 34
tea izatekoa horretarako kemenik dugunean, Txillida izatea gizon izateko bidea eta modua den bezalaxe. Ezin dezake Txillidak bere nortasuna uka, eta ezin uka dezake, dioena dioela eta dagiena dagiela, bere euskaltasuna. Bere nortasuna ukatzea eta murriztea bezanbat bailitzateke.

Ezin uka zezakeen, batik bat, herri xume horrek artean ezagutu duen ordurik larrienean jaio delako. Indartsuen alde jaiki zitekeen, noski, indartsuen eskaintzak tentagarriago baitira beti; inoiz baino areago egungo egunean, eta inorentzat baino gehiago plazagizonarentzat. Dagoen lekuan dago, ordea, hor aldamenean somatzen dituelako lerro-lerro lehen eta orain herri hau, dena den, gatzatu dutenen andana luze mutuak. Eta, horiez gainera, *List der Vernunft* delakoak engainaturik kondairan barrena gailendu diren ikasiago, landuago eta ausartago bakanak. Orobat salgai ez dagoelako, eta laguntza eske daukagun hainbesteren deiak ukitu duelako.

Euskaldunok, eta Txillida dakart lekuko, ez gara arrotz Europa honetan, Europan bizi baikara eta Europan ari, europarren berri jakin dezakegunez gero. Eta Europa ez da, guretzat behintzat, eskualde zabal nahiz mehar, bortitz nahiz ahul, aberats nahiz behartsu baten deitura soila. Hori ederki ikusi zuen Wilhelm von Humboldtek 1800 inguruan, eta are nabarmenkiago ageri da gure egunotan. Europa dioenak zerbait gehiago dio, nahitaez. Europak, bere buruaz oharturik abiatu zenez geroztik eta zenbait bide-galtze gorabehera, bihotz-erraietan iltzatua daraman grinaz eta ixuriaz ari naiz. Gizonari —gizon delako, eta kito— dagokion bizimoduaren bila lehiatu da, jakite egarriz, giza eskubideen eta kunpliaraziko diren lege zuzenen alde. Laburzki esan dezadan, askatasuna erdietsi nahi du, edota, gutienez, askatasunera daraman bide zabala. Hori izan da, behinik behin, Europaren izpiritua, noiz edo noiz bide horretarik baztertu bada ere, europarrik argienek eta onenek adierazi dutenez mendez mende.

Ez dut esango artea ezin lora daitekeenik askatasunik gabe, aski baikenuke Txillida aipatzea hori egia ez dela erakusteko. Baina ezin

eraman du gogorkeria nagusi ibiltzea, askatasunaren gose-egarria bere baitan baitarama, beretzat eta besterentzat. Arteak ez luke etikari loturik egon behar, batez ere etika-lege horiek indarzaleek asmatuak direlako, nahasketaz beste biderik ez baitute aurkitzen bere buruen alde jokatuko badute. Artista, halaz guztiz, ez dago edozein legeren gainetik. Bere eskuko den etikaren sortzaileak esan zuenez, eta ondorengo zuzen izan du Txillida, ez da deus mundu honetan eskubide osoz on dei dezakegunik, borondate ona izan ezik.

* * *

Traslado aquí, valgan lo que valieren, unas líneas en homenaje a Eduardo Chillida, que tenía preparadas para otra ocasión. Bien sé que no soy la persona más adecuada para tomar la palabra en un momento como éste. Espero, con todo, que mi presencia un tanto extemporánea pueda tener alguna excusa. Me unen a él lazos de amistad común y tengo con él una deuda particular. Y, sobre todo, entre otros apegos que compartimos está el apego que tenemos hacia la lengua en que he escrito estas palabras.

Ya en principio soy persona poco apta, por capacidad y por inclinación, para cantar dignamente κλέα ἀνδρῶν. Por otra parte, no podría aportar al juicio de su obra algo que no sea el testimonio de una satisfacción personal. Sólo puedo admirarla en silencio y escuchar a quienes, allí o aquí, tienen autoridad para hablar. Con todo, el hombre está siempre al lado de la obra, y es del hombre de quien quiero y puedo hablar.

El arte jamás ha sido para Chillida un medio de apartarse del común de las gentes, de ponerse más allá o más acá de las leyes y de los deberes. Hablo, claro está, de esa ley inmutable cuya desnuda belleza ha sido comparada con la del firmamento estrellado, y no de las innumerables trabas legales que algunos se empeñan en amontonar para defender privilegios de grupo. Al trabajar ha trabajado tanto para los demás como para sí mismo, ha buscado la ley para difundirla. Si se ha enriquecido, ha sido por dar, no por guardar con codicia lo que había adquirido.

El trabajo de un escultor, actividad intelectual si las hay, es también, y antes que nada, un trabajo manual. Y fue precisamente en la fragua de Hernani, cuando hacia 1951 andaba hundido en su noche oscura, donde Chillida encontró su camino a medida que aprendía a domeñar, a la manera de los viejos ferrones vascos, la resistencia del metal. Ahí está el punto de partida de Chillida, el

mismo de los que le han precedido: hace falta trabajar con las manos si se quiere conseguir que la materia, por rebelde que sea, acabe por volverse medio dócil. Un producto artístico no es, en efecto, al menos en principio, sino la obra de un obrero, de un artesano diestro. Lo que sucede es que a las obras nacidas de la necesidad se les ha añadido de cuando en cuando, sin esfuerzo alguno y como una excrecencia natural, un plus de belleza, que las convierte en completas y perfectas. Y sólo más tarde, cuando el ocio se hizo posible, ha cabido la posibilidad de buscar esa perfección como un fin que no tiene que subordinarse a ningún otro.

Las palabras, si podemos jugar con ellas, dan testimonio de los orígenes, que no tienen de humilde más que la apariencia, del arte más elevado. En latín, por citar un ejemplo, se podían *texere* tanto telas como navíos, templos y palabras, es decir, textos. Se podían *fingere,* como ha hecho Chillida, *imagines uel signa,* pero también, y éste era el oficio del *figulus,* modestos cacharros.

Chillida, obrero entre obreros, nunca se ha sentido atraído por la sombra de ese renombre, tan buscado como fútil. El trabajo bien hecho, exigido por una impulsión íntima, no tiene que perseguir una recompensa que le venga de fuera. Y esta necesidad de expresarse dando forma a cualquier materia es patrimonio de la humanidad entera. Todos desearíamos dejar una huella personal, lo más duradera posible, en lo que hacemos. La marca de los *pauci electi* no es el deseo, que les es común con los demás, sino la consecución de aquello a que se aspira.

Chillida tiene tanto derecho como cualquiera a llamarse ciuda- 35
dano del mundo. El lenguaje de que se vale no necesita palabras, ya que ninguna palabra podría expresar lo que él quiere expresar. Y, como las palabras son necesariamente diferenciadoras por ser como son *einzelsprachlich,* por pertenecer a una lengua concreta, puede hablar, y ha hablado, a judíos y a gentiles. Con todo, aunque sus obras sean mudas, llevan sin embargo nombres que han sido en varias ocasiones nombres vascos.

Tales nombres constituyen la prueba patente de que Chillida es vasco y quiere serlo conscientemente. Tiene, sin duda, muchas patrias que podría llamar con derecho suyas, pero, sin renunciar a fidelidad alguna, ha optado por la adhesión al rincón natal. Ha elegido insertarse, como artista vasco, dentro de una tradición. No es en el País Vasco donde ha aprendido todo lo que tenía que aprender: no ha acudido en busca de motivos a las fuentes del repertorio

local. No es eso, sino algo muy distinto, lo que debe a su país y a su pueblo: ha aprendido ahí un estilo de vida y de comportamiento. Ha encontrado un molde en que conformar sus aspiraciones estéticas y sus exigencias éticas. Ser vasco no es sino una manera de ser hombre y hasta de ser hombre cumplido, si alcanzan las fuerzas para ello. No se puede decir que sea mejor o peor que cualquier otra: tan sólo es diferente. Y Chillida no podía renunciar a su condición de vasco sin empobrecer así, sin negarla casi, su propia persona.

Esto le era, además, tanto más difícil cuanto le tocó en suerte nacer en el momento mismo en que la existencia y la supervivencia de su pueblo aparecían más amenazadas. Podía despreciar a los poderosos, pero no podía renegar de los débiles. No ha sucumbido a la tentación, más apremiante para un hombre público, de unirse al partido de los fuertes. Sigue, por lo tanto, unido a los suyos, a los contemporáneos y a esa larga sucesión de antepasados oscuros cuya obra común es el pueblo vasco. Habría que añadir a la cuenta el puñado de los que, engañados por lo que se ha llamado mañas de la Razón, han legado su nombre a la Historia.

Los vascos, y Chillida lo es, no somos extraños a Europa: por lejos que se remonten los recuerdos, nos encuentran habitando y trabajando ahí. Ya lo señaló hacia 1800 Guillermo de Humboldt, y hoy sería todavía más manifiesto, si ello fuera posible. Y Europa no es sólo la denominación de un país grande o pequeño, fuerte o débil, rico o pobre. Decir Europa significa, quiérase o no, decir algo más. Porque, desde que tiene conciencia de sí, Europa es también, a pesar de debilidades y retrocesos, un conjunto de ideas-fuerza, un impulso hacia la ciencia, hacia la dignidad y los derechos del hombre. En una palabra, hacia la libertad. Ésta ha sido, al menos, durante siglos, sin hacer acepción de personas, la exigencia de los mejores espíritus europeos.

Sería inexacto decir que el arte sólo florece en libertad, opinión bien fácil de refutar: el nombre solo de Chillida bastaría, en efecto. Pero el arte, allí donde la libertad ha sido desplazada por la coacción y la opresión, tiende a ella y trabaja por ella. El arte no tiene por qué verse sujeto a los preceptos de una moral cuya dignidad es menoscabada tan a menudo por gentes interesadas en la confusión, pero no por ello se halla el artista por encima de toda norma ética. Como decía el descubridor de la moral autónoma, y en Chillida ha tenido siempre un discípulo activo, no hay nada que pueda llamarse bueno en este mundo, a no ser una buena voluntad.

40

P. VOLBOUDT, *TXILLIDA*

Txillida eta Zizelkaritza, (Eskultura, alegia), elkarri lotuak datoz lan honetan. Eskultura, gai eta lekudun ertia duzu. Erti honek, gorpuzki eta tarteari kentzen die bere lanerako eta eratarako mamia. Horrezaz gainera, hari edo honi kentzen dion bulkoetatik hartzen du bere itxura. Ideia batek, argibide batek, ustekizun batek, plastika bat tajutzen du. Gauzen inguru dugun burutapen batek erabakitzen du gure eskulana nolakoa izango den. Une hartako gure ikuspegiari zor zaio gauzen aldaketa. Itxuren morroi delarik, sentierak ematen dion ikuspegiak eta aldez haruntzako iritzi ezin iheskorraren iraupenak, mugatzen eta aldatzen du bere sorkaria. Munduaren iduri batetik jaikitzen da irudizko munduaren leinurua. Honek, aldiz, muturka bidaltzen du, baina beti ere, badu haren airea. Hori da sort-iturriaren bultza iluna. Erti-gizonak, nahiz eta bere gogoz kontra, iduri horren mugetan lortzen du bere ikusmena. Bere egina aurrez izendatzen zaio. Baina han du bere lan-gaia, menderatzeko; han du lekua, inguratzeko; han, lan-bideak, deritzona aukeratzeko. Hori bere esku du. Bide horiek guziak eskura baditu ere, batek bakarrik lotzen du bere asmoa; eta aukera, argi berriaren indarrez mamitzen

---

Pierre Volboudt, *Txillida,* Bartzelona, Editorial Gustavo Gili, 1967, 5.-27. or.; *MEIG* IX, 115.-146. or. [Argitaratzaileen oharra: liburuaren 4. orrialdean honako hau irakur daiteke: «Etxaniz'tar Nemesio ta Mitxelena'tar Luis'ek euskeratua». Inon aipatzen ez bada ere, pentsatzekoa da euskal itzulpena argitaletxe berean atera zen gaztelaniazko bertsiotik egin zela: Id., *Chillida,* trad. de J. E. Cirlot, ib., id., 1967; jatorrizkoa, berriz, honako hau izan zen: Id., *Chillida,* Paris, Maeght, 1967. Testuan zehar aipatzen diren zenbakiek liburuan argitaratu ziren argazkiei egiten die erreferentzia].

da. Gaia, eratzen den bezala, bera da mugatzaile eta erabakitzaile lanean. Gai hau edo hori, bere izate bereziari eskerrak, lanerako egokiena gertatzen da, eta honela menderatzen zaio egileari; beste gaia, muturka datorkio bere asmoetarako, eta galbidera darama. Gai baten beratasunak, sormena uxatu eta ahuldu egiten du. Beste gai baten moldagaitzak, ertilariari asma-bidea zabaltzen dio. Bere ahalik osoena zor dio eta eten-zori hori da lanaren bizigarri. Hori gabe, itxura hutsa izango litzateke guzia. Irtenbidea arriskuan jarriaz, burutapena mamitzen den unean, orduantxe erabakitzen da jokoa. Irudia, artean ertzik gabea, mugatzen denean, «zer izango»-ari, «hau da» esaten dionean, ertilariak burutua du bere egitekoa.

Ertien artean, eskultura da, noski, bi eginkizun horiek «plastika-egoeraren» xehetasunen maixutza oso eta zehatza eskatzen duten langintza. Beste ertien artean, hau da Heraklitoren liskar-ideiaren mendean dagoena. Hartzen duen lekuarekin liskarra, honen jabe egiten delarik; gaiarekin liskarra. Honen mendetik askatzen baita era, zerbait izaten hasteko. Zenbat eta «zer-ezagoa» den bata, are eta erabakiagoa eskatzen du iduria; zenbat eta lepa harroagoa den bestea, are eta egokiagoa gertatzen da eskultorearen sormenak bere oinarrian duen etsaikeria ugaria adierazteko. Mukulu hilari ibilmena atera, gairik ez duenari gorputza eskaini, irudipen-ametsa hari ezarriaz, ikutuezina «zer» denari itsatsiaz, eraren alderdi ezkutua ikusten denaren bidez agertuaz. Honela argitara ateratzen da elkar-etsai diren legeen korapilo bizia. Horietan askatzen dira bere batasun askotarikoak dituen elkar-ukoak. Egintza batek elkar-borroka hori argitan jartzen du. Imintzio bakoitzak, indar buru-lotaile eta agintari baten eraginez, sartu eta luzatu egiten du. Ertilariak bere gogo-ohartze eta ertiaren muinean biziarazten du. Honela,
6 ondoren eta arrisku guziak bere gain hartuaz, uko bizigarriak esnatuaz, axaxatzen du sor-lana. Eta hau, bere erak eta bere gogapenak bideratzen dituzten «plastika-bulkoak» aukeratzen dituen egunetik. Bere lan-mugari begirik kentzeke, mila ingurumariren bitartez iristen du lana burutzea. Bere erabakiaren zirkin bakoitza, egipenezko iduri ikugarri gertatzen da. Egipen horiek konturamen gotor baten umeak dira. Han dabil etengabeko adierazpenetan murgildua, behin eta berriz, uka-gozoka, zertugabeko osamenean, bere eginasmoarekin bat egin arte, bere indar guzien ahaleginez erantzuten duelarik.

Ertilariak, ustebitxiko amets-asmoa du. Zertasunaren bi maila batu eta berdintzekoa, alegia. Hala nahi lituzke, agiriko egia, ma-

miketa sendoa eta haren eragin-luzapenak batean bildu. Amorerik eman gabe, bi mandatu elkarkidetzeko gogoz ari da; burutapena eta bere esanera ekarri nahi luken gorbizikeria, bere eskera behartu nahi duen egoskorkeria, alegia; biak batean urtu eta erak berak argitzen dion bidez sortzailea zuzenduaz eta sorkaria erabakiaz aritzea, egonarri luze eta borondate gogor eta etsigaitzez iristen den lana da. Agian, hori iristeko, behar-beharrekoak zituen gogo-argi bena eta bere asmoetara bideztua eta antzinatik kuxkurtua zegoen bere barruko eremu zakarren irudimen-mezu ezkutua. Bizi-izatearen bi malda labainen arteko zinbulu-zanbulua (hartan baitatza espainiar-konturamenaren osotasun eta aldea, «izan eta egon»), eta gogo-bizitza urrian, izakiaren ertz-bizirik zorrotzena bizi-muga bihurtu nahi izatea, hemen elkartzen dira ilunpeko horma gordelarien gerizpean gerizatua egon izan den antzinateko sinist-usteen arimarekin. Amesbide zabal eta astunen gordailu hau, hor heldu zaigu, sentipen zorrotz-ebakien horma lodiz babestua bezala. Halatsu dago bere ikuspegia, gaztelu eta dorre zutiz gordea. Arrago itxurako honetan, bere zerua zeharkatzen duten laino-geriza olatuak, eraginez eta giza erantzunez gogortzen dira. Gizona hor dago, izadiarekin hitzemana; hitz hori ez da behin ere zapuztu. Haren agiriko idatziak, ez ditu inork ukatu, ez gezurtatu. Erabaki horren mugak eta egitekoak, elkar-barneratzen eta garbitzen dira. Espainian beren ikuspegiaren tokia lurreko zertasun gori eta gorriekin jaso zutenen odolkide dela aitortu baino lehen, lar horretako grina-hezitzea irakiten ari delarik, sukar-zorabiotan, bere barne bikoitz horren ezaguera duelarik, Txillida euskaldunak, berea duen lurreko seme dela aitortzen digu.

Eskultore jator batentzat, gairik egokiena harria da. Ematen zaion era, harri soilaren izateraino jaisten da, eta handik ateratzen du ertilariak, harria puskatuaz, bere lanari dagokiona. Bere buruan zuen egiteko-ametsa, egia bihurtuta ateratzen du argitara. Sorbalda batek, berekin du harri-puskak duen sendotasun eta bakuntasuna, eta handik hartzen du sorrera (1). Estela batek, bere harri zutiarekin, zertugabeko era menderatzen duen ezaugarriaren balioa du (4). Baina burdinak bere-bereak dituen bertute eta indarrak baditu. Eta aurrenengoa, bere gorbizikeria. Burdinak eutsi egiten du. Pikor-harri eta marmolak, beren gogorkeriaz aurpegi emanaz, eta lehertuaz 7
erantzuten dute. Burdina egintza mota guzien bidez eraman behar da. Errementaria, suaren jabe eta erru-lagun bihurtzen zaio. Garrak menderatzen eta eskuratzen dio sutegiko gizonari. Garraren indarra

neurtzea, burdinaren erantzuna zaitu eta aurrez nabaritzea, beronen kolore aldagarria neurtu, erasoaren unea aukeratu, kolpearen joa behar adinean ematea eta abar, ezer baino lehenago, zoria lotzea da. Era honetan, suak gaia aldatzen duela, amore ematen du, gai hila piztuaz eta bere aldaketa hutsalaren aldia bizituaz.

Azkenean era mamitzen da. Era honek, beregandik sortzen diren hutsunezko egitura aldakorrak pizten ditu. Bi gai baterakoak, hartu-eman etengabeak esnatzen dituzte, burdin mukulu eta mukulu hau osatzen duen hutsunearen arteko oihartzunak nabarmen entzunaraziaz. Hauek osatzen dute hura; eta honek, nabarigarri egiten ditu haiek.

Han doaz mukuluok oldargune makurrak agirian jartzen duen bultz zeharrak eramanak. Badirudi neurri gabeko jasoaldia ikusten ari zarela. Gai bakoitzak, bere bidea eskaintzen dio ertilariari, dituen asmoak burutzeko; eta hau egundoko irtenbide ustegabeko eta elkarren etsai diren askabidez iristen du. Hauek ditu lan-lagunik onenak. Bidetik zerbait saihesten badute ere, aurrera daragiote eta berrituaz sakonean irabazten du. Erak, hutsune hau agerraraztea beste lanik ez du. Eta era, hutsune horrek alde guzietatik inguratzen du. Azkenerako, ezkutuko egoera horrekin bat egiteraino iritsiko da. Han du erak idurizko leku aldagarria itoka, zapalduta, hutsetik sortua.

Ertz biziz, bihurketaz eta tolosturez sortutako lana, lehenengo burdinetatik, halakoa agertzen da; era somatuaren laburketa, leku dardaritsuaren eremua, zulatzen duen gai-eztenez axaxatua, aurpegi borrokalariz urratua, eta izangabeko gaiaren barnean ziztatzen den arantza zimurtsu inguruan, ilarri mugiezinetan banatua (13). Marrazki zehatza, bakuntasun gorri-argia, ez du hausten ezerk. Ez han-hemendik sortzen zaion gorabehera erantsiren batek, ez beste ezerk. Behartua dator lana. Gai gogorra, gorbizia, jarkitzen zaio ertilariari, eta honek bere eskuaren gaitasuna horretan erakusten du. Han doa mailuka eta aldika, bere kolpeekin idazten. Lan hauen aurrean gogora datozkigu, haitzuloetan aurkitzen ditugun Kantauri lurreko arrastoak. Suak bere idazkera badu; forma gorizkoaren txingar kixkaliak han daude hondakin, eta sortu den lanak, badu ere, sorrera eman dion indarraren zantzua berekin. Begira nolako hezur-giltzak lotzen dituen galtzairuzko lerroak, makila gogorrak, azkengabeko soinu-orratzak, korapilo latzak. Mehatzezko elkarguntza honela dator lotura nabarituz, gorputzik gabeko gaien soinu etenez josia. Haren lotura, indar-harien eraginetan mamitzen da; ihes-ar-

datz, ezten-kaku eta gezi-adarrez tinkatzen delarik. Beren zutikako eta saiheskako jokoen bitartez, iraupen neurrigabea iristen dute sail luze, sakon eta itzaltsuetan.

Ezaugarria ez da oraindik indar-balioen agiria besterik, burutapen bati itsatsia. Zertugabeko irudiskribua, mukuluei eskerrak, ulertzen dela. Haien eta hauen elkar-alderatzeak, elkarren arteko loturak eta etenak, ematen digute era. Baina beren itxura harantzagokoa eta berezia bezala bakarrik bizi da artean. Hutsune-era hori, ikusezineko alde batzuen erdian hartua dago. Alde horiek, lerro mugatzaileen bidez, ukaezineko ingurua iristen dute. Forma bera, hutsarte zabalez, bat-batetako kantoiz eta hitz-jate gogorrez jantzia dago. Dituen muga horietatik gainezka egiten du etengabe. Irudimen zehatzak eskatu eta eskuratu egiten du alde guzietatik, lasto bakoitzaren erne ugaria, inguratuaz, zatituaz, biziaraziaz. Neurri gabeko indar eta doinu-aldaketa zabaldun landa horren irispidean, zurrumurru, musika ixildun gai ikukor eta ikara garden bihurtzen da. *Aidearen goraltza, Suaren goraltza* (12-14); horra non ikusten den geldi eta mugikorraren, mugagabe eta mugadunaren, erarik gabea eta hezur-giltzatuaren elkarrekiko zaletzea eta deia. Aurreraka doan indarrez, erak eremuan botatzen du aingura. Bere akuilu bidez lantzen du, bere nahar guziekin haren gainean urkilatzen da, alde guzietara aretzen du; metalaren gorputz berean txertatutako zerra bezala da, eta honen atalak, bikotetan elkarren etsai bilakatzen dira, neurketa zulatzailezko sastrakatan. Landare-besarkada dirudien honengandik, barreialdi zorroztu honetatik, eteten da, bere indarrok biltzen ditu, eta enbor trinkoa jasotzen du, muskil indartsuetan giltzatuaz. Handik aurrera, izaki plastikoa hazten ari da, zabaluneak urratuaz, trinkotuaz, mukuluak zatituaz, etengabetasuna urratuaz; eraso eta une bakoitzean bere buruaren aurka jaikitzen dela. Elkarri mokokako «konpasetan», ertz-kantoi mutur bihurritutan hedatzen da; beti aurreraka, bere indarren haizetan katiatua zabaltzen zaigu. Gaiaren haziera, lehenengo izakiaren antzeko indar horretan, hezurrik hezur *Urizen*-go errementari jainkotiarraren ingudean suz landua, bere eutsi ezineko arrastakada, ezkuta-zulotik argitara atereaz, jaio-beharrean bere ezkatak galduaz. 8

Lan hauetan, eraren anatomiak ixuri osoaren aldizkako hausiketa bidez (burdin-haga nahiz troxkoa dela), sutegitik ateratzen den bezela, mamitzen dira (17-19). Bere «kinu» bakoitzak, perlesiz jotzen duen geldi egonetik esnatzen du. Behin zapaldu eta hurrengoan zuzendu egiten du tarteka. Oraintxe bere aidera luzatzen

zaizu, beti-bateko esaldi luze baten gisan; eta oraintxe bihurtzen da bere aldera, eta okerrekoa egiten du. Bide-galtze batzuek bere hasierako haritik aldentzen dute, berriro lehengora erakartzen dutelarik. Bihurketa neurtu bidez doa aurreraka; bata besteari erantsia dator, eta haien kantoiak, zehatz neurtuak, tajuz erabakitzen dituzte geroko abiaketek. Inguruketaz eta abiaduraz bakarrik dabilela dirudi. Erne gordina gertatzen da. Bidea berean giltzatua uzten duten ahaleginaren gorabeherak, guziak. Aldi laburreko aldaketa aspergaitzak. Hauen iraupena, agortu ondoren, haren oldarra hautsi eta bere izatez haruntzago galtzen denean, orduantxe bukatzen da aldaketen katiaketa.

9 Metalaren aldagarritasun hauskorrak, haren gain sortzen diren kolpe-soinu guzien oldarrari erantzuten dio. Burniaren gorputza pitzatzen hasten da. Halatsu gertatzen zen, kontu zaharretako «demiurgo» errementariaren lanetan ere. Diotenez, haren eskutik ateratzen zen giza txontxongiloa, aurrez hezurrak hautsita sortzen omen zuen. Soin-aldeak, mailuaren erasoz, elkarrengandik bereizten dira. Kolpe bakoitza, ikara baten sinua da. Zati-giltza, astiro itsasten da. Erak, aldaezineko itxura hartzen du; baina gerora etorriko zaizkion beste eranskinen bidez, aurpegialde ugariak sortuko zaizkio. Beraren itzulketak berritzen eta berritzen ari dira, eta aurrekoak atzekoa nahi eta nahi ez dakar ondoren, baina lehenengoak ez du hurrengoaren antzik. Azken-asmoari begira, neurri desberdinetan egokitzen dira.

Eraso eta eraso, aldi desberdinetan sendo eta aldietan, harmonia latzetan, irudia poliki-poliki moldatzen da, ikuspegiz ugari-nahastua. Hala, bide batez, erabakia gelditu arren, bere bukaeran agorrezina eta bukatugabea dirudi. Zokoratu diren beste egoerak ere, sortu zitezkeen, eta ertilariarentzat nabari dira; eta haien bidez, bere izatearen gain, eta bere-bere dituela, nolabait haietan ugaldua luzatzen da beraren izatea. Inguru guziko hutsunea zulatzen dute indar horiek. Obraren zatien geldiak, bata bestearen aurrez aurre eragin bizia adierazten du. Honen kontra jaikitzen eta erabakitzen da lana. Alde guzietara islatzeko prest dago bera, zapaldi guziekin hartara makurtzen dela. Honela, bere geldian gai-pixuz silatua dagoen gogortasun zorrotza, ezarian koloka aldakor bihurtzen da. Takateko handi horiek, gaia erre eta bihurritzen duen sukar hau, indar bihurtuaz inguruko giroari itsasten zaio. Ez dute erantzunik. Burdinak berekin du bere ikara-lekua. Hau geroago eta zabalduago dator, bere aldi bakoitzaren eta geldiune harietan sortua. Inguru gu-

zia, leku hutsa besterik ez da; eta han erabiltzen da, zalantzarik gabe gaiaren erabakitasun zakarra. Burdina, lan-gai den aldetik, nahikoa eta beharrezkoa da, eta bere eskean, lanerako balio ez duen gauzarik ez du onartzen. Burniak ez die ezer eskatu beharrik, aldameneko «izan daitekeena» besterik ez ditugun irudiaren oihartzun eta isladurei. Hutsez betea da irudi hau eta irudimen-landan burutua.

Eraginak tajutu dituen «kubo-lerro» horien ertzetan, nahitaez sarturik ez dagoenik ez da. Osorik eta etsi gabe, ebakiz arindua eta hautsi arteraino tink, lanaren mutur batetik besteraino bidaltzen du harritutako gaiaren soinu-aldaketa luzea. Eragin hori, bere zabalerari izendatu zaion tini agindua baino haratzago, ez da joaten.

Beti menderatua ari den indarraren bidea besterik ez da guzia, eta indar hori ez da erreztasunaren nahastetan lo gelditzen. Beraren haziera bihurria, zuzena —biak aurkitzen dira Txillidaren eiñean— ez baitira elkarren galtzaile; marrazki bakunenetik ateratzen da. Halatsu da tintaz betetako xipoak zimurrik gabeko zuritasun alorrean lerrotzen duen arraia, joan gori baten erretena.

Kibistaren diztirarik eza, ez du inungo gardentasunak nabartzen. Gogorra, aratxa da. Erne itxuetan, mahats-adar lehortuetan, kirio-zirrindaratan sasitzen bada, beti ere marraren bakuntasunagatik nagusitzen da. Metal-orea hoztu eta «nigredo» mailara heltzen denean bezalatsu agertzen da, ebakia, islatua, beltz-dirdiraz nabarmendua. Antzina, «belztasun» hori izan ohi zen, lanaren agertze eta gogortzearen aldez, aurreko seinalea. Marrazkia, gertari honetan, «opus metallicum»-en laburpen jo daiteke. Honek aldatzen du formarik gabeko izakia eta ertiak sorrarazten duen egoerara jasotzen du. Honela, jorratu eta zatitu ondoren, bere marka ezartzen dio betirako.

Ertilariak bere lan horietan kurrika eta mailua eskuetan dituelarik, jatorri onekotzat asmatuko duen hartan ari dela dirudi. Orrian, azalak estaltzen duen hutsune horren sakontasuna ikusten du. Estalki honen oldarrari zor zaio hutsunearen sakontasun guzia. Han ari da, hari desberdindun zainak ziztatzen, esaldi-sare, arabezki kixkur, arpa-are, muturgabeko hezurrez. Aldiz, lerro etenetan doa, esan bizitan listen da.

Baditu txorrotxio azkar eta etenak, hutsunea alde guzietatik arraiatzen duten lerro zorrotzak. Sinua behin eta berriz ari da, egin eta egin, era sortzen den arte. Honen takatekoan joan doa. Eskua marrazkiaren esanera dago. Honek darama; eta beronen hasiera zaka-

rra, bukatzen dueneko burukerarekin bat da. Lurpeko ibilera baten haria harilkatzen duela, esan daiteke; sakontasunaren zain nahastuak argiratzen bezala. Delako Zentauro hark behatz-tarteak zabalik jasotzen zuen ku zabalaren antzera ari da. Hala egiten zuen hark gauaz, ilunaren arnasaldi bakoitza nabariturik, beraren ezaugarriak somatzeko. Honela egiten du artistak ere, enborren durundio ixilekoak, eta hauei erantzuten dieten sentipen-taupadak nabaritzen ditu. Tinta-txiribiri sendoetan eta xipoaren ikutuz loraketa doi-doietan, olatu eta korapiloen idazkera bikoitzez, distira laburrez hariltzen ditu bere adierazpenak. Hutsa besterik ez den leku gardenean, sare eta kate eskujabeak sortzen eta desegiten dira. Haren katebegi batugabeak, elkarbidetuta dauden hutsarteak, hutsuneak bere tarteekin betetzen dituen bitarte iheskorrak, ez dute iduri jakinik. Dena zurrunbilo laburren joan-etorria da. Haien heinean, lerroen indar-kemena tartetzen da eta aldizka eskuratzen hariak zabalduaz.

Lerro-indarra bera, zatika baina arian-arian datorrena, burnien iduripenezko geometri latzean lanean ari da. Gaiaren gogor-biziak formari bizi-itxurako haziera bat ekartzen dio; haziera makurrezina eta eske luzeen eragozpenez lotua: somaezineko bihurkera, behartze gorbiziz lerro etzanaren bihurgaitza hautsi zorian jartzen du. Bizkarrezur honen ezker-eskuin, lerro-zati laburrak ezartzen zaizkio. Beraren barrutik sortuak, berarengandik esegiak daude, marrazki baten arrasto-ondorenak bezala. Zabalgune bakoitzaren loditasuna, bildumaren jobidearekin oker dator. Hasierako ardatza, ezpain-
11 duaz, berritu eta apaindu egiten da. Ez egitura-giltzaketarik, ez hutsune-erakeratik; era, bere ibilian mamitutako indar bat besterik ez da. Lurpeko bide baten haria, sakontasunaren zain-giltzaketa nahasturen bat harilduko balitz bezala. Adierazpen aihergabe batetik, eskema baten heinean sortu daitezkeen ondoren guziak ateratzen dituen iduri zertugabea, plastika-ihesia. Burdin batzuek elkarri ezarritako eranskin gehituz bakarrik eginak dira. Hauek, batak besteari, teilakatu eta elkar-jokako etenbehar ugaldua ezartzen diote (18). Neuma laukotu hauek, akordetan bakanduak, elkarren kontrako eta betegarri diren ereskintzetan sailkatuak, sutegiko kanta garratzaren nota trinkoak dira; burdinaren amorru kixkalduaren ixilune goriak guziak. Lana, hemendik atera den izaera garbiko aldaketa da. Mehaztutako musika, eskuetan oretzen duenaren borondate etsigaitzak utzi duen eroiera zatitu eta aztarna gorbizitua (20).

Izan daiteke ere, burdina hari bakardun kanta xume batetik jaioa. Honela gertatzen da, burdinkia beragandik sor daitezkeen in-

darren adierazpena denean. Ur-haria garbi dator. Berriro biltzen eta bere baitan ixten hasten da. Era honetan, irradaka betetzen duen hutsunearen jabe egin nahi luke. Suatz edo satai bihurtzen da. Albo-janez, bikotuaz, bere kantoia eta asmoa aldatzen ditu; urtzen eta berritzen ari da, bere gain lotu eta poliki-poliki, bere indar osoaren ertzeraino iristeko; hasierako oldarraren mamiketa osoraino etortzeko. Burdin-azal zabalduak, isladura-bilgailutan trinkotutako enbor hertsiak, berriro hutsunera bihurtzen dute. Orduan, zainartatuaz, urrutira jaurtikitzen du bere zama gorria. Hemen, zeharka-hari eta hauek ebakitzen dituzten zapalden artean, beste etenbeharra pizten da. Zehar-lerro eta zabalgune horien makurrerak, nora doazenik ere ez baitakigu. Lerro zuzenen moltso barreiatuei, azal txalplanen legez kanpoko mozketak erantzuten diete. Astinduak berak ebaki berdinak lantzen dituzte; tailaketak berak, akatsez koskatzen. Honela ezagutzen dugu barruan lotuta dagoen indar-oldarra. Honetan, forma, gerta-koxken bilduma eta iraupen-aldietan giltzatutako lana besterik ez da. Lekuari baino gehiago begiratzen dio garaiari. Neurri ezak eta gaikiak elkarren aurrez aurre aritzen diren landa itxiaren aldi-ertza da. Ez du lehenengoa metatzen, ez bestea bereganatzen; baizik eta bien nahasteari zati erabakia eransten dio. Tolosta eta tolosta, beharkizunaren sareketa gertatzen da amore ematearen muga. Atzerakak ezkutukadak, kantoi irtenak, hutsunearekin erak darabilen borroka agirian jartzen dute. Hala ere, beren artean ez da liskarrik. Lerroa, bere inguruketa itzalgarri, lehengoratze geldigabeko, kuxkurtze eta irtenekin, bere baitako bakar-istilua da. Bere barruko borroka eta itxurazko ukapenen bizkar sortzen da.

Bere aurrerakada ugaria eta une guzietan atzeraka egin dezakeena da. Lehengoan jardunaz, etengabeko zuzenketa bidez, oztopo batek bere bidea itxiko balio bezala, alderatuaz, aldarazten duen pendizen batean irristatuaz, hor dabil bere azken-mugatik aldenduko balitz bezala, eta elkar-jotze bakoitzean bere hitza jan eta bere buruaz etsiko lukeenaren antzera, honela bere baitan berriro asmatu balu 12
bezala. Erabakia, arrixkatua, gerta ezina eta finkatua da erabat. Bere buruaren besteko, beti, antzak zirika egiten dio. Harentzat, bere betiko itzulbidetik aldentzeke, azkenera iristeko bidea hori da. Baina berrirotzea zoriaz, eta oldarra murriztasunez jaten du. Bere aldaketen arabezkera, borrokatzen den nahas-mahasa du. Eskuratu behar den hutsunean, bere lan-jokotan asmatzen duen zer-gertako istilulekuetan baino gutxiago arrixkatzen da. Haren eten-zori zehartuak, bere arrastorik txikienak iruditzen duen geometri ezkutua argira-

tzen dute. Hutsunearen kokaleku nahi eta nahiezko horrek han du, bere etsai eta kontrabide, mamitu den iduria. Erak nahikoa izango du bere aldetik, lehenengo gorabeherak ugalduaz, bere arkitekturarako duen hutsune-hesi barruan, sorkariak mamitzea. Gero hutsune hori gutxitu egingo du, izaterik eta irispenik ez duen zertasun galdura ekarriaz guzia. Aldiz aldi, mukuluak bere ertzak hausten ditu. Eta han doa bere zabaltasunari eskaintzen zaion lekuaz jabetzera, alde guzietatik inguratzen duela (20-26). Eraren zakarkeria mamitsuak argia xotiltzen du beragan, koska hasarreak amustuaz. Geroztik muga-lerro banatzailea besterik ez da izango. Honek, alde bietara duen hariaren maldan, hutsunea zehaztu eta tontorrik tontor beronen ikuspegi zertugabea zedarratzen du. Kantoi-moldaketa ordez, zanpatutako oldarren handitsuetan bildu eta laburtzen ditu bere indarrak. Mailu zuti baten gainean agertzen da ingudean ore goritua, jaiki eta gogortu, erakusten duten burdin-txatalen mukulua. Berekin ditu ingudean txaplan-izaerak, hegadun astuntasun ertzatua. Aldaketa-mahai «errementari doinu gozodun» batek bere ametsetan jo eta jo darabilen burdin-xafla durunditsua.

Bere «Ingude» batzuek, elkarren artean giltzatutako eta pitzatu handiz zulatutako arteak gogora dakarzkite. Hutsuneak, ziri baten antzera barneratzen ditu (26). Zenbaitzuk hark eramaten ditu. Beste batzuk, lirainak, kakotuak, zedarratuak, aidezko ontzi-konponketan bikotuak dira (34). Haiei datxekien esku-tresna, olertiametsen ispilu bihurtzen da. Honen hegaldia erantzunari ezartzen zaio, eta girgilaketak behartzen duen saiheskeran lotzen da. Baina plastika-loraketek hor datoz berriro. Erari ostu zaion hutsunearen inguruan eta haren eraketan osatuak, hantxe hazkortzen dira. Hutsunearen mukulu hustua han trinkotzen da, ixten duten ertzen neurri eta kutxa gertatzen dela.

Hauek, hasieran loditasunik gabeko lama besterik ez zirenak, lerro-azkorketan saretuak, ia landareen oparitasuna iristen dute. Itsasketa horien hostoetan, burdin-ontzi zimurtsu horien bihotzean, kokatzen da hutsunea. Urratuen mukuluak ozta-ozta hartzen du barruan. Bere ezpainetan elkar joaz, tarteetan ixuri doa; haien zirkiluetan itotzen da. Barruko hormek ez dute islatzen. Bere urratuen ikusezineko muin zertu bihurtzen duten gertakizunen heinean, elkar islatzen dute. Inguru-bide eta tolesturek hesitzen dute; betetzen dituen tarte estuek bidekatzen eta barreiatzen dute. Mukulua hutsunearekin ezkontzen da; bere inguruan, lotu eta askatu egiten ditu gorakako helize baten hegal-bihurriak. Jirabirako indarrak dara-
13

mala, indar-iturri bera eta su-dantza eta gai honen izan-muin egina, jirabiran dabil, ibili geldi eta zertugabean. Zati ebakiak, beren makoak saretzen dituzte, eta tiratutako uztai horien bidez, hutsunea erdibitzen dute. Higikera lehertuen anatomia bihurri honek, badu bere baitan munduko mekanika-laburpena. Erdi-hautsitako giltzaketa hauen zati bakoitzak jatorrizko biribiltasunaren kaiola hustua osatzen du berriz. Biribiltasun horretan ipintzen zituzten Eleatarrek, alea hazian bezala, era eta indar guziak. Lehen-kemenaren izaera eta ahalmena.

Urratuek zabaldu eta estutzen duten hutsunearen maskorretik bere anima duen kiribilaren etenetatik, era doinukera hertsiagotara aldatuko da. Honela, izate desberdin eta gorbizia iritsiko du. Bikote elkarkide nahiz etsaietan giltzatua, antz eta ez-antzetan saretua agertzen da, azkenik gabeko katean (32). Iraulketa honetako bira bakoitzak «kortxea» eta urkatxoen kakoa ugaltzen dute.

Takateko etenak, sakonbil eta konkorbilaren elkarganatzeak, iduriak koloka jartzen ditu, eta hor sortzen dira indar-iturri diren eraketak, elkar katiatuak eta hutsune-aideak, mukuluen hezurgiltzetan kokatuak. Eskeleto horrek, mamitzen duten eraikintza-orearen kanpotik, «hutsunearen inguruan» bere soin-aldeak biltzen ditu; nabariarazten dion estuera bidez, han ari da ahaleginean besarkatzen era bihurtutako hutsunearen hondar mehar hori, barruan hartzen duenaren alderantzi gertatuaz. Ia-ia ezerezten du eta, itxura estaliaz, haren nabariketa sortzen du. Beraren lerro eta enborretatik hartzen zuen sendotasuna, bizitzen zuten ertzetatik jasotzen zuen iduriketa bat, nahiz eta iduri ikugarria ez izan. Eraren barruan hesitua (honen heinari begira eta beronen aginduetara makurtua sortzen baita), haren alderantzi eta azpikoz gorako iduri bilakatzen da. Horregatik nahi eta nahiezkoa du, ikusten diren lan-gaien harira jokatzea. Hortik datorkio xehetasun xumeenetara jotzea, hauen bidez, atze-aurrekoz, hutsune-hondar horren izate eta eragina kanpotik adierazteko eta, bere antzeko eraketa eskaintzeko. Aurreneko lekua emango zaio beti lodierari (luze-zabal-lodiari), habe eta habe-zatietatik hasita, eskairuz nahiz sasi-eskairuz jarriak eta azpikeriz luzatuak eta makotuak diren lan-gaietarainoko guziei.

Honela, begi-ezkutu, azpitik datorren geometri lanak zuzendutako orearen sakonean, azala egiten dioten gainak, barruan, beteaaren eta hutsunearen elkarguntza bikainketa lan bizi itxuran iristen dute. Estaltzeko era hau, eraikileek erabiltzen dutenaren alderantzizkoa izanik, mukulu egiazkoena da eta itxura hutsekoa. Trinkoari

trinkoa egokitzen zaio, gorpuzduna eta pixuduna bezala gorpuzgabea ere; baina hau, plastika-balio aldetik, inguratzen duten indarkera eta eten-zori elkartuen betekoa da. Eraso eta hutsune honi arteak jarri, behartzen duten zapalketen barruan aske eta ixurpera utzi, urkatzen duten mukuluan artean ibilkoi, urrutiratze zertu, gezurrezko zertasun, erabaki eta erabakitzaile lagatzea, hori da lanaren
14 arrazoi-muina. Era ez da barruan duen mukulu balizko eta alderantzikotik bereizi nahi, hura honen molde eta ontzi delarik. Agiri dagoena beste bere alderantzikoa somarazteko dago. Edozein erak bere alderantziko hori berekin dakar, eta honen aldetik dator bere arrasto bakoitza. Antinomia, berdintasun eta trukaeren elkartze honetan, ezin asma daiteke barrurik eta kanporik. Era bera da bata eta bestea; honela iristen da osoa izatera. Hor besarkatzen dira mokokatuaz; hor zutikoz sendotzen dira kontragintzak; hor datoz zaldizka bezala, elkarren kontra-lege, bultzakadak eta zamak; hor trukatzen eta aldatzen dira balio guziak. Osaketa hauek, mukulu eskairututako hauek, beren oreka indartsu eta goxoak egokitzen dituzten ohol zakarren zurajez osatuak dira; hari eta begiz betetako zur zaintsuak bere ale zakarra gordea du. Surtan landutako metalak bezala, bere baitan daramatza akatsak, aizkora eta mailuaren koskak, landu duen esku-tresnaren hortzak, legundu zuten ukaldien aztarnak.

Hiru lanetan, erarik gabea era bihurtzeko hiru hurrerapenetan, agiri da eskuratu ezinaren bila sortu den bakoitzaren maila. Burdinlanean izan diren hiru aldi nagusi agertzen dira hemen: azalaren zabalketa (36), hega-aldi bildua; arintzen eta eramaten duen hutsune horrek astundua (27); eta azkenean, arauzko bilketa, haziera legezkoa (39).

Gorputzik gabeko zertasun honen ezkutua zuzenean erakutsi ezinik, formak begiei nolabait nabaritzeko agintzen die. Agiriko xehetasun bidez, neurriratuaz, harenak egin, banatu eta honela agerrarazten du. Leku itxi baten bikaintasunean agiri jarri eta agerbiderik zertugabeena iristen du. Bistaratzeko, ez du beste agerbiderik behar. Hau, hain kanpokoa izanik, nahikoa du. Honek ez dio ezeri hurreratzen uzten, eta beste gabe haren zantzua ematen du.

Neurriz banak direnezkoen mukulua, elkarganako zatiz osatua, bere batasun pixuan, hautsi ezineko enbor bilakatzen da. Guzia harengana dator eta berari menderatzen zaio. Ezeri egokitu gabe, berari datxikio guzia. Kantoi eta ertzak gogorrean giltzatzen dira. Hala ere, hor-hemen zirrituak eta tarteak agertzen dira, bere osotasuna erdibitzeke. Ihesi hauek, geometri zulo hauek, burdin-xa-

fla mehar hauek, sakontasunaren bidez nabariarazten dira, eta beren lerroketari bat-batean beharkizun ezkutu batek makotua izan dela igartzen zaio. Barne-alderuntz istinga iritsiezinekora daramaten hutsune maltzurrak zabaltzen dituzte; han, irteerarik gabeko kale itsua besterik ez duzu. Errainu bakunak iragazten dira, «begiraldi» mehar batzuek hutsune hori aitortzen dute. Itxuren ostean, norbaiten daitekeen agerpen estalia ohartarazten digute, tarte estu bakoitzaren bihurgunetan kuxkur, zain dagoena. Hortxe, erak eta irudiak menderatua duten gaiaren bihotzean, hutsuneak erronka jotzen du eta ateak ixten ditu. Barneratzen da. Hor aurkitzen du irteerarik gabeko atzerakada. Huts distiratsuaren maskorrari lotua datorren hari ilun hori beste biderik ez du. Goraltzeko itotzen duen erdibil lotua, eta lanaren arnasbidea. Soinu gozodun enborretan eratutako mukulu ikugarriz hesitua, eraren ukapen hau, ez da zeharkatzen duen eten- zoriz dardaratzen. Mutu, bere tarte eta lubakien kolkoan, bere «zurrumurruak» barruan hartu duen nahas-mahasa betetzen du. Hor da «ilunpetako errainua». Honek, egia argiegiak ito eta beste egia mugagabeak ahopean somarazten ditu. Ez da bide egiteko daukan eraren izate-muina (honek, bere burua osorik gordetzeko, bere alderdi guziak itxi nahi izaten ditu); hemen, argibide agiriei eskerrak, bizi den zerbait dugu. Haiek irentsi dute, baina berak barrutik bere gau-hilarriz argitzen ditu. Tarte eta sasi-kate horien sare-txilborrean, bidagurutze eta urrats horien bilgunean, lodikien pilatze horiek zutikatzen eta itsasten dira, ihesien siluz. Hortxe jasotzen du armatutako ezkutua, bere bizileku azkena. Gordailu hertsi horretan sartzen da bere aztarna hutsala. Bere pixuaren azpian zapalduta dagoen itzalaren antza du. *In pace* hau, hutsune neurtu eta neurrigabea den hau, Sagaratuaren lekua da. Hor agerpen bat kuxkurtzen da, argitzeko, indar-haritan lehertzeko, irten bizietan urratzeko, pitzatuetan loratzeko. Era berean izpirituak bere ikusmenaren iturri eta jatorri den ezkutatze hau eragiten du. Agiriko agerpenik ez duen arimaren zati ezkutu honek (San Juan Gurutzekoak dioen «bere hargaitasun sakonetik gainezka darion arimaren ahalmenen hutsune handi honek»), eta erak, bere baitaren iraupenerako, egiten duen ezkutatze horrek badute elkarren antza. Arte eta mistikak, ustegabekoak ez diren kidetasun bakun eta agirikoak dituzte hemen elkarren artean. Taoistek ere, halako elkarren antza ikusten zuten «Mendi hustuaren» eta «Haitzulo antzeko gelaren» artean. Gela hau baitzuten, beren buruko geografia bitxian, animak, bere buruaz etsita gero, sortu gabeko mundu nahas-

tuan sartzeko aukeratzen duen bizilekua. Halatsu XIV. gizaldian, Susok «Ixilaren eta ezkutuaren gain zapalgaitzen artean» jartzen du «izate guziak amiltzen eta hondatzen diren leize hondogabea». Izpirituaren egonleku hau, Taoren ontzi hustua bezala, Iparraldeko mitologietako zirritu irakinen indar berdinak bezala, mistika-sutegia da. Itxura guziak galda gori batean galduak gelditzen dira. Jatorrizko Lehenengo Egilea bere eskulanen gertakizun aldakor eta argaletan berriro jaiotzen da.

Eskulturak ere, bebarru debekatu horiek barneratzen ditu. Musikak halatsu jokatzen du, bi ixiluneren erdian esanezina hesitzen duela; eskulturak ere, berdintsu dihardu: eraren eta erarik hartu ezin dezakeen burutapenen elkar-jokak gozatzen daki; plastika-iduri eta asmamenaren arteko korapiloak askatzen ere bai. Hutsaren eta guziaren betekoa.

Alferrik izan dira ertiak gizaldi-zehar asmatu dituen zirkiluak. Ez du inork, hura saldu gabe, haren izaterik azaldu. Nahikoa da hutsune hesitu hori, ezkutua auzipean jarri eta lanak egiten duen ibilinguruaren bidez erantzuna iristeko. Sagaratua begien ezkutu dago. Baina bere alderantzi den erak, hutsunearekin bat jotzen duela, saldu gabe mamitzen du. «Haitzulo horietan —dio Faustok— mundu osoko tarteak kokarazten dituzu». Bere indar eta beharkizun bizian, Txillidak bere munduetako musika eta ixiluneak lotzen ditu.

16 Lan bat aztertu baino lehenago, ertilaria bere nortasunean bizi, hizketan, lanean erakutsi ohi dugu. Ohitura hau ez dugu hautsi nahi. Jakin-min hau, jatorra benetan, baina gehienetan erti-lanaren asmoen esanahitik etena, ezingo dugu aho bete hortzekin utzi. Horretaz gainera gizonaren arrasto batzuek bere lanean aurki daitezkeena, onartu daiteke. Izan ohi dira noski, halako harreman batzuk, erabakigaitzak, artistaren giro eta bere eskuetatik ateratzen zaion lanaren artean.

Txillida, 1924ko ilbeltzaren 10ean jaio zen Donostian. Erbestetara, Frantziara batez ere, sarri joan-etorriak egin arren, ez du behin ere laga bere lurrean bizitzea eta lan egitea. Euskal arrazagandik jarioan datozen bereiztasunak, hor izan dute, noski, iturri jatorra. Euskal Herria, alde batetik Espainiari datxekio; eta beste aldetik Frantziari. Txillida, Espainia aldekoa delarik, bere jatorriz euskaldun bilakatzen da. Baina zer da euskaldun izatea?... Aurrena, beste arraza guziengandik bereizi bizi den herriko seme bere burua aitortzea. Euskal arrazaren jatorria, hain zuzen ere, hor agertzen da antzinate ilun eta luzean murgildua; horregatik zenbaitek elezarren eta

alegien kideko etsi dute bere iraupenean. Euskalduna, bere lur eta sinisteetan sustraitua, haietan lotua, bere aspaldiko sentipenetan oinarritua bizi izan da. Hori guzia, literaturako irudipen-haizeari itsatsia ez dagoen giza aldarteak eta euskararen nahaste zahar eta zailak babestua. Euskalduna izadiari emana bizi ohi da, eta honen ilunpe eta indar ezkutuari beldur dio. Hala makurtzen da metalaren aurrean. Hau, Lamethen seme Tubalkainek, Jesukristo baino 3.000 urte lehenago, Auñamendietako Hegoaldean sartu bai zuen eta Ezpata Dantzak harrotu baitu bere ikusgarritasunean. Hala ikusten du, Euskal Herriko jaun eta jabe, *Hego-Haizea*. Honen eraginak, gizaldi zaharretako grina-haizeak esnatzen eta sutan jartzen baititu; eta sorginkerien aide zaharrak landa-buruetan egosten baitizkigu. Ikusezinak mendean daukan irudimenaren alde egon ezinetan, Bizkaiko itsas kolkoa astintzen duten urrutiko ekaitz erasoen lilurapean, euskaldunak hor nabaritzen du alde bietatik, elkarri muturka datorkion deia. Txillidak, agian, bere obraren zatia, aldi zaharretik datozkion indar iraunkor eta lotzaile horiei zor die. Bere obrak gaiari hurbil dagokiolarik, zentzua ateratzen dio, balio plastikoaz gainera; ezaugarri delako, moldeak izpiritua ezartzen dion gaiarekiko lotura baino haruntzago doan zentzua.

Burdina, ikusezinaren iduri, aide-dardaren soinu-orratz, «Haize-Orrazi» bihurtzen da. Zura, indar elkartuen hezur-giltza da. Bata eta bestea, esku artean darabilzkiela, zuraje-hezurretan jakintsu eta aditu ziren olagizon baserritar eta lan-maixuen bizibidea, Txillidak bere sorkarien mailara jasotzen du. Haiengandik hartzen du usadioko lan-araua; surtan soldiatzea, zatien giltzaketa, tajuz egina, miru-buztanen elkar-josketa.

Iduri hauen jaiotza ikusteko, eskultorearen lantegian sartu beharrik ez dago. Han du lanak hori, bere muinean. Ez duzu burdina burdinaren kontra joka ari deneko soinurik, ez ingure gainean ari denean, gaia zapaltzerakoan ateratzen duen soinua entzun beharrik. Suak, bere itzalguneak zabaltzen ditu; agertzen dituen lanak, argi aldakorrez nabaritzen ditu. 17

Baina sutegi arloteeneko gauzarik txikienak, ospe berdinak jasotzen ditu. Hemen, beste zerbait gertatzen da. Bere putzu irazekian, surtako metal goria, mailuaren kolpe eta orriken estutua hartzen dagoenean, ezjakinarentzat, edozein sutegiko langile arruntek sortutako zati baten parekoa da. Eta hala ere, ertilarien eskuetan ikusten dugun zatia, bere heinean, gero izango den mailakoa da izate-indarrez, hasieratik. Baina ertilariak bakarrik daki hori. Soinaldeen

behartzeak, berea egin nahirik ari den eginahalak, gaia bere eraginera makurtu aurretik, gizonak zizelkatzen ari duen ahaleginak, ez du artean ezer adierazten. Lana, egilearen eta honen eskuetako eginaren artean gertatzen da dena. Mamitzen den bitartean, sorkaria, ustegabeko gertaera da egilearentzat; ikusgai hutsala besteentzat. Burdin horiek lantegian, bere adua erabakiko duenaren menpean daude. Txirrikatik esegita dauden zur horiek, ertilariaren begietarako, gero izango diren hartan, izan behar duten eran bukatuak agiri dira. Han ditugu, azkenengo hariaren iraupenean, azken ikutua eskatzen, bere burutze bikainaren zain.

Artistari begirik ez kendu, ba. Honen egoerak, honen imintzioak, honen ahalegin zorroztuak, bere burutapen eta ixilgune biren artean ixuritako hitz batek baino gutxiago erakusten dute. Jakingarria da, noski, baina alferrikakoa, bere ixileko bizieran iduritzea. Txillida, Donostiako Real Sociedad taldean jokatua dela jakin ondoren; igandero, golf-jokoan ibilia dela; bere lurreko bideak arakatzen ohitua, ikuspegien aurrean tink egona dugula jakinda gero, bere lanen berri gehiago ikasiak geldituko al gara? Bere asmaketa orduetan, etendako lanaren aurrean exerita, erretzen, burua berotzen, alderdi bat aldatzeko jaikita bere gogora jartzen ikusten badugu, zer igarri genezake haren asmoetakorik, haren egitekorik, haren egingogo sakonetik; beretzako ere, agian, plastika-bidez izan ezik, adierazezina denez gero?

Lana eta artista mutu daude. Elkarrizketa ixil hau noizean behin iruzkin batek, adierazpen batek, gertaera batek eteten du. Txillidak badu horrelako kontagai bat. Behin batean, bide-ertzean habe batengatik gelditu beharra izan omen zuen. Zertarako izan zitekeen pentsatu gabe, erosi egin omen zuen. Gurutzeko Jondoni Juan aiputan du; haren surtan urtutako ikuspenak gogoan ditu. Baita Herrera ere, Eskorialaren eta «Tratado del cubo»-ren egile izan omen zena: honen eraketak sarritan lauki zuzenak, errektangularrak baitira. Gertaera bat kontatzen du, oroipen bat datorkio burura, esperientzi bat aitatzen du.

Txillida, galderak dakarkion korapiloa askanahirik, gogorkeriren bat bere kopeta barruan grina gorbiziz hautsiaz bezala, begiratua ben-ilun, gerri-lotu nahi duen bere barneko zerbaiten aurrean tenk,
18 honen jokaera erabaki eta lan-bidea askatzeko gogoz, hizketan hasten da: «Txori bat eskuan baino ehun txori hegan, hobe da». Esaera hau, bere lantegiko horman idatzia ikusten dugu. Ertilariak, bere goiburu bezala du. Baina esaera espainiar hori, atzekoz aurrera alda-

tuz gero, ezinari egiten zaion erronka ere, bada. Era baino haruntzago jotzea, eskuan daukaguna, eskutik urruti iruditzen zaigun zerbaiten aldera, behin eta berriro jokatuaz, eginkizun zailaren alde apostu egitea, bere lanaren zentzua behin eta berriro jakinaren gainean zalantzan uztea bezalatsu da.

Bai, lantegi honetan eta zenbait museo eta erakustegitan, buru-atxiketa hauek, agiri dira. Beste batzuk burutik ihesi joan zaizkit. Baina lehentxeago nahiz gerotxoago, beste nolabait atzemango ditut. Baten bat eskuetan hartzen dudan orduko, nere aurrean ondo lotua ikusten dudaneko, beste hurrengoa jartzen zait gogoan. Lehenbizi, ozta-ozta nabaritzen dut; gero, garbiago jartzen zait; batzuetan huts egin ere egiten dit. Baina heltzen badiot, ez dut eskutik lagako. Handik aurrerakoa, zoritzen, hazten utzi, eta kito. Burdina, batez ere, sortzen, burua berotzen, indar egiten duen burutapena da, eta gertaera bat bezain gordin dago. Nik hartaz baliatu beharko dut. Nik, nere barruan dudan marrazkiaren idurira behartu behar dut burdina; hemen bai dut aurrez nolabait burutua. Eta nik azkenerako biribildu beharko ere, gai horren indarketa. Erantzun gogorrak atzera eragiten dit. Ez dut makurtu ahal izan nere gogora. Azkenean nere asmoa iristen dudanean, zerbaitek kontuan jartzen nau. Astindu zakar batek, bat-batean, egiteko zegoena, zati puskatua zena, bildu egiten du. Guzia zati-ezina egiten da. Hutsunea eta era giltzatu dira haren gain.

Hutsunea? Eskultura-lana haren heinean bizi da. Ez dut eratik kanpora dagoen hutsunea aitatu nahi; erak berak sortzen duen hutsunea da, nik adierazi nahi dudana. Hutsune hori haren baitan bizi baita, eta zenbat eta ostuagoa izan den, hainbat eta eragileagoa ohi da. Formak bete eta zabaltzen duen arnasaren zuloa bezala dela esan daiteke. Haren antzera, ikuspegiaren lekua hedatzen du harengan, kanpotik iritsiezina eta ezkutu dagoelarik. Neretzat, ez da hura zertugabeko izakia; inguratzen duten mukuluak bezain zertua den izakia baizik. Hutsune hau, bera agirian jartzen duen era bezain ikuserraza behar dugu. Mintzabideak baditu. Barneberatzen zaitu; hutsune horrek barruan duen gaia hausten dizu, honen luze-zabala neurtzen du, ibil-aideak banatu eta zuzentzen ditu. Guregan, elkarkidetasun eta erantzunak aurkitu behar ditu; eta berak izpiritu-mailan egon behar du. Halatsu, bizitzeko dudan egonlekua, nahiz eta denbora gutxirako dudan, nere egipenak barruan dituen eredu delako horrekin eroso datorrena behar izaten dut. Badira itomena sortzen diguten bizilekuak; gaixotzeraino larritzen gaituzte. Bizitzeko balio ez duten gelak dira. Honelako zerbait gertatzen da eskulturan ere. Nik, delako indar-irudiari dagozkion lekuak bilatzen ditut. Irudi horiek aitatu dizkizut lehen. Mukuluak, ikusezineko gai horrekiko bizi dira, eta beren egitekoa, honen gai ikusezina nabarmentzea da. Bide batez, honela egosten eta argitaratzen du gai horren «enharmonia» hori, guk «kidegoa» esango genukeena.

19 Horregatik, noski, ez dut behin ere aurrez maketarik egiten eta nere lana egingaian bertan burutzen dut zuzen-zuzen. Berau da neretzat bere buruaren eredu; lana zehazten, zabaltzen, aldatzen eta bere egokiera aurkitzen doan neurrian, egingaia bera bilakatzen da geroko egitekoaren ispilu. Honelako hutsune hau, ezin mugatu daiteke aurrez. Hala erabakiko balitz, egitekoa, lanean hasi baino lehen hilko litzateke. Hasieran, alegia, nabariketa lainotsua besterik ez da, inola erabaki ezineko zergaia. Gorputza hartu beharrean dagoen sentipena besterik ez. Eta gorputz hau, hasi ta berrasi, ikutu bakoitzaren ondoren ugaltzen datorkigu. Marrazkia ere, hurrerapena besterik ezin izan daiteke. Nere hasieratan, marrazkiginean aritu izan nintzen bero-bero. Eskuinaz adina ezkerrez ere. Baina marrazkiak, hutsune horri mugak sortzen dizkio jaiotzerakoan. Egitekoa, mukuluei begira burutu behar da, eta ez paper gainean sortzen diren arrastoen laguntzaz. Egitekoa, hiru neurritan (luze, zabal, lodian), bestetan ezin nabari dezaket. Erak bere egitura hartzen du. Soilik marrazten da, abereak bere maskorra eratzen duen bezela, hutsune horrek bere bizilekua sortzerakoan eskatzen dion neurritan. Bera bezala, ni ere, hutsunearen eraikilea naiz. Egingaia, mamitzekotan dagoen era da. Aurreraka doan ahalegina, behin eta berriz berean ari den eginahalaren ondorioa da guzia. Olatu bat ez da ezer neretzat, ez hotz eta ez bero gelditzen naiz harekin; baina olatu horren ondoren, bestea eta bestea dator. Bakoitzak aurrekoa du gogoan, eta honek hurrengoak ditu lagun. Uren etengabeko bultza hau ez balu, hondoratuaz bertan behera galduko litzateke. Guziak piloan hartuta, zabalera eta bidearen aurrerakada guzia hartzen duen olatu handia bezala dira, geldiunerik ez duen olatu-katea; beti ere banak, berdin-ezak, antzekoak izan arren. Hauetako bakoitza harrotu eta ezerezten denean, bere buruaren une hartako argazki gertatzen da. Sinfonia batean ere, nota bat besteetatik ezin bereizi daiteke. Joan doala, azkartzen, zabaltzen, zatiak gurutzatzen, baretzen ari da. Eskulturak eta musikak hutsune bera dute, soinuka, hasten eta berrasten.

Mukulu plastikoak, ixilean eten-zoria sortzen duen soinu-mukuluak bezala, leku-hutsunea berekin dakar. Hemen sortzen da ararен dardara, bere mugarrietatik haruntza luzatuaz. Biak elkartuta, sortu daitekeen eratatik, benetakoa azkenean mamitzen dute.

Erak markatzen du higikera, hau hark berritzen duelarik. Baina tarteak ere ematen diote joan-ibilia. Hobeto esateko, tarte horietan du batez ere bere ibili-neurria; bere doinubide eta aldaketetan. Inoiz igeltsu eta berunetan irarritako lerro eta galdor-jokotean adierazi nahirik ibilia naiz. Hutsunetako marrazki hauei, hirugarren kaizua, lodiera, eman behar zitzaien. Eta hain zuzen ere, hau hutsuneak, tarteak, ematen die; hauek baitira, gorputz ia egindako plastika-lanaren dundurio agiria.

Azaleko jolasketa! Horixe dira, noski. Eresi doi-doia, oihartzunik gabea. Argizalea naiz, xedarratua maite dut: baina hori ere, bere ihes-itzulketaz. Honela sortzen baitira tarteak; honela esnatzen ixilune eta hutsuneak; eta hauetan aurkitzen du erak bere burrunda dardarizkoa. Agian, 20
hor nabaritu daiteke euskal eresiaren zantzu-arrastoa; eres-aide alaitik aide ilunera noiznahi aldatzen diren doinu horien ikutua, entzuleak argi-itzal horietan tinka ditzan bere gogora. Nere eskulturan gehienetan, «bai» eta «ez»-a txandan ibili ohi dira. Bata bestearen alderantzia bezalatsu da. Euskaldunok, musikarekiko oso sentiberak ohi gara. Gure musika, zurrun eta zorrotza da-eta, beti ere, badirudi ahaztutako sagara-jai zaharren bat soinutzen ari dela.

Behin batean kidego hauen nabarmenketa harrigarria izan nuen. Langile bat nuen etxean. Hau, elektrika-harietan sortu zen ezbeharren bat konpontzen ari zen. Egun-argia joana zen eta nere lantegia argizagi batzuen argi doietan neukan. Lana burutu zuenean, langile hark ingurua miatu zuen begiz eta, bat ere arrangurarik egiteke, hau esan zidan: «—Bai, ikusten dut; musika bezalatsu da, burdinarekin sortua izatea besterik ez».

Eta beste hitzik gabe, han joan zen. Hark bere antzinate-begiz ikusi zuena, nere lanegunetan konturapen garbi bihurtu zait. Baina nekez egin nuen nere bidea, mukulu sorgorretik, erantzun gabeko enborretik, eraren moldaketara. Nere lehenengo eskultura, igeltsuzkoa izan zen, 1948garren urtean. Lan hura galdu zen. Orduan, nik mukulua sinesgarri jotzen nuen. Guzia honen mende zegoelakoan nengoen. —Guzia berekin du —nion—, eta hutsunearen etsai da. Hala eta guziz ere, zerbaiten beharra somatzen nuen. Nola barneratu, azalean bakarrik lan egiteko balio zuten enbor haiek? Beste zerbaiten bila hasi nintzen. Zeren bila ote? Artean ez nekien. Eman nion lanari, hartan gorbizituaz. Aldi hartan Villènesen bizi nintzen. Oso pertsona gutxiren lagunartea nuen. Bakarrik al nengoen? Hori ez. Banituen halako euskarri sendo batzuk. Aitaren diru-laguntza, aurrena. Honek nahiago zukeen ni eraikile egitea, baina hala ere, neretzako ertia besterik ez zegoela igarria zen. Nere andrearen lagunarte bero eta eragikorra azkenean. Honi zor diot, bereziki, nere etsipenaren mende ez galdua. Ni baino zaharragoa baitzen. Hark lagundu zidan nere zalantza-erasoak gaintzen, nere barruko ezpaiak garbitzen. Nere bide-muturra garbi agertzen zitzaidan, baina harako tartean galtzen nintzen. Palazuelok, ostera, bide hori argitua zeukan. Ni zubi bila ari nintzen. Hark ezin zidan erakutsi. Bakoitza bakarrik gertatzen da bide ezezagunean. Bidea ez zaigu argitzen, urrats asko egin arte, etsipen-nekez zaildu arte. Palazuelok txertatu zidan nere heinean irauteko behar nuen kemena. Nere bideko lainopea urratzeko, hura izan nuen anai-laguntzaile.

Aldi hartan, Donostiako kirolzelairako ozka-lanean, relieve-lanean, ari nintzen. Baina nere lanak ez ninduen betetzen. Itzulean atzeratu nahi nukeen, gaindua nabaritzen nuen harako sorbalda hartara. Hori ezina zela

ikusten nuen garbi. Arrixkatu beharra zegoen, zer gerta..., baina artean koloka nengoen erabakian. Zokoratua nengoen batik bat. Utzitako alderuntz egitea, ezina zen; aurrerantza jokatzea, ezinagoa. Zena zela, atzeraka egiterik ez zegoen. Euskal Herrirantz jo nuen eta nere bizilekua Hernanin
21 hartu nuen. Donostiatik gertuan. Hilarri bat egitea erabaki nuen. Burdinatik atera behar zen. Gai honekin, behin ere lan egin gabea nintzen. Lanbide berria ikasi beharra neukan, ba. Herriko errementariak, bere sutegia eskaini zidan. Han neukan nere eskuan goizean goiz, haren lanordu aurretik, eta arratsean, hark bere lana bukatuta gero. Han, gauza asko ikasi nuen.

Honela burutu nuen, nere lehenengo lan zertugabea. Euskal hilarri gurpilkoietan nuen gogoa. Haien jatorria iluna zen guziontzat. Kondairazaleentzat, zirrarakorra zen haien ezkutapena. «Hilarriak» izena eman nion lanari (4). Burdina aukeratu nuen horretarako, gai honen moldaberak lagunduko baitzidan nik artean lausotan neukan burutapena garbitzen. Harria trinkoa da. Mukulua, heldugaitza geratzen da. Hutsuneari muturka dago. Eta neretzat, hutsunea zen bilatu behar nuena. Burdina, hutsune horren oinarri, soka eta arku izan zedin bakarrik, nahi nuen. Honela aterako nion durundioa.

Alde honek, agian, antzinateko urruti-lokarri baten kibista zekarkidan. Euskal Herriko oroitarri zaharrak, oso nabarmen dute, gauzak geometri neurrietan sartzeko asmoa. Baditugu honela geometri itxurako Gurutzeko Jaunak. Hauen soinaldeak, eguzki-gurpilen zurruntasuna dute eta hutsunea beren inguruan erabili darabiltela, dirudi.

Metala nahiz zura, luzaro landu beharra dago, gure mendera erakar ditzagun eta, euskal atsotitzak dioen bezela, «norberaren burutapen» bihurtzeraino saia gaitezen. Beren izatea onartzen, erantzunak aurrez ikusten, eman dezaketen baino gehiago ez eskatzen, zuhurtasunez eupatzen ikasten da. Honela jokatzen badugu, eskatzen diegun baino gehiago ematen digute; gure argi-iturri bilakatzen dira. Norberaren dardarizak joaten zaizkie, izadiarekin hartu-eman zuzenean. Burdinak ia eresi den soinudardara bat dario, gure zainak baretuaz; mailupean soinu jotzen du, mendebaletan burrunda-doinuz nabaritzen dugu. Sokatira eten-zorikoaren antzera, zurrumurruak atzematen daki. Badu euskarak halako hitz eder bat, basa-garraxia den hitz bat. Dei larri baten antza du; artzainek elkarri jotzen dioten lelo-aideren bat dirudi, mendi-ordeka artean jo eta erantzun dabilena, urrutitik datorren txistua bezalakoa, erdizka hezitako aberearen jauzkak, Kantauri itsasertzaren aurka datozen olatuak eta haitzuloetako haizearen intziria hitzak zireneko denboretakoa: IRRINTZIA. Ez al du honek burdinak ingude joka ateratzen duen hotsa? Latza eta zimurtsua da; haizearen zartailuak zutik jarritako kima gogordun ile-kalparra dirudi.

Burdin eta zurari egozten dizkiodan eragin hauek, etorrian datorrenaren dangateko eta neurria dira. Era giatzen ari naiz, baina, haren bitartez, bera bezala menderatua nagokio era guzien hazierari lotua datorren behar-

kizunari. Hasten naizenean, ez dakit artean norantz naraman. Indar-lerro batzuek poliki-poliki nabari dituen hutsune-iduri bat besterik ez dut ikusten. Neronek ez nekien bidetik narama batzuetan, neronek ezagutzen ez nuen tokira; gero, beste bide batean sarrarazten nau; hurrengo, bestean. Eta guziak ezezagunak nituen. Plastika-sentipena daraman senean uste 22
osoa dut. Hau nere baitan somatzen dut garbi. Hasieran zehakaitza izanik, mugatzen den bezala, nere jabe egiten da. Zantzo bat somatzen dut; besterik ezinean, hartarako hitzik ez eta, eraren jarioa deituko dut. Usaintzen dut, arnasean hartzen dudala esango nuke. Bai, lurrin-usaina dario. Eraikiketa ikasten ari nintzeneko denbora dut gogoan. Nere kontu, marrazkietara emana nengoela, nere anaia alboko gela batean margozten aritzen zen. Pinturaren usainak halako buruko horditzea sortzen zidan. Oretzen dudan erak eragin berdina du nere gain, nahiz eta irudimen hutsez ari naizen.

Plastika-buruhauste bakoitzak bere aide berezia ohi du. Baina muinean, gauzak hain banak eta ezberdinak izan arren, korapilo berbera dute. Beti ere, etengabeko berriztatze bat da lan hau. Nahaspilatu, goibeheak aldatu, berrikeriren bat txertatzen diozu, baina alferrik. Bere oinarria ez da aldatzen. Aldi batzuetan, burutzen da. Orduan, ez da ezer aldatu beharrik. Baina gerora berriro agertzen zaizu lehena bera, alderantzikoa. Lehengo bera da, bere izate-muinari baitagokio. Bestelakoa da, aintzakotzat hartu genuenetik bidea egin baitugu aurrera eta orain beste ikuspegi batetik nabaritzen baitugu. Goragotik agertzen zaizu, beste alderdi batetik. Lehenagoko lanarekiko, gure begierak, zeharo atzekoz aurrerakoa balitz ere, nahi eta nahiez, lehengoarekiko muturkakoa izan arren, badu halako axalean ikusezineko, baina haren barruan sartzerakoan argi azaltzen den antza.

Espirala, zurubi kiribila! Horra guzia! Kiribil horretan sartuak daude, bere joan-etorrietan, hutsa eta betea inguratuaz, bere azken oinetik urrutiratzeke dabilela, hutsunezko iduri batek har ditzakeen bere ardatzarekiko egoera guziak. Honengatik nere eskulturetan, behin eta berriz, nere baitara bildu izan naiz. Hemen datorkigu burura hegaztiak, bere ehizerakoan aidean egiten duen ibil-ingurua. Nerea, mukuluaren bihotzean, lan-txilborrean biltzen den aintzira hori da. Hor datza geroko bere barriaketa guzien iturria.

Txillida bere lanen atzean ezkutatzen da orain. Hauen aurretiko prestaera eta akuilua agertu digu. Horietan dugun berdineza, bere egitekoaren une bakoitzaren batasunean, egin ahala, bere hurrerapenean argitzen da. Txillidaren irudipenezko lantegi horretan, bere esanak lan guziak batera ekarri dizkigu. Hor dago egin duen guzia, jaiotzen, lanaren heinean oinarritzen, bukatua eta bukatzekotan, bere arteko elkar-joka batean, baina aldatzeke azkenera bidean. Hor du bere hutsune hori menderatua, bere eskupean hartua, eta izate

bilduan gorpuztua. Horren bereizgarri plastikoak erabiliaz, bereak haien araupean lotzen ditu.

Bizitza-haria

23 1924 —Erti eta musikazale zen familia batean jaioa Donostian, urteko ilbeltzaren 10ean.
—Haurtzaroa Donostian doakio. Noizean behin, eskolatik piper eginaz, Igeldo azpiko haitzetan dabil itsasertzean.
1942 —Madrilera doa, arkitektura ikasgoan gaitzera. Baina buruan beste eraiketa bat dabilkio irakiten. Atzera eragiten dion bidetik, «zer gerta» begira jarriko du ertiak.
1945 —Musika-zirrara somatuko du, Schuberten «Rosamunda» aditzerakoan.
1947 —Arkitektura albora uzten du. Hala ere, urtebete osoan han dihardu Madrilen Erti Ikastetxe eskean. Irakaslerik gabe dibujatzen hasten da. Hau du bere buruhaustea: era-azterketa gogotsua. Han dator garbitzen bere eskultore-deia.
1948 —Parisen, Unibertsitate-hirian bizi da.
1949 —Parisko «Maiatz-Aretoan» SORBALDA bat erakusten du. Beste halako batzuk ere egiten ditu. Haietatik, «Gizon-sorbalda» eta «Emakume-sorbalda» gelditzen dira gailen.
1950 —«Les mains éblouies» taldearen erakusketan, Galerie Maeghten parte hartzen du, urrilean. Villanesen (Seine et Oise) bizitzen jartzen da. Han ari da jo eta ke lanean. Abstraktoak, zertugabeak darama bere zaletasuna.
1951 —Paris utzi eta Hernanira dator, Donostia ondora. Lau urtean aritzen da ixil-lanean, inori bere egina erakutsi gabe. (Hilarriak, Barrendik, Gutiziatsu, Hiru, Inguruan biribil, Haize-orrazia, eta abar...).
1954 —Madrilen, Galeria Clanen bakarkako bere lehenengo erakusketa antolatzen du. Apirila da. Milango «trienal»-ean Ohorezko Agiria irabazten du. Arantzazuko Santutegirako burdinezko lau ate.
1955 —«Eisenplastik» erakusketan agertzen da, «Kunsthalle»-n, Bernan.
—Baita «Premier Salon de la Sculpture Abstraite»-n ere, Parisko Galerie Denise Renén.
—Urte honetan, Donostian, Alexander Flemingen oroitarria burutzen du.
24 1957 —Donostian bizitzen jartzen da. Bide batez, Madrilgo «Escultura al aire libre» erakusketan, tarteko da.
1958 —New Yorken, «Solomon Guggenheim Museum» aretoan, «Sculptures and Drawings from Seven Sculptors» erakusketan agertzen da.

—Veneziako XXIX. «Biennale»-an, Veneziako «Comuna di Venezia per la Scultura» Saria irabazten du.
—Chicagoko «Graham Foundation»-eko eskultura-saria jasotzen du.
—Pittsburghen, «Carnegie Institute International»-eko erakusketan azaltzen da.

1959 —Donostian gelditzen da egotez. Eta erakusketa askotan agertzen da bere lanekin. Honela: «San Francisco Museum of Art», «National Gallery of Canada», «Baltimore Museum of Art», «Minneapolis Institute of Art», «Los Angeles, County Museum»-en, «Dokumenta, Kassel», Alemanian, Madrilgo «Blanco y Negro» (Galería Darro-n), «European Art To-day» («Graham Foundation»).

1960 —Urte honetako Kandinsky Saria.
—New Yorken «European Sculptures and Paintings», «Galerie B. Schaefer»-en erakusketa egiten du beste batzuekin batean.

1961 —Galerie Maeghten (eskultura, marrazki, kolatuak) berak bakarrik erakusketa berritzen du. «Derrière le Miroir»-en, 124. zenbakian, lau harri-irarketa berak asmatuak; hauetatik bi, orrialde bitan eginak, J. J. Sweeneyk hitzaurrea idazten diola. New Yorken berriro «The American Federation of Arts»-en bera ere tarteko da bere lanekin. Beste hainbeste: «Salon de la Jeune Sculpture»-en ere, Parisko Musée Rodinen. Texasko Houston-go Museoan, «Three Spaniards: Picasso, Miró, Chillida» erakustokian berriro. Donostian, San Telmoko Museoan, «Exposición de Arte Actual» -en tarteko da.

1962 —Seattleko erakustokian, «Art since 1950»-an, parte hartzen du.
—Basilean 32 lanekin «Kunsthalle» aretoan agertzen da bakarrik. Izendegiaren hitzaurrea Franz Meyerek egiten dio.
—Italian, Spoletoko Jaialdian eta Veneziako «Biennale»-an saritutako lanen geroko erakusketan sartzen da. 25
—Orobat Vienako «Museum 20. Jahrhunderts»-en. Rhode Islandeko «Some Directions in Modern Sculpture» erakusketan, «Providencia Arts Club»-en saritua delarik; Bartzelonako «Venta pro damnificados del Vallés» erakusketan sartzen da.

1963 —Vienako Galerie St. Stephenen, marrazki eta kolatuen erakusketa.
—Saint-Etienneko Erti eta Industri Museoan eta Parisko Erti Apaingarri erakustokian bere agerraldia egiten du.
—Zurichko Erti Ederren Museoan berriz.
—Munichko «Günther Frankeren erakustegian» dibujoak.
—Pittsburghko «Carnegie Institute International»-en, tarteko da.
—Londresen, «Paintings and Sculpture of a Decade: 54-64»-n agertzen zaigu, Tate erakustegian.

1964 —Apirilean, hamar lan ikustera ematen ditu berak bakarrik egindako erakusketan. Hamar horien artean, «Abesti Gogorra II ta IIIª», «Derrière le Miroir, n.º 143», Carola Giedion-Welckeren ager-hitzekin.

—1964ko «Pittsburgh International» bide zela, Carnegie Saria jasotzen du.

—New Yorken, B. Schaef erakustegian, bost naziotako ertilariak biltzen dituen «Collages by Painters and Sculptors» erakusketan ere, tarteko da.

1965 —Londresko Mac. Roberts & Tunnard erakustegian berak bakarrik egiten du erakusketa. Izendegiko hitzaurrea Rolan Penroserena da.

1966 —Alemaniako Duisburg hirian, ilbeltzean, Wilheim Lembruck Eskultura-Saria iristen du.

—Alemaniako Düsseldorfen, Nordheim Sari Handia eskuratzen du.

—Texasko Houstonen «Museum of Fine Arts»-en bakarrik agertzen da bere lanekin. A. Frénaudek egindako liburuaren argigarriak dira. Liburuaren izena, «Le Chemin des Devins», Maeght éditeur.

Liburu arakatuak

26 Aguilera Cerni, Vicente.— «La nuova scultura spagnola». *La biennale di Venezia.* 1960ko uztailetik-agorrerakoa.

Apollonio, Umbro.— «Eduardo Chillida». *Siderexport,* 4. zenbakia 1962.

Ashbery, John.— «Chillida and others». *Art international,* 1961-V-1.

Bachelard, Gaston.— «Le cosmos du Fer». *Derrière le miroir,* 90-91. zenbakia. 1956-urrila-azaroa.

Castro Arines, José de.— «Un escultor: Chillida». *Informaciones.* 1954-apirila.

Cirlot, Juan Eduardo.— «La escultura de Eduardo Chillida». *Papeles de Son Armadans.* XLIII. zenbakia. 1959-urrila.

Gaya Nuño, J. A.— «Chillida escultor en hierro caliente». *Ínsula.* 1957-II-15.

Giedion-Welcker, Carola.— «Contemporary sculpture». *Dictionnaire de la sculture contemporaine.* Paris, 1962.

Giedion-Welcker, Carola.— «La poésie de l'espace chez Chillida». *Derrière le miroir,* 143. zenbakia. 1964ko apirila.

Gullón, Ricardo.— «Chillida». *Cuadernos hispano-americanos,* 85. zenbakia. 1957.

Händler, Gerhard.— «Eduardo Chillida». Wilhelm-Lehmbruck Izendegiaren Hitzaurrea. Museum der Stadt Duisburg. 1966-V-7.
J. A.— «Chillida». *Cimaise,* Paris. 1956-azaro-abendua.
L. D.— «Chillida». *Aujourd'hui.* 1956, azaroa.
Mayor, Juan.— «Los hierros de Chillida». *Índice.* Madril. 1957, maiatza.
Meyer, Franz.— «Eduardo Chillida». Kunsthalle izendegiari hitzaurrea. Basilea, 1962, epailaren 3.a.
M. P. F.— «Sensación de París ante una exposición de Chillida». *ABC,* Madrid, 1962.
Netter, María.— «Der baskische Bildhauer Eduardo Chillida». *Werk,* 1962-I-6.
Pérez Ferrero, Miguel.— «Chillida o el espíritu de los Bascos». *ABC,* Madrid, 1964-V-10. 27
Prieto Barral, M. F.— «Los hierros de Chillida en París». *España.* 1961-V-2-8.
Restany, Pierre.— «Un janséniste basque, Chillida». *Ciamaise,* 60. zenbakia. 1962-uztaila-abuztua.
S. M.— «Eduardo Chillida». *La biennale di Venezia,* 42. zenbakia. 1961-epaila.
Sottsass jr, Ettore.— «Eduardo Chillida, escultor». *Domus,* 306. zenbakia. 1955-maiatza.
Sweeney, J. J.— «Eduardo Chillida». *Derrière le miroir,* 124. zenbakia. 1961-epaila.
Tharats J. J.— «Artistas de hoy, Eduardo Chillida». Bartzelona u.g.
Torres Murillo.— «Eduardo Chillida». *Obras* aldizkaria, 98. zenbakia. 1962.
Volboudt, Pierre.— «Chillida», *XX^e siècle,* 8. zenbakia. Paris.
Volboudt, Pierre.— «Espace sacré, espace profane». *XX^e siècle,* 24. zenbakia. Paris, 1964.

II

ELKARRIZKETAK

1

ORIXE GURE ARTEAN

Berri pozgarria benetan hauxe. Gure artean dugu berriro Ormaetxea jauna. Egia da nonahi eta noiznahi ere ez duela Euskal Herritik alde egin, Euskal Herria berekin zeramalako edo, eta honi eta honen hizkuntzari eskaini diola beti bere nekeen etekina. Baina, halaz ere... Orain, ordea, hemen daukagu, ikusiz eta ikasiz inoiz baino aberatsago. 3

Pozgarria benetan Orixeren etorrera, bai ahaztutzeke zeukaten aspaldiko adiskideentzat eta bai bere lanez kanpora ezagutzen ez zutenentzat. Eta azkenekoetakoa naizenez gero, hauetaz mintza nadin bereziki.

Urrutiko adiskideok Orixegandik bi gauza ikasi ditugulakoan nago, batez ere, bihotz bihotzez maite ditugun gauza bi: bere idazlanen bidez Euskal Herriari eman dion poesi izaera, urteen joanak desegin edo aldatuko ez duen betiko izaera harrigarria, eta euskaraz entzunarazi digun musika berri garbia. Musika hori daukagu belarrietan sartua hamaika ikasle koxkor eta kaxkarrek, eta doinu horretara saiatu nahi genuke gure mintzoa, nahi eta ezin badugu ere.

Jakin-nahiak zirikatzen gintuelako —geure eta besteren jakin-nahiak—, beragana jo dugu berri bila. Hona zenbait galde-erantzun:

—Ze lan duzu esku artean? Bat edo bat aurki agertzekotan omen da. Egia?

Egan 1954, 3-4; *MEIG* VIII, 51.-52. or. [«Adiskide berri»-k sinatua].

—Hala nahi, baina ezin; San Agustinen *Aitorkizunak,* behintzat. *Salmo*-ek badute Eliz baimena, baina argitaldariak esan behar du bai ahal dezakeen edo daitekeen.

(Salmoen itzulketa, berea izanik ere, ez omen du begi txarrez ikusten Orixek. Ez da hau egileak esana, jakina, kalean entzuna baizik, baina berri ona izanik ez dugu ixilpean gorde nahi).

—Nonbait esan duzu —Meza-liburuan noski— berrehun edo hirurehun lagunentzat ari zarela, besteei axola ez zaielako edo. Zergatik ote irakurleak hain urri izatea?

—Lehenbizi, liburua garestiz erosiko ez dutelako. Gero gure herria irakurle ez delako.

4 —Euskal liburuak zailak aurkitzen dituzte askok. Norena ote da gehienbat errua, egileena edo irakurleena?

—Biena.

—Irakurleak euskal gaietan behar bezain ikasiak ez badira, zein izango litzateke erakusteko eta zaletzeko biderik erosoena?

—Gauza urragarri bat idaztea, v. g. *Coprógenas* antzekoa.

(Bide honetatik ez ote da inor abiatu? Jakitekoa litzateke kiratsak lore-usainak baino irakurle gehiago bildu ote duen).

Galdera gehiago ere egin dizkiogu. Ea, esate baterako, batasun bila, eguzki edo etzin-aldera, zaharretara edo berrietara jo behar dugun; ea XVII. mendeko hizkuntza berpizteari daitekeen gauza ahal deritzon, eta abar. Baina Ormaetxea jaunak galdetzeko baimena esku zabalki eman arren, erantzuteko (edo ez erantzuteko) eskubidea beretzat gorde du, gizon zuhurrari dagokionez. Esan dezagun, zirikatzen aritu garela aitortu dugunez gero, ez dugula eztabaida gorroto. Bakeak ere ederrago dirudi borrokaldi gogor baten ondoren. Lege Zaharreko ohitura dugu hori euskaldunok eta ez ziren egiteko horretan makalak izan Larramendi, Azkue, Urkixo eta beste hainbeste eta hainbeste. Ez da makala ere, dakigunez, poesia, gramatika edo gaurko kultura dela, Ormaetxea jauna.

Baina Orixe gure artean ikusteak ematen digun pozean ezin daiteke eztabaidarik izan. Horrexegatik ematen diogu, denon izenean, ongietorririk beroena.

2

ESCUDERO MAISUAK ESAN DIGU

Egun gutxi barru joko dute berriz «Illeta» Bilbon. Escudero mai- 1
sua aurrean daukagu zorroztu dizkiogun galderei erantzuteko prest.

—Noiz entzun ahal izango dugu «Illeta» Donostian?

—Apiril azkenean edo maiatz lehenean. Oraindik ez dira gauzak zeharo erabaki. Orkestra Bilbotik etorriko da noski.

—Jendeak egin dion harreraz pozik al zaude?

—Bai horixe. «Illeta» luzea da, eta nahigabetsua. Egitura berrikoa da gainera eta beldur nintzen mintzaera berri horrekin ez ote zen jendea miraz geldituko. Propaganda txarra ere izan zuen, ordu eta erdi irauten zuela esan baitzuten aldez aurretik. Eta, jakina, horrenbeste denboran geldi-geldi eta txintik atera gabe egon beharrak ez du inor alaitzen. Orkestrakoak ere, kantaririk gabe ari ziren bitartean alegia, ohi ez bezalako musika zela eta, ez zeuden oso lasai.

—Eta gero?

—Hastekoan, entzuleak hotz. Geroxeago, bi minutu baino lehen, alde egin zuen hoztasunak. Luzaro gabe, malkoak ere ikusi nizkion bati baino gehiagori.

—Nola aukeratu zenuen gaitzat Lizardiren poema hori?

—Beste bat jo nuen begiz aurrenik, Lizardirena hura ere: «Urte giroak». Luzeegia izaki, ordea. Lau orduko bat, gutxienez. Orduan, labur-zurrean, «Illeta» hautatu nuen, antzinako Euskal Herriko hiletak gogorarazten zizkidalako edo.

—Lan luzea izan zenuen?

«Berriketan», *Egan* 1955, 1-4; *MIH* 153.-157. or.; *MEIG* I, 47.-51. or. [«Adiskide berri»-k sinatua].

—Langile geldi nauzue. Giroaz nekez jabetzen naiz. Gaiak behar
2 nituen: doinuak, harmoni kolorea, eta giroa. Urte osoa behar izan dut nere baitan antolatzeko, eta paperean jartzeko beste urtebete.

—Euskal doinuek ba al dute berezkotasunik? Ez ote dute beste herrietakoen eiterik?

—Ez dira noski denean berezko. Berezkotasun hori ez dago doinuetan, entzulearen barrenean sorrarazten duten gogo-giro berezian baizik. Euskal aire zaharrak euskaldunagoak bide ziren, gureagoak; baina erdalkeria sartu zaigu harrezkero musikan ere.

—Nola berezi, beraz, musikan, gurea dena eta ez dena?

—Euskal arima ezagutu behar. Euskalduna hitz gutxikoa duzue, ixila, barrenkoia. Eta zenbait doinu zabal, handi-nahiko —hitz batez esateko, zentzukoi— ez dagozkio ongi. Ez da beti erraz zer den eta zer ez den esaten. Hara neurria. Oso berezia dute gure kantek. Zortzikoa berria da, badakigu, baina 5/8ari halako bere gisako nortasuna eman diogu. Ez al diozue inoiz entzun Yehudi Menuhini Sarasateren «Euskal kapritxoa»? Garbi dago ez dela gurea ematen dion neurria.

—Ba al dugu musikan euskal eskolarik?

—Ez, ez dugu; behar bai. Sortzeko dago. Euskal kantak bildu dira: hor daude, esate baterako, Salaberri, Manterola, Azkue, Bordes eta Aita Donostiaren lanak. Harmonia ere eman zaie. Ez da aski, ordea.

—Zer egin behar litzateke, bada?

—Herri-kantak bahetu, XVII. mendetik hona batez ere itsatsi zaien erdal hautsa garbitu, gure izaerari dagozkion doinuak bereizi eta behar duten harmonia aurkitu.

—Nola egin daiteke hori?

—Euskal kantak —nola esango nuke?— itxiak dira eta bi arrisku sortzen dira horretatik. Harmonia erantsi eta dauden daudenean utzi dituzte batzuek. Beste batzuek, berriz, zabaldu nahi eta zabaldu egin dituzte: zabaldu, eta erdaldundu. Hedatu, bai, hedatu behar dira, baina gezatu eta urardotu gabe. Herri-kantek berek eskaintzen dizkigute gaiak: doinu, neurri, azkenak. Gregorianoa dakarte hauek gogora.

—Nondik dator euskaldunen artean nabari den musikarako gogoa?

—Ez da erraz esaten. Berezkoa dugu hori. Kantak ahotik belarrira iritsi dira guregana. Errazak dira gainera, edonork kanta ditzakeenak... Jatorrizkoa dugula esan beharko dut berriz ere.

—Eta gure aurrekoetan Eslava, Gorriti, Goikoetxea?

—Gogokoena, azkenekoa dut: berebizikoa da. Horren «Deitoreak»! Eslava musika-maisua izan zen batik bat. Egin zituen liburuak ezin hobeak dira. Gorritiri Italiar usaina dario. Harmonista garaia, ausarta. Horretan Goikoetxearen gainekoa.

—Goikoetxea Perossiren parean jar daitekeela uste al duzu?

—Perossik egin duena elizetan kantari taldeak sorraraztea izan da gehienbat. Horretarako egin zituen bere mezak: errazak, guretzat aukeran errazegiak. Geroago etorri direnen artean, Refice askoz ho- 3
bea da. Goikoetxea horien parekoa duzue, kementsuago eta sortzaileago beharbada. Oso gogokoa dut nik Goikoetxea.

—Eta Stravinsky?

—Musikagile harrigarria. Orkestratzearen jabe, inor ez bezala. Ezarri dioten izengoitia, «soinu-injenieroa», ederki dagokio.

—Badakizu zer esan duen: musika ez dela gauza gogo-giroak edo aldarteak adierazteko. Zer deritzozu?

—Hori, neretzat, esan daitekeen kirtenkeriarik handiena dela. Musikari bihotz-giro eta sentimenduak sor eta gogorarazteko ahalmena kentzen badiogu, hotz eta eskas bihurtzen da. Ez dut uste horrelakorik egin duenik Stravinskyk, bere miragarrizko «Udaberriaren sagara»-n adibidez. Eta teknika hutsean, trebetasunean, uzten baldin badu musika, beti izango du beste norbait bera baino trebeago eta ausartagorik, ausardia soila nagusi denez gero.

—Eta Schomberg?

—Schomberg mikrofonista. *A priori*-ko jokabideak ditu maizenik: buru-lana, ez bihotz-lana. Arima kentzen dio musikari.

—Nola entzun behar da musika?

—Batzuek soinua aditzen dute, besteek soinuak ernatzen dien gogo-oihartzuna. Lehenbiziko era, soinuari soil-soilik adi egotea, da agian bikainena. Halaz guztiz ere, nik behintzat musikak zerbait gehiago adieraztea nahi.

—Musikak, gogoaren gorabeheraz kanpora, gertakari bat adieraz al dezake?

—Dudarik gabe. Nere «Illeta»-n, esate baterako, ekaitza zehazkiro, fisikoki, adierazten saiatu naiz.

—Baina entzuleak egilearen esanahi berbera aditzen al du? Ez ote da gertatzen entzule batek batera eta besteak bestera aditzea?

—Ez, behar bezala entzuten baldin bada. Denik gutxien ohituak ere aisa antzeman diezaioke.

—Opera gainbehera doala uste al duzu?

—Bai, galurren da, laguntzen ez bazaio.

—Balletak jarri al du galzorian?

—Ez; balleta ere, opera bezala, laguntza beharrean da. Garestiegia da eta ez du, ene ustez, etorkizun handirik. Opera laburtu nahian dabiltza orain.

—Zer maila dauka musikak arteetan?

—Gorengoa. Ez diote besteek horrek adinbat bihotzari eragiten. Mintzabide hori gainera guztiontzat da adigarri; poesian berriz nork geure hizkera dugu.

Beste hamaika gai ere aipatu ditugu. Escudero jaunaren lehenagoko lanak —«Euskal kuartetoa» eta «Poema sinfonikoak»—, gogo
4 -beteko dituen musikagileak —Beethoven, Wagner, Debussy, Ravel eta Stravinskyren izenak behintzat jaso ditugu— eta, batez ere, gerorako asmoak. Opera bat egin nahi luke, euskal opera bat, hauxe du ametsik kutunena. Gaia behar, ordea, libretoa, eta laguntza eske dator: arlote hauengana zoritxarrez. Eske hori euskaldun guztien belarrietara iritsiko balitz! Amets-lainoz inguraturik agertzen zaigun aspaldi ilun hartan, euskal jatorriaren iturburuan, jarri nahi luke bere musikaren oinarria. Jaio gabe geldituko ote da musika eder hori, euskaldunen artean horretarako kemenik eta ausardiarik ez delako?

3

PIO BAROJAK ESAN DIGU

Etxe-barren itzalean aurkitu dugu Baroja, bizkor, argi eta berri- 1
ketazale.

Urteek etxekoi egin dute: lau urte hauetan ez omen da ia kanpora irten. Horregatik edo, harriturik dago oraindik Madrilgo gelditokian ikusi duen jendearen emanarekin. Txindurritegia zirudien noski.

Halako triste-antza nabaritzen du bazterretan. Bai Beran ere, herriko jaietan bertan, zer dela eta ez badaki ere... Beharbada, eta gure ahoz ari gara orain, kontrabandoak beheraldia duelako egun hauetan.

Hizketa nora gabe dabil, atzera eta aurrera. Orain 50 edo 60 urteko eliz-predikuetara jo dugu azkenean, eta Barojak badu zer esana gai horretaz. Harritzekoa dirudi, baina ez da harritzeko. *El Globo*-n sermoi-kritika beti egiten zuten.

Ia galdetu genion zein dauzkan hobetzat, orduko sermolariak ala gaurkoak. Baina oraingo literaturari lotzen gatzaizkio.

—Behera doa 40 urte hauetan. Frantzian ez dago inor neurriz gainekorik. Joan den mendean, berriz, zenbat! Eta Ingalaterran, Errusian, Ipar-Amerikan. Orain ez dago ezer. Italian, Papiniren gisako jende kaxkar eta itxuragilea. Izengoitia daraman literatura hori erdipurdikoa izaten da. Idazle handiek, Cervantes batek esateko, ez

---

«Berriketan», *Egan* 1955, 1-4; *MIH* 129.-133. or.; *MEIG* I, 53.-57. or. [«Adiskide berri»-k sinatua. Elkarrizketaren bukaeran, orripean, honako aipu hau dago: «"Galtzen ari ziren hizkuntza askok luzatu dute bizia, hiztunen gogoa aldatu delako. Arriskuz betea dago horrexegatik hizkuntzen hil berria zabaltzen dabiltzan profeten lanbidea". U. Weinreich, *Languages in contact,* ⟦New York 1953⟧»].

zuten horrelako txartelen beharrik. Europak, literaturan, beheraldia du; hala iruditzen zait behintzat. Zerbaitengatik izango da.

—Eta Espainian?

—Gauza berririk gutxi. Carmen Laforeten lanak umekeri antxa
2 badute; ez dira inoren barrena inarrosteko gai. Cela, berriz, oihulari eta zalaparteroa da. Bat aspertzen du horrek azkenean.

—Benavente?

—Bere izena, hil orduko, desegiten hasia da. Eta hori jendea liluratua zeukalarik. Beti aurren ageri zen Espainiako teatroan. Bazekien bere lanbidea, neri kursi xamarra iruditzen bazitzaidan ere. Gizon bezala, bazituen horrek ere... Nobel saria eman, eta 4.000 libera ez gastatu nahi Suediara joateko.

—Zinema?

—Garai txarrean, zahartuxea, harrapatu ninduen. Azorín berriz zinemazale amorratua bihurtu zaigu. Nik ez diot zinemari deus ikusgarririk sumatzen.

—Ba al da euskal pinturarik?

—Ez dut uste. Neretzat, pintura, joan den mendeko azken urteetakoa, frantses inpresionistena. Orduan ikusten ziren pinturak Parisen. Merke baino merkeago gainera. Sisleyrenak, esate baterako, 2.000 liberan bakoitza. Hamar egunen buruan etorri, eta salgai oraindik. Hemen Regoyosek bazuen zerbait barrenen. Bazituen ordea kalte egiten zioten gauzak. Metro eta erdi luzeko koadroa, eta zeru-zerrenda mehar bat besterik ez. Eta jendeari ez gustatzen hori. «Gizona, esaten nion, zeru gehiago ikusten ohituak daude». Euskal Herrian ez zuen aldekorik izan.

—Zuloagaren pinturek eta zuen, 98koen, idazlanek ba al dute zer ikusirik elkarrekin?

—Baldin badute ere, nik ez dut garbi ikusten. Nik Zuloaga ez nizuen batere gogoko, agian pinturarekin zer ikusirik ez duen arrazoi batengatik. Zerbait izan nuen batean berarekin, beste nonbait esan izan dut... Erretratua egin nahi izan zidan gero.

—Ba al da euskal musikarik?

—Ez deritzot batasunik izan denik. Harako lehengo bertsolari hark... Iparragirrek, bazuen zerbait buruan...

—Zure gaztaroko musikoak?

—Chueca. Ezagutzen nuen franko; maiz joaten nintzaion ikustera. Berebizikoa zen, izan ere, paregabea. Gizon xelebrea beste aldetik. Eri zegoen, diabetesekin. Etxeak, hirugarren edo laugarren bizitza, orube bat zuen aldamenean. Han jostatzen ari ziren mutikoei

saski bat jaisten zien sokatik zintzilik, eta bi edo hiru pezeta, goxoak erosteko. Gero jan egiten zituen. Izena, entzutea, ez zitzaion batere axola. Eta hura etorria... Arina zen, nekerik gabe zetorkion kantua. Bretón, berriz, ez zen agure aspergarri bat besterik.

—Zure gizaldiko idazleetan, euskal herritarrak?

—Ez nituen oso gogoko. Salaberriak ezin zuen inor ikusi. Buenok ez zuen bekaitzik; ongi idazten zuen, argiro. Ez zuen euskal usain handirik. Maeztu arrunta zen zeharo, nere ustez. 3

—Eta Unamuno?

—Eroxka, eta harroa, harrorik bada. Mundu zabalari hitz egin, ustez, eta kanpokoek ez ezagutzen. Eta hura azken zoroa... Gauzak bere gogora eskuratuko zituelakoan zegoen, herria menderatua baitzeukan ustez. Harrokeriaz eta beldurrez beterik, edozein gizon arruntek egingo zukeena ez zuen jakin egiten. Herria bereganatuko zuela sinetsi, eta herria oso-osorik etsai bihurtu. Salamancako harriak ere kontra jaiki zitzaizkion. Etsita hil zen, hori ikusirik.

—Zer egin du Donostiak 70 urte hauetan, galdu ala irabazi?

—Erosotasunean irabazi. Gogoa zabaldu bide zaio, agian, baina ez du orain deus ikusgarririk. Herri on bat da, berextasunik gabea. Donostia, egin den bezala, euskalduntasuna desegiteko tresna bat da. Bilbo, oraindik erdaldunago.

—Euskal Herria eta euskal gauzak nola ikusten dituzu?

—Gogoko izan dut beti, urrutiko sorterri-minak eraginda bezala, Euskal Herria eta euskaldun jendea, baina batez ere baserria. Bilboko kaleak beste nonahikoen antzekoak dira, eta zer axola dio inori asturiano edo gallego bat bezala mintzatzen den euskaldunak? Gauza horiek hiltzen ari direla uste dut, ordea. Datorren mundua arruntagoa izango da, eta lelo berberak izango ditugu alde guzietan.

—Euskararen etorkizuna?

—Atzeraka dabil, nora jorik ez duen errekaren gisa. Suntsitu beharra da. 500 urtez edo iraungo du, baina galduko da. Neke du hizkuntza ilun batek hizkuntza argi bati gogor egiten. Duela 70 urte, etsia nago, gehiago egiten zen euskaraz Donostiako kalean. 200 urte barru, ez du inork egingo.

—Ezer egin behar ote genuke, gal ez dadin?

—Hori barrenak eskatzen dio gizonari. Euskarak ez du ia ezertarako balio, ordea. Gauza bitxi bat bezala da, etxean gorde eta datozenei erakusten zaien horietakoa. Nere iritziz, euskararen agonia ikusi dugu, azkeneko 50 urteotan. Hor geldituko da 100, 150,

200 urtez, jakintsuentzat. Latinetiko erdarak errazagoak dira. Iskilu eskasak ditu euskarak borrokarako.

—Onik aterako al luke euskara agintarien laguntzak?

—Ez zait iruditzen agintariek horrelakorik egin lezaketenik. Gogor egingo lieke jendeak agintariei, arriskua izanagatik, euskaltzaletasunik baldin balu. Euskaldunik asko da, euskaraz jakinik, egiten ez duenik. Herri hauetan ere ahultzen ari da.

—Badirudi, halere, askoren gogoak aldatzen ari direla.

4 —Aldakuntza hori benetakoa den jakin behar, ala itxurakeria hutsa. Hori jakinaren gainean ongi dagoenak bakarrik esan dezake. Pizkunde antzeko zerbait, nik ez dut ikusten.

—Joan den mendeko bi gerrateetan euskaldunik gehienek karlistengana jo zuten. Zergatik ote?

—Apaizarengatik edo, familiarengatik edo. Apaizaren eta karlistaren ondoan bizia garbiagoa izango zelako usteagatik edo. Nekazariak, alde guzietan, ez dira berrizale. Frantsesek ere, luzaroan, gorroto izan zuten horrelaxe Errepublika.

Kanpora garenean, «Itzea»-ren sabel zabalean liburu, irudi, oroigarriak gelaz gela ikusi ondoren, mendien itzala luzatuxea da. Altzaten barrena, ez dugu Urtzi-Thor era Lamien aztarnik sumatu. Hodei arinak, ordea, dantzan dabiltza zeruan, Jaunen garaietan bezala, eta ibaiaren ibilera ixila lagun dugu luzaroan. Bidaso alde honek garbi dauka azala oraindik, giza erlauntz eta txindurritegirik gabe. Dituen atzerapideak ere hutsak dira: euliak eta...

4

ESTELLAKO AITA HILARIO OLAZARANEK ESAN DIGU

Urte asko direla ikusi nuen lehenbiziko aldiz orain aurrean dau- 1
kagun aita kaputxino ttiki, alai, begi-bixi hau. Ixil-ixilik zegoen herri bateko plazan, barre-antxean, berak ereindako hazia nola ernatzen ari zen jendartetik begira. Eta txistulariek saioa azkendu zutenean, hitz hauek esan zituen: «Ederki yo duzue».

Gaur berriz, Jaunari eskerrak, luzaroan aditu ditut haren hitzak. Urte joanek ez dute epeldu, urruti egoteak ez du gugandik aldendu. Hona non duzun, irakurle, bere esanen urrutiko oihartzun hotza.

—Zenbat urte Euskal Herritik kanpora?

—Hemeretzi igaro ditut Txilen. Misiolaritzan, Jainkoari eskerrak. Haiek dira lurraldeak. Giroa, atsegina; jendea, jatorra, oso katolikoa. Familiarik ezagunenak euskal izenekoak dira: Errazuriz, Etxenike, Larrain, Zañartu... Eta harro daude bere jatorriaz: duten maitasuna urrutikoa izatea...

—Ahaztuko zitzaion honezkero txistua jotzen.

—Bai, zera. Asko lagundu dit nere lanean, haurrak biltzeko batez ere. Horretaz baliatzen nintzen edozertarako: prozesioetarako, misioazkenetarako, Eguberrijaietarako. Eta jendea gureganatzeko, protestanteak gogor ari baitira. Han joaten nintzen ni plazara, danbolina jo eta izerdia atera, eta haur guztiak ondotik. Halako batean gelditzen nintzen oihu egiteko: «Viva la Virgen»! Eta denek, «Via la 'irgen!», horrela esaten baitute. «Viva la religión católica, que es la 2
más linda!», «La más poética!», «La única verdadera!». Eta azkenean,

---

«Berriketan», *Egan* 1955, 1-5; *MEIG* I, 59.-64. or. [«Adiskide berri»-k sinatua].

lurra ostikoz astinduz: «Abajo el Diablo!». Biltzen zen, bai, jendea. Ez nintzen ausartzen lehenbizi aldian, baina gero... Nerekin eramaten nuen txistua, noranahi nindoala.

—Eta etxerakoan?

—Bidaia atsegina izan da benetan. Valparaisoko portuan izugarrizko jendetza zegoen pilatua; ontzikoak agurtzera etorri zirenak. Atzeratu nintzen pixka bat: «Aizu, kapitan jauna, utziko al zenidake musika apur bat jotzen?». Eta han agertzen naiz, goien, jo eta jo. Hango txaloak. Abiatzerakoan, Txileko martxa hasi nuen. Irmo jarri ziren, negarrez batzuk. Gero beste aire batzuk jo nituen. Gero, «Marcha Real»-a: txunpa, txunpa... Eta bestea, eta bestea. Zerua garretan zegoen, airea txoriz josia. Jotzen ari nintzela, malkoak nituen aurpegian. Izan ere, hemeretzi urte luzez zorionekoa izana nintzen Txilen, eta bihotza betean nuen orduan zoriona, berriz etxera nentorrelako. Callaora heldu ginenean, orobat; Peruko martxa. Eta Ekuadorren, Panaman, Kolonbian. Kanalean barrena gindoazela, «gringoek» agur egiten zidaten lurretik. Cristobalen, kafe bat hartzera sartu nintzen. Eta hara non esaten didan beltz batek: «Berorrek jo du noski Kolonbiako martxa ontzian». Eta irribarrez, hortz zuri haiek dirdir egiten zidatela, dirua atera zuen sakeletik eta ordaindu nere kafea. Ontzian ere, esku artean nuen beti txistua. Balear bati jota jotzen nion, italiar batzuei Napolesko aireak.

—Non jo du lehenbizi ontziak honakoan?

—Bartzelonan. Hurbil ginenean, txistua gorde egin nuen. Ez nintzen ausartzen jotzera, gainerako portuetan bezala. Eta hona non entzuten dudan, gutxien uste nuenean, «Agur Jaunak». Bi txistulari neuzkan zain. «Aita Hilario, esan zidaten ontzi-lagunek, berorren soinuaz egiten diote agur». Agudo atera nuen, bai, gorderik neukana. Ez ziren luzaroan egon nere erantzunaren begira... Eibarra joan naiz gero. Arrateko Andre Mariari, txistularien zaindariari, ikustalditxo bat egin behar nion, eskerrak emateko. Txistua atera eta Salbea jo nuen meza bitartean. Eta azkenean hil-otoitzak kantatu hildako txistularien alde, eta baita gure gauzak maite dituzten guztien alde ere. Nik ezagutu nituen txistulari gaxoak, hilak asko eta asko zahartuak!

—Luzaroan egongo al da hemen?

—Ez, banoa berehala. Apaiz gutxi dago han, eta hemen ez da nere beharrik. Txistulariei utzi diet nere ikasbidea.

3 —Noiztikakoa da txistua?

—Ez da flauta zuzena besterik, Jainkoak daki noizkoa. Egipton eta Babilonian agertu dira, danbolinik gabe jakina, Kristo baino 3.000 urtez aurreragokoak. Ikusi ditut horrelakoak. Dresdenen, Berlinen, British Museum-ean. Nere ikasbidean eman nituen argitasun guztiak. Ez dakit zenbat zulo izaten zituzten. Badakizue noski nola aurkitu zuen Passemardek hegazti hezur bat Izturitzeko lezean, euskal lurrean. Hiru xulo ditu, eta muturra hautsia. Hori ahal da munduan agertu den ereskinik zaharrena.

—Eta gure artean?

—Olivan agertzen den irudia, XII. mendekoa; hori da lehenbiziko aztarrena. Neronek aurkitu nuen, bilatu gabe gainera. Hegatz aldera begira nengoela, «To, txistularia!». Han zegoen, bere danbolin eta guzti. *Yakintza*-n eman nuen argitara, 1932an oker ez banago.

—Nola ikasi zuen txistua jotzen?

—Lekarozko ikastetxeko ganbara batean. Mutil bat behar jaietan jotzeko, eta ez inor agertzen. «Gutakoren batek ikasi beharko dik bada». Ikasi nituen notak, erosi nuen ezpelezko txistu bat, Arantzako Ixkibok egina, eta berehalaxe jarri nintzaizuen. Erraz ikasten da beharrezkoena. Ondoren Iruñeko Jose Garmendiak ere ikasi zuen: flauta jotzen bai baitzekien ordurako. Gero mutilak bidaltzen zizkidaten inguruko herrietatik, ikastera. Artasoro batera joaten ginen denak, eta han aritzen, pi, pi, pi, txorien gisa.

—Nola sortu zen berorren ikasbidea?

—Hasieran ez zen esku-liburutxo bat baizik. *Euskalerriaren alde* aldizkariak jarritako saria eraman nuen: 100 pezeta. Bazen beste bat ere, ez dakit nor. Hori izan zen lehenbizikoa: azala Txikik apaindu zion. Gero beste bat eman nuen argitara, ikasbidea, Ordorikarenean: laurogei orrialde musika erantsi nizkion, Gipuzkoakoa gehiena. Hori aberastasuna: dantza zaharrak —Errenderiar batek, Irineo Errekaldek, erakutsiak asko— kalejirak, karrika-dantza edo biribilketak. Ez zenean, neronek asmatu behar. Baina nere burukoei izartxo bat ipini nien. Gauza bat ahaztu zitzaidan horratik: nondik jasoak nituen esatea... Horrelaxe hasi zen, poliki-poliki, han eta hemen, urte haietako beroaldi hura. Banaka batzuk ez gintuelako lotsatzen gauza apaletara makurtzeak. Horrelakoxea zen gure Aita San Frantzisko: hark ere jotzen zuen bere txolarteetan, adarra gainera, euskaraz esateko gogortxoa dirudien arren. Orain badira 4.000 txistulari Euskal Herrian, 4.000 eta bat neroni sartuz gero. Lau mila eta bi ere bai, erakutsi berria dudan andereño bat kontatzen badugu. 4

—Ezagunenak, antzinako txitularien artean?

—Aita Donostia ari zaigu horien berri ematen, paper zaharretan harturik. Bada Baztandar bat, Manuel Dorremotz, 1800 ingurukoa. Hark jotzen zituen doinuak bizirik daude oraindik, izan baitzituen ondorengoak. Neronek jaso ahal izan nituen. Bildu ditudanetarik gehiena Amaiurko txistulariari, Antonio Elizalde arizkundarrari, hartu diot. Zorretan gaude horrekin. Bere seme Mauriziok jotzen du orain txistua, eta nola jo ere.

—Eta berrietan?

—Ansorena aurrenik, guztion maisua. Horrek ateratzen duen soinuaren gozoa! Eta egin duen lana...? Ongi merezia du omenaldi berezi bat. Besterik ere ezagutu dut: Lizaso zena, batez ere. Haren behatzik ez du nere ustez inork izan.

—Zer da hobe, txistulari bakarra ala txistulari taldea?

—Txistulari bakarra, hori da jatorra; hirukoa, dotoreago. Ez daude ongi berdinduak: duen baino indar gehiago behar luke silboteak. Txistu eta danbolin bana behar genituzke herri bakoitzean. Bai ederra txistularia duen herria! Airean ikusten duzue txistu-soinua dantzan, argi-zerrenda baten antzera. Herri handietan jendea harroagoa da. Zuek batez ere, giputzak, hain dotoreak zarete izan ere, ez duzue batekin aski. Dantzak, ordea, inork ez bezala gorde dituzue.

—Pozik al dago Euskal Herrian?

—Bai, horixe. Batez ere, hemen bezala, gure gauzen alde lanean ari den jendearen artean nagoenean. Negargarria baita eraman duten gainbehera, gure Nafarroan batik bat. Ibar baten ondoan bestea, gau beltzak bezala, erdarak estali ditu. Hau lana! Euskara galdu den lurraldeetan, horratik, asko dira odol-hizkuntza maite dutenak. Neroni ere saiatua naiz ikasten, baina... txistua errazagoa da. Zoko -inguru asko ditugu nafarrok; zernahitarako gauza gara, bai onean eta bai txarrean. Eta euskal odola axal-axalean daramagu. Egia ere da, bai, badugula maiz asko tanto bat edo beste judu odoletik. Nere bigarren deitura Aparizio da. Ibili nintzen buru-belarri urte haietan ea nondik aurkituko ote nion euskal usaia, *afari*-tik edo. Ez zen lan makala. Azkonari galdetu nion behin: «Beti paper zaharrez inguratua zabiltzanez gero, ez al duzu inoiz Aparizziorik topatu horietan?». Eta hor etorri zitzaidan halako batean: «Bat aurkitu dut, Aita Hilario, 1300 ingurukoa. Urkatu egin omen zuten, "por malfeytor"». «Aski, aski, gizona, ez zazula mesedez aurrera segi!».

—Euskaldunentzat zerbait esan nahi al luke, gure bitartez?

—Bai. Erdara, gaztelera, edozeinek daki: apainduria eta dotoretasuna euskaraz jakitean daude. Ez da hori inorentzat atzerapide. Ipar Ameriketara badoa edozein baserritar, badaki ingelesez mintzatzen hiru hilabete baino lehenago. Eta, batez ere, gu gaude euskararen alde jokatzera behartuak, gure-gurea delako, Jainkoak guri eman zigulako. Aberastasun horrek ez du galdu behar, gu ez ezik gizadi osoa ere galduan geldituko bailitzateke. Galtzen uztea Jainkoak berak, gizonaren bidez, egin duen lanaren kaltean aritzea litzateke. Horixe esan zien Aita Santuak folklore edo herri-jakintzarekiko batzarre batean bildu zirenei: saia zitezela eginahalean ondasun horien alde. Bil gaitezen guztiok, berezkuntzarik gabe, lanbide horretan.

Honela mintzatu zaigu Aita Hilario. Ikusi duguna, ordea, geuk ikusi dugu. Maizegi esaten da, baina bakanegi gertatzen. Gela arrunt honetan bertan ikusi dugu orain zazpiehun urte Italiako herriek ikusi zuten mirariaren errainu bizia. Benetako maitasuna ezbehar askok nahigabetzen dute, baina ez du ezerk minduko. Argituko luke horrek zokorik ilunena, eta urre gorri bihurtuko baita oin azpian darabilgun hautsa ere.

5

MIGEL ANJEL ALVAREZEK ESAN DIGU

Zaragozatik etorri berria den kirolzale itxurako mutil atsegin eta egoki hau ez duzue kirolzalea. Kirolzaleek, izan ere, asko irabazten duten horietakoak baldin badira batez ere, badute nork aipa, gu ere hasi gabe besteen lehian. Ez, pintatzailea da, lehen Martiarenaren ikasle izana eta orain, arrotz batek dioena esateko, gipuzkoar maisu gaztea. 1

—Jaio zinen, beraz?

—Orain 28 urte, Tolosan, Rondilla kale jatorrean. Bi urte edo nituelarik ekarri ninduten Donostiara.

—Noiz ezkeroztikoa duzu pinturarako joera?

—Ttiki-ttikitandikoa. Eskolan nenbilela ohartu nintzen batik bat, paper, liburu, edozein hutsarte zuri arrastoz betetzen bainituen.

—Lehenbiziko maisua nor?

—Lehena eta azkena, Martiarena jauna. Sei urte egin nituen berarekin. Gero, nonbait, nere buruz aritzeko gauza nintzela iruditu zitzaion.

—Maiz joaten al zara Parisa?

—Ahal bezain sarri. Ez dut, Martiarena jaunaren ondoren, Paris baino maisu hoberik izan. Oso zait atsegin hango giroa, hango... dena.

—Ba al da Paris lehen adina, arte-gaietan?

—Bai; lehen adina edo lehen baino gehixeago. Pintura berriari buruz batez ere. Badituzu beti goi-mailako artisten erakusketak, oraindik orain izandako Braque eta Picassorenak bezala.

«Berriketan», *Egan* 1956,1-4; *MEIG* I, 65.-68. or. [«Adiskide berri»-k sinatua].

—Girorik bai?

—Aukera-aukerakoa. Joan berrian, harrituta nengoen ikusten nuenarekin. Pintura txar saldu-errax horrelakoa ageri baitzen nonahi, lekurik erosoenetan, dendarik onenetako erakustokietan. Ni, ordea, Paris ongi ezagutzen ez nuelako harritzen. Geroxeago jakin nuen zein bazterretan idoro daitekeen egiazko pintura. Alegia, han ere badela denetik.

—Pintura berri zalea zaitugu, noski, zu ere?

—Ba... Oraindik, gaur den egunean, ez dut oso berri antzera pintatzen: inpresionista gisara edo, gehiago. Atzeratuxea nabil aukeran. Zaharberritu beharrean aurkitzen naizela uste dut, ordea, pintura berri eta hutsago baten bila saiatzen dagoela nere bidea.

—Joera berriez zer diozu?

—Badutela egia eta jatortasuna. Pintura huts eta garbiagoa nahi litzateke, nork bere gisara egina. Artistak, besteak beste eta lehengoak lehengo, bere baitarik ari nahi du, xehetasun asko baztertzen dituelarik bide batez. Pintura abstraktu hori da gure aldiari dagokiona, gaurko arkitekturari, gaurko bizimodu gozogabeari... Ikusterraza da, behar baino gehiagoko apaingarririk gabea. Soila.

—Egia ote da elkarrengandik urruti dabiltzala gaur artistak eta jendea, nor bere aldetik, inoiz ez bezala?

—Bai, bada horrelako zerbait, Gipuzkoan eta Parisen ere. Higuin zuen jende askok berri-usaina zerion edozer. Azkenaldi honetan, ordea, jendeari nik uste begiak apurren bat zabaltzen ari zaizkiola. Behar adina, ez, horratik. Asko egiten du noski zenbait oraingo pintatzailek, Picassok eta Braquek esate baterako, duten izen handiak. Hainbeste eta hainbeste laudorio entzun ondoan, hasten zaizu jendea berekiko: «Behar ditek zerbait izan, horien ospea horrenbeste zabaltzeko». Eta abiatzen zaizkizu «zer» hori non aurkituko eta horrelaxe, poliki poliki, ohitzen ere dira, ikusi ahala, pintura-modu berrira. Egingo nuke, bada, pintura berri hau ere onetsiko duela noizpait jendeak. Horretara heldu deneko, hori bai, sortuko dela beste zerbait berriagorik...

—Izan ote da euskal eskolarik pinturan?

—Ez dut uste. Euskal pintatzaileak, bai; euskal pinturarik, ez. Zenbait gai guztion gogokoak izatea, gehienaz ere. Ez dute pintaera berdinik: bakoitza bere gisara dabil. Ez du Zuloagak Artetaren eiterik, ezta Regoyosek ere, euskalduntzat jo izan dutenez gero, Montes Iturriotzenik. Nor da nor.

—Zer deritzozu Regoyosi?

—Hemen, Iparraldean edo, izan ditugun pintatzailerik pizgarrienetakoa dela. Inpresionismoaren aitzindarietakoa, Gipuzkoan. Jakina, pintura puntilista xamarra du, Paristar antxekoa... Neri hala iruditzen, behintzat.

—Salaberria? 3

—Salaberria, neretzat, ez dakit... Goxozale xamarra aurkitzen dut. Zuloaga, bai. Haren dibujo sendo eta harrigarria!

—Etxebarria eta Arteta?

—Etxebarria, gogoko dut; Arteta, areago. Gogokoena, euskal pintatzaileetan. Aratza izanik, pinturak sendoro biribiltzen zituena.

—Bizi direnen artean?

—Ez da maisu dudalako, baina Martiarena oso zait atsegin orain ere. Nortasun gailena du. Eta, esan beharrik ez, Olasagasti zena, erretratugile handia, guziok dakigunez. Besterik, ez dakit. Vázquez Díaz ez da hemengoa, baina ez du inork nere iritziz euskal lurraldea hobeki pintatu.

—Gai bat bestea baino gorago jarri al daiteke pinturan?

—Ez da horrelakorik. Lurralde bat, bodegoi bat ere, bada gizirudiz jositako pintura handi bat adina.

—Kaltegarri ote da artistarentzat erretratugintzan aritzea?

—Hala esango nuke, batez ere ikasten ari den gaztearentzat. Lotu egiten baitu pintura-mota horrek, teknika bati lotu, eta hegoak mozten dizkio, hain behar lituzkeenak hasieran bide berri bila ahalegintzeko. Kaltegarria, beraz... Maisu eginarentzat, noski, ez. Erretratugilea, neretzat, ofizialea da, artista baino gehiago. Hori da, izan ere, diru aldetik gehien dakarrena.

—Zaragozako erakusketa?

—Oso ongi hartu dute, bai kritikak eta baita, hotz bazen ere, jendeak. Eta saldu, denda jabeak harritzeko adina. Ez da gutxi, negu gorrian eta Zaragozan izateko, batez ere.

—Picasso eta Dalíz zerbait?

—Lelo bat du jendeak beti, ea nor den gehiago. Ez dira alderatzeko ere. Picasso da, jakina, askotaz gehiago. Picasso, gainera, pintatzailea da eta Dalí dibujogile on-on bat, begiak beti dauzkana argi, nondik aterako zer edo zer. Gaiari begiratzen zaio pintatzen dituen gauzetan. Picasso, berriz, pintatzaile hutsa duzu. Gaiak ez dio axola: pintura han dago, ez du izen beharrik. Ez, ordea, Dalí: gaiari itsasten zaio hau, gaiak bizi du.

—Esango al zeniguke zerbait azkenik, euskara eta euskararen alde gabiltzanon asmoei buruz?

—Oso lan ederra dela deritzot, eta euskaldun guztiok atsegin biziz eta esker onez ikusi behar genukeena. Hain ederki atera izan duzuen *Egan* bezala. Gutxi dakit gauza horietan, nere aita diotenez
4 hain hiztun ederra zelarik ere, baina Euskal Herriko semea naizenez ez dauzkat, ezin eduki ere, gure gauzak ahazturik.

Migel Anjel Alvarez doi, zehatz eta apala da hizketan. Hitzak, izan ere, zertarako? Beste mintzaera bat dauka begiz joa gazte-gaztetandik, berak esan digunez. Horretan mintzatu nahi du, hizkera horren bidez azaldu nahi digu bere barrena.

6

MIGEL CASTELLSEK ESAN DIGU

Irribarrez, begiak erne, daukagun gizaseme apain eta atsegin hau —lanbidez eskribaua— ez da gure artean sortua: badu horratik zer ikusi berezirik euskaldunokin. Esango nuke odola bera baino lokarri sendoagoak elkartzen gaituela. 1

—Jaio?

—Valentzian bertan. Hamasei urtetan ikusi nuen Euskal Herria aurreneko aldiz, Deustura etorri nintzenean ikaskizunetara. Adiskide on franko egin nituen bost urtetan eta gaurdaino adiskide ditut, Jainkoari eskerrak. Adiskideok lotu ninduten lur honetara, eta gero emazteak. Emazteak dioena egin ohi baitu gizonak. Busturiako erretoreak ikusia omen dauka eliz liburuetan: neskatxa busturiarra denean, Busturiara ezkontzen; busturiarra ez denean, kanpora. Hori gertatu bide zait neroni ere. Aurrenik Valmasedara etorri nintzen eskribau, gero 1944an Donostiara.

—Nondik nora ekin zenion euskarari?

—Etorri baino lehen hartua nuen erabakia. Etxean ikusia nuen, Valentzian —aita ere eskribaua izaki—, ez zirela nekazariak gogoz mintzatzen besteren hizkuntzan, jakinik ere; nahiago dutela berenean ari. Lagun artean azaldu nuen asmoa etorri orduko eta berehala esan zidaten bazela hemen euskal irakasle bikain bat, Ayuntamentukoa, Maria Dolores Agirre. Eta horrengana jo nuen.

—Pozik al zaude?

—Bai, horixe. Irakasbidea, gai horietan ez naiz oso trebea baina, txit egokia iruditzen zait. Zenbait adizki erakutsi, eta berehala hitz

---

«Berriketan», *Egan* 1956, 1-5; *MIH* 147.-152. or.; *MEIG* I, 69.-74. or. [«Adiskide berri»-k sinatua].

eragin ikasleari. Giroa ere halakoa da, gero. Denak laguntzen baitu; irakasleak, hizkuntzak, lagunarteak. Irakasleak, batez ere. Bere hizkuntza eta herria hain maite dituelarik, ez dio maitasun horrek go-
2 goa mehartu batere. Eta hartu duen lanaren astuna! Bi edo hiru ikastaldi egunean, dakienak daki zer den. Ez zaizkio ahalegin horiek behar adina eskertzen.

—Neke izan al duzu euskaraz ikastea?

—Esan zidan hasi berrian adiskide batek: «Alferrik habil: ez duk ezer aurreratuko». Bai, zera. Ez da, hasiz gero, gauza pizgarriagorik. Izan ere, hain da bestelakoa euskara. Bai baitirudi mintzabide hori gureganatzeko burua ere aldatu beharrean izango garela. Pizgarria ez ezik, ez dut jolas hoberik aurkitu. Zinean naizenean, begira egotea beste zereginik gabe, ez didate laneko arazoek bakean uzten. Euskal ikastolan, ordea, galderei erantzun behar. Ez da han iraungo duen buruhausterik.

—...

—Euskal itzulpenak egiten nituen etxean hasieran. Orain irakurri. Gimnasi antzeko ariketa, baina ez nere lanbidean egin behar dudana bezalakoa. Nekea baino atsedena gehiago da neretzat.

—Zein hizkera ikasi duzu?

—Gipuzkoakoa. Gogoz entzuten ditut horratik sermoiak Bizkaikoan, Busturian naizenetan. Emaztea nerekin joaten da eskolara eta, zerbait galdetzen badiote, Bizkaiko formak erabiltzen ditu. Horrelaxe ari zait zerbait itsasten, poliki-poliki.

—Nola moldatzen zara euskaldunekin?

—Lehenbiziko aldiz euskaraz mintzatu ginenean testamentu bat egiteko, lasai hasi nintzen, baina egingo nuke ez neukala kalentura txarra bukatzerako. Orain hobetoxe moldatzen naiz.

—Euskal irakurgaiak?

—Doloresen eskuliburua aurrenik: *Garoa.* Behin eta berriro irakurria dut, gogoz baino gogozago. Ederra da benetan: badu halako bere gisako bihotz-ixuri xamurra. *Platero eta biok* ere bai, erdal liburuaz baliatzen naizelarik, hori bai. Góngora irakurtzea bezalaxe zen hasieran, hieroglifiko edo hitz-nahastuei antzematen ari denaren jolasa. Hobeto barrentzen dut orain: kapitulu bakoitzak ordu erdia edo eramaten dit, halaz ere. Zaila da neretzat, euskara ere osotua, alde askotakoez nahasia baitu. Oso atsegin zait. Ederki itzulia dago, hitzez hitz ia. Behin edo beste, bai, uzten du hitzen bat itzuli gabe, ezinbestean. Baina lan izugarria eta trebea egin du hor Ametzaga jaunak.

—Euskarari iraunarazteko saiatu behar ote litzateke?

—Behar-beharrezkoa deritzat, eginbehar estua. Badakit badirela zenbait ez-euskaldun horrelakorik aditu nahi ez dutenak. Itsuturik dabiltza. Ez ditugu harrizko monumentuak bakarrik gorde behar, Burgosko katedrala, Altamirako leize-zuloak eta antzekoak. Euskarak ez du parerik Espainian, ezta Europa guztian ere beharbada. Hori da euskaldunen ondasuna, euskaldunen arima. Hori dute bere-berezko mintzabidea, zenbaiten ahotan trakets eta itxuragabe agertzen bada ere.

—Gipuzkoan dauden eskribauek ikasi behar ote lukete euskaraz?

—Behar bai, baina ez da erraz, legez behartzerik ez baitago. 3
Lehen ez ziren eskribauak herri batetik bestera ibiltzen. Eta herri batean luzaroan egon behar zuena saiatzen zen bertako hizkuntza ikasten. Ezagutu ditut euskaraz ederki baino ederkiago zekitenak: D. Aurelio Ortiz eta D. Amalio de Arri, santandertarrak biak. Lehenbizikoa Bilbon bizi da orain, erretiroarekin. Txunditurik utzi ninduen lehen aldiz ikusi nuenean: hura zen euskaraz egitea! Nolanahi ere, euskaraz ikasteko gogoa indartu egin behar genuke eskribauengan, eta gogo horri lagundu alde guztietatik. Gogorra baita eri larri baten ohe ondoan gaudenean haren hizkuntzan mintzatzeko gauza ez izatea.

—Zer irizten die jendeak eskribauei?

—Beti beren artean ezagutu zutelako edo, begiramen gaitza zioten eskribauari, apaiz eta fraideei bezalakoa. Badakit, bai, maiz agertzen dela Espainiako literaturan eskribauenganako ezinikusia. Gogoan daukat inoiz irakurri nuen liburuxka. Honela zuen azkena: «Esaidak orain, eskribaua, zer egin behar duan arima salbatzeko. Zer egin behar duan? Eskribautza utzi». Esanak dira, ordea. Gure aurrekoei zieten begiramenaz mantentzen gara oraingoak. Errespetua bizi da oraindik baserrietan, baina ez kalean.

—Testamentu-kontuan zer ohitura dago gure artean?

—Etxejaunaren ametsa baserria osorik uztea izaten da, seme edo alaba zaharrenarentzat, primuarentzat. Hori bai, emazteak bizi deino ondasunen gozamena duelarik, eta gainerako seme-alabei zerbait —ez gehiegi— ematen zaielarik. Horrela behar nahitaez, baserriak iraungo badu. Horrela izan ere da lege zaharreko izpiritua bizirik zegoeino: seniparteak urriak izaten ziren. Baina gero... Bizkai aldean ondoren onak izaten ditu ordeko bidez egindako testamentuak.

—Eta ezkontzerakoan?

—Aita-semeak elkarturik egotea nahi du baserritarrak, eta galduan geldituko ez direlako segurantziak ematen zaizkie ondorengoei. Famili elkartasuna egiten zen, aita-semeek elkar harturik baserria batera lantzeko. Nahi izanez gero, ez zuten beren arteko konponketa egin besterik, nork berea jasoaz ala semeak gurasoei dirua emanaz. Orain maiz aski jabetza hutsa, *nuda proprietas,* semearentzat gelditzen da; gozamena, berriz, gurasoentzat.

—Jo dezagun bestetara. Valentziera katalan hizkera al da?

—Ez; ez dira zuhaitz baten adarrak baizik. Proventzera zen orduko literatur hizkuntza zabaldua. Gure S. Bizente Ferrer bere hizkuntzan mintzatzen zen bai Valentzian bai Katalunian, bai Frantzi aldean, bai Mairuerrian. Nonahi ulertzen zuten, dirudienez.

—Valentziar literatura?

—Ugaria da, bai zaharra eta bai berria. Hainbeste izen dira!
4 Martorellen *Tirant lo Blanch,* Ausias March, oraingoetan Joan Fuster... Ez dugu agian behar bezala erakutsi kanpoan geure burua. Etxean, bai. Hor daude «Lo Rat Penat» elkartasuna, urteroko «Jocs Florals» direlakoak, liburuak, batez ere liburuzaleentzako edizioak. Idazlan berriak arinak dira gehienbat, sainete gisakoak. Sermoiak, beti valentzieraz, udaldian zenbait herritan izan ezik, eta hori arrotzei zor zaien begiramenagatik. Valentzian bertan, gizartean, gehiago egiten da gazteleraz; ez, ordea, etxean. Eta barregarrikeriaren bat esan behar denean, jakina, valentzieraz behar, inork barre egingo badu.

—Blasco Ibañez?

—Egin zuen gauzarik onena, neretzat, valentzierazko ipuinak. Gutxik dakite egin zituenik. Nere aitak ez zuen oso gogoko, politika zela bide. Berriz herrira zenean, erbestean egon ondoren, gazteleraz hasi zuen hitzaldia. Aurki entzun zuen jendearen deiadarra: «Que parle en valenciá!».

—Ze gizon-modu dugu valentziarra?

—Bere bereztasunaren berri ongi dakiena. Herri gaztea, begiak argi dituena, kolorezalea, bizi-nahia, alaia, ez dotore horietakoa, zarpailxkoa aukeran. García Sanchizek ongi agertzen du zer den valentziarra, onean eta ez hain onean.

—Valentzia euskal hitza al da?

—Ez, gizona. Ez al dakizu horixe zela Erromaren izen ezkutua? Izan ere, hori nahi luke izan Valentziak: Erroma txikia.

—Zer deritzazu euskal elkartasunak egiten ari diren lanari?

—Begiko dut Mintegi honena. Maiz izan naiz goiko liburutegian hileroko euskal hitzaldietan. Asko lagundu didate. Gogoan daukat, gainera, Lacarra jaunarena, begiak zabaldu baitzizkidan gai askori buruz. Ayuntamentuko euskal eskolaz mintzatu naiz lehen: aipatu ditut hango ikasleen arteko anaitasuna eta irakaslearen lan harrigarria.

—Zer iruditzen zaizu *Egan?*

—Harpideduna naiz, eta zain egoten natzaio. Nere euskal jakite laburraren neurriko irakurgai asko aurkitzen ditut. Nik baino hobeto uler ditzake, noski, eskola handirik gabeko euskaldunak. Euskaldun asko baita, hizketan jakinik, euskal irakurgai errazik ere irakurtzen ez duenik.

—Zer egin genezake hobetzeko?

—Ez dakit, ba... Herriaren artean gehiago zabal dadin, herrikanta ugariago argitaratzea edo, sail berriak sortzea edo... Eske bat egingo nieke idazleei, irakurle naizen aldetik: saia daitezela, pixkaren bat makurtu behar badute ere, diotena ahalik gehienen irispidean ipintzen.

Barkatuko ahal dit orain Castells jaunak ixtant baterako luma eta tintontzia hartzen badizkiot. «Fede emateko» behar ditut, Mogel lotsagabe xamarrak «paperak baltzituteko» esango bazukeen ere. Lekuko bezala, hauxe adierazi nahi dut, euskaldun guztiak jabetu daitezen: ederki egiten duela euskaraz Castells jaunak. Irakasle ona izan du, dudarik gabe, baina ikaslea bera ere ez da lotan egon. Eta damu dut bihotzetik aitormen honen azpian, izenaren ondoan, beste zertxobait ezin ipini ahal izatea. Zirriborro luze, bihurri, dotore horietako bat esan nahi nuke. Baina lerro-mataza ugari horien sorgin-ezkutua ez dago nornahiren mendean, eskribauenean baizik. Horrela erabaki zuen Jainkoak.

7

SANTIAGO CARREROK ESAN DIGU

Eguberrizaleak gara, baina zaletasuna eta jakitea, maiz gertatzen dena, ez dabiltza elkarrekin. Gure ezjakina, horratik, ez zen Sokratesenaren parekoa. Gauzatxo bat bagenekien: norengana jo, argi eske. Gertu askoan geneukan Santiago Carrero jauna, Madril eta Donostiako Jaiotzen aldeko elkartasunen sortzaileetakoa, Tolosan jaio eta Donostian bizi dena. 1

—Noiz hasten dira Jesusen Jaiotzaren irudiak?

—Lehenbizikoak, agidanean, Erromakoak dira, Priscilaren katakunbetakoak. Kristau-artistek, sinboloak utzi eta gertaerak hartu zituztenez gero gaitzat, Eguberri-Epifaniak izan dituzte ezer baino begikoago. Hurrengo aldietan nonahi aurkitzen ditugu horrelako irudiak: zilarginen lanetan, meza- eta ordu-liburuetan. Esan daiteke, batere gezurrik gabe, irudi horien katea ez dela eten hasi IV. mendetik eta gaurdaino. Naximentuak elizetan egiten ziren teatro-jaietatik sortuak omen dira, zenbaitzuren ustez. Aita Santu batek, Inozentzio III.ak, debekatu zituen jaialdi horiek, zomorro-festa bihurtu zirelako edo. Eta Aita Santu horrek berberak eman zion baimena San Frantziskori honen asmo ederra betetzeko. San Frantziskori bururatu baitzitzaion egiazko jaiotza antolatzea: aska ipini zuen leize-zulo batean, idia eta astoa inguruan zituelarik, eta aldarea askaren gainean. Aldare gainean eman zen meza gauerdian. Harrezkero, Frantziskotarren gisara egiten ziren Belengo portalearen irudiak, Pizkunde aldira arte behintzat. Garai honetan, askatasuna nagusi, nork bere gogora irudiratu zituen Eguberritako gertariak.

«Berriketan», *Egan* 1956, 1-5; *MEIG* I, 75.-80. or. [«Adiskide berri»-k sinatua].

2 —Baina noiztikakoak dira oraingoen antzeko naximentuak?

—Naximentu jatorretan zaharrena, dakidanez, Napolesko bat da, 1478koa. XVI. mendekoak osoak dira, zurezko irudi harrigarriz hornituak. Irudiak ugaritzen doaz XVII. mendean barrena, baina jaiotzak ez dira gailurreraino XVIII. mendera arte heltzen. Errege bera izan zuten eragile, gero Espainiako Karlos III.a izango zena, bere adiskide Aita Rocco dominikoa zuela lagun. Erregeren ondotik, Napolesko handizkiak eta herria hasi ziren elkarren lehian naximentuak antolatzen. Hain zuzen ere, Urre-aro delako harekin zebiltzan ametsetan ordukoak, baso-mendi eta artzain txistulariekin. Nola ez zituen gogoko izango jende horrek Belengo estalpea eta artzainak?

—Eta Italiatik kanpora?

—Espainiak jakin izan du batzuetan gai arrotzak bereganatzen eta bere gisara itzultzen: horixe gertatu zen Napolesko «aska»-rekin, Katalunian batez ere. Gero, joan den mendearen erdialdera, jaiotzak zeharo zarpildu ziren, zuten jainkozko kutsua galdurik. 1863an sortu zuen ohitura zaharren aldeko katalan talde batek jaiotzazaleen lehenbiziko elkartasuna: ez zuten halere askorik aurreratu. Oraingoa, 1921ean sortua da, eta asko zor diote jaiotzek Espainian. Holako elkartasunak badira orain nonahi, herri larri eta koxkorretan. Badira halaz ere zenbait ergel, umekeriak besterik ez direla eta ari direnak.

—Naximentu zahar herrikoiak gorde behar al genituzke?

—Noski, ba. Kortxo eta oroldiozko naximentua, irudi merkez jantzia, edozeinek antola dezake. Etxe bakoitzean behar litzateke horrelako bat. Bihotzak trebetzen ditu eskuak eta ez da bihotza bezalako artistarik. Eta gure Gipuzkoako ohitura begiragarria gorde behar genuke batik bat: haurrek, artzain-jantzian eta kantari, etxerik etxe daramatzaten jaiotzak.

—Horretara jo nahi genuen. Zer deritzozu, Euskal Herriari buruz?

—Bizirik dago oraindik gure artean, erdalkeriak zerbait kutsatu bagaitu ere, Jesusen Jaiotza kristaukiro ospatzeko ohitura. Benetako jaiotzazaleak ziren Donostian, esate baterako, Mons. Irazusta eta Toribio Altzaga. Ezagutu nuen, San Juan kaleko etxean, honek jartzen zuen jaiotza: irudiak oso ugariak ziren eta handiak gainera. Berebiziko entzutea zuen Aita Jesuitenak: ez zuten berrogei urtez batere aldatu. Nork esan neri orduan, liluraturik begira nengoenean, neronek antolatu behar nuenik beste gisako bat haren ordez?

Ez nik uste hoberik asma zitekeenik! Gogoan ere daukat Tolosako frantziskotarrek haur nintzela ipintzen zuten jaiotza: artzainak eta artzain-andreak hemengoak ziren, euskaldun itxurakoak. Orain bi urte gertatu nintzen berriz han, Eguberrietan, eta nere nahigabea! 3
Gure artzainen lekuan, Oloten egindako judu antzeko artzainak ageri... Beste haurtzaroko oroitzapen hau ere Tolosakoa da. Mixerikordi zaharrean, Errege egunez, txistu eta guzti joaten ziren haurrak arratsaldeko elizkizunetara, txorien antzera txorrotxioka aritzeko, eta haurrak ziren, errege-jantzi dotorez apainduak, aldarera aurreratzen zirenak Jesus jaioberria gurtzera. Bizi ote da oraindik ohitura hau?

—Eguberri kantak?

—Han ikasi nituen euskara argi eta garbizko gabon-kanta ederrak ez zaizkit berehalakoan ahaztuko. Urtero egiten dut bat neronek: musika Enrike Perez Egea adiskideak jartzen die. Hauxe duzue aurtengoa:

Aingeru txistularia

Zeruko urdiñak iriki dira...
Ate-txokoan, aingerutxo bat
Ari da txistu ta danbolin jotzen
Jesusen jaiotza iragarriaz.
Mendiko artzaiak esnatu dira;
Alderatu dira Belenera.
Portaltxo batean arki dituzte
San Jose, Jesus ta Ama Birjiña.
Ago ixillikan, Mikel, ixillik,
Zeru ederreko aingerutxoa!
Aurra ez dezala esnatu, ez ba,
Ire txistu-danbolin soñuak.
Ik eztakik, eta nik bai, bazekit
Gure Manueltxo laztanari
Zeñen eder zaion Euskalerriko
Txistu-soñua eta danbolin.
Ara nola iriki ditun begiak,
Ara zer par polit egiten dun;
Pozez bete zaio biotz santua
Entzunaz txistu eta ttunttun.
Nola egon, ba, danboliñik gabe?
Poztu zaitezte kristau jendeak,
Gau eder ontan jaio baitzaigu
Manueltxo, Zeruko Erregetxoa.

—Gelditzen al da Donostian jaiotz irudi zahar ederrik?

4 —Badira zenbait: museo ttiki bat egiten hasteko lain, bai. Marianistek badituzte bi, andre handizki batek emanak: Karlos III.aren semearen jaiotzatik datoz. Toribio Altzagak bazituen, berak esanda dakit, bi edo hiru etxe, atso xahar batek «31 de Agosto» kalean, Donostia erre baino lehen, egiten zuen naximentukoak. Lastagarairen andreak urtero ipintzen du bere jaiotzan Joxe Mari Usandizaga musikoak egindako «Herodesen gaztelua». Hor-hemen dabiltza sakabanaturik zenbait irudi miragarri Mons. Irazustaren naximentukoak, Napoleskoak batzuk eta besteak Uribesalgok eginak.

—Jaiotzak garai eta herrialde hartako modura egin behar al lirateke?

—Ez. Nere ustez, jaiotzak gurea behar du izan, oraingoa. Kristau-misterioak ez dira gure gogoan bakarrik bizi; aurrean dauzkagu beti. Eliz urtearen barruan, Kristo urtero jaiotzen da, urtero gurutziltzatzen dute, urtero piztutzen da: Jainko denez, ezin dezake denborak muga. Urtero adoratu nahi genuke Gabon-gauean, artzainek inoiz aska gainean adoratu zuten bezalaxe, eta adora dezakegu, aurrean baitaukagu, ezkutaturik bada ere, Aldareko Sakramentu Santuan. Aldi eta alde orotako kristauek beren lurrean eta beren denboran berritu nahi izan dute Jesusen jaiotza: lekuko dira jaiotz irudi guztiak. Eta aurten, Donostiako Aurrezki Kutxarentzat egiten ari naizen naximentuan, mamitu nahi dut nere aspaldiko gogoa: Jesus Haurrari Euskal Herriak eskaintzen dion gorazarrea izango da. Buztinez eginarazi ditut, irudi bakoitza 18 bat zentimetroko, Ansorenaren txistulariak eta Korputz-egunean Jaunaren aurrean dantza egiten duten ezpatadantzariak: hauek auzpez, lehenengo dantzaldian. Gero, nekazariak, arrantzaleak, langileak eta haurrak, begira edo belauniko. Etxarte batean daude; atzealdean, gorapea ageri da, eta gorapeko leihoetan barrena Euskal Herriko lurra.

—Zer iruditzen zaizu *Egan?*

—Ezin hobea iruditzen zait Mintegi hori egiten ari den lana, Gipuzkoako Diputazioari eskerrak. Aldizkari honetan nolanahiko gaiak erabiltzean, euskara hegoairatu egiten da, etxe-zokotik atera, hor egoteak lizundu eta herdoildu egingo bailuke nahi eta ez. Erdaratik sartu diren hitzak, luzaroko ohiturak guretu dituenak, erabat onetsi behar liratekeela deritzot, horien ordez hitz berriak asmatzen ari gabe. Hori bai, orain baino gehiago saiatu behar genuke hitz zahar jatorrak gordetzen eta zabaltzen. Min ematen dit neri behin-

tzat euskaldunen ahotan maiz asko entzuten diren zenbait mordoilokeria entzuteak.

—Zer egin genezake aldizkari hau hobetzeko?

—Galdera bihurria bada ere, ausartuko naiz erantzuten. Premiazkoa iruditzen zait euskal irakurgaien ezaguera zabaltzea. Ez litzateke horretarako txarra izango edozeinek uler lezakeen hizkera erabiltzea. Asko gara, izan ere, euskaraz dakigunak haurtzaroan irakatsi zigutelako, baina gai horretan beste eskolarik ez dugunak. Horrelakoentzat beste sail bat sor liteke: elkarrizketa moduan egina, gai ugari eta oraingoak ukitzen direla. Irakurtzen jende asko zaletu eta trebetuko litzatekeela deritzot.

Eskerrik asko, Carrero jauna. Ez gara gu umekeriei, edo umekeria diruditenei, barre egingo dietenetakoak. Urteak joan eta urteak etorri, gauza asko bil ditzakegu: aberastasunak, jakitea, ezaguerak... Asko preziatzen baditugu ere, zer dira ondasun horiek haurtzaroko zenbait oroitzapenen ondoan? Eta haurtzaroko oroitzapenik bizienak eta gozoenak Eguberri-jaiei itsatsiak daude. Biziak are gehiago elkortuko bagintu, ez geundeke zeharo hilik, barne-muin hori heze duguino. Horrek piztuko gintuzke, Dickensen «Christmas Carol» ederrean —«Luzear»-ek euskaraz eman zigun hartan— Scrooge agure zekena Gabon-iratxoek piztutzen duten bezala.

8

ETXEKOEKIN HIZKETAN

Eguraldiak ez du aitzakiarik. Haize epelak badu halako uda- 3
berri-susmo goiztar bat. Ez dago kale-giro txarra. Eta horixe egin behar genuke: geure lanabesak —galderak— har, gizaseme zintzo langileek beren tresnak —batak paperez jositako kartera lodia eta besteak pistola— hartzen dituzten bezala, eta kalera. Han, pixkaren bat lehiatuz gero, aurkituko genuke nori galdegin. Galdera asko eta askotarikoak: iritziak, usteak, gogoak eta asmoak. Uzta ederra bil genezake luzaro gabe.

Kanpoko eta barrengo giroa, ordea, ez dabiltza beti batera. Beharrak bulkatzen, baina nagiak iltzatzen. Ez ote dago biderik, behar gorriaren ihesi, nagi goxoari amore emateko? Alferra beti lantsu, esan ohi da, eta lantsu bezain burutsu erantsi behar.

Ibilaldi luze-jakingarriak egin izan ditu nork bere gelan barrena. Are gehiago. Ez dakigu «Lady from Shanghai» ikusi edo irakurri duzuen. Baiezkoan, badakizue Bannister letraduak Bannister lekukoarekin izan zuen hizketaldi biziaren berri: «Zu, Bannister jauna, non zinen holako egunetan?». «Egia esan, Bannister jauna, ez nuen etxetik alde egin...».

Gizon langileak bi lagun gutxienez behar direla uste hizketarako, baina ez nagiak. Gauden, bada, goxo-goxo etxe-zokoan inoren bila abiatu gabe; galde diezaiogun geure buruari eta geure buruari erantzun.

—Pozik al zaudete *Egan*-ekin? 4

«Berriketan», *Egan* 1957, 3-8; *MIH* 167.-169. or.; *MEIG* I, 81.-87. or.; *EN* 211.-217. or.; *GA* 179.-184. or. [«Adiskide berri»-k sinatua].

—Horra, bada... horrenbestean. Gutxiren gose dena, gutxik asetzen omen du. Ez ginen hasi inongo enperadore (kaisar, garbizalea bazaitugu), errege, ezta buruzagi ere izatekotan. Maiteago dugu lagunartea basamortuko bakartasuna baino. Ba ote da geure burua adiskide minez inguraturik ikustea bezain gauza ederrik? Gainera, gure ustez, edozein belar-pila ez da meta, ez eta han-hemendikako idazlan sorta ere aldizkaria. Horrenbestean esan beharko, beraz. Begiz jo genuen sailean ari gara behintzat eta, gurasoak garelako edo, *Egan*-i halako aldizkari-taxu apurren bat aurkitzen diogu.

—Izan duen harreraz, zer diozue?

—Ez dela txarra izan. Erostunak baditu behinik behin, eta irakurleak izango ahal ditu. Goramenak entzun eta irakurri ditugu maiz aski: «Goi-gorengo aldizkaria, goi-mailakoa, bikaina, mardula, gaurkoa, eragikorra...» ahal dakigu guk. Bai, galdegile maitea, «pinpirina» ere deitu diote. Erakutsiko genizkizuke zenbait, gure hitza aski ez bazenu. Harrotzeko ere bada, eta harrotuko ginatekeen, ez bageneki gure arteko goramen-laudorioak, euskal sail honetakoak alegia, Minas del Rifeko papera baino beherago daudela.

—Eta makurrik ez al dio inork aurkitu?

—Baita ere. Gutxiagotan entzun ditugu, horratik, belarriak minberatu nahi ez zizkigutelako, noski. Kritika zorrotzegiak agertu izan ditugula, batik bat. Gogorregi ari izan garela, eta guretarren kontra. Ba omen dirudi idazleak, bulartu beharrean, atzerarazi nahi genituzkeela gogoa galaraziz.

—Horrela ote da?

—Begira; gure ustez, beharrezkoa da kritika edozein herri ongi gobernatutan, harako Cervantesek aipatzen zuen lanbide hura bezala. Eta intsentsu-ontziari eragitea ez da kritika. Egia zor du kritikoak, hots, gogoan bata eta ahoan bestea duela ez ibiltzea. Huts egin dezakeela? Noski, ba. Hutsik egin nahi ez duenak hobe du beste lanbide bati ekin. Kritikorik sonatuenek maiz egin izan dute kolpe huts, obrarik bikainenak txarretsiz eta txepelenak goraipatuz. Ez da, bada, miresteko *Egan*-eko kritiko kaxkarren batek beste horrenbeste egitea.

—Zorrotza behar kritikak, hortaz?

—Ez zorrotza ez biguna: zuzena eta berdina. Ustez eta gogoz, zuzena eta berdina. Kritiko gogorregiak bekatu egiten baldin badu zuzenbidearen kontra, ez gutxiago bigunegiak. Ahoa betean eralgitzen baditugu goresmenak, zer geldituko zaigu egiazki goragarri den idazlan batezko iritzia azaldu behar dugunerako? Zer esan

behar dugu orduan? «Goi-gorengo irakurgaia, berebizikoa, aparta, txanbelina»? Zer balio dute hitzetik hortzera barreiatzen ari garen hutsaren hurrengo hitz merke horiek?

—Ba al duzue idazlanik aski?

—Orain arte, Jainkoari eskerrak, argitara ahal baino gehiago.

—Nolakoak nahi zenituzkete?

—Gai batzuentzat sail bereziak ditugu, dakizunez. Sail horiek batek edo besteak bete ohi baditu ere, irekiak daude edozeinentzat, lehen eta orain. Sail jakin horietatik kanpora, zenbait gai ezin uki ditzake *Egan*-ek, dena delako. Uki ditzakeenetan, eta ez dira gutxi, zer nahi ez dugun esango dizugu aurrenik. Ez gaituzte betetzen nork bere atseginerako, nork bere eskua trebetzeko, egiten dituen lanak. Idazlea besterekin ari dela, irakurlearekin alegia, gogora dadin nahi genuke, ez bere buruarekin. Euskal irakurleak erdaraz irakurtzen du, denon gisara, eta ez dago euskaraz berresan beharrik erdaraz hobeto behin eta berriro esan diren gauzak, irakurleari zenbait jakingarri ez badakarkiote.

—Zer deritzezue gure artean gehienbat erabili izan diren gaiei?

—Igerri dizugu, gutxi gorabehera. Arkume otxan, baserri txuri, lore txanbelin eta errekatxo marmartiez ari zara zu. Ba, horretatik ahalik gutxien. Politak dira, izan ere, baina, esku gehiegik marruskatu dituelako edo, zimelduxeak daude. Betetasunak higuinarazi digu goxoa eta beldur gara ez ote zaien beste hainbeste gertatzen irakurleei. Eta, ahal baledi, ez dugu «Mendiko negarrik» ere behar.

—Zer da hori?

—Mendi, harkaitz, baso eta errekatxoen laguntzarekin euskarari hil baino lehen egiten ari gatzaizkion hiletak.

—Gure hizkuntzaren egoera larriak ez zaituzte nahigabetzen ala?

—Nahigabetzen gaituen ala ez, Jainkoak daki, eta gure eginek erakutsiko dute gure hitzek baino garbiroago. Gurasoek erakutsi zigutenez, marrurik ozenenak ez dira beti saminenak. Hori bai, euskara zertan den inork aztertu nahi badu gure artean, dituen gaitzak eta sendabideak gizonki azaltzen baditu, gogoz eta arretaz entzungo diogu beti.

—Baina oraindik jakiteko nago zer nahi duzuen.

—Zer nahi dugun? Gaiak, gaurkoak eta betikoak, hemengoak eta nonahikoak. Mundua itxuraldatzen ari zaigu, onerako edo txarrerako, Euskal Herria ere bai. Urte gutxitan ikusi ditugu, baita ikusiko ere, lehen mende luzeek ikusi ez zituzten bezalako aldaketak.

Mundu urduri eta aldakor horretan aurkitu behar dugu bizilekua, biziko bagara. Ez ote dago aukera ederra?

—Eta nola erabili behar liratekeela uste duzue gai horiek?

—Nola? Nork bere erara, modura eta moldera; barrenak eskatzen dion bezala. Horretarako jaio denari ez dio inork erakutsiko berari eta gaiari dagokion mintzabidea. Berberak aurkitu behar du hori. Gero, idazleak baditu eskubideak, nork uka; eginbeharrak ere bai, ordea. Oiloa eta arraultzarekiko auzi hura bezalatsu da, ez baita idazlerik irakurlerik gabe; ezta irakurlerik ere inork irakurgairik eskaintzen ez badio. Halaz guztiz ere, irakurlea da nagusi, inor izatekotan, eta idazlea zerbitzari. 6

—Zer begiramen zor dio, bada, idazleak irakurleari?

—Lehenengoa, ahalik argien egitea. Eta argitasun horrek, gure artean behintzat, bi gauzatan agertu behar du. Hizkuntzan aurrenik. Hiztegi batetik —Azkuerenetik, esaterako— hitz zahar, zokoratu eta bakanenak bildu eta parrastaka ereitea, gauza atsegina izan daiteke, ez horratik irakurlearentzat. Irakurlea harrituko dugulakoan bagabiltza ere, ez dugu aspertu besterik egiten. «Ulerretan eztan itza prestu ez», zioten Iruñeko Esaerek. Eta horixe da idazleak irakurleari dion lehen zorra. Hizkeraz kanpora ere, zenbat eta argiroago mintzatu, hobe. Eta laburkiro bada, areago. Gracianen hura badakizu: «Lo bueno, si breve, dos veces bueno». Eta hala-holakoa denean, ehun bider gutxienez. Eta zer esan erdipurdikoen mailara ere heltzen ez denean?

—Aukeran, beraz, nahiago dituzue artikulu laburrak?

—Hori esan. Laburrak eta arinak. Urrea zenbat eta astunago baliotsuago, baina ez ditugu urre gorrizko irakurgaiak egunero sortzen... Eta egileak, labur eta arin mintzatzeaz gainera, umore ttantto bat ixur baleza, hainbat hobeto.

—Umorezaleak izaki zuek.

—Bai, adiskidea. Hori irakatsi ziguten etxean eta ez genuke aldatu nahi. Greziako filosofoekin jardun urria izan dugu, eskola ere urria eman baitziguten. Nolanahi ere, entzuna dugu nonbait bazela haietarik bat beti negarrez ari zena, bestea berriz beti barrez. Izendatuko genizkizuke, baina atzekoz aurrera emango dizkizugu seguru aski, eta hobe dugu ixildu lotsagarri gelditu baino lehenago. Bata eta bestea nekagarri xamarrak bide ziren, baina, ezinbestean, barregilea hartuko genuke lagun. Aukera duguino, ordea, algara baino nahiago dugu irribarrea. Hori bihotzik nahigabetuenari ere ez zaio ukatzen.

—Hizkuntzarekiko eztabaida gogorrak omen dabiltza. Ba al duzue zer ikusirik horretan?

—Nahi eta ez, gaur euskaraz ari denak etxean baitu gerra, emazte ederraren jabeak bezala. Gu erdialdeko epel horietakoak gaituzu, besterik baino gehiago, eta halare ez dugu erraz jendea pozik edukitzen. Behin, bihotzeko harpidedun batek bidali zigun halako hitz-andana luze eta beldurgarria, idazpuru honexekin: «Euskera gaxoa aberastu ta jantzitzeko, *Egan*-ek Euskaltzaindiari eskeintzen dion itz-errezkada». Beste batean, berriz, sariketa baterako zela eta, hasi ginen jaiegunetako arropei alkanfor-usaina kendu beharrean ahalik apainen agertzeko. Eta *Herria*-ko adiskide maiteek honelakoxe oharrak ipini zizkioten gure saioari: «*Antzerkia* da ez "antzara-jakia", bainan teatro puska bat, hots komedia; *ekitaldia* ez da "iguzki-kolpea", bainan oihala biltzetik oihala hedatzera irauten duen teatro-zatia...; *zuzenbidea* ez da ongia edo morala, bainan "adreza"». Aita-semeak eta astoarena gertatzen zitzaigun guri ere. Ez 7
gara, ordea, gehiegi larritu. Ez diogu inori entzungor egiten, baina jaramon gehiegirik ere ezin egin ingurukoei, hartu genuen bidean eta ibileran ibiliko baldin bagara.

—Eta zein bide eta ibilera dituzue horiek?

—Lege zaharrekoak. Askozaz hobeki egiten omen dugu gaurkoek antzinakoek baino, eta antzinakoak, badakizu, 1900etik beherako guztiak dira askorentzat. Beste guztiek horrela egitea badaiteke, baina guk, hemen gaudenok, ez. Haiek baino askozaz kaxkarragoak garelakoan gaude eta horrenbestez hobeengandik eginahalean ikastera behartuak. Maiz asko aipatzen digute euskarak aurrekoen ahoan eta lumetan hartu zuen igortzia, gantzua, arnasea eta lurrina. Ba, igortzi eta gainerako horiek nahiago ditugu bilatu dauden lekuan, gerok geure burutik sortu baino. Berez behar lurrin-ontzitarako jaioa.

—Zer diozue oraingo zenbait gazteren mordoilokeriaz? Kaltegarritzat al daukazue joera hori?

—Ez horrenbeste: gu sortzez mordoilo xamarrak garelako eta euskal prosaren erpin garaietara igotzeko gauza ez garelako edo. *Egan*-en behin Txillardegik zioena esango genuke guk ere: ez bata eta ez bestea. Halaz ere, uste dugu oraingo ezinegona eta gehiegikeriak osasungarri izan daitezkeela zenbait aldetatik, edo osasunbidean gaudelako ezaugarriak behinik behin. Gure jendeak, alegia, zerbait adierazi nahi du zuzen ala oker, garbi ala zikin. Eta izenari baino izanari lotuagoa ageri den mintzabehar horrek, barren-irakite

horrek, uzta joria sor dezake, dirudien bezala jatorra eta benetakoa baldin bada.

—Batasun bila al zabiltzate?

—Guk hala uste. Lehen esan dizugu, horratik, ez garela handinahi horietakoak. Oraingoz uste dugu nahikoa eta gehiegi egiten dugula bereizkuntzak gehi ez daitezen eginahalean saiatuz. Behin baino gehiagotan sartu baitira berrikeriak gure artean batasun horren izenean. Eta guk, hona garbi esan, ez dugu berrikeriarik behar. Hau da, axola duten gauzetan, ez hitzetan. Hauek hemen eta nonahi berritzen eta aldatzen ari baitira beti.

—Olerkiek ba ote dute behar adina leku *Egan*-en?

—Hori nahi dugu behintzat, gu bertso berriak egiteko gai ez bagara ere. Lizardi zenaren denboran bi patroi omen ziren: Jauregi patroia eta Txirrita patroia. Gerok Txirritarenean edo geldituak gaituzu, baina ez genioke inori biderik itxi nahi. Beraz gauzarik berrienak, ausartenak eta burgesarentzat aldrebesenak ere argitaratuko ditugu aurrera ere. Herri-bertsoak eta kanta zaharrak ez ditugu horratik utziko beren txokorik gabe.

—Bukatzeko. Orduan esan al dezakegu pozik zaudetela egin duzuen lanaz?

—Pozik? Bai, zera. Ez hurrik eman ere! Egin duguna ez duzu deus, egin nahi eta uste dugunaren ondoan. Abiatu garen bidetik
8 ibili nahi genuke, ordea. Halaz ere, inork bere iritziz eta burubidez lagundu nahi badigu bide horretan aurreratzeko, mila esker: ez ditugu bere esanak arretaz aztertu gabe utziko.

—Besterik?

—Bai. Eskerrak eman nahi genizkieke zure bidez *Egan*-en lankide guztiei, idazleei irakurleak ahaztu gabe. Horiek jaso baitute aldizkari hau, guk baino gehiago, gaur dagoen mailara. Eta horien behar gorrian gaude nahi duguneraino jasotzeko.

Entzun dituzu, irakurle, galde-erantzunak. Mutu eta ixilik eduki bazaitugu, ez zauzkagu ahazturik. Eserlekurik ederrena, juezarena, zuretzat gorde dugu. Eta azken hitza zurea da orain.

9

AITA PLAZIDO MUJIKAK ESAN DIGU

Nork ez daki gure artean Jesusen Lagundiko Aita Plazido Mujikaren berri? Nork ez du, batez ere, esku artean aspaldidanik darabilen lan gogorraren aditzerik? Beragana jo dugu, bada, jakin nahian eta eskua betean eman dizkigu eskatzen genizkion argitasunak. Orrialde hauetara hitzez hitz aldatzea besterik ez dugu egin. 127

—Behin eta berriro entzun ditugu antolatzen ari zaren erdaleuskal hiztegi horren berriak eta asko gara horrexen zain gaudenok. Esango al zeniguke zertan diren lanak?

—Bai! Halaxe da, eta norbaitek edo norbaitzuk zabalkunde ederra egin didate, nere hiztegi horri buruz hau eta hori eta bestea esanaz. Oraindik, ordea, amaigabeko hiztegi hau hain agudo ezagutarazi beharrik ez zegoen. Zabalkunde horregatik, nere lan hau bukatua eta agertzeko prest dagoela, eta argitaratu dela ere uste izan dute askok. Amerikatik behintzat lehengo udaran ale batzuk eskatu zizkidaten.

Hona, hitz gutxitan, zertan dagoen nere hiztegia. Irakurri ahala, esaera txanbelinak eta hitz ezezagunak kuadernoetan biltzeko ohitura izan dut aspaldidanik. Horretan hasi nintzela badira 33 urte. Orain-tsu arte, ordea, orain hamabi urte arte, ez nuen izan hiztegi bat egiteko asmorik, hitz eta esaera polit haiek buruz hobeto ikastekoa baizik. Hori dela eta, hitz eta esaera polit haiek non entzun edo irakurri nituen ez nuen ipintzen kuadernoetan. Hitz edo esaera bakoitza, ikasi arte, behin eta berriz idazten nuen... eta kito. Askotan gainera, 128 buruz ikasi ondoren, hautsi edo erre egiten nituen kuaderno haiek.

«Berriketan», *Egan* 1957, 127-133; *MEIG* I, 89.-98. or. [«Adiskide berri»-k sinatua].

Orain hamabi urte edo, jesulagun batzuek zirikatu ninduten, erdal-euskal hiztegi bat egin behar nuela esan eta esanaz. Egia esan, ez nuen nik orduan gogo handirik lan horretarako, astirik ez nuela eta horrelako aitzakiak emanaz... Halako batean, saio antzean bezala, Aszetikari dagokion hiztegia hasi nuen. *Perfección, obediencia, mortificación, contemplación,* e.a. euskaraz esateko batzuetan bost eta sei hitz asmatu eta aukeratu zirela ikustean, esan nuen nik nere kolkorako: honela oker goaz! Ideia baterako sei hitz berri nahi baditugu, ez dugu bat bakarrik ere herrian sartuko.

Bildu nuen hitz-mordo handia ikusita, nere lagunek, berriz ere eta lehen baino areago, zirikatu ninduten, hiztegi osoari ekiteko esanaz. Laguntza ere eskaini zidaten jesulagun haiek, beraiek bilduta zeuzkaten hitzak emanaz. Nere eginbehar nagusiak ordea bestelakoak ziren eta, nahi eta nahi ez, gaur hartu eta bihar utzi, artekamarteka hasi nintzen ahal nuen txolarte guzietan nere hiztegi handi horretarako gaiak biltzen. Ezer aurreratu gabeko tarteak batzuetan luzetxoak izan ziren, gainera: lau edo bost hilabete hiru aldiz, beste batean urte eta erdian ez nuen ezertxo ere egin.

—Zenbat hitzetakoa izango da gutxi gorabehera?

—Gutxi gorabehera ere, ez nuke esango zenbat hitz diren. Txartelak hirurehun milatik gora dira (askoz gorago gainera), baina, jakina, askotan hitz berbera zortzi edo hamar aldiz neukan bilduta txarteletan.

—Esango al zeniguke ea nola ari zaren hiztegi hori moldatzen?

—Hara. Zitak laburtzearren, aztertu ditudan liburuei, bakoitzari zenbaki bat ematen diet. Adibidez: *«vicios capitales* = grina nagusiak 91, 1285». Lehenengo 91 horrek Orixeren Meza-liburua adierazten du, eta hurrengo 1285 horrek orrialdea. Labur eta azkar idaztearren, oraingoz behintzat bide hori hartu dut. Aurkitu ahala, hitz guziak bildu ditut: ez ditut, ordea, guziak nere hiztegian sartuko.

Txartelak pila handietan neuzkan eta, geroko lana erraztu nahian, abedeari jarraituz zuzen ipini ondoren, paper handietara aldatu nituen hiru sailetan, hots, A-tik Z-raino hiru sail dauzkat, guztira hamar tomo lodi, eta orrialdetan berriz 15 milatik gora. Ez ahaztu, ordea! Eskuz aldatua dago eta, lehen esan bezala, hitz asko zortzi eta hamar aldiz ageri dira.

Zergatik ordea hiru sail berezi? Lehenengo saila osatu nuenean, besterik gabe hiztegia idatzi eta argitaratzeko asmoa izan nuen. Gero, ordea, euskarazko beste liburu eder batzuk eskuratu zizkida-

ten, eta bigarren saila hasi nuen... eta geroago hirugarrena era berean. Hiru aldiz izan dut, bada, bildu nituen hitzekin hiztegia osatzeko asmoa, eta nere asmo hau lagun batzuei esan nielako edo, zabaldu zen nonbait lehen aipatu dizudan surmurra: alegia, nere hiztegia egina eta agertzeko prest neukala. Orain da hirugarren al- 129
dia eta oraingo honetan, Jauna lagun, nahi eta nahi ez bota behar dut plazara nere morrosko hau.

—Zein euskalki hartu duzu oinarritzat hiztegirako?

—Euskalki guzietatik hartzen ditut hitzak, batez ere gipuzkeratik. Zehatzago esateko, gipuzkera osotua daukat begi aurrean. Arazo honetan, gipuzkoar ez ziren askok ere gipuzkera osotu hau aukeratu zuten gure literatura indarberritzeko. Iritzi horretaratzea bakarrik ere ez zen gutxi, eta nere ustez behintzat zerbait gehixeago ere lortu genuen bide horretan. *Orain berriz atzera egin eta beste bide bati ekitea ez zaigu komeni.* Beti aurrera-atzeraka ibili behar al dugu, bada? Gure euskara maitearen egoera larria ikusiaz gero, nork usteko du hori? Euskararen bizitza orain sendo eta tinkoa balitz, bide-aldatze horrek ez liguke hainbesteko beldurrik emango. Orain, ordea, daukagunari edo lortu dugunari behintzat *eutsi egin behar diogu*. «To be or not to be, that is the question», Shakespearek esandako hitz hauek euskarari buruz ere hartu ditzakegu. Azkenaldi honetan gure euskara gaixoari bizia zurrustaka dihoakio, nork uka hori?

—Zein idazle, gaurko edo denbora bateko, iruditzen zaizu gidaririk zuzenena hitz kontuan?

—Zalantzarik gabe, gure Orixe handia da nere ustez idazlerik onena, lehengo eta gaurko euskal idazle guzien gain. Hau hain argi eta garbi aitortzean, ordea, ez diet nik Orixeren hitz eta esaera guziei berdin txalo egiten. Eta euskal soroan lanean ari garenok orain arte baino gehiago irakurri behar genituzke idazle honen liburuak, hori baita, askoren eta nere ustez ere bai, gure idazle guzien artean txapeldun. Herri xehearentzat eta euskaraz gutxi irakurri dutenentzat ere, zerbait erraxago idatziko balu, askoz hobe nere iritziz.

—Hitz zahar erabiliak ere agertzen al dira zure hiztegian, erdaratikoak izan arren?

—Bai noski! Eztabaida honetan ez nuke ibili nahi ez ezkerretik ez eskubitik, erdian baizik. Baino, jakina, kale batean doanak, ezker-eskubiko espaloiak utzita autoen erdiko bidea hartzen badu ere, alde bateko edo besteko espaloira gehiago edo gutxiago hurreratu daiteke. Eta hitz-kontu honetan neri ere horrelako zerbait gertatuko zait noski, askoren ustez. Eskubikoek esango didate: «ezkerrera

gehiegitxo hurreratzen zara», eta eskubi aldera jo dudala, esango didate ezkerrekoek. Beraz, ezker-eskubitik sortuko zaizkit maiseatzaileak. Horretan nago eta guziei atsegin izatea, nere ustez, ezin daitekeen gauza da.

—Zer deritzazu gaur garbi eta mordoilozaleen artean piztu den eztabaidaz?

—Askok ez uste arren, euskarak (aspalditik, gero!) hitz asko hartu ditu bere inguruko hizkuntzetatik. Guztiak zapuztu nahi dituztenak oker dabiltza nere ustez. Hitz horietatik asko nahi eta nahiezkoak ditugu eta ezin ditzakegu zokoratu. Nahi eta nahiezkoak ez izan arren, erdaratiko beste hitz batzuk ere erabiltzea komeni den gauza izan daiteke. Beste hizkuntza guzietan gertatzen den bezala, gure euskara garbitu eta txukuntzeko eskubidea ez liguke inork ukatu behar; baina lan hori astiro egin behar da eta ez dena batean. Idazleek, gidari baitira, beti herriaren *aurretik* joan behar dute, baina ez urrutiegi. Urrutiegi aurreratzen bagara, herriak nazka hartuko digu eta ez digu jarraituko. Honetaz, bada, nahi eta nahiezko eta komeni diren hitzei ez diegu muzin egin behar.

Beste askotan gertatzen denez, ordea, premiarik gabe erdarazko hitzak (esate baterako, *bentania, kabailua* eta horien antzeko mordoilokeriak, herri batzuetan erabiliak izan arren) erabiltzea ez zait ondo iruditzen, eta horrelako hitzak nik bazterrean utziko ditut. Jaunari eskerrak, ez dugu horrelako hitzen beharrik.

—Ez ote dute arrazoi piskaren bat erdal hitzak, teknika-gaietan batez ere, lasai xamar hartu behar genituzkeela pentsatzen dutenek?

—Teknika-gaietan erdarazko hitzei atea orain arte baino gehiago zabaldu behar diegu, eta hori euskararen onerako. Gai horietan, bukaera zerbait aldatuz, gainerakoan berdintsuak dira hitz asko Europako hizkuntza landu eta aberatsenetan. Alemanez ere, hain aberatsa izanik, teknika-gaietan batez ere, milaka hitz hartu dituzte lateratik eta gerkeratik. Batzuetan halare alemanezko hitz jatorrak sortzen dituzte sail honetan ere. Guk ere horrelako zerbait, komeni zaigun neurrian, egin behar genuke.

Noiz hartuko edo sortuko ditugu, ordea, hitz berriak teknika-gaietan eta bestetan ere? Hona hemen nere iritzia:

a) Euskarazko hitz berria euskaldunek kanpoko hitza baino erraxago ulertzen dutenean. Adibidez, *alfitófago, antropófago, creófago, litófago, rizófago* e.a. esan beharrean, *garagarjale, giza-jale, haragi-jale, erro-jale*, e.a. esango genuke; eta

horrelatsu egin behar litzateke nere iritziz beste hitz askotan ere. Kaiku handienak ere ulertu ditzake euskarazko hitz horiek; kanpoko beste hitz «dotore» horiek erabiltzean, ordea, zer dioten ere ez dakite gehienek.

b) Herri xeheak hitz berria zeharo ez ulertu arren, gehiena behintzat edo ia guzia ulertzen badu, batez ere hitz berria herrian sartu bada, *eutsi egin behar diogu* horrelako hitzari. Lehen nioena: ez dugu ibili behar beti *aurrera-atzeraka* eta irabazi dugunari *eutsi egin behar diogu.* Adibidez, *teléfono* euskaraz *urrutizkin* esango nuke. Hitz hori zerbait sartu zitzaigun, herri xeheak gainera erraz ulertzen ditu hitz berri horren zati gehienak. Horrelako hitzei ez diegu ukatuko beren tokitxoa gure hiztegian.

c) Hitz berriak ordea herriarentzat oso zailak direnean, zokora botako ditut eta erdarazkoa hartu. Adibidez, *txauneskiña* (edo *txoneskiña)* esan beharrean, *organua* esango dut inongo lotsarik gabe.

Beste hizkuntzei, komeni zaien neurrian, hitz berriak sortzeko eskubidea ez diegu ukatzen; zer dela eta ukatu behar diogu eskubide hori gure euskarari? *Ferrocarril* esateko *burnibide* hitz berria asmatu zuenak, gaizki egin al zuen? Nork du arrazoi: burnibidea dioenak, ala *perrokarrila* edo *xemendeperra* esaten duenak? Jainkoaren izenean! Bota ditzagun zokora *perro* eta *perra* horiek, eta eutsi *burnibideari!* 131

Hitz berri guziak erabat zokoratu nahi lituzketen horiek zorrotzegiak izan ohi dira euskarazko hitz berriak aztertzean, eta bestelako neurria dute beti gure hitz berrientzat, beste hizkuntzetakoak erraz onartzen badituzte ere. *Berezibilla* entzutean, barrez zioen batek: «Zaldia ere berezibilla da, berez ibiltzen baita!». «Aizu —eta galdetu nion—. Zer esan nahi du erdarazko *automóvil* horrek? Berez mugitzen dela! Gizona ere berez (autoa baino berezago) mugitzen da eta ez diogu gizonari *automóvil* deitzen». Beste batek ez zuen ontzat hartu nahi *igoteko* hitza, *ascensor* adierazteko. Zer dela eta? Tresna hori *igoteko* eta *jeixteko* ere omen da. Bapo motel!!! Eta erdaraz zergatik esan dezakegu *ascensor (descensor* ere bada noski) eta euskaraz *igoteko* ez? Arrazoi hoberik ez balego, biak hartu behar lirateke dudarik gabe. Jaunak! Zergatik izan behar dugu beste hizkuntzetan baino zorrotzago, gure euskarari buruz? Honetaz gainera, *automóvil* hori, xinitrea edo manddoa delako, ez da gure berezibila bezain jato-

rra. Baina erdarazko hitz berri guziak, traketsenak izanda ere, ontzat hartu behar dira, dirudienez, eta euskaraz jatorrenak ere zokora bota!

—Erdal hitz bat itzultzeko euskarak aberastasun gehiegi duenean, nola uste duzu egin behar litzatekeela aukeramena literatur euskaran nahaste handiegirik izan ez dadin?

—Gehiegikeriak beti dira kaltegarri, eta horixe gertatzen zaigu hitz askotan. *Mariposa* euskaraz esateko hitz gehiegi ditugu: nik behintzat 140 edo bilduta badauzkat, askoren artean alde handirik ez badago ere. Nahi eta nahi ez, aukeratu egin behar dira batzuk: zabalduenak, ezagunenak, jatorrenak erabiliaz, eta hori euskararen onerako.

—Noizko bukatuko ote dituzu hiztegiaren presta-lanak?

—Gure baserritarrek egin ohi duten bezala, galdera horretan beste galdera baten bidez erantzungo nizuke. Hiztegi handia nahi al zenuke? Ala txikia? Har ezazu Espasaren tomo bat eta luze-zabalean horrelakoxe bat edo mila orrialdekin (hor nonbait) izango da nere hiztegia: erdal-euskal hiztegia.

Udara honetarako beste lan bat gaineratu ez balidate, datorren urrilean edo bukatuko nituzkeen presta-lan guziak eta honen ondoren hasiko nukeen idazlana. Atzerapide horregatik, bada, Eguberritan gutxi gorabehera hasiko dut lan hori. Ordurako behintzat garbi aldatuko ditut hirugarren saileko hitz guziak. Iazko aukera eta txolarteak gero ere izango banitu, bi urtetan bukatuko nuke idazlana. Baina, badakizu, menpean bizi garenok, lehenbizi eta aurren guri agindutako lana egin behar dugu; gero txolarteetan beste zerbait egiten saiatu behar.

—Erdal-euskal hiztegi baten premia handia al dago?

—Bai horixe! Eta Azkue zenari behin baino gehiagotan horixe berbera esan nion. Hark hiru aldiz ekin zion lan horri; eta bi-
132 garrenean eta hirugarrenean, lehen utzitako hitzetik aurrera jarraitu beharrean, dena berriro hasi zuen. Ez zegoen nonbait lasai bere lehengo lanekin. Lehenengo aldiz kuaderno handi bat atera zuen bere *[[Diccionario vasco-español-francés]]*-en tankeran. Nazario Oleaga jaunaren etxean ikusi nuen kuaderno hori eta Bruselan argitaratua dela uste dut.

Bigarren saioa 1914. urtean edo egin zuen eta dena berriz hasita, *borceguí* hitzeraino osatu zuen. Bere azkeneko urteetan egin zuen hirugarren ekinaldia: orain ere dena berriro hasieratik eta, diotenez, G-raino idatzi. Hirugarren hau Euskaltzaindiak dauka eta nik ez dut ikusi.

Premiazkoa dugu erdal-euskal hiztegi bat eta nere ustez lan luze xamarra txiki bat baino hobe. Aita Bera eta L. Mendizabalen hiztegiak, askoren ustez eta nere iritziz ere bai, hitz berri gehiegi ditu, baina hala eta guztiz ere, hiztegi horrek asko lagundu digu euskaldunoi eta gerora ere lagundu diezaguke. Hitz berri gehiegi dituelako ez diogu ukatu behar ondo merezi duen txaloa.

Nere ustez, orain batez ere, hiztegi handiago bat behar genuke lehenbizi. Uste horretan nagoelako, ekin diot nere hiztegi handi honi. Handitik txiki bat ateratzea ere errexago da gainera. Azkuek berak bere DVEF hiztegia argitaratu ondoren erdal-euskal hiztegi hori berehala egin izan balu ez zituen gero premiarik gabe hainbeste hitz berri asmatuko: bere hiztegian zeuzkan ahaztuta hitz zaharrak eta jatorrak.

—Adituko zenuen, noski, Euskaltzaindiak nahi duela norbaitek, lehen baino lehen, horrelako hiztegi labur bat prestatzea? Zer iruditzen zaizu? Zure lanari zerbait kenduko ote lioke, zurea baino lehenago agertzen bada?

—Jakinaren gainean nago. Nerea erdal-euskarazkoa denez gero, euskal-erdarazkoak ez dit kalterik egingo. Norbait erdal-euskarazkoa ere egiten ari dela entzunda nago. Azkeneko hau, nerea bezala, handi xamarra izango balitz, batek besteari kalte egingo lioke, noski. Bat txikia —sakelekoa edo— eta bestea handia izanik, ez da izango hainbesteko kalterik.

—Baretuko ote lituzke zertxobait erdal-euskal hiztegi batek hitzei buruz gaur dabiltzan eztabaidak?

—Horrelako xextrak beti izan dira gure artean eta aurrerantzean ere izango ditugu eztabaidak. Guk beti lehengo lepotik burua: buru adina aburu. Elkarren artean beti haserre eta aurrera-atzeraka ibili gabe, guziok batean lanari ekitea behar beharrezko zaigu, gaur inoiz baino areago.

—Zer iruditzen zaizkizu gaurko idazleak eta gaurko liburuak? Gure literaturak aurrerakada handirik egin al du urte hauetan?

—Berrogeita hamar urte hauetan euskal aldizkarietan agertu diren idazlanik ederrenak norbaitek aztertu eta bilduko balitu, lore-sorta zoragarria osatuko luke benetan. Egingo ahal du norbaitek lehenbailehen lan hori!

XX. mende honetan euskarak aurrerakada ona egin du eta, gure 133
artean hainbeste xextra eta eztabaida izan ez bagenitu, askoz handiagoak egingo zituzkeen noski. Beti haserre eta aldaketan ibili beha-

rrean, noiz batuko ote gara euskaltzale guziok, gure euskara maiteari *guziok batean beti aurrera* eraginaz?

—Komeni ote da gaurko euskaltzaleek idazle zaharrak —Axular edo, eta gure artean Mendiburu, Agirre, Lardizabal eta antzekoak— irakurtzea?

—Idazle horietan gauza on asko ikasi daitezke. Erdi ahaztuta dauzkagun hitz eta esaera jatorrak aurkitzen baitira horien liburuetan. Axularren ugaritasuna eta bizitasuna, esate baterako, harrigarriak dira. Halare ordea bitxi eder askoren artean, erdal kutsua darioten joskera nabarmenak gehiegi ageri dira Axularren liburuetan eta beste idazle batzuetan ere bai. Hori dela eta, euskaraz ikasten edo dakitena zerbait lantzen eta orrazten hasi direnei ez diet nik sekula Axular emango, aurretik ohar batzuk egin gabe behintzat. On baino kalte gehiago egingo lieke horrelakoei. Euskal ikasketan aurrera dabiltzanei eta euskaraz poliki idazten dutenei askoz erraxago emango nieke Axular. Ona eta txarra ondo bereizten dakitenek asko ikasi dezakete idazle horietan.

—Zer iruditzen zaizu *Egan?*

—Gaur egunean sekula baino aldizkari mardulagoak eta ederragoak dauzkagu euskaraz: *Yakin, Euzko-gogoa, Egan* e.a. Ez doaz guziak bide batetik, agerian dago hori. Guzien artean *Egan* da nere gogorako onena eta atseginena. Moncayopean bizi garen euskaldun guziok pozik irakurtzen dugu, eta aldizkari eder hau noiz iritsiko zaigun irrika eta zain-zain egoten gara, eta hortik jakiten ditugu euskarari dagozkion zenbait berri on.

—Zerbait aldatzeak —kentzeak edo eransteak— onik egingo lioke zure ustez?

—Edozer gauza hobetu genezake mundu honetan, baina neri ez zait orain ezer gogoratzen. Aldizkaria gero eta osoago eta ederrago dator. Bakar bakarrik, *Egan* gure herrietan gehiago zabaldu behar litzatekeela uste dut. Zinkurin hau beste norbaiti ere entzun izan diot.

Eskerrak eman nahi dizkiogu bihotz-bihotzez Aita Mujikari gure galdera ugariei, aurreragoko egitekoak utzirik, erantzuteko astia aurkitu duelako. Gure irakurleek ere, ez dugu zalantzarik, eskerrak emango dizkiote. Berri onak eta iritzi argiak eskaintzen dizkigu, izan ere. Eta, Aita Mujikaren hitzak dauden daudenean orrialde hauetara aldatzea besterik egin ez badugu ere, betiko izena ipintzen dugu azpian, ohitura ez galtzeagatik edo.

10

ELGARRESTA JAUNAK ESAN DIGU

Segura, Goiherriko herri ederra, baztertuxe gelditua genuen aspalditxoan, lehengo handitasunaren azterrenak agirian bazeuzkan ere. Gero, bat-batean, gutxien uste zenean, hona non zabaldu den berriro Seguraren omena, «Radio Segura»-ri eskerrak. Euskal radioaz ari bagara, Segura dugu gaur euskaldunen hiri buruzagia, lehen Iruñea bezala. 139

Mirari antzeko hau Cesareo Elgarresta Segurako apaiz jaunari zor diogu. Elgarresta jaunak berak esan dizkigu jakin eta jakinarazi nahi genituenak.

—Zertarako sortu zen «Radio Segura»?

—Errosarioaren jaiera zabaltzeko, ikusirikan bazirela egunero errezatzen zuten radioak, Barcelona eta Bilbao esate baterako, baina erdaraz. Euskarazkorik, ordea, ez zegoen eta antzinako ohitura eder hori, beste askorekin, galbidean zihoan gure artean.

—Nola jaio zen, ordea?

—Bidea bazegoen, erlijio-zabalkundea radioaren bidez egitea legezko denez gero. Ez zen, bada, eragozpenik alde horretatik. Saiatu egin behar.

—Baina dirua ere behar izaten da.

—Dirua etorriko duk, esan nuen nerekiko: fedea eduki behar. Eta etorri da, Jainkoari eskerrak; inori eskatu gabe, gainera. Besterentzat, bai, eskatu izan dugu; guretzat, ez, behin ere. Kartak berehala hasi ziren, euskaraz eta erdaraz. Eta kartekin batean dirua ere bai, poliki-poliki, errosario bat zela edo beste zerbait zela. Horrelaxe 140

«Berriketan», *Ega*n 1958, 139-141; *MEIG* I, 99.-101. or. [«Adiskide berri»-k sinatua].

125.000 pezeta bildu dira azkenean eta ez da gutxi. Pentsa gero ez dela hartu bakoitzean 25 edo gehienez ere 50 pezetatik gora.

—Hasteko behar zena nonbaitetik aterako zen, horratik.

—Neronen sakeletik, egia esan. Izan, nerea da radio hori, neronek ordaindua behintzat. Ez zegoen galtzerik. Galtzen bazen, Ama Birjinarentzat. Ezin horrela galduan atera.

—Noiz hasi zen?

—1955eko otsailean, San Martin egunez (Elgarresta jauna bergaratarra dugu). Hiru urte dira, beraz. Txikia zen emisora, «emisora local» direlako horietakoa, 25 wattiokoa. Hala ere ederki entzuten zen Tolosaraino eta Nafarroan Altsasu eta Olaztiraino; beste aldetik, berriz, Oñati, Aretxabaleta eta Eskoriatzaraino eta Bergara eta Elgetaraino. Inguru horretan ez dira ondo entzuten ilunabarrean Bilbao, Vitoria eta Donostia.

—Eta oraingoa?

—Oraingoa larria da lehengoaren aldean. «La Voz de Guipúzcoa»-k adina indar badu. Orain, 273 metrotan egiten dira saioak: lehen 202 metrotan.

—Ze ordutan?

—Egunean bi saio dira. Eguerdikoa, 12 eta laurdenetatik ordu bietara izaten da astegunez, hamabietatik 3 eta erdietara igandeetan. Ilunabarrean, berriz, 8 eta laurdenetatik 9 eta erdietara, jai eta aste.

—Ze gai erabiltzen da eta zein hizkuntzatan?

—Hasieran, euskaraz hasi ginen erabat, baina orain bietara egiten dugu. Beasainen, Legazpian eta, erdaldun asko dago eta horiei ere begiratu behar zaie. Egunean bitan errezatzen da errosarioa, beti euskaraz. Gainerakoan, erlijiozko gaiak izaten dira gehienbat. Urtero, Garizuman eta udazkenean, gogo-jardunak erdaraz eta euskaraz. Arantzazuko fraideak, Aita Iturria eta, dotrina azaltzen arituak dira. Badugu bertan ere hizlari trebe-trebea, Idiazabalen kapilau dagoen Dorronsoro jauna, ataundarra.

—Eta bestelako gaiak?

—Denetarikoak erabili dira. Gizarte-gaiak eta batez ere nekazariei jakitea komeni zaizkienak: pinuen gaitzak, albaiteruen esanak naparreria edo beste zerbait dela eta, eta horrelakoak. Lazkaoko beneditino bat mintzatzen zen astelehenetan, oso egoki. Hamabostean behin, bertsoak izaten ditugu, igande gauean eta bazkal ondoan, baserritarrek patxada ederrean entzun ditzaketen garaian. Eta igandero, gauean, trikitixak, ipuinak, lehengo eta gaurko gertariak. Denak konprenitzeko moduan egin nahi dugu eta horrela egiten du-

gula diotenak badira, behinik behin. Ez daukagu ahazturik zeinekin 141
ari garen eta baserritarrei laguntzen saiatzen gara ahaleginean.

—Gaia sortzen al da horrenbestetarako?

—Lasai ibiltzen gara, behintzat. Laguntzaile zintzoak baditut: Zegaman bizi den Joxe Mari Atxukarro, errezildarra, eta Segurako gazte taldea. Bi magnetofoi ere baditugu orain. Berriak eta deiak maiz bidaltzen dizkigute gainera inguruetatik. Beasaingo elizkizun, ejerzizio eta horrelakoen berri «Radio Segura»-k ematen du. Gero, baserritarrei ere lagundu behar izaten zaie. Holakori behorra galdu zaiola edo halakori beste ezbeharren bat gertatu, guk zabaltzen dugu deia. Horretarako gaude, ahal dezakegun neurrian laguntzeko.

—Ez zenieke zerbait esango *Egan*-en irakurleei?

—Apaiza naiz eta apaiz-eginkizunak eduki behar ditut aurrenik gogoan. Baina, euskaldun naizen aldetik, ez nuke gure hizkuntza inolaz ere atzeraka ikusi nahi. Prest nago beti, nere hutsean, euskararen alde jokatzeko, kristautasunarekin batean. Ondo dakit nolako lan ederra ari zareten egiten aldizkari honen bidez eta ni ere laguntzeko naukazue. Batera ari behar genuke gogo berbera dugun guztiok.

11

ARNALD STEIGER IRAKASLEAK ESAN DIGU

Arnald Steigeren izena aspaldixko entzuna nuen. Nola ez, bada, 3
romanisten artean, latinaren ondorengo diren erdarak aztertzen ari direnen artean, hain ezaguna izanik? Sail batean, agian, inorena baino ezagunagoa. Luzaroan aztertu ditu arabe hizkuntza eta Espainiako erromantzeen arteko harremanak, ia zortziehun urte iraun zuten etengabeko harremanak, baita mozarabeen hizkuntza ere, mairu herrian bizi ziren kristauena, alegia. Bereak dira, besteak beste, bi obra gailen: *Contribución a la fonética del hispano-árabe y de los arabismos en el iberorrománico y el siciliano,* 1932an agertua [[Madril]] eta aspaldi ahitua, eta «Zur Sprache der Mozaraber», hau Jakob Judi eskainitako gorazarrean azaldua.[a]

Ez nekien, ordea, euskarari buruz arduratzen zenik. Inoiz edo behin euskal hitzen batez edo bestez mintzatzea gertatu zitzaiola, baina beste horrenbeste gertatzen zaie romanistarik gehienei. Horrexegatik harritu ninduen, euskara bera eta bakarra hartu zuelako gai, berak daraman Suitzako *Vox romanica* deritzan aldizkarian honako idazlan hau ikusteak: «Die baskische Sprache. Eine allgemeine Orientierung». 1956an eman zuen argitara.[b]

Ez nuen Steiger jauna berehalakoan ikusteko usterik, artikulu 4
hori irakurri nuenean. Horretarako Madrila jotzeak, izan ere, ez dirudi bidezko, Zürichen bizi denez gero. Halaz ere, Madrila joan

---

«Berriketan», *Egan* 1959, 3-5; *MIH* 143.-146. or.; *MEIG* I, 103.-106. or. [«Adiskide berri»-k sinatua].

[a] *Sache, Ort und Wort: Festschrift Jakob Jud zum 60. Geburtstag,* Zürich 1943, 624.-714. or. [b] *Vox romanica* 15 (1956), 155-168.

nintzen, bestetara bazen ere eta, Madrilen nengoen, han euskal kulturaren mandatari dugun Patxi Etxeberria «Minotauro»-koarekin, Steigeren izena entzun nuenean.

—Bai, gizona. Hemen zegok aspalditxoan.

Hitzaldi bat egitekoa omen genuen orduantxe, astero bezala, geunden etxean bertan, hain zuzen ere.

Horrela ezagutu nuen. Dozenaren bat ginen entzuleak, zahar eta gazte: batzuk urduri —gazteak gehienbat—, zirriborroak egiten paperean entzun ahala; besteak geldi, hizlariaren hitzei edo nor bere pentsakizunei adi, ez dakit. Lasaitu nintzen: gaztelaniaz ari zen, eta nolako gaztelaniaz! Ahoa zabalik nindukan. Entzuleok baino hobeto egiten zuela esatea ez litzateke ezer. Haren eta gure hizkeraren artean bazegoen, gutxi gorabehera, nere eta gaurko zenbait euskal idazle garairenaren artean dagoen bitartea. Batetik bestera zebilen gelditu gabe, paperei begiratzeko edo pizarran zerbait ipintzeko izan ezik, hitz baten ibilaldi luzeak —Eurasian eta Afrikan barrena— azaltzen zizkigun bitartean.

Hitzaldi-aurreak eta hitzaldi-ondoak ez dira egokiera erosoak izaten berriketa lasairako. Hori dela eta, afaritako bildu ginen hurrengoan. Steigerek berak egin zuen jakien eta edarien aukera, eta ez zituzkeen hobeto aukeratuko hemen sukalde-berriak ematen dizkigunak. Hori bai, Euskal Herriko jan-edanei opari bat eskaini behar geniela eta, ezin bakailaoari ezetz esan.

Bitartean, ez zen atertzen jarduna:

—Ez dut oraingoxea euskaraganako ixuria. Sartaldeko Europa honetako hizkuntzekin, zahar nahiz berriekin, ari denak nola ez eduki euskara gogoan? Antzinakoen berri jakin nahi badugu, ez daukagu ia beste aztarrenik; aztarren bizirik, behintzat, ez. Gerokoekin ari bagara, berriz, euskara dago beti lekuko, ezin baztertuzko lekuko. Mozarabe hizkuntzaren hondarrak biltzean, ez zitzaizkidan ahaztu, esate baterako, euskarazko *atorra* eta *izara*. Orainago, *maindire* eta bere euskal eta erdal senideak aipatu behar izan ditut, baita Bizkaiko *atondu* ere, gaztelaniazko *atuendo*-ren jatorria garbitzeko. Ni, gainera, Humboldt eta Schuchardten jarraituna nauzue, biak jakintsu bezain euskaltzale. Horrexegatik Etxeberriak eskatu bezain laster eman nion Humboldten *Prüfung* ezagunaren itzulpen berrirako nahi zuen hitzaurrea.

—Noiz hasi zinen euskaraz ikasten?

—Aspaldi, eta Suitzan bertan. Euskaldun bat, Apraiztar Odon, izan nuen lehenbiziko maisua.

Odonen galde egin ziguneko lasaitu genuen: bai, onik duzu; ez, ez dizu batere galdu betiko «umorea». Hirurok agertu genuen, behar bezala, bihotz-damua afaldarren artean ez zegoelako. Izan ere, Odonekin egindako afari eta afalondoen oroitzapen atsegina ez da agudo galtzen. Goraintziak ere eman zizkidan Steigerek eta ez dira oraindik behar zuten lekura iritsi. Beteko ahal dute lerro hauek nere hutsa!

—Euskal Herrian izana zara, noski?

—Bai, behin baino gehiagotan; ez, ordea, nahi adina. Nere lanbideak bestetara eraman nau gehienetan. Afrikako iparraldera, batez ere, bereberez ikastera eta aritzera: badakizue alderdi horietan arabea ez dela nagusien kultur hizkuntza berria besterik. Arabe herri guztiak ere inguratu ditut. Egipton nintzen azkeneko gerrateak etxerarazi ninduenean.

Horrela jakin genuen, harri eta zur eginik, irakasle baketsu hau jenerala dugula Suitzan eta gerrak harrarazi ziola jeneraltza bere ikastaldien kaltean. Jende harrigarriak gure aldean horrelako jeneralak dituzten suitzarrak. Gerrate batean okerrago ibiliko ote liratekeen ez da erraz esaten, aspaldian ez baitute erakusteko modurik izan, baina bake-denboran ez dira beharbada galduan irtengo.

—Zer aurkitzen diote euskarari hizkuntzalariek?

—Bi gauza, inon gutxitan idoro daitezkeenak. Hau aurrenik. Ez da hizkuntzarik Europa osoan euskara bezain ilun eta ezkutu ageri denik, bere jatorriari eta kondairari buruz. Ez da gainera historia osoan gertakaririk euskarak azaltzen duen bizinahi egoskogorra bezain miragarririk. Indarra metatu izan da indarraren gain menderik mende hizkuntza hori urratzeko eta desegiteko eta ez du artean inork menderatu. Non aurki bestetan horrelakorik!

—Zerbait esan nahi ote zenuke euskaldunentzat, *Egan*-en bitartez?

—Beharrezkoa genuke jakintza-bideetan euskaldunen laguntza, ez baita inor haiek adinean argi litzakeenik euskararen alde ilunak. Egiteko dago zorioneko euskal atlas hori eta eginkizun geldituko da, noski, zuek ekiten ez badiozue lanari. Baina bada besterik eta nagusiagorik. Orainengo artikulu horretan egiten nuen deia egingo nuke gogoz, berriz ere. Biziko ahal da luzaroan, etsaiak etsai, behinola ugaria zen familia zahar batetik gelditzen zaigun haur bakar hori! Ez ahal da hilko antzinako Iberiaren ondorengo baliotsu hori! Saiatuko ahal dira aurrera ere euskaldun amak, gaurko bizimoduaren lilurei entzungor eginaz, antzinako hizkuntza beren umeei irakasten! Eta

entzungo ahal dute datozen mendeek ere Euskal Herriko mendietan euskararen soinu ezkutua, Europako bazter honen historia hasi baino lehenagoko aldietara garamatzan hizkuntza maitearena!

Zer erantzun? Eskerrik asko, Steiger jauna, eskerrak bihotz bihotzetik. Eta hala biz.

12

JURGI OTEITZAK ESAN DIGU

Ez dago noski Oteitza aurkeztu beharrik gure artean. Gorturik ez 115
gaudenok badugu honen entzutea, bere antze-lanak gehiegi ezagutzen ez baditugu ere. Nolabait, apostolurik gabe ere, bere izena darama Arantzazuko eliza berriak. Igarle antzera etorri da guregana, geure buruari begira hartzen genuen poza uxatzera. Hotz edo bero ikusi nahi gintuzke, igarle gisa, ez garen bezain epel. Gai askotan haurtzaroko egunetan dagoen gure Euskal Herri zahar hau ernarazi nahi luke: ezin, beraz, lausenguka eta zurikerietan ari, hitz latzak, harri koskorrak bezain gogorrak, behar baitira horretarako, inor minduko badute ere. Ez, igarlearen lanbidea ez da atsegina, ez beretzat ez besterentzat.

Arras gogoko dut Oteitza igarle kontentagaitza dugun aldetik, gamelu-larruz jantzia ez badabil ere. Gaurko ikustalditxo honek, halaz ere, eman dizkidaten galderak egin eta beraien erantzunak jasotzeak, ikaraturik nindukan. Oteitzaren antze-lana halako aztikeria beltz baten lainoaz inguraturik agertzen baitzaigu ezjakinei. Eta ni, esan beharrik ez, ezjakina izaki. Musikan Beethovenen ingurutsuan egin nuen planto; pinturan, inpresionisten parean edo; literaturan uste nuen aurreraxeago nenbilela, delako «barrengo bakarrizketa» horren berri banuelako, arestian jakin dudan arte Barrutia iskri- 116
bauaren garaian ere ezaguna zela jokabide hori.

Betiko leloa zegoen gero. Oteitzaren izena entzun orduko hasiko baitzaizkizu herria bihotz-muinetan daramaten horietako zenbait: «Zer esango du horrezaz herri gaixoak? Zer pentsatu behar du nekazari zintzoak, arrantzale jatorrak, artzain tolesgabeak?».

«Berriketan», *Egan* 1959, 115-120; *MEIG* I, 107.-114. or. [«Adiskide berri»-k sinatua; sinaduraren azpian, honako hau irakur daiteke: «Txuri-beltxak, Oteitzarenak»].

«Neroni ere —egiten nuen nere artean— herrikoa ote naiz? Ezin erantzun. Dakidana hauxe da: herriaz gutxi dakidala. "Populua" ere batzuek deitzen diotela, "herri ikasi" bat ere sortu dela gure artean, besteez gainera, gutarik zenbait bere haserrean irentsiko dituena egun edo bihar, eta horrelaxeko huskeriak».

Nora jo ez nekiela, bertsolari bat hartzea lagun eman dit gogoak. Herriaren mintzoa direnez gero, non hoberik aurki? Ez da ezagun-ezagunetakoa (Mikelazuloko Kukua esaten diote gaitzizenez), eztarri bajua duelako edo. Gainera, gizonaren seta, ez du baztertu nahi gaur zorrotz debekatuak dauden bederatzi puntuko bertsoetan egiteko ohitura: gaiari dagozkionak diren ala ez, ez nizueke esango. Horrexegatik ez bide zen agertu Eibarra.

Ardo beltza eskaini digu Oteitzak. Hiztun eder honek ez du luzaroan hitz bila ibili beharrik gogoan duena estaltzeko eta itxuraldatzeko. Gaztetasunaren kemena eta sua dario alde guztietatik, ile urdinak gorabehera. Gela zokoetatik zenbait forma dauzkagu begira, mutu eta uzkur. Hona bat:

117 —Zer da eskultura gure gizaldian?

—Kultura-barrutian —eta kultura igeri egitea bezala da, oroit gaitezen Ortegaz—, halako begien arnas hartze bat erakusten digu: arnas-hartze horren bidez murgil gaitezke inguruko gauza eta gertakarietan barrena, gure sentimena aberastuaz, askatasuna gehituaz eta izaera sendotuaz. Oraingo artea ulertzen ez duenak ez du ulertzeko askatasunik; axalean gelditzen da, ez da nor ikusten dituen

gauzarik gehienak barrentzeko. Eskulturagilea, sortzaile den aldetik, erlijio-lanean ari da hasieran eta sortzen duena politika-lana da.

Horrexek du axola, gizona eskulturagintzara daraman dei ezkutu horrek. Estatuara eta poesiara eramango luke euskalduna bere irudimenak, artea zer den bageneki. Artista da bakar-bakarrik bere bizia eta gainerako guztiena osoro bizi dituena. Estatua duzue bere buruari egiten dion apustua. Ez dabil tranpian: besteek irabaz dezaten galtzen du. Logika, arte-gaietan, desarrazoia da, baina badu bere arrazoibidea: Estetika. Poetika da lehentxeago; geroxeago, berriz, arnasa hartu eta murgildu beharra. Ez da erraz: nola egin daiteke? Beste horrenbeste litzateke gizona nola egiten den galdetzea. Ahal izate honek ikuskizun duen aldea jotzen du begiz estatuak.

Diodana ez da hitzez hitz hartzekoa. Txit laburra da hizketaldi-txo bat: beste gehiagoren pusketa. Lerrorik laburrena lur gainean, ez da lerro zuzena. Bere gisa dabil artista bidez bide, ez dabil zaldi gainean gauzen bizkarrean. Muga-mugako zaldi-gizona duzue, egunonez erantzia. Sakelik ere ez du, arotz-arkeologoek daramaten metroa gordetzeko, dena neurtu behar baitute hauek luze-laburrez nahiz hirurehun urtegarrenez. Artelanean ez dago neurtzerik, batbatean jaiotzen baita dena. Igandea da egunero estatuan.

—Zerk jasotzen du gehiago eder-mina, atsekabeak ala atseginak?

—Atsegina Naturalezari dagokio; atsekabea, Izpirituari. Azkenetan aurkitzen da atsegina eta artean ez da azkenik: hasieran dago beti.

—Zerk balio du gehiago poesian, ezkutuak ala bihotzak?

—Ezkutuak, horixe da eskulturagileak eskuetan duen poesia esku hutsik dagoeino. Bihotzondokoa, ezkutua hizkuntza bihurtu orduko hartzen du. Ezkutua, misterioa, erlijiozkoa da; sentiera, poesia, hizkuntza, berriz, politika dira. Politika aldetik hartzen du gizona Arteak xedetzat: bere ezpirituaz jabetzen laguntzen dio eta harzaz baliatzen, bere baitan eta besterekin.

—Horrenbeste nekeren ondoan ez ote dute atzera Donatellogana joko, gure ondorengoek?

—Esan izan dut Artearen Kondaira, eta Eskulturarena batik bat, gizon bakar batek egiten duela, aldirik aldi izena aldatzen duen gizon batek. Bestela deritza gaur Donatellori. Neroni ere Donatello nauzue eta ez dakit zer galdetu nahi didazun. Itzultzeaz mintzatzen 118
denak arte-gaietan ez daki nora doan.

—Zer iritziko diete 50 urteren buruan gaurko «ismoei»?

—Presa gehiagoko galderarik izango ahal dute erantzuteko. Haien galderak ez dira izango gaurko gure erantzunen ondorioa baizik.

—Zergatik ote dira haurren zirriborroak hain pintura berriaren antzekoak?

—Ederki dago galdera: haurren zirriborroak dira zenbait pintura berriren antza dutenak eta ez alderantziz. Pintura kaxkarrek, berriz, axaleko fotografiaren kopiak dirudite. Egiazko artista ez baita kopiatzen ari, ezta haurra ere. Pixtiaren oinaze-garraxia iduri du batzuetan gizonaren deadarrak. Barren-barrendik datorren orok badu elkarren eitea eta ezertarako balio ez duten gauzek ere bai.

—Ze mailatan ipiniko zenuke gure Antxieta?

—Ez zen kontentagaitza, ikasle onari dagokionez. Euskaldunei falta ohi zaiguna falta zitzaion hari ere: mundua kezkatzen duten auziez jabetzea eta bide berrietan barrena ibiltzeko behar den ausardia, geure burua arriskutan ikusiko badugu ere. Azken bolada honetako gure kondaira ez da morroi-kondaira besterik. Nahiago izan dugu aisetasun lasaia barrenak eskatzen zigun borroka latza baino.

—Ba al da arte-sailean euskal eskolarik?

—Ez nizuke baietz esango. Hobe litzateke horrela deritzana ukatzea, hain baita gauza eskasa. Regoyosez gero Belgikako artista-olerkariekin adiskidetu ginen eta orduan behar genituen gizonak Holandan egoki. Gure eskola horrek, ezer izatekotan, norberaren arrisku eta izpirituzko ezinegonaren gainean beharko du izan oinarria. Unamuno eta Baroja euskal eskola dira.

—Non ipiniko zenituzke gaur Praxiteles, Santillanaren olerkiak eta gure kanta zaharrak?

—Museoetan eta aztertzaileen biltokietan. Han, ikaskizun eta eragile izango dira gaurko artista-idazleentzat: haiek beren aldian egiteko gauza izan zirena gaur dugunarekin eta ez dugunarekin egitea erabakia daukaten artista-idazleentzat, alegia. Gaurko olerkirik, gaurko eskulturarik, gaurko teatrorik ez duen herriak ez du eskubiderik ere gehitzeko gauza ez den gurasoengandikako aberastasunak besteri erakusteko.

—Badago biderik gure bertsolariak eta herri-jokoak jasotzeko?

—Zimendu berria eman behar zaie herri-gauzei, laster gero, eta zimendu hori gaurko herriaren bizitzan eta premietan dago. Lanbide berriak agertu direnez gero, nola ez dira norgehiagoka berriak sortzen? Hor daukagu industri dibujoa, esate baterako, egunero sortzen zaizkigun auziak pixka bat hegoairatzeko. Bertsolariak berak ere, zergatik ez dira berriz saiatzen, eliz atarian eta kalean, denbora batean ziren herriaren boz eta maisu, historialari eta komeriante izaten? Ondo hausnartu behar litzateke puntu hau.

—Gure literatura ibili ote daiteke bide berrietan barrena larritasuna eta izugarrikeriak alde batera utzirik?

—Izugarrikeriak zer diren, nik ez dakit; larria, ordea, bai. Ez dezagun behintzat larria eta hagineko mina bat direla uste izan. Artearen gaia egiaren maitasuna da, askatasun beharra, denborarekiko borroka gogorra. Ez ote da bidezko larritasun hori artearen bihotz-bihotzean josirik egotea?

—Zertarako arte-museoak?

—Aldez aurretik dakiguna ikusten dugu beti gauzetan. Artistak bere gogoetak adierazten ditu, baina nahitaezkoa da haren hizkuntza jakitea. Aldiro-aldiro aldatzen eta aberasten ari den hizkuntza hori jakitea, argiaren giltza non dagoen jakitea bezalaxe da. Ihes egiten dio misterioak jakinduriari, baina nolabait ere honen mendeko da. Begira zen zioen Whitmanek artelanaz: «Berbera ez bada ezkutua eta ezkutu guztien giltza, ez da ezer». Baina natorren ahaztuxe neuzkan museoetara. Han ikus daiteke nola aldi eta alde bakoitzeko pentsabideen semea den artelana.

—Nola antolatuko zenuke gure herri-museoa?

—Besterengana joko nuke horretarako. Horixe da Donostian sortu nahi dugun «Instituto de Investigaciones Estéticas» delakoaren asmoa: elkarren berri jakitea, elkarrekin harremanetan aritzea, nor bere lanbidekoekin lehenbizi eta sail batekoak besteetakoekin gero. Oraingo kultura-sail guztiek izango dute hor sarrera.

—Euskal balletak ere bai?

—Saio balleta izango da, hain zuzen ere, sail horietako baten eginkizuna. Arte-sail guztiak ahaide eta mugaide dira. Ahaleginean saiatuko gara, beraz, gure dantza-ondare aberatsaren hondakin erkituak pizten. Dantza-jakitun, artista, olerkari nahiz musikari, elkarrekin ibili behar dugu guztiok, handinahiez beterik, itxuraz, asmoz eta helburuz zeharo desberdinak izango diren dantzaldiak sor ditzagun. Presaka gainera, mundua ez baitago geldirik. Guk, bitartean, lo egin eta genekiena ahaztu.

—Zer iritzi duzu Mintegi honen lanaz?

—Zuen lanak, aldizkari hau argitaratzeak batez ere, euskaldunen eta euskaldunen adiskide guztien esker ona merezi du. Beharrezkoa zen lan hori eta norbaitek egin hehar. Ez dituzte gure artean, zorigaitzez, gai diren guztiek beren eginkizunak egiten. Neri, damuz beterik diot, atzendu egin zait gurasoen hizkuntza. Indartu nahi dutenen alde nago eta indartuko dutelakoan. Halere, lanbideak beharturik, beste borrokalekua hautatu dut. Beste hizkun-

tza bat, kultura-gogoa, sendotu nahi nuke Euskal Herrian. Horren
120 ahultzeak ekarri baitu zuek sendatu nahi duzuen makurra eta baita beste sendagaitzagoak ere. Horiek ere sendatuko dira, ordea, zabalagoak izaten ikasten badugu bihotzez eta eskuz, bereizten gaituzten geurekoikeria ziztrinak baztertuz elkar har dezagun.

* * *

Ixildu gara. Kukuak, adi-adi, ez du aurpegirik zimurtu. Ozta-ozta argitu zaizkio begiak Oteitzak bertsolariak aipatu dituenean. Basoa aurrean zeukanik ez zaio, horratik, zeharo ahaztu.

Atarian egin diot Herriari aspaldi egin gogo nion galdera. Bertsoetan erantzun dit, antzinako orakuluen moduan. Hona non dituzuen, poto eta guzti:

Oteitza asi zitzaigun
Bazterrak berritzen,
Burgesaren ideak
Gogor astintzen.
Zar-zalien ojuak
Eztute bildurtzen,
Arte-lanian daki
Aurrena ibiltzen:
Zuzenak okertzen,
Okerrak makurtzen,
Buruak urratzen,
Sabelak ustutzen,
Bederatzi puntuko
Piyurak sortzen.

13

IRUÑETIK

«Iruñea da —erakutsi zigun behin batean Etxeberri saratarrak— eskualdunen hiri buruzagia». Hala izan da eta oraindik ere hala dela esango nuke, gaur zenbaitek buruzagitza hori ukatuko balio ere. Hemendik hedatu zen euskara, zorioneko aldi batean, lurralde bero -lehorretara, ardo- eta gari-lur jorietara. Hemen daude gordeak haren lekukorik zaharrenak eta hemen dago ereina etorkizunari begira itxaropen berriaren hazia. 3

Joan den mendeko Asociación Éuskara de Navarra gogoangarri hura ez zen alferrik izan. Baditu oinordekoak: Príncipe de Viana elkargo ezagunaren Euskararen Aldeko Sailean, Diputazioaren babesean, bildurik dauden nafar jator eta euskaltzale gartsuak. Egiteko bakarra dute eta kezka bakarra: erreinu zaharraren ondasunik preziatuenari laguntzea, hura indartzea, apaintzea eta gehitzea. Buru duten Pedro Diez de Ulzurrun sendagile gazte eta argiak adierazi dizkigu astiro darabiltzaten lan eta asmoak.

* * *

—Noiz eta nola sortua da Sail hori?

—1957. urtean Nafarroako Diputazioak, Miguel Gortari Errea jauna gaur bezala buru zuela, aho batez erabaki zuen sail berri bat sortzea bere Príncipe de Viana deritzan elkargoaren barruan gure hizkuntza aztertzeaz gainera beroni lagundu eta bizirik iraunarazteko. Abenduaren 20an agertu zen erabaki hori Nafarroako Boleti- 4

«Berriketan», *Egan* 1960, 3-7; *MEIG* I, 115.-120. or. [«Adiskide berri»-k sinatua].

nean, euskaraz eta erdaraz, sail sortu berriak nafar-euskaldun guziei egiten zien deiarekin batean.

—Sail hori, nola dago eratua?

—Buru bat du, Príncipe de Vianaren batzordekoa eta zenbait lankide horrexek izendatuak. Elkargo horren idazkariaren bitartez aurkezten dizkio bere usteak eta asmoak Diputazioari, honek ontzat hartu nahi balitu.

—Ze diru-laguntza duzue Diputaziotik?

—Presupuesto bat izaten du urtero Diputazioak bere Príncipe de Vianarentzat, sailean sailean berezia. Euskararen Aldeko Sail honek 250.000 pezeta jasotzen ditu urtero eta horrexek ematen du noski aditzera, beste ezerk baino hobeto, Sail honi eta bere eginbideari eman zaion ardura. Diputazioak sortua izanik eta haren itzalpean dabilelako, ez du besteren diru-laguntzarik eskatzen ez hartzen.

—Zertan egin dituzue orain arte zuen ahaleginak?

—Gure hizkuntzaren egoera ez da bat Gipuzkoan eta Nafarroan. Arabatik, Nafarroatik, Bizkaitik nahiz Lapurditik Gipuzkoan sartu, lehenbiziko baserria euskalduna duzue zuek. Zuen egitekoa euskara lantzea, jasotzea, ikasien artean zabaltzea da, beraz, eta ongi zabiltzate bide horretan barrena. Hemen, ordea, etxean, familian bizirik iraunaraztea dugu lehen zeregina. Horrexegatik, haurrekin saiatu gara batez ere orain arte, eskolan dabiltzan neska-mutilekin, urtero euskal etsaminak eginaz eta sariak banatuaz. Etsamina horiek, noiz hemen noiz han, honako ibar eta herrietan egin dira: Arakil, Sakana, Burunda, Ergoyen, Araitz, Larraun, Imotz, Atetz, Odieta, Anue, Ultzama, Esteribar, Aezkoa, Zaraitzu, Erroibar, Txulapain, Basaburua, Artzibar, Olaibar, Leitza eta Areson, baita Baztango zenbait aldetan ere. Lau urteren buruan, 3.352 haurrei eman zaizkie agiriak eta sariak: Nafarroako Aurrezki Kutxako libretak, 100-200 pezetakoak. Gero, sariak banatzea dela eta, jaiak antolatzen ditugu. Arbizu, Betelu, Etxaleku eta Gartzaronen izan ditugu eta Lekunberrikoak gelditzen zaizkigu. Euskal liburuak ere zabaltzen dira euskal dotrina ongi jakin dutenen artean.

—Libururik argitaratu duzue?

—Bai. Orain bi urte, «Larreko» eta «Manezaundi»-ren idazlanak, A. Irigarayk prestatuak. Aurten, Andres Astiz, 1924an hil zen Goldarazko bertsolariaren zenbait bertso polit, bere seme pasionistak jasoak, atera nahi genituzke, Agerre jaunaren hitzaurrea eta euskal ipuin sorta batekin. Aurten edo datorren urtean, Azpiroz eta

Satrustegi Luzaideko apaiz jaun eta euskaltzale sutsuak direla bide hango «Borddele» zeritzan bertsolari sonatuaren bertso-bilduma ere bai.

—Zerok egiten al duzue *Umien deya?*

—Ez, Aita Felipe Murietakoaren lana da hori; gure laguntza badu, halare, baimenez, diruz eta zabalkundez. *Gure deya* izango du aurki izena. Horri bezala, beste zenbait aldizkari eta libururi ere lagundu diegu. Hona batzuk: *Luzaide* aldizkari bikaina, Norberto Iturralde Almandozko apaiz jaunaren *Meza Sandua,* Etxarri-Aranazko Aita Aurelioren *Bederatziurren bearrezkoenak,* Aita Iraizozen *Gurutz-bidea* azkeneko agertaldian... Nafarroatik kanporako gauzetara ere hedatu izan gara, euskararen onerako direla deritzagunean. Euskaltzaindiari, urteroko emaitzaz gainera, Azkueren hiztegia eraberritzeko eman zaio, baita Orixeri gorazarrea Leitzan eratzeko ere. Aita Bonifazio Beizamakoarekin eta harremanak izan genituen, TBO antzeko haur-aldizkari bat sor zedin. Erdietsi zen baimena eta dirua, baina, Gipuzkoan ager zedin *Zeruko argia*-rekin batean, beharrezkoa izan zen gidaritza Hondarribira eramatea.

—Bertsolariak indartu nahian omen zabiltzate.

—Horrelaxe da. Bertsolaririk onenak ekartzen ditugu gure euskal jaietara, baina beti nafarren bat aldamenean dutela. Aurten egingo da, aurrerantzean urtero egitekotan, Nafarroako lehenbiziko bertsolari sariketa, Euskaltzaindiaren laguntzarekin. Garagarrilaren 21ean izango da saioa Lekunberrin eta uztailaren 25ean, bertako jaietan, Elizondon. Sariak, 2.000 eta 1.000 pezeta dira bakoitzean bi aurrenekoentzat eta ondorengoentzat 4 bostehuneko eta beste 4 berrehun eta berrogeita hamarnako. Euskal teatroa ere piztu nahi genuke. Egoki litzateke, esate baterako, taldeak Etxarri-Aranatzen, Leitzan, Iruritan, eta Lesakan sortzea. Herri horietan edo beste batzuetan sortuz gero, deituko bailituzkete besteetatik.

—Jakintza-sailean zerbait egin nahi duzue ala ez?

—Lacarra irakasleak Mintegi horretan eginikako hitzaldietan esanari jarraituz, Nafarroako XI-XIII. mendeetako dokumentuak azaldu nahi genituzke *Príncipe de Viana* aldizkarian, gure hizkuntzaren oinatzik zaharrenak ezagutarazteko.

—Lankideen izenik emango zeniguke?

—Pozik gainera, baina beldur naiz, ugari izanik, ez ote zaizkidan batzuen izenak ahaztuko. Aipatu ditut zenbait eta hona beste batzuk: Franzisko Tirapu da, Pedro Diez de Ulzurrun apaiz jauna laguntzaile duela, gure euskal irakaslea; hor daude gero Jose Agerre,

Aita Murieta, Karlos Amat Erro, Luis Irigaray, Pedro Etxeberria, Javier Garaikoetxea, Eujenio Azkona, Luis Martínez Erro, Martin Larrayoz apaiza, Maria Puy Ruiz de Alda andrea, Maria Paz Ziganda eta Dolores Baleztena andereñoak, Iruñekoak denak. Eskerrak zor dizkiegu, egiazko lankide ditugulako, ibili garen herrietako apaiz, alkate, eskribau, maisu eta maistrei.

—Nola ikusten duzu euskararen etorkizuna Nafarroan?

—Atzeraka larrian dabil, XVIII. mendeaz gero. Hogeita hamar urteren buruan galtzen da euskararen hots biguina Nafarroako eremu zabal batean. Eta galtzen den lekuan arras galtzen da. Berrogeita hamarren bat urtekoek erdaraz ongi ez dakiten herrietan, doidoi aditzen dute euskara hemezortzi urtekoek eta haurrentzat ez da txinoa baino ezagunago. Hori gertatu da Erronkarin eta horixe ari da gertatzen Zaraitzun. Berdintsu izan da edo izaten ari da Artzibarren, Erroibarren, Anuen, Atetzen, Olaibarren, Odietan, Esteribarren, Ezkabarten, Txulapainen, Arakilen, Gulinan, Ollon, Goñin, Itzan. Alderik gehientsuenetatik dator aurrera erdara: Zaraitzu aldetik, sortaldean; Arabatik, Ziordian; Iruñea herritik, hegoaldean. Euskal Herri barruan ere badaude zenbait leku, industria nahiz uda dela bide, erdararen barreatzaile: Altsasu, Olazti, Doneztebe, Elizondo... Gelditzen dira, horratik, gogoz eta bihotzez euskarari eusten dioten herriak ere: Auza Ultzaman, Eugi Esteribarren, Luzaide Erron. Gizon baten gorabehera hutsa izaten da askotan, behar bezalako apaiz batena, esate baterako.

—Zenbat euskaldun zarete Nafarroa garaian?

—Gutxi gorabehera, 55.000 euskaldun garbi, gure iritziz, Iruñekoak sartu gabe. Horiek badira, noski, 5.000tik gora, baina ez diete gehienetan ondorengoei irakasten. Nor diren eta non duten bizilekua jakin nahi genuke padroi bat eginaz, elkarrengana biltzeko euskal jai (teatroa, bertsolariak) eta elizkizunen bidez. Garizumako euskal sermoiak izan dituzte azken hiru urteotan Aldapako San Ferminen elizan.

—Zer diozu etorkizunaz?

—Euskarak, makal egon arren, ez du nere ustez heriozko gaitzik, nahi eta ez hilko duenik. Itxaropenez beterik ari da beraz gure Sail hau egunen batean euskara ikusiko dugulakoan gaztelania eta frantsesarekin adiskidetasun ederrean, baita eskolan ere. Ezarian bezala baztertu egin behar dugu gaur eskoletan sumatzen den euskara ezin eraman hori. Lau Diputazioen eginkizuna da hori, batez ere. Guri dagokigunez, euskal gogoa zenbait herritan poliki piztu du-

gula esango nuke: Lekunberrin, Etxarri-Aranatzen, Iruritan, adibidez.

—Zein idazki mota hautatuko zenuke zuk?

—Aurrenik, dudarik gabe, *Herria*-ren antzeko astekari bat, egunean eguneango berriak euskara argi eta garbian dakartzana nekazari, arrantzale eta langile euskaldunentzat, gure hizkuntzan irakurtzen ohi daitezen. *Pan-pin*-en gisako zerbait haurrentzat, hamabosterokoa ez hilerokoa, baina Lapurdikoaren eite gehiago 7
duena Gipuzkoan agertzen hasi denarena baino. Horrezaz gainera, haurrek gogoko dituzte beren baitatik idazten dituzten gauzak: hor duzue *Umien deya*. Horrela izango litzateke behar bezain probetxuzkoa Itxaropena eta liburuen bidez egiten ari diren lana. Liburuok ez bailirateke gutxi batzuentzat izango, euskaldun arrunten pilo ugariarentzat baizik.

—*Egan* irakurtzen al duzu?

—Horixe da gaurkoz nere ustez goi-mailako aldizkari baten eredua, ikasientzat egokia eta halaz guztiz erraza, denik gutxiena jakitez jantzia dagoenarentzat. Zuen Mintegi horren gainerako lanen berri ere ongi dakit. Horko solasaldiak, esate baterako, ederki baino ederkiago iruditzen zaizkit: euskal gaiez kanpora, pintura, zezenak edo zinema erabiltzea alegia. Gipuzkoa eta Nafarroako euskal kezkak, gorago esan dudan bezala, ez dira berdinak. Gu beste bide batetik gabiltzalarik, ezin hobeki asmatu duzuelakoan nago hor hartu behar zenuten joera.

—Besterik?

—Hauxe bakarrik: agur eta goraintzi bihotz-bihotzetik Gipuzkoari, Gipuzkoako euskaldun-euskaltzaleei eta Euskal Herri osoari.

* * *

Nafarroako berri eman dizuegu Diez de Ulzurrun jaun atseginari eskerrak. Komeni da, oso komeni ere, euskaldun guztiok jakin eta zabal ditzagun. Merezi onez merezi baitute hango euskaltzaleek euskaldun guztion esker ona, txalo beroa eta, ahal dezakegun neurrian, laguntza.

III

ZINEMA

Argitaratzaileen oharra

1954-1961 bitartean Mitxelenak *Egan*-en argitaratu zituen film kritikak «Zinema» izenburua zuen atal batean agertu ziren, eta hemen ere lehenengo edizio haren arabera antolatu ditugu: hamasei aldiz —hau da, *Egan*-en hamasei zenbakitan— atera ziren kritika-andana haiek, eta honako edizio honetan ere horrelaxe eman dira. Harrezkero, *MIH, GA* eta *EN* bildumetan argitaratu dira kritika hauetako batzuk, eta guztiak *MEIG*-en. Guztiak jaso ziren, orobat, 1981ean kaleratu zen liburu batean *(Denbora bateko zinema paperak. Koldo Mitxelenari omenaldia,* Bilbo, Bilboko Nazioarteko Zinema Labur eta Dokumentalaren XXIII. Lehiaketa, 1981 —honen edizio berri bat antolatu du Inazio Mujika Iraolak: Donostia, Alberdania, 2006—), baina Mitxelenaren beraren sarrera batekin, guk ere hemen eman duguna, film iruzkinen aurretik.

1

DENBORA BATEKO ZINEMA PAPERAK

Hemen bildurik dauden paperak Bilbotik etorri zaidan adiskidezko eske bati eskerrak agertzen dira berriz argitara. Gogorik banuen ez nuen, ez dakit ongi, baina nork egingo dio uko, gure artean behintzat, Bilbotik datorren deiari?

Argitaraldi honi dagozkion zenbait zer-nolako ipiniko ditut lehen buruan. Orrialde hauetan ikus daitezke, oso-osorik, nik *Egan* aldizkarian 1954-1961 bitartean zinemaz agertu nituenak oro. Bilduma ez da nik egina. Ez dut uste, halaz guztiz, aldizkari horretan geroztik azaldu denik zinemaz, lehengoen antzera, zuzen-zuzenean ari den lanik. Eta oker banenbil, barka.

Egan izan da, nik dakidanez, gure artean eta euskaraz lehenbiziko aldiz zinema-gaiak jarraikiro astindu dituen aldizkaria: aitzindaririk izan baldin badu, berriz ere diot, ez dut nik ezagutzen eta besteren argien begira gelditzen natzaizue.

Hor agertu ziren baita Antonio Arrue zenak (G.B.), *Egan*-eko zuzendarietakoak, eta Gurutz Ansolak argitara zituztenak ere.

Neronek atera nituenetarik *On the waterfront*-i dagokiona eta aurrean daraman sarreratxoa 1954an bezalaxe aldatu ditut hona. Gainerakoak, berriz, itxuraberriturik datoz, zein gehiago zein gutiago. Aldaketarik larrienak honako kritika hauetan aurkituko dira: *Cancha vasca, Julius Caesar, Limelight, Nous sommes tous des*

«Denbora bateko zinema paperak», *Denbora bateko zinema paperak. Koldo Mitxelenari omenaldia,* Bilbo, Bilboko Nazioarteko Zinema Labur eta Dokumentalaren XXIII. Lehiaketa, 1981, 13. or.; *EN* 481.-484. or.; *GA* 417.-420. or.; K. Mitxelena, *Denbora bateko zinema paperak (1954-1961),* I. Mujika Iraolaren edizioa, Donostia, Alberdania, 2006, 13.-17. or.

assassins, Ulisse, Marty eta *City lights.* Eta hor daude hemen agertzen diren tankerara Patxi Altunak prestatu zuen delako *X-en idazlan hautatuak* bilduman, Bilbon 1972, 309-328, horrelaxe kalera zirelako, bai grafiaz eta bai gramatikaz baturantz aldaturik. Gainerakoetan, ordea, axal-axaleko gauzei bakarrik begiratu diet, gainerakoak (baita aditz laguntzailea bera ere) lehengo hartan utzi ditudalarik.

Niri dagokidanez, ez da beharbada alferrik esana izango zinemazalea izan naizela beti, «comme ce n'est pas permis», lehoi koxkor baten orro isilak barrengo ilunpetarik kanpoko argitara tximistak egiten bidali ninduenez gero, izu eta ikara. Ikasi, ikusi nuen puxka ikasi nuen, eta irakur nezakeen pixka. Izan ere, garai hartako Errenderia ez zen munduan aurki daitekeen lekurik aukerakoena gai hauetan trebatzeko eta aitzinatzeko. Badakit orain badela han sail honetan, beste horrenbestetan bezalatsu, lan aurreragotuetan ari den jenderik.

Ikasi eta aditu bihurtzeko egokierarik izan ez banuen ere, ez nuen horrenbestez zinemarako gogoa galdu. Gero, zenbait hilabetez ez genuen irrika hori berdintzeko modu errazik izan: halaz guztiz, orduan ikusi nuen, eta Bermeon ikusi ere, lehenbiziko aldiz *The big parade.* Beranduxeago, ordea, ez zen urritasuna ibili nagusi, barau osoa baizik. Bospasei urtez lehenbizi, eta bi urtez gero, ez genuen ez nik ez leku haietan zebilen beste inork film bakar bat baizik ikusi. Izenaz ez naiz oroitzen (badut haatik *made in Spain* zelako susmoa) eta hobe nuke agian sekula oroituko ez banintz.

Barau luze hori probetxugarri izan zitzaigun noski bekatu bideetan behera amil ez gintezen, baina ordurako grina erraietaraino sartua geneukan zenbaitek, nik behintzat bai, eta ez nintzen inondik ere sendatu. Hobeki esan, are makurtuago eta isuriago irten nintzen joera zaharrera. Zinetan eta benetan ari naizenez gero, esan beharra dut topo egin nuela, kalera baino lehen, Alcalan, Ricardo Muñoz Suayrekin, ordurako zinema kontuetan sartzekotan eta are sartuxea zebilena, eta gero, hurrengo urteetan zenbait aldiz bederen lepo-hezurreraino sartuko zena. Harekin, beraz, eta zenbait ingurukorekin, gauzen berri jakiten hasi nintzen apurka eta pittinka bederen eta horrela lortu nuen Errenderian ezin lor nezakeen ikus-ahal zabalagoa, zabalegia ez bada ere. Eta honetan naizenez gero, esan behar dut Muñoz Suayrekiko lotura, inoiz ezinbestean lasaitu bada ere, ez dela sekula eten. Eta bai hark eta bai nik izan ditugu 1946tik hona gorabeherak eta ezker-eskuinak. Badirudi egitura sakonean elka-

rrengandik hurbilago genbiltzala, elkarren eite bateratsukoagoa genuela, axalekoan ageri den baino.

Zer kritika-modu egin nuen bestek esan lezake nik baino zehazkiago, baina, besterik ez daukadanez gero hemen bere ahoz mintzatzeko, neronek hartu beharko dut, zuzentasunaren kaltetan, harako haren tokia. Diodan, bada, ez naizela gehiegi teknika alderdiez mintzatzen, gauza ez nintzelako, orain ere gauza ez naizen bezala. Horretarako ofiziokoa izan behar, nik uste, eta nik ez ditut abiatu nintzen bideak, erabat besteak, artean utzi. Ez utziko ere, arraioak ez baitu, bizi naizeino.

Gaiari loturik ibili behar, bada, gehienez ere kontabideari hitz pare bat edo opa diodala. Zineman eta bestetan, gainera, ez dakit gehiegi kritika motez, Alexandria ingurukoak baino berriagoak direnez behintzat. Gehiago ezin dezakeenari ezin dakioke gehiagorik eska.

Zergatik hautatu ote nituen hautatu nituenak *Egan*-erako hizpide izan zitezen? Ez dakit, baina zuzenago litzateke beharbada nola hautatu nituen galdatzea zergatik baino. Neronek ere ba ote dakit, gainera? «Aukeraren maukera, azkenean okerra», dio Isastik jaso zigun esaera zaharrak, baina guri, okerra jotzen bagenuen ere begiz, ez zen aukera ugariegirik eskaintzen zigutelako. Badakizue, noski (eta ez badakizue, aski duzue orduko paperak irakurtzea), nolako agortea, idortea eta lehortea eraman behar izan genuen, eta ez zazpi urte ezerezekoa ijito zoriontsuek behiala jasan zuten gisara. Halaz guztiz, izan genuen Buñuelen *Robinson Crusoe* ezagutzeko egokiera, hain aspaldi ez duela Donostia ingurukoren batek gure artean inoiz agertu ez zelako pregoia zabaldu bazuen ere.

Film horien alde onei eta txarrei noraino antzeman eta igarri nien, geroak esan beharko, geroa izaten baita honelako gaietan erabakitzaile bakar: horrenbestez erabakitzaile zuzena ere baden ala ez, nik ez nizueke esango, ezbaian bainago aspaldian. Orduko zenbait, gehienak agian, ikusi ditut gero, oraintsuago, baita arestian ere, eta ez zait maizenik iruditu halako alde bortitza dagoenik egungo egunean burua hotzago (baita noraezean jantziago ere, urdintzetik zuritzera pasa den neurrian) duen kritikoagandik orduko kaxkarinago harengana. Badakit hori ez dela aski, guztiz oker pentsa eta senti baitezakete biok, lehengoak eta gaurkoak.

Euskaraz idazteak baditu alde gaitz nabarmenak, hala nola maizegi txinoz mintzatzea (txinorik gabe) dirudiela, eta zirika ari arren ez dela inor asko konturatzen, batez ere ez dela konturatzen kontu-

ratu behar lukeena bera. Bada lerro hauetan nahikoa ziri aspaldiko adiskide dudan Pepe Berruezori, garai hartan *El diario vasco*-n idazten zuenari, zuzenduak. Alferrik, ez zen horregatik gure adiskidetasuna hoztu. Ezta berotu ere, alazankoa! Ez baitu oraindik jakin Berruezok bere uste eta iritziak kaxkartzat jotzen nituenik.

Egunotan, berriz, hizkuntzaz gainera, ba omen dago delako belaunaldien arteko osin sonatua ere. Ez naiz inondik ere fio, horrexegatik, paper hauek izan dezaketen arrakastaz eta hori, lasaibide izanik, ezin daiteke negargarri izan. Nolanahi ere den, hemen agertzen zaigu berriz duela mende laurdena itzali zen beste munduko arima herratua, eta garai hartako eta garai haren lekuko bezala agertzen zaigu: lekuko bakar ez izateak ez dio inolaz ere lekukotasuna kentzen. Alderdi horretatik bila dabilen bati edo besteri, hain antzina bila dabilenik baldin bada gure artean, argi pittinen bat begira diezaioke.

2

[EGAN 1954, 2-4]

Priestleyk nonbait dioenez, literatura behera omen dihoakigu, batere buru-nekerik gabe begiz ikustea gero eta atseginago zaigulako. Liburuetan, hitzen ordez, irudiak ageri dira eta teatroan, hitzen ordez, ikuskari harrigarriak... eta zankoak. Jendeak horretara omen du joera. Ez da, bada, harritzeko gure artean ere zinemak, begi-festa merkeen horrek, gero eta zale gehiago izatea. 35

Neroni ere, aitortzen dut, horietakoa nauzu. Penagarria da noski goi-mailako literaturak daraman gainbehera; egia da egiten diren film asko behin ere sortu ez balira ez genukeela galera handirik, baina pozoi horretara jarriak gaude eta pozoi horretatik har-alditxo bat noizean behinka hartu gabe ezin gaitezke bizi. Eta gure arimaren eguneroko —edo asteroko— ogia hori dugunez gero, hemen ere aterpe txiki bat, narrasa bada ere, utzi nahi genioke.

Ez zaitezela ordea engaina, irakurle. Hemengo kritikoa eskas xamarra duzu. Eta «amets-fabrika» horietara joatea bere diruz irabazi behar du, ez baita noranahiko sarrera duten kritiko garai horietakoa. Baina, noizean behin bada ere, zer edo zer ikusten du eta atsegin izaten zaio lagunartean ikusi duenaz mintzatzea. Hemen bezalako lagunartea, berriz, gutxitan topatuko du, ezin baitiezaioke hitza inork uka. Horrelako egokiera ederraz baliatu gabe, nola geldi? Barka iezaiozue, beraz, baina ixilik egoteko eskatzea gehiegi eskatzea litzateke.

Egan 1954, 35-38; *MEIG* I, 123.-127. or.; *ZP* 18.-23. or. Zatika: *MIH* 313.-316. or.; *EN* 485. or.; *GA* 421. or.

On the waterfront («La ley del silencio»). Elia Kazanek gehienetan gizarte auziak hartzen ditu gaitzat, eta bai hemen ere. Honako honen gaia ez da berria: lekua oraingoan New Yorkeko portua izatea. Jauntxo batek eta inguruko lau alferrek mendean dauzkate portukoak: inork lan egingo badu, inor biziko baldin bada, haien baimenarekin izango da eta haien esanera egon beharko du. Betiko kontua eta, dirudienez, gaurko kontua batez ere.

Ohi ez bezalako zerbait badu horratik film honek. Oraingo borroka, egiazko borroka, gizon baten arima barruan gertatzen da; horren ondoan gutxi balio dute kanpoko iskanbila eta ukabilkadek. Eta horretarako gutxi bezalako antzezlari bat aurkitu du zuzendariak: Marlon Brando. Honek ez du portuko gazte ezjakinarena egiten: bera da gazte hori, hitz, imintzio, ibilera, pentsabide. Harako *Viva Zapata*-n —Elia Kazanena hura ere— ezpain gainean zeraman bigote zarpail haren beharrik ez du orain, jakina, eta orduko kartoiitxurazko gelditasun hura ere ez zaio nabari.

36

Ingelesek *high-brows* deitzen dituzten kontentagaitz haietako direnek (edo garenek?) esango dute beharbada ez dela hau zinema hutsa, literatura dela. Baina kopet harro ez direnek (ez garenek?) ez dute damu izango ikustera joana. Onak gailen, gaiztoak lotsagarri ikusirik azkenean, alai irtengo dira zinetik, eta sartu baino zintzoago direlakoan gainera, gogoa onen alde baitzeukaten —badakizue alderdi horretakoak izaten garela beti, zineman behintzat— eta eserlekutik mugitu gabe onei eginahalean lagundu baitiete. Eta zenbait pezetaren truke —askotxo badira ere— bihotzeko bake hori ateratzea gutxi al da?

Julius Caesar («Julio César»). Zinera etorri gara gaur ere, ustez behintzat, baina, nola ez dakigula, teatroan aurkitzen gara. Ez gara, ordea, alferrik etorri, ez baitugu sarri horrelako teatroa ikusteko aukerarik izaten.

Teatroa ez ezik, goi-mailako teatroa ere badugu: tragedia. Mundu horretako gizonak, dakigunez, ez dira gure neurrikoak. Geure gogoetak eta nahiak aldakorrak izaten dira; ez dugu beti etengabe batean irauten. Horrako gizaki horiek ordea ez dituzu aldatuko. Ez dute atseden eta jolas beharrik; asmo batek, sentimendu batek, beti batek ordea, darabiltza. Eta hala ere mundu gogor, haserre, odolez zirtatu horrek inguruko hau baino egiazkoago eta ederragoa dirudi eta hor ikusten dugun gure gezurrezko errainua etxeko ispiluan agertzen zaiguna baino zehatzagoa.

Antzezkizunak ez du nahaspila handirik. Zertarako? Shakespearek ez zekien noski antzinako erromarren bizitzaz deus askorik; ustekabean bere garaiko ohitura eta gauzak ere agertu zituen. Baina ordukoen barrunbeak nolakoak ziren —bere garaikoak, gaurkoak eta gerokoak bezalakoxeak, alegia—, ederki zekien, hori bai, eta baita besteri adierazten ere. Ez du beraz hemen zuzendariak —bestelako filmetara ohituak ginduzkan J. L. Mankiewiczek— axaleko zehaztasunaren bila ibili beharrik, *Quo vadis?* batean bezala. Eta teatro dena teatro huts bezala azaltzeko ere gupidarik ez du.

Bruto goibel dabil aspaldian. Maite du Cesar, adiskide eta ongilea, bihotzez maite ere, baina beldur da; honen agindu nahiak ekar ditzakeen kalteen beldur. Ezin berdin dezakeen egarriak erretzen du gainera bihotzaren erdian: aurreko Bruto handi hark azkeneko erregeren mendetik atera zituen erromarrak eta Erromako plazetan daude oraindik haren oroigarriak. Berak, haren pare izateko ahal- 37
mena bere baitan sumatzen duen ondorengoak, zer egiten du? Zertako bizi da?

Cassio berriz espak jaten du. Zer da, bada, Cesar hori? Besteak bezalakoxea lehen, handizkien artean bat; orain lehenbiziko, guzion buruzagi. Noraino jo behar du? Eragozteko, jakina, bide bat dago bakarrik, heriotza, baina Cesar handiaren heriotza zuritzeko ezin eramana eta bekaitza baino estalki apainagorik behar. Hor dago Bruto, ordea, Bruto zuzena, eta Cassiorenak aspaldian zain zegoen hitzak dira honentzat. Ez du eginkizunak alaitzen, goganbehar ezkutu batek adierazten baitio hondamenera doala. Baina ez dio axola. Berak baztertuko du menderatzailea, zeharo baztertu gero, baina ez gorroto duen etsaia, adiskiderik maiteena baizik. Nola eskaini askatasunari horren odola baino eskari ederragorik?

Badirudi alde guztietatik datorkiola Cesarri etsai-asmoen berri. Gau hartako ekaitz, lurrikara eta mirariek, adiskide, emazte eta eskelariaren esanek berbera adierazten diote. Hondamena gainera datorkiolako beldur da bera ere. Ezin halare etxean geldi, edozein gizontxo bezala. Ez ote du bere zoriak orain arte arrisku guzietatik atera? Zoria ordea, berak ez badaki ere, aldatua du, haizea bezala.

Cesarren gorputz odolduaren ondoan harriturik bezala daude hiltzaileak senatuan; kanpoan herria garraxika. Cassiok ongi daki odolak odola eskatzen duela: Marco Antoniok behintzat, Cesarren oinordeko izan daitekeenak, hil behar luke. Brutok ez du horrelakorik entzun nahi. Behar adina odol isuri da; ez da aurrera tanta bat ere isuriko. Zer egin horrelako amesgile batekin? Horren beharrean

baita, horren izenaren eta zuzentasunaren beharrean. Nola agertuko litzateke bera, agerian daraman espa eta ezinikusiarekin, herri haserretuaren aurrean? Brutok berea egin du. Bera mintzatuko zaio aurrenik herriari, gero Antonio. Behar zena egin duela dakien gizonaren hitz eta aurpegi lasaiak herriaren bihotz minduak baretzen ditu eta oihu haserreak ixilarazten. Ez zebilen bera agin-nahian, ez zuen Cesar gorroto, bai ordea askatasuna Cesar baino maiteago. Antoniok du gero hitza. Honek, itzulinguruz bederen, jendearen bihotzetan sua pizteko errekai hoberik badu —urrikia, gorrotoa, dirugosea— eta orain pizten duen suak Bruto eta bere lagunak kiskaliko ditu.

Shakespearek ez du auzirik erabaki nahi. Batzuk eta besteak entzuten ditu, arrazoirik onenak aurkitzen ditu batzuen eta besteentzako, baina ez da bera inoren alde edo, agian, guzien alde da. Bere eskuko da beraz ikuslea nahi duena aukeratzeko. Batek Bruto urrikari izango du, bere asmo garbiak politika-lokatzetan iraulka ikusirik; besteak berriz Cassio, zoro itsu haren mendetik ezin itzur daitekeelako. Batzuek Cesarren handitasuna miretsiko dute, besteek etsaien ausardia. Gogo-gogoko izango du zenbaitek Antonio-
38 ren adiskide zenarenganako leialtasuna, zenbaitek gorroto honen handinahi eta azpijanak. Erabaki gabe dago auzia eta horrelaxe iraungo du mundua mundu deino, eta aspaldiko mendeetan hauts bihurtu zirenen nahiak, usteak, hitzak bizirik izango ditugu gure artean.

Antzezlariak ezin hobeak. James Mason kopet-iluna dugu Bruto beltzuria, eta ez dago besterik esan beharrik. Marlon Brandoren begi ezkutuek biziro azaltzen dute, ezpainek besterik badiote ere, bihotzean daraman su kiskalgarria. Eta ez dira hauek bakarrik. Ezerezeko paperetan maiz ikusi izan ditugun zenbait ere, Edmond O'Brien bezala, gaiak eragiten dielako edo, gorengoen pare ageri dira. Aurpegiz, hori bai; hitzak, jakina, kendu eta aldatu egin baitizkiete. Eta hemen, teatroan baikaude, hitzak ez dira eranskin huts; hitzak dira azal eta mami. Eta hainbeste esaera gogoangarrik («Koldarra ehun bider hiltzen da; bihoztunak ordea ez du heriotza behin baino dastatzen») gehiago merezi zuen.

3

[EGAN 1955, 1-2]

Perfect crime («Crimen perfecto»). Hitchcock zaharra, *suspense*- 47
bila beti bezala (zalantza esan beharko dugu euskaraz), antzerki ezagun honetaz jabetu da gure txolarteak alaitzeko.

Ezkontzak, estatu ederra izan arren, baditu bere atsekabe eta alde txarrak. Zinemak eta liburuek aho batez erakusten digutenez, maiz aurkitzen da senarra bere emaztea «akabatzeko» behar gorrian. Noizik behin, aldatzeko edo, emazteari gertatzen zaio ezbehar hori.

Ez da hori ordea nolanahi egiteko eginkizuna, gizonaren arrazoizko izaerari dagokionez baizik. Lehenbiziko ekitaldia: «Zein dut horretarako biderik erosoena eta, horrela esan badaiteke, dotoreena?», galdetzen dio bere buruari aurrerantzean bizilagunik gabe, «txoria airean bezala», bizi nahi duen senar gizarajoak. Eskolan bezala da: *maxima et minima.* Horren gisatsukoa zen Fermaten galdera hura: «Nondik du argiak A-tik B-ra biderik lasterrena?». Ez du senarrak luzaroko lanik problema hori erabakitzen: badirudi urtean behin gutxienez horrelako egitekoren bat egin behar izan duela lehenago ere.

Bigarren ekitaldia: usteak erdia ustel. Atzekoz aurrera atera zaizkio asmakizun burutsu guztiak. Txunditurik gelditukо ginateke gu, eta txunditurik gelditzen da Ray Milland ere; ez ordea luzaroan. Aurki ipiniko dizkizu berriz aurrekoak atzera eta atzekoak aurrera, muturrak egin behar zuena kirtenak bederen egin dezan.

Hirugarren ekitaldia: «Gaizkintzak ez du inor aberasten», «Berak irekitako zuloan erori zen», eta abar. Senarrak, gizon saiatua

---

Egan 1955, 47-52; *MEIG* I, 128.-134. or.; *ZP* 24.-32. or. Zatika: *MIH* 309.-312. or.; *EN* 487.-489. or.; *GA* 423.-425. or.

izan arren, saiaturik bada, ezin xehetasun guztiak gogoan eduki. Giltzatxo batekikoa ahaztu zaio oraingoan. Ez du gaizki hartu sorbalda gainean jarri dioten eskua, ezta gehiegi harritu ere. Gu ere ez. Gisa horretako asmakizunek nahitaez pot egin behar dutela erakutsiko ez baligute behin eta berriro, ez lirateke laster lur gainean geldituko ezkongaiak eta alargunak baizik.

48

Odol ixurtzerik gabeko heriotze horrek ez gaitu nahigabetu. Joko-legeak bagenekizkien aldez aurretik. Adimena zorrozteko sortua zen jostaketa hori, ez bihotza ukitzeko. Teatroan bageunde, hor ikusiko genituzke orain agurka, oihala altxatzean, hila, bizkarrean sartuak zeuzkan guraizeak eskuan dituela, senar atsegina, emazte ona eta emaztearen lagun leiala. Eta xoko-xokoan, zirritu batetik begira, Hitchcock maltzurraren aurpegi biribila, bere filmetan gertatu ohi den bezala. *Plaudite cives!*

Zaharrago eta ikasiago, Solon zaharrak esan ohi zuen bezala. Eta emazteari besotik helduta bagoaz etxe aldera.

The robe («La túnica sagrada»). Film honen oinarritzat hartu duten irakurgaia oso ezaguna omen da Ipar Amerikan: ez genuen halere horren aditzerik. Ez da harritzeko. Badakizue badirela nonnahi, han eta hemen, askok irakurtzen dituen liburuak eta inor gutxik, jende ikasien aurrean behintzat, aipatzen dituenak. Hauetakoa bide dugu *The robe* ere.

Zorionekoak haurrak eta urtetan aurreratuak izan arren haurtzaroko garbitasunean irauten dutenak! Guk, urteak igaro ahala, barrenean hazi zaigun gizontxo kontentagaitzaren marmarra gero eta nabariago somatzen dugu. Atseginez ikusi nahi genuke film hau, haurtxo bihurturik, baina, geure buruaz ahazturik orain bi mila urteko gizonen artean nahasteko zorian gaudenean, gizontxoaren garraxi latza entzuten dugu: «Ez, ez!». Ez omen dute horrako txotxongilo horiek, ohi baino larriagoak izan arren, erromar itxurarik —nere gizontxoa Filologia klasikoa ikasia duzue, izenez behintzat—, ez giza itxurarik ere. Eta aldamenekoaren oihuak belarrian ditugula, nola amets egin, «Cinemascope» —«mundua sortu zenez gero ikusi den gauzarik miragarriena»— berriarekin ere?

Rashomon. Japondarrek ere badute zinema eta, harritzekoa, Ortega y Gasseten[1] perspektibismuaren argibide polit batekin aurkeztu

[1] Bere adiskide eta ikasleen antzera Don José deitzera ez gara ausartzen.

zaizkigu. Har itzazue hiru lagun —senarra, emaztea eta lapurra— eta bil itzazue elkarrekin basabazter batean. Senarra hil da, hori argi eta garbi dago; emazteari ere zer edo zer egin diote, eta bego honetan. Baina, hau jakin nahi genuke poliziak bezala, nola gertatu dira gauzak?

Entzun ditzagun. Lapurrak du aldi lehenbizi, emazteak gero. Zenaren arimak ere badu zer esana. Azkenean inguru haietan gertatu zen egurkari batek ikusi uste zuena jakingo dugu. Baina, honek 49
berak ere, egi-egia esan ote digu?

Basoan gertatuaren berri nahiz ez ongi jakin, zenbait gauza ikasi ditugu horratik, eta ez nolanahikoak. Asiako bazterrik bazterrenean eta Europako txoko honetan gizonak era batetsukoak direla: gizon, alegia. Han ere, hemen bezalaxe, beste grinez kanpora, nork bere burua goraino jaso eta besterena lurreraino jaitsi beharra duela eragile. Eta, hau da beltzena eta gogorrena, gertakari berbera bi aldetara entzuten baldin badugu —gaurko neska-mutilek irakurtzen dituzten nobeletan edo antzinako poema epikoetan bezala edertua eta goratua, edo oraingo eta lehengo zenbait idazlek ohi duten bezain beztua eta itxuratxartua—, alderik politena ez dela beti, ezta maizenik ere, egiazkoena izaten. Japonian eta hemen gizona —eta emakumea— izukaitz baino beldurtiago, prestu baino berekoiago, bihotzzabal baino zitalago dela, alegia.

Beste irakaspen atseginago bat ere badakarkigute. Film on bat egiteko ez da gauza handiren beharrik: bospasei lagun, basabazterra, etxe edo eliza erdi hondatu bat. Kolore bizirik ere ez, eguzkiaren basoko harrigarrizko ibilerak —«osto-pilo eta izar izunak habe»— eta euriaren etengabeko emana begietaratzeko. Beste zerbait ere behar da apika, baina «zer» hori ez da dendetan salgai daudenetakoa.

A! Ahaztu baino lehen. Haien hizkuntza eta gurea berdintsuak omen dira. Bai, bai...

Escape from Fort Bravo («Fort Bravo»). Atean nago, «Magdalena» ikustera etorria. Nahiago horratik sartu baino alde egin. Negar-usainera jendea erruz dator, eulia goxora bezala. Bihotza erdibituko zaigula agindu digute eta uste horrek alaitzen die nonbait aurpegia. Nik, berriz, osorik gorde nahi nuke, zimurrik ere gabe ahal balitz, gaurkoz behintzat. Bihar, etzi, datorren astean utziko dut, derrigorrekoa baldin bada, ongi marruska dezaten. Egun jakinak jarri behar lituzkete horretarako.

Arizona edo Mexico Berriko lurralde zabal-lehorrak ditut begien aurrean. Bihotza, batere larritu gabe, lasai ari da bere lanean. Ezagunen artean gaude, betiko ipartar eta hegoarren artean, eta huts handirik gabe esango genuke aldez aurretik zer gertatuko den. Indioak ere hemen ditugu, apatxeak (mescalero edo chiricahua), bere buruzagi eta guzti (Cochise, Victorio edo Jeronimo). Eta pizten zaigu gogoan, kandel argi ikara baten gisa, aspaldiko nahi ezkutua: ez ote ditugu behin edo behin indioak garaitzaile ikusiko?

Kanpora goaz. Argi beldurtia aspaldi itzali zitzaigun: astinaldi ederra eraman dute indioek oraingoan ere. Bihotzak ordea, gure
50 bihotz minberak, ez du pausorik bizkortu eta gutxitan ikusi ditugun bezalako lurralde egarrien errainu ederrak irauten du begietan.

Cancha vasca. Trafalgarren nork bere eginbeharra egingo zuelakoan zegoen Ingalaterra. *Egan*-en irakurleek *Cancha vasca* ikusiko dudala eta *Cancha vasca*-z mintzatuko naizela uste omen dute. Hemen naukazue, beraz, gogo onean edo txarrean etorria, zernahitarako gertu. Inguruan zenbait lagun ikusten ditut, inork bultzatu gabe etorriak. Sokarik behintzat ez dut nik ikusi.

Esango dizuet zer den film hori, ikusi gabe lasai geldi zaitezten. Badira nonbait —Euskal Herrian edo— euskaldun izeneko gizonemakume batzuk. Hemen, egia esan, herri koxkor batekoak bakarrik ikusten ditugu, Elantxobekoak, baina besteek ez dute alde handirik izango. Euskaldunik euskaldunenak direlakoan aukeratuko ahal zituzten. Bi motatakoak dituzu: a) arrantzaleak, b) pelotariak.[2] Arrantzale gizarajoek mahonezko atorra daramate soinean eta etxe gainean, teila orde, ez dute hipoteka eta zentsua besterik. Pelotariak berriz, Miamin erositako atorra loratu eta guzti, hemezortzi urtetik hemezortzi urtera agertzen dira herrian, eta hagitz harriturik geldi-tzen inoizko andregaia besterekin ezkondurik aurkitzen dutenean. Beste eginkizunik ez izaki eta, hor aritzen dira atso-agureentzako erruki-etxeak eta umeentzako eskolak egiten. Ez dira asko: ehunetatik bat gehienaz ere. Bestela Elantxobe osoa erruki-etxe eta haur-eskola litzateke.

Esan behar dizuet horratik horrako arrantzale horietaz susmo txarra eginda nagoela. Gaizki bizi direla, bai, baina... Eguraldi ona denean, itsasertzeko arkaitz-mutur batera joango zaizkizu taldeka, galtzak zuri eta gerrikoa gorri. Han egoten dira zain, nor agertuko,

---

[2] Andima —elantxobearra, esaten digutenez— ez dakigu zeintakoa den.

txistulari direlako batzuk, arrantzaleak noski hauek ere. Hasiko zaizkizu txistulariak soinua jotzen, eta besteak dantzan, «espatadantxan», eguerdialdean, izerditan blai, herrira itzuli arte. Eseriko dira orduan kai ondoan dauden mahai luzeetan, nork bere botila ardoa aurrean, eta zintzurra urratu beharrean ekingo diote kantuari: «Antero'n txamarrotia —txikarren bigotia— Arrese'k ei dauko...». Esandakoak, eguneroko zereginak dira. Lekeition edo beste nonbait jai handiak direnean han ikusten dira ikustekoak!

Eramankizunak ere badituztela esaten digute, eta guk sinetsi egin behar. Itsaso delako norbaitekin dabiltza beti zirika, atun bila, eta Itsaso hori beldurgarria omen da eta maltzurra. Leon-kastiloan bezala da: arrantzaleak oraingoan atuna jan, eta hurrengoan atunak arrantzalea. Baina kantari eta dantzari —eta zahatoari eragiten— ari direino ez dira, dirudienez, gehiegi oroitzen ez Itsasoaz ez etxe gaineko hipotekaz. Garbi aitortu beharrean gaude. Euskaldun hauek 51
jende jatorrak dira, zintzoak, leialak, esanekoak. Ezin dute bihotza barrenen gorde: hain dute handia. Pozik badaude, riau!, irrintzi eta saltoka hasten dira; otoitz egin behar badute, emakumeak behintzat, erdi-erdian jarriko zaizkizu, harako Fariseuaren antzera, ezpain-ertzak makur eta begia heze. Eta mutilak gogoko duen neska —edo neskak mutila— ikusten duenean, hango apak eta laztanak, elkarri oratuta, nahiz eta igande-eguerdian herriko plaza nagusian aurkitu! Horrexegatik iruditzen zait, Jainkoak beso-zangoak arindu baldin badizkie, ez diela buruan ere pixu astunik jarri. Dantzaritako sortu zituen nonbait.

Hizkuntza ere bere gisakoa dute euskaldun hauek. Hara zenbait ale, hitzez hitz jasoak: «Afisión que te tienes o así», «¿Por qué te es, padre?», «Atrevido ya te eres o así». Hau da agian harako zenbait auzokok «vasco-románico» deitzen duten hizkera hura.

Film bat egiteko, besterik ere behar da: korapiloa, «istilua». Horretara nator. Espainian —zineman behintzat— «betiko trianguluak» lau alde izaten ditu: senarra, emaztea, senarra ez dena eta apaiza. Horrelaxe hemen ere. Senarra, Iñaki (honela du izena, ez dut nik bataiatu), pelotari izan nahi zuena eta arrantzan gelditua. Emaztea, Begoña, hemezortzi urteak igaro baino lehen aspertua eta Iñakirekin, besterik ezean, ezkondua. Senarraren antagonista, Josetxu, atorra dotoredun pelota-txapelduna Elantxoben utzi zuen andregaiaz berandu xamar oroitu dena. Apaiza geroxeago aipatuko.

Iñakik eta Begoñak seme bat dute: «el» Txantxo (ze izen arrano ote da hori?). Honek pelotari izan behar, eta amak laguntzen dio;

aitak berriz ez du horrelakorik aditu nahi. Josetxuri, jakina, mutikoari laguntzea ematen dio gogoak. Eta hasten dituzu mutur-joka Iñaki, Josetxu eta apaiza. Ez da hau («curita, no; curaso», berak «vasco-románico»-z dioen bezala) makalena. Garbi ageri da ez lukeela beste biak ebaintzeko lan astunik izango, «janzki beltz hauei zor diedan begiramena» galduko balu.

Jaunak ukitu du azkenean Iñakiren bihotz gogorra. Amore eman du: semea pilotari izan dadila nahi badu, lagun diezaiola Josetxuk. Gauzak ez daude halare behar bezala, ongi konturatzen gara: Josetxu eta Begoña elkarganatu behar genituzke. Nola ordea? Ez da erraz asmatzen. Apaizak ere, edozertarako balio duen *Deus ex machina* horrek, ez dezake deus askorik: ez ezkontza hautsi eta ez, daraman jantzia daramala, Iñaki galtz-ipurditik hartu eta arkaitz batetik behera bota. Itsasoa ahaztu zaigu, Itsaso bildurgarria. Ekaitza sortuko dio hurrengo itsasoratzean. Hura ekaitz harrigarria! Iñakik nonbait ontzia sorgindurik dauka, eta Itsasoa, nagi xamar bada ere, gora eta behera ibili arren, ez du ontziak zirkinik egiten, hondoari iltzaturik balego bezala.

Etsi du horratik senarrak, gailen ageri zenean gainera. Aspertu
52 delako edo gure antzera, *de trop* dagoela azkenean ohartu delako edo. Itxi ditu begiak. Badoazke lasai Josetxu eta Txantxo Miamira. Han nonbait, urruti behintzat, edukiko ahal ditu Jainko urrikaltsuak!

Cangaceiro. Lima Barretori eskerrak, zenbait gauza berri ikusi eta entzun ditugu: lurralde berriak —Brasilgoak—, aurpegi berriak —beltz, txuri-beltx eta beltxeran—, kanta berriak —orain arte handik etorri zaizkigunak baino jatorragoak— eta gizaki berriak, ohi baino gizonagoak. Badu, agidanean, Brasilek munduari zer erakutsi bere lurreko aberastasun ugariez kanpora ere.

Izango dira noski berritasun hau gogoko izango ez dutenak. Ez baitira gutxi Iparraldetik datorkigun betiko leloak txepeldurik dauzkanak, eta horrelakoek nahiago zituzketen ohiturazko soinuak eta, batez ere, ohiturazko aurpegiak: Holakorenak eta Halakorenak. Ez dugu inor aipatu nahi, bat edo besteren izena ezagutzen dugularik ere, gure laguntzarik gabe bai baitute nahiko propaganda. Badakizu beraz zer egin, irakurle, horietakoa bazaitugu: «Cangaceiro» izena ikusten duzun lekutik ahalik lasterren alde egin.

4

[EGAN 1955, 3-4]

Limelight («Candilejas»). Iritziak berezi dabiltza. Ez dut behar baino gehiago esan uste, ikusle gehientsuen —goiko eta behekoen— gogoko izan dela esatearekin. Eta hori ez hemen bakarrik, nondinahi datozkigun berriak ohi baino gezurtiagoak ez badira. Zenbait kritikok, berriz, harrera uzkurra egin diote. Lehengo Charlot izaki gogoan, Barojak XIX. mendeko literatura bezala, eta gaurkoa eskasa aurkitzen haren ondoan. 54

Besten aburuak beste, goazen gauzei apur batez geure begiz, betaurrekorik gabe, begiratzera. Egunean eguneango kritikak, nork nahi daki hori, ez du zuzen irizten askotan, ez gehienetan ere beharbada. Guri ere, okerrenean, jakintsuenei gertatu zaiena berbera gertatuko zaigu: erdiz erdi huts egitea. Hala balitz, litekeen bezala, ez geundeke lagunarte txarrean. Badaiteke, ordea, halabeharrez besteak oker egotea ere. Lasai abia gintezke, beraz.

Teknikaren aldetik esankizunik ez dago. Hortan Chaplinek bulda berezia izan du beti, lehen eta orain. Ez du, besteen antzera, kamera batetik bestera gelditzeko mugi beharrik, ikuspide berrien bila. Horrexek harritzen gintuen orain arte, kritiko askojakinak eta gu. «Begira, esaten ziguten, ez du horrek besteen gisa apainduria aberatsen beharrik. Bizpahiru xatar nahikoak ditu ikusgarri agertzeko».

Hizketarena, beste kontua da. Soinua, eta harekin batean hitza, agertu zenean zineman, lehengo mutuan iraun zuen Charlotek. Gogoan daukat nola zioten orduko maisu ikasiek: «Egiazko zinema,

---

Egan 1955, 54-57; *MIH* 317.-322. or.; *MEIG* I, 135.-140. or.; *ZP* 33.-38. or. Zatika: *EN* 491.-493. or.; *GA* 427.-428. or.

zinema hutsa, ixila da berez; ez du hitzaren beharrik. Zinema jator honek, Chaplinenak, aski ditu orain ere zeinuak eta imintzioak, irudi soila, itxurazko edergarri berri horiek jantzi gabe». Baina Charlot bera, urteekin, hasi zen etsaiagana hurbiltzen. Eta azkenean, nork esan, inor baino berritsuago azaldu zaigu. Zaharra hiztuna izaki nonbait.

55 Aitzakiak aise bilatuko lizkiokete, ordea, nahi balute. Neurriz gaineko gizona, jenioa —hitz hori hamaika aldiz entzuna dugu—, ez da besteen legeetara makurtzeko sortua. Nola orduan uka zerok eman dizkiozuen eskubideak? Hitz egin nahi duelako?... Uztaiozue gizonari hitz-aspertu bat egiten, atsegin ez bazaizue ere.

Melodrama omen da. Hitz beldurgarria, euskaldunen artean («Damua garaiz» eta) guztiz ezaguna. Nahikoa litzateke hori entzutea txunditurik gelditzeko. Nahikoa litzateke, oroimena arras galdu bagenu. Noiz ez da izan melodrama ugari Chaplinen zineman? Beti izan da negartia, barre-algara eta negarra elkarrekin nahasiak ibili dira. Eta ez bihotz-ukitu ixila, irribarre goibela, malko-ixurtze nabarmena baizik.

Eta badu negarbide oraingoan, inoiz izan badu. Zaharra begiramen-zur omen dabil, berak dioenez. Horregatik edo, antzeztokirako utzi ditu pailazokeriak —txarlotkeriak—, berebizikoak badira ere. Handik kanpora, estalki urria du Charles Chaplinek Calveroren izena. Chaplin berbera agertzen zaigu eta Chaplin berbera mintzatzen. Negu-mineko hotzikara hezur-muinetan nabaritzen badu ere, adierazi nahi digu zein diren goxo oraindik udazken buruko egun epelak, bere laburrean zein eder. Ilunabarrak, udazkenak —eta gau -neguen itxuraren azpian ezkutatzen zaigun heriotzeak— zirrara ezti-mingotsa zabaltzen digute bihotzean, egunsentiak eta udaberriak ez bezala.

Bere buruaz ari zaigu hemen Chaplin. Behera-behar hori, zahartu eta hil-behar hori, guziona da, baina berea batik bat. Lotsarik gabe? Hala behar ere. Film hau, bakoitza bere arabera eta neurrira, San Agustin edo Rousseauren *Aitorkizunen* sailekoa dugu. Ez du artean zinemak horrelakorik egin, ezta egingo ere berehalakoan, ez baitu inork, askoren eta batez ere diruaren mendean dagoen mundu hartan, horretarako erarik erraz izango. Baina, lehena eta agian azkena izanagatik, zer dela eta uka zinemari literaturari onesten dioguna?

Beste film bat egiten ari omen da Chaplin. Zer esan diezaguke, azken hitza esan ondoan?

Nous sommes tous des assassins. Lotsagarria den edo ez den, film hau gogoz ikusi dugula aitortu behar. Eguneroko hegazti-jateak okitzen omen gaitu azkenean. Eta gure zineetan egunero mahairatzen diguten jakia ez da, egia esan, hegaztikia. Behin behintzat, besterik ez bada, gure alda-nahiak aurkitu du non ase.

Ez gara orain ohi den bidetik abiatuko: gertakizuna poliki josia dagoela, holakoren lana harrigarrizkoa dela, besteak ere hainbestean egin duela, eta abar. André Cayattek ez zuen inoren jolaserako egin film hau, horren bidez mandatu bat —gaur esaten den bezala— za- 56
baltzeko baizik. Ikusleak astindu nahi ditu eta lazki marruskatu, ez balakatu. Betiko leloak utzirik, beraz, ez dirudi lan alferra dakarren mandatu horri begiratzea eta batez ere gurean izan duen harrerari.

Cayatte kontentagaitz horietakoa duzue eta gauza batek kezkatzen du aspaldian. Ez zaio nonbait iruditzen legeak ongi jarriak daudenik edo, hobeto esan, ez zaio iruditzen legearen zigorra behar bezala dantzatzen denik. Esate baterako, heriotzez hiltzen ditugu, Detxeparek zioenez, gaizkilerik okerrenak. Ongi dagoen ala ez, zalantzan jarri da, eta zalantzan jarri nahi gintuzke. Gauza bat nahi liguke ikusarazi, besteak beste: goragoko «ditugu» hori ez dela mintzatzeko modu hutsa, «guk» hiltzen ditugula alegia, ez dituela «beste norbaitek» hiltzen.

Bihoaz aurretik ohar batzuk. Ez dugu horrenbestez esan nahi berarekin bat gatozenik. Hara zergatik. Film eta nobela tesisdunak baino bide zuzenagorik ez ote dago auzi nahasiak garbitzeko? Esaten digutenaren zain itsu-itsuan bagaude, egun hona bihar hara ibiliko gara, orbela haizetan bezala. Orain eskola bila, presondegi ordez, gizarteak eta hazibide txarrak gaiztotu dituen gaizkileentzako; hurrengoan, urkamendia edo gillotina gutxietsirik, gizonak laurdenkatzen zituzten aldi eder haiekin ametsetan. Eta, errukiak garamatzanez gero, esan dezagun gizona, berehala hil beharrean, 30 urtean usteltzen edukitzea badaezpadako errukia iruditzen zaigula. Egia ere da, bai, gaizkile ustekoa gaizkile ez dela agertzen denean, ez direla gauzak, urkatu ondoren, erraz antolatzen.

Orain, ordea, ez digu axola Cayatte zuzen ala oker dagoen jakiteak. Gauza batean zuzen dago, inolaz ere. Zuzentzan ere, lan-banaketa sortu dugu beste gaietan bezala, edo besteetan baino lehen beharbada. Gaizkile ustekoa batek atzi, besteak gorde giltzapean, besteak kondena, besteak urka... eta besteak, guk alegia, egunkarietan irakur. Badugu denok, esaten digu Cayattek, bai gerok ere, zer ikusirik auzi horretan. Ez geuroi —gogorragoak ikusi izan dira—

gerta dakigukeelako bakarrik. Ez; ez delako aski gainera gizon bati, urkatzaileari, erru guztia egoztea eta hura gizartetik baztertzea. Gerok urkatu behar bagenu, alegia, pentsatzen dugun baino astiroago pentsatuko genukeela, behin eta berriro, zertan ari garen.

Gure jendeak ez du, dirudienez, gogoko izan film hau: ez du luzaroan iraun behintzat. Zenbait gauza ez omen ditu ikusteko atsegin. Kritikak ere, Donostiako kritikaz ari naiz, nahigabetsua zelako edo, ez du deus askorik esan. Jendeak nahi duena ematen omen
57 zaio hemen jendeari. Hobeki esana legoke, apika, eman nahi diotena eskatzen ohitu dutela jendea.

Aldi honetan zenbaitek herri xeheari —populuari— azken hitza eman nahi badio ere, zertan eta arte-gaietan, ez litzateke harritzeko herri xeheak gai kaxkar eta belaxketara jotzea. Gure kritikarekin harrituko ginateke, harrimena aspaldi galduak ez bagina. Gizona gizonari dagokion legez jokatzen ikusteak harritzen gaitu, egia esan, bestek ez bezala. Ez ote genuen ikusi nola joan zen *Monsieur Vincent* —ez zen film txarra— tximistak egiten gure artetik, karitateari buruz zalaparta gehiegitxo ateratzen zuelako edo, gure kritikak, edozein *Sor Angélica* edo *Madre Alegría* laudorioz betetzen duen kritika horrek, txintik esan gabe?

Langileak atsedena merezi du, ezin gagozke beti gora begira: egia. Gehienei atsegin zaigu, nekatuak gaudenean, «denbora-paxako» huskeriak ikustea: egia hori ere. Baina noizean behin, orain Cayattek bezala, guzioi dihoakigun auzi larri batez mintzatzera datorkigunak ere arreta pixka bat merezi du gure aldetik.

Gure kritikoek bere eginkizunari eta bere erantzunbeharrari, behin edo behin bederen, begiralditxo labur bat opako baliote, ez lukete noski gehiegikeriarik egingo. Ez da aski sarrera dohanik izatea. Maisutza hori bere gain hartu dutenez gero, gidaritza dagokie, ez artaldearen atzetik ibiltzea. Ez daude gonak laburxkoak edo luzexkoak diren esateko ere. Aukerako gona-neurtzaileak baditugu, aukerakoak eta ugariak, beste zereginik gabeak, horretarako apropos jarriak. Jendeari bere lo nagian iraunarazteko ez dugu kritikaren beharrik: gerok gara horretarako aski eta gehiegi. Jendea esnarazteko behar dugu kritika. Bestela, itsua badabil itsumutil, ongi jaioak gaude.

5

[EGAN 1955, 5-6]

Betrayed («Brumas de traición»). Irakurle argia —inoiz ma- 58
kurtu baldin bada horrelakorik lerro txaldan hauek irakurtzera— ohartu da noski honezkero ez ditudala oso gogoko «Cinemascope», «Superscope» eta antzeko izenak daramatzaten sistema berri harrigarriak. Zahartzen ari naizelako edo, irudiak handi-zabaldu ahala zinemaren barrena eta gogoa mehartzen eta agortzen ari direlako edo.

«Ez bazarete haurtxo bihurtzen, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan», esan zuen Norbaitek. Horrelako zerbait ipini behar lukete maiz asko zine-atarietan. Baina hemen eskatzen zaigun haurtasuna ez da gogo garbia eta apala. Gehiago eskatzen zaigu: haurtasunaren orde umekeria, ate atzean uztea sartzerakoan arrazoi-eskarmentuak. Hainbeste eta hainbeste ohar eta deiren ondoan, noiz ikusiko ote dugu honako hau: «Hamasei urtetatik gorakoei debekatua»?

Ez dizkizuet aipatuko erakutsi dizkiguten «Muxu-zapi» delako baten azken gerrateko ibilerak. «Horien madria nor den» ikusi duenak daki, eta ikusi duenak, ongi aditu baditu ere, ez du gehienetan gogo handirik izango besteri esateko.

Gauza berri bat badu horratik film honek, berri eta apaingarria: Lana Turneren ilea, horizta izana, beltza da oraingoan. Badakizue beraz, film hau ikustera bazoazte, ez zaretela esku hutsik etxeratuko. Clark Gableren kaskoa —ai, gurearen gisa!— gero eta urdinago ageri dela ere esango nizueke, baina hori badakizue honezkero, nik bezain ongi.

Egan 1955, 58-62; *MEIG* I, 141.-147. or.; *ZP* 39.-46. or. Zatika: *MIH* 323.-324. or.

59 *Sign of the pagan («Atila, rey de los hunos»).* «Harrigarria da —dio, gutxi gorabehera, maiz aipatzen dudan Donostiako kritiko erne eta trebe batek— zein zuzen dabilen film hau gertatutakoen ondoan, zein zehazkiro biztu duen Douglas Sirkek aldi joana. Bakan ikusten dugu horrelakorik Ipar Ameriketarik datozkigun gauzetan». Egia da, aitor dezagun lehenbailehen, ez dugula Atila hau gure haurtzaroko eskola-liburuetan ikusi genuen Jaunaren Zigor ikaragarri hura. Baina Historia H-dunak aurrerapide galantak egin bide ditu geroztik hona, gainerako jakintza-mota guztiek bezala, eta nor gara gu gure kritikoaren aldean film honetako gertakariak egiazkoak, edo egi antzekoak behinik behin, diren ala ez erabakitzeko?

Atila gizarajoa! Gogorrean ezin, eta azpijanean liluratzen dute erromar izeneko gizakume apain haiek, bere etxean bertan etsaikeriak sortuz, bere gogoa amets hutsalen bidez nahasiz. Sinestarazten diote azkenean martiriak berak ere —«candidatus martyrum exercitus»— bideratuko zaizkiola, borrokarako gertu. Besterik merezi zuen dohakabeak.

Txorimalo bat izaki film honetan giza neurrikoa, eta haren azken gaiztoa ikusi behar. Nahigabetzen gaitu horrexek. Egingo genuke, ordea, benetako Atila, gure haurtzaroko belarraren etsai amorratu hura, ez zukeela Douglas Sirkek horren erraz azpiratuko.

Veracruz. Erraldoiak ditugu berriz ere, Altzoko Handiaren neurriko gizon-emakumeak. «Superscope»-an egina omen dago. Exer gaitezen bada ahalik urrutien.

Berriz ere ontzia zabala dela derizkiogu, baina edaria urria, eta ez onenetakoa. Urruti gaudelako beharbada. Robert Aldrichek —Venezian bigarren Zilarrezko Lehoia eraman du aurten —hainbestean moldatzen ditu irudi moldakaitzak, ofiziale ikasiari dagokionez. Elia Kazanen *Viva Zapata* gogorarazteko saio bat edo beste egiten du, erdi barregarri erdi negargarri. Barka bekio, ez baitzekien zer ari zen.

«Azkenean —besteren hitzak hartuko ditugu ahoan—, ikusia zegoenez, Ben Trane zintzoak hiltzen du Joseph Erin bihurria». «Gaizkileak ez du inoiz irabazten»: lelo hori ere nonbait entzuna bide duzue. Zergatik ordea horrenbeste aldiz entzun eta ikusarazi? Ez zaigu inor ari gau eta egun bi eta bi lau direla esaten. Dioten bezain gauza argia ote da hori?

Infernuko atea. Ez da gutxi esan film honen koloreaz, eta halaz guztiz ere ez gehiegi. Halakoa da izan ere: ugaria, gisakoa, bizia izanik, den nabarmenkeria apurrenik gabea.

Esango nuke, horretaz kanpora, ez dela *Rashomon* adinakoa, beste Japonian egindako film bat aipatzeko. Giza-izaera barrenenaz mintzatzen zitzaigun *Rashomon,* gizona gizon —nahiz Japonian, 60
nahiz Euskal Herrian— egiten duten zer nagusi horietaz. Hemen berriz, kolorea baztertuz gero, bereizgarriak daude agerian: ohitura, aurpegi, arropa, etxe...

Arrotz- eta urrutitasuna dugu hemen gailen. Ezagutzen ez ditugun antzezlariek eskaintzen digute, antzeztoki nabar zoragarri batean, ohi ez bezalako antzezkizun bat. Darion arrotz-usainak kilikatzen ditu gure zentzu-adimenak. Dardara ordea axalekoa da, egun-argiak urratzen duen amets-itxura, ur eraginak ertzeko gauzen errainua bezala.

Zein ikusgarri horratik, eguna joan eta eguna etorri, begietaratu nahi diguten film-andana gogaikarriaren artean!

Rear window («La ventana indiscreta»). Nonahi aurkitzen du Hitchcockek bila dabilen gaia. Bereganatzen du, eta itzultzen digunak, nahiz azala era askotakoa izan, mami bat du beti: zalantza.

Gai aukerakoa topatu du oraingoan W. Irishen ipuin batean. Elbar batek, hobeto esan elbarritu batek, ez du leihoa beste ikuskizunik: leihotik ikusten duen etxartea alegia. Udako beroak zabaldu ditu auzoko leihoak, eta leiho horietan barrena sumatzen du aldamenean gertatzen den zerbait. Ez osoro haatik: behar adina ez, eta agian behar baino gehiago.

Emaztea hil ote du auzoko morrosko horrek? Badirudi baietz, badirudi ezetz. Elbarrituak eta guk, jakina, baietz izatea nahi genuke. Emango ote digu Jainko onak nahi goragarri hori beterik ikusteko grazia? Egingo nuke baietz; baina ez diot, badaezpada ere, inori agertu nahi gorderik dagoena, ezta auziaren gorabehera ugariak azaldu ere.

Senar-emazte horietaz gainera, beste zenbait auzokoren bizitza ere erakusten digu kamera zorrotzak. Eta gehienoi atsegin zaigunez giltza-zulotik zelatan egotea, egon gintezke hemen adi-adi, batere lotsa eta damurik gabe. Ez da egokiera txarra.

Zergatik *La ventana indiscreta?* Ez ote litzateke zuzenago, eta biziago, *Ventana al patio?*

Muerte de un ciclista. Bide ederra egin du Bardemek Berlangarekin batean egin zuen *Esa pareja feliz* hartatik hona.

Ez noakizue gertakizunen berri ematera: izenak berak salatzen ditu aski. Bardemen kontaera daitekeen arin, labur eta zoliena da.

Ez du hutsik, ezta betegarririk ere. Onenen parean jar daiteke, lotsarik gabe. Ez dio inori zorrik.

Baina oraingoan ez zaigu Bardem kontatzen hasi noiz eta nola konta badakiela erakusteko. Ipuinak badu miztoa, eta suge-miztoa gainera. Nabari zaio ez dela gaia zenbaiten (askoren edo gutxi ba-
61 tzuen?) gogoko izango eta hala ere, edo horrexegatik beragatik, batere beldur eta gupidarik gabe azaldu nahi luke. Badirudi eginahalean minberatu beharrean dabilela minbera daitezkeenak. Ezin esan, bada, eskua gorde duenik: gehiegi agertu du, aukeran.

Ez da gaitz antzematen zer gertatu zaion. Eguneroko arto bero usain nabarmenak okitu du nonbait, eta arnaspideren bat ireki behar leher-eztanda gaizto egingo ez bazuen. Ondore makurrak izaten ditu usain horrek gehiegi hartzen bada. «Gainalde zurituak nahikoa erakutsi eta goraipatu ditugu —esan du berekiko—, goazen behin zoko ilunak miratzera». Eta, estalki apainen azpian aztarrika hasiz gero, badakigu gutxi gorabehera zer agertuko den. Ez da harritzeko Bardemek ustelkeria ateratzea eskua betean.

Zerk eragin dio? Gorrotoak, betiko axal-eder zaleek dioten bezala, ala maitasunak? Maitasunak ez baititu nahi eta ez begiak lausotzen, aitzitik argitu eta zorroztu egiten ditu sarri. Eta maitasun begi erne hori ez da batzuetan, gehienetan ez bada, kaxkarrena izaten. Geure buruari ederretsirik, agertzea komeni ez den alde txarrak azpikoz gora alderantziz ari garenean, maitasuna ote dugu beti eragile?

Bardemen garraxiei gorrarena egin diete askok hemen. Haizeerauntsia edo olatu zakarra datorrenean egiten dena: burua makurtu eta ahoa itxi. Ahulduko da haren kemena eta ixilduko da noizbait haren burrunda. Eta lehenago ixil dadin, ez bedi aipa ere.

Maiz aipatzen dugun, eta maizago aipatu behar genukeen kritiko batek eman digu geroxeago «Espainiako zinema onaren» artean egin duen aukeramena: *Historias de la radio*-rekin, *El Judas, La mies es mucha, Un caballero andaluz,* eta abar. «Abarretan», ez dakigu Bardemen filmen bat, hau edo aurreragokoa, sarturik ote dagoen. Gorde diezaiola Jaunak begia luzaroan! Ez dakiola behintzat gerta Doniane inguruan sorginaren begiari gertatu ohi zaiona!

Ulisse. Herbartek esan zuen, oker ez banago, ez dela *Odyssea* baino irakurgai egokiagorik haurrak grekoa ikasten abiatzeko. *Odyssea*-n, izan ere, itsaso goldatugabean barrena zabaltzen diren bide bustiak eta urak inguratzen dituen lurralde ezkutuak izaki beldur-

garriz josiak daude oraindik, haur-ametsetan edo haur-ipuinetan bezalaxe. Han daude nonbait kuzkurtuak pixti itxurako arkaitz-zurrunbiloak, lamiak, Tartalo gizon-jalea...

Ez da noski hori bakarrik *Odyssea,* baina hori ere bada. Eta nor ausar zitekeen horrenbeste arriskuren erdian grekorik maltzur eta burutsuena, Ulysse alegia, izan ezik? Eta, ausartzea asko ez dela, nor atzera itzul urteen buruan, hartaz kanpora, oso eta bizi —Simbad 62
Marinela geroago bezala—, bere jaioterri harritsura?

Ez dute gaizki zinemaratu —italiarren eskua ageri da horretan— zaharrak ondu duen ipuin eder hau. Iraultzean, hala behar eta, zenbait gauza gelditu dira lehengo ontzian: jainko-jainkosak aurrenik, hain giza irudiko eta halaz ere hain bestelako. Beste zenbait hutsarte nabari dira, baita oihal zaharrari ez dagozkion adabakiak ere: infernuetara jaistea zakur-amets edo sorginkeria hutsal bihurtu da, ardoa egiteko ez da mahats-aleak oinkatzea aski, liktore-aizkorak —horrela izendatzen baitituzte Ithakako jauregian ikusten ditugunak— ez ziren noski ugariak garai hartako Grezian, eta gainera gainerakoak. Hau ere bai: oroimen galtze edo amnesiarik gabe lasai geldi gintezkeen behingoz behintzat.

Beste esankizunik ere badago, larriagorik beharbada. Ulysseri —zergatik, ordea?— halako Luzifer-airetxo bat erantsi diote, edo Prometheu-airea, Greziatik alde egin nahi ez badugu. «Ulysseren ibilerek —adierazi nahi digute ia irudi bakoitzean— erakusten digutena hauxe da: jainko etsaiei, Izadiaren indar itsuei alegia, gogor egitean dago gizonaren handitasuna. Honela, bere bizi laburra, beldur eta gupidarik gabe, galbidean ipintzen duelarik, jasotzen du bere burua, hilkorra izan arren, jainko hilezkorren gainetik». Eta atertu gabe aditzera ematen diguten irakaspen honetaz jabetu ez bagina ere —ez digu guzioi argitasun berbera eman Jainkoak: zinemagile izango ginateke bestela zinema-ikusle izan beharrean—, astiro azaltzen digute azkenean *De rerum natura*-tik hartua dirudien hitzalditxo baten bidez. Ez da harritzeko beraz Ulyssek Poseidonen estatua itsasora amiltzea film honetan, eta oihu eta garraxika aditzera ematea bere izena Tartalo begi-bakarrari.

Horrelako harrokerietan ibiliko zitzaizuen Aias Oileu bat —«Onik irtengo nauk, baita jainkoek besterik nahi badute ere»— baina ez Ulysse. Ez zion honi agian jainko maitasunak gehiegi eragingo, baina bai jainko-begiramenak edo, garbiago esateko, jainko-beldurrak. Eta hau omen da egiazko jakinduriaren oinarri nagusia. Ez zukeen, bada, ezinbestean izan ezik, inor haserraraziko, ez goi-

korik ez behekorik. Badaezpada ere, esango luke euskaldun jatorrak.

Batez beste, ordea, jantzi berri atsegina egokitu diete antzinako bertsoei. Aspaldiko ontzi bateko irudi beltzetatik itzuria dirudi Kirk Douglasek. Eta ba ote dago esan beharrik ez dela begi-nekea Silvana Mangano berriro ikustea?

6

[EGAN 1956, 1]

Not as a stranger («No serás un extraño»). Ipar Ameriketako zine- 50
maz zerbait dakitenek —etxe aurre zuritua baino barrenagoko zerbait, alegia— badakite Stanley Kramer dela oraindik, hiru edo lau lagunekin, zerbait esan nahi luketenetakoa, noizik behin behintzat. Hau da, ez duela aski betiko baiezka aritzearekin, hango gauza eder eta atseginak —zorioneko «amerikar bizibidea»— eztarria urratu arte goratzearekin. Jendearen burua, buruhausteak astintzeko aitzakiarekin, arintzeko edo. Are gehiago arintzeko, alajaina!

Honako film hau ez duzue inondik beste munduko gauza. Badu haatik halako bizitz itxura edo egi antxa. Horko lagunen buruhausteek badute gerok ditugunen, edo izan genitzakeenen, eitea. Ez dira, esan nahi dut, zineman egunero ikusten ditugun neskatxa panpox, gazte beldurgabe eta blankolari huts-ezinenak.

Geure burua aipatu dut, eta ez dakit zuzen mintzatu naizen, nik behintzat ez baitut Hipokratesekin zer ikusirik. Ahotan ditugu beti mailak, gizarte-klaseak, eta ahaztu egiten zaigu sarritan maila horiek, nagusi-langileez gainera, mota askotakoak direla. Esate baterako, Elizan irakasleak eta ikasleak bezala, maila batean —goikoan— daude medikuak eta bestean —gero eta beheragokoan— eriak.

Eri gaudenoi edo gaudezkenoi beti zaigu atsegin mediku-gaiak ikustea eta irakurtzea. Horrelaxe, andre atezain zarpazuak ere irrikitzen egoten dira erregezko eta handikien ezkontza eta jaien berri jakiteko, nahiz zineman nahiz aldizkarietan. Eta handizki arteko ixtilu beltzen baten aztarrenik atera ahal balezate, are gehiago. Gu ere

---

Egan 1956, 50-52; *MEIG* I, 149.-152. or.; *ZP* 47.-51. or. Zatika: *MIH* 325.-326. or.; *EN* 495.-496. or.; *GA* 429.-430. or.

bagaramatza medikuen azpilan okerrei buruz, horrelakorik baldin
51 bada, zerbait jakin-nahiak, baina zinemak eskaintzen digun zirritutik ez dugu askorik ikasiko. Zinemagileek nahiago dute nonbait mediku izandun eta indartsuen ederra irabazi eri arloteona baino.

Agente especial. Zaharrak berri. Eguneroko doinua zahar-berritzeko erantsi ohi diren aldakuntza apurrak sartzea ere ahaztu egin zaie. Esan beharra esana dago honenbestez.

Gaiari buruz, ordea, badago zer esanik. Gisa honetakoak darabiltzaten film eta liburuak usu datoz azkenaldi honetan. Badirudi, batetik, irakasbide ona eman beharrean datozkigula, okerbideak utzi ditzagun. Gaizkilearen gorrotoz sortu direla, beraz. Baina, bestetik... Ez ote du lelo luze honek nolabait ere gaizkileaganako joera ixila edo gaizkilearen egintza azkarrek sortutako halako harrimen ezkutua salatzen?

Gaurko Estatua —Miranderen ugazama— omen da, euskal deitura izan arren euskaldunak oso gogoko ez gaituen idazle batek dioenez, gaurko gizonaren etsairik porrokatuena. Eta ona denean, areago. Ogia —lehorra badere—, jakitea, lasaitasuna ematen dizkigu, eskatzen ditugunean —eta eskatu gabe ere bai, inoiz edo behin—, baina horren truk gero eta estuago lotzen gaitu. Ahalmen eta indar oro —baleak itsasoko xardinak bezala— biltzen eta bereganatzen ari den Goliath hori baino indartsuagorik nor? Nor, beraz, horri gogor egitera ausartzen dena baino ausartagorik?

Eta, dirudienez, horixe egiten du gaizkileak, azken gaiztoa izango badu ere. Egokiago izaten da, azken gaizto horri ihes egiteko ez alde ez kontra egotea, ez barrenen ez kanpoan. Baina zehar-jokoak, azpijanak, ez du ez ausardiarik ez prestutasunik. Ez, zineman amesten dugun amets ezkutua gaizkile ausart eta lotsagabearena da.

Erreka joarazi diogu berriz ere gaizkileari, geure buruak zuritzeko edo. Hasieran eta erdialdera lasapide apur bat eman diogu, itzulbiderik ez duen muga hartaraino aurrera dadin. Jakinaren gainean geunden, ordea, azkenaren jakinean alegia, bera eta gu. Azken eroriko horrek ez ote du, halaz guztiz ere, antzinako tragedian bera baino gehiagoko indarrek menderatua, ikusleak urrikiz beterik, izarretaraino jasotzen zuen *katastrophé* haren eiterik? Urrutitik badere, bide luzetxoa baita Atenastik Hollywooda.

Marty. Film honen gertakizuna gexa xamarra da, eta gexak dira bertan agertzen zaizkigun lagunak, batez ere bi nagusiak. Gure bizitzaren eta geronen antzekoak.

Marty harakin gizarajoari aspaldi etorri zitzaion ezkontzeko garaia, baina ezkongai dago oraindik. Ez ditu neskatxak Montgomery Cliftek 52
beste liluratzen, lotsatia izateaz gainera lodixkoa delako. Gu ere gehienetan, lodixkoak ez bagara, mehegiak aurkitzen gaituzte aukeran.

Gutxien uste duenean, beste bere gisako arima bakar bat aurkezten dio halabeharrak. Gainez egin behar du pozez. Biharamunean dator, ordea, hotzaldia. Lagunek barre egiten diote —neskatxa ez da aldamenean harro-harro erakutsi nahi izaten ditugun horietakoa— eta bere ama ere, «Noiz ezkondu behar duk»-ka beti ari zaion ama, ez du semea ezkontzeko bidean ikusteak gehiegi alaitzen. Barrenak agintzen diona batetik eta zer esanak bestetik dituela, nora jo?

Deus gutxiko arazoa, ikusten denez. Erabaki gogorragorik hartu beharrean aurkitu ziren bai Cesar Rubicon ibaia igarotzerakoan eta bai Cortés ontziak zulatu aurrean. Baina, bere ezerezean, ez da Martyrentzat ardura gutxiagokoa, ezta errazagoa ere.

Zer du bada film honek? Ezer ez. Zera... zintzoro, apaingarririk gabe, darion egi usain hori. Italiakoa ez ezik, Ipar Amerikako zinema, behin bederen, ixpilu bihurtu zaigu, geure aurpegi-gogoak ezagutzeko moduan. Edozein ixpiluk bezala, baditu noski bere huts eta oker-aldeak, baina eginahalean saiatzen da inguruko bizitzaren errainua jasotzen. Ixpiluan ikus dezakeenaren beldur denak, amets ederragoak darabiltzalako edo, hobe du *La sirena de las aguas verdes* edo antzeko zerbait ikustera joan.

Diren baino hamar halako ardandegi gehiago irekiko balira —ez da hau nik asmatua—, ez lirateke hordiak hamar aldiz gehituko; etxean ditudan halako bi ohe baneuzka, ez nuke horregatik lo gehiago egingo. Ipar Amerikan, dantzaleku eta jolastokiak ugariak izanagatik, ez da jendea, Martyk erakusten digunez, bestetan baino alaiago. Poz eta negar-iturria, uste ez badugu ere, bihotz barrenean dago, eta barrengo hutsa ez dezake kanpoko ezerk bete, ez han eta ez hemen. Mickey Spillaneren nobelak ez dira gainera betegarririk onenak.

Eskerrak zor dizkiogu, beraz, Delbert Manni, besterik ez bada ere hemengo sukaldeen antzeko bat edo beste han ere gelditzen dela erakutsi digulako. Zertxobait lasaitu gaitu hori jakiteak. Eta besterik ere bada. Zintzo eta biziro, inorentzat zurikeria eta balakurik gabe, beti jator eta zenbait aldiz ederki baino ederkiago mintzatu zaigu Cannesko urrezko palmondoa irabazi duen film honetan. Asko lagundu dio, besteak beste, Ernest Borgnineren lanak. Hemen eman ziguten *From here to eternity*-ren laurden exkaxa ikusi dugunok ezaguna genuen.

7

[EGAN 1956, 2]

Robinson Crusoe. Ez da hau Buñuelen *Zakur andaluza.* De- 79
nentzat, hazientzat eta haurrentzat ere bai, ari da oraingoan. Beude behingoz bide berriak: gabiltzan lehengoetan barrena.

Eta, halaz guztiz ere, ez dira bide horiek zeharo betiko bideak. Buñuelek badu, denentzat ari bada ere, zer berezi bat. Buruz dakigun ipuin honek, haurtxorik beldurtiena asaldatuko ez duten Robinsonen ibilerak, berak esanda, uki gaitzake.

Zenbaitek alde hauetan —Ganivet eta Sánchez Mazas datozkit orain gogora— Robinson beheratzeari ekin dio, bigarren mailako giza sinboloa, merkatarien neurrikoa, dela eta. Ez dakit, ordea. Deus gutxi ote da, bere esku hutsen eta halabeharrak eskaini dizkion lau pusken laguntzarekin, inguruko etsai itsu eta begidunei gogor egitea? Deus gutxi ote da, batez ere, nori bere barruan bakardadeak sortzen dizkion deabru menderakaitzak makurtzea? Gizontasun osoa behar horretarako, inoiz gizontasunik behar izan bada. Moldatuko ote ginateke Robinson adinean, horrelakorik gerta balekigu? Gu —ni behintzat— ez, eta lanak izango lituzke Sánchez Ma- 80
zas jaunak berak ere.

Dan O'Herlihyk —lehen aldiz aditzen dut bere izena— prestutasun berezia eman dio jantzi duen pertsonari. Eta, Robinson izaki, bakarrik zegoen. Buñueli eskerrak lehenbizi eta berari gero, ez du koloreak berak ere film hau itsustu. Eta zernahi itsus zezakeen.

Romeo and Juliet. Renato Castellanik eskeini digun XV. mendeko Veronak ez du berdinik izan zineman. Harri zaharren azal ho-

---

Egan 1956, 79-81; *MEIG I*, 153.-155. or.; *ZP* 52.-54. or.

riztak ez dario kartoi-usainik. Zeru garbiak —eta han, urdinaren gainean, bizpahiru zuhaitz lirainen hosto ilunak— *Quatrocento*-ko pintatzaileenak dira. Jantzi-soinekoak, etxe barrenak, Vladen musika, dena da eder baino ederragoa. Eta ordukoa.

Gutxien ageri dena, beharbada, Shakespeare. Badakizue zer gertatzen den operarekin. Musikoak, buruan dauzkan musika-zatiak kokatzeko, zenbait agerraldi behar lituzke: maitaleen bakarkako hizketa, edo herri osoaren plaza nagusiko bilera, edo agure begiragarriaren hiletak, edo bi etsairen borroka... Inorengana jo beharko du batzuetan, ea iruten dion hari berririk, ale bakan horiek elkarrekin nolazpait ere lotzeko. Besteetan, eginik aurkitzen du lana norbaitek, horrelako usterik gabe, antolatu zuen gaian.

Horrelaxe, Shakespeareren hitzak hartu ditu aitzakia Castellanik. Ba ote zitekeen libreto hoberik begi-belarriak ederrez asetzeko? Eta, ari den musika harrigarria denean, ez dio inork hitzei jaramon handirik egiten.

Galduan irten al gara? Ez dakit. Pizkunde-arokoek oso zuten gogoko gaxte-gaxtetango maitasunaren indar porrokatzaileak dakartzan hondamenak azaltzea:

> Amoria itsu da ta eztazagu zuzena
> Eztu uste berzerik dela lekot maite duyena
> Suyak bano gaizkiago erra diro gizona
> Itsasoak ez iraungi eraxeki dadina.

Guretzat, berriz, ipuin hori, entzunaren entzunez edo, lizunduxea ageri da, ez du lehenagoko indarrik. «Zorte etsaiak» Romeo eta Julieta nola galbideratzen dituen berriz ere astiro-astiro ikusi eta entzun beharrak ez gaitu agian gehiegi kilikatzen. Aspertuko ote garelako beldurrez edo, klasikoekin gaudela aspertzeari ez baiteritzogu egoki, klasikoek, egia esan, maiz gogait eragiten badigute ere.

81 Duela zenbait urte —ez hainbeste, horratik— bestea ikusi genuenok —Norma Shearer eta Leslie Howardena, eta John Barrymoreren Mercutio— badugu halare zalantza bat. Maitaleak ez ziren gaztetxoak, oraingoak bezala; inguruak ez ziren honen zoragarri, ez alderatzeko ere. Baina, halare, ipuina zaharra eta aspergarri xamarra, eta zatarrak erdipurdikoak izanik ere, badu teatroak halako «zera» bat, hemen aurkitzen ez duguna.

8

[EGAN 1956, 3-4]

The most beautiful woman in the world. Aurpegi harroa dakar film honek, eta harroagoa eraman dezake. «Munduan den emakumerik ederrena» ez ezik, «Munduan den filmik traketsena» deitzea ere merezi luke. Norknahi daki bigarren izen hori nekezago dela bide onez irabazten aurrena baino. Emakume ederrak, izan ere, maiz xamar aurkitzen dira, baina ez dira, ezta alderatzeko ere, film makur eta aspergarriak bezain ugari sortzen. 94

Nahasi askoa duzue film honen odola. Hori sortzeko batu dira, ezkontzaz ala sasi-ezkontzaz ez dakigu, Italiako edertasuna —Gina Lollobrigida deritza— era Ipar Ameriketako trebetasuna, Robert Z. Leonard izenekoa, agi denean. Senarra diruduna dela diotenak ere badira. Behin batean, mendi baten erdi-beharretatik xagutxo barregarria jaio omen zen. Ez zaio erraz igartzen, ez da harritzeko noski, orain aurkeztu diguten umeari zein haritakoa den. Ez da ez bildotsa, ez antxumea, ez moxala, ez txitoa, ez urrixa, ez ordotsa. Halako mustro edo bidutzi itxuragaitza dirudi. Belarriak, nolanahi ere, asto-belarriak dira.

Gina gaixoa saiatzen da, ba: batean mutur-joka —edo zimatik tiraka—, bestean ezpata dantzatzen, hurrengoan *Tosca* kantari. Baina probetxu hobeko ahaleginak ikusi izan ditugu.

Galdetuko balit norbaitek ea merezi duen Ginak hor daraman izengoitia, erdal idazkiez beste norbaitek esaten duena esan beharko nioke: «Ez gara nor, adiskidea, auzi hori erabakitzeko». Nor banintz ere, ez nintzateke sartuko, nere gogoz behintzat, horrelako liztor

---

Egan 1956, 94-97; *MEIG* I, 157.-161. or.; *ZP* 55.-60. or. Zatika: *MIH* 327.-328. or.

-habian, harako Paris (ez Frantziakoa, alegia) gizarajo hura bezala. Bestalde, hori baino gehiagoko buruhausterik badugu noski, zuek eta nik.

Altri tempi. Lehena eta oraina. Lehengo aurpegiak, esanak, ohiturak eta janzkerak barregarriak iruditzen zaizkigu: are barregarriagoak igaro berri direnak antzina-antzinakoak baino. Ba ote dugu, ordea, lasai eta kezkarik gabe barre egiteko eskubiderik? Hobeak eta ederragoak ote dira gureak?

Lehen hori, nolanahi ere, ukigarria izaten da. Gai polita ez du Alessandro Blasettik gaizki erabili. Onean ere ez du gehiegizkorik egin. Ur-axalean ibili da, itsasontzia bezala: ez da inorentzat nekagarri izango, baina ez du inor liluratuko.

Zenbait irudi atseginez kanpora, bi ixtorio gelditu zaizkigu gogoan. Bata, D'Amicisen «Calabriar turuta-jotzaile koxkorra»: calabriarra izan beharrean lonbardiarra edo siziliarra izatea badaiteke. Gutxi gorabehera, badakizue, Orauneko Errolbak itzuli zigun «Florenziar idazlari koxkorra»-ren kidea. Handikiro, erretorika goitarrez emana, batere ironiarik gabe. Ironia gerok baitaukagu begietan, soldadu azkar haiek italiarrak direla gogoratzen garenean batez ere. Lotsarik gabe sinesten zuten oraindik joan den mendekoek hitz ederretan. Guri, ordea, hitz ederretan ez ezik hitz horiek adierazten dituzten gogoeta ederretan ere sinesten ez dugunez gero, barregarri agertzen zaizkigu, haurtzaroko jostailuei ederretsirik bizi diren gizon-emakume hazien antzera. Nahiz barrenen daukagun amets eder haien hondamendiak sartu digun arantza mingarria.

Bestea, berriz, «Frineren auzia» da, edo delako zerbait. Jendea aspertuxe zeukalakoan edo, azkenean jarri dio film honi Blasettik bixigarri pixka bat, pikardi ttanttoa. Vittorio de Sicak, napolitar jatorrari dagokionez, solo luze bat kantatzen digu, bere herriko kantarien araura. Gina Lollobrigidak aski du nonbait begien aurrean agertzearekin, ia ahoa zabaldu gabe. Bera da nahiko pizgarri, pentsatu bide zuen Blasettik. Eta azken-azkenean bilotxik uzten du de Sicak gure Lollo auzitegikoen aurrean, eta bide batez, jakina, gu guztion aurrean. Eranzte hori gezurrezkoa edo —garbi baino zehatz hobe— sinbolikoa dela esan beharrik ba al dago? Nork nahiko luke besterik?

Hombres olvidados. Bi izenek ekarri gintuzten zinera: egilea Stanley Kramer da, oraindik bere eskuko omen delakoa, eta zuzen-

tzailea, Edward Dmytryk. Hiru izenek esan bagenu, hobe, protagonista Kirk Douglas baita.

Izenak eta izanak bateratsu dabiltza oraingoan, Jainkoari eskerrak. Azala itxurazkoa da eta, azalaren azpian, bada mamia. Dmytrykek, dirudienez, lehengo lepotik du burua. Eta oker-antxean, gainera. Ez zioten zuzendu, leherrenak egin arren, McCarthy senadore prestuak eta bere lagun argiek.

Malabarista berdingabea, judua izanik ere, bizirik atera da, bizirik baina ez osorik. Famili galtzeak eta giltzapean egoteak ireki diote zauri ezkutua ariman. Hemen, datorren leku honetan, ez dute mala- 96
baristen behar handirik. Lanean ari dira gelditu gabe guztiak, zahargazteak, gizon-emakumeak, beren herria —zaharra eta berria— jaso beharrez. Ez du ongi hartuko malabarista lur berriak, neke-oinazeak eraman beharko ditu bakea erdietsi baino lehen.

Lur hori Israelgo estatu berria da. Laugarren izen horrek ere erakarriko gintuzkeen film hau ikustera aurretik aipatu izan balute. Egile-zuzentzaileek ez dituzte inolaz ere begi txarrez ikusten juduen ahaleginak. Besterik baino gehiago, badirudi eginahal izugarri horien berria zabaldu nahi dutela mundu guztian barrena. Gerok ere —zerbait jakiteko zaleturik geunden aspaldian— ez ditugu gogo gaiztoz ikusi. Ikusgarria da, eta harrigarria. Munduaren lau kantoietatik bildutako jende horrek jaso duen lurrak eta herriak, gainera, orain zenbaitek hain gorroto duten Europaren antza eta eitea darama.

Gure haurtzaroko judu maltzur haiek nola ari ote zaizkigu kristau itxura hartzen? Juduak berak gogokoago ditugulako ala juduen ingurukoez aspertuxe gaudelako?

City lights. Kexu ginen lehen Hollywoodeko pelikulak ugari eta bestetarikoak urri genituelako. Orain, gero eta hobeto gabiltza, Hollywoodetik ere deus gutxi etortzen zaigu.

Honi eskerrak, eskasiak berak ere alde onak baditu eta, zeluloide zaharra agertzen zaigu noizean behin. Behin behintzat ikusgarria: aspaldiko Chaplinen *City lights* maitea.

Noiz egina? Duela hogeita hamarren bat urte, ez naiz oso ongi oroitzen. Ez dugu, bada, egokiera txarra kontuak garbitzeko. Gazteagoa banintz, hogeita hamar urte hauetan zinemak egin duen aurrerabidea ikusteko esango nuke. Baina, hain gaztea ez naizenez, nahiago dut begiratu ea beti aurreraka ibili ote garen.

Nonahi ageri da aurrerapena. Gure gurasoek baino jolas gehiago dugu, lasterrago gabiltza, haiek eztanda baten bidez etxe bat dese-

giten bazuten, guk herri osoa txeha dezakegu. Haiek baino hobeak eta dohatsuagoak ote gara, ordea, horrenbestez? Eta, zinema artea denez gero —zazpigarrena?—, gure artelanak ederragoak ote haienak baino?

Artean keinuka —gor-mutuen antzera— ari zitzaigun zinema hasi zen behin, ez oso gaxterik, hizketan. Hizketan ez ezik, soinua jotzen ere ikasi zuen. Are gehiago, marraka, marrua, kurrinka, orroa, makakorroa, irrintzi eta arrantza egiten ere bai. Kolore xurigorri politak etorri zitzaizkion. Hazi ahala, irudiak larritzen zihoazen, gero eta handiago. Luze-zabalean handitu ez ezik, loditu ere egin omen dira. Argi-oihaleko irudi horietako batek besoa luzatzen duenean, makurtu egiten omen gara, uki ez gaitzan. Orain irudipen
97 hutsa da, baina luzaro gabe, Jainkoa lagun, bekainean hartuko dugu muturrekoa, erne ez bagabiltza.

Aurrerapen galant horiek guziak edo gehientsuenak behintzat, oraingo edozein film ederretan ikus ditzakegu: esan dezagun, bat edo beste aipatzeko, *The black knight* edo *Captain king*. Zer esango ote du, bada, gaurko gazte batek, *Zaldun beltza* eta antzekoak ikusten ohituak, batere horrelako apaingarri gabeko film bat ikustean?

Gazte batzuek, 18 urte ingurukoek, bazeukaten film hori ikusteko gogoa. Kezka bat ere bai, berek aitortu didatenez: nola adieraz ote daitezke gauzak hitzik gabe? Zer esan duten ikusi ondoren? Ba al dago esan beharrik? Zaharragoak garenok ongi genekien zer esango zuten aldez aurretik.

Orduko *City lights* eta *Zaldun beltza* ez daude beharbada zuzen berdinduak. Ez zen orduan dena Chaplin eta gaur film hoberik egiten da. Berdin ditzagun, bada, orduko Chaplin eta gaurkoa, *Limelight*-ekoa. Ontzat eman nuen azkenekoa *Egan*-en bertan, eta ez naiz damutu. Baina *City lights*-en ondoan ez da alderatzeko ere. Zerbait falta zaiolako hemen Chaplini? Ez, nik uste: zerbait gehiegixko du nere iritziz, Marañonen ustez Donostiak bezala. Zer den, ez dakit. Urteak ala hitza?

9

[EGAN 1956, 5-6]

Picnic (An American tragedy). Theodor Dreisseren liburua, Joseph van Sternbergek eraman zuen zinemara aspaldi xamar; gero eta azkena pittinen bat gozatuta, duela urte gutxi, George Stevensek *(A place in the sun,* hemen *Iguzkian lekua, Iguzkitan* izan beharrean, bihurtu zutena). Oraingo *Picnic*-ek, horren arabera, *An American comedy* deitzea merezi luke. 179

Horrela da, izan ere. Gaia, oker ez bagaude, komedia batetik hartua da. Komedia ere XVIII. mendekoek ontzat emango zuketena, egitekoak 24 ordu barrukoak baitira. Eta gertakizunak Ipar Ameriketan gertatzekoak dira, ez beste inon. Ez dugu, egia esan, Ameriketako berri askorik, geure txokotik aldendu garen aldi bakanetan Bilboraino edo heldu baikara, gehienez ere. Baina zineman, eta gizartean ere sarri, gehiago balio du itxurak izanak baino. Eta itxurak guri hango iruditzen.

Mamia laburkiro azal daiteke. Bizikalargun gelditua den emakume batek alaba zaharrenagan dauka uste osoa, harengan ikusten du bere burua gazteturik. Ez luke nahi gerta lekion berari gertatua. Hitz batean, herri hartako gazte dirudun batekin ezkondua ikusi nahi luke. Ez da, gainera, ametsa: bada han horrelako gazte bat, eta gazteak ez du beste gogorik.

Gauzak horrela direla, beste gazte bat agertzen zaie, arlote ezinegon eta axolagabe horietakoa. Aberatsaren bila etorria da, lagun zaharrak baitira, baina beste norbaitekin egiten du topo adiskidearekin baino lehenago. Honek gogoko duen neskatxarekin, alegia.

Egan 1956, 179-182; *MEIG* I, 163.-167. or.; *ZP* 61.-66. or.

Besterik esan behar ote da? Zenbait ixtilu gorabehera, maitasuna beti garai. Utziko ditu neskatxak aberatsaren ondasun ugariak, alde
180 egingo du amaren etxetik, norabait, arlotearen ondotik. «Zoazen lekura joango naiz ni ere».

Horrenbestez, ordea, ez ditugu aipatu film horretan ageri diren zabaldegi eguzkitsuak, jostailuzko etxetxoak, eliz torre gisako garibiltoki zurien andana luzeak. Ez dugu esan gertaera horiek herriko jaietan gertatzen direnik, eta ez dira jai horiek hemengoen antzekoak. Ez ditugu aipatu ingurukoak ere, eta inguruko jendea maiz nabarmentzen da, neska-mutil gazteen poz-nahigabeak ahaztuarazteko adina. Ez da, labur, Sinclair Lewisen *Main street* —eztena ere falta zaio—, baina badu guretzat gisa horretako zerbait.

Joshua Logan zuzentzailearen alde, aski da gauzatxo bat esatea: «Cinemascope» delakoak, ohi ez bezala, gaiak berak eskatu duela dirudi. Antzezlariak, oso trebe: William Holden, hainbeste aldiz *(Union Station, Sunset Boulevard, Sabrina)* erakutsi duena baduela aurpegi polita baino gehiago balio duenik, Rosalind Russell, eta gainerakoak. Kim Novak lehen ikusia genuen, *Pushoven*-en *(La casa número 322,* hemen), baina kolore txuri-gorritan panpoxagoa dirudi.

A streetcar named desire («Un tranvía llamado deseo»). «Negargarri ta lazgarri aiek ikustean zertako kupitu nai dugu, geurok iasan nai ez genuken miñez? Alare ikusleok samindu nai dugu, ta samiñ ori zaigu atsegin». San Agustinen hitzak dira, Orixek itzuli berriak.[a] Ez zaigu bakarrik atsegin malko xamurretan lasaitzen den mina; maite dugu, gainera —izu-ikaraz maite—, inoren negarrak arinduko ez duen oinaze gordin errukigabea.

Tragediak, politikak bezala, ez du inoiz bihotzik izan, ez lehen eta ez orain. Eta Tennessee Williamsen antzerkia ez da besterik. Tebasko errege jauregiko pilareen orde New Orleans zaharreko etxebarru zarpazua; soingaineko zuri apainen orde elastiko izerdituak, baina mamia ez da batere aldatu. Gure gisako gizakien artean sortzen da orain, gure etxeetan bizi, gure jantziz jantzia.

Emakume horrek, gugana agertu baino lehen, tranbian sartu baino lehen, etsia emana du: ikusleok jakinaren gainean gaude. Azpian hartu du oinak zomorro argala eta ez du lagako zeharo zukutu

---

[a] *Agustiñ gurenaren Aitorkizunak,* Nikolas Ormaetxea Orixek euskeratuak, Zarautz 1956, 54. or. (III, 2).

arte. Inoiz zerua argitzen dela badirudi, ihespiderik irekitzen bazaio inondik, ez dira irudipenak besterik. Ondasunak eta gaztetasuna galduak ditu. Hondamenditik itzuri, arreba ezkonberriaren etxean aurkitu nahi gordelekua. Zapaltzen ari den oinak ez du ez presarik ez errukirik, oharkabean ari baita. Zapaldua ohartzen da, poliki-poliki, nahi ez badu ere. Azkenean, eroetxera abiatzean, berekin darama arrebaren etxeko bakea. 181

Emakume gaixoaren etsibeharra Vivian Leighek adierazten digu: gidari, Elia Kazan. Horren ondoan, beste guztiak, Marlon Brando bera ere, ez dira laguntzaileak baizik.

Napoleon. Film honen berriak aspaldidanik etortzen hasiak ziren. Honenbeste kostako zela, horrenbeste lagun agertuko zirela, honelako edo halako lekutan filmatzekoa zela, eta antzekoak. Handi-garestiak ez direla beti on dakitenak ez zeuden hain pozik.

Gero, jendartera agertu zenean, hasi ziren marmarrak. Garbi ageri zen gaizki-esaleak ugariagoak zirela ontzat zeukatenak baino. Ikusi ondoren, gerok ere errazago makurtuko ginateke gaizki-esaleen aldera.

Hutsak, huts nabarmenak, axal-axalean azaltzen dira. Sacha Guitry, dirudienez, «Napoleon» zinemaratu beharrean aurkitu da berak Talleyrand izan nahi zuelako. Ez du gaizki egin Talleyrandena, begiak itxirik eta ahoa zabal, *bon mots* direlakoak darizkiola. Eskaini digun ingurutxoko dantzariek prozesio batean dabiltzala dirudite, edo meza nagusia ematen. Zurrun, buru-iritzi, Historiaren belarrira ixurtzen dituzte beren esan sonatuak: Cambronnerena frantsesez utzi digute hemen. Arkaitz berberak ikusten dira borrokaleku guztietan, nahiz Marengo izan, nahiz Austerlitz, nahiz Eylau. Napoleonen soldaduek ez dute gerra maite, ezta lasterka ibiltzea ere. Ez daitezen neka, astiro-astiro aurreratzen dira, jirabira polit bat eginda noiz etzango. Maria Walewskak Napoleoni azkenean esaten dizkion hitzak lotsatu edo nazkatu gabe entzuteko, gorra behar da izan edo belarriak estaliak eduki. Denak aipatzen hasiz gero, ez genuke berehalakoan bukatuko.

Halaz guztiz ere, neke handirik gabe ikusten da film hau, ia gogoz. Ohi ez bezalakoa delako, kolore atseginak dituelako, jantziak, tresnak, lekuak egokiak direlako? Ez dakit ongi. Historia ikasteko, edo ikasia gogoratzeko, liburu bat irakurtzea baino errazago delako, beharbada. Baina beste iturririk ez duenak ez du asko ikasiko Napoleonek hemen edo han eraman zituen jipoiei buruz.

Ezagun askoren artean, Garat-Luis Mariano ere aurkitu dugu. Pozik egongo dira Luis Mariano bere guztizkotzat daukatenak; Garat-zaleak, beharbada, ez beste hainbeste.

Más dura será la caída. Ukabilkak, mutur-jokak, baditu aldekoak eta etsaiak. Etsaia genuen, etsaia ere amorratua, euskal idazle jator bat aipatzeko, Luzear zena.

182 Izan genuen Gipuzkoan ukabilkari trebe, edo gutxienez sendo bat. Gure kideek gogoan daukate, noski; gazteagoek ere badute agian haren entzutea, ez baitzen ez idazlea, ez pintatzailea, ez beste nolanahiko etxekalte horietakoa. Mutur-jokalari hori ipintzen zigun, bada, Luzearrek begien aurrean beti: «Ez duzue Holako ikusi besterik. Jo eta jo, muinak urtu dizkiote. Mintzatzen ere ahaztu zaio».

Iritzi hori gehiegizkoa iruditzen zitzaidan. Borroka-mota horrek bazituen, nere ustez, alde onak ere. Hor, batez ere, hartzen ikastea, diru-kontutan ez bezala, zailagoa baita ematen ikastea baino. Ukabilkadak behar bezala —suminez itsutu gabe, alegia— «jasotzen» ikasi duenak, ez du alajaina gutxi ikasi. Ba ote zekiten beste hainbeste harako Greziako zazpi jakintsu haiek?

Mark Robsonek Luzearren sermoia dakar, zorrotzago eta haserreago esana. Horretaz mintzatu zitzaigun *The champion («El ídolo de barro»)* gogor hartan eta horretaz mintzatzen zaigu orain.

Sinesgogor batzuk agertu dira hemen: ez omen daitezke inon, ez Ipar Amerika urrutietan ere, gisa horretako gauzak gertatu. Ez dakit. Dirua erruz omen dabil, eta diruak eragin ditu lehenago ere hori baino okerragoak.

Dena dela, egia ala gezur, filmak ez du hutsik. Argentinako zokoren baten harrapatu duten «Toro Moreno»-ren ibilerek —irabazle barregarri eta galtzaile zintzo— biziro kezkatzen gaituzte. Humphrey Bogart ere, makur antzeko gizon zuzena, hor daukagu. Eta azkenean, behar bezala, onek daramate saria, diruaren ordez kontzientzia garbia besterik ez bada ere. Izan ere —nork ukatuko?— ez omen da aberastasun hoberik.

10

[EGAN 1957, 1-2]

Trapeze. Izen ospetsuak bildu dira film honen inguruan. An- 112
tzezlariez gainera, Hecht-Lancasterek egina da, eta Carol Reedek moldatua.

Gaia, zinemascope delakoarentzat benetan egokia, *Picnic*-ena bezala. Zirkuko jauzi eta jirabira harrigarriak, zezenen gisa, ez lirateke ume-jostaketa atseginak besterik, arrisku eta heriotz-usainak antzaldatuko ez balitu. Eta hemen, oihal zabalago honetan, kezka gehiegirik gabe berdin dezakegu barrenen daramagun odol-gosea.

Gertakariaz luzaro mintzatzerik ez dago, hiru laguneko istorio laburra baita. Zirkua eta «betiko triangelua», zineman, elkarrekin loturik dabiltza. Hemen —eta liburuaren egileari, Max Cattori, zor zaio noski eraberritze pozgarri hori— ez dira hasierako itxurak azken aldeko egia bihurtzen. Burt Lancaster buru-urdinak darama ustez gaztearentzat zegoen saria. Dirudienez behintzat. Geroak erakutsiko baitio saria eraman duen ala zigorra.

Alde horretatik zaharrak eta zahartuxeak pozik gelditu dira noski, beren kidea gailen ikusirik. Bestetik, ordea, ez zaie oraindik ahaztu aspaldiko *Vaniété* hura. Ez ote zen orduko Dupontena oraingo Carol Reedena baino film hobea? Nik ez dakit. Elkarren ondoan ikusi beharko nituzke biak, mintzatzeko gauza izateko.

Calle mayor. Espainiako zineman bi gazte ageri dira gidari, gehienen ustez: Bardem eta Berlanga. Elkarrekin hasiak, *Esa pareja feliz*-en, badute alde askotatik elkarren eitea. Bereizgarri bat ere badute, ordea, eta larria. Zein den ikusteko, aski da lehenbizikoaren

---

Egan 1957, 112-113; *MEIG* I, 169.-172. or.; *ZP* 67.-70. or.

film hau bigarrenaren *Calabuch*-ekin berdintzea. Eztena da, erleak bezala barren-barrenean josirik utzi nahi lukeen eztena, Bardemek duena eta Berlangak ez duena.

Calle mayor-ek ere badu berea, *Muerte de un ciclista*-rena bezain nabarmena ez bada ere. Gertakari hori, hasieran dioenez, Europako edozein herrialdetan gertatua izan omen daiteke. Aitzakia deritzat. Gupidarik gabe banatu ditu Bardemek burutik burura gertakaria Espainiako lurrean landatzen duten bereizgarriak.

Jakitunek diotenez, eta jakitunen esanak entzun beharrekoak omen dira ezjakinonetatik urruti badabiltza ere, utzi dio oraingoan Bardemek apurren bat artean erakutsi nahi izaten zuen «kaligrafiari», hots, ikusleen harrimenerako Orson Wellesen antzera egiten zituen teknika-joko dotoreei. Kontabide errazagoa, naturalagoa aukeratu du eta, Betsy Blairen antze-lan harrigarria lagun, argi eta garbi adierazi digu gertakarien derrigorrekoa. Eta, esaten zaiguna hain mingarria izanik, urriki-lainoz inguratua ageri zaigunez gero, ez gaitu hainbeste nahigabetzen eta etsiarazten. Bardemen predikuaren muina hauxe da gutxi gorabehera: gizonago izan gaitezela eta zerbait lehiatuz gero gizonago izan gaitezkeela.

Le ballon rouge. Behingoz bederen, zinemak, ixpilu (zeren ixpilu gero?) izateari utzirik, amets-ateak ireki dizkigu, Albert Lamorisseri eskerrak. Ohi bezalako ameskaitz eta txakur-ametsak ez dira, lorik lasaiena kezkatuko ez duten haur ametsak baizik.

Mutiko baten eta globo gorriaren arteko adiskidetasuna besterik ez da. Globoa ez da nolanahikoa, gaurko gure begiek ikusten dituztenen antzeko maxkuri haizatua. Sorgindua dago, inoiz —aspaldi baino aspaldiago— Donostiako Louvren ostegunetan ematen zizkigutenak bezalaxe, haur-irudimenak sorgindua.

113 Ez dut inoiz ulertu San Agustinek haurtzaroarekiko agertzen duen nakaitza eta ezinikusia. Neretzat behintzat, orduko lurraldea eta giroa da egiazko Paradisu galdua. Eta hemen, film labur honetan, aurkitu dut azkenik iturria betiko herrimina zertxobait arintzeko.

Ez nuke nik, ahal izanez gero ere, inor joatera behartuko. Norbaitek, beharbada film hau ikusita, ezagun batzuek *Miraria Milanen* ikusi ondoren esan zidatena esango bailuke: ez dituela alegia umekeriak gogoko. Baina harako amets-herri haren oroitzapena eta mina zeharo galdu ez duenak, urtetan aurreratua delarik haurtxo bihurtzeko lotsarik ez duenak, nekez idoroko du gure zine-etxeetan ikuskizun hoberik.

El ferroviario. Italiako zinemak errezeta merke eta erraza barreiatu du film ikusgarriak egiteko. Ez dago gure arteko edozein gizon-emakume kaxkarren bizitza hartu besterik, zaharra nahiz gaztea orobat, eta inguruz eta giroz ongi antolatu. Baina, beste errezeta erraz askoren gisa, ez da edozeinentzako egina, horrela badirudi ere. Maneatzaile trebea behar nonbait.

Pietro Germiren film hau ez da, alderatzeko ere, errezeta horrekin sortu diren onenetakoa. Guziaz ere, hor azaltzen digun tren-gidariaren bizia eta heriotza ikusgarriak dira beti eta zenbait puntutan sarkor eta ukigarri. Berari zor zaio, berbera baitugu, moldatzailea ez ezik, tren-gidari jatorra bera ere.

Ez naiz geldituko batzuren batzuek film horretaz diotenaz mintzatu gabe. Horri buruz ari ziren lehengoan zenbait neskatxa gazte eta zahartxo hemengo tranbia batean. Polita zela, alegia, ederki zegoela, baina hain tristea, hain erdiragarria! Hainbeste negar, hainbeste nahigabe eta azkenean, gauzak konponduxe daudenean, zapla, ez zaigu bada gizarajoa hiltzen!

Ez nuen ezer esan, ez bainaiz oraindik hasi eztabaidak tranbian sortzen, tranbia horretan etxean adina denbora ematen badut ere. Hemen esango dut han esan behar nuena. Ez ote dituzte horrenbesteko neke-nahigabeak etxe inguruan ikusten? Zinemak asmatutako gertakaria ote da heriotza?

Zinema amets-fabrika izan daiteke, norbaitek deitu zuenez, baina ez du horrek esan nahi, nik uste, txoro-fabrika izan behar duenik nahitaez. Batzuentzat, dirudienez, zezenetako zaldi zaharrei begi aurrean ezartzen dieten zapiaren ordezkoa da, alkoholaren gisako bizitza eta heriotzaren ahazgarria.

Neretzako, Germiren film honek ezer baldin badu gehiegi, azukrea du, behar baino gehixeago. Ez dago de Siccaren *Bizikleta-lapurra*-z oroitu besterik. Germik aipatu ditudanen antzeko ikusle minberak ez zeuzkan ahazturik nonbait eta ugariegi ixuri zaio gozagarria, horrelakoen janaria goza beharrean.

11

[EGAN 1957, 3-4]

La strada. Ansolak Felliniz dioenak txit arindu dit lana.[a] Hauxe esango dut bakarrik, inor ez aspertzearren: *La strada* da, nere ustez, azkeneko zenbait urtez ikusi ditudan filmetan onena. 217

Gehiago esan behar banu ez nintzateke noski gauza izango. Ez bainuke adieraziko non dagoen film honen indarra. Sorginkeria dirudi. Gaia arrunta du eta zarpail xamarra. Pertsonak, eskasak eta ez jende dotore-argiaren artean bilatuak. Zirku-gizon arlotea —kate-haustailea besterik ezinean— buruz baino indarrez hobeto hornitua, eta etxekoek honi saltzen dioten neskatxa erdi inozoa. Inguruak, jendarte nahasiak, kamio hautsez edo elurrez josiak, taberna zuloak, komerien zain dauden ume lotsagabez betetako herri-plazak.

Eta, halaz ere, istorio honen izerdi garratza, lausengu eta hitz harrorik gabe, bihotz-barreneraino isurtzen zaigu, beste film arranditsu asko ez bezala. Gizatasuna dariolako noski, jauregietan adina etxola eta kale-kantoietan aurki daitekeen gizatasuna. Azkenaldea, batez ere, berebizikoa da. Nik behintzat deus gutxi ikusi dut zineman Zampano buru eta bihotz-gogorraren itsas ertzeko negarra bezain erdiragarririk.

Esan beharra da, horratik, pertsonak arruntak eta dohain berezirik gabeak badira, ez direla horrelakoak antzezlariak: Anthony Quinn, Richard Basehart eta guztien gain Giulietta Masina.

Egan 1957, 217-219; *MEIG* I, 173.-176. or.; *ZP* 71.-74. or. Zatika: *EN* 497.-498. or.; GA 431.-432. or.

[a] K. Ansola, F. Felliniren *Il bidone*-ren iruzkina, *Egan* 1957, 216-217.

Les diaboliques. Ez gara gutxi izuaren hotzikara larria sumanahian ibiltzen garenok. Ez da hori noski, Baudelairek asmatu zuen «hotzikara berria», gizona bezain zaharra baizik. Gure gorputz-arimak gorosti-makilaz bezala astintzea ez da agian zinemak —eta arteak erabat— mendera dezakeen helbururik gorena. Sendabi-
218 dea edo da, dirudienez. Besteren bizkarretik larritu edo negar eginez gero, lasaiago eta alaiago gelditzen gara nonbait berriro ere gure eginkizun aspergarriei ekiteko.

Honako film hau ez da sail horretan, gertatu ohi den legez, zioten adinakoa. Gaia ez du hain berria. Duela zenbait urte ikusi genuen horrelako zerbait Curtis Bernhardten film batean: *Retorno al abismo* zuen hemen izena, oker ez bagaude. Bukaera ere ez du inork antzemango ez dion gisakoa. Utziko balute erdialdera hutsartetxo bat ikusleei galdatzeko, erantzun zuzena emango luke baita kamutsenak ere. Ez baita beste irtenbiderik.

Zer du, bada, film honek? Honen antzekoak, beste behin esan nuen, ez dira igerkizunak besterik izaten: heriotzaren bat aipatzen dute, baina ezinbestekoa izaten da eta odolik gabekoa. Hemen, berriz, odol-isurtzerik ez bada ere, argi eta garbi agertzen dira gizonhiltzearen nekeak eta lanak.

H. G. Clouzot, izu bila dabilena izutzeko gertu, ez da txantxetan aritu. Azkeneko zatian behintzat erakutsi du badakiela lanbide hori harako Cantervilleko etxajaun gizarajo hark baino hobeto. Eta, norbaitek ez badu ere etxajaunen aditzerik, ez da alferrik esana izango horrela deitzen zituztela gure aurrekoek Peru Abarkaren gisako agureak ez ezik, baita etxetan maindirez bildurik eta katez josirik ibili ohi diren mamu edo iratxoak.

Animal farm («Rebelión en la granja»). Aspaldidanik dakigu, Walt Disneyri eskerrak batez ere, marrazki-film bat beste edozeinen parekoa izan daitekeela asmoz eta ederrez. Orain ikasi dugu horrelakoak, eder izateaz gainera, ez direla nahitaez haur-jolasak edo jostailu atseginak. Txantxetan eta irribarrez ez ezik, zinez eta bene-benetan ere mintzatzen badakite.

Esku trebez film honetan erakusten digutena, George Orwellen ipuin ezaguna da. Hemen kolore nabar-alaiez pintatua ageri zaigun ipuin xalo honek, alegia honek hobeto esan, ikusle bati baino gehiagori, ahoa gozatzen diolakoan, sabela mingostuko dio. Ikusten ditugun aziendek, abere larri eta txehek, animali itxuratan, gizonaren izaera eta grinak gehiegi nabarmentzen baitituzte.

Gizon batek edo gutxi batzuek, gaurko aurrerapenen bitartez, herri osoaren gainean eskura dezaketen aginte neurrigabearen beldurra askok sumatu dute. Ez ditu, ordea, inork beharbada Orwellek adina ezagutu arrisku-beldur horiek, edo behintzat ez ditu inork horren argiro azaldu. *1984* deritzan liburuan egin zuen etorkizunarekiko ameskaitz ikaragarria ez da agian goibelagoa oraingo amets txuri-gorri hau baino.

Gizonaren nagusitzak arranguraz beterik dauzka basetxe bateko abereak. Berengandik sortzen diren ondasunak —artilea, esnea, haragia, arrautzak— ez baitira beren zerbitzurako, gizonaren 219
onerako baizik. Zerriak batez ere, «nola ezpaitute deus ere on den gauzarik bere urdaia baizen»,[b] ez daude lasai. Eta, harakinaren beldur, hauek biltzen dituzte basetxeko azienda guztiak eta nagusiaren kontra aizkatzen.

Zerri zahar batek asmatu zuen matxinada. Beste bat ibili zen gero borrokan buruzagi, gizona aurrean bidali arte. Hirugarren bat ere bazen, ordea, mutur-beltza, Napoleon zeritzana, lagunak borroka bizian ari ziren bitartean, jabearen etxeko goxoei ederretsi ziena. Eta, zakur gose batzuk harturik lagun, laster erakusten du borrokan azkenekoak izan daitezkeela hemen ere gozamenean aurrenak.

Izenak ez dira gehiegi aldatu, baina izanak... Itxuraz, ez dute jaberik eta bere buruarentzat ari dira lanean. Itxuraz bakarrik, ordea. Badute nork agindu eta badute norentzat lan egin. Hor dauzkate Napoleon eta Napoleonen lagunak, urdeak: orain Djilasek burokratak deitzen ditu. Eta goseak, lan gehiegiak, mendetasun ezin eramanak borrokara daramatza berriz ere abere azpiratuak, astoaren arrantzak dituztela eragile, nagusi berriak zapaldu arte.

Hau da azkena: filmean, baina ez basetxean. Gurpilaren jirak ez dira gelditu, eta nekez geldituko. Gaurko askatzaileen artean baitago biharko menderatzaileen hazia, askatasunaren argian morrontzaren itzala. Euskal Herriko herriren bateko kanpaiak etengabe dioen bezala:

Izan ta izango

Baina ez dezagun gure izaera gutxietsi: behin eta berriro jaikiko dira aurrera ere bidegabekeriaren kontra astotxo baten arrantzak.

---

[b] Axular, *Gero,* XLV, 5.

12

[EGAN 1957, 5-6]

Berriketari honek ez dakar gaur berri handirik. Eza da oraingo 361
urritasunaren iturburua: gogoko filmik eza, gogorik eza eta astirik eza. Guztiarekin ere, bildu dudan uzta eskasa iraul dezadan luzatu gabe.

La batalla del Río de la Plata. Zertara etorri ote gara? Ez, noski, amets bila, sarritan bezala, egiaren bila baizik. Oroitzapen batek gakartza, inoiz ikusi ez ditugun Montevideo inguruko bazterretan bizitu genuen gertari baten oroitzapenak.

Hemen ditugu —laster, lirain, beldurgarri— munduari hainbeste zihoakion ordu larri bateko egiazko borrokalariak, *Achilles, Ajax, Exeter* eta itsaso hondargabeak ordu eta erdirako amets-bizitza eman dion «Admiral Graf Spee»-ren errainu ilauna. Eta kezkak eta ezinegonak suntsitzen gintuenean bezalaxe gaude gaur, jakinaren gainean gauden arren, zer gertatuko, txakur laster eta basurde sendoaren arteko borrokari begira.

Horrelako egun batez ikusi zituen azkenik munduak itsaso soilean —Salamina, Actium, Lepanto, Trafalgar eta Tsushimaren ondoren— gerraontzi arinak elkarri atzaparka, inoren laguntzarik gabe. Bakanak eta muga-gaitzekoak izango dira aurrerantzean horrelako guduak: ia zaldun ezpatarienak bezain urriak.

Michael Powell eta Emeric Pressburger ez dira bide berrietan barrena abiatu. Barrena begira, itsasoa eta ontziak baztertzen baditugu, agintariaren erantzun beharra eta bakardade astuna erakusten saiatu dira gehienbat, azkenaldi honetan zinema —besterik ukitzera

---

Egan 1957, 361-362; *MEIG* I, 177.-178. or.; *ZP* 75.-77. or.

ausartzen ez delako edo— maiz erakusten saiatu den gaia. Baita arestian sutan zeuden gorrotoak itzaltzen ere. Jainkoari eskerrak, esne berberak hazi zituen herriak zentzatzen hasiak direla dirudi.

Si Versailles m'était conté. Sacha Guitry zenaren film bat ikustea ez da, neretzat behinik behin, poz-atseginez egin daitekeen egitekoa. Hori eta erdi ezagunen baten hilkizunetara joan beharra, biak
362 orobatsu. Egiteko aspergarri xamarra, batetik, eta ezin-baztertuzkoa, bestetik. Ongi begiratuz gero, gainera, horren aspergarria ere ez. Hilkizunetan izaten dira zenbait txolarte alai —adiskide artean, hildakoaz ahazturik, egiten diren berriketak eta—, eta Sacha Guitry zena ere, goian bego, saiatu da aldiz-aldiz ikuslearen zama arintzen.

Hilaren obra bizirik daukagunez gero, zilegi izan bedi hartaz, hilaz zilegi ez litzatekeena, esatea. Axal-axalekoa da, inon axalekorik izan bada. Irudi-andana luze honek prozesioa dirudi, beste batean esan nuen bezala, edo moda-erakusketa. Frantziako Historiaren itsaso zabalean murgildu nahi lukeenak ez du apar eta bitsa baizik ikusiko. Gehienez ere, Luis XIV. eta XV.ek izan zituzten zenbait amoranteren izena —guztiak aipatzea lan luzeegia bailitzateke— eta gezurrezko aurpegia —egiazkoa baino panpoxagoa, beharbada— ikasiko du edo gogora ekarriko. Badaiteke ere amorante-saila gure artean zertxobait moarratua agertzea, alde gaitzera makur ez gaitezen.

Sacha Guitryk gaingiroki eskuztatzen duen irudi-liburutik gogoan gelditzen dira bat edo beste, egoera, ibilera edo janzkera —gainaldea beti ere— dela bide: Claudette Colbert-Mme. de Maintenon, Sacha Guitry-Luis XIV.a aguretua eta. Egile gizarajoak, heriotzera baino lehen, beste mila eta milaren ondoan, mundu guztiaren aurrean jantzi nahi izan zuen erregezko apaindura ederra txairo eta egoki darama.

13

[EGAN 1958, 1-2]

El hombre de las llaves de oro eta *Doce hombres sin piedad.* Plutarkoren oinatzetan abiatu banaiz, ez dakit zergatik den, bi film hauek elkarren antza dutelako ala hain desberdinak direlako. 97

Léo Joannonek lehenbizikoan irakatsi nahi ligukeena —eta beti irakasteko asmotan dabiltzanetakoa da, noski— hauxe da, gutxi gorabehera: ez duela gogortasunak, ezta alderatzeko ere, destenoreko urrikiak eta biguinkeriak adinbat kalte egiten.

Iritzi hau noraino har daitekeen ontzat, ez nuke esango; eta hori urteak joan ahala, teorian behintzat, gogortasunera makurtuago nagoelarik. Gazte batzuek, haur mukizu batzuek ia, jendartean lotsagarri eta bizibiderik gabe utzi zuten irakasle hark, damu badu behar ez zuenean barkatua, ez du asmo sendo gabeko damurik. Urrezko giltzen jabe egiten denean, hotel dotore bateko atezain nagusi, alegia, eta gazte haiek berriro ikustean, ez du hondamendirantz doazela jakitearekin aski. Aldiz, berak zabaltzen eta errazten die amilbidea, bihotzez damu duen hutsegitea berandu bederen zuzentzeko.

Bestearen mamia hitz bitan azalduko dizuet. Ikusi ez baduzue ere, ez duzue horrekin askorik galduko. Mamirik batere baldin badu film batek, hitz soilek adieraz dezaketena baino gehiago behar du izan eta.

Gelako atea itxitzen ari dira, sala ilundu eta oihala argitzen denean. Hamabi gizon gelditzen dira giltzapean: zinegotziak dira, hau da, auzia maitasun-gorrotorik gabe erabakitzeko zina egotzi duten gizasemeak.

Egan 1958, 97-100; *MEIG* I, 179.-183. or.; *ZP* 78.-83. or.

Gaia erabakitzeko, dirudienez, ez da buruhauste gogorren beharrik. Labanaz hil zuten gizon bat eta gizon horrek bazuen semea, aspaldian aitarekin haserre zebilena. Deadarka ari ziren errietan, atso batek dioenez, gizona gorputz erori baino lehentxeago. Berehalaxe, eskaileretan behera lasterka bizian zetorrela ikusi zuen semea agure elbarri batek. Labana mutilarena zen edo mutilak erosi berria zuena bezalakoxea. Mutila, gainera, nola ez?, bihurria eta edozertarakoa omen.

98

Sargori da eta ez dute begiek alaigarririk gela mehar hartan. Auziak ere lainorik ez. Zinegotzietarik batek base-ball-era nahi luke lehenbailehen; besteek, handik kanpora izatekotan, noranahi. Eta gure mutila urkamendira bidaltzeko ez dute hitz bat esatea besterik.

Horrela balitz, ordea, aldegin beharrean ginateke gu ere eta ez daukagu base-ball-era joaterik, kale gorrira baizik. Beharrik, bada hamabien artean gizaseme bat xingurria bezain ixila, langilea eta setosoa. Ez, ez da letradua. Letradua izan balitz, egin zuen gureak aspaldi eta, gureak ez ezik, baita mutil urkatu edo kixkaliarenak. Arkitektoa dugu, inondik ere, baina auzi nahasiak bideratzen etxeak zutik edukitzen bezain trebea, halaz guztiz.

Haren arrazoibide sotilak, lekukoen esanak deuseztatzeko eta zalantzaren haziak besteengan ereiteko, ez ditut agertuko. Perry Mason auzitegian inoiz ikusi duenak ongi daki gauza horiek nola izaten diren. Azkenean, eta aski dugu honekin, aho batez aitortzen dute hamabiek gaizkile gogortua zirudiena ez dela halabeharraren jostailu errugabea baizik izan. Errudun ala errugabe, Jainkoak daki, baina ez genuke inor txigorrarazi behar azterrenak ongi hartu gabe.

Telebisiorako antolatu omen zuen Sidney Lumetek, aditzea dudanez, zinemaratu baino lehen. Bere iritzia eta Joannonena bat ez datozela esan beharrik ez dago.

Ez dute alde hori bakarrik. Zinetanago, gizon hazientzat egokiago, ari dela dirudi Joannonek. Baina, ikusleak bereganatzeko setak itsutu duelako edo, ahaztu egin da zinemaz. Ez da erraz esaten zer egin duen: ikasbidezko ipuina, hitzaldia —Pierre Fresnayk esana, nolanahi ere—, film bat ez beste edozer.

Hori da, berriz, zenbait umekeria gorabehera, S. Lumetek egin duena; gela itsusiko lau paretetatik irten gabe, gero. Hamabi antzezlari azkarren laguntzarekin, ezagunenak Henry Fonda eta Lee J. Cobb direla.

Around the world in 80 days («La vuelta al mundo en 80 días»). Gorputz geneukan Mike Todd (eta ez dakit hemengo Cervanteszale

porrokatuen arao-biraoek ez ote duten horretan parterik izan) berak eragin zuen izena bezain kostu handiko film hau aurkeztu digutenean. Sarreraren ordaina bihurtzen dio behintzat behar baino gehiago eskatzen ez duen ikusleari.

Jakina dago aldez aurretik ez dela hemen aurkituko ez molde be- 99
rririk, ez bihotz-ezkuturik, ez poesi igortzirik. Cecil B. de Milleren tankera ezagunean moldatu dute *show* aberats, ugari eta luze (hiru orduz gorako) hau. Amets bideetan barrena ez gaituzte eramango, zorabia ez gaitezen; erakutsi, ordea, erakutsiko dizkigute diruak eta kameraren begi erneak erakuts ditzakeenak oro: urrutiko lurralde ederrak kolore bizitan eta oihal zabalagoan. Eta munduaren inguru nekerik gabe gabiltzala, lagunartean gara nonahi: Parisen, Chinchónen, Calcuttan, Honk-Kongen nahiz San Franciscon. Zein kalean, zein lantegian, zein trenbidean, zein taberna-zuloan, zein zezen-plazan, hor topatzen ditugu Martine Carol, Charles Boyer, Ronald Colman, Marlene eta —eguzkia izar zurbilen aldamenean bezala— Luis Miguel lepaluzea. Eta zenbat eta zenbat beste aspaldiko lagun!

Jules Verneren liburuak haurtzaroan —eta, lotsarik gabe esan dezadan, baita geroago ere— gogoz irakurri ditugunontzat badu film honek beste atsegin-iturririk, haurtzaroko amets-lainoz inguratua ageri baitzaigu. Antolamena, Michael Anderson eta gainerakoak direla bide, taxuz egina dago. Verne pixkaren bat amerikanotu dutela esango du norbaitek. Hala balitz ere, ez litzateke gehiegizko kalterik. Oso gogoko baitzituen Vernek, dakigunez, liburuetan behintzat, zirt edo zarteko amerikano harro ausartak, haien jendetasunak artean gehiegi hondatu ez zituen ohitura lasaiak eta trenbide bihurriak.

Cantinflas galtza-jarioak trebe baino trebeago dihardu morrontzan, toreatzean nahiz dantzan, ohiturazko pailazokeriak apurren bat moarratu dizkiotelako edo. Eta nola mintzatzen den ingelesez? Uzta hobea aterako zuketen ene belarriek besteak ere honen antzera mintzatu balira.

Azkenean, etxean berriz —Londresen alegia—, zertxobait aldaturik ikusten dugu David Nivenen eskuetan dagoen Phileas Foggen garaita eta erorikoa. Horrelako horma-burruntzi tenteak ere ez izaki, Erkiaga adiskideak esango lukeen bezala, andrazkoen arteetarik ihes egiterik.

Las noches de Cabiria. Erakutsia izan zen film hau iaz Cannes eta Veneziaren izena, besterik ez aipatzeagatik, zeharo ixilarazi duen

Donostiako zinema-aste ederrean. Baina hemen ari natzaizuen honek ez du jai horietan sarrerarik izaten, ordaindu gabeko sarrerarik alegia.

Dena dela, Fellinigandik datozkigu azken urteotan filmik ausart eta sarkorrenak. Donostiara heldu direnez ari naiz, iritzia zabaltzeko behar nukeen oinarririk gabe, agian. Berak bakarrik eusten diola esan baitaiteke gerraondoko zineman Italiak merezi onez irabazi zuen izenari.

Fellinik gizartearen bazter elkorretara eta zoko ilunetara du joera, Gorkik «gizon izanengana» bezala. Etxa-ihes dabiltzan gautxoriak maite ditu, komerianteak, timatzaileak, baita Cabiriaren gisa munduan izan den ofiziorik zaharrena duten emakumeak ere; gizarte eta eliz pilare zurituak baino areago, nolanahi ere. Zakar artean nabarmenkiroago distiratzen duelako beharbada ontasunaren urre gorriak. Baina bihotz samur baten jabe denaren dohakabea! Ez baitu mundu honetan nahigabea besterik ikusiko.

Nork esan non bukatzen den Fellinigan urrikia, non hasten bihotz-gogorkeria? Bi ahoko ezpata darabil beti eskuetan eta urrikia du ezpata horrek ahorik zorrotzena. Adiskide ustekoak murgildu zuen putzutik ateratzen badu hasiberrian Cabiria gaizoa, gero zenbait ibilaldi gazi-gozoren ondoan ametsetan ere ikusi ez duen paradisuaren bistaraino badarama, berriro ere osin ertzean uzteko izango da bakarrik, etsibehar gorrian, poz eta harrotasun-bide zituen lau gauzatxoez erantzia.

Zer ote litzateke Fellini Giulietta Masina, bere emaztea, gabe? Neke da esaten. Behin bateko Gelsomina gogoangarria, aingeru itxurako pailazo edo pailazo itxurako aingeru hura, Chaplinekin berdindu dutenak ez dira hagitz oker ibili. Haur-aurpegi hura da sor daitezkeen bihotz-mugida guztien ixpilu garbi-aldakorra, irri eta negarra nahasian darion iturritxo gardena.

14

[EGAN 1958, 3-6]

Un rey en Nueva York. Chaplinzaleek, oker ez banago, ez dute 234
uste bezalako gozamenik izan. Amerikanoen etsaiek ere —eta nork ez ditu begitan gutxi edo gehiago Europa zahar honetan?— ez dute noski nahi beste algara egin haien bizkarretik.

Ez du Chaplinek, egia esan, benetako gorrotorik eta ezinikusirik agertzen eta orobat gertatzen zaio Europako jenderik gehienari. Adarra jotzea gogoko badu, ez du halere hurkoa gehiegi larrutu nahi. Chaplinen film bat gehiago, guztira: ez ordea lehengo zenbaiten ondoan izen bereziaren jabe izango denik.

Ez da horrenbestez esan «Errege» hau lotsagarri ageri denik eguneroko mordoilokerien artean. Ezta gutxiago ere. Hemen ere badario Chaplini, noizbehinka badere, betiko gatza eta ozpina. Berak ezpainak ezin zimur ditzakeenean ere algara-bide lasaia eskaintzen digu. Onentxoena, neretzat, errege gizarajoak lehen gauean New Yorken aurkitzen dituen jolas atseginak.

Du rififi chez les hommes. Lapurreta baten prestamenak, egiera, ondoreak. Beherago aipatzen ditudan Hitchcocken lapurrak aingeru gisa badabiltza paretan gora eta behera edo teilatuz teilatu jantzirik zarratatu gabe, Dassinen hauek ez dute horrelako dohainik. Izerditu beharko dute ezer ostuko badute, langile zintzoek adina bai, gutxienez.

Lapur trebe bat aspertu egingo luke beharbada film honek. Ez dakit. Ofizio horretakoak ez garenoi, ordea, ez digu gogait era-

---

Egan 1958, 234-236; *MEIG* I, 185.-188. or.; *ZP* 84.-87. or. Zatika: *EN* 499. or.; *GA* 433. or.

gingo. Film hau ikustean, harako beste *Asphalt jungle* harekin bezalatsu, kezkatxo bat gelditzen zaigu gogoan: zintzotasunak bakarrik baztertu ote gaituen bide oker horietatik ala ibilera horietarako gauza ez izateak.

Frantsesen *milieu* delako gizon-emakumeak lege zaharrera bizi dira oraindik, dirudienez. Ez da gutxi gailurrik gabeko berdintasunaren uholdean murgildu behar duen gaurko mundu honetan.

235 Dassin bera ere —badakigu guztiok zergatik bidali zuten Ameriketatik— ez da ausartu langile iaio eta adoretsu hauei zor zitzaien neke-saria ematera. Azken gaiztoa dute, ohi denez, «hurrengoan beste bat eskarmenta dezaten».

Moby Dick. Beti izaten dira ikusgarri John Hustonek egin eta gidatzen dituen filmak. Oraingoan, H. Melvilleren eleberri ezaguna zinemaratzean, antolamen leiala, trebea eta biluzia eman digu, ohi diren apaingarriak —neskatxa lirainen maiteminak eta— baztertu rik. Hasieratik bertatik, New Wentfordeko elizatxoan Orson Wellesek egiten duen prediku latzetik aurrera, ez dago hemen itsaso zabala eta itsaso zabaleko zokoren batean zelatan dagoen balea besterik. Itsas azalean, Achab kapitain hankamotzaren gorrotoak hondamendira daraman ontzi arina ontziko baleazaleekin. Begiez ez ezik, belarriez ere jabetzen da John Huston, zalaparta beldurgarriaren ondoren itsasoko ixiltasun beldurgarriagoa —zenbait itsas hegaztiren garrasiak besterik ez airean— sentiarazten duenean.

Ez litzateke film hau den adinakoa Gregory Peckek mamitu duen Achab kapitaina izan ezik. Gazteegia naiz harako John Barrymoreren hartaz oroitzeko, baina neke dut sinesten oraingo hau baino zinezkoagoa zenik. Gainerako lagunek, bizi eta egiazko direlarik ere, itzaliak dirudite haren aldean.

To catch a thief («Atrapa a un ladrón»). Altzairu onarekin nornahi da errementari. Gai egoki batetik ere film ederrik atera daiteke, nahiz batzuetan zoritxarrez alderantziz gerta.

Hitchcocken trebetasuna ezaguna dugu aspaldidanik. Nahiago izan du beti txairo eta jostailu agertu, astun eta sarkor baino. D. Dodgeren eleberri kaxkar eta funtsik gabeko batez baliatu da oraingoan. Badugu gizaseme gazte bat «Katua» zelako lapur ospetsua izana. Zintzotu zen gerratean eta bakean —eta oparo, ez bide baitzituen itzuli ondasun ostuak— bizi da, beste «katu» bat katuarenak egiten hasi arte. Poliziak, pentsa bada, ez dauka ahazturik eta

berriz ere teilaturik teilatu abiatu beharrean da katu zaharrak bere burua zurituko badu, ez baitu horretarako lapur berria harrapatzea beste biderik.

Frantziako «Kosta Urdinean» gertatzen dira direnak eta Hitchcockek aurkitu du han ikuskizun ugari ikusleen begiek atseden har dezaten. Grace Kelly ere begi-gozagarri aukeratu du noski.

El puente sobre el río Kwai. Film honek, guregana baino lehen, bazekarren aurretik zarata eta zalaparta. Eta hala ere, nere ustez, ez da izanez izenez baino urriago. Ez naiz azkenaldi honetan ikusi ditugun beste zenbait film gailenekin berdintzen hasiko, filmak —edozein artelan bezala— gutxitan berdin daitezkeelako elkarrekin. Bere sailean, ordea, eite beretsuko gaia dutenen artean, besteren zorrik ez duela iruditu zait. 236

Gerraren zentzugabekeria argi baino argiroago erakusteko egina dirudi. Elkarren lehian ari dira ingelesak, zubigintzan batzuk eta zubia desegin beharrean besteak. Lehen ere asko saiatu izan dira gerrako —eta politikako— hautsi-konpondu eta josi-urratuen itsumena adierazten. Ba ote du gainera egia horrek, hain nabarmena izanik, erakutsi beharrik?

Eta, halaz guztiz ere, badu gerrak, bere zoramen itsuan, bestek ez duenik. Ez naiz gerrazalea, ezta alderatzeko ere, eta ez dut uste gerrazale bihur naitekeenik hori aitortzearekin. Hitz ederra eta arrazoibide argiak deus gutxitarako direnean, artean nabari ez zen zerbait sor daiteke gizonaren erraietan, onerako nahiz txarrerako. Bake-egunetako leialtasuna ez bezalakoa behar da orduan eta eguneroko eginkizunak egiteko behar den baino bihotz finagoa.

Ikusi duenak daki nolako agintea izan dezakeen hondamendiaren hondarrean gizontasuna besterik utzi ez dioten egiazko agintariak bere mutilen aurrean. Eta ikusi ez duenari igarraraziko dio zerbait Alec Guinnessek, gogoa zabalik badauka.

David Leanen film honek tarteka-tarteka mundu guztira hedatu den txistu-soinu bizia ez ezik, Beethovenen musika ere eraman zezakeen.

15

[EGAN 1959, 1-4]

Film-pila koxkor bat agertu zaigu aurtengo neguan, iazko urri- 75
tasunaren aldean. Hona ikusi ditudanetatik zenbaiten berri laburra.

Mordoxkarik handiena, ohi bezala, Ameriketatik etorri zaigu. Hauen artean leku berezia merezi du eskuarki *The prodigal («El hijo pródigo»)* delakoak, onena izatea bezain berezia eta nabarmena baita txarrena izatea. Esango nuke, eta asko esatea da, hau dela higuingarriena amerikanoek Bibliarekin, gizon indartsu eta emakume erdi biluxiekin, sortzen dituzten saltsa koipatsu horietan guztietan.

Beste burutik hastekotan, Elia Kazanen *East of Eden («Al este del Edén»)* aipa dezagun aurrenik. Steinbecken gai irristakorra ezin hobeki emana dago. Nahiz erabat nahiz zatika, den dena da doi eta egoki eta besterik baino gehiago James Dean zenaren lana. Txorakeriak esan dira honezaz, onean eta txarrean, baina, gogoko dugun ala ez, ez du gutxi galdu zinemak bere heriotzarekin.

Jendeak ez bide dio egin besteri aspaldian Billy Wilderen *The witness for the prosecution («Testigo de cargo»)* deritzanari egin dion harrera. Ez da harritzeko: gure egunotako epikaren borroka-lekua auzitegietan dago eta gure Akiles eta Ulises aukeratzekotan gizon-hiltzaile burutsua eta legegizon maltzurra hautatu beharko genituzke. Agatha Christieren ipuin laburraren (eta geroxeagoko komediaren) gainean eraikitako film honek ez du *suspense* delakoa bakarrik. Beregana dezake ikuslearen gogoa, nahiz gertaera guztien berri aldez aurretik jakin —horixe gertatzen zitzaidan neroni—, Charles Laughton eta beste lagun azkarren antzeari eskerrak.

Egan 1959, 75-77; *MEIG* I, 189.-192. or.; *ZP* 88.-92. or.

Westernetan, Ameriketako herri-landarearen kimuetan, bi dira ikusgarri: Delmer Davesen *3:10 to Yuma («El tren de las 3:10»)* eta John Sturgesen *Gun fight at the O.K. corral («Duelo de titanes»).* Zerbait berri badakarte zaharraren zaharrez usanduxea ageri den film mota horretan. Lehenbizikoaren bukaerak, zoritxarrez ustekabekoa izanik, ez du ikuslearen gogoa beteko, oker ez banago.
76 Lapur eta eraile gogortu batek ez eze, kristau bihozperaagoak ere ez luke noski horrela jokatuko, gizon baten bizia eta Yumako presondegiaren artean balego aukera.

Besteak —ez dakit guztiak ohartu diren— gai ezaguna du, eta gertatua gainera: Tombstoneko inguruan Earp eta Crantondarrek tiroka egin zuten kontu-garbitzea. Ez zen besterik John Forden *My darling Clementine («Pasión de los fuertes»,* hemen), Henry Fonda, Walter Brennan eta Victor Maturekin. Oraingoan Burt Lancaster da Wyatt Earp, Earp anaien buruzagia, eta Kirk Douglas Holliday medikua edo hagin-ateratzailea. Fordenak, bere *Stagecoach*-en mailara heldu gabe, gizen gutxiago zuen beharbada azkeneko honek baino. Oraingoa, ordea, kolore, kanta eta abar, gogokoago izango dute askok.

Ez da ixiltzekoa Joseph Pevneyren *Man of a thousand faces («El hombre de las mil caras»),* Lon Chaney sonatuaren bizitza. Badute amerikanoek ohitura gaurko jendeen bizia zinemaratzeko, hil orduko eta hil baino lehen ere bai. Diodan hau, ordea, besteak baino gehiago da: egia ala gezurra, badu bizitza honek bestelako baliorik. James Cagney ez da hemen betiko mutur-jokalari bizkorra eta ez dugu ezer galtzen aldaketa horrekin.

Stanley Kramerek Espainian egin duen *Orgullo y pasión* baino okerragoak ikusten dira. Kanoizar horren gorabeherak, D. C. Foresteren eleberri batetik hartuak, gogaikarri xamarrak dira, egia esan, zeharo aldrebesak ez esateagatik. Baina Espainiako gauzen berri jakin nahi duenak, aurkituko ditu berorretan inoiz asma ez zitzakeenak. Ikusiko du, esate baterako, Escorialgo monasterioan hasten den Aste Santuko prozesioa Segoviako ubidearen azpitik igarotzen: han daramate gainera Ama Birjinaren irudia, haurtxoa besoetan duela. Gertaerek aspertuxe daukaten ikusleak ikuskizun eder bezain ugarietan lasai ditzake begia eta gogoa. Bestelako «paisajeak» nahiago dituenak —gehienon haragia argala da eta—, badu ikusteko Sofia Lorenen dantza bat. A, gure Prai Bartolome bizi balitz!

Ingalaterratik ez zaigu berebiziko gauzarik etorri. Robert Neameren *The man who never was («El hombre que nunca existió»)* az-

ken gerrateko ixpiazkoaren gorabeherekin, polita da. Gauza bat irakasten digu, gainera. Espainian gaudela adierazteko ez dela deus askoren beharrik: aski dira gitarra-soinua eta guardia zibil baten (hobe biren) kapelu okerra. *The one that got away («El único evadido»)* ingelesek alemanekin darabilten *fair play* edo joko garbiaren ezaugarria da: bekaitzik gabe ikus daitezke gaur atzoko etsaiaren ibilerak.

Gehiago nahi zuen Ken Annakinen *Across the bridge («Al otro lado del puente»)* izenekoak. Mexikoko lur beroetan —edo lur beroen mugan— gertatzen den Graham Greenen ipuin labur bat hartu dute oinarri, ezin gehiago luzatuaz. Berez, ordea, Graham 77
Greenen haurrek badute halako lehor-antxa: *auto sacramental*-etatik ateratako Adimena, Fedea edo Bekatuaren eite gehiago dute hezurharagizko kristau jatorrena baino. Eta, jakina, zenbat ere puztuago, hainbat gizatasun gutxiago.

Frantziatik film bat behinik behin agertu zaigu, hamar bizitzako etxea etxola artean bezain nabarmena: Jacques Tatik burutik burura betetzen duen *Mon oncle («Mi tío»).* Chaplin hitzak liluratu ondoren ere, lehengoan dago Tati. Bere mutuan, ordea, ez du mintzoaren beharrik oraingo bizitzaren alegia azaltzeko, otxan-itxuran aski zorrotza. Atorrarik ez zuen gizonaren aspaldiko ipuin hura berbera da, gaurko hizkuntzara itzulia eta zein biziro esana, hitzik gabe!

Espainiako zineman, gauza jakina da, badira bi gazte zerbait egin nahi luketenak, dirua irabazteaz gainera: Bardem eta Berlanga. Bardemen orainengo saioa, *La venganza,* ez da hemen agertu. Gero, Valle Inclánen *Sonatekin* hasia omen da. Jainkoak bakarrik daki zer irten daitekeen hortik.

Berlangarenetan *Los jueves milagro* izan da azkena. Iritziak ez datoz bat irudimen-jolas arin honi buruz, desegokikeriak ugari dituelako. Berlanga, ordea, ez da beharbada zeharo errudun. Espainiako zineman guztizko eskua duten esku ezkutu eta indartsuek puska gehiegi ken eta aldarazi dizkiote: Teologiarekin egin du topo gizagaixoak. Hemendik moztu, hortik ebaki, hango urratua pasaratu eta hemen adabakia ipini, ez da Berlangak gogoan zeukan soinekoa ezagutuko duenik.

Ez dut teatro-gaiak aipatzeko ohiturarik, teatrora joateko ere gutxi. Ohitura hori behingoz haustea ez da horratik bekatu larria izango. Hots handikoa izan da Madrilen Buero Vallejoren azkeneko obra: *Un soñador para un pueblo.* Ongi josia eta ongi emana dago, ene hitzak ezer balio badu. Bada, ordea, besterik ere. Pertsona na-

gusia Esquilache siziliarra da, harako Madrilgo kale-argitzaile eta garbitzaile, baita kapa eta kapelu zaharren etsai hura. Egilea, jakin behar da, Esquilacheren alde dago: hobeto esan, Esquilache hartu du aitzakia maite dituen gauzak goratzeko. Alegiaren mami gordea batera azaltzen dute batzuek eta bestera besteek. Inongo osinean sartu gabe, esan daiteke agian Espainiako XVIII. mendea dakarrela auzitara: gure Gipuzkoan Aita Larramendi eta Azkoitiko zalduntxoak sortu zituena. Ez da ahaztu behar, gainera, Azkoiti-Azpeitietako matxinada Madrilgo Esquilache uxatu zuten zalaparten oihartzuna izan zela. Auzi horretan, nolanahi ere, goragarri agertzen dira, Buero Vallejoren ustez, orduko zenbait buruzagi «argituren» asmoak eta eginak, jendeak, berez nahiz besteren eraginez, ontzat hartu ez bazituen ere.

16

[EGAN 1960, 1-2]

On the beach («La hora final»). Honelaxe hasi zen bertso-kantari Xenpelar, orain ehunen bat urte, sermoi eder bat entzun ondoren: 97

Nere kristabak, birian dator
Azken juizioko eguna,
Jakiña dago begien bistan
Ikusi biar deguna.
Josafateko zelai santuan
Tronpeta-soñu illuna:
Galduak pena eramango du,
Justuarentzat fortuna.

Eta berehala azaldu zizkigun, hitz labur eta zorrotzez, gertakari larri horren aurretik zeru-lurretan agertuko diren seinale harrigarriak. Lehenago ere, euskal literaturaren aurrenetan, zenbait bertso bizi utzi zizkigun Detxeparek gai honezaz. Honek, ordea, apaiza izanik —zertxobait ahazturik bazeukan ere bere izaera, hagitz bestelako neurtitzak egin zituenean—, ez zuen besteren hitzik entzun behar, bera baitzen prediku-lekuaren jabe.

Gaur, elizkoia ez denak ere entzun ditzake horrelako sermoiak kalean edo zineman bertan, eta elizan baino maizago agian. Gisa horretako predikua, eta luze xamarra aukeran, da goien aipatu dugun Stanley Krameren film hau.

Munduaren bukaera eta azken juizioa, beste gauza askoren antzera, aldatuxe dira itxuraz Xenpelarren alditik egungo egunera.

Egan 1960, 97-100; *MEIG* I, 193.-196. or.; *ZP* 93.-97. or.

Inoiz edo behin bai, baina urte luze ugarien buruan nolanahi ere, gertatu behar zuen gertakaria zen hori ordukoentzat. Eta aintzindari nabarmenak, zeru-lurretako nahaste ikaragarriak, izango zituena.

Orain, berriz, geure ondoan ez ezik, geuregan daramagu heriotza, eta nork bereaz gainera, gizaki guziena. Azken honi ihes egingo
98 ziotelakoan bizi ziren lehen gehientsuak eta gaur, erabateko heriotz bidea eskuetan dugunez gero, uste horretan ere ezin egon. Iritsi zaigu, urte gutxiren buruan, arestian, atzo goizean esateko, Bertrand Russellek ikusten zuen aldi atsegin hura: «Lur gainean uranio gehiegirik ezin aurki daitekeenez gero, beldur izatekoa da ez ote litzaigukeen ahituko giza arraza zeharo akabatu baino lehen. Hidrogenoaz balia ahal bagintez ordea, itsasoan hain ugari izanik, arrazoizkoa litzateke gizonak bere burua hilko lukeela uste izatea, gainerako beste pixti otxanagoen onerako».[1]

Eta ez da, dirudienez, zerurik ez lurrik ikaratuko garaiz ohar gaitezen gure azken orduaz. Aski izango omen da, diotenez, norbaitek —ez dakigu nork— botoi kaxkar bat estutzea edo urrutizkin bat eskuetan hartzea. Urrutizkin polit horren erretratuak ere, lasaiago bizi gaitezen noski, zabaldu dituzte batzuek. Beste aldekoek ez dute txintik atera, baina ez dira botoi-faltan egongo.

Giza arrazaren ilunabar tristea pintatu digu Stanley Kramerek film honetan. Botoiren bati eragin diote hasi baino lehen, dei egin du norbaitek urrutizkinen baten bidez. Australia aldean gelditu diren hondarrek ez dure bonba-eztandarik entzun, ez dute zeruraino doan ontto itxurako gar-hodeirik ikusi. Betiko gisan bizi dira, kafe eta gasolina-eskasia gorabehera. Baina, radio berritsuak ixildu ahala, sumatu dute auzokorik ez dutela, ez aldamenekorik ez urrutikorik. Ezta etorkizunik ere, haizeak lasterrago edo geldiago, gogoak ematen dion bezala, dakarren heriotza baizik.

Ausardia behar du gaia bera aipatzeko eta lehenago ere erakutsi du S. Kramerek ez dela zenbait bezain beldurtia. Beste alde batetik, gai hori erabiltzeko era ez da agian berebizikoa. Lau-bost lagunen joan-etorrietan mugatzen duelarik —oinarri izan duen N. Shuteren liburua horrela moldatua aurkitu duelako, beharbada—, esan daiteke berez duen indarrari zerbait ostu diola. Badaiteke gainera guk guzion hiletetan ikuskizun dotoreagoak ikusi eta soinu erdiragarriagoak entzun nahi izatea. Nor bere hil-ohean, berriz hustuko ez duen ohean, etzaten denean bezalatsu izango da, ordea: ez da tron-

---

[1] *Human knowledge. Its scope and limits,* London 1948.

peta-soinurik entzuten, zerua pixkaren bat dardaratzea nahi bagenu ere.

Dei bat egiten digu film honek —dei bat da, hobeto esan, film osoa— zorigaitz beltz hori guzion artean gugandik alden dezagun. Zer egin, ordea, zuk eta nik, irakurle? Ez omen dute fisikoek lanbide itsusi horretan eskurik sartu nahi, baina norbait ari da lanean: igeltseroak ala ikazkinak diren ez dakit. Gobernariek, jakina, goramenez bete dute gure S. Kramer, nahiz Washingtonen nahiz Moskun, baina aspaldixko ikasi genuen jende horiek, zenbat eta bakezaleago ager, orduan eta beldurgarriago izaten direla. Gobernari ez diren bakezaleen bilerak ere ez dira, ausaz, aski: aise bihurtzen baitira gerrazale amorratu: Einstein lekuko, oraingo bonben aita delakoa. Egin, beti bezala otoitz egin daiteke. Eta ez legoke gaizki Malakias dohatsuaren igarkizunak irakurtzea, inon aurki badaitezke. Bospasei Aita Santu gelditzen omen zaizkigu oraindik, esaten didatenez, azken juizio aurretik. Luzaroan bizi daitezela! 99

Il generale Della Rovere. Hiru bekatari ezagun ikusten ditugu hobe bidean film mingots bezain pizkarri honetan. Hona, beraz, dakarkigun ikasbidea: ez dago gizonaz etsitzerik, zein ere galdua dirudien hondamendian barrena. Horrelakorik ikusiak ginen lehenago ere, baina ez gara berehalakoan ikustez aspertuko. Gutxitan mintzen baitu ahoa maizegiko goxoak.

Bertoni alprojaren salbazioa ikusten dugu aurrenik, eta ipuina ez da zeharo asmatua. Trapukerian dabil jeneral-seme hau, hitz adina gezur dariola, alemanek hil berria duten jeneralaren lekuan, nahi badu eta nahi ez badu, ipintzen duten artean, giltzapean dauzkaten Bertoniren herritarrak sala eta sal ditzan. Baina Fortebraccio della Rovereren izen-deiturez jabetu den orduko, eta ez da harritzeko horien pisu astuna nabaritzea, zerbait aldatzen da gure arlotearen barruan. Hasten da salataritzan lehenbiziko hartan, gogo onez edo gaiztoz, baina ari ahala gero eta zailago zaio egotzi dioten egiteko zikina. Eta bere oinez eta oldez abiatzen da heriotzara beste zenbait italiarren ondotik goizalde lainotsu batean. Kontzientziaren eraginak badu noski zer ikusirik horretan: baita ere ordea gezurretan hartzen duen izenaren ederrak. Beti baita gizona bere nagian eta ustelean, Jainkoari eskerrak, itxura jakinik ez duten ametsen mirabe.

Roberto Rosellini dator hurrengo. Lur jorik ikusten genuen azken urteetan, saio adina huts egiten ezkontzan eta zineman. Eta orain, burua jasoko zuela uste zuenik ez zegoenean, zorionezko mu-

gidaren batek itzularazi du gaztetango gaietara, hil zorian dagoen agurea haurtzaroko oroitzapenetara bezala. Ez du beharbada gauza berririk agertu, baina esan digunak, entzuna bagenuen ere, berriz esatea merezi zuen.

Vittorio de Sica, azkenik. Aspertuxe, gogaituxe eta are nazkatuxe genduzkan aterraldirik gabe ikusten genizkion ergelkeriekin. Nola izan zitekeen komeriante baldan hori harako bi film gailen haien gidaria? Oraingoan behintzat, Bertoni della Rovereren itxuran ikusitakoan, barka dakizkioke zenbait bekatu larri sarriegi agertu zaigun txoriburu puztu hari.

100 Ez du Rosellinik *sine ira et studio* kontatu bere ipuina. Gerrateko grinak, gorrotoa artean dela, bizirik daude film horretan. Ez dago bestela aurten ikusi dugun Dmytryken *The young lions*-ekin *(«El baile de los malditos»,* hemen) berdintzea besterik. Dmytryken lanak ez du aitzakiarik: hitzaldi bikaina egiten digu gizatasunezko lokarriak edozein etsaikeria baino etengaitzagoak direla adierazteko. Ez da hotzik nabaritzen honek lau arrastoren bitartez erakusten digun 1944ko Genovan, zakar-pilaz, krakaz, izuz eta nahigabez orakatua agertzen digun hiri hartan.

17

[EGAN 1961, 1-3]

Lotsatzen banau ere, aitortu beharrean naiz ia arrastaka eraman 129
nindutela Ingmar Bergmanen *El séptimo sello* ikustera, baina zorionez eraman ninduten, arrastaka bada ere. «Zazpigarren...» zirelako film gehiegi ikusia nintzen, batetik, eta ez zidaten oroitzapen atseginik utzi. Eta nahiago izaten dut, bestetik, arte-gaietan egiten diren aurrerapenak urruti xamarretik ikusi. Bide ibiliak, betikoak, erosoak eta maldarik gabeak izan ohi dira, ezagunaren ezagunez aspertzen bagaituzte ere. Saioak, probaketak, berriz, ezin uka beharrezkoak direnik, ez bailitzateke bestela lurralde berririk aurkituko. Baina zaharrak erosoak bezain nekagarriak gertatzen dira bide berriak. Hobe da, noski, Góngora edo Joyce irakurtzea bestek aztertu, barrendu eta adierazi dituen ondoren, eta halaz guztiz ezin ditzaket irakur tantaka eta pittinka baizik. Bide berrietan barrena abiatzeko nagitasun hori zabalduxea dago, nolanahi ere: ez ote dute horrelako zerbaitekin topo egiten behin baino gehiagotan euskal idazle berriek ere?

Nere nagitasunak eta nere beldurrek ez zuten oinarririk. Ingmar Bergmanek ez du film horretan hizkuntza berririk asmatu. Ongi dakien eta ongi dakigun hizkuntzan dakarren mandatua, ordea, ohi ez bezalakoa da hagitz. Zineman ohi ez bezalakoa esan nahi dut, mundua bezain zaharra eta arrunta baita gainerakoan.

Zalduna aspaldi utzi zuen jaioterrira atzera itzuli denean, izurrite izugarri batek ilunduak dauzka Suediako lurrak. Izuak eten ditu gizonengan lotsaren eta prestutasunaren lokarriak. Eta itsas ertzean nekeak eragin dion loalditik iratzarri orduko, zain

---

Egan 1961, 129-131; *MEIG* I, 197.-199. or.; *EN* 501.-503. or.; *GA* 435.-437. or.; *ZP* 98.-101. or.

dauka heriotza, janzkiak beltz eta aurpegia zurbil, elizgizon baten gisan.

130 Heriotzaren itxura larriak berritzen dizkio betiko galderak: Jainkoa, hil ondoko irautea ala ezereza. Eta azken orduetan hasten da noranahi, argi eske, bide bila. Jainko bila dabilela esan daiteke. Ez, noski, Orixeren antzera, nahi lukeen Jainko hori ez baitu ezagutzen eta zalantzarik gabe aitortzen. Nolazpait ere ezagutzen du, ordea, Pascalen hura (eta barka besterena baldin bada, Pascalena izan beharrean) egia baldin bada: «Ez zinateke ene bila ibiliko, aurkitu ez baninduzu».

Zaldunari josia ezkutaria doa, gorputzari errainua itsasten zaion bezala. Ez du nagusiaren gogo-urduritasunik ez kezkarik, baina ez da, hemen norbaitek esan duenez, gizonagan aurki daitekeen lohiaren irudia. Ausarta da eta graziak ukitu ez duen gizasemea izan daitekeen bezain ona: gizonki jokatzen du beti eta, gizona den aldetik, ez dio batere zorrik zaldunari. Federik ez du eta ez du fedearen beharrik sumatzen. Bizitzak irakatsi dion jakinduri mingotsa daki eta horrekin hartu du etsia, horrek gogoa ase ez badio ere.

Bergmanek ez du beraz, eta ez da hau merezimendu laburra, ezkutaria beztu nahi izan zalduna areago edertzeko. Halaz ere, ikusleak egingo luke zaldunarekin egin duela bat berak, zaldunarenak direla bere kezkak eta galderak. Miresgarria da, benetan, Jainkoaganako deadar larri hau Iparraldetik etortzea, diotenez munduko gauzetan hain murgildua dagoen Iparralde hotz horretatik. Ez da noski fededunaren deadarra, baina bai bederen fede-gosearen oihua.

Gairik goitarrena ez da ezer zineman ez beste edozein artetan irudi egokietan mamitzen ez bada: zenbat ere jasoagoa gaia, hainbat ere handiagoa izan ohi da erorikoa, mintzaerak laguntzen ez badio. Film honetan ez dago horrelako desegokitasunik: hasieratik azkeneraino, ikuskari beldurgarriak egiaz dira beldurgarri eta atsegingarriak egiaz atsegingarri, behin ere hutsik egin gabe. Azala beti da mamiaren ide jatorra.

Nere begi-adimenak ez dira zenbaitenak bezain zorrotzak eta ez dut esango film honetako sinbolo guztien funts ezkutua —sorgin gaztearena, esaterako— ezagutu dudanik. Egilearentzat berarentzat ere argi eta garbi ote zeuden beti?

Sinbolo berrien artean, pertsona ezagunak ere ikus daitezke *Zazpigarren zigilu* honetan: Joxe komeriantea, emaztea eta semea, gure artean dabilen Familia Santuaren errainu bizia. Gezurra dirudi,

baina egia da zinemak, hain beheratua eta gaitzetsia izan den mintzabide honek, ez duela, mandaturik zuenean, mandatu bat besterik 131
ekarri, behinolako Mendiko Hitzaldi hartako mandatua: zorionekoak gogozko behartsuak, otxanak, urrikaltsuak, bihotz garbikoak, baketsuak... Eta hori fededunengan eta fedegabeengan: Chaplinengan, Caprarengan, Fellinigan, Bardemengan.

Ikusi berria nuen *Psychosis,* beti gogoko izan dudan Hitchcockek bere bekatuzko bizian egin duen bekaturik larrienetakoa. Ez dago berdindu besterik honek ikuslea iharrosteko azkenalderako gorde duen ikuskizun lazgarri hura *Zazpigarren zigilua*-ren bukaerarekin. Gaztelu zaharrean, zaldunaren emaztea ari da irakurtzen, guztiok adi gagozkiolarik: «Eta Bildotsak ireki ukhan zuenean zazpigarren zigulua, silenzio egin zedin zeruan oren erditsubat»[a]. Zeruko ixiltasuna jabetu da gazteluko gelaz. Zain daude eta zain gaude atea noiz irekiko, atean zer ikusiko... Eta ezin burutuzko ixiltasun luzean entzuten dira azkeneko aldiz zaldunaren dei larria eta ezkutariaren erantzun hotza.

Ez dugu atea zabaltzen ikusi. Ezin zezakeen inork erakuts, ez Ingmar Bergmanek ere, ez begik ikusi ez belarrik entzun ez duenik.[b]

---

[a] Apoc. 8,1. [b] I Cor. 9.

IV

CUESTIONES HISTÓRICAS Y CULTURALES

1

J. M. DE BARANDIARÁN, *EL HOMBRE PREHISTÓRICO EN EL PAÍS VASCO,* BUENOS AIRES 1953

Este libro, tan largamente esperado, no se presenta como una reedición de *El hombre primitivo en el País Vasco* (Donostia 1934), cuya disposición, determinada en buena parte por el objeto mismo, conserva en líneas generales.

Si hay mucho del libro antiguo, hay también mucho de nuevo en la obra del señor Barandiarán, lo que justifica el cambio de título. Ha aumentado en primer lugar el material, en gran medida, con hallazgos efectuados sobre todo en el País Vasco francés, debidos muchos de ellos al autor. Y se han modificado también en algunos puntos las conclusiones obtenidas a partir de él. A quien conozca los trabajos del autor no le extrañará que sus conclusiones sean todavía más prudentes —es decir, más precisas— que hace 20 años.

Los restos humanos de Urtiaga, de época aziliense, le permiten afirmar el carácter autóctono del hombre vasco. No deja por el contrario de admitir la posibilidad (pp. 156-157) de que la lengua vasca, de origen asiánico, se introdujera en el país hace unos 4.000 años, traída por un pueblo inmigrante o introducida con otros elementos por un movimiento cultural.

La interpretación de restos materiales prehistóricos por medio de datos etnográficos modernos, tan característica de la antigua obra, se mantiene en la que reseñamos, así como la visión diacró-

---

BAP 9 (1953), 561-562. Reseña de José Miguel de Barandiarán, *El hombre prehistórico en el País Vasco,* Buenos Aires, Ekin, 1953.

nica, en profundidad, de los hechos culturales sincrónicos de época moderna, que resulta tan sugestiva. Se observa sin embargo una reducción en el espacio dedicado a la vida espiritual del hombre eneolítico, reducción debida solamente a una mayor concreción en las ideas y a una mayor concisión en la exposición.

Es interesante señalar que la analogía de concepción religiosa entre vascos de esta época e indoeuropeos que el autor explicaba antes (pp. 78 ss.) como aportación indoeuropea no es mencionada ahora. Parece en efecto que, por no ir acompañada de préstamos lingüísticos, es preferible considerarla con J. Caro Baroja *(Los pue-*
562 *blos del Norte de la Península Ibérica,* Madrid 1943, pp. 202-203) como un caso de paralelismo cultural.

Algunos lectores echarán de menos conmigo el capítulo, aunque breve, dedicado a la romanización en la obra antigua. La que reseñamos termina con la Edad del Hierro tratada con poca extensión. Se trata sin duda de una limitación voluntaria del autor que nos muestra la necesidad de una disciplina especial dedicada a estudiar entre nosotros los albores de la historia. Es una verdadera desgracia que la Edad del Hierro y la época romana sean tan poco conocidas, sobre todo en Guipúzcoa.

Completan la obra dos apéndices utilísimos, un catálogo de los yacimientos prehistóricos del País Vasco y otro de monumentos megalíticos. Leyéndolos es difícil que no salte a la vista la gigantesca labor personal realizada por el señor Barandiarán. Labores personales de esta clase han venido supliendo entre nosotros la falta de instituciones de investigación y enseñanza. Y es consolador ver que, después de la desaparición de Azkue y Urquijo, queda aún entre nosotros un hombre de esa rara especie. Sólo podemos desear que, aparte de su trabajo personal para el que no necesita estímulos, pueda desarrollar también una labor formativa a fin de que para los que se han de llamar sus discípulos no sea una figura lejana, conocida por sus libros, sino el maestro por cuyo ejemplo vivo se adquirió el amor y la técnica de la investigación.

2

GUIPÚZCOA EN LA ÉPOCA ROMANA

⟦I⟧. Las referencias de autores clásicos a poblaciones o accidentes geográficos que pudieran hallarse situados en el territorio guipuzcoano actual son escasas y han sido discutidas *ad nauseam* en los numerosos trabajos, de carácter generalmente polémico, en que se han estudiado, al menos incidentalmente, las antigüedades del País Vasco. No es éste lugar para la reseña de esas discusiones. Me limito, pues, a hacer un breve resumen de los textos. 69

1) *Poblaciones.* Todas parecen haber estado situadas en la costa o en sus proximidades.

Oiasso(n), Oiarso(n). La referencia más antigua la encontramos en Estrabón (III, 4, 10, 161), donde el *Oidasoûna* de los códices ha sido corregido en *Oiasô·na.*[1] Conforme a ella, la población estaba situada junto al Océano, en el confín del país de los vascones y al final de la vía de 2.400 estadios que iba desde Tarraco hasta la frontera entre Aquitania e Iberia.

BAP 12 (1956), 69-94; *SHLV* I, pp. 138-155. ⟦N. de los eds.: las notas al pie, que en la edición original se numeran por apartados, se suceden aquí en una serie única; por su falta de calidad, no hemos reproducido la fotografía de la p. 76 a la que el autor se refiere en el *post-scriptum.* Sobre el origen de este artículo véase lo que señala el autor en el primer párrafo de «Romanización de Guipúzcoa», inmediatamente a continuación en esta edición⟧.

[1] *...dià toúto·n dè tô·n merô·n,* [o *kho·río·n,* cod. *orô·n] he· ek Tarráko·nos epì toùs eskhátous epì tô·i o·keanô·i Ouásko·nas toùs katà Pompélo·na kaì tè·n ep'autô·i tô·i o·keanô·i Oiasô·na pólin hodós esti stadío·n diskhilío·n tetrakosío·n, pròs autà tà tê·s Akouitanías hória kaì tê·s Ibe·rías.*

Plinio *(NH,* IV, 110) cita a *Olarso* en su descripción de la costa norte a partir de los Pirineos, a continuación del bosque de los vas-
70 cones y antes de los *oppida* várdulos.[2] En III, 29 lo había mencionado ya al decir que la anchura de la Hispania Citerior era de 307 millas entre Tarraco y la costa de Olarson.[3]

En Ptolomeo (II, 6, 10) figuran, con su situación, en la costa de los vascones, la ciudad de *Oiasso* y el promontorio del mismo nombre *(Ouaskóno·n: Oiassó·pólis, Oiassó· ákron Puré·ne·s).*

Hoy puede considerarse extinguida la larga y a menudo enconada polémica acerca del emplazamiento de *Oiasso(n).* Tuvieron defensores, generalmente interesados, Orio (Marca, que quería llevar al Urumea la frontera de las Galias), San Sebastián (Camino),[4] Rentería (Gamón) y Fuenterrabía (Moret). Podemos situarla con seguridad en el territorio del antiguo valle de Oyarzun. «Hoy es Oyárzun, con el cabo correspondiente (cabo Higuer). Oyárzun está situado a unos 5 kilómetros al sur-suroeste de Irún, por consiguiente no a orillas del mar, mientras que Oiasso era seguramente puerto de mar... En todo caso tendría a Pasajes como puerto, pues evidentemente aseguraba a los Vascones la comunicación con el mar».[5]

La forma genuina del nombre parece haber sido *Oiarson-,* de que procedería el *Olarson-* de Plinio por una confusión gráfica fácil de explicar. *Oiasso* —obsérvese la *s* geminada— representa una simplificación del grupo de consonantes.

---

[2] *Proxima ora Citerioris est eiusdemque Tarraconensis situs. A Pyrenaeo per oceanum Vasconum saltus, Olarso, Vardulorum oppida...* El *Vasconum saltus,* al que no deberá darse un contenido geográfico demasiado concreto, es probablemente la zona montuosa de los vascones al norte de Pamplona.

[3] *Latitudo a Tarracone ad litus Olarsonis CCCVII.* La cifra ha sido corregida por algunos en *CCC* (A. Schulten, *Los cántabros y astures y su guerra con Roma,* Madrid 1943, p. 186).

[4] Se fundaba principalmente en los límites asignados a San Sebastián por Sancho el Mayor de Navarra en el Fuero concedido en la segunda mitad del siglo XII: *de Ondarribia usque ad Oriam,* lo que se interpretaba en el sentido de que en San Sebastián había estado enclavada desde la antigüedad la cabeza de la comarca. Pero ya no se puede dudar de que San Sebastián, poblada por gascones en la época del citado rey, no es más antigua que su fuero. V. S. Múgica, «Los gascones en Guipúzcoa», *Homenaje a Carmelo de Echegaray,* San Sebastián 1928, pp. 1-29).

[5] A. Schulten, «Las referencias sobre los vascones hasta el año 810 después de J.C.», *RIEV* 18 (1927), p. 232. El artículo completo ocupa las pp. 225-240.

Tritium Tuboricum. Citado por Ptolomeo (II, 6, 65: *Trition Toubórikon),* en los várdulos. Aunque la sitúa en el interior, ha sido repetidamente identificada con la actual Motrico, principalmente por razones lingüísticas —semejanza de nombres—, por más que éstas no han sido siempre las mismas.[6] Garibay suponía que Motrico significaba *monte de Trico* y aludía a una peña de ese nombre. G. Bähr *(Baskisch und Iberisch,* ⟦Bayona 1948⟧, p. 36) piensa en una evolución *Tuboricum* > **But(o)ricu* > *Mu-* 71
triku, forma popular del nombre, que es fonéticamente satisfactoria y propone una etimología céltica *(Tritium am Meer)* poco convincente.

Entre los eruditos del país está muy extendida la idea, de la cual participó el P. Fita, de que su emplazamiento correspondía al barrio actual de Astigarribia, a orillas del Deva.[7]

Es muy dudoso que el corrupto pasaje de Mela (III, 15: ... *deuales tritino bellunte cingit et decium*...) haya de interpretarse *Deua Tritium Tubolicum attingit* o *accingit.*[8]

Menosca. Ptolomeo (II, 6, 9) la coloca en el litoral várdulo. Nombrada en Plinio IV, 110, también en la costa, entre Morogi y Vesperies. No conozco ningún intento de localización de esta población que tenga alguna base y su nombre no parece haber dejado rastro en la costa vasca.[9]

---

[6] ⟦P. de Gorosabel⟧, *Diccionario ⟦histórico-geográfico-descriptivo de los pueblos, valles, partidos, alcaldías y uniones de Guipúzcoa…,* Tolosa 1862⟧ (s.u. *Deva)* se inclina, sin embargo, por Deva: «...a ninguna... convienen mejor las señas del antiguo Tricio... que á la villa de Deva...».

[7] En un documento de S. Millán de la Cogolla del año 1086 se menciona la donación a este monasterio del «monasterio S. Andree apostoli et vocato Stigarrivia, inter Vizcahia et Ipuzcua sito». En una adición de 1108 se dice que la iglesia fue consagrada por el obispo de Bayona: «a Bernardo episcopo de Sancta Maria de Lapurde».

[8] V. A. García y Bellido, *La España del siglo primero de nuestra Era según P. Mela y C. Plinio,* Madrid 1947, p. 58.

[9] Si Fr. Eusebio de Echalar (⟦«Palabras vascas en monumentos romanos»⟧, *Yakintza* 12, 1934, 451-457, p. 456) tiene razón en reducir *Vesperies* a la actual *Vispieres,* cerca de Santillana del Mar, habrá que admitir que Plinio no siguió el orden geográfico. La evolución *Vesperies* > *Vispieres* parece lingüísticamente irreprochable. No obstante, la existencia de dos lugares *Vispeira* en las provincias de Pontevedra y La Coruña (v. Madoz) que suponen una forma antigua **Vesperia* hace pensar que esa denominación, con su alusión a Occidente, pudo haberse repetido en las costas atlánticas (cf. lat. *uesper, uesperus,* etc., y sobre todo gr. *Hespería* «país de Occidente»).

Morogi. En la descripción que Plinio (IV, 110) hace de la costa septentrional, señala, entre Olarso y la «ciuitatum nouem regio Cantabrorum», *Vardulorum oppida, Morogi, Menosca, Vesperies, Amanum portus ubi nunc Flauiobrica colonia.* Si, como parece probable, alguna de estas ciudades estaba enclavada en la costa guipuzcoana, sería *Morogi.*[10] Á. del Valle Lersundi propuso localizarla en la proximidad del vado de Ergobia, cerca de Astigarraga, sobre el Urumea, por donde pasaba el camino que de Castilla iba por Oyarzun a Francia. En un
72 cerro próximo está la iglesia de Santa María de Murguía y a su lado la casa solar del mismo nombre, que recuerda el de Morogi.[11]

Faltan en Guipúzcoa indicaciones medievales de ciudades arruinadas. Quizás la única mención que puede interpretarse así es la de la supuesta donación de Sancho el Mayor (año 1014) al monasterio de Leire.[12] Dona, entre otras cosas, el monasterio de San Sebastián «in finibus Ernani ad litus maris», y entre los términos que en la donación se incluyen figura «illam uillam quam antiqui dicebant *izurum...*». Un poco más adelante se le llama «illa pardina de izurun», en donde ninguno de sus sucesores podrá construir «uillam, monasterium, castrum uel ecclessiam quod non sit ad uestrum uestrorumque sucessorum seruicium uel placitum». La contradicción, sobre la cual tanto han insistido algunos, sería sólo aparente: se trataría de un núcleo anteriormente habitado que estaba ya convertido en despoblado.[13]

---

[10] Schulten *(Los cántabros,* p. 70) ha comparado *Morogui* con *Moro-ika* en los cántabros.

[11] «Algunas conjeturas acerca de geografía histórica de Guipúzcoa», *RIEV* 17 (1926), 425-436.

[12] Fr. Justo Pérez de Urbel, *Sancho el Mayor de Navarra,* Madrid 1950, p. 351: «Podemos decir, en definitiva, que este documento, si en él hay algo aprovechable, no puede ser anterior a 1028».

[13] Parece que fue Gamón el primero en sostener que el documento era falso o al menos interpolado. Sobre la cuestión puede verse S. Múgica, «Donación a Leire. Orígenes de San Sebastián. Iglesias de Santa María, San Sebastián y San Vicente», *RIEV* 26 (1935), 393-422, y ahora R. de Izaguirre, «Historia y toponimia donostiarras. El primer grupo de documentos referentes a San Sebastián de Hernani», en *Homenaje a don Julio de Urquijo e Ybarra,* San Sebastián 1949-1951, III, pp. 335-406. Las interpolaciones son evidentes, pero si el documento tiene alguna base real —lo que parece probable—, ésta es, por su mismo carácter gratuito, la mención de Izurun. Nadie ha podido, en efecto, dar razón por la que hubiera sido interpolada y el hecho de no haber otra memoria de tal población es más bien un indicio de autenticidad.

El nombre de Izurun, que ha sido puesto en relación con el del río Urumea, es también el de una playa de Zumaya.

2) *Accidentes geográficos. El promontorio Oiasso (Oiassó· ákron Puré·ne·s)* final del Pirineo, corresponde sin duda al actual cabo Higuer en Fuenterrabía.

A. Schulten, como se indica más adelante, ha visto en él el *Veneris iugum* de Avieno.

Deva. Ptolomeo (II, 6, 8) pone en los caristios la desembocadura del Deva *(De·oúa potamoû ekbolaí).* Se ha pensado, a pesar de ello, que el río, que separa actualmente en líneas generales los dialectos vascos vizcaíno y guipuzcoano, fue también frontera entre caristios y várdulos.[14] 73

No es necesario insistir sobre el carácter céltico de este hidrónimo que se repite fuera del País Vasco.

Schulten *(Los cántabros,* p. 33) cree que el Deva, que parece conservarse en el *deuales* del citado pasaje de Mela (III, 15), no debe confundirse con el río guipuzcoano sino que se refiere al Deva que desemboca en la ría de Tinamayor.

Magrada. Mencionado al final del mismo pasaje de Mela *(decium aturia sonans sausa et magrada).* Se ha pensado en el actual Urumea o en el Bidasoa, pero el pasaje está desfigurado de tal manera que no fundamenta ninguna reducción.[15]

3) *Vías.* Se ha señalado ya que en tiempos de Estrabón había un camino que conducía de Pamplona a Oiasso. «La calzada seguiría... poco más o menos, su curso por donde va la carretera vieja de Irún a Navarra, marcada en mapas antiguos (Coello, etc.).[16] Seguramente alcanzaba desde Navarra el valle del Oyarzun por Aritxulegi. No se han encontrado, que yo sepa, restos de ella.

---

[14] V. p. ej. J. Caro Baroja, *Los pueblos del norte de la Península Ibérica,* Madrid 1943, p. 79, n. 14. La zona de Oiasso, perteneciente a los vascones en la antigüedad, conserva hoy el dialecto alto-navarro.

[15] ⟦J. I.⟧ Gamón, *⟦Noticias históricas de Rentería,* prólogo y notas de S. Múgica […], San Sebastián 1939⟧, pp. 9-10, pensó ya en localizar en la Aquitania alguno de estos lugares: «Y si éste [Hermolao] tenía en los tarbelos de la Aquitania el río *Adour (Aturus,* y según otro *Aturius* en lengua latina...) no se hubiera equivocado acaso tanto en decirlo que el *Detum Aturiasonans* significa la ciudad que cita de los aturienses [Aire-sur-l'Adour], y que los ríos Sauso y Magrada le bañan. Pero aún esto sería querer adivinar y no acertar con lo que contenía el texto original de Pomponio Mela relativo a la costa de España, y no a la de Francia». A. García y Bellido, *op. cit.,* p. 58, propone *Aturia* = *Adour* y *Decium* = *Dax.* El nombre vasco de esta ciudad es *Akize,* de *Aquis.*

[16] J. Caro Baroja, *Los pueblos del norte,* p. 93, n. 69.

Es antigua la hipótesis de que *Bidasoa* significa «camino *(bide)* de Oiasso».[17] La defendió últimamente J. Caro Baroja *(Los pueblos del norte,* p. 93, n. 69), para abandonarla muy pronto *(Los pueblos de España,* Barcelona 1946, p. 253, n. 34) por considerar anómala la relación entre ambos componentes. Esto es cierto si, como se ha supuesto, se trataba de un nombre vasco; su orden debía ser exactamente inverso *(Oiassobide).* Pero tal vez quepa defender aún esa idea
74 partiendo de una base distinta; la de que se trataba de una designación latina, *Via ad Oiasso.*[18]

Los restos que de esta vía señaló Julio Altadill en Navarra[19] no parecen ser ni mucho menos indiscutibles, pero los hallazgos monetales en el Bidasoa refuerzan la idea de que la calzada seguía aproximadamente su curso.[20]

Más adelante reseño con detalle los hallazgos de Irún.

Los restos de la «Vía marítima de Agrippa» que Pedro Manuel de Soraluce pretendió haber descubierto entre Pasajes y Oyarzun

---

[17] La defendió el P. Moret, *Investigaciones históricas de las antigüedades del Reino de Navarra,* libro I, cap. II, § II, 11 (tomo VIII, p. 36, de la edición de Tolosa ⟦1891⟧). La combate Gamón (pp. 39-40) para proponer otra etimología, completamente inaceptable.

[18] S. de Múgica, *Geografía general del País vasco-navarro. Guipúzcoa,* ⟦Barcelona 1911-1926⟧, p. 1 n. 1: «El nombre de este río aparece en los documentos antiguos escrito constantemente Vidasoa y no Bidasoa, y también en las obras que se han ocupado de él...; pero en la actualidad se ha dado en escribir con B...». También es corriente la forma Vidaso, sin artículo.

[19] *«De re geographico-historica.* Vías y vestigios romanos en Navarra», en *Homenaje a Carmelo de Echegaray,* ⟦San Sebastián 1928⟧, pp. 531-532. Son los siguientes: 1) «una extraña pavimentación» que resultó ser un trozo de calzada, en el nacimiento de la regata de Marín (Almandoz, Baztán), donde aparecieron dos monedas romanas, gastadas pero reconocibles; 2) otro trozo en las cercanías de Lecároz; 3) un puente romano, hoy desaparecido, en Oharritz, un poco más al oeste; 4) otro puente en Reparacea (Bertizarana). También alude, sin concretar, a otro puente en la regata de Echalar. Blas Taracena y Luis Vázquez de Parga, *Excavaciones en Navarra,* Pamplona 1947, I), se limitan a transcribir los datos de Altadill, sin más comentario que un (!) a su mención del puente romano de Reparacea.

[20] Según ha tenido la amabilidad de participarme el señor Caro Baroja, en Vera se descubrió hace ya bastantes años un escondrijo a orillas del río con unas 200 monedas de bronce, que desgraciadamente se dispersaron. Tuvo ocasión de examinar unas 25, de los siglos I y II.

Don José Domingo Larrañaga, de Oyarzun, posee en su colección alguna moneda de bronce aparecida cuando se estaba construyendo el ferrocarril del Bidasoa. Asegura que entonces se hicieron varios hallazgos.

(Euskal-erria 39, 1898, 235-241)[a] deben ser considerados con la máxima desconfianza. Se trata de trozos de antiguos caminos empedrados, generalmente muy estrechos, que se atribuyeron sin la menor prueba a época romana.

De las indicaciones del cosmógrafo de Ravena parece, sin embargo, desprenderse que había una vía que corría a lo largo del Cantábrico por *Sandaquitum, Cambracum* (que Schulten, *Los cántabros,* p. 70, identifica con el actual *Cambraco,* junto a Potes), *Tenobrica,* etc. (308, 15). Pero sería temerario tratar de identificar algún punto en territorio guipuzcoano sin un estudio muy atento.

Una indicación posible, muy sugestiva, a un camino antiguo es el nombre de *Lapitze* del actual barrio de Ventas de Irún, precisamente sobre el camino de Francia. Se puede proponer, a mi juicio, 75
con mucha verosimilitud una etimología basada en el lat. *lapis* «piedra», con el sentido de «miliario»; cf. el nombre de la población navarra *Piedramillera.*[21]

II. *Restos arqueológicos*

